

**Jose Ignazio Gerriko**

**KRISTAU DOKTRIÑA  
GUZTIAREN  
ESPLIKAZIOAREN  
SAIAKERA  
(I)**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Cristau doctriña guztiaren esplikazioaren  
sayaquera (Lenengo liburua edo tomoa)*, José Ygnacio  
de Guerrico. Mendizabalen alargunaren moldiztegia,  
1858.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=731>

# KRISTAU DOKTRIÑA GUZTIAREN ESPLIKAZIOAREN SAIAKERA

EUSKARAZKO PLATIKA  
EDO DOKTRIÑETAN PARTITURIK

DON JOSE IGNAZIO DE GERRIKO,  
MUTILOAKO BENEFIZIADUAK EGIÑA

*Desolatione desolata est omnis terra:  
quia nullus est qui recogitet corde.*  
Jerem. Cap. 12. v. II.

IRUÑEKO OBISPO JAUNAREN BAIMENAREKIN

LENENGO LIBURUA EDO TOMOA

TOLOSAN.

Mendizabalen alargunaren moldiztegian  
1858garren urtean.

# BREVE NOTICIA DEL AUTOR Y SUS ESCRITOS

El Señor Don José Ignacio de Guerrico nació en la Villa de Segura el día 5 de Enero de 1740. Sus Padres Don Marcos, hijo de la misma, y Doña Anastasia de Enalarriaga, de Mutiloa, pertenecian á familias muy honradas. Paso su infancia al lado de sus Padres, y habiendose instruido con perfeccion para la edad de trece á catorce años en la lectura, escritura y Gramática latina, marchó á Madrid á la compañía de su tio Don José de Enalarriaga, Ministro de la Sala de Almonedas del Sacro y Real monte de Piedad, y Archivero de la casa del Excelentísimo Señor Marques de Montelealegre, Conde de Oñate. Habiendo observado en este jóven un despejo extraordinario el Señor Don Felipe de Altolaquirre, hijo de Ataun y Caballero de la distinguida orden de Santiago, del consejo de S.M. y Contador general del Supremo de Indias, le llevó á su casa y compañía con el beneplácito de su Señor tio en clase de dependiente y con destioo en su despacho. En esta época estudió la Filosofia y Teología en el Real Colegio de San Isidro; pero á fines del año de 1761

falleció dicho Señor Don Felipe sin testamento; se procedió á la formacion del inventario, y por el Juez de la Testamentaría, Don Jacobo Joves, fué nombrado el jóven Guerrico depositario de todos los bienes que pertenecian al difunto Altolaguirre, cuyo encargo desempeñó á satisfaccion completa. Por Octubre del año de 1762 ocurrió, la muerte del único Beneficiado de la Parroquia de Mutiloa, Don Juan de Tellería. El jóven Guerrico hizo la correspondiente solicitud de esta pieza ecelesiástica al Excelentísimo Señor Marques de Balmediano, Patrono de aquella Iglesia, y obtenida su presentacion, pensó en abandonar la Corte; pero antes de su salida hizo formal entrega de todos los efectos de la espresada Testamentaria con intervencion del Señor Juez en la persona de Don Juan Antonio de Aramendi, vecino de Madrid, y la del dinero en la del Señor Don Miguel de Altolaguirre, hermano del difunto Don Felipe y Cura Párroco de San Juan de la misma Corte.

Desembarazado ya de todo negocio, volvió á su pueblo de Segura á la compañía de sus amados Padres, con ánimo resuelto de ordenarse de Sacerdote. Muy pronto, en efecto, recibió las sagradas órdenes y ya en 1764 servia personalmente su Beneficio

de Mutiloa. Bien pudiera haber obtenido piezas eclesiásticas mas pingües por las buenas relaciones que tenia en la Corte; pero prefirió siempre el rincón de Mutiloa á las mejores Ciudades. En efecto, allí pasó sus días ocupado en su sagrado Ministerio, siendo un perfecto modelo de virtud para todo el Clero y pueblo bascongado.

Mas, no se contentó el Señor Guerrico con el exacto desempeño de las funciones de verdadero ministro del Crucificado, dedicándose al confesonario y púlpito, sino que como escritor se esmeró en instruir al pueblo cristiano. En efecto, escribió la presente obra de Pláticas bascongadas, en las que se explica con estension y claridad el catecismo del P. Astete. Mucho trabajó, y muchos fueron los pasos que dió á fin de que su obra viera la luz pública para la sólida instruction religiosa de sus paisanos; pero tuvo el sentimiento de concluir la carrera de sus dias sin conseguir lo que tanto anhelaba.

Por el año de 1805 ofreció su obra al M.I. Clero del Arciprestazgo mayor de Guipuzcoa con una esposicion que se presentó en la Congregacion ordinaria del dia 9 de Julio; en la cual se dió comision á los Señores D.<sup>r</sup> Don José Feliz de Amundarain, y Licenciado Don José

Javier de Ayerbe, Vicarios de Mutiloa é Idiazabal para que examinasen la obra con toda detencion, y presentasen su descargo en la inmediata reunion, para en su vista acordar le conveniente.

La Comision cumplió con su cometido. y presentó en la siguiente Congregacion la censura de esta obra; y el Congreso que oyó su lectura con suma satisfaccion, se convenció de la utilidad y grandes ventajas que resultarían al pais bascongado de su pronta publicacion. Pero como el M.I. Clero, sin embargo de que deseaba vivamente la impresion de la obra, se hallaba en aquellas circunstancias muy agoviado con mil gravámenes para costearla, segun se lee en su acuerdo, nombró Comisionados para que invitasen á los impresores de San Sebastian y Tolosa á que se encargasen de la publicacion de la obra á su costa y riesgo; mas habiendo visto el Autor, que estos no aceptaban la invitacion, y que por lo tanto no era posible su publicacion en aquella época, la pidió al M.I. Clero, y se le devolvió sin dificultad alguna. En esto sobrevino la guerra de la independenciam, mientras la que no pudo hacerse gestion alguna.

Tres años despues de ajustada la paz creyó sin duda alguna, el Señor Guerrico habia llegado la época

oportuna para nuevas gestiones, y por Marzo de 1817 presentó una esposicion al Señor Corregidor de Guipuzcoa pidiendo licencia para la publicacion de su obra. Pasó la solicitud al Real Consejo dicho Corregidor, haciendo presente que la obra habia sido ya examinada y considerada digna de publicarse; y que para el efecto tenia también la aprobacion del Ordinario Diocesano. Pero por Setiembre del mismo año el Real Consejo acordó que se le remitiera la obra original para examinarla nuevamente y darla despues el conveniente curso.

Esta inesperada providencia no agradó, como era natural, al Serior Guerrico, que deseaba una resolucion pronta y definitiva; y por Febrero del año siguiente, hizo un recurso á S.M. en el que manifestando los obstáculos que encontraba en el Consejo para la publicacion de su obra, solicitaba su Real licencia para su impresion. Pero S.M. mandó que pasase al Consejo; el cual fué de parecer de que se ordenase al Autor tradujera su obra al Castellano para examinarla. El M.I. Clero que descaba vivamente favorecer con su influencia al Señor Guerrico en este negocio, apenas tuvo noticia de una providencia tan estraña, recurrio tambien por su parte á S.M. con una esposicion enér-



gica, haciendo mencion de la que elevó el Señor Guerrico; pidiendo que no se le obligase á cumplimentar la providencia dictada por el Consejo; y suplicando se dignase hacer la gracia de favorecerle con su Real licencia para la impresion de su obra, alegando para ello poderosas razones.

No parece que este recurso del M.I. Clero tuviese tampoco el resultado que tanto se deseaba; ni se halla documento, ni noticia alguna posterior sobre este asunto; y es muy probable que los trastornos políticos de los años siguientes paralizasen todo. De modo que el Señor Don José Ignacio de Guerrico bajó al sepulcro el dia 23 de Febrero de 1824 á los ochenta y cuatro años de su edad sin haber tenido el consuelo de que sus escritos vieran la luz pública en sus dias.

El M.I. Clero en sus Congregaciones generales de los años de 1847, 48, y 49, deliberó nuevamente acerca de la publicacion de las obras asi del Señor Guerrico, como de Don Juan Bautista de Aguirre, Rector que fué de Asteasu y Diputado general del mismo Clero; y por fin acordó la impresion de ambas. En efecto obtenida la licencia del Escelentísimo é Ilustrisimo Señor Obispo de Pamplona, se dió principio con la obra del Señor Aguirre, pero tambien en esta ocasion se vió

precisado el M.I. Clero á suspender la publicacion de la del Señor Guerrico hasta otro tiempo mas oportuno; por quanto no tenia medios para costear a la vez ambas impresiones. Por fin facilitada felizmente ahora por el desprendimiento de una respetable Señora, que ha dejado en el pais no escasos sentimientos de su piedad y beneficencia, se ha realizado al cabo la impresion de dicha obra con todo esmero y cuidado; y sale á luz á los cincuenta y ocho años de haber sido escrita por el Autor y á los treinta y cuatro de su fallecimiento.

No será fuera del caso hacer aqui mencion de otros escritos del mismo Señor Guerrico, muy apreciables seguramente y que por desgracia aun quedan ineditas.

Y son: 1.º Un extracto ó compendio de las Platicas bascongadas comprendidas en la presente obra, en Doctrinas cortas de seis minutos, poco mas ó menos, cada una, con alguna declaracion y algunas pequeñas reflexiones en los puntos mas necesarios, para que no se omita, (dice el Autor) á lo menos esta corta esplicacion aun en circunstancias en que el Párroco tenga poco tiempo para el púlpito, y se instruya á todos con frecuencia con poco trabajo y sin enfado de los oyen-

tes. Este Compendio escribió el Señor Guerrico el año de 1806.

2.º La letra del Evangelio con una breve explicacion, desde la Dominica 1.ª de Adviento hasta la Quincuagésima inclusive; que son catorce en todo.

Y 3.º Un brevísimo compendio de la Historia sagrada en pocas hojas.

Tampoco dejará de ser oportuno poner en noticia de los Señores Suscritores á esta obra que el Señor Don Agustin de Otaegi, Rector que fué de la Parroquial de Beizama, escribió tambien una Coleccion de Platicas bascongadas, que dejó á su propia Iglesia, y su impresion es deseada tambien por cuantos tienen conocimiento de ella.

**J.J.I.**

# **PROLOGO DE LA IDEA, METODO Y DIVISION DE LA OBRA BASCONGADA, CUTO TITULO TRADUCIDO AL CASTELLANO ES: ENSAYO**

De la explicacion de toda la doctrina de Jesu-Cristo dispuesta y repartida en pláticas bascongadas por el Presbítero Don José Ignacio de Guerrico, Beneficiario de Mutiloa en la Provincia de Guipuzcoa en su Dialecto Guipuzcoano para enseñar desde el púlpito cuando los Párrocos no lo hagan de memoria en lectura de veinte minutos poco mas ó menos cada vez á todos los bascongados de una misma manera con poco trabajo todo lo que deben saber y obrar para hacer una buena vida cristiana, hasta que salga otra mejor. Y á continuacion se proponen unas reflexiones muy importantes sobre la gran necesidad, y utilidad de hacer por lo comun la instruccion catequística, y exortacion general de los pueblos por medio de la lectura pública desde el púlpito en todas las Parroquias

de España en un gran catecismo práctico arreglado al Romano de San Pio V. con la autoridad de los Prelados Eclesiasticos y apoyo del gobierno supremo.

## **ADVERTENCIAS**

Lo primero doy el nombre de Ensayo á esta obra por ser la primera en bascuence: y espero que aunque imperfecta todavia, sirva para facilitar la instruccion de los pueblos hasta que salga otra mejor, y que sera motivo para excitar el celo de otros para perfeccionarla, pues creo que en el pais bascongado hay muchos sugetos, asi en el clero secular, como en el regular mucho mas capaces é instruidos, que yo, asi en el lenguaje bascongado, como en el fondo de las materias, para formar con mas perfeccion esta clase de obra, destinada para instruccion general de los pueblos. Pero en el interin que llega á mayor perfeccion, con sola su lectura pública seguida, y continuada podrán los párrocos, y Catequistas bascongados cumplir exactamente con su obligacion: y libres del gran cuidado, y trabajo de formar pláticas doctrinales, y morales en bascuence y de decirlas de memoria en todos

los domingos, y fiestas solemnes; podrán desempeñar con mas facilidad las demas obligaciones de su ministerio.

Lo segundo advierto, que aunque el saber y entender bien la doctrina es absolutamente necesario para salvarse, el saberla solo no basta, si no se aborrece y evita el pecado, y sino se ama y egercita la virtud: y por tanto en estas doctrinas á la instruccion exacta de las verdades cristianas se junta siempre la exortacion á la reforma interior: esto es, á refrenar las pasiones desordenadas, y vivir segun el espiritu de Jesu-Cristo, que nos enseña en su Evangelio.

Lo tercero, para que la instruccion sea mas solida y mas abundante, y para evitar mas la atencion, y aun la curiosidad, y deseo de saber cosas útiles, é importantes, se ha incluido en las doctrinas lo mas sustancial de la Historia Sagrada, segun el consejo de San Agustin; y especialmente se dan á conocer los grandes males, que nos trajo el pecado original, heredado de nuestro padre Adan; y los innumerables bienes, que nos ha traído Jesu-Cristo, nuestro Redentor y Maestro.

Lo cuarto, despues de dar una idea del método y division de la obra manifiesto claramente la gran necesidad y utilidad de hacer por lo comun la instruc-

cion del pueblo por medio de la lectura pública en la Iglesia, no solo en el país bascongado, sino también en todos los reynos y dominios de España: y deseo, que todos y especialmente los Ilustrísimos Señores Obispos y los Consejeros de nuestro católico Monarca lean, y reflexionen los motivos de dicha necesidad, y por eso principalmente doy este Prólogo en lengua castellana: y añado que si se logra establecer esta instrucción general de los pueblos, se logrará también con facilidad, é insensiblemente la instrucción separada respectiva de niños, y jóvenes de todas clases en las Iglesias, en las escuelas, y en todas las familias: de cuya falta vienen regularmente todos los vicios, y con ellos todos los males espirituales y temporales de todo el Reyno, de que hablaré más adelante: y desde luego paso á hablar de él.

## **METODO Y DIVISION DE LA OBRA**

Lo primero me he propuesto seguir el orden de las preguntas, y respuestas del catecismo del P. Gaspar Astete, que es el que se usa en el país bascongado, y en Castilla la vieja, añadiendo otras muchas pregun-

tas para mayor esplicacion. Lo segundo arreglar-me á las doctrinas del catecismo Romano, ú de San Pio V. en lo que enseña y en lo demas á las doctrinas de Autores clásicos las mas sanas y útiles al pueblo. Y lo tercero proporcionar las pláticas para la lectura de veinte minutos poco mas ó menos: y daré la razon brevemente.

Y lo primero me ha parecido necesario seguir el órden de las preguntas y respuestas del Catecismo del P. Astete, por que, aunque muy diminuto en algunas cosas muy esenciales, es el único que aprenden los bascongados; y es mucho mas fácil, y útil explicarles lo que ya saben, pero no lo entienden bien, que querer introducir otro Catecismo , á que es muy difícil acostumbrarlos, sin mucho trabajo suyo, y de los que intentaron enseñarselo, especialmente á los innumerables labradores que no saben leer: pero he añadido por necesidad muchas preguntas y respuestas para mayor esplicacion de las cuatro partes de la doctrina cristiana: y observo el método de proponer en el exordio el asunto de cada plática, su division y su necesidad, é importancia para conciliar la atencion, y hago la esplicacion en dialogo, ú conferencia familiar, y en



el epilogo exorto á sacar el fruto correspondiente al asunto.

Lo segundo he cuidado de arreglarme á las doctrinas del catecismo Romano formado de orden del Santo Concilio general de Trento y dirigido por el Papa San Pio V. á todos los Párrocos de la Iglesia Catolica Romana, para instruccion uniforme de todos los pueblos en las verdades de la Religion católica, por ser el catecismo mas autorizado que tenemos en la Iglesia; pero como no está dirigido inmediatamente á los mismos pueblos, sino á los Párrocos, y en muchos puntos, que no esplica, los remite á la Santa Escritura, y á los Santos Padres, y Doctores ó maestros de la Iglesia, que han esplicado el dogma, y la moral cristiana; me he valido por necesidad de obras de autores clásicos de la mas sana doctrina en lo dogmático, moral y místico: y no los cito por menor por no abultar este Prólogo; y solo advierto que igualmente aborrezco las doctrinas laxas y rígidas, porque las unas ensanchan demasiado la moral, y fomentan el vicio, y las otras con el título de mayor seguridad conducen á muchos á la desesperacion: y procuro buscar siempre en cuanto pueda lo mas verosimil, ó mas conforme á la verdad: pero como mis luces son muy cortas, me

puedo engañar, y así en las cosas controvertidas sugeto mi juicio no solo al de la Iglesia y sus Pastores, sino tambien á otros Maestros mas sabios y mas prudentes: y me someto con gusto á su dictamen.

Y lo tercero me ha parecido conveniente proporcionar las pláticas á la lectura de veinte minutos, poco mas ó menos, para no fatigar demasiado á los oyentes, y dejarlos con ganas de asistir á las pláticas: y por que alguna que otra por la abundancia del asunto ha salido mas larga de lo regular, se pueden con facilidad dividir para dos lecturas; pues para eso están repartidas en distintos puntos. Y por lo mismo siempre que, ó por el mal temporal, ó por las ocupaciones de la Iglesia convenga acortar la plática, se podrá dividir para dos dias, y continuar la segunda parte en el dia próximo festivo, acordando brevemente lo que se dijo en la anterior.

La obra está dividida en las cuatro partes principales de la Doctrina Cristiana como la del Padre Astate.

En la primera parte, y en la primera plática ó lectura de la introduccion se declara, en que consiste la verdadera felicidad del hombre, y para lograrla, la necesidad y dicha grande de ser Cristiano no solo en el nombre sino en las obras. En la segunda plática, la

señal de la Santa Cruz: modo de hacerla, sus misterios, y el amor que Jesu-Cristo nos manifestó en ella: en la tercera la division de la doctrina y la necesidad de saber y entender sus cuatro partes: en la cuarta y quinta la necesidad de la feé: noticia del símbolo de los Apóstoles: y las pruebas principales de la divina revelacion de las verdades contenidas en la Santa Escritura, y tradicion: en la sesta y séptima la existencia de un Dios; sus perfecciones mas conocidas; y el misterio de la Santísima Trinidad. En la óctava, nona y décima la historia de las obras de la creacion en general; y la de los Angeles y la del hombre en particular; y pruebas de su inmortalidad. En la undécima y duodécima la historia exacta del pecado original y sus funestas resultas; y la necesidad y esperanza de su remedio por nuestro Divino Salvador. Y en las seis pláticas siguientes el compendio de la Historia Sagrada desde Adan hasta la venida de Jesu-Cristo: y sucesivamente en muchas pláticas separadas la historia y doctrina de los misterios de la Encarnacion del Verbo Divino, Visitacion de la Virgen Santisima á Santa Isabel, Nacimiento de Jesu-Cristo, Circuncision, Epifanía, Presentacion en el Templo, huida y vuelta de Egipto á Nazaret: lo ocurrido en el Templo á los doce años; y su

vida oculta hasta los treinta años; y á continuacion, su vida pública; Bautismo, Tentaciones, Milagros y Doctrina; su pasion y muerte con extencion; Resurreccion; Ascension; venida del Espíritu Santo; Establecimiento de la iglesia, y notas de su verdad, é infalibilidad; la comunion de los Santos; el perdon de los pecados; la resurreccion de la carne; y la vida perdurable; con la esplicacion exacta y consideracion de la buena y mala muerte; del juicio particular; del juicio universal; de la gloria eterna; de las penas del infierno y su eternidad: y de las penas del purgatorio en pláticas propias: y últimamente la esplicacion de la Bula de la Santa Cruzada, para aliviar este trabajo anual á los Párrocos. Y asi en la primera parte de la doctrina se encuentran la historia abreviada de la Religion, de sus Dogmas y Misterios mas principales: abundante materia de oracion y consideracion y los motivos mas eficaces para exortar al pueblo á aborrecer el vicio, y vivir cristianamente. Todo en cuarenta y tres pláticas.

En la segunda parte en otras diez pláticas se explica con claridad lo perteneciente á la necesidad y utilidad de la oracion; el modo práctico de hacerla con fruto acompañada con alguna meditacion y consideracion; y á continuacion con bastante extencion se

declaran el Padre nuestro, la Ave Maria y la Salve; y la devocion verdadera de la Virgen Santísima.

En la tercera parte se esplica igualmente la Moral Cristiana práctica; que consiste en evitar el pecado y exercitar la virtud. Y despues de hablar en dos pláticas del pecado mortal y del venial, y en siete pláticas de los siete pecados capitales y sus remedios, se declaran las cuatro virtudes cardinales; y á continuacion los mandamientos de la ley de Dios y de la Iglesia, tratados menuda y practicamente: todo en cuarenta y un pláticas.

Y últimamente en la cuarta parte se esplican del mismo modo lo tocante á la gracia habitual ó justificante; y á la actual y excitante; los Sacramentos en general, y cada Sacramento en particular con bastante extension, especialmente los de la penitencia, comunion y matrimonio; todo en veinte pláticas: y las de la primera y segunda parte compondran un tomo en 4.º y las de la tercera y cuarta parte el segundo tomo: y á continuacion de este Prólogo en lugar de Indice alfabético se ha puesto en castellano una tabla analitica de todos los asuntos de cada plática bascongada con dos advertencias para los bascongados y castellanos.

*Necesidad y utilidad grande de hacer por lo comun  
la instruccion y exortacion general de los Pueblos  
por medio de la lectura desde el púlpito,  
no solo en el pais bascongado,  
sino tambien en todos los dominios de España,  
en un Catecismo práctico arreglado al Romano.*

El titulo mismo de Ensayo de esta primera obra bascongada «para enseñar desde el púlpito en lectura de veinte minutos cada vez á todos los bascongados de una misma manera con poco trabajo todo lo que deben saber y obrar para bacer una buena vida cristiana, hasta que salga otra mejor.» Manifiesta claramente el fin principal de esta obra, que es facilitar en todas partes la instruccion necesaria de los pueblos quitando de un golpe todos los embarazos, que hasta ahora ha habido, los hay al presente, y los habrá siempre para esplicar *con la debida claridad, exactitud, frecuencia y uniformidad* las cuatro partes principales de la doctrina cristiana, sino se adopta generalmente el método facil, sólido, y uniforme de la lectu-

ra desde el púlpito con la autoridad de los Prelados Eclesiásticos y con el apoyo del Gobierno supremo.

A la verdad, no hay asunto alguno en que interesa mas la felicidad eterna de las almas y aun la temporal de los Reinos, como es la debida instruccion de los pueblos en nuestra Santa Religion: lo que se conoce con toda evidencia haciendo una pequeña reflexion á los innumerables bienes espirituales y temporales, que trae consigo la debida instruccion en la religion; pues con su práctica todo está en buen orden con Dios, con nosotros mismos, y con nuestros prójimos; y sin ello todo es desorden, todo es vicio: y son incomparables los males y desdichas que nos acarrea á todos la ignorancia de las verdades prácticas de la Religion Cristiana. Y por tanto, asi el mismo Dios en las Santas Escrituras, como Jesu-Cristo nuestro Divino Maestro, y sus Santos Apóstoles y demas Santos Padres y Doctores de la Iglesia, como esta en sus Santos Concilios generales y estatutos de los Papas y de los Obispos ninguna cosa encargan y mandan mas estrechamente que la debida instruccion en la Ley de Dios. Y como esta verdad es tan clara y conocida de todos, no hay necesidad de entenderme en sus pruebas.

Pero no obstante, ó sea por la malicia del Demonio, nuestro enemigo comun, ó por justo castigo de Dios, la esperiencia enseña que no se hace todavia generalmente aun en medio del Cristianismo en la mayor parte de las Parroquias, como lo tiene mandado nuestra Santa Madre la Iglesia Católica Romana, la instruccion Catequística necesaria, para que los pueblos entiendan bien las obligaciones practicas de la vida Cristiana, esplicadas en las cuatro principales partes del Catecismo Romano y arreglen á ellas su conducta ú modo de vivir. Pues los mas de los Párrocos (aun de los que predicán con frecuencia) solamente se contentan por lo regular con hacer algunas exortaciones, ú reprensiones morales, sin tomar el trabajo de explicar con claridad, y con exactitud los puntos mas necesarios para hacer una buena vida Cristiana, ya sea con respeto al conocimiento debido de las verdades contenidas en el credo, ya sea el modo práctico de hacer la oracion con fruto: ya sea á las obligaciones generales y particulares, que nos imponen los mandamientos, respecto de Dios, de nosotros mismos y de nuestros proximos, no solo en lo exterior, sino tambien en lo interior; é ya sea á las disposiciones necesarias para recibir con fruto los santos Sacramen-



tos y especialmente los de la Penitencia y Eucaristía. Pero sobre todo omiten regularmente la explicación exacta de las grandes verdades que sin el fundamento y cimiento sólido de la vida Cristiana, que es el dar é imprimir en todos, sean grandes, sean jóvenes, ó niños, que se disponen para la primera comunión, una idea clara y distinta no solo del fin eterno, dichoso y feliz, para que Dios crió á nuestros primeros padres Adán y Eva y de los grandes dones de gracia y justicia original que para lograrlo les dió en el estado de la inocencia para sí y para todos sus descendientes; sino principalmente del pecado horrible de soberbia, é inobediencia (llamado original) que por instigación del Demonio cometieron, quebrantando el mandamiento fácil, que Dios les impuso de no comer la fruta vedada con que perdieron para sí y para nosotros aquellos grandes dones y nos trageron los innumerables males y miserias que todos experimentamos así de parte del cuerpo, cuyas enfermedades, molestias y muerte, frutos de aquel pecado, nos son mas conocidos; como de parte del alma, cuyos males espirituales mayores y mas funestos no se conocen facilmente, sino se explican con exactitud, y sino se consideran atentamente: y son no solamente la pérdida de la gracia y de la glo-

ria, y la condenacion á un infierno eterno, si con el Bautismo no se quita aquel pecado; sino tambien, aun despues de perdonado, esta ignorancia y ceguedad grande, que todos heredamos, para conocer las cosas espirituales; esta perversa inclinacion y fuerte propension que todos tenemos á los bienes caducos y gustos breves y pasajeros de este mundo; esta grande repugnancia para reprimir, y vegetar nuestras pasiones desordenadas, y especialmente la soberbia y ambicion, la avaricia y codicia insaciable del dinero; la lujuria ú apetito grande de los placeres del cuerpo; la gula y sensualidad; la colera; la embidia; y esta pereza, tedio, desidia, flogedad é insensivilidad, que tenemos para buscar los bienes espirituales y eternos; y al mismo tiempo la ansia y afan con que nos ocupamos en buscar los temporales: á que se juntan las continuas tentaciones del Demonio, los malos exemplos, y burlas de los mundanos; las continuas sugeriones de la carne; y los peligros y ocasiones que nos rodean por todas partes. Todo lo cual nos viene del pecado original, y prueba claramente la necesidad absoluta, que teniamos de un Salvador, que fuese nuestro Redentor, nuestro Soberano Medianero con Dios y nuestro verdadero Maestro celestial; y nos des-

cubre la infinita é incomprendible bondad de nuestro Dios, que ha querido de pura gracia darnos á su eterno y propio hijo , hecho hombre, no solo para redimirnos y sacarnos de la esclavitud del Demonio, y del pecado á costa de su Pasion y muerte, reconciliarnos con su eterno Padre y volvernos los derechos perdidos; sino tambien para enseñarnos con su exemplo y doctrina y ayudarnos con su gracia á hacer una vida nueva, enteramente opuesta á las viciosas inclinaciones de la naturaleza corrompida, y merecer la vida eterna.

De esta doctrina fundamental se infiere claramente lo primero la necesidad indispensable de creer con humildad las verdades que Dios ha querido enseñarnos; pues que nuestro entendimiento por mas despejado que sea, es como un topo, sin la luz de la fé para entender cosas tan sublimes. Lo segundo la necesidad de desconfiar de nosotros mismos, y de poner toda nuestra confianza en la gracia y socorro de Jesu-Cristo, y de pedirla continuamente, pues que nuestra voluntad esta cegada por las pasiones, y es como un pobre enfermo, tullido, flaco y desvalido y mas inclinado al mal que al bien; y con sus debiles fuerzas nada puede hacer por si solo en el negocio importantísimo

de la salvacion, pero todo lo puede con la gracia de Jesu-Cristo. Lo tercero la necesidad de aprender y entender bien la doctrina de Jesu-Cristo que nos la enseñó no solo de palabra sino tambien de obra con el exemplo de todas las virtudes; y lo cuarto especialmente la necesidad de velar y pelear continuamente contra nuestras perversas inclinaciones y pasiones desordenadas, y particularmente de ser á imitacion de Jesu-Cristo mismo, humildes y mansos de corazon, y de ser caritativos, compasivos y sufridos con nuestros proximos; pues sin estas virtudes en algun grado es imposible guardar los mandamientos de la Ley de Dios.

Digo pues, que estas y otras grandes verdades practicas, necesarias á todo buen Cristiano no se aprenden, ni se enseñan en los pequeños catecismos destinados para enseñar á los niños y para examinar en doctrina á todos los de el pueblo, ni tampoco regularmente en las pláticas ú sermones Morales de mera exortacion ú reprehension, que producen muy poco fruto, por que suponen al auditorio bien instruido y no lo instruyen en sus obligaciones. Y, exceptuando á los Cristianos, que manejan libros de solida doctrina, y á los que logran la dicha de tener Párrocos ó Catequis-

tas celosos y practicos en explicar exacta y frecuentemente toda la doctrina Cristiana, todos los demas Cristianos de todas clases y estados, grandes y pequeños no saben con fundamento la doctrina Cristiana práctica por falta de la debida esplicacion: y de aqui se sigue naturalmente la relajacion de costumbres que se advierte generalmente; y que muchísimos que parecen buenos Cristianos en lo exterior son en lo interior unos pobres ignorantes, que no saben su religion, sino por la corteza y muy superficialmente. Y como flacos, é inclinados al mal, puestos en la ocasion se dejan vencer con facilidad, de la pasion y tentacion, ya de robar ó defraudar: ya de la códera y venganza: ya de la gula y embriaguez: é ya de las diversiones indecentes y provocativas de bayles: ya de la inclinacion á los juegos de cantidad notable, escandalosos y perjudicialísimos asi mismos y á sus familias; é ya de otros innumerables desordenes que se van perpetuando por ignorancia culpable de las obligaciones cristianas, á que se sigue la falta del santo temor de Dios y el acostumbrarse al vicio: y de aqui vienen todos los males espirituales y temporales de las Familias, de los Pueblos y de todo el Reyno, como al contrario á una educacion buena y sólida, é instruccion

frecuente en la niñez, en la juventud y edad madura se debe regularmente la reforma interior de las pasiones, la debida obediencia á todos los superiores y la practica constante de las virtudes cristianas y con ella la paz y tranquilidad general & &.

Digo pues igualmente que con todos los remedios tomados hasta ahora, no se halla establecida, ni practicada por punto general la esplicacion necesaria y debida instruccion de la doctrina cristiana en sus cuatro partes principales; y por consiguiente hay mucha, y muy crasa ignorancia de las verdades prácticas, y hay absoluta necesidad de esplicacion exacta, sólida, frecuente, y uniforme de la doctrina cristiana, no solo para los niños y jóvenes, sino tambien para todo el Pueblo, asi en lo perteneciente á la Feé católica, como á la Moral, ó modo práctico de vivir cristianamente. Y que sino se adopta el método de la lectura pública en las Iglesias, continuarán los embarazos que hasta ahora han tenido los Párrocos y catequistas para hacer de memoria dicha esplicacion con la debida exactitud y frecuencia: y subsistirá la ignorancia con gran peligro de perder la Feé, y las buenas costumbres. Y para evitar estos males tan grandes y lograr los innumerables bienes que trae consigo la instruc-

cion exacta de la Ley de Dios y para que todos tengan *un mismo modo* en enseñar y no haya el grande inconveniente de la diversidad de opiniones que causan escandalo al pueblo no hay *otro medio ni mas pronto, ni mas fácil, ni mas solido, ni mas permanente*, que el de poner en manos de los Párrocos y Catequistas una misma explicacion de toda la doctrina cristiana *dirigida al Pueblo*, fijando en cada Parroquia un exenplar á costa de la Fabrica de la Iglesia, como libro Parroquial autorizado por todos los Prelados Ecclesiasticos con orden á todos los Párrocos y sus Tenientes de hacer en todos los Domingos, y dias solemnes al tiempo de la misa popular la lectura pausada de dicha explicacion seguida y continuada: cuando ellos mismos *no la quieran hacer de memoria*. Y para su puntual observancia los Prelados Ecclesiasticos deberán encargar en cada partido á personas de toda virtud y confianza les avisen cualquiera falta culpable en un asunto tan importante para todos. Lo que conviene estender igualmente á las Iglesias de los Regulares á donde acude mucha gente para que sea mas general la instruccion y su fruto. Y asi, aún en los tiempos en que los Párrocos ó por falta de salud ó por otras ocupaciones ó ausencias justas ó por falta de

libertad y desembarazo para explicar de memoria, ó por falta de vóz no predicasen: ó por no poderse encontrar sustituto, ó Vicario interino práctico en el púlpito, en tiempos de vacantes, faltase la doctrina; con el medio fácil de la lectura de la doctrina desde el púlpito, ó por si, ó por otro Sacerdote, se asegura para siempre la instruccion necesaria de todos los pueblos: que es una ventaja imponderable. Y en la sustancia no es nuevo este proyecto, sino muy antiguo, y muy recomendado con Exortos é Indulgencias por los Ilustrísimos Señores Obispos de España y Portugal, como muy necesario para instruir al pueblo con la lectura desde el púlpito: á cuyo fin escribieron sus doctrinas catequistas el Venerable Fr. Bartolomé de los Mártires Arzobispo de Braga: y por encargo de la Reyna Doña Catalina de Portugal, el Venerable P. Fr. Luis de Granada: y otra el Venerable P. Juan Eusebio de Nieremberg con el titulo de Práctica del Catecismo Romano, que se ha leído desde el púlpito en muchas partes: cuyo Prólogo es digno de leerse: y aun el famoso catecismo de Pouget, con el titulo de Instrucciones generales, fué formado por orden del Señor Obispo de Mompeller para lectura pública desde el púlpito: y el Prólogo del traductor castellano merece ser leído de



todos. Y solamente en el método, y en el modo, que se desea, y propone mas autorizado, y mas estrechamente ordenado, y mandado se diferencia este proyecto. Y repito, que vista la experiencia de los embarazos que hasta ahora ha habido, y habrá siempre por lo regular para hacer de memoria la explicacion sólida, y frecuente necesaria de la doctrina cristiana, y los muchos, y grandes motivos, (que el Ilustrísimo Señor Don Francisco Valero, Arzobispo de Toledo expone en su grande y célebre Carta Pastoral) «ay para temer que la ignorancia de las verdades cristianas es mayor de lo que se hace juicio, para que *todos*, en cuanto les sea posible, soliciten el remedio» no queda otro ni mas facil ni mas pronto, ni mas sólido, ni mas permanente, ni mas uniforme, que el que se propone de la lectura pública en todas las Iglesias, seguida, y continuada de la explicacion de las cuatro partes de la doctrina cristiana con arreglo al catecismo Romano, *dirigida á los pueblos*: con la autoridad, y mandato de los prelados Ecclesiásticos y con el apoyo del Gobierno supremo. Y con solo este remedio, y no con otro, se cumplirán exactamente los mandatos de los Sumos Pontífices Clemente XIII y Pio VI dirigidos en sus Bulas Enciclicas de 1761 y de 1776, á todos los Obispos

Catolicos, inculcandoles la obligacion estrecha de cuidar, que en sus Obispados se haga por los Párrocos la explicacion frecuente y uniforme de la doctrina de Jesu-Cristo con arreglo á dicho catecismo Romano: como remedio principalisimo de las necesidades espirituales del Pueblo Cristiano: y antidoto, que nos preserve de los peligros de las heregias, y de las novedades impias de los libertinos, que apegados solamente á lo temporal, no hacen caso, ni aprecio de la eternidad de la gloria, ni del infierno: y con su conducta escandalosa, y pestífera atraen á innumerables ignorantes, y flacos a la perdicion eterna. Y espero que Dios nuestro Señor moverá los corazones de los Ilustrisimos Señores Arzobispos, y Obispos de España y de los Consejeros de nuestro Catolico Monarca y de otros innumerables doctos espirituales, y celosos de la nacion para buscar los medios oportunos y eficaces para la egecucion de este importantisimo proyecto: asi con respeto á la formacion de la obra, como á su *uso uniforme* en todos los dominios de España.

Y entonces los Párrocos mismos, (desembarazados del gran cuidado y trabajo de formar por si pláticas doctrinales con su explicacion, y exórto correspondiente) y todos los catequistas, y los padres de

familias; los maestros de primeras letras y de gramática, y aún todos los buenos Cristianos que aspiren á una virtud mas sólida y mas perfecta: encontrarán en la continua lectura de semejante obra clásica y magistral reunido todo lo necesario de dogma, moral y místico para su propio aprovechamiento, y para enseñar facilmente á todos los que estan á su cargo: y de dicha obra se podran extraer y formar los catecismos menores para niños y juvenes con mas uniformidad y mayor provecho: y creo que todos, persuadidos intimamente de la necesidad absoluta de mayor y mas sólida instruccion que la que ha habido hasta ahora, se dedicarán con mas celo, con mas cuidado y con mas aplicacion, á instruir y educar respectivamente á los hijos, domesticos, discipulos y feligreses con el conocimiento mas exacto de las maximas del Evangelio de Jesu-Cristo.

Y con este mismo fin se dá á luz éste Ensayo aunque todavia imperfecto, de la explicacion de toda la doctrina de Jesu-Cristo, repartida en ciento catorce pláticas bascongadas, en dialecto guipuzcoano, que entienden aun generalmente los Navarros, Vizcainos y Alaveses, *dirigidas á los pueblos bascongados*: para aliviar el trabajo de los Párrocos, y catequistas, con su

lectura pública á la que podran ellos mismos añadir si algo se les ofrece necesario, ó conveniente para su pueblo y podran tambien servir particularmente para los nuevos Predicadores y confesores bascongados, asi por la dificultad en el language, como por la importancia de los asuntos; y para que los paisanos amantes del bascuence dentro y fuera del Pais, tengan con la lectura de sola ésta obra motivo para no olvidar su language nativo, y para saber con fundamento la Religion y ley que profesan. Y, sugetando toda la obra y éste Prólogo, como lo hago gustosamente, no solo al juicio y censura de Nuestra Santa Madre la Iglesia Calolica, y sus Pastores, y á mis legitimos Superiores; sino tambien al dictamen de otros mas sábios y mas prudentes, ruego á Dios nuestro Señor que todo lo ordene y encamine para su mayor honra y gloria y para la salvacion de las Almas.

# LENENGO DOTRIÑA, EDO PLATIKA

*1. Gure egiazko zoriona, ditxa eta doatsutasuna zertan dagoan: eta ori iristeko ditugun eragozgarriak: eta 2. zorion ori iristeko, edo alkanzatzeko Kristau izatea, Kristauaren dotriña ondo jakitea eta ari jarraitzea zein gauza bearra, edo premiazkoa dan.*

Nai dezue, nere kristauak, egiazki zorionekoak izan orain eta beti, edo eternidade guzian? Ezta besterik guziok nai deguna, eta benetan deseatzten deguna esango dezue. Bada orretarako nai ta ez lenago ikasi, eta jakin bear dezue, eta iñoiz ere aztu bear eztezue, zertan dagoan zuen egiazko zoriona, oraingoa eta betikoa: eta ori iristeko, edo alkanzatzeko, zer egin bear dezuen. Gaur bada, Kristauaren dotriña Santuaren explikazioari, edo azaltzeari asiera on bat emateko, esan bear dizuet, 1. Gizonaren egiazko zoriona, suerte ona eta gure biotza, ez iduripenaz, baizik egiaz poztutzen duen ditxa, edo zoriona zertan dagoan. Eta 2. ori iristeko, nai ta ez, Kristauak izan bear gerala: eta Kristauaren dotriña, edo Legea ondo jakin, eta ondo

gorde bear degula. Eta orrela uste det alaituko zerate-la Jesu-Kristoren dotriña, egiazko jakinsuak eta zorionekoak egiten gaituana, gogotik ikastera, sarri gogotan erabiltera; eta zuen mendekoai erakustera. Baña orretarako bear degu Espiritu Santuaren argia eta grazia: eta bertatik eskatu dezagun Ama Birjiña Santisimaren bitartez, Abe Maria.

1. Zertan dagoala uste dezue, nere kristauak, zuen egiazko zoriona? Zuen arrazoiari bakarrik, eta zuen barruan daukazuen, bertatik munduan doatsuak edo zorionekoak izateko deseo eta ansiari begiratzen badiozue, usteko dezue, zuen zoriona dagoala emen honratuak eta estimatuak izatean; aberatsak edo ondasundunak izatean; eta erara edo gustora bizitzean; eta gorputzaren atsegin, edo gustoak kezka bage, eta bildur bage gozatzean. Baña betaz eta pasio bage zuen konzienziari berari, munduko esperienziari, eta ezin engañatu gaitzakean gure Jaungoikoak eman digun arrazoiaren eta fedearen argiari begiratu nai badiozue, erraz ezagutu eta aitortuko dezue, engañaturik eta itxuturik zauzkela zuen buruaren eta aragiaren pasio erabageak, edo desordenatuak. Bada, gure Fede santuak, Jaungoikoaren beraren itzean, edo Eskritura Santuan fundaturik, argiro erakusten digu;

gure Jaungoikoak, gure bearrik edo iñoren bearrik ezertako ezpazuen ere, bere kabugabeko guzialtasuna, jakinduria eta ontasuna bere kriaturetan eta obra miragarrietan agertu nai izan duela: eta ezerezetik egin dituala Zeruak eta Lurrak, eta orietan arkitzen diran gauza guziak: eta batez ere Aingeruak, eta gizon, eta emakumeak egin gaituala aren majestadeak bere antzera edo irudira, bera ezagutzeko, bera gure biotz guztitik eta gauza guzien gañean amatzeko: bera serbitzeko eta honratzeko, eta eternidade edo betiraundean (ondo bizi bagera) aren majestadea bere glorian, Zeruko Erreinoan, argitasun guzian, aurpegiz aurpegi ikusteko, alabatzeko, eta bere betiko eta kabubageko ondasunaz, atsegin eta kontentuz, betiko pakean eta deskansuan gozatzeko. Eta nola gure Jaungoikoak, guzian Egille eta guzian Aita onak bezela, guzian zorioneko fiñ orretarako egin gaituan, agintzen digu, berari zor diogun amodioagatik, guziok alkar amatzea gure buruak bezela: geretako nai degun bezela, gure projimo, edo lagun urkoai on egitea: eta iñori bidebagerik, kalterik, edo agrabiorik ez egitea. Orra itz gutxitan esanik zertan dagoan gure egiazko zoriona: eta ori iristeko guziok nai ta ez egin bear deguna. Alabaña orixe da munduko gizon eta

emakume guziak; Erregeak eta aen mendekoak, edo basalloak; andiak eta txikiak; jakinsuak, eta jakinezak; aberatsak eta pobreak; alegre eta triste bizi diranak; agintzen eta obedezitzen daudenak; nagusi eta morroiak; gurasoak eta humeak; guziok daukagun Lege eta obligazio jenerala, nai ta ez guziok gorde bear deguna. Eta Lege orregatik sortzen dira, eta ori obeto gordetzeko dira beste Lege eta obligazio partikular guziak. Eta zenbat obeto Jaungoikoarekiko, eta alkarrekiko amoriozko Lege ori gordetzen degun, anbat geiago gozatuko degu: eta bertatik pake eta deskanso geiago izango degu. Bada orduan gure borondatea, edo nai guzia Jaungoikoarekin bat egiñik edukiko degu: eta gure egiazko zoriona ezin beste gauzetan arkituko degu, Eskritura Santuak ezeze, munduko esperenziak beti erakutsi duenez. Eta ala munduko honra eta estimazio guziak, emengo ondatsun, edo aberastasun guziak, eta atsegin, eta kontentu guziak zeurk bakarrik gozatu al bazintza ere, etziñate orregatik egiaz eta osoro zorionekoa edo ditxosoa izango: eta egia ori beregan ondo probatu zuenak bezela, Salomon guztiz jakinsu eta guztiz aberatsak eskribiturik utzi zigun, eta dio: bere gogoari etziola ukatu nai zuen gusto edo atsegiñik eta etzuela barru-



ko edo biotzeko gozorik arkitu: eta bai espirituko atsekabea eta naigabea ugari. Bada gizonaren biotza, Zerurako egiña dana bezela, Jangoikoak bakarrik kontentatu eta ase lezake. Baña esango didazue; ori guzia egia da, eta gure fede santuak ezeze, orren argiarekin batera gure arrazoiak berak ori sinistu eragiten digu. Nundik dator bada aiñ itxuak, eta munduarekin aiñ josiak egotea, nun gure Jaungoikoa eta gure zoriona ondo ezagutzeko, eta biotz guztitik amatzeko, eta beragatik guziok alkar amatzeko Lege santu eta arrazoizko ori largarik, askoren biotzak, deseoak eta ansiak mundu onetako honra, ondasun eta atsegin laburretan bakarrik ipiñirik dauzkatzen? eta animako zorion egiazkoaz, eta betiko honra, ondasun, eta atsegiñaz bear dan kasorik, edo ajolarik egiten eztuen? Eta birtuteari utzirik, bizioari eta gaiztakeriari darraizkan? Gaitz izugarri orrek sustrai andiak eta asko ditu. Jatorrizko pekatutik, edo Adanegandik eta Ebagandik nun abiatu ziran Jesu-Kristoren jarraitzalleak deitzen Kristauak? Apostolu Santuen denporan: Antiokiako Ziudade edo erri andian San Pablo, eta San Bernabe Apostoluen dotriña, edo sermoiakin Jesu-Kristoren fedea laztandu eta bateatu ziranak abiatu ziran lenengo deitzen Kristauak: eta arrezkero izen orrekin dei-

tzen dira Jesu-Kristoren diszipulu, eta fiel edo fededun guziak.

Eta nor da Kristau egiazkoa: edo Jesu-Kristoren fedea daukana: eta ari darraiona? Kristauaren dotriña-ko egiak ondo dakizkiana: biotzetik sinisten dituana: eta aekin batera ondo bizi dana: Eta zer da Kristauaren dotriña? Ezta besterik baizik sinistu, jakin eta gorde bear ditugun Jesu-Kristoren fedeko, eta Legeko egiak banaka, edo distinzioarekin aditzera ematen dizkigun gure Eliza Ama Santaren erakuste, edo dotriña bat, Jesu-Kristogandik eta Apostoluakgandik ikasi zuena berbera: eta ala ez gizonaren itza, eta dotriña bezela, baizik Jesu-Kristoren beraren itza bezela, gogo bizi, atenzio eta errespeto andi batekin aditu bear degu beti Kristauaren dotriña Santua.

Beraz egiteko andia, bearra, eta guztiz inportantea da. Kristauaren dotriña ondo ikastea, eta ari jarraitzea? Bai, eziñ andiagoa: bada Bateo Santuan pekatu orijinaletik libratu, eta Jangoikoaren grazia, eta Zeruko deretxoa iristen badegu ere, gelditzen zaizkigu, pekaturik datozkigun, jakineza, ignoranzia, eta itxumena: eta gaitzerako griña, edo makurtasuna: eta onerako pisutasuna, eta nagitasuna: eta ori guzia erremediatzeko, eta Zeruko bideari jarraitzeko nai ta

ez bear degu Zeruko argia, eta grazia eta eziñ ori iritsi dezakegu dotriña ondo jakin bage.

Orrela Kristauaren dotriña ikasteko nagitasuna, eta ardurabagetasuna pekatu andia izango da? Nola ere dan andia: eta ala dotriña ondo eztakien txiki, eta andiak, arrazoiaren argira, edo ezaguerara etorri ezkerro, obligazio larria, eta premia estua due Kristauaren dotriña ondo ikasten aritzeko; bestela betiko kondenatuak izateko penaren azpian: eta argatik mirabe gazteak gaizki egiten due, eta Jaungoikoa ofenditzen due, dotriñara joan bagez, gurasoak, edo nagusiak dotriñara bidaltzen dituenen: bada alde batetik, agitz inporta duen langai, edo egiteko onetan obedezitzen ezte: eta bestetik Zerura joateko nai ta ez jakin bear dituen gauzak ikasten eztitue.

Eta gurasoak, eta nagusiak obligaturik daude eren hume, eta mirabeai dotriña erakustera, edo ikasieragitera? Bai: eta baldin berez, edo bestez erakusten ezpadie, Jaungoikoa agitz ofenditzen due: eta beste pekatu batere ezpalue ere, omisiozko, utsegiñezko eta deskuidoazko pekatu orixe luke asko, infernura joateko.

Eta zer pena merezi due bear dan dotriña ondo eztakien Kristauak? Mundu onetan Sakramenturik ez

ematea, eta gero Infernua. Ala agindurik dago, bear dan dotrina ondo jakin bage, konfesatzera edo ezkontzera datozenai, eman eztakiela, ez absoluziorik, eta ezezkantzako Sakramenturik, ondo ikasi artean.

Eta zergatik ori? Zergatik dotriña ondo jakin bage ezin Kristau ona bezela bizi diteke: ezin Bateo Santuan agindu, edo ofrezitu zuena kunplitu lezake. Baña Kristauaren dotriña ondo badaki, eta ari jarraitzeko alegiñak egin nai baditu, bere obligazioak jakingo, eta kunplituko ditu, eta seguru salbatuko da: betiko zoriona iritsiko du: eta betiko zorigaitz, edo desdixatik libratuko da. Eta ala eztiozue begiratu bear dotriña ondo ikasteko lan edo beargai oni gutxi inporta dizuen egiteko bati bezela: munduko anditasun, aberastasun, eta atsegintasun guziak; eta baita munduko beste jakintasun guziak ere, Zeruko dotriña onen balioaren parean ezerezkeria batzuek dira. Kristauaren dotriña Santua da Zerutik etorri zakun jakinduri guztiz andia, gure animako itxumenak kentzen dizkiguna, eta argitasunik, eta ezaguerarik baliosoenak, eta preziatuenak dakazkiguna. Ori guziori erakustea izan zan Aita eternoaren Seme propio bakarrak, beraren betiko sabiduria dan Jesu-Kristok izan zuen lan prinzipaletatik bat. Alabaña etzan gizon egin gu erredimitzeko

bakarrik, baita ere guri Zeruko bidea erakusteko bere ejemplo, eta dotriñarekin. Eta ori bera mundu guziari aditzera ematea, edo erakuslea izan zan Apostolu Santuen lanik, eta egitekorik andiena: eta dotriña orren egia, eta misterio miragarriak probatu, sillatu, seguratu, eta sinistu eragin zituen, ezin kontatu ala milagroekin: eta eren zañetako odola fede orren testimonioan emanarekin. Eta Jesu-Kristoren dotriña ori izan zan Maria Birjina Santisimaren, eta Santu guzien konsiderazio gai betikoa: eta orain ere Kristau onak alegin guziak egiten ditue, dotriña orretan dauden Ebanjelio santuko egiak sarri gogoratzeko, ondo ausnartzeko: eta aekin batera eren bizimoduak moldatzeko, au da, bizioari beti alde egiteko, eta birtuteari jarraitzeko. Eta Zeruko dotriña orren bearra, balioa eta frutu andia txit sarri aitatzen du Eskritura Santuak; ala Lege zarreko, nola Lege berriko liburu Santuetan: baña asko da zuendako aditu dezuena.

Eta orain dakizuen ezkerro, zertan dagoan zuen egiazko zoriona; oraingoa, eta betikoa: eta ori iristeko zein gauza bearra dan Kristau izatea: eta Kristauaren dotriña ondo jakitea: eta ari jarraitzea: Zer probetxu atera bear degu guziok gaurko dotriñatik? 1. Jaungoikoari txit gogotik, eta sarri eskerrak ematea: zerren

guk merezi bage Kristau egin gaituan: eta gure egiazko zoriona zertan dagoan, eta ori iristeko, eta seguratzeko zer egin bear degun argiro erakutsi nai izan digun. Eta 2. Jaungoikoari berari humiltasun, eta konfianza andi batekin Jesu-Kristoren izenean eskatu bear diogu, arren guzioi digula Espiritu Santuaren argia, eta grazia, dotriñako egiak agitz estimatzeko egunoro, eta obeto ikasteko, eta ezagutzeko; eta aekin batera gure bizimodua zuzentzeko. Bada ori da, nere Kristauak, gure lanik andiena, eta geiena balio diguna: au da gure animak salbatzen jakitea. Eta argatik Jesu-Kristok berak esaten digu: (eta sententzia au beti gogoan erabilli ezazue) zer inporta dio gizonari mundu guzia beretzea, galtzen badu bere anima, edo bere burua? Eta orobat dio: niri darraitana, eztabill illunpean, baizik izango du bizitzako argia. Jarrai degiogun bada Jesu-Kristo gure Maisu, edo erakusle soberanoari; eta bere dotriñari: eta seguru betiko bizitza, eta betiko zoriona iritsiko degu. Amen.

# BIGARREN DOTRIÑA

- 1. Zergatik dan Gurutze Santua Kristauaren señalea.*
- 2. Nolako misterio andiak agertzen dizkigun: eta*
- 3. Zenbat zor diogun Jesu-Kristori Gurutzeko bere eriotzagatik.*

Ikusi dezuen ezkeren lenagoko dotriña santuan: zuen egiazko zoriona zertan dagoan: eta ori iristeko Kristau izatea, eta Kristauaren dotriña ondo ikastea, eta ari jarraitzea zein gauza bearra dan: eta bidenabar nolako honra, eta mesede aundia Jaungoikoak egin dizuen, zuek merezi bage Kristau egin zaituelako: eta ditxa eta zorion ori guzia Gurutze Santuan obratu zangure erredenzioko misteriotik datorkigun ezkeren; gaur txit kontuz aditu bear dezue: 1. zergatik dan Gurutze Santua Kristauaren señalea, eta nola egin bear dan. 2. Nolako misterio andiak Gurutze Santuak agertzen dizkigun. Eta 3. Zenbat zor diogun Jesu-Kristori Gurutzeko bere eriotzagatik. Dotriña au guztiz bearra, eta probetxugarria da: eta frutu andi bat ateratzeko, aurretik eskatu dezagun Maria Birjiña Santisimaren bitartez Espiritu Santuaren argia; eta grazia. Abe Maria.

1. Kristauaren señailea zein da? Gurutze Santua? Zergatik da Gurutze Santua Kristauaren señailea? Zergatik Gurutze Santua dan Jesu-Kristo guruzifikatuaren figura, iduria, antza, edo imajiña bat: bada Gurutze Santuan erredimitu ginduzen. Eta zer esan nai du erredimituak izateak? Esan nai du, Jesu-Kristok bere biziaren kostuan Gurutze Santuan gure pekatuen zorra pagatu zuela: Deabruaren mendetik, edo katibetoritik atera ginduzela: eta galdurik gendukan grazia, eta Zerurako deretxoa, edo eskubidea alkanzatu zigula: bada ori guzia Jesu-Kristoren Gurutze Santutik datorkigu: eta argatik ori gogoratzeko Apostolu santuen denboratik asi ziran Kristauak, orain ere gordetzen duen Gurutze Santua egiteko oitura ona artzen.

Zergatik geiago deitzen diogu Gurutze Santuari Kristauaren señailea? 1. Zergatik Gurutze Santuak distingitzen ditu Kristauak, Jesu-Kristogan sinisten ez tuen fedebage guziakgandik. 2. Zergatik Gurutze Santua da Kristauak honratzen duen señaile honragarri bat: orain humillatzen erakusten diona, eta gloria-rik andienara gero jasotzen duena. Eta 3. zergatik Gurutze Santua dan Kristauaren arma indarsu bat, bere animako etsaiak goitzeko, edo benitzeko guztiz egokia: eta Zeruko bendizioak, eta sokorruak iristeko



bide guztiz eragillea; bear dan fede, debozio, atenzio, eta errespetoarekin egiten badegu: baña ez itoka, edo presaka, Gurutzeak ondo distingitu bage, egiten badegu: bada orduan, berez aiñ gauza ona, gaizki egiten degulako, Jaungoikoa gutxi-asko ofenditzen degu: eta Deabruari, iges eragin ordean, atsegin ematen diogu. Kontu bada arren N.K., Gurutze Santua beti ondo egi-tearekin.

Zenbat modulan egiten du Kristauak Gurutzearen señaleara? Modu bitan: Bata da ziñatzea, eta bestea santiguatzea. Zer da ziñatzea? Da egitea iru Gurutze eskuieko beatz lodi, edo aurrenekoarekin: 1. bekokian, 2. aoan, eta 3. bularrean, itz egiten degula Jaungoiko gure Jaunarekin. Erakutsi ezazu nola? Gurutze Santuaren señalearatik + gure Etsaietatik + libra gaitzazu Jaungoiko gure Jauna +. Zergatik ziñatzen zera bekokian? Jaungoikoak pensamentu gaiztoetatik libra gaitzan. Zergatik ziñatzen zera aoan? Itz gaiztoetatik libra gaitzan Jaungoikoak. Zergatik ziñatzen zera bularrean? Obra, eta deseo gaiztoetatik Jaungoikoak libra gaitzan.

Eta zer da santiguatzea? Egitea Gurutze bat eskuieko beatz biakin; edo esku guziarekin, bekokitik asi ta bularreraño; eta ezkerreko sorburutik eskuikora-

ño, izentatzen, edo aitatzten degula Trinitate Santisima. Ara nola: Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean +. Amen.

Badago, edo agertzen da misteriorik santiguatzeko modu orretan? Bai: eta guztiz andiak. Zein dira misterio oriek? Kristauok sinisten ditugun iru prinzipalak, au da, Trinitateko misterioa: Jaungoikoaren Semearen gizon egitea, edo Enkarnazioa: eta gure erredenzioko misterio guztiz andia.

Nola agertzen da santiguatzeko moduan Trinitateko misterioa? Orduan esaten ditugun itz oek, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean, argiro Trinitateko misterioa erakusten due: bada izenean bakarrik esanaz, eta ez izenetan, aditzera ematen da: Jaungoiko egiazko bakar bat baizik ez tala. Bada asko balira, esan bearko lizate izenetan, eta ez bakarrik izenean. Eta nola iru Persona Dibinoak: Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua banaka aitatzten ditugun; aitortzen degu, Jaungoiko egiazko bakar bategan iru Persona diferenteak, edo distintoak daudela, edo arkitzen dirala: eta ori da Trinitateko misterio andia; beste aldi batean zeago aditzera emango dizuedana.

Eta zer besterik aditzen degu; gure lan, edo obra on guzen asieran Gurutze Santua egiñaz, eta Aitaren,

Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean esanaz? Gure obra on guziak egin nai ditugula, eta ofrezitzen, edo konsagratzen diozkagula Trinitate Santisimoari beraren honra, eta gloriarako Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuaren neurribageko merezimentuakin uniturik. Eta oitura santu ori artu bear degu: eta intenzio, edo asmo santu orrekin gure lan guziak egin bear ditugu: eta orrela Jaungoikoaren aurrean txit asko irabaziko degu: eta Zerurako ondasun andiak bituko ditugu.

Eta nola agertzen dira santiguatzeko moduarekin Jaungoikoaren Semearen gizon egitea, edo enkarnazioko misterioak: eta gure erredenzioa? Ara nola: Gurutzea egiten degunean, jatxitzen degu eskua bekokitik bularrera: eta orrela aditzera ematen degu; Jaungoikoaren Semea, Jesu-Kristo gure Jauna jetxi zala Zerutik lurrera: eta Maria Birjiña Santisimaren errai garbietan gizon egin zala: eta ori da Enkarnazioko misterio miragarria: beste okasio batean ugariago esango dizuedana. Eta azkenik, Gurutzea bukatzeko, edo osatzeko, igarotzen degu eskua ezkerreko sorburutik eskuikora: eta orrekin aditzera ematen degu, Jesu-Kristok bere Gurutzeko eriotzarekin libratu gaituala betiko eriotzatik, edo kondenaziotik, eta igaro

gaituala betiko bizitzara, eta betiko gloriaren deretxora. Badakizue alabaña ezkerreko aldean kondenatuak, eta eskuikoan Zeruraro izango diranak arkituko, edo agertuko dirala Juizioko egun andian. Eta orra nolako misterio miragarriak Gurutze Santuak, eta ura egiteko moduak erakusten dizkigun.

Eta noiz egin bear degu Gurutzearen señaleara? Obra on bat asitzen degun guzian: nezesidade, premia, estutasun, tentazio, peligru, edo arriskuren batean arkitzen geranean: eta batez ere oitik jaikitzean: etxetik irtetean: Elizan sartzean, jaterakoan, eta lo egiterakoan.

Zergatik orrenbeste bider? Zerren denpora guzietan eta nun-nai, gure etsaiak gerra egiten diguen, eta persegitzen gaituzten. Zein dira etsai oriek? Demonioa, mundua, eta aragia. Beraz etsai orien kontra Gurutzeak indarra badu? Bai Jauna. Nundik du Gurutzeak birtute ori? Jesu-Kristok Gurutzean etsai oriek garaitu zitualako bere eriotzarekin, eta oriek garaitzeko grazia iritsi zigulako. Nola garaitu zituan etsai oriek? Demonioa, eta onen soberbia, andinaia, eta arrotasuna garaitu zuen bere guztizko humiltasun, edo obedienziarekin: mundua, eta onen gutziak bere guztizko pobrezarekin: eta aragia, eta onen griña, eta

gurari gaiztoak bere neke, dolore, eta oñaza arrigarrakin: eta erakutsi zigun Zeruko bideari jarraitzeko, eta gure etsai gaiztoak benzutzeko, edo garaitzeko, nai ta ez bear ditugula biotzeko humiltasuna: Espirituko, edo gogozko pobreza; eta gure aragia ilduratzea, ezitzea, eta sujetatzea.

Gurutzea adoratzan dezuenean, nola esalen dezue? Adoratzan, eta bedeinkatzen zaitugu Kristo, zerren zure Gurutze Santuarekin mundua erredimitu zenduan. Zergatik orrela Jesu-Kristorekin berarekin itz egiten dezue, Gurutzea adoratzan dezuenean? Zergatik Gurutzeari zor zaion adorazioa, eta erreberentzia Jesu-Kristoren imajiña dalako: eta ala Jesu-Kristo bera Gurutzean adoratzan degu, eta eskerrak ematen diozkagu, zerren bere Gurutzeko eriotzarekin betiko eriotzatik libratu gaituan, eta betiko bizitza iritsi digun: eta orra nolako mesede, eta fabore andi eta miragarrak Gurutze santutik etorri zaizkigun.

3. Baña, zerren ori ondo ezagutzea, eta mesede orri ondo erantzutea dan kristauaren lanik, eta egitekorik prinzipalena, eta bearrena, orain txit kontuz aditu bear dezue, eta iñoiz ere aztu bear eztezue, zenbat zor diogun Jesu-Kristori Gurutzeko bere eriotzaga-tik.

Galdetzen det bada: Jesu-Kristo, Jaungoiko eta gizon egiazkoa; Zeruairean, eta lurraren jabe soberanoa; Errege guzien Erregea; Jaun guzien Jauna; zergatik humillatu zan, gure gizatasuna bereganatzen artzeraño: eta alako pobrezia, neke, eta trabajuak bere bizi guzian; eta alako eriotza gogorra, eta lotsagarria Gurutze batean iltzez josirik lapur biren erdian sufritzen artzeraño? Gure dotriña laburrak erantzuten digu: Jesu-Kristok Gurutzean ill nai izan zuela gu pekatutik, eta betiko eriotzatik libratzeagatik. Eta ona, N.K., gure fede santuak erakusten digun misterio guztiz miragarri bat, Juduak, eta fedearen argirik ez tuen munduko jakinsu arreak erakeritzat zeukena: eta Kristau arreak, mundutarrak, eta aragikorrek txit nekez aditzen duena. Baña Kristau humillak, zerurako bizi nai duenak, eta aragiaren griña, gurari, edo apetitu erabagetak ezitzeko alegiñak egiten dituenak, txit gogotik, eta biotzeko poz, eta atsegiñ andiarekin, adoraten duena, eta sinisten duena, Jaungoikoaren neurribageko poderio, edo guziasunaren, jakinduriaren, eta kabubageko ontasunaren obrarik prinzipalena, eta miragarriena bezela. Guziok dakizue alabaña, gauza andiagoa, eta estimagarriagoa dala gizonak ezerezetik egitea baño, gizon pekatariak Deabru, edo Demo-

nioaren, eta pekatuaren mendetik, eta betiko eriotzatik, edo betiko infernutik libratzea: gizon pekatariak santuak egitea. Eta gizon miserable, edo doakabe batzuek Jaungoikoaren beraren semeak izateraño: eta Zeruko erreinuaren jabegaiak, edo eredereak izateraño altxatzea, edo jasotzea. Ori guzia bada, eta beste eziñ esan al baño, ondasun, eta probetxu geiago etorri zaizkigu, Jesu-Kristok gu erredimitzeko, edo erosteko, edo gure erreskaterako, eta gu santifikatzeko, bere borondatez, inozentea zalarik, sufritu nai izan zuen pasio, eta eriotza gogor, eta lotsagarritik. Bada gure lenengo gurasoak Adanek, eta Ebak, eren eul-paz, Deabruak tentatu bazituan ere, galdu zuen erentzat, eta guretzat Jaungoikoaren grazia, eta Zeruko deretxea, edo eskubidea: eta erak, eta beren ondorengo guziok gelditu giñan Jaungoikoaren asarrean, eta deabruaren menpeko, edo katibu billau batzuek egiñik, eta oraingo, eta betiko eriotzara, edo betiko infernura kondenaturik: eta modurik batere ez genduan Deabruaren katiberiotik libratzeko; gure pekatuen zorra pagatzeko, eta Jaungoikoaren justizia, eta aserrea biguntzeko, edo aplakatzeko: eta aren adiskidetasunera, edo graziara biurtzeko: bada eziñ arkitu diteke kreatura utzetan kaudalik, edo merezimenturik

(guziak orretako ill bear balue ere) Jaungoikoaren majestade soberanoari, eta aunditasun kabubageari egindako ofensa, injuria, edo agrabioaren satisfaziorik emateko: eta almenik batere gerez ez genduan, gure griña pasio erabage, eta gaitzerako makurtasunak eskuratzeko: Zerurako balio dezakean obra onik egiteko, eta birtuteari jarraitzeko. Eta estadu triste errukigarri orretan betiko galdu bearrak giñan, gure Jesus ona guzaz errukitu ezpalitz, ez guk merezi degulako, baizik bera guztiz ona, eta guztiz misericordioso gurekin izan dalako: Ba ainbesteraño maite izan gaitualako, nun izanik Jaungoiko guztiz poderoso, bere Aitarekin berdiñ, edo igual: iñoren bearrik ezertako etzuen: gugatik gizon egin nai izandu: eta Jaungoikotasuna, eta gizatasuna bere persona dibino, edo Jaungoikozkoagan unitu, edo batu ditu: gizona dan aldetik padezitzeko, eta illtzeko gai, edo kapaz izateko: eta Jaungoiko dan aldetik bere pasio, eta eriotzari kaburik eztuen merezimentua emateko: eta orrela Gurutze Santuan bere borondatezko eriotza lotsagarriarekin Aita Eternoaren justiziarri gure orde z gure pekatuen satisfazio, edo pagu osoa emateko: berarekin adiskidetzeko, edo errekonziliatzeko: gu pekatutik, eta Demonioaren mendetik libratzeko, edo pekatuen bar-



kazia guretzat iristeko; eta bere sakramentuetan aplikatzeko: eta aurrera bizimodu on bat egiteko, eta Zeruko gloria alkanatzeko bear ditugun sokorru, laguntasun, grazia, eta indarrak guri emateko. Zerekin pagatuko diozkagu Jesu-Kristori mesede oriek guziak?

Baña berriz galdetzen det: Zergatik ez degu esaten bakarrik Jesu-Kristo Gurutze batean ill zala, baizik Gurutze batean ill nai izan zuela? 1. Aditzera emateko, berak nai izan ezpalu, etzuela iñork indarririk ari bizia kentzeko: eta ala bere borondatez eriotza sufritu nai izan zuela. Eta 2. ez nolanaiko eriotza, baizik izan zitekean nekegarriena, lotsagarriena, eta deshonoragarriena; itz batean Gurutze batean iltzez josirik lapur biren erdian, gaizkillerik andiena, eta billauena balitz bezela, ill nai izan zuela. Eta ori zergatik? 1. Zergatik arbola bateko frutarekin eta Jaungoikoa bezela izango ziralako uste falso, edo gezurtiarekin, Demonio agro, soberbioak gure lenengo gurasoak tentatu, goitu, eta pekatura ekarri zituan: eta Jesu-Kristok beste Arbola batean, Gurutzeko Arbola santuan Demonioa bere guztizko humiltasunarekin, eta obedienziarekin benizitu nai izan zuen, eta aren mendetik atera nai izan ginduzen. *Ut qui in ligno vincebat, in ligno quoque vince-*

*retur.* 2. Zergatik zenbat geiago humillatzen, eta munduarekiko deshonoratzen zan bere Aita Eternoaren honragatik eta gure salbazioagatik, anbat honra, eta gloria geiago merezi zuen. Eta argatik dio San Pablo Apostoluak Jesu-Kristogatik: bere burua humillatu zuela: eta bere Aitari obedezitu ziola, eriotzaraño: eta guzien gañeko izena eman ziola: Jesusen izena aita-tzean Kreatura guziak, Zerukoak, Lurrekoak, eta Infernukoak, belaunikaturik adoratu dezaten. Eta 3. humillatu zan, eta beste iñork baño geiago sufritu nai izan zuen gure pekatu guzien sustraia dan gure soberbia, antustea, eta arrotasuna goitzen, edo eskuratzen; eta orren erremedioa, eta birtute guzien sustraia, eta zimendua dan biotzeko humiltasuna maitatzen, eta ari egiten, bere ejemploarekin guri erakusteko: eta egiazko humiltasunaren prueba; edo señaile segurua dan pazienza, edo sufrimentua orobat guri erakusteko.

Eta orra, N.K., zenbat zor diogun Jesu-Kristori Gurutzeko bere eriotzagatik. Eta orra konsiderazio gairat, beti gogoan erabilli bear deguna: lau puntu oek iñoiz ere aztu bage. 1. Nor dan Jesu-Kristo; au da, nola dan Jaungoiko eta Gizon egiazkoa: gure egille, edo Kreadorea: gure jabe soberanoa, eta gure Erredentore, edo eroslea: gure Salbadorea, eta gure Maisu, era-

kusle eta gidari maitagarria. 3. Zenbat sufritu zuen bere Amaren sabel birjinalean sortua izan zan puntutik azkeneko asnasa Gurutze Santuan eman zueneraño. 3. Norgatik ori guzia sufritu zuen, au da gu pekatari itxu esgerbageokgatik: Eta 4. zergatik, edo zertako, eta nolako amorio, eta borondatearekin guzia sufritu zuen: au da, gure anima gaxoa betiko Infernuttik libratzeagatik: guri betiko gloria aseguratzeagatik: guri pekatuaren gorroto andi bat artu eragiteagatik, Jaungoikoaren ofensa, edo injuria arrigarria dalako: eta gure gaitz guzien ekarlea dalako; gure biotzetan Jaungoikoaganako esperanza bizi bat, amorio irazeki bat, eta esker on, eta eragille bat sortutzeko. Eta azkenik gure borondate gaiztoa ukatzen, egunoroko gure Gurutzea, edo nekeak, eta naibagekak sufritzen eta gure Jaungoikoaren borondate santua gauza guzietan egiten erakusteagatik; eta orretarako bear degun indarra, eta grazia guretzat iristeagatik. A! gure Jesus ona zein maite gaituzun, eta zenbat zor dizugun! Eta zein itxuak eta zein eskergabeak zuretzat izan geran! Arren, Jauna, argitu gaitzazu: eta zure dotriña santua obeto ezagutzeko: gure griña txarrak ezitzeko; eta zuri orain gogotik jarraitzeko: eta gero

Zeruan beti alabatzeko zure grazia iguzu, Jauna.  
Amen.

# IRUGARREN DOTRIÑA

*Aditzera emateko:*

*Zertara biltzen dan Kristauaren dotriña guzia:*

*Zenbat parte dituan:*

*eta parte bakoitza zertako dan, eta zein bearra,  
edo premiazkoa dan, ondo bizitzeko.*

Ikusi dezuen ezkerreko aurreko dotriña bietan, zertan dagoan gizon guzien egiazko zoriona: eta ori iristeko Kristau izatea, Kristauaren dotriña ondo jakitea, eta ari jarraitzea zein gauza bearra dan: eta nola Kristauaren ditxa, eta zorion guzia Jesu-Kristoren Gurutzeko eriotza santutik etorri zakun: eta orregatik Gurutze santua dan Kristauaren señaile honragarria: gaur abiatu bear gera, zertara biltzen dan Kristauaren dotriña guzia: eta zenbat parte dituan: eta parte bakoitza zertako dan, eta zein bearra dan, aditzera ematen. Eta orra gaurko dotriña gaia, argi andia emango dizuena, dotriñako egiak errazago ezagutzeko, eta gogotiago ikasteko. Eska dezagun orretarako Espiritu Santuaren grazia Ama Birjiña guztiz santaren bitartez. Abe Maria.

Kristauaren dotriña nundik sortua da? Ezta munduko jakinduriak bezela gizonaren arrazoi labur, eta engaigarriaren gañean fundatua, edo zimendatua: baizik da Zeruko jakinduri bat eziñ engañatu ditekean, eta eziñ engañatu gaitzakean Jaungoikoaren beraren itzaren gañean fundatua. Gauza ziertoagorik, eta seguroagorik eziñ gizonak deseatu dezake: eta ezta geiago balio digun, eta bearrago degun ezaguerarik Kristauaren dotriñak ematen diguna baño: bada berak bakarrik erakusten digu, bestela eziñ jakin dezakegun gauzarik andienak, eta bearrena: au da, zeññ dan gure azken fiña, edo zertako egiñak geran: edo zeññ dan gure egiatzko, eta betiko zoriona, eta ori iristeko egin bear degun guzia: eta argatik estimatu bear degu dotriña santua munduko ondasun guziak baño, eta beste jakinduria guziak baño geiago: eta alik ondoena dotriñako egiak ikasi, eta gogoan erabilli bear ditugu gure bizimodua aen argiarekin zuzentzeko.

Arrazoiaren argira, edo ezaguerara Kristaua datorrenean, zenbat gauza jakitera bearturik, edo obligaturik dago? Lau gauza: Zeññ dira? Lenengo: zer sinistu bear duen: Bigarrena: zer eskatu bear duen: Irugarrena: zer egin bear duen: eta Laugarrena: zer errezibitu bear duen.

Nola jakingo du, zer sinistu bear duen? Kredo, edo fedeko Artikuluak jakiñarekin. Nola jakingo du, zer eskatu bear duen? Aitagurea, eta Elizaren beste orazioak, edo eskaerak jakiñarekin. Nola jakingo du, zer egin bear duen? Jaungoikoaren legeto mandamenduak, Eliza Ama Santarenak eta miseriordiazko obrak jakiñarekiñ. Nola jakingo du zer artu, edo errezibitu bear duen? Eliza Ama Santaren Sakramentuak jakiñarekin.

Eta lau gauza oriek nola jakin bear ditu Kristauak? Ez bakarrik gogoz, edo memoriz, zer eskatzen duen ezagutu bage, baizik egin bear du alegiña, lau gauza orien sustanzia, mamia, eta sentidua aditzeko, eta ezagutzeko, esan nai duen aditzera emateko diña: bada bestela Kristauak jakin, eta ezagutu bear dituan fedeko misterio, edo egiak, eztitu bear dan distinzio, eta argitasunarekin sinistuko: eta Kristauaren lanak, beargaiak edo egitekoak ere eztitu ondo ezagutuko, eta are gutxiago gordeko ditu: Itz batean: lau gauza orien ezaguera bage, eziñ Kristau ona bezela biziko da: Zergatik ori? Zergatik Kristau ona bezela bizitzeko, bear ditu lau gauza; dotriñako lau parten ezaguerarekin baizik, eziñ iritsi, edo alkantzatu litezkeanak.

Zein dira bada ondo bizitzeko bear ditugun lau gauza oriek? 1. Bear degu borondate ona, edo gogo, eta deseio egiazkoa, eta eragillea gure Jaungoikoa ondo serbitzeko, eta gure animako salbazioa seguratzeko: eta gogo ori emango diguen fedeko egiak ondo jakin bear ditugu. 2. Bear degu Zeruko argia, eta grazia gure barruko itxumen andiak aienatzeko: eta gure animako argia illuntzen diguen, eta gaitzera mobitzen gaituen gure griña, gurari, edo pasio erabageak, eta Deabrua, mundua, eta aragia, eta oen tenta aldiak goitzeko, edo garaitzeko: eta birtuteari jarraitzeko, edo obra onak egiteko; au da, mandamentuak ondo gordetzeko: eta aiñ bearra degun Zeruko argia, eta grazia nola eskatu, eta iritsi jakiñ bear degu.

3. Orobat jakiñ bear degu Jaungoikoaren legea, eta Eliza Ama Santarena, au da, mandamentu santuak: eragozten, edo enbarazatzen dizkiguen pekatuak, ala andiak, edo mortalak, nola txikiak, edo benialak ondo ezagutzeko: eta aetatik alde egiteko: eta agintzen dizkiguen lanak, edo egitekoak, ala Jaungoikoaren alderakoak, nola gure buruen alderakoak: eta lagun urko, edo projimoaren alderakoak ondo jakiteko, ezagutzeko, eta kontuz kunplitzeko.



Eta azkenik: 4. Bear degu argalak bezela, pekatuan erorten bagera: edo animako bizia, eta osasuna galtzen baditugu; gure gaitzak sendatzeko, eta indarrak iristeko, erremedio ziertuak, eta seguruak edukitzea: eta oriek zein diran, eta nola artu bear diran, ondo jakitea.

Eta ala guziok erraz ezagutu dezakezue, dotriñako lau gauzak ondo jakitea zein gauza bearra dan: bada eziñ dateke gure Jaungoikoa serbitzea, eta gure animak salbatzea: 1. gogo egiazko eta eragillerik ezpadegu: 2. ori kunplitzeko Zeruko argirik, eta graziaren indarririk ezpadegu: 3. Jaungoikoak, eta Ama Eliza Santak zer eragozten, eta zer agintzen digun gure bizimodua zuzentzeko ikasten ezpadegu. Eta 4. pekatuan erori ezker, nola artatik libratu, eta sendatu ondo ezpadakigu. Lau gauza oriek bada dotriñako lau partetan argiro erakusten dira, oraiñ ikusiko dezuen bezela: eta orretarako lenengo galdetzen det.

Zerk ematen digu gure Jaungoikoa ondo serbitzeko, eta gure animak salbatzeko aiñ bearra degun egiazko gogoa, eta deseo eragillea? Bateo santuan artu genduan fedearen argiak Jaungoikoaren graziarekin batera. Eta Kristauak degun fedearen argia nola piztuko, eta irazekiko degu? Kredoan, edo fedeko Arti-

kuluetan dauzkagun egia andiak, eta misterio miragarriak alik ondoena ikasiarekin eta gogoan erabilliarekin. Alabaña Kredoan, eta fedeko Artikuluetan erakusten digu gure Jaungoikoak, eta aren izenean, eta beraren ordenaz gure Eliza Ama santak: lenengo: Jaungoikoak berak egin digun mesede guztiz andia fedearen argira, eta ezaguerara, guk merezi bage, erakarriarekin: bada bestela zertako aren majestadeak egiñ gaituan ere eziñ jakiñ, eta ezagutu genzakean. Bigarrena: Erakusten digu, nor, edo nolakoa dan gure Jaungoikoa bera: bat bakarra bere betiko, eta Jaungoikozko izate, edo naturalezan, au da, Jaungoikotasunean: eta ala ere iru persona distintoak, edo diferenteak: zeñ diran Aita Eternoa: bere Semea: eta Espiritu Santua: irurak bana personetan: eta irurak Jaungoiko egiazko bakar bat, Jaungoikotasun bakar bat baizik irurak eztuelako. Eta orra Trinitade, edo irutasun guztiz santuaren misterio guztiz altua, eta miragarria, Kristau guziok sinistu, eta jakin bear deguna. Irugarrena: Kredoak erakusten digu, nola Jaungoikoa dan Aita guztiz poderosoa, edo guzielduna: Zeruak, eta Lurrak eta aetan ikusten diran, eta ikusten eztiran kreatura guziak ezerezetik egiñ dituana: eta batez ere Aingeruak, eta gizon, da emakumeak bera ezagutzeko,

amatzeko, eta serbitzeko: eta Zeruan beti beraz gozatzeko: baña, ara baño lenago, onerako, edo gaitzera-ko libertade, edo aukerarekin; ondo bizi nai badegu, betiko gloria; eta gaizki bizi bagera, betiko pena izango degulako kondizioarekin: eta orrela agertzen dizkigu Kredoak gure Jaungoikoaren kabubageko perfezioak, eta anditasunak: eta batez ere bere betikotasuna, edo eternidadea: bere poderio, edo guzialtasuna: bere ontasuna: bere jakinduria, bere Justizia, edo zuzentasuna: bere edertasuna, bere probidenzia miragarria, edo gobernu guztiz zuzena: leku guziak okupatzen dituana: guzia dakusena: eta guziok juzgatuko gaituana, dagokigun, edo betiko saria, edo betiko pena, eta kastigua emateko. Egia andi oek bada, eta oen antzeko beste asko Kredoak erakusten, edo aditzera ematen dizkigu bere antxitiko itzetatik: eta ori bera erakusten digue Jaungoikotasunari dagozkion fedeko zazpi Artikuluak. Eta ondo ezagutzen, eta sarri gogoratzen baditugu, Jaungoikoaren argitasun, eta grazia-ekin batera, gure biotzak mugituko dira Jaungoikoa benetan serbitzeko, eta gure animak salbatzeko gogo bizia, eta deseo eragillea artzera. Eta oraindio obeto, orren ondoren Kredoak berak, edo fedeko Artikuluak erakusten dizkiguen gure erredenzioko, eta santifika-

zioko misterio guztiz miragarriak, eta estimagarriak, ondo ikasten, ezagutzen, eta gogoratzen baditugu: nola diran: Lenengo: gure guzion lenbiziko Gurasoen pekatua: eta aren ondorengo zorigaitz, eta kalte izugarriak: eta oriek erremediatzeko Jaungoikoaren seme bakar, eta propioaren gizon egitea: gure erosle, edo Erredentore, gure Salbadore, eta gure Maisu, edo Zeruko erakusle izateko. Bigarrena: Jesu-Kristoren jaiotza miragarria, eta bere aurtasuneko misterio gozoz beteak; eta aren Zeruko erakusle, edo dotriña argia, ala itzezkoa, nola obrazkoa, mirari guztiz andia-kin sinistu eragiña. Irugarrena: aren pasio, eta Gurtzeko eriotza santua pekatari guzien zorra pagatzeko: Demonioaren katiberiotik, eta mendetik gizonak ateratzeko: betiko Infernutik libratzeko: eta beraz baliatu, eta penitentzia egin nai badegu, pekatuen barkazioa, eta Zeruko deretxoa iristeko. Laugarrena: Jesu-Kristoren Linbora jesteria, an zeuden justuen animak libratzera, eta konsolatzera. Bostgarrena. Beraren piztutze, edo erresurrezio glorioso, bere birtutez, eta berak lenago esan zuan bezela, biziaren, eta eriotzaren jabea zanak bezela. Seigarrena. Bere Zerura igotzea, edo Asensio miragarria, guziori Zeruko sarrera iregitzera: eta bere Aita guztiz poderosoaren eskutik dago-

kion Gloria gozatzerá: nundik berriz etorriko dan biziak, eta illak juzgatzerá munduaren azkeneko egunean. Zazpigarrena: Kredoak erakusten digu distintzioarekin, nor dan Espiritu Santua, esanaz: nik sinisten det Espiritu Santuagan: eta da Aita Eternoagandik, eta bere Seme dibinoagandik betidanik etorrera duen Trinidadeko irugarren persona Jaungoikozkoa: Aitaren, eta Semearen betiko amorio konsustanziala; eta aek bezela Jaungoiko egiazko dana: eta Espiritu Santuari dagokio gure animak argitzea fedeko egiak ezagutze-ko, eta sinisteko: eta gure biotzak Jaungoikoaren eta birtutearen amorioan irazekitzea: ikusi zan bezela Espiritu Santuaren beraren etorrerako, edo Pentekoste-ko pazkuako egunean: bada orduan Apostoluak bere doaiakin argitu zituan: zeruko jakinduriz bete zituan: munduko itzkuntza guziak aditzeko, eta guzietan itz egiteko doai miragarria eman zien: milagro mota guziak egiteko eskualdi arrigarriarekin batera. Eta Apostoluen sermoi, eta dotriñarekin eta egiten zituen mirariakin eziñ esan al adiña jende mundu guzian Jesu-Kristoren fedea, eta legea artzera jarri zan: Eta gure Eliza Ama Santaren fundazioa, edo sortze miragarria Jesu-Kristoren Apostoluen dotriñarekin eta gobernu guztiz ederrarekin asi zan: eta orain ere

dirau: eta munduaren azkeneraño iraungo du, Jesu-Kristok berak agindu, edo Apostoluai itza eman zien bezela: eta orobat Kredoak erakusten digu, Jesu-Kristoren Eliza santa katolika orretan, arkitzen dirala bakarrik Santuen Komunioa: pekatuen barkazioa: eta ondoren aragiaren erresurrezio glorioso: eta betiko bizitza zorionekoa: eta Eliza orretako hume, edo mienbro izan bage eztagoala iñorenzat salbaziorik. Eta Kredoan orobat sarturik daude Kristauok sinistu, ezagutu, eta gogoratu bear ditugun beste egia andi asko, ala pozgarriak, nola bildurgarriak: eta batez ere Jaungoikoaren majestadeak egin dizkigun mesede guztiz andiak, bera amatzera mugitu bear gaituenak: eta gure azken gauzak, edo Nobissimoak: nola diran: Eriotza: Juizioa: Infernua: eta Gloria: eta ez nolanaikoak, ezpada beti-beti iraungo duenak: eta ala txit egokiak, alde batetik gu bildurtzeko, eta bestetik konsolatzeko; eta guziok alaitzeko, esnatzeko, eta azkartzeko, ondo ezagutu eta konsideratu nai baditugu. Eta orra nola Kredoan, edo fedeko Artikuluetan dauzkagun misterio andiak, eta egia miragarriak (orain aitatu, eta ukitu baizik egia ezpaditugu ere) gure adimentuak argitzeko: eta gure biotzak mugitzeko: zeñ egokiak, eta zeñ bearrak diran. Eta ala egia oriek ondo dakiztenak, eta

gogoratzen dituztenak, eskuarkiro dira Kristau onak: Jaungoikoa benetan serbitzeko, eta eren animak salbatzeko gogo bizi eragillea duenak: eta kontrara dotriña gutxi, eta ori axaletik baizik eztakienak: eta laburtxo baizik eztakizten egiak azturik dauzkatena, edo gogoratzeko alegiñik egiten eztuenak, Kristauaren antz bage bizi oi dira: Jaungoikoaz, eta eren animaz azturik, eta munduko gauzakin itxuturik, eta zoraturik. Eta eztue beste erremediorik; gure federo misterio andiak obeto ikastea, ezagutzea, eta aen argiarekin esnatzea, eta azkartzea baizik.

Eta dotriñako egiak ondo jakitea bakarrik asko da, gogo ona, eta eragillea iristeko, eta ondo bizitzeko? Gauza bearra da: baña bakarrik asko ezta: bada ikusten dira gizon jakinsu batzuek, besteai erakusteko ere dakienak, eta gaizki bizi diranak. Zer geiago bear da bada, Jaungoikoa serbitzeko, eta gure animak salbatzeko gogo ona, bizia, eta eragillea iristeko, eta ondo bizitzeko? Zeruko argia, eta graziaren indarra eskatzea: dotriñako bigarren parteak erakusten digun bezela; au da, orazioa ondo egitea: edo ondo eskatzen jakitea. Eta ori nork erakutsi zigun? Jesu-Kristo gure Jaunak berak: eta ez bakarrik erakutsi zigun orazioaren premia guztizkoa: baita ere orazioa ondo egiteko

modua. Eta zerk beartzen, edo obligatzen gaitu orazio egitera, edo Zeruko laguntasuna eskatzera? Batez ere gure pobrezia, eta miseria guztiz andiak: bada gerez guztiz argalak, eta itxuak gera: gaitzera txit makurtuak gaude: eta onerako txit pisu, eta nagiak, eta alde guztietatik etsaiez inguraturik gaude: Deabruak, munduak, eta aragiak, eta gere griña, edo gurari erabageak beti tentatzen gaitue: eta gerez indarririk eztegu, Jaungoikoaren grazia, edo laguntasuna bage pekatuaren tentazioak garaitzeko, eta obra ona egiteko. Baña Jesu-Kristok irabazi zigun graziarekin guzia dagikegu: eta ala, nai ta ez eskatu bear degu Zeruko grazia, eta indarra. Eta ori iristeko nola eskatu bear degu? Dotriñaiko bigarren partearen eta Aita gurearen, Abe Maria-ren, eta Salbearen esplikazioan ori zeoro aditzera emango zatzue: eta oraiñ bakarrik diot: humiltasunarekin, eta konfianza osoarekin Jesu-Kristoren izenean, animarako bear degun, edo konbeni zakun guzia eskatu bear degula: eta iritsiko degula, ondo bizitzeko gogo ona, eta eragillea: eta bear ditugun argi, eta laguntasun guziak Jaungoikoaren lege santua gordezteko, eta betiko zoriona seguratzeko.

Baña asko ote degu orretarako gogo ona, eta Jaungoikoaren grazia eskatzea? Orrez gañera, Jaun-



goikoaren borondatea jakiteko, eta egiteko, naitaez aren lege santuko mandamentuak ondo ikasi bear ditugu: eta orobat Eliza Ama Santarenak, eta miseri-kordiazko obrak: bada bestela nola gure itxumena guztiz andia dan, askotan gure kulpaz, eta ardurabagetasunez, ez ditugu ezagutuko gere pekatuak, eta gure obligazioak. Argatik dotriñako irugarren partean, zeoro eta argiro aditzera emango zatzue: zer dan pekatu mortala: eta zer dan beniala: zer diran pekatu kapitalak, edo beste askoren buru, eta sustrai gaiztoak diran zazpi bizio kapitalak: eta orien kontrako birtuteak: eta ondoren amar mandamentuak, eta Elizako bostak zer agintzen diguen, eta zer eragozten diguen eta orrela ikasiko dezue, salbatu nai bazerate, nolako bizimodua egin bear dezuen.

Eta zer erakusten da dotriñako laugarren partean? Pekatutik irteteko, edo libratzeko, eta birtuteari jarraitzeko Jesu-Kristok Sakramentuetan utzi zizkigun erre-medio ziertuak eta seguruak. Pekatutik mortalak animari kentzen dio grazia, eta animako bizitza espirituala: eta Sakramentuak, ondo errezibitu ezkeru, biurtzen diobe graziaren bizitza, eta osasun espirituala. Zenbat estimatuko zenduke, gorputz illari, edo txit gaixo, edo eri dagoanari bizia biurtzeko, edo osasuna emateko

erremedio eragille, ziertu, edo seguru bat iñork eman-  
go balizue? Eta nolako leia, eta ansiarekin asko kostatzen  
bear balitz ere, eskatuko, eta artuko etzenduke? bada  
zenbat geiago balio du animako biziak, eta osasunak  
gorputzarenak baño? eta zenbat zor eztiozue Jesu-  
Kristori bere odol preziotsuaren kostuan aiñ erreme-  
dio eragilleak, ziertuak, seguruak, eta errazak Sakra-  
mentu santuetan ipiñi dizkitzuelako? Ikasi bear dezue  
bada arreta andiarekin, Sakramentu santuak zer  
diran, zertako diran, eta probetxuarekin errezibitzeko  
nolako prestaera, edo disposizioa bear dezuen.

Eta orra, N.K.:, dotriñako lau gauzak ondo ikastea,  
jakitea, eta ezagutzea zein lan, edo egiteko bearra,  
premiazkoa, eta probetxuzkoa dan. Jaungoikoari  
bada, eta bere Seme maite Jesu-Kristori millarezko  
eskerrak sarri eman egiozkatzue, zerren Zeruko bidea  
aiñ argiro erakutsi nai izan dizuen: eta bide orri jarrai-  
tzeko bear dituzuen laguntasun, eta erremedio guziak  
eman dizuen: eta eskatu egiozue gogotik, baña humil-  
tasun, eta konfianza andi batekin, arren Espiritu San-  
tuaren argia eta grazia dizuela: dotriña santua estima-  
tzeko, Zeruko jakinduriarik preziatuena bezela: dotri-  
ñako egiak gogotik ikasteko, eta ezagutzeko; eta zuen  
humeai, eta mirabeai erakusteko; eta oekin batera

zuen bizimodua zuzentzeko: eta gero Zeruko glorian  
Aita Eternoa: bere Seme betikoa: eta Espiritu Santua  
beti ikusteko, beti amatzeko, beti alabatzeko, eta beti  
gozatzeko zoriona. Amen.

# LAUGARREN DOTRIÑA

*Aditzera emateko:*

- 1. Nola, eta zertako Apostoluak Kredoan esan zuen:*
  - 2. Fedea zer dan, eta zergatik eta nola fedeko misterioak jakin, eta sinistu bear ditugun:*
  - eta 3. Nola fedearen argiarekin gure bizimodua zuzendu bear degun.*

Ikusi zenduen orain urrengo aldian, nola Kristauren dotriña guziaz lau parte, edo zati dituan: eta parte bakoitza zertako dan, eta zein bearra dan ondo bizi-tzeko: gaur bada lenengo partea azaltzen, edo esplikatzeko asi bear degu: eta aditzera emango dizuet. 1. Nola, eta zertako Apostoluak Kredoan esan zuen. 2. Fedea zer dan, eta zergatik, eta nola fedeko gauzak jakin, eta sinistu bear ditugun: eta 3. Nola fedearen argiarekin gure bizimodua zuzendu bear degun. Arreta andi bat ipini bear dezue: bada dotriña guziaren zimendua, eta sustraia fedea da: eta orrek zertara beartzen, edo obligatzen gaituan, guziok jakin bear degu: eta probetxuarekin izan dediñ, eskatu dezagun

lenago Espiritu Santuaren argia, eta grazia Ama Birjina guztiz santaren bitartez. Abe Maria.

1. Kredoan nork esan zuen? Jesu-Kristoren amabi Apostoluak. Noiz, eta nola Apostoluak Kredoan esan zuen? Jesu-Kristo Zerura igo ezkerre, eta Espiritu Santua, eta bere doai miragarriak eren biotzetan errezibitu ezkerre, Jesu-Kristok berak agindu zien bezela, alkargandik apartatzeko, eta mundu guzian Jesu-Kristoren fedea, eta Ebanjelio Santua predikatzerako, eta erakustera joateko zeudenean; amabi Apostoluak batetan juntatu, edo batu zituen, Kristau guziok jakin, eta sinistu bear ditugun fedeko misterio, eta egia prinzipalak; eta bearrenak: eta guzieren artean Kredoan formatu zuen: Apostolu bakoitzak fedeko artikula, edo misterio bat esanaz.

Ara zer ordenarekin dakazkian Fr. Luis de Granada Beneragarriaren dotriñak.

1. San Pedro, Apostoluen buruak, esan zuen: nik sinisten det Jaungoiko Aita guztiz poderoso, Zeruari, eta Lurraren Kreadoreagan.

2. San Andresek esan zuen: sinisten det aren seme bakar Jesu-Kristo gure Jaunagan.

3. Santiago nagusienak esan zuen: sinisten det, konzebitua edo sortua izan zala Espiritu Santuaren graziz, eta jaio zala Maria Birjiñagandik.

4. San Juan Apostoluak esan zuen: sinisten det, padezitu zuela Ponzio Pilatosen agintearen azpian, izan zala guruzifikatua, illa, eta enterratua, eta obiratu, edo sepultatua.

5. San Tomasek esan zuen: sinisten det, jetxi zala Infernuetara, eta irugarren egunean illen artetik piztu zala.

6. Santiago gazteanak esan zuen: sinisten det, igo zala Zeruetara, eta dagoala eseririk Jaungoiko Aita guztiz poderosoaren alde eskuitik.

7. San Felipek esan zuen: sinisten det, andik etorriko dala biziak, eta illak juzgatzerara.

8. San Bartolomek esan zuen: sinisten det Espiritu Santuagan.

9. San Mateok esan zuen: sinisten det Eliza Santa Katolika, eta Santuen komunioa.

10. San Simonek esan zuen: sinisten det pekatuen barkazioa.

11. San Judas Tadeok esan zuen: sinisten det: Aragiaren erresurrezioa, edo piztutzea.

12. San Matiasek esan zuen: sinisten det: betiko bizitza. Amen.

Kredoaren amabi Artikuluetan Trinitade Santisimako iru Persona dibino, edo Jaungoikozkoak agertzen, edo deklaraten dira: eta baita Persona bakoitzari batez ere dagozkion obra, edo lan miragarriak. Lenengo Artikuluan Trinitadeko lenbiziko Persona, edo Aita Eternoa, eta ari batez ere dagokion munduaren Kreaioa edo ezerezetik egitea explikatzen da. Urrengo sei Artikuluetan, Trinitadeko bigarren persona, edo Seme dibinoa, gugatik gizon egiña deklaratu da: eta baita ari dagozkion gure erredenzioko misterio andiak: eta azkeneko bost Artikuluetan Espiritu Santua, edo Trinitadeko irugarren Persona, eta ari batez ere dagozkion gure justifikazioko misterio guztiz miragarriak aditzera ematen dira.

Eta zertako Apostoluak, aiañ misterio andiak bitu, edo batu zituen Kredoan, aiañ laburtxo, nola esan ditugun? Gu fedean informatzeko. Au da munduko Kristau guziaz, era batera, eta itz batzuekin, neke andi bage, guziok jakin, eta sinistu bear ditugun fedeko misterio prinzipalak erakusteko.

Eta zer beste izenik Kredoari ematen diobe? Deitzen diobe Apostoluen Sinboloa: eta itz onek esan nai

du distingitzeko, eta ezaguerazotzeko señaile, edo marka bat, askoren borondatez artua, edo esleitua. Eta Kredoak du izen ori, zergatik Apostoluen Kredua sinisten, eta konfesatzen duen fededun guziak orrekin distingitzen dira, Kristau Katolikoak eztiran fedebage guziakgandik. Eta ala gure dotriña laburrak bereala galdetzen du: zertako esaten dezu Kredoa? Eta erantzuten du; Kristauak degun fedea konfesatzeko, edo aitortzeko.

Eta zer da fedea konfesatzea? Da gure barruan sinisten ditugun fedeko misterioak, eta egiak kanpotik, edo agerian aitortzea, edo deklaratzeta: eta ori egiten degu, fedeko Aktuak edo Kredoa esanaz. Eta baita fedeez batera agerian Kristauaren lanak egiñaz.

2. Eta fedea zer da? Ikusi ezteguna sinistea. Eta zenbat gisa, edo erara da fedea? Era bitara: bata da gizonak esaten diguena, ikusi bage sinistea: eta orri deitzen diogu fede humanoa. Gizonaren esanari dago-kiona: eta orretan engañatu gaitezke, eta askotan engañatzen gera: bada esaleak erak askotan engañaturik daude: uste falsoan daude: eta beste askotan gezurra diobe: eta beste fedea da Jaungoikoaren esanari, edo itzari ematen dioguna: eta deitzen diogu Jaungoikozko fedea: eta au da Kristauaren fedea:



bada gure fede santuko misterioak, eta egiak, ikusi bage sinisten ditugu, zerren gure Jaungoikoak berak agertuak, esanak, edo erakutsiak diran gure Eliza Ama Santari, eta Eliza Ama Santak guri.

Ikusi zenduan zuk Jesu-Kristo jaiotzen? Ez: Ikusi zenduan Gurutzean iltzen, piztutzen, eta Zerura igo-tzen? Ez: Eta sinisten dezu? Bai, Jauna, sinisten det. Eta orobat fedeko beste misterio guziak sinisten dituzu? Bai Jauna: guziak sinisten ditut. Eta zergatik orre-la sinisten dituzu? Zergatik Jaungoikoak berak ala esa-nak, Eliza Ama Santak ala erakusten digun. Eta sinis-ten det Kredoaren asieran esaten dezunean, zer adi-tzera eman naiezu? Eztet esan nai bakarrik, ala uste dedala, eta ala deritzodala, baizik gauza guztiz ziertu-tzat, eta egiazkotzat daukadala: eta alakoa bezela, batere duda bage eta begiz ikusi ta baño ere, ziertua-gotzat sinisten dodala: bada nere begiai iduritu lekiz-kie gauza bat bestegatik, baño Jaungoikoa bera eziñ engañatu liteke, zerren dan guzia dan bezela, dakia-na; eta eziñ engañatu gaitzake, zerren dan kabubage-ko santua: eta ez lizate Jaungoiko egiazkoa izango, gezurrik esan, edo erakutsi balezake.

Eta orrelako fedea, edo orrela sinistea gauza bea-rra da, salbatzeko? Bai: bada eziñ fedearen bitartez

baizik gure salbaziorako nai ta ez jakin bear ditugun egiak ezagutu gintzake: ez eta gure egiazko zoriona zertan dagoan; eta ori iristeko, edo alkanzatzeko zer egin bear degun ere. Eta aiñ bearra da fedearen birtute au, ze ori bage beste obra on guziak Zerurako batre balio eztue.

Eta fedeko gauzak ikastea, eta jakitea asko da, bear bezela sinisteko? Edo eldu gaitzke gure arrazoi, eta alegin utzakin fedearen birtutea iristera? Ez: fedearen birtutea da Zerutik datorren doai bat, naturalez gañekoa: da Jaungoikoak ematen duan argi, ta grazia andi bat, mugitzen gaituana, ikusi bage sinistera, Jaungoikoak berak: Elizari agertu, edo erakutsi nai izan dion guzia gure salbaziorako. Egia da fedeko gauzak ikasi bage eziñ jakin, eta sinistu ditzakegula: baña orobat da egia eta fedeko egia, Jaungoikoaren grazia bage, eta berak argitu bage, gure indar utzakin eziñ sinistu dezakegula. Eta noiz eman digu gure Jaungoikoak sinisteko bear degun fedearen birtutea? Bateo santuan sortu zuen, edo ezarri zuen gure animetan bere graziarekin batera fedearen birtutea: eta baita esperanzaren, eta karidadearen birtute, edo doai guztiz andia ere: eta birtute orren laguntasunarekin dotriñaren ezaguerara gatozenezan fedeko egiak sinisten

ditugu: eta orobat Jaungoikoagan gure esperanza ipintzen, eta bera gauza guziena gañean amatzen abiatzen gera.

Eta ezta Kristauak baizik, fedearen birtutea, eta doaia duenik? Ez: eta argatik Kristauok txit asko estimatu bear degu doai miragarri au: eta Jaungoikoari sarri eskerrak eman bear diozkagu fedearen argira ekarri gaitualako: eta fedeko gauzak ondo ikasteko, eta ezagutzeko alegin guziak egin bear ditugu.

Eta zer gauza dira Kristauak bezela dituzunak, eta sinisten dituzunak? Eliza Ama Santa Erromakoak dituanak, eta sinisten dituanak. Eta zein da Eliza Ama Santa Erromakoa? Da Kristan fededun guziena Eliza, edo kongregazioa: Erromako Obispo, Aita Santua, edo Sumo Pontifize Erromakoa bere burutzat mundu onetan ezagutzen duena: bada Erromatik, Jesu-Kristoren Bikarioa, edo ordenakoa, eta beste Obispo guziena nagusiena, eta guziena burua danak bezela Eliza guzia gobernatzen du: eta argatik da Eliza Ama Santa Erromakoa, beste aldi batean esango degun bezela.

Baña esango dezue: Eliza Ama Santa gobernatzen, eta Elizako humeai fedeko gauzak erakusten dituen Erromako Aita Santua, eta Obispo guziak, eta oen mendean dauden Eliza bakoitzeko Arzaiak, eta dotri-

ña-Maisu, edo erakusleak gizonak diran ezkerro, nundik dakigu oriek erakusten dizkiguen misterioak fedeko egiak, eta Jaungoikoak berak erakutsiak, eta Eliza Ama Santari agertuak, esanak, eta errebelatuak dirala? Jaungoikoak berak Eliza Santa Katolika fundatu zuen: Jaungoikoaren beraren Seme bakar Jesu-Kristogure Jauna da Elizako buru prinzipala: onek autuzituan amabi Apostoluak, bere bizitza guziaren, bere Zeruko dotriñaren, bere milagro guzien, eta bere erioztaren, erresurrezioaren, Zeruko igoera, edo Aszentsioaren, eta Espiritu Santuak bere etorreraz egin zituan mirari arrigarrien testiguak izateko: bere ordekoak eta Obispoak eginik mundu onetan utzi zituan; Eliza gobernatzeko bear zituen argi, jakinduri, eta eskualdi guziak eman zitzen: eta mundu guziari Jesu-Kristoren beraren Zeruko dotriña erakusteko kargua eman zien: kargu ori bera erak ordenatzen, eta konsagratzen zituen Obispo, Apaiz, edo Eliz-Maisuai uzteko, edo emateko eskualdi guziakin. Eta Jesu-Kristok berak, Zerura igo baño lenago Apostoluai esan zien: nik erakutsi dizkizuedan egiak, munduko guziaz erakutsi egiezue: eta nere dotriña artzen, edo nigan sinisten duen guziak bateatu itzatzue Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean: eta erakutsi egiezue,

nolako bizimodua egin bear duen. Eta azkenik esan zien: «ni zuekin izango naiz munduak dirauen artean»: Ona, N.K., zuek sosegatzeko dotriña segurua, eta ziertua, Jesu-Kristoren Ebanjelio Santuak erakusten diguna. Eta ortik atera dezakezue kontu: 1. Jesu-Kristoren itzak eziñ faltatu dezakeala: eta berak itza emanik daukan ezkerre, gordeko duela: eta bere Eliza iñoiz ere desanparatuko ezteela: eta beti argituko duela: oraindano beti argitu duen bezela, Jaungoikoaren beraren itza garbi erakusteko, utsegiterik dan txikiena ere fedeko gauzetan iñoiz ere egin bage. Eta 2. arrezkerre segurua, eta batere kezka bage sinistu bear degu, Eliza Ama Santak, edo aren buru egiazkoak diran Aita Santuak, eta Obispo katolikoak Jesu-Kristoren beraren dotriña baizik erakusten ezteguela. Eta 3. zuen konsuelo geiagorako dotriña orren egia Jaungoikoak probatu, eta konfirmatu du denpora guzietan eziñ kontatu ala milagro ziertuakin eta nabarmenakin: eta badakizue Jaungoikoak eziñ milagrorik egin dezakeala, gezurra sinistu eragiteko. Eliza Ama Santaren fedearen egia batere duda bage sinistu erazotzeko, eman dizkigu gure Jaungoikoak beste testimonio guztiz asko, guztiz andiak, eta ikusgarriak; eta beste dotriña aldi batean batzuek aitatuko, eta aditzera

emango dizkitzuet, zuen fedea, edo sinismena geiago, eta geiago irmatzeko, eta orain garraizkon gure dotriña laburrari.

Zer da bada zuek, eta Eliza Ama Santa Erromakok dezuen, eta sinisten dezuen? Batez ere fedeko Artikuluak Kredoan dauden bezela. Zer gauza dira fedeko Artikuluak? Dirade gure fedearen misteriorik prinzipalenak, edo nagusienak. Zenbat dira fedeko Artikuluak? Amalau: eta guziak daude Kredoan sarturik, Kredoko dotriña ondo ezagutzen bada. Eta zertarako dira amalau Artikulu oriek? Trinitate Santisimaren, eta Jesu-Kristoren gizatasunaren misterioen berri argia eta distintoa Kristauai errazago emateko: au da, Trinitateko, eta Enkarnazioko misterioak obeto ikasi eragiteko. Ara nola erakusten dizkigun gure dotriñako liburu txikiak.

Fedeko Artikuluak dirade amalau: Lenengo zazpiak dagozkio Jaungoikotasunari: eta beste zazpiak gure Jaun Jesu-Kristo Jaungoiko eta gizon egiazkoaren gizatasun, edo humanitate santuari. Jaungoikotasunari dagozkionak dirade oek: Lenengoa: sinistea Jaungoiko guztiz poderoso bakar bategan. Bigarrena: sinistea, dala Aita. Irugarrena: sinistea dala Semea. Laugarrena: sinistea dala Espiritu Santua. Bostgarrena:

sinistea dala Kreadorea. Seigarrena sinistea dala Salbadorea: eta Zazpigarrena: sinistea, dala Glorifikadorea.

Jesu-Kristoren gizatasunari dagozkionak dira oek.

Lenengoa: sinistea, Jesu-Kristo gure Jauua, gizona dan aldetik konzebitua, edo sortu izan zala Espiritu Santuaren obran, eta graziaz.

Bigarrena; sinistea, jaio zala Santa Maria Birjiñagandik: zalarik Señora au Birjiña, Semea egiñ baño len: egitean, eta egiñ ezkeru.

Irugarrena, sinistea, Pasio, eta eriotza artu zuela gu pekatariok salbatzeagatik.

Laugarrena: sinistea, Infernuetara jetxi zala, eta beraren zai, eta esperanzan zeuden guraso santuen animak atera zituala.

Bostgarrena: sinistea, irugarren egunean illen artetik piztu zala.

Seigarrena: sinistea, Zeruetara igo zala, eta Aita guztiz poderosoaren eskuian eseririk dagoala.

Zazpigarrena: sinistea, etorriko dala biziak, eta illak juzgatzeru: esan nai du: onai gloria ematera; zerren aren mandamentu santuak gorde zituen: eta gaiztoai betiko pena, zerren gorde etzituen.

Orra gure fede Santuko Artikulu, edo egia prinzipalenak, eta bearrenak: Kristau guziok jakin, eta eza-gutu bear ditugunak: bada eztegu asko era batera, eta beingoan Eliza Ama Santak erakusten duen guzia batere distinzio bage sinistea. Orrez gañera, au da, guzia sinistuz gañera, distinzioarekin jakiteko obligazio larria degu Kredoan, edo fedeko Artikuluetan dauden misterioak. Eta guziak eziñ batek ikasi baditu, alegiñak egin arren: salbatuko bada, arrazoiaren argira etorri ezker, nai ta ez jakin bear ditu edolarik iru gauza oek: 1. Jaungoiko egiazko bakar bat dala, eta Jaungoikoagan iru persona distintoak daudela: eta dirala Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua: 2. Semea egin zala gizon, eta gu pekatariok salbatzeagatik ill zala, eta piztu zala: Eta 3. Jaungoikoak onai ematen diela betiko gloria: eta gaiztoai betiko pena. Kontu bada arren, N.K., gauza oek txikitanik zuen humetxoai erakustez.

3. Eta gure salbaziorako asko degu fedea: eta fedeko egiak jakitea, eta sinistea? Ez, N.K.; fedea nai ta ez lagundu bear degu esperanza on batekin eta karidade egiazkoarekin: au da, Jaungoikoaren guzien gañeko amorioarekin; eta gure projimo, edo lagun urkoaren amorio egiazkoarekin: gure buruak bezela



amatzen degula Jaungoikoagatik. Onetantxe sartzen da Jaungoikoaren lege guzia: eta ori ezpadegu gure fedea illa dago: ara nola anima bage dagoan gorputza illik dagoan: eta fede illarekin Zerurako irabazirik batere eziñ egin dezakegu.

Zenzatu gaitezen bada arren, N.K.; fedeko azkene-ko Artikulua beti gogoan eduki dezagun: au da, Jaungoikoak onai emango die betiko gloria: eta gaiztoai betiko pena. Nai badezue bada gogotik mandamentu Santuak gorde: eta betiko zoriona iritsi, eta betiko zorigaitzetik libratu; iru gauza egin bear dituzue. Lenbizikoa: zuen amorio propio erabagea, eta ortik sortzen diran andinaia, edo soberbia: gutizia, edo interes gura modubagea: eta aragiaren naikunde, edo apetitu zikiñak menderatzeko, alegiñ guziak egin bear dituzue. Bigarrena: pazienziaren birtutea iristeko, eta zuen naibage, neke, edo trabajuak, nundik-nai datozkizuela, Jaungoikoaren eskutik bezela artzeko alegin guzia egin bear dezue: eta Irugarrena: zuen egunoroko lanetan, ala andietan, nola txikietan, Jaungoikoaren borondatea egiteko intenzioa, edo asmoa ar ezazue, eta sarri berritu ezazue: eta orrela, ez fede illa, ezpada bizia, eta eragillea daukazuela aditzera emango dezue. Eta nola fede biziak berak ere gradu, edo malla

asko dituan: Jaungoikoari sarri eskatu egiozue, azi, eta irazeki dezala zuen biotzetan fedearen argia: eta orrek emango dizue gogoa, eta indarra, ez nolanaiko kristauak, baizik Santu batzuek izateko: Jaungoikoari ala nai dakiola arren: eta digula betiko gloria. Amen.

# BOSTGARREN DOTRIÑA

*Aditzera emateko:*

- 1. Eskritura Santua zer dan, eta Apostoluak erakutsi zuen dotriña:*
- eta 2. Kristauaren fedeko egia sinistu eragiteko dauzkagun errazoi, edo motibo guztiz ikusgarriak ta sinisgarriak.*

Kredoan, eta fedeko amalau Artikuluetan dauzkagun misterio andiak zergatik, eta nola jakin, eta sinistu bear ditugun, aditzera eman nizuen, aurreko dotriña aldian: eta batez ere esan nizuen, gure Eliz-Ama Santak erakusten digun fedeko dotriña, Jaungoikoaren beraren hitza bezela sinistu bear degula. Zergatik Jesu-Kristok berak, eta aren ordenaz, eta aren izenean Apostoluak erakutsi zuena berbera dan: eta iñoiz ere utsegin estezan gure Eliz-Ama Santak, Jesu-Kristok berak hitza eman zion bezela, Espiritu Santuaren argiarekin beti laguntzen dion: eta dotriña orren egia denbora guzietan ezin kontatu ala milagro guztiz zier-tuakin eta nabarmenakin gure Jaungoikoak probatu, eta konfirmatu duen. Eta ori bakarrik asko bada ere

Kristauak fedean konfirmatzeko, eta irmatzeko, ala ere zuen konsuelo geiagorako, eta zuen fedea geiago, eta geiago argitzeko, eta indartzeko, (orduan agindu nizuen bezela) aitatu nai dizkizuet beste arrazoi, eta motibo batzuek guztiz ziertuak, guztiz ikusgarriak, eta guztiz sinisgarriak, borondatez itxutu nai eztuen guziaz, Eliz-Ama Santaren fedea egiazkoa dala, sinistu eragiteko guztiz indarsuak. Eta aurretik esango dizuet, zer dan Eskritura Santua: eta Apostoluak aoz erakutsi, eta Eliz-Ama Santak aetatik artu zuen dotriña. Eta orra gaurko dotriña gaia: eta probetxu andi bat guziok ateratzeko, eska dezagun aurretik Espiritu Santuaren argia, eta grazia Ama Birjiña Santisimaren bitartez. Abe Maria.

Kredoaz, eta Artikuluaz gañera beste gauzarik sinisten dezue? Bai Jauna: Eskritura Santuan dagoan guzia: eta Jaungoikoak Elizari errebelatu, agertu, edo erakutsi dion guzia.

Zer gauza dira, oriek? Ez ori niri galdetu: bada naiz jakineza, edo ignorantea: baditu Eliz-Ama Santak orien arrazoia emango duen Doktore, Maisu, edo erakusleak. Ondo diozu: bada Doktoreai dagokie, eta ez zuri fedeko gauzen kontua zeago, eta luzeago ematea. Asko da zuentzat Artikuluen kontu ematea, Kre-

doan dauden bezela: eta zergatik sinisten dezuen jakitea.

Baña ori ala dalarik, konsuelo, eta atsegin andia izango da edozein kristauenzat, jakitea, zeri deitzen diogun Jaungoikoaren hitza erakusten digun Eskritura Santua eta zer dan Eskritura Santuaz gañera, Jaungoikoak Elizari agertu, edo erakutsi diona: eta nola agertu dion: eta orra aurretik erakutsi nai dizuedana: eta 1. galdetzen det: Zer da Eskritura Santua? Da Jaungoikoaren beraren inspirazio, eta Espiritu Santuaren berariazko argitasunarekin eskribiturik dagoan liburu bat, Biblia Santua deitzen dioguna ala Testamentu zarreko, edo lege zarreko, nola Testamentu berriko, edo Jesu-Kristoren lege berriko liburu guziak, edo Eskritura guziak beregan biturik, eta sarturik dauzkana: sermoietan sarri aitatzen dana: eta Jaungoikoaren beraren hitza bezela, batere errore, edo engaño bage dagoala, Kristau guziok sinistu bear deguna: zerren Jesu-Kristok berak, eta aren Apostoluak alakotzat deklaratu zuen: eta Eliz-Ama Santak aen eskutik gure Jaungoikoaren hitza bezela artu zuen: eta beti alakoa bezela erreberenziatu izan du: eta Eskritura Santako liburu guziak Eliza Santa Katolikak arturik dauzkan

moduan, egiazkotzat norbaitek errezibitu nai ezpadi-  
tu, exkomunikazioarekin kondenatzen du.

Eta zein dira, edo nola deitzen zaie Eskritura San-  
tuko liburuai? Batzuek dira, esan dizuedan bezela,  
Testamentu zarrekoak, edo lege zarrekoak, Jesu-Kris-  
to gure Jauna gizon egin baño lenago eskribituak: eta  
besteak dira Testamentu edo lege berrikoak.

Zein dira Testamentu zarreko liburu Santuak? Ara  
Eliz-Ama Santak Trentoko Batzarre, edo Konzilio jene-  
ralean egiazkotzat deklaratu zituenak. Eta 1. dira Moi-  
ses (Patriarka eta Profeta andiak) eskribitu zituan bost  
liburu. Oen izenak dira Jenesis, Exodo, Lebitiko, Nume-  
roak, eta Deuteronomio. (Oetatik asitzen da Eskritura  
Santua: eta oetan dago Jaungoikoak Israeldarrai eman  
zien lege eskribitua, eta Israelgo Puebloaren historia,  
aen gertaera miragarriak dakatzena, munduaren  
kreaziotik, eta asieratik Promisioko lur Santuan Pueblo  
ura bera sartu zaneraño): eta ondoren daude ala Pue-  
blo guziarenak; nola Santu partikular, edo berezi  
batzuen historiak, edo gertaerak dakazten liburuak:  
eta baita ondo bizitzen; Jaungoikoa alabatzen, eta  
etorkizunak erakusten dituanak ere: eta izena due:  
Josue, Juezaen liburua, Ruth, Erregen lau liburu, Para-  
lipomenen liburu bi, Esdrasen lenbizikoa, eta bigarre-

na, Nehemias deitua; Tobias, Judit, eta Job Santuare-  
nak; Dabiden salterioa, eun da berrogeta amar Psal-  
mo dituana, Proberbioak, Eklesiastes, Kantikuen Kan-  
tikua, Sabiduriako liburua, Eklesiastikoa, Isaias, Jere-  
mias, eta Barakuk, Ezekiel, Daniel (Profeta andia asko  
eskribitu zuelako) eta amabi Profeta txikiak (ala dei-  
tzen zaie oei gutxi eskribitu zuelako) eta dira: Oseas,  
Joel, Amos, Abdias, Jonas, Mikeas, Naum, Abakuk,  
Sofomias, Ajeo, Zakarias, Malakias: eta Makabeoen  
liburu bi, Ienbizia, eta bigarrena. Oek guziok dira lege  
zarreko liburu Santuak.

Eta zein dira lege berriko, edo Testamentu berriko  
liburu sagraduak? Dirade Jesu-Kristoren bizitza, eta  
dotriña santua dakarden lau Ebanjelioak; San Mat-  
heok, San Markosek, San Lukasek, eta San Juan Eban-  
jelistak eskribitu zituenak. Apostoluen aktoak: (edo  
aen gertaera prinzipalak, San Lukasek eskribituak):  
San Pablo Apostoluaren amalau kartak: eta dira: bat  
Erromatarrai: bi Korintiokoai: bi Tesaloniakoai: bi  
Timoteori: bat Titori: bat Filemoni: eta bat Hebreota-  
rrari eskribituak: San Pedro Apostoluaren Karta bi: San  
Juan Apostoluarenak iru: Santiago Apostoluarena bat:  
San Judasena bat: eta San Juan Ebanjelistaren Apoka-

lipsis, edo errebelazioak. Eta orra Eskritura Santako liburu guzien izenak.

Eta Eskritura Santuaz gañera beste dotriñarik badegu, fedekoa bezela, eta Eskritura Santa bera bezela sinistu bear degunik? Bai: eta da Apostoluak Jesu-Kristoren aotik aditu, eta ikasi, eta erak, eskribitu bage, aoz mundu guzian erakutsi zuen dotriña: batez ere Eliza Santa gobernatzeko, eta Sakramentu Santuak emateko, eta ondo errezibitzeko bear zana: eta aekgandik izan zuen bezela, munduko Eliza guzietan, eta batez ere guzian burua dan Erromako Elizan beti gorde, eta erakutsi dana: eta dotriña orri deitzen zaio tradizio dibinoa, edo eskutik eskura bezela errezibitu, edo beti gorde dana. Eta ori ere antxitian, edo lenbizioan aotik aora Apostoluetatik artu, eta ikasi bazan ere, bereala Apostoluakin bizi izan ziran orduko Obispo, eta Elizako Maisu, edo Doktoreak eskribitu izan zuen, iñoiz ere aztu etzitezten: eta nola dotriña ori Jesu-Kristogandik Apostoluak artu zuen, eta Jesu-Kristoren ordenaz, eta aren izenean predikatu, eta erakutsi zuen; orregatik Eskritura Santari ematen zaion fedea bera, Apostoluak aoz erakutsi zuen dotriñari beti eman zaio: bada guzia da Jaungoikoak berak Eliza Santari errebelatua, edo erakutsia.



Eta ori guzia fede biziarekin eta batere duda bage, eta kezka bage, Jaungoikoaren beraren hitza bezela, sinistu dezazuen; 2. aditu itzatzue orain beste arrazoi batzuek guztiz egokiak, borondatez itxutu nai eztiran guziak argitzeko, eta desengañatzeko: eta Elizaren fede, edo siniste egiazkoan bizi zeratela Kristauak konsolatzeko: eta fedearen argiarekin batera zuen bizimoduak zuzentzera alaitzeko. Eta lenengo ekartzue gogora, gure Jaungoikoak ezerezetik egin gaituala: eta ez alperrik, baizik bera ezagutzeko, serbitzeko, amatzeko, eta beti beraz Zeruan gozatzeko. Baña nola Jaungoikoa ezagutu, eta serbitu dezakegu, eta gure betiko zoriona iritsi dezakegu, gure adimentua berez gai, edo kapaz ezpada Jaungoikoa bera ezagutzeko, eta gugandik zer serbizio nai duen jakiteko? Alperrik bada mundura ekarriko ginduzen, bera nor dan ta guk, bera serbitzeko, zer egin bear degun erakutsi nai izan ezpaligu. Eta, nork ori pensa lezake, jui-zioaren antzik badu, izanik Jaungoikoa beretzat egin gaituan gure jabea, eta gure Aita guztiz poderosoa, ona, eta jakinsua? Erakutsi digu bada argiro jakin bear degun guzia, bera ezagutzeko, eta serbitzeko, eta gure betiko zoriona iristeko.

Baña bearbada batzuek esango didazue: ori guzia egia da, edozeñek ezagutu lezakeana: baña Kristau katolikoek fedea eztuen Juduak, Mauruak, Turkoak, Herejeak, eta eren gisako legea dituzten beste fedebageak orobat uste due, eren legeak; eren errelijioa; eta eren sinismena dala egiazkoa: Nundik daki bada Kristauak, orien guzien legea, eta errelijioa gezurrezkoa dala, eta berea bakarrik egiazkoa, eta Jaungoikoak erakutsia dala? Ori klaru, edo argiro ikusi, eta sinistu eragiteko, Apostoluen denporatik onera txit sarri Elizako erakusle, edo Doktoreak guztiz jakintsuak, eta Santuak berariazko liburuak egin dituzte: eta irakurten dakitenak, dakazten arrazoiak, arrotasun bage, pasio bage, eta borondatezko itxumenik bage, egia jakiteko asmo, edo intenzio zuzenarekin eta Jaungoikoari bere argia eskaturik, irakorri, eta ondo kontsideratu nai baditue, Kristauaren fedea, edo dotriña, Jaungoikoak berak bere Elizari agertua, eta erakutsia dala argiro ikusiko dezue. Eta batez ere, estudio andirik eztuenak ere, erderazko iru liburutan ondo klaru ikusi dezake: bata da Fr. Luis de Granada Beneragarriak eskribitu zuena: eta deitzen da fedearen sinboloa. Bestea da Aita Señeri, Misionero famatuak atera zuena, eta deitzen da Aitzakiarik edo eskusarik eztuen

fedebagea. Eta 3. da orañago eskribitua: askoren eskuetan dabillena: eta deitzen da Ebanjelioa triunfoan. Baña zerren askok irakurten ez dakizuen, eta beste askok erarik eztezen, begien aurrean ipiñi nai dizkizuet, Kristauaren fedea, eta dotriña Jaungoikoarena dala, eta guztiz ziertua, eta sinisgarria dala aditzera ematen duen arrazoi batzuek: eta ikusiko dezue, egia dala, anziñatik Dabid Errege, eta Profeta Santuak esan zuena: *testimonia tua credibilia facta sunt nimis*: Jauna, zure testimonioak guziz sinisgarriak egin dira. Eta 1. badakizue, etorkizunaren berri, eta batez ere denpora askoren buruan gertatuko dana bere zirkuntantzia guziakin au da, noiz eta nola gertatuko dan, Jaungoikoak bakarrik dakiala: eta eziñ gizonak ori jakin dezakeala Jaungoikoaren errebelazio bage, eta argitasun bage: bada gure fede Santuko misterioak, batez ere gure Salbadore Jesu-Kristoren Jaungoikotasuna, eta gizon egingo zalako, eta gugatik ilgo zalako; piztuko zalako; Zerura igoko zalako; eta bere Espiritu Santua mundukoak santifikatzeko, bidalduko zuelako; eta munduan egingo zuen mudanza miragarriaren gertaera andiak, txit zeoro gure Jaungoikoak errebelatu, edo agertu zizten lege zarreko Profeta Santuai: eta oek aurrez esan, eta eskribiturik utzi zituzten, gertatu

baño askoz lenago: eta guziak kunplitu, edo gertatu ziran, aek esan, eta eskribitu zituen bezela: eta orrelako profezia egiazkoak Kristauak bakarrik dauzkate Eskritura Santuan: eta ori bakarrik da asko, beste arrazoirik ezpalego ere, Kristauaren fedea egiazkoa, eta Jaungoikozkoa dala sinisteko. Baña ona beste arrazoi bat, ori bera sinistu eragiteko guztiz indartsua: eta 2. da, Kristauaren fedea denbora guzietan izatea, eta beti bat, Jaungoikoaren gauza bezela. Adan, guzion lenengo gurasoagan asi zan gure fedea: ark, eta aren ondoren etorri ziran Patriarkak, Profetak, eta lege zarreko Santu, eta Jaungoikoaren egiazko serbitzari guziak, guk orain sinisten deguna bera sinistu zuen, orain bezelako argi guziarekin ezpazan ere: aei gure Jaungoikoak promes, edo eskeintze andiak egiazizten: eta batez ere guziok salbatzera Kristo, edo Mesias, edo Salbadorea bidalduko zuela, ofrezitu zien: eta aek sinistu eta esperatu zuen bezela, etorri zan, eta agertu zan Jesu-Kristo gure Salbadore, eta Maisua bere denporan: eta Jaungoikoaren seme egiazkoa zalako prueba, eta testimonio guztiz asko, eta guztiz ikaragarriak, eman zituan: Jesu-Kristogan anziñako Profezia guziak osatu edo konplitu ziran: eta bere Jaungoikotasunaren, eta gizatasunaren egia bere bizi-

tza Santuarekin, bere dotriñarekin eta bere milagroa-  
kin alde akotara probaturik utzi zuen. Abran Patriarka  
andiaren fedea zuen Judu onak; zerurako bizi nai zue-  
nak Jesu-Kristogan sinistu zuen: eta Kristau egin ziran:  
baña Judu arroak, munduari, eta aragiari zerraizea-  
nak, emen bakarrik zorionekoak izan nai zuenak itxu-  
tu ziran: Jesu-Kristoren dotriñak, eta ejemploak aen  
bizimodua kondenatzen zuen: eta Jesu-Kristo illerazo  
zuen: eta aek, eta aen ondorengo Judu itxuak Jaungoi-  
koaren maldizioa beti beren gañ ikusi due: eta ikusten  
daude: baña noizbait desengañatuko dira: Jesu-Kristo-  
gan sinistuko due. Bada Jesu-Kristok, eta bere Aposto-  
luak, eta aen ondorengo Obispo, edo Elizako Arzai  
nagusiak, eta Doktore jakinsu, eta Santuak erakutsi  
zuen dotriña berbera, batere mudatu bage, denbora  
guzietan, eta orain ere erakusten digu gure Eliz-Ama  
Santak. Eta kontrara Juduen legeak, Jesu-Kristo etorri-  
ko zalako promesak zituanak bezela, etzuen iraun  
bear Jesu-Kristo etorri artean eta promesa oek kunpli-  
tu artean baizik: eta ala orduan bukatu zan: eta beste  
Hereje, Mauro, Jentil itxu, eta fedebageen seta gaizto-  
ak eztira beti era batera izan: batzuetan agertu, beste  
batzuetan desegin, eta era askotara mudakorrak izan  
dira: eta Jaungoikoak sortuak eztiralako, eta bai gizon

arroak asmatuak izan diralako señale klaroak berekin dakazte: eta aetan ez santidaderik, eta ez milagro egiazkorik iñoiz ere ikusi da. 3. Eta orobat gure fede santua, ez bakarrik beti bat, Jaungoikoaren gauza bezela izanda, baizik munduko bazter, eta toki guzietan era batera erakutsia, eta sinistua izan da: eta kontrara beste seta guziak eztira erakutsi toki batean, edo bestean baizik: eta eztue iraun siniste komun batean, gure fede Santuak bezela: eta ala, eziñ izan ditezke Jaungoikoak sortuak, baizik gizon utsak sortuak bezela mudakorrak, eta iraupen bageak: eta ori obeto ezagutuko dezue, konsideratu ezker, nolako alegiñak egin zituen Deabruak, eta munduko agintari itxuak Kristauen fedea desegiteko: eta ala ere gure Jaungoikoak beti konserbatu, eta iraunerasi duela persekuzio arrigarrien artean ere, berak Aita San Pedrori, eta beste Apostoluai agindu, eta hitza eman zien bezela: eta or ezagutzen da argiro Jaungoikoaren gauza dala: eta ori bera 4. erraz ezagutuko dezue, fede orretan bizi izan diran Santuak gogora ekarten badituzue: bada alde batetik ezin kontatu ala dira: eta bestetik Jaungoikoaren serbitzari, eta adiskide guztiz maiteak izan dira: San Juan Bautistak bakarrik bere santidade arrigarriagatik, milagrorik egin bage, mere-

zitu izan zuen, Juduak erak. Kristo, edo Mesias zala, uste izatea, eta Kristotzat eduki nai izatea. Eta Santu miragarri orrek, Jesu-Kristoren bide aurreko, edo Prekursore izateko Zerutik esleituak bezela, Jesu-Kristoren Jaungoikotasunaren testimonio klarua guzien aurrean eman zuen: eta arrezkero nork konta litzake, zenbat milloi santu izan diran, adiñ, eta klase guzietakoak, jakinsuak, eta jakinezak, aberatsak, eta pobreak, Erregeak, eta aen mendekoak, ezkonduak, eta ezkondu bageak: ofizio, edo langai guzietakoak, Santuegiazkoak, eta Jaungoikoaren adiskide maiteak izan diranak? Fede orren egia probatzeko, eta agertzeko milagro mota guziak egin zituenak? Eta orren testimonioa eren zañetako odolarekin tormentu arri-garrien artean eman zuenak? Eta nork esan dezake orien fedea egiazkoa ezjala, aiñ prueba ikusgarriakin Jaungoikoak berak konfirmatu zuen ezkeror?

Eta beste motibo, edo arrazoirik badegu gure fede Santaren egia osoro, eta argiro erakusten duenik? Txit asko ditugu: eta dotriña labur batean eziñ guziak esan ditezke. Baña ona arrazoi bat bakarrik, borondatez itxutu nai eztana argitzeko asko dana: eta da fede au Apostolu Santuak munduko jendeai Jesu-Kristoren ize-nean, eren hizkuntza propioetan predikatu zienean,

mundu guzian egin zan mudanza arrigarria: Jesu-Kristok berak lenago txit klaru, gertatuko zala, esan zien bezela. Bada orduan mundua zegoan Jentil itxu idolatraz beterik: eta guziak (Juduen artean banaka batzuek atera ezker) gaiztakeriari, eta gezurrezko Idoloai, edo Jaungoiko falsoai zerraizten: ainbesteraño deabruak, eta eren pasio erabageak, edo lotsagarriak itxuturik zeuzkaten: eta ala ere Apostoluak, berez gizon pobre batzuek, lenago jakiñezak, edo ignoranteak, arranzan baizik etzekitenak, Jesu-Kristok erakutsi zien dotriñarekin, eta Espiritu Santuak eman zien Zeruko jakinduriarekin eta hizkuntza guzietan (lenago iñoiz aditu ez zituenetan ere) hitz egiteko, eta milagro mota guziak egiteko doai, edo eskualdi miragarriarekin eziñ kontatu ala jende munduko bazter guzietan argitu zituen: eta Jaungoiko bakar baten egiazko ezaquerara, Jesu-Kristoren fedea laztanzera, eta onek, erakusten duen bizimodu Santua egitera ekarri zituen. Eta ori da iñork eziñ ukatu dezakean gauza guztiz jakiña: eta ori da Jaungoikoak bakarrik egin zezakean mirari guztiz andia. Eta iñork ausardiarik balu, Apostoluak mudanza ori milagro ziertuak bage egin zuela esateko, zenzua, edo juizioa galdu duela esan leikio alakoari: bada eztue gizonak len zuen sinistea uzten,



eta daukaten bizimodu nasai, eta atsegiñezkoa larga-  
tzen, desengañu klarua, edo argia ikusi bage: eta  
bata, eta bestea egin zuen eziñ kontatu ala gizon, eta  
emakumek mundu guzian: bada aditu zituenean  
Apostoluak predikatzen, eta erakusten zien fedeko  
egiak; eta ikusi zituenean egiten zituen milagro guztiz  
arrigarriak, larga zioben Idolatriari, eta bizioari, eta  
jarraitu zioben Jesu-Kristoren fede, eta dotriña egiaz-  
koari: eta aiñ bizi, eta aiñ irmo Kristau berri aek  
fede, eta siniste egiazko orretan jarri ziran, nun, ez  
mundutarrak, baizik Zerutarrak zirudien: Jaungoikoa-  
ren eta lagun urko, edo projimoaren amorioz beterik,  
eta irazekirik zeuzkaten eren biotzak: munduko hon-  
rak, aberastasunak, eta gorputzaren atsegiñak ezer-  
tan etzeuzkaten: munduko ondasunak pobrei txit  
gogotik partitzen zien: guziak biotz bat baizik etzuela  
zirudian: Jesu-Kristoren dotriña Santua beti gogoan  
zerabilten: eta txit sarri aren gorputz guztiz preziatua  
komunio Santuan errezibitzen zuen: eta aiñ fede bizia,  
eta indarsua zuen, nun pozik jarten ziran tormentu  
mota guziak, eta eriotza bera sufritzera Jesu-Kristoren  
amorioagatik, eta betiko bizia, eta Gloria Zeruan ase-  
guratzeagatik: eta ori ez banaka batzuek, ezpada  
milloika orretako Kristauak denbora artan izan ziran:

eta ez bakarrik pobretxoak, eta jakinezak, baita aberatsak, eta jakinsuak ere: bada fedeagatik martirioa padezitu zuenak bakarrik, bestela ill ziran Kristau onek aitatu bege, amazazpi milloi gutxienez kontatzen ditu Eliz-Ama Santak. Eta ori bera da fede egiazkoaren beste testimonio bat guztiz andia, eta ikusgarria. Eta ala, Kristauak aïñ motibo indarsuak ditu, duen fedea Jaungoikoak erakutsia dala sinisteko, nun posible baliz ala ere engañaturik egotea; kulparik batere ezin izango luke: eta geiago dana, Jaungoikoari berari esan leikio orduan, aren Majestadeak berak engañatu duela. Baña ori esatea, blasfemia arrigarri bat izango litzaleke: bada guziok dakizue, Jaungoikoa ezin engañatu litekeala; eta eziñ engañatu gaitzakeala.

Millarezko eskerrak bada aren Majestadeari sarri eman bear diozkatzue, egiazko fedearen argira ekarri, eta Zerurako bide zuzena erakutsi dizuelako. Baña zuen fede ori bera, zuen akusatzalle, eta fiskal garratza izatea nai ezpadezue, Zerurako bizi bear dezue: eta zuen biotzak, edo amorioa eztituzue ipiñi bear munduko anditasunetan, aberastasunetan, eta aragiaren, edo gorputzaren atsegiñetan. Jesu-Kristok guziori Ebanjelio Santuan erakusten digun bezela, munduari, eta Jaungoikoari eziñ batetan gure biotzeko

amorioa emango diegu. Jaungoikoa gauza guzien gañean, edo guziak baño geiago amatu bear degu: eta erabaki bear degu, lenago guziari, eta gure biziari ere largatzea, eta Jaungoikoagatik ematea, ezenez, Jaungoikoa eta gure anima pekatu larri batekin galtzea. Ori da gure fedea eman eragin bear digun lenengo frutua: eta orren ondoren artu eragin bear digu birtuteari jarraitzeko gogo eragillea: eta ori gure obretan, eta bizimoduan agertu bear degu.

Jaungoikoak berak arren digula guziori orretako bere grazia; eta gero betiko gloria. Amen.

# SEIGARREN DOTRIÑA

*1. Jaungoiko egiazko bat badala; ezagutu eragiten da ez bakarrik fedearen argiarekin, baita arrazoi utsaren argiarekin ere.*

*Eta 2. Jaungoikoa zer dan nolabait aditzera emateko alegiña egiten da.*

Kredoaren, eta fedeko Artikuluen esplikazioari narraiola, gaur federo egiarik prinzipalena, eta beste guzien burua, eta zimendua, edo fundamentua dana aditzera eman bear dizuet, N.K.: Kredoan esaten degu: nik sinisten det Jaungoiko, Aita guztiz poderoso, Zeruaren, eta lurraren Kreadoreagan. Eta fedeko lenengo Artikulua da: sinistea Jaungoiko guztiz poderoso bakar bategan. Esan bear dizuet bada, eta txit kontuz aditu bear dezue. 1. Jaungoiko egiazko bat badala, ezagutzen degula argiro, ez bakarrik fedea erakusten digulako, baita ere, fedearen argirik ezpazgendu ere, arrazoiaren argiarekin bakarrik egia andi ori klaru ezagutzen, eta aditzera ematen dalako. Alabaña, nola aiñ premiazkoa dan egia orren ezaguera-argia, Jaungoikoak berak alde guzietara ori agertu nai

izan digu, dudatzeko lekurik utzi bage. Eta 2. alik ondoena Jaungoikoa zer dan zuei aditzera ematen asiko naiz, Eta guzior probetxu andirako izan dedin eskatu dezagun Espiritu Santuaren argia, eta grazia, Ama Birjiña guztiz Santuren bitartez. Abe Maria.

1. **G.** Zein dira, Jaungoiko egiazko bat badala argiro erakusten dizkiguen motibo, eta arrazoiak? Guztiz asko dira: baña, ez geiegi luzatzeagatik, iru bakarrik aitatuko dizuet. Eta 1. da gure fede Santuaren ziertutasuna: 2. Zeruan, eta Lurrean ikusten ditugun kreatura guziak ematen diguen guzior Egillearen, edo Kreadorearen ezaguera klaroa, eta guztiz ikusgarria: eta 3. da gure barruko sentimentu naturala, eta ezagupegia.

**G.** Gure fede Santuaren ziertutasunak nola erakusten digu, Jaungoiko egiazko bat badala? Zergatik fedeko egia guziak gezurrak, eta iduripen utsak izango lirake, Jaungoiko egiazko bat ezpaliz: bada, len esan degun bezela, egia onen gañean, zimendu, edo fundamentu guztiz irmo, eta ziertu baten gañean bezela seguraturik daude beste fedeko egia guziak. Eta ikusirik daukazue aurreko dotriñetan, eta aurrera ere ugari ikusiko dezue, gure fede Santuaren egiaren motiboak zein ziertuak, eta ugariak diran: eta ala guztiak argiro erakusten digue Jaungoiko egiazko bat badala.

**G.** Eta fedearen argi bage, nola ezagutu diteke, badala Jaungoiko egiazko bat? Zergatik arrazoi utzarekin bakarrik, ondo pensatzen jarri ezkerro, argiro ezagutzen da: ezin ezerezetik sortu, edo egin zitekeala, ez Zerurik, ez Lurrik, ez eta beste Kreaturarik batere; eta Zeruan, eta Lurrean ekusten ditugun gauza aiñ miragarriak eziñ izaten abiatu, edo asi zitezkeala, egi-llerik, eta sortzallerik lenago izan ezpaliz: zeurok ikusten dezue eziñ etxe bat sortu, edo egin ditekeala, materialak prestatu bage, eta oriekin etxea nork egin arkitzen ezpada. Bada orobat mundu au, bere obra guziakin eziñ sortu, edo egin zitekean ezerezetik, nork materialak prestatu, nork trazatu, eta nork egin aiñ egokiro, eta aiñ jakinduri miragarriarekin lenago argitu ezpaliz. Eta ala lenago nai ta ez izan bear zuen gauza guzien egille bat eta ez nolanaikoa, baizik betidanik berez dana: guzia-alduna, edo guztiz poderosoa, eta guztiz jakintsua: eta ori da Jaungoiko egiazko bat bakarra: bera beregan orain ikusten ezpadegu ere; Zeruko, eta lurreko kreatura guzietan, guzien egillea bezela federik ezpaliz ere argiro ezagutzen dana, arrazoiari, eta konsiderazioari leku eman ezkerro. Ara nola, guziok dakigu gure anima, Espiritua dalako, eziñ ikusi, eta eziñ ezagutu degula, edo nolakoa dan eziñ

konprenditu degula: eta ala ere ziertu gaude gure animan bizi gaituala: eta ikusten degu gure barrean, ez gorputzak, baizik animak duela doaia, eta indarra gauzak gogoratzeko: gauzak ezagutzeko, bereizteko, edo distingitzeko: eta nai dituan gauzak maitatzeko, edo ez maitatzeko, eta onera, edo gaitzera jarteko aukera, edo eskualdea, eta libertadea. Eta nola animarik ezte-gula esatea, ikusten eztegulako, litzatean azkeneko zorakeria, ala Jaungoikoa beregan dan bezela ikusten eztegulako, Jaungoikorik eztala esatea, izango litzate itxumenik andiena, eta arrigarriena: zenzurik, juiziorik, eta arrazoiaren argirik ez idukitzea: eta abere, edo animalien antzekoa izatea.

**G.** Eta nola ori bera ezagutu eragiten digu gure barruko sentimentuak, eta ezagupegiak? Zergatik gure Jaungoikoak, adimentuarekin eta arrazoiarekin batera munduko jende, edo gizon, eta emakume guziaz, eta baita Kristau eztiranai, eta fedearen argirik eztuenai ere, eman izan die Jaungoikotasunaren argi, edo ezaguera bat, aĩn bizia; nun eztan izan jende motarik mundu guzian Jaungoikoa, edo guzien egillea badala ezagutu eztuenik: eta orri dagokala, Dabid Errege, eta profeta Santuak laugarren Psalmoan, hitz oek esaten ditu: Jauna zure aurpegiaren argia gudan

sillatu, edo markatu izan dezu. Esango balu bezela: nor zeran Jauna ezagutu eragin diguzu. Eta ala, nola-koa dan Jaungoikoa, eta nola serbitu bear duen ezta-kitenak ere, badakie, badala Jaungoikoa: eta dala guzien gañekoa: eta nola arrazoiaren argiarekin baka-rrik ezagutzen duen gurasoai, eta ongilleai zor zaien errespetoa, eta esker ona; orobat ezagutzen due, Jaungoikoari zor zaiola honrarik, eta erreberenziarik andiena: ala bera danagatik, edo guzion Jaun, eta jabe soberanoa dalako; nola beragandik bear degun guzia esperatzen degulako eta ala, ezta gizon, edo emaku-merik, ustebageko, edo supitoko estutasun, eta arris-ku, edo peligroetan Jaungoikoaganatzen eztanik, bere sokorru, edo laguntasuna eskatzeko bezela: eta ori, berezko mugimendu, edo sentimendu natural batekin. Eta orra, nola fedea alde batetik, eta bestetik arra-zoiaren argi, eta ezaguera naturalak klaru erakusten diguen badala Jaungoiko egiazko bat. Eta bada iñor ori ukatu nai duenik? Bai: Eta nor da? Eskritura Santuak dio: dala gaiztoa, edo guztiz gaiztoa dalako, Jaungoi-kozik izatea nai eztuena. *Dixit insipiens in corde suo, non est Deus.* Ez luke nai nork kastigatu izatea: eta ala, ez adimentuaren aldetik, baizik bere biotz gaizto-aren aldetik atrebitzen da esatera: Jaungoikozik ezta-



la: baña eziñ ori bere adimentuari sinistu eragin dio: zergatik Jaungoiko egiazko bat badalako egia aĩñ argia, eta klaroa da; nun arrazoiaren argitasun guzia, eta juizioa, edo zenzua galdu bage, eziñ ainbesterano gizona itxutu diteke. Jaungoiko gure Jaunari bada guziok millarezko eskerrak gogotik eman degiozka-gun, zergatik beretako egin gaituan bezela, bera nor dan ere agertu nai izan digun. Eta orain ikusi dezagun al deguneraño, Jaungoikoa zer dan.

2. **G.** Zer da bada Jaungoikoa? Da, esan, eta pen-satu edo gogoratu al ditekean izaterik, edo gauzarik garaiena, gorena, exzelenteana, eta miragarriena. Jaun bat, kabubage ona: guzia-alduna, edo guztiz poderosoa: jakinsua, eta justua: asiera bagea: eta beste gauza guzien asiera, edo prinzipioa: eta guzien fiña, kabua, eta atsedeen betea. Orra gure dotriña laburrak Jaungoikoaren izateaz ematen digun ezague-ra: eta ori bera itz labur oekin aditzera eman diteke. Jaungoikoa da betidanik berez dana: eta beste gauza guziak ezerezetik sortu edo egin dituana: bera nor dan agertzeko, eta kreatura guziaz on egiteko. Aren Majes-tadeak berak Moises bere adiskide, eta serbitzari andiari aldi batean esan zion: nork bidaltzen zaituan Israelgo Puebloa Faraon Erregearen mendetik libra-

tzera, edo ateratzera galdetzen dizuenai esango diezu: Berez danak bidaltzen zaituala. «*Ego sum qui sum: qui est misit me ad vos*». Eta ala gure Jaungoikoaren kabubageko izateaz, edo naturalezaz mundu onetan daukagun ezaguerarik argiena, klaruena, eta andiena da, Jaungoikoak berak hitz labur orietan eman ziguna.

**G.** Baña ori zeago, eta klaruago aditzera ematen ezpadigu, zer esan nai duen eziñ ezagutuko degu, diozuela deritzot. Zer esan nai du berez danak? galdetuko didazue. Esan nai du, eztala beste gauzarik batere, eta eztala izan iñoiz ere berez danik, Jaungoikoa bakarrik baizik. Eta ala Jaungoikoa bakarrik dala betikoa: berez beti bizi izan dana: iñori ezer ere iñoiz ere zor izan eztiona: eta kontrara, kreatura guziak, ala andiak, nola txikiak, nola bizikorrak, nola bizirik eztue-nak: Zerua bera, Aingeru guziak Eguzkia, Illargia, Izar-rak: eta Lurra, eta Itxasoak: gizonak, emakumeak, abere, eta egazti mota guziak: arbolak, eta landara mota guziak; hitz batean, mundu guzia, eta goien, eta bean ikusten diran gauza guziak, eztirala berez, eztuela berezko izaterik: diran guzia, eta duen guzia besteri, au da ezerezetik sortu, edo egin dituanari zor diobela: denbora batean ezertxo ere eztirala, eta

sortu dituanak konserbatuko, edo iraupena emango ezpalie, ezerezera biurtuko liratekeala: eta orra zein diferentzia miragarria dagoan Jaungoikoaren, eta kreaturen artean.

**G.** Eta Kreadorearen, eta kreaturaen artean dagoan diferentzia orretatik zer ateratzen da? 1. Jaungoikoak duela berezko betiko izate bat neurrik, kaburik, mugarik, eta bazterrik eztena; eta kreatura guziak duela, orainago eman zaien izate guztiz berri, eta labur bat Jaungoikoaren betiko, eta kabubageko izatearen aldean. 2. Ateratzen da, Jaungoikoa dala neurribageko, perfekzio, goratasun, eta anditasun guziak beregan dauzkana: eta orien aldean kreatura guziak dituen perfekzioak, doaiak, birtuteak, eta bentaja guziak utsa bezela dirala, eta orietan sartzen dirala: Jesu-Kristoren gizatasun, edo Humanidade guztiz Santuarenak, Maria Birjiña Santisimarenak, Aingeru, eta Santu guzienak ere ezerez bezela dirala: bada oriek badue bere muga: eta Jaungoikoarenak mugarik batere ezte. 3. Ateratzen da, kreatura guziak duen izate guzia, eta dituen prenda guziak, ala naturalak, nola naturalezaz gañekoak, edo graziazkoak, Jaungoikoak emanak dituen ezker, orien perfekzio guziak, nola indarra, jakinduria, Santutasuna, edertasuna, gozota-

suna, eta beste doai guziak Jaungoikoagan arkitzen dirala, guzien iturburu, eta jabeagan bezela: baña ez kreaturaetan dauden neurriarekin eta faltarekin, baik batere neurribage, eta kabubage: eta ala Jaungoikoak du kaburik eztuen ontasuna, guziasuna, edertasuna, Santutasuna, Misericordia, Justizia, betikotasuna, Zoriontasuna, eta ezin kontatu ditezkean anditasun guziak, batere falta bage, eta neurribage. 4. Eta orregatik eziñ iñola ere Aingeru guzien, eta gizonik jakintsuen guzien adimentuak iritsi ditezke Jaungoikoaren izate, eta anditasun soberanoa osoro ezagutze-  
ra: bada kreatura guzien adimentuak, izan al ditezkean argituenak ere, badue bere neurria, eta bere kabua: eta Jaungoikoaren izateak, eta aren perfekzioak, eta anditasunak eztue kaburik: eta ala Jaungoikoak berak bakarrik osoro, edo bera dan bezela bere izatea ezagutzen da. Ara nola itxaso zabala gizonak ikusi arren, aren ondarra, eta aren bazter guziak ezin ikusi, eta ezagutu ditu: orobat ez bakarrik Lurrean, baita Zeruan ere Jaungoikoa aurpegiz aurpegi ikusi arren, Zerutarrak erak ere Jaungoikoaren ondo bageko, eta bazter bageko izate guzia, edo Jaungoikoaren esenzia, edo naturaleza eziñ osoro, edo dan añerañño ezagutu lezake. Eta argatik dio Eskritura Santuak, Jaungoikoa

dagoala Kerubiñen gañean, ara ze Zeruko Aingerurik jakinsuenak ere eziñ iritsi diralako Jaungoikoa osoro, berez dan bezela ezagutzera. Eta orobat dio, Moisesek berrogei egunean Jaungoikoarekin hitz egin, eta bera-gandik legea eskribiturik artu zuela, baña lañapean, odeipean zegoala, zerren ezin osoro, eta argiro iritsi zitekean Jaungoikoaren izatea berez dan bezela osoro ezagutzera: eta ori bera esan nai du San Pablo Apostoluak, dionean, Jaungoikoa dagoala eziñ osoro ikusi ditekean argitasun batean. Eta orren antz gutxi bat Eguzkiagan daukagu. Zer gauza argiagorik Eguzkia baño? Eta ala ere gure begiak zeñ ondo begiratu diobe, eta eziñ osoro ikusi due, argitasun andiegia daukalako. Humillatu gaitezen bada N.K., gure adimentuaren labartasunaz, eta gure Jaungoikoaren izatearen kabugabetasunaz, adimentu guziak ezagutu al baño kabubageagoa dala kargu egiñik: eta orixe da, gure Jaungoikoa mundu onetan ondoena ezagutzeko modua. Eta ala ez bakarrik da Jaungoikoa esan, eta pensatu al ditekean gauzarik exzelenteana, edo gorena, eta miragarriena; baita ere esan, eta pensatu al baño finbage, edo kabubage exzelenteagoa, goragoa, eta miragarriagoa. Eta argatik da kabubageko amorioa, errespetoa, eta erreberenzia bera danagatik

merezi duena: eta gure anima, bera Zeruan argiro ikustearekin, gaiñez egiteraño asetzeko, edo osoro kontentatzeko bakarrik gai dana: bada gure biotzeko deseo guziak eziñ ase, eta kontentatu litezke Jaungoikoagan bakarrik arkitzen dan betiko, eta kabubageko zoriona, edo Gloria gozatuaz baizik: alabaña Jaungoikoaren Majestadeak, gure bearrik ezertako ezpazuen ere, beretako egin nai izan gaitu: au da, bera emen ezagutzeko, biotz guztitik amatzeko, eta serbitzeko; eta gero Zeruko Erreinuan beti-beti bera argiro ikusteko, bera alabatzeko, bera amatzeko, eta kaburik izango eztuen zorionaz, edo bere Gloriaz guk ere gozatze-ko.

Jaso ditzakun bada N.K. gure adimentuak, eta biotzak gure Jaungoiko guztiz andi, on, eta maitagarriagana: eta alegin guziak egin ditzakun, aren Majestadea egunoro, ta obeto ezagutzeko, eta egunoro geiagoko amatzeko: eta orretako orazioari, eta konsiderazioari egunoro gutxi-asko jarrai degiogun: bada bestela beraz azturik biziko gera; eta munduak, Deabruak, eta aragiak txit erraz itxutuko gaitue: eta gure buruaren amorio erabageak, eta ortik sortzen diran, andinai, edo soberbiak, gutziak, gorputzaren atsegin gura zikiñak; jan-edan gura erabageak: aserretasunak, enbi-

diak, eta nagitasunak, txit pekatu asko eragingo dizki-  
gue. Eta ala gure animako etsai galgarri oriek gogotik  
goitzeko, edo menderatzeko alegin guziak egin bear  
ditugu; eta batez ere gogoan erabilli gure Jaungoikoa-  
ri zor dioguna bera danagatik; egin dizkigun mesede  
gutziz andiakgatik, eta aurrera ere egin nai dizkigu-  
nakgatik, guk gere partetik, gure esker gaiztoarekin  
eragozten ezpadiogu. Alabaña guziok lotsatu bear  
gera, eta zenzatu bear gera, ikusirik gure Jaungoiko-  
ak, beti zorionekoak izateko egin gaituala: bere Seme  
maite Jesu-Kristoren biziaren, eta eriotzaren kostuan,  
pekatutik, eta Deabruaren mendetik atera gaituala:  
Kristau egin gaituala: bere seme-alabatzat artu gai-  
tuala: Jesu-Kristoren senideak; eta Espiritu Santuaren  
bizileku, edo jarleku, eta Tenplo biziak egin gaituala:  
Zeruko Erreinuaren, eta betiko Gloriaren deretxodu-  
nak, jabegaiak, edo herederoak egin gaituala: arako  
bide zuzena erakutsi digula, eta orri jarraitzeko bear  
adiña argi, eta graziaren laguntasun eman digula  
esker gaiztoz guk eranzun arren; betiko Gloriarako  
deretxoa galdu: betiko Infernua merezitu: eta Jesu-  
Kristo berriz illeragiteko diña motibo eman arren, ez  
gaituala betiko kondenatu: eta orain ere beragana  
deitzen gaituala, egiaz, eta benetan ondu nai bagera,

guri barkatzeko, eta bere adiskide egiteko deseo egiazkoarekin. Mesede oek guziok agertzen digue bada gure Jaingoikoaren ontasun neurribagea: eta guztioi digun guztizko amorioa: eskatu degiogun bada gogogotik argitu gaitzala: pekatuak iguitzeko, edo aborrezitzeko; eta bizitza berri bat egiteko digula bere grazia, eta gero betiko Gloria. Amen.



# ZAZPIGARREN DOTRIÑA

*Jaungoikoaren perfekziorik ezagutuenak  
aditzera ematen dira.*

Jaungoikoa zer dan zuei nolabait aditzera ematen asi nintzan orain urrengo aldian: eta esan nizuen gure Jaungoikoaren izatea nola dan infinitoa, edo kabubagea, ala bere perfekzio guziak, eta bakoitza dirala orobat infinitoak, neurririk, kaburik, eta numerorik eztenak: eta argatik jakinsu guzien adimentuak guztiz argituak izan arren, nola beren kabu, edo neurria duen ezin iritsi ditezkeala iñola ere Jaungoikoaren izatea, eta aren perfekzioak osoro ezagutzera, edo konprenditzera: ala ere nola gure egitekorik andiena, bearrrena, eta premiazkoena dan gure Jaungoikoa alik ondoena ezagutzea: bada zenbat obeto ezagutzen degun, anbat obeto eskuarkiro amatuko, eta serbituko degu: orregatik gutxi bat bada ere zerbait esan bear degu Jaungoikoaren perfekzioen gañean: eta probetxuarekin izan dedin, eska dezagun bertatik Espiritu Santuaren argia, eta grazia Maria Santisimaren bitartez. Abe Maria.

**G.** Jaungoikoaren perfekzioak numerorik ezpadue ere, edo eziñ kontatu alak badira ere, orien artean gure aditzeko moduan prinzipalenak, edo ezagutuenak zein dira? Dirade oek: Jaungoikoa da Espiritu bat guztiz purua, edo batere naste bagea, da guztiz poderoso, edo guzielduna: sabioa: ona: miserikordiosoa: justua: imensoa: eternoa, edo betikoa: imutablea, edo mudatzen ezтана: eta bera da gauza guzien prinzipioa, edo asiera, eta fiña, edo kabua.

**G.** Zergatik diogu Jaungoikoa dala Espiritu bat guztiz purua, edo naste bagea? **E.** Zergatik Jaungoikoak eztu gorputzik: ez eta parte diferenterik; ez eta parte askoren, edo gutxiren uniorik, edo nasterik: eztu ere mienbrorik, kolorerik, edo figurarik: eta ala ezin gure gorputzeko begiak in edo sentiduakin ikusi, edo sentitu diteke.

**G.** Nola bada Eskritura Santuak aitatzen ditu Jaungoikoaren begiak, eskuak, eta baita beatzak ere, mienbrorik batere ezpadu?

**E.** Aitatzen ditu guri nolabait aditzera emateko Jaungoikoaren perfekzioak, nola bere jakiunde, edo sabiduria, bere eskualdea, bere indarrak: baña Eskritura Santak berak esaten digu Jaungoikoa dala Espiritu utsa: eta da infinitamente poderoso.

**G.** Eta zer esan nai du guztiz poderosoa; edo guztialduna izateak?

**E.** Nai duen guzia egiteko eskua, eta indarra berez duela: eta ala bere nai izanaz beste bage ezerezetik sortu, edo egin zituan gure Jaungoikoak Zeruaren goienetik lurraren zentro, edo beraño ikusten diran, eta ikusten eztiran munduko kriatura guziak; eta Jaungoikoak berak nai balu guziak instante batean desegin litzake, edo ezerezera biurtu litzake: eta orobat berak nai balu, beste milla mundu, au baño andiagoak ere, egin, eta desegin litzake beste instante batean. Orra Jaungoikoaren poderioa edo eskualdea nolakoa dan; eta ala batere duda bage aren Majestadeak egin dituan miragarrizko obrak ala naturalezkoak, nola graziazkoak sinistu bear ditugu, eta bera adoratu, eta erreberenziatu bear degu biotz guztitik: eta bera ofenditzeko ikara, eta bildur andi batekin bizi bear degu: bada bere eskuan dauka noiznai gu Infernura botatzea pekatuan bagaude: baita beste aldetik bera gogotik serbitu nai badegu, konfianza, edo esperanza andi bat beragan artu bear degu: bada bera degu gure Jaungoikoa ezeze, gure Aita guztiz poderosoa guri laguntzeko beti prest, eta gogotik dagoana.

**G.** Eta Jaungoikoak nai duen guzia egiteko eskua, edo poderioa duen ezker, pekaturik, edo beste gauza gaiztorik egin dezake?

**E.** Ez: zerren ori ezta perfekzioa, baizik imperfekzioa, argaltasuna, eta poderioaren falta: eta ala ez gezurrik esan dezake, ez iñor engañatu lezake, eta ez beste utsegiterik batere egin lezake.

**G.** Zer esan nai degu Jaungoikoa infinitamente sabioa, edo jakinsua dala diogunean?

**E.** Esan nai du, egin nai dituan gauza guziak erarik ederrenean, edo egokienean egiteko iñoren konseju bearrik eztuela, baizik guzirako kabubageko jakintasuna daukala: eta 2. esan nai du: Jaungoikoak oraindano gertatu diran, eta aurrera gertatuko diran gauza guziak dakizkiala: eta gauza andi, eta txiki guziak beti presente dauzkala, edo ikusten dagoala, baita gure biotzeko pensamenturik, gogorik, eta deseorik ezkutatuenak ere: eta orra zerk atzeratu bear gaituan betiko pekatu egitetik, gogoratzen gerala, Jaungoikoaren aurrean gaudela, eta bera beti begira dagokigula. A! zer kon siderazio eragillea au, N.K., pekaturik ez egiteko, eta birtuteari jarraitzeko, onetara oituko bagiña!

**G.** Eta zer esan nai degu, Jaungoikoa infinitamente ona dala diogunean?

**E.** Jaungoikoa dala kabubageko ontasuna: eta dala guztiz ongillea: bere ondasunak bere kria-tura guziaz beti ematen ari dala, iñoren bearrik ezertako ezpadu ere: eta ala da guztiz maitagarria; eta orregatik merezi du gure biotzeko amorio guzi-guzia, bada guk merezi bage, bere ontasun utsagatik, egiten dizkigu egunoro, eta instanteoro mesede, edo fabore guztiz andiak.

**G.** Zer esan nai du izatea Jaungoikoa infinitamente miserikordiosoa?

**E.** Jaungoikoak pekatari guziaz erruki dituala: guziaz salbatzea nai duela: guzientzat erremedioa eman duela: eta egiaz humillaturik, lotsatu, eta damaturik, beragana benetan biurtzen, edo konbertitzen diranai biotz osotik barkatzen diela: eta ala galtzen, edo kondenatzen diranak eren kulpaz bakarrik kondenatzen dira. Ona N.K., egia batzuek, alde batetik poztu, eta konsolatu; baña bestetik agitz ikaratu, eta bildurtu bear gaituenak: bada orain bertatik egiazko alegiñak egiten ezpaditugu, Jaungoikoaren miserikordiaz baliatzeko; gero betiko desesperazio, eta amorrazio izugarri batekin Infernuan ikusiko degu gure kulpaz galdu, edo kondenatu giñala.

**G.** Eta zer esan nai du Jaungoikoa infinitamente justua izatea?

**E.** Jaungoikoak ezin geiagoraño pekatua igui duela, edo aborrezitzen duela: eta birtutea, eta santi-dadea gauza guzien gañetik amaten duela: eta ala pekatuari ematen dio infernuan betiko kastigua: eta birtuteari Zeruan betiko saria, edo premia. Eta ona iñoiz ere aztu bear ez gendukean egia bat, gure bizi-modua orrekin batera zuzentzeko.

**G.** Eta zer esan nai degu Jaungoikoa imensoa dala diogunean?

**E.** Eztala lekurik, eta tokirik Jaungoikoak betetzen eztuenik, eta ala Jaungoikoa dago leku guzietan, eta gauza guzietan; baña espezialmente, edo batez ere dago Zeruan, eta Aldareko Sakramentu guztiz Santuan, eta justuen animetan.

**G.** Eta nola dago Jaungoikoa leku guzietan?

**E.** Dago iru moduetan: 1. esenziaz: 2. presentiaz: eta 3. potentzian.

**G.** Zer esan nai du Jaungoikoa leku guzietan ego-tea *esenziaz*?

**E.** Gauza guziai duen izatea, edo esenzia guzia ematen, eta konserbatzen dagoala beti Jaungoikoa, alako moduan, ze Jaungoikoak utziko balitu, edo konserbatuko ezpalitu gauza guziak ezerezera biurtuko lirateke; eta ala Jaungoikoaren eskuetatik beti zinzilli-

ka bezela gaude, bada berari zor diogu gure izatea, baita orren iraupena ere: Eta ala ere, pekatuan, eta Jaungoikoaren aserrear egoteko ausardi arrigarria degu! Baña goazen aurrera.

**G.** Zer esan nai du egotea Jaungoikoa leku guzietan *presenziaz*?

**E.** Jaungoikoarenzat eztala gauza sekretorik, edo ezkuturik, bada guziak beti dauzka bere aurrean: eta ala gure biotzeko deseo, eta pensamenturik ezkutuenak ere ikusten dago.

**G.** Eta zer esan nai du leku guzietan *potenziaz* egoteak?

**E.** Gauza guziak, eta kreatura guziak, ala Zerukoak, nola lurrekoak Jaungoikoak bere mendean dauzkala: eta ala guzien jabe soberanoak bezela, guziezaz berak nai duen bezela disponitu dezakeala.

**G.** Eta zergatik esan degu Jaungoikoa dagoala espezialmente Zeruan, eta Aldareko Sakramentu guztiz Santuan, eta justuen animetan?

**E.** 1. Zeruan dago espezialmente zergatik an bere Palazioan bezela bere Gloria, eta ondasun infinitoak bere adiskideai agertzen, eta gozaerazotzen die. 2. Aldareko Sakramentu guziz Santuan dago espezialmente, zergatik an dago egiaz Jaungoikotasun guzia,

Trinidadeko bigarren Personagan Jesu-Kristoren gizatasun, edo humanidade santuarekin uniturik ezin guk konprenditu dezakegun era edo modu miragarri batean. Eta 3. justuen animetan dago Jaungoikoa espezialmente zergatik bere graziarekin batera bere espiritua konumikatzen die, eta maite ditu bere humeak bezela: eta ala anparatzen, gobernatzen, eta gidatzen ditu eren gauza guzietan.

**G.** Eta badago Jaungoikoa pekatu mortalean daudenetan: eta Infernuko Deabru, eta Demonioetan?

**E.** Bai: bada oriek duen izate naturala Jaungoikoak emana due, eta berak konserbatzen die: eta izate natural ori berez ona da: eta ala eren maliziak bakarrik gaiztotu ditu, eta orregatik, Jaungoikoak kastigatzen ditu.

**G.** Eta Infernuan ere badago Jaungoikoa? Bai: Eta erretzen da? Ez. Nola bada ezta erretzen? Zergatik ango sua ere, Jaungoikoak egiña da, Jaungoikoak berak bizirik konserbatzen du: eta Jaungoikoak nai duen ainbean baizik erretzen eztu: eta ala Jaungoikoa dago Infernuan juez, eta agintari bezela, bere justizia beti exerzitatzen, aren misericordiaz denboraz baliatu eztiranakin.



**G.** Eta zer esan nai degu Jaungoikoa Eternoa dala diogunean? 1. Jaungoikoa betikoa dala, eta beti izango dala eta 2. baita esan nai degu, Jaungoikoarentzat ezta la gauza igarorik, eta etorkizunik; zergatik gauza guziak dauzka beti-beti presente bere Eternidadean.

**G.** Eta zer esan nai degu Jaungoikoa imutablea dala, edo mudakorra ezta la, diogunean?

**E.** Jaungoikoagan aldarte, edo alteraziorik, eta mudanza egiazkorik ezta la gertatzen.

**G.** Eztigu bada esaten Eskritura Santak, Jaungoikoa aserratzen dala, damutzen zaiola, eta egin dituan gauzak mudatzen dituala? Ezta ori mudakorra izatea?

**E.** Itz egiteko modu orrezaz baliatzen da Eskritura Santa, guri aditzera emateko Jaungoikoaren justiziarren efektoak: baña eztu esan nai orregatik Jaungoikoak beregan pasiorik, alteraziorik, edo mudanzarik izatea duela: Jaungoikoak bere obrak mudatzen ditu, baita berak betidanik erabakirik zeukan bezela: bera beti bat dala, bere kreaturetan nai dituan mudanzak egiten ditu: eta orri batzuetan Eskritura Santak deitzen dio damutzea, gure itz egiteko moduarekin akomodatzeko.

**G.** Eta zer esan nai degu, Jaungoikoa gauza guzien prinzipioa, edo asiera: eta guzien fiña, edo kabua dala diogunean?

**E.** Jaungoikoak gauza guziak ezerezetik atera, egin, edo sortu dituala: eta orregatik da Jaungoikoa gauza guzien prinzipioa: eta nola guziak egin dituan bere honra, eta gloriarako, au da bere perfekzioak agertzeko, eta guzaz ezagutua, adoratua, eta serbitua izateko; orregatik esaten degu dala gauza guzien fiña.

Eta orra, N.K., gauza gutxi bat baizik esan ezpade-gu ere gure Jaungoikoaren perfekzio-anditasun, edo exzelenziak nolabait barruntatzeko bidea emanik. Kontsideratu itzatzue astiro, eta al dezuen sarriena: eta ikusirik gure Jaungoikoaren ontasunari zor diozka-gun obligazio guztiz andiak, eta gure oztasuna, gure ardurabagetasuna; eta are gaiztoago dana gure esker bagetasuna Jaungoikoarekiko: bada bera biotz guztia-rekin eta gure animako indar guziakin amatu ordean, ainbeste bider ofenditu, despreziatu, eta injuriatu degu; lotsatu, eta humillatu gaitezen arren: eta egiaz damaturik beragana biurtu gaitezen, konfesio humill, eta egiazko batekin gure utsegiteak erremediatu ditzagun: eta aurrera bizimodu berri bat gogotik egin dezagun: pekaturako bide, edo okasioai, kontuz alde

egiñaz; gure aztura txarrak; eta gurari gaiztoak benetan mortitikatzeke eta garaitzeko alegiñak egiñaz: orazioari, eta konsiderazioari egunoro zerbait jarraituaz: gure lan, eta beargai guziak Jaungoikoaren honorarako, eta berari ofreziturik egiñaz, gure neke, eta naibageak pazienziarekin eramanez: Sakramentu Santuak sarri, eta ondo errezibituaz: eta azkenik egunoro ill bear bagendu bezela gure bizimodua zuzenduaz. Bada orrela mundu onetan bertan pake andi batean biziko gera: eta gero eternidade guzian, Jaungoikoa bera bere Zeruko Erreinuan aurpegiz aurpegi, argitasun guztiarekin ikusteko, kontenplatzeko, eta gozatzeko zoriona izango degu. Amen.

# ZORTZIGARREN DOTRIÑA

*Trinidadeko misterioaren gañean.*

Aurreko dotriña bietan nolaerebait esan dizuet gure Jaungoikoa zer dan, eta nola Jaungoikoaren perfektioak diran neurribageak, edo kabubageak; eta orregatik esan al, eta gogoratu al baño infinitamente andiagoak dirala: eta baita ere, zenbat zor diogun Kristauok gure Jaungoikoari, zergatik guk merezi bage, bere ezaguerara ekarri nai izan gaituan, eta bera serbitzeko, amatzeko, eta Eternidade guzian Zeruko erreinuan bera ikusteko, eta bere gloriuz gozatzeko kriatu gaituan: eta ala gure obligazio guzia, eta gure zorion guzia gure Jaungoikoa ezagutzean, eta amatzean dagoala.

Orain Kredoaren lenengo artikuluaaren esplikazioari narraiola, gure erreljio santuak Jaungoikoagan beragan sinisten, eta konfesatzen duen misteriorik andiena, gorena, eta miragarriena, au da, Trinidad Santisimoko, edo Irutasun guztiz Santuaren misterioa, nolabait aditzera eman nai nikezue: baña orretako bear degu Espiritu Santuaren berariazko argia, eta

grazia: eta ala eska dezagun bertatik Maria Birjiña Santisima bitarteko arturik. Abe Maria.

Trinidad Santisimoa zer da? Da Jaungoikoa bera, Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua: iru persona distintoak, eta Jaungoiko egiazko bakar bat.

Jaungoiko egiazko bat baño geiago ezta? Ez, eta ezin ere dateke bat baño geiago izatea. Zergatik? Zergatik Jaungoiko egiazkoak izan bear du, eta egiaz da infinitamente perfektoa: au da perfekzio guzien jabe soberanoa: eta ala eztu, eta ezin izan dezake bere parekorik, edo beraren berdiñik; eta Jaungoiko bi, edo geiago balira, ez lirateke egiazko Jaungoikoak izango; zergatik perfekzio guzien jabeak batetan ezin izango lirateke. Zergatik ez? Zergatik diferenteak, edo distintoak izan bearuko luke; eta ala gauza batean, edo bestean distingitu bearuko luke, eta orretako nai ta ez bataku lukean perfekzioren bat, besteak ez luke izango: eta nola egiazko Jaungoikoa izateko nai ta ez perfekzio guziak berak bakarrik izan bear dituan; ortik argiro ezagutzen da, eztala, eta ezin datekeala Jaungoiko egiazko bat baizik. (1) *Deuteron. 6, 4 idem 32. 39. Ad Ephes. 4-5.*

Nola bada izanik aiñ gauza klaroa, edo argia, ezin datekeala Jaungoiko asko izatea: anziñako denbore-

tan munduko jendeak Jaungoiko asko adoratzeko zituen? orixe zetozen pekatuak berekin zekarren adimentuaren itxumenetik, eta biotzaren gogortasunetik; bada Infernuko Deabruak orrelako gizon itxutuak erraz sinistu eragiten zien, nai zituan gezur guziak; eta ala eguzkia, illargia, eta beste kreatura asko Jaungoikotzat, eta baita Deabrua bera ere, adonatu erazotzen zien, ainbeste milla Idoloetan. (2 ad. Rom. 1-v. 23.) Eta ala Kristauak, Eleizaren lenbiziko denboretan ain persegituak izan ziran, eta ainbeste martirio sufritu zituzten Jentilletatik; zergatik sinisten, eta erakusten zuten, etzala Jaungoiko egiazko bat baizik: eta Jentillen Jaungoikoak, guziak gezurrezkoak, edo irudipene-koak zirala.

Zergatik bada Eskritura Santak berak anziñako Profeta, Juez, eta Gobernatzaileak askotan deitzen die Jaungoikoak? (3 Exod. 22-v. 28) Eztitu orrela deitzen, egiaz, eta berez Jaungoikoak diralako, baizik Jaungoikoaren izenean, eta aren ordekoak bezela, berak emandako eskualde miragarri, birtute andi, edo kargu exzelenteren bat zuela erakusteko: ara nola Jaungoikoaren grazian daudenai deitzen diegu Jaungoikoaren semeak, eta Jaungoikozko naturalezaren partizipan-

teak (*consortes divinae naturae*) Jaungoikoak ez izan arren.

Zergatik Jaungoikoari Kredoaren asieran deitzen diogu Aita? Arrazoi askogatik: Lenbizikoa: zergatik egiaz Jaungoikoa dan kreatura guzien Aita; bada Jaungoikoak guziok ezerezetik egin gaitu: eta berak guziok mantenitzen, eta gobernatzan gaitu: eta ala geran guzia, eta degun guzia berari zor diogu. Bigarrena: deitzen diogu Kristauak Jaungoikoari gure Aita; zergatik bizitza naturalaz gañera ematen digu beste bizitza bat infinitamente geiago balio duena, au da graziazko bizitza: eta artzen gaitu bere seme adoptibotzat; eta egiten gaitu Jesu-Kristoren mienbroak, senideak, eta arekin batera Zeruko bere erreinuaren herederoak. Eta irugarrena: Jaungoikoari deitzen diogu Aita: zergatik dan egiaz, eta betidanik bere Seme bakar Jesu-Kristo gure Jaunaren Aita naturala edo propioa: eta Trinitate Santisimoko lenengo Persona, zeñari deitzen diogu Aita. Eta ala emen abiatzen gera Trinitateko Misterio guztiz altua, eta guztiz miragarria aitortzen edo konfesatzen.

Zer da bada Trinitateko Misterioa? Da Jaungoiko egiazko bakar bat iru personetan.

Zein dira Trinidadeko iru Personak? Dira Ienbizikoa Aita: Bigarrena Semea: eta irugarrena Espiritu Santua. Aita Jaungoikoa da? Bai. Semea Jaungoikoa da? Bai. Eta Espiritu Santua Jaungoikoa da? Bai. Iru Persona oriek eztira iru Jaungoiko? ez: irurak Jaungoiko egiazko bakar bat dira. Nola bada izanik iru Persona distintoak edo diferenteak: eta persona bakoitza Jaungoiko izanik, eztira ala ere iru Jaungoiko? Zergatik iru Persona aek eztue Jaungoikotasun bat baizik: irurak due Jaungoikozko izate bat, naturaleza bat, esenzia bat: eta orregatik irurak dira Jaungoiko bat. Aitak duen izate, naturaleza, edo Jaungoikotasun ura bera du Semeak: eta Aitak, eta Semeak duen izate, naturaleza, edo Jaungoikotasun ura bera du Espiritu Santuak. Orrela Aita izango da Semea? Eta Aita, eta Semea izango dira Espiritu Santua? Ez: Persona bakoitza bana da: bata besteagandik distingitzen dira irurak, Jaungoiko egiazko bat baizik ezpada ere. Zertan bada distingitzen dira Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua bata besteagandik persona distintoak izateko? Edukitzean persona bakoitzak, besteak eztuen bereztasun, propiedade, edo distingitzen duen gauza bat. Zer propiedade edo bereztasun diferentea du bada persona bakoitzak, alkargandik orrela distingitzen duena? Aita



Jaungoikoak du bere Aitatasuna: iñorgandik etorrerarik ez izatea: eta bera beste persona bien betiko prinsipioa izatea. Orra Aitak, edo lenengo persona duen bereztasunak, edo propietadea, beste persona biak eztuena: bada Semeak, eta Espiritu Santuak Aitagandik due eren betiko etorrera, eta izate guzia: Eta Semeak zer bereztasun, edo propietade diferentea dauka? Aita Eternoaren Semeak, edo Trinidadeko bigarren personak du bere Semetasuna, eta bere betiko etorrera Aitaren adimentutik. Nola da ori? Berez dan bezela mundu onetan ezin konprenditu, eta ezin aditzera eman diteke. Ona ala ere antz, semejanza, edo konparazio labur bat. Pensatu dezakegu Aita Eternoak bere Dibinidade edo Jaungoikotasunaren ispilluan betidanik ikusten, eta formatzen dagoala bere imajina bizi bat, eta ari komunikatzen bere izate guzia: ara nola gizon bat ispillu bati beti begira balego, bere imajina sortzen, eta ikusten egongo litzatekean, ala gure Jaungoikoa dago beti bere izate, edo naturaleza kabubagea ikusten eta kontenplatzen: eta orrela bere imajina bizi bat betidanik sortzen dago: baña diferentzia onekin; gizonak ispilluan sortzen duen imaginari eztio bere bizitza, eta bere izatea komunikatzen, zergatik gizonak ori ezin dagike: baña Aita Jaun-

goikoak betidanik sortzen dagoan bero imaginari komunikatzen dago beti bere izate guzia: eta argatik esaten zabo Jaungoikoaren Semeari Aita Eternoaren imajina bizia, eta konsustanziala; eta Aitagandik duen betiko etorrera ori da Semeak duen bereztasun, edo propiedadea, beste persona biak eztuena. Eta Espiritu Santuak zer bereztasun, edo propiedade dauka beste persona biakgandik distingitzeko? Espiritu Santua da Aitaren, eta Semearen betiko amorio konsustanziala, eta aren bereztasuna, edo propiedade espeziala, da edukitzea bere betiko etorrera, edo prozeditzea betidanik Aita Eternoaren, eta Semearen borondatetik, prinzipio batetik bezela: bada Aita Eternoa, eta bere Semea beti, beti, edo eternidade guzian alkar finbage, edo neurri, eta kabubage amatzen daude eta ala bien borondatetik prozeditzen da, biak laztanzen dituan betiko amorio infinito bat: eta ori da Espiritu Santua, zeñari Aitak, eta Semeak beti, edo eternidade guzian komunikatzen daude beren izate, esenzia, edo natura-leza guzia, au da Jaungoikotasun guzia. Eta ala alde batetik Jaungoiko egiazko bakar bat baizik ezta; eta bestetik Jaungoiko ori bera iru personetan arkitzen da: au da Jaungoikotasun bat berbera dago Aitagan, Semeagan, eta Espiritu Santuagan. Eta Trinidadeko

iru persona orietan bada bata bestea baño lenago izan danik, edo poderio, eskualde, edo gloria geiago duenik? Ez: eta ala betikoa, edo eternoa da Aita Jaungoikoa: betikoa da Seme Jaungoikoa: eta betikoa da Espiritu Santu Jaungoikoa: bada irurak izate bat, eta naturalez bat baizik eztue: eta ala ezta iñoiz ere, eta ezta instante batean ere izan Aita Semea bage: eta ezta Aita, eta Semea Espiritu Santua bage: bada ezta Jaungoikoaren Semea munduko gurasoen semeak bezela, Aitaren ondoren gero datorrena, eta ezerezetik aek bezela sortua: Jaungoikoagan eztago, eta eztegu pensatu bear gauza gorputzezkorik, eta materialik: Jaungoikoagan guzia espiritu utsa, purua, eta nasbagea da: eta adimentuaren, edo ezagueraren bidez bakarrik prozeditzen du betidanik Seme dibinoak bere Aitagandik: eta Espiritu Santuak Aitagandik, eta Semeagandik prozeditzen du betidanik borondatearen bidez, len esan dizuedan bezela: eta Jaungoikoagan beragan eztago, ez gauza igarorik, eta ez gerokorik, edo etorkizunik: baizik Jaungoikoagan beragan guzia da bate-tan, eta guzia betikoa, edo eternoa: eta ala betikoa da Aita, betikoa da Semea, eta betikoa Espiritu Santua: bada irurak eztue betiko izate bat berbera baizik. Eta argatik iru persona aek Jaungoiko bat bakarrik diran

bezela dira guztiz poderoso bat, Kriadore bat, Salbadore bat, eta Glorifikadore bat, eta orobat irurak due poderio bat, adimentu bat, borondate bat, jakintasun bat, miserikordia bat; eta beste perfekzio guzietan irurak bat dira. Baña nola ori guzia orrela izan diteke? Nola dan berez ezin mundu onetan konprenditu diteke: baña ala dala, ziertu gaude, zergatik gure Jaungoikoak berak ala agertu, edo erakutsi dio bere Elizari, eta Jaungoikoa ezin engañatu diteke, eta ezin engañatu gaitzake. Jesu-Kristo gure Jaunak, Zerura igotzeko puntuan zegoela, bere Aposloluai esan zien. Munduko jende guziaz nere dotriña erakutsi egiezue: eta bateatu itzatzue Aitarean, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean: itz orietan argiro erakutsi zuen Jaungoiko bakar batean arkitzen dirala iru persona, au da Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua: bada ezin dateke Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua persona bat bakarrik izatea: eta orobat ezin dateke Jaungoiko egiazko bat baño geiago izatea, edo iru Jaungoiko egiazko diferenteak izatea. Eta ori bera San Juan Ebanjelistak erakusten digu, esanaz: iru dirala Zeruan testimonio ematen duenak, Aita, Berbo edo Semea, eta Espiritu Santua: eta iru oiek bat dirala.

Ala ere zuek nolabait misterio guztiz miragarri au ezagutzeko ona antz, konparazio edo semejanza labur batzuek. Lenbizikoa: Jaungoikoak gure anima egin zuen bere antzera, edo semejanzara: eta ala animagan arkitzen da Trinidadeko Misterioaren imajina bat: gure anima ezta bat baizik, eta ala ere ditu iru potentzia diferenteak, edo distintoak, bata bestea ez tiranak. Bata da adimentua, bestea borondatea, eta bestea memoria: eta ala ere irurak anima bakar bategan arkitzen dira.

Bigarrena: mundu onetan arkituko balira iru persona edo iru gizon anima bakar batekin: eta irurak adimentu bakar bat, borondate bakar bat, eta memoria bakar bat, leuzkenak: izango lirateke alde batetik iru, eta bestetik bat: au da anima bakar bat iru personetan. Au munduko kreaturetan ezin dateke; zergatik kreatura bakoitzaren naturaleza, edo izatea da guztiz laburra: baña ori gertatzen da Jaungoikoagan, zeñaren naturaleza, edo izatea da neurribagea, infinitoa, eta infinitamente ugaria: eta ala infinitamente komunikatzen da, partitu bage iru persona dibinoetan.

Irugarrena: eguzkiagan ipiñi digu gure Jaungoikoak misterio onen antz eder bat. Eguzkiak bat izanik, ditu iru gauza. Lenbizikoa: bere izatea. Bigarrena:

bere argitasuna. Eta irugarrena: bere berotasuna. Eta begira ezazue ezin dagokeala eguzkia instante batean ere, bere argitasuna, eta berotasuna komunikatu bage: eta aiñ anziñakoa da eguzkiaren argitasuna, eta baita berotasuna, nola eguzkia bera. Eta ala betikoa baliz eguzkia, orobat betikoa izango lizate aren argitasuna, eta berotasuna. Ori bera bere moduan pensatu bear dezue, gertatzen dala Trinidadeko iru persona dibinoetan. Bada Aita Eternoa, eguzki dibino bat bezela beti dago ematen bere argitasuna: au da beregandik sortu erazotzen eternidade guzian bere Seme dibinoa, zeñari deitzen zaio Aita Eternoaren argitasun konsustanziala: eta orobat eternidade guzian Aitagandik, eta Semeagandik prozeditzen du Espiritu Santuak; au da bien betiko amorio infinitoak, eguzkiagandik berotasunak prozeditzen duen bezela: eta beste aldetik ikusten dezue eguzkia bat baizik ezpada ere, diferenteak dirala aren izatea, aren argitasuna, eta aren berotasuna. Ala bada izanik bat bakarra gure Jaungoikoa, beregan ditu iru persona difereneak, au da Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua: eta irurak eztira Jaungoiko bakar bat baizik. Eta orra N.K.: Jaungoikoak berak agertu, eta erakutsi digun Trinidadeko misterio guztiz miragarria, orain biotz guztitik sinistu

bear deguna: eta ondo bizibagera, Zeruan dan beze-la argiro ikusiko deguna.

Baña orretarako zer egin bear degu? Adoratu bear ditugu gure biotz guztiarekin Trinidadeko iru persona dibinoak: eta osoro konsagratu, eskeñi, eta ofrendatu bear diegu gure buruak, eta gure gauza guziak: bada berez merezi due amorio, eta errespeto infinito bat: eta geran guzia, eta degun guzia iru Persona dibinoai zor diegu. Bada ezerezetik egin gaitue: eren antzera, edo semejanzara egin gaitue: eren betiko Gloria gozaerazotzeko egin gaitue: Deabruaren, eta pekatuaren mendetik, edo katiberiotik atera gaitue: eta Bateo Santuan Aitak bere semetzat artu gaitu: Seme dibinoak, gure naluralezarekin laztandu, eta bere mienbroak, eta bere senideak egin gaitu: eta Espiritu Santuak bere Tenplo, eta bizileku egin gaitu, eta beren grazia, eta doaiak eman dizkigue; eta guk merezi ezpadegu ere, alde guzietara eren guganako amorioa, edo onginaia agertu digu: Baña nola orainda-ño eranzun diegu nere Kristauak? Pensatu dezagun arren sarri zenbat zor diogun gure Jaungoikoari: eta zein gaizki eranzun diogun: eta zenbat aldiz ofenditu degun; eta egiaz gure artean lotsaturik, eta humillatu-rik, eta gaizki egiñaz damaturik, Jaungoikoagana biotz

guztitik itzuli gaitezen: eta bizitza santu bat egiteko grazia, eta indarra gogotik eska degiogun: bada eztu nai iñor galdu, eta kondenatu dedin: baizik guziok salbatu gaitezen. Iguzu bada arren, o gure Jaungoikoa orretako bear degun argia, eta grazia: eta gero Zeruan zeran bezela zere Glorian ikusteko, eta gozatzeko, zoriona. Amen.



# BEDERATZIGARREN DOTRIÑA

- 1. Nola dan Jaungoikoa guztiz Poderosoak:*
- 2. Nola dan Kriadorea.*

Oraindaboko lekzioetan, eta dotriña, edo erakusbi-deetan, gure Jaungoikoa beregan zer dan nolabait aditzera eman dizuet N.K.; emendik aurrera, Kredoaren lenbiziko Artikuluaren explikazioari narraiola, Jaungoikoak berak, bera nor dan, eta nolakoa dan aditzera emateko, eta guzaz ezagutua, adoratua, eta serbitua izateko egin dituala obra guztiz miragarriak aitatu bear dizuet. Eta ala orietan argiro ikusiko dezue, alde batetik Jaungoikoaren guzialtasun, edo kabubageko eskualde, edo poderioa, aren ontasuna, amorioa, miserikordia, justizia, probidenzia, sabiduria, edo jakiundeak, eta beste perfekzio neurribageak; eta bestetik ezagutuko dituzue aren majestadeak egin dizkigun mesede, edo fabore guztiz andiak: orrela gu errazago mobitzeko Jaungoikoaren beraren amoriora. Gaur bada munduaren kreziotik asitzen gerala, esan bear dizuet, nola gure Jaungoiko guztiz poderosoak ezerezetik egin zituan Zerua, ta lurra, eta Zeruan, eta

lurrean ikusten diran, eta ikusten ez tiran gauza guziak. Eta onetako Kredoaren hitz oek: *Aita guztiz poderoso Zeruaren, eta lurraren Kriadoreagan*, explikat u bear dizuet: eta probetxuarekin izan dedin eskatu dezagun lenago Espiritu Santuaren argia, eta grazia Maria Birjina Santisimaren bitartez. Abe Maria.

Aditu dezuen ezker o lenagoko lekzioetan Jaungoikoa zer dan, eta nola izanik bat bakarrik, ala ere iru persona dibinoetan arkitzen dan: edo iru persona dibinoak, Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua Jaungoiko egiazko bakar bat dirala: aurrera dotriñari jarraitzeko: galdetzen det 1. Nola da Jaungoikoa guztiz poderoso? edo zer esan nai du guztiz poderosoa izateak? Esan nai du, Jaungoikoak bere nai izanarekin beste bage nai duen guzia egiten duela, edo egin dezakeala: eta ala nai balu bere eskuan dauka, beste milla mundu, au baño andiagoak, eta ederragoak instante batean egitea: eta baita guziak desegitea, edo ezere zera biurtzea ere: eta ori ezeze, Aingeru, eta gizon guziak asmatu, eta gogoratu al baño fin bage geiago da Jaungoikoak egin duena, eta egin dezakena: eta bakarrik, beste aldi batean esan nizuen bezela Jaungoikoak ezin egin dezakena da, gezurra esatea, iñor engañatzea, edo pekaturen bat egitea; edo bera

iltzea: baña ori guzia argaltasuna, utsegitea, eta imperfekzioa da, eta orrelakorik batere ezin Jaungoikoak izan dezake.

Eta zergatik Kredoan bakarrik esaten degu, *nik sinisten det, Jaungoiko Aita guztiz poderoso Zeruaren, eta lurraren Kriadoreagan?* Benturaz Semea, eta Espiritu Santua eztira Aita bezela, guztiz poderoso, eta Kriadore? Bai orobat Semea da guztiz poderosoa eta Kriadorea: eta Espiritu Santua ere da guztiz poderoso, eta Kriadorea, edo obeto esateko, Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua eztira iru guztiz poderoso, eta iru Kriadore, ezpada irurak dira guztiz poderoso bakar bat, eta Kriadore bakar bat: ara nola iru Persona Dibino oriek Jaungoiko bakar bat baizik eztiran; zergatik naturaleza, edo Jaungoikotasun bat baizik eztuen: orobat poderio bat berbera baizik eztue, eta ori bera beste perfekzio guzietan esan bear degu.

Zergatik bada Aitari bakarrik Kredoan esaten dio-  
11 Kriadorea? Zergatik mundua ezerezetik ateratzea, edo kariatzea da kabubageko poderioari bakarrik dago-  
kana eta poderioaren edo guziasunaren obrak Aitari ematen diozkagu. Egia da kriaturetan agiri diran obra guziak Trinitate Santisimoak batetan egiñak dirala: baña ala ere poderioaren obrak Aitari, sabidu-

riarenak Semeari, eta amorioarenak Espiritu Santuari atribuitzen zaizka. Zergatik ordea Aitari batez ere poderioaren obrak? Zergatik Aita da beste Persona bien betiko prinzipioa: edo Aitagandik due beste Persona biak beren betiko etorrera: Eta zergatik Semeari sabiduriaren obrak atribuitzen diozkagu? Zergatik Semea da Aita Eternoaren sabiduria konsustanziala: Aitaren adimentutik du bere betiko etorrera Dibinoa. Eta zergatik amoriozko obrak Espiritu Santuari emanen diozkagu? Zergatik Espiritu Santua da Aitagandik, eta Semeagandik betidanik prozeditzen duen amorioa: edo da Aitaren, eta Semearen betiko amorio konsustanziala.

Eta zergatik Kredoan, Jaungoikoaren beste perfekzio guzai alde bat utzirik, esaten degu bakarrik guztiz poderosoa? Arrazoi askogatik, eta txit andiakgatik, Apostolu Santuak Kredoaren asieran, Jaungoikoari deitu zioten guztiz poderosoa: eta ona batzuek: 1. Zergatik ori ondo jakin eta ezagutu ezkerro, beste perfekzio guziak Jaungoikoagan egiaz arkitzen dirala, batere duda bage, edo erraz sinistuko degu: bada ez lizate guztiz poderosoa izango, perfekzioaren bat faltatuko balitzaio. 2. Zerren Jaungoikoaren poderio infinitoarean berri ondo jakin ezkerro, eztegu difikultaderik

izango aren Majestadeak egin dituan, eta agertu dizkigun misterio ezkutatuak, eta obra guztiz miragarriak, ala naturalezazkoak, nola graziazkoak sinisteko: berez nola diran ezin konprenditu arren. Bada izanik Jaungoikoa alde batetik guztiz egiatsua, edo egia bera, eta bestetik nai duen guzirako kabubageko eskualdea, edo poderioa duena; azkeneko txorakeria, eta itxumena lizake, Jaungoikoak egin dituan, eta berak agertu dizkigun gauzak ez sinistu nai izatea; zergatik gure adimentu laburrak ezin konprenditu, edo iritsi dituan. Eta orra fedearen birtuterako, edo Kredoak erakusten dizkigun gauza guztiz miragarriak sinisteko, zein gauza egokia, eta bearra dan Kredoaren asieratik Jaungoikoa guztiz poderosoa dala ondo jakitea. Baña fedea ezeze Jaungoikoaganako gure esperanza, beraren bildurtasuna, humiltasuna, eta beste birtute asko piztutzeko, edo bizi erazotzeko agitz bearra da Jaungoikoaren poderio, edo guzialtasunaren bear bezelako ezaguera.

Eta ala Zeruko bidean izan ditzakegun enbarazo, edo difikultade guziak, gure animako etsaiak ekarten dizkiguen tentazio fortizak; eta geurk gure barruan ditugun pasio, edo gaitzerako griña, eta aztura gaiztoak eskuratzeko, edo garaitzeko erremedio guztiz ego-

kia da, ondo pensatzea, eta sinistea, gu aiñ argalak, eta ezerezak izan arren; gure Jaungoikoa dala gure Aita txit maite gaituena, eta Aita guztiz poderosoak, guri bear degun indar guzia emateko beti prest dagoana: eta ala bear dan fedearekin, eta konfianzarekin eskatu nai badiogu, pozik emango digu bere sokorrua, auxilioa, edo laguntasuna, eta orrekin batera gure etsai guziak garaituko ditugu, eta nekerik andienak ere erraz jasoko ditugu. Baña beste aldetik, (nagiak, edo ardurabageak bagera) ondo konsideratu ezker Jaungoikoaren poderio infinitoa: eta aren esku poderosoak egin dituan kastigu izugarriak pekatuen kontra, bildurtuko, eta humillatuko gera, San Pedro Apostoluak esaten digun bezela: eta guri bizia kentzeko ezeze, gu Infernura botatzeko eskua, eta poderioa duen Jaungoikoa ofenditzeko bildur santu bat gure biotzetan artuko degu, Jesu-Kristok berak enkargatzen digun bezela. Eta azkenik Jaungoiko guztiz poderosoren ezaguerak ekarriko gaitu aren poderio, edo guziantasunak gure alde egin dituan miserikordiazko obrak alabatzera, eta guztiakgatik zor diozkagun esker onak ematera, edo konsagratzera.

Eta nola da Jaungoikoa Kriadorea? Zergatik ezerezetik egin zituan gauza guziak. Eztira orrela beti izan

orain ikusten ditugun Zeruak, eta lurra, eta orietan arkitzen diran gauza guziak? Ezta ezer ere betikoa izan danik, Jaungoikoa bera baizik: eta ala asi berriak, edo sortu berriak dira Zeruak, eta lurra, eta beste gauza guziak, Jaungoikoaren betikotasun, edo eternidadearen aldean, bada onek eztu izan iñoiz ere asierarik, baizik beti izan da: eta bera da beste gauza guzien Kriatzallea, edo egillea. Eta zenbat urte dira gutxi gora bera mundu au Jaungoikoak egin zuela? Urte oriek kontatzeko moduan iritsi asko izan dira, baña komunkiro gizon guziz jakinsuak erakusten due, kontuak ondo aterarik, munduaren asieratik onera igaro dirala bost milla zortzireun eta amalau urte. Eta Zerurik, lurrik, eta beste gauzarik etzanean, nun zegoan orduan gure Jaungoikoa? Bera beregan zegoan, eta ala dago eternidade guzian. Eta Jaungoikoak berak nai izan zuenean zertatik, edo zerekin egin zuen mundua, eta munduko gauza guziak? Ezerezetik: eta ori da kriatzea; ezerezetik gauza bat egitea. Eta ezerezetik sortu, edo egin diteke zerbait? Jaungoikoak bai egin dezake bere poderio infinitoarekin, baña beste iñork ez,

Eta zergatik Jaungoikoak gauza guziak kriatu bazituan Kredoan bakarrik esaten degu Zeruaren, eta

lurraren Kriadorea? Zergatik izen orien azpian aditzen dira Zeruan, eta lurrean arkitzen diran beste gauza guziak, eta ez bakarrik begiz ikusten diranak, baita ere begiz ikusten eztiran gauza guziak ere, nola gure animak, eta Aingeruak, eta beste gauza guzi-guziak; eta ala ezta kriaturarik batere Jaungoikoak egin eztuenik.

Eta sugeak, dragoiak, eta benenoa, edo pozoia darien gauzak Jaungoikoak egin ote ditu? Bai, guziak Jaungoikoak kriatu ditu. Zertako ordea orrelako gauza itxusi, eta kaltetsuak egin ditu? Bere justizia guri agertzeko, eta pekatuaren itxustasuna, nolabait aditzera emateko, edo begien aurrean paratzeko. Eta Jaungoikoak nola kriatu zuen mundu au? Kriatu zuen bere hitz bakarrarekin, edo bere nai izanaz beste bage: eta ala esan zuen, egin bedi argia, eta bereala sortu zan argia: eta orobat beste gauza guziak. Eta Jaungoikoak batetan egin zituan gauza guziak? Nai izan balu guziak batetan egin zitzazkean; baña Eskritura Santan esaten digu egin zituala sei egunean: eta berak ondoena iritsi zion ordenarekin egin zituan. Lenengo egunean zer egin zuen Jaungoikoak? Argia egin zuen. Zer egin zuen bigarren egunean? Egin zuen Zerua. Irugarren egunean zer egin zuen? Apartatu zituan alkarren-



gandik Zerua, itxaso, eta lurra: eta lurretik sortu zituan belarrak, arbolak, eta landara, edo planta mota guziak. Laugarren egunean zer egin zuen Jaungoikoak? Egin zituan eguzkia, illargia, eta izarrak. Zer egin zuen bostgarren egunean? Egin zituan arraiak eta egaztiak. Eta seigarrenean zer egin zuen? Abere, edo animalia mota guziak egin zituan: eta azkenik guziaz agintzeko, eta guziezaz baliatzeko, edo serbitzeko egin zituan Jaungoikoak aparte gizona, eta emakumea bere antzera, imajiñara, eta iduri edo semejanzara; eta egin izan zituan beste kriaturak ez bezelako era miragarri batean, aurrerago esango degun bezela. Eta zazpigarren egunean, bukatu bere obrak, atsedendu zuela Jaungoikoak, dio Eskritura Santak: eta esan nai du kriatura berriak egiteari utzi ziola: eta egun ori kon-sagratu zuen: eta egun Santua, eta deskantsukoa egin zuen.

Eta Jaungoikoak munduaren bearrik bazuen? Ez. Zergatik egin zuen bada? Bere gloriagatik, edo bere izate, edertasun, jakiunde, eta beste anditasun, eta perfekzio neurribageak guri agertzeagatik: eta guzaz ezagutua, adoratua, eta eternidade guzian amatua, eta alabatua izateko, bere ondasun infinitoak, edo kabubagekoak komunikatzen dizkigula. Eta nork orain

konserbatzen, eta gobernatzan du mundua bere gauza, eta kriptura guziakin? Gure Jaungoikoak berak bere probidenzia, eta poderio infinitoarekin edo neurribagearekin: eta ala konserbatuko ezpalitu, guziak ezerezera biurtuko lirakeke.

Eta Jaungoikoak norentzat kriptu zituan Zerua, Eguzki, illargia, eta izarrak, eta lurrean, itxasoan, eta orietan ikusten ditugun beste kriptura guziak? Nola Jaungoikoak berak ezagutzeko, adoratzeko, eta serbitzeko egin zuen gizona, ala beste gauza guziak egin zituan gizona serbitzeko, eta guziezaz gizona baliatzeko.

Eta orra, N.K., zein dotriña andia erakusten diguen Kredoaren hitz bakar oek: Aita guztiz poderoso, Zerua, eta lurraren kriadoreagan. Eta ala N.K., 1. gure Jaungoikoaren guziasuna, edo poderio infinitoa edo mugabagea, eta bere obra, edo egitura guztiz miragarriak gogoan erabiltzeko alegiñak egin bear ditugu. Eta 2. ondo konideratu bear degu, zein gauza andiak, eta probetxugarriak Jaungoikoak egin dituan, eta konserbatzen dituan gizonaren alimenturako, eta alibiorako: eta orretan ezagutu bear degu Jaungoikoaren gubanako ontasuna, amorioa, eta Probidenzia miragarria: baña guzien gañean eztegu iñola ere aztu

bear, Kriatura guzien artean gu bakarrik egin gaituela, Aingeruen gisa aren Majestadea ezagutzeko, amatzeko, eta serbitzeko, eta eternidade guzian beraz gozatzeko. Auxe dala gure azkeneko, eta betiko zoriona: eta ori alkanzatzeko bakarrik serbitu, eta baliatu bear generala mundu onetako kriatura guzietaz: ez oetan gure biotza, eta memoria ipinteko: ez orien ugaritasunaz gure buruak arrotzeko, edo soberbiaz betetzeko: eta are gutxiago gure gurari edo apetitu erabagekoak kunplitzeko: bada ori da gure azkeneko fiña eta egiazko zoriona, zertan dagoan aztutzea; eta Jaungoikoa bera ofenditzeko, aren ontasunak egin dizkigun benefizio, eta mesedeaz baliatzea. Igui izan dezagun arren orrelako eskergabetasun izugarria: eta baliatu gaitetzen munduko ondasunaz obra onak egiteko, eta Jaungoikoa obeto serbitzeko: bada orrela gure egiazko zoriona, eta betiko ondasunak Zeruko erreinuan gozatuko ditugu. Amen.

# AMARGARREN DOTRIÑA

- 1. Aingeruak zer diran, eta zertako egiñak diran.*
- 2. Nola Aingeru batzuek beren soberbiagatik kondenatu ziran: eta Aingeru onak beren humiltasunagatik salbatu ziran: eta nola Deabruak tentatzen gaituen; eta Aingeru onak gordetzen gaituen.*

Aurreko lekzioan batetan aditzera eman dizuet, N.K., nola Jaungoikoaren Majestadeak bere poderio infinitoarekin Zeruak, eta lurra, eta orietan arkitzen diran gauza guziak ezerezetik sortu, edo egin zituan: eta zertako egin zituan; eta Kredoaren lenbiziko Artikuluari garraizkola gure Jaungoikoak bere antzera, eta semejanzara egin zituan Aingeruak, eta gizonak, au da, kriatura guzien artean nobleenak, eta prinzipalenak zer diran, eta zertako egiñak diran emendik aurrea esan bear dizuet: eta zerren Aingeruak gizonak baño lenago egiñak diran; eta berez nobleagoak diran, gaur esango dizuet 1. Aingeruak zer diran, eta zertako Jaungoikoak egin zituan: eta 2. nola aetatik batzuek eren arrotasun, eta soberbiagatik betiko kon-

denatuak izan ziran, eta gu ere galtzeko alegiñak beti egiten ari diran: eta kontrara nola beste batzuek eren humiltasunagatik, eta eskerongatik betiko salbatu, eta zorioneko egin zituan gure Jaungoikoak: eta Aingeru on oek nola gordetzen, eta anparatzen gaituen, gu ere aen zorioneko lagunak betiko izan gaitezten. Asko inporta duen dotriña dezue gaurko au, Jaungoikoaren Justizia, Probidentzia, eta gizonari dion amodioa ondo ezagutzeko. Eta ala arretaz, eta kontuz aditu bear dezue: eta frutuarekin izateko Espiritu Santuari bere argia, eta grazia eskatu degiogun guziok, Maria Santisima bitarteko arturik. Abe Maria.

Zer dira Aingeruak? Dira kriatura espiritual batzuek gorputzik batere eztuenak, ezta kolorerik, edo figurarik ere, eta orregatik ezin gure gorputzeko begiakini ikusi, eta sentitu ditzakegu: baña bai due adimentu txit argia, eta indar guztiz andia: eta dira gizonak baño agitz jakinsuago, eta indarsuago.

Aingeruak Espiritu utsak badira, eta gorputzik ezpadue: Zergatik pintatzen dituzte gorputzakin? Zergatik Eskritura Santan esaten dan bezela, askotan agertu izan dira giza-antzean: bada ezin Espiritu utsak ikusi, eta sentitu ditzakegu. Eta zergatik pintatzen

dituzte egoakin? Guri aditzera emateko zeñ laster, edo ariñ egiten duen Jaungoikoak aginzen dien guzia.

Jaungoikoak zertako kriatu zituan Aingeruak? Aren Majestadea serbitzeko, amatzeko, eta eternidade guzian Zeruko erreinuan alabatzeko, eta gozatzeko. Eta zorion ori iristeko berak eman zien bear zuen eza-guera eta grazia guzia.

Eta zer estadutan kreatu zituan Jaungoikoak Aingeruak? Graziatzko, eta santidadeko estaduan: baña eman ere zien libertadea onerako, eta gaitzerako; onean irauten bazuen betiko saria Zeruan irabazi zezen, eta gaitzera eren kulpaz makurtzen baziran betiko kastigua infernuan izan zezen. Eta Aingeru guziak iraun zuen beti graziatzko estaduan? Ez guziak. Batzuek iraun due beti estadu artan, zerren humillak, eta esker onekoak Jaungoikoarekiko izan ziran: baña beste batzuek graziatzko estadutik erori ziran beren arrotasun, antuzte, edo soberbiagatik; bada berenez balira bezela, eta Jaungoikoari ezer zor ezpaliote bezela arrotu ziran: eta Jaungoikoari eskerrak eman ordean, eta obedezitu ordean, eren barruan ainbeste-raño altxatu ziran, ze Jaungoikoa bera bezela izan nai zuen.

Nola deitzen dira graziazko estaduan iraun zuen Aingeruak? Deitzen dira Aingeru onak, edo bakarrik Aingeruak. Eta graziazko estadutik erori ziranak nola deitzen dira? Aingeru gaiztoak, edo sarriago esan oi zate Deabruak, tentatzalleak, Demonioak, Infernuko etsaiak: eta guziak bat esan nai due.

Zer egin zitzaien Aingeru gaiztoai soberbiazko pekatuan konsentitu zuen instantean? Izan ziran bereala desterratuak betiko Zerutik: eta izan ziran betiko kondenatuak Infernuko tormentuetara. Zertan ari dira Infernuan? An sufritzen, eta padezitzen dituzte eternidade guztiko tormentuak.

Eta Deabru guziak daude infernuan? Betiko penak, edo tormentuak guziak sufritzen dituzte, aetatik asko oraindio airean, eta gure inguruan gu persegitzeko badabiltza ere: bada ori San Pedrok, eta San Pablok ala aseguratzen digue; eta Eskritura Santak askotan aitutzen due, nola Deabruak gizon askoren barruan egon diran: eta nola Jesu-Kristok, eta Apostoluak libratu zituzten.

Eta zergatik, eta noiz artean Deabruak emen airean ibilliko dira? Juizioko eguneraño iraungo due goi onetan Jaungoikoak ala permititurik: eren maliziak artu eragiten die al dituen medio guziak gizonak gal-

tzeko. Beti gure inguruan dabilta, orroka dauden leoiak bezela, gu iristeko, edo puskatzeko; eta Serpienteak bezela gu engañatzeko. Jaungoikoak orrela permititzen du, gizonak erne, edo kontuz bizi ditezten, eta beti esna, eta zelata egon ditezten, orazioarekin, Jaungoikoaren bitzarekin, eta fedearekin armaturik, eta indarsu eginik.

Indar andia due Deabruak gizonak galtzeko, edo pekaturatzeko? Jesu-Kristo lurrera etorri baño lenago txit andia zan, eta mundu guzian txit zabaldua, edo banatua zegoan Deabruaren Erreinu, edo Inperioa, bada munduko gizon geienak eren itxumenagatik, eta pekatuakgatik Infernuko Deabruaren mendeko, esklabo egiñik zeuden; eta kasi mundu guzian adoratzen zuen. Baña Jesu-Kristok bere eriotza, eta erresurrekzioarekin Deabruaren erreinua desegin zuen. Armaturik zegoan indarsua garaitu zuen: okupatzen zuen erreinutik bota zuen: eta gure etsaiaz triunfatu zuen.

Arrezkero Deabruaren poderioa, eta eskualdea dago loturik: eta eztauka Kristauen gañean aginterik; oek eren Borondatez beren pekatuakin aren mendeko egiten ezpadira: baña milla artificio ditu, kontuz ez dauden gizonak bere lokarrietan, eta saretan arrapatzeko: eta iñoiz ere aspertzen ezta gu Jaungoikoagan-



dik apartatzeagatik; eta bere zorigaiztoko lagun egi-teagatik.

Munduaren aizken aldean, Ante-Kristoaren persekuzioaren denboran gizonen artean karidatea oztu, eta gaiztakeria geiago ikusiko da, eta orduan Deabruaren agintea berriro agitz zabalduko da: baña eztu asko iraungo Jesu-Kristok kenduko die betiko bere aginte guzia: Infernura betiko botako ditu Deabruak, eta aen lagun zorigaiztokoak: eta Zerura eramango ditu berekin triunfo andiarekin Santuak, edo justuak: eta aetan, eta aekin batera erreinatuko du eternidade guzian.

Zer estadutan gelditu ziran, eta zertan ari dira Aingeru Santuak? Bertatik betiko zorioneko, edo biena-benturadu egiñik geratu ziran: eta arrezkero beti Jaungoikoaren majestadea ikusten, alabatzen, eta gozatzzen ari dira: eta aren ministro leialak bezela aren aginteak egiten dituzte: Jaungoikoaren legeaz konforme beste kriaturak, eta batez ere gizonak anparatzen, zaitzen, eta gobernatzen dituztela: bada gizon bakoitzari eman digu Jaungoikoak Aingeru guardako bat, gorde gaitzan gure bizi guzian. Eta Aingeruak asko ote dira? Zenbat diran ziertu eztakigu baña bai guztiz asko dirala, Eskritura Santak esaten digu: eta ala ere

iruren izenak baizik aitatzen ez ditu: eta dira San Migel, San Gabriel, eta San Rafael.

Eta Aingeru guziak Jerarkia batekoak, eta ordena batekoak, edo berdinak ote dira? Ez: Eskritura Santak kontatzen ditu bederatzi ordena diferenteak: eta dira 1. Serafiñak. 2. Kerubinak. 3. Tronoak. 4. Dominazioak. 5. Prinzipaduak. 6. Potestadeak. 7. Zeruko birtuteak. 8. Arkanjeluak. Eta 9. Aingeruak. Eta bederatzi ordena oek daude partiturik iru Jerarkia berezietan. 1. Egiten due Serafinak, Kerubinak, eta Tronoak. 2. Egiten due Dominazioak, Prinzipaduak, eta Potestadeak. Eta 3. egiten due, Zeruko birtuteak, Arkanjeluak, eta Aingeruak.

Eta Aingeru Santuak, eta batez ere Aingeru guardakoak, zer egiten due, batez ere gizonaren alde? 1. Gure orazioak, eta obra onak Jaungoikoari presentatzen diozkate: erak ere gugatik erregutzen due. Eta 2. Deabruaren tentazioetatik defenditzen gaituzte, eta mundu onetako arrisku, edo peligruetan laguntzen, eta anparatzen gaituzte.

Eta zer probetxu atera bear degu guziok orain esan degun dotriñatik? 1. Adoratu bear degu Jaungoikoaren poderio infinitoa, eta ontasun soberanoa: bada ainbeste milloi Aingeru ezerezetik egin zituan: eta

izan ditekean zorionik, eta felizidaderik andienerako egin zituan. 2. Kontsideratu bear degu, kriaturarik jakinsuenak, eta indarsuenak, zein ezerezak diran Jaungoikoaren majestadearen aurrean; eta zenbateraino igui duen, edo aborrezitzen duen Jaungoikoak bere kriaturetan aia soberbia, eta arrotasun andia: eta aia esker gaiztoa ikustea; eta nola alakoak aren justiziak kastigatzen dituan: eta kontrara zein maite dituan humillak, eta esker onekoak, eta oek nola faborezitzen, honratzen, eta bere gloriara jasotzen dituan. Eta 3. ikusirik nolako alegiñak Deabruak egiten dituan gu galtzeko, eta kondenatzeko: eta kontrara Aingeru Santuak, eta batez ere Aingeru Guardakoak nolako leiarekin eta amorioarekin gu zaitzen, anparatzen, eta Zerura gidatzen ari diran. Alegin guziak beti egin bear ditugu Deabruaren tentazioai atzera esateko, edo erresistitzeko: eta batez ere soberbiari, eta gure buruaren amorio erabageari gerra egiteko. Aingeru Santuen exemploari eren obediencia, humiltasun, eta Jaungoikoarekiko esker onean jarraitzen diogula: eta orretako beren laguntasuna egunoro gogotik eskatzen diegula.

Baña aitatu ditugun ezkeru eren izenakin iru Aingeru, Eliza Ama Santak berariaz gogoratzen dizkigu-

nak, eta festa partikularra kin honratzen dituanak, gal-  
detzen det oriek zein diran? Eta zertan distingitzen  
diran, edo zer lan, edo zer egiteko bakoitzari Jaungoi-  
koak eman ziozkan? Eta nola Kristau guziok honratu  
bear ditugun? Dirade bada San Migel, San Gabriel, eta  
San Rafael: eta diet, San Migel dala Aingeru guzien  
Kapitan jenerala: Zeruan izan zan pelea, edo gerra  
andi artan Luzifer, eta bere lagun arro, antuztez, edo  
soberbiaz beteak altxatu ziranean, eta berez balira  
bezela, edo Jaungoikoari zuen guzia, zor ezpaliobe  
bezela, arrotu ziranean, eta Jaungoikoa bera bezela  
izatea ansiatu zuenean; San Migelek Jaungoikoaren  
honra defenditu zuen: Nor Jaungoikoa bezelakorik?  
deadar egin zuen: Aingeru soberbio, edo arroak goitu,  
edo benzitu zituan: eta oek betiko Zerutik deserrituak,  
edo desterratuak, eta betiko Infernura ondatuak izan  
ziran: eta orduan San Migel, eta ari jarraio zioben Ain-  
geru on guziak. Zeruko glori az betiko gozaten abiatu  
ziran, eta betiko zoriona seguratu zuen. Eta gure Jaun-  
goiak San Migel Arkanjel egin zuen bere Elizaren  
Patroi eta anparatzalle, laguntzalle, eta defenditzalle  
prinzipala, edo nagusiena. Eta ala ori San Migelek beti  
egin du munduaren asieratik onera: eta aurrera ere  
egingo du. Eta berak du gure animak Jaunaren tribu-

nalean presentatzeko kargua. Zenbat baliako eztingu bada San Migelen egiazko debotoak izatea? Eta ari orain jarraitzea, batez ere humiltasunean; Jaungoikoarekiko esker onean, eta Jaungoikoaren honra, eta projimoen ona, eta salbazioa billatzean, eta gure alegin guziakin aurreratzean? Eta orra nola honratu bear degun San Migel Arkanjel andia.

Eta zertan distingitua izan zan San Gabriel? Jaungoikoaren Majestadeak esleitu zuen Ainguoru guzien artean mundu onetan izan dan egitekorik andienean, au da, Jaungoikoaren beraren Seme bakar Jesu-Kristo gure Jaunaren gizon-egite, edo Enkarnazioko misterio miragarrien bitarteko, Enbajadore, eta Zeruko berri ekarle zorionekoa izateko. San Gabrielek Daniel Profeta Santuari Jaungoikoaren partez errebelatu, agertu, edo aurrez esan zion, zenbat denboraren buruan munduan agertuko zan gure Salbadorea, eta orduan zer gertatuko zan. San Gabrielek berak San Juan Bautistaren Aita Zakarias Santuari agertu, eta errebelatu zion, nola bere zarzaroan bere emazte Santa Isabelegan izango zuen seme bat, Juan izena ipiñiko ziona, Jaungoikoaren aurrean txit andia izango zana, eta Jesu-Kristoren beraren bide aurreko, edo Prekursore izango zana. Eta San Gabrielek berak Maria Birjiña Santari

ekarri zion, aren sabelean Jaungoikoaren Semea gizon egingo zalako atsegiñezko berri miragarria, eta Jesus deituko ziola: au da, munduko Salbadorea izango zala. Eta Gabrielen izenak esan nai du, Jaungoikoaren forta-leza, edo indarra, aditzera emateko Ama Birjiña Santis-sima, bere bildur, eta turbazioan indartu, edo fortalezituko zuela: egin zuen bezela, esan zionean: eztezu zer bildurtu Maria, bada zuk Jaunaren grazia arkitu dezu, eta zure sabelean sortuko, eta argira emango dezu, Jesus deituko diozun seme bat. Eta ala, N.K., Jaungoikoak San Gabrieli eman zion kargu guztiz andi orretatik erraz kontu atera dezakezue, Aingeruen artean, nolako estimazioa, nolako honra, eta nolako gloria daukan Zeruan San Gabriel Arkanjel andiak, Eta guk nola honratu bear degu? 1. Esker onak eman bear diozkagu gure guzion salbaziorako egin zuan bitartekotasunagatik: eta 2. eskatu bear diogu biotz guztitik, arren iritsi degigula gure Jaungoikoaren ontasunetik bear degun Zeruko argia, ondo ezagutzeko bere seme bakar Jesu-Kristo gure Jaunaren gizon egitean agertu digun guganako amorioaren anditasun neurribagea; eta amorio orri amorioz, eta esker onez eranzuteko grazia; eta, pekatuari largarik, Zeruko bideari jarrai-

tzeko indarra. Orra San Gabriel Arkanjel andiari debo-  
zio egiazkoa edukitzeko era ederra.

Eta zer lan, edo ofizio egin zuen San Rafael Arkan-  
jel andiak? Eskritura Santuak Tobias Santuaren libu-  
ruan aitatzan ditu zeoro San Rafaelek egin zituan  
lanak, edo egitekoak. Izan zan Tobias gaztearen bide  
erakuslea: aren ezkonzagillea, eta konsejaria: eta  
Tobias zar Santuaren sendatzalle, edo medikua: San  
Rafael Aingeruek giza gazte eder baten antzean  
lagundu zion Tobias gazte Santuari bide luze batean:  
arrizku andi batetik libratu zuen: Sara emakume  
Santa, eta aberats batekin ezkondu eragin zuen: kon-  
seju guztiz egokiak ezkonza on baterako eman zizten:  
arzeko andi bat Gabelogan zeukana kobratu zion:  
etxera bere emaztearekin eta ondasun askorekin eka-  
rri zuen: Aren gurasoak konsueloz bete zituan: Aita  
Tobias Santuari galdurik zeukan begietako bista biur-  
tu zion: orazioak, eta limosnak Jaungoikoaren aurrean  
zenbat balio duen erakutsi zien: nola bera zan Jaun-  
goikoaren Aingeru prinzipaletatik bat esan zien: eta  
desagertu zan: eta kordebage bezela Aita semeak gel-  
ditu ziran: eta erengan biurtu, eta Jaungoikoa alaba-  
tzen abiatu ziran etc. Eta orra, N.K., dotriñarik asko,

guk ere Jaungoikoa alabatzeko, eta serbitzeko, eta  
opdoren Zeruko gloria iristeko. Amen.



# AMAIKAGARREN DOTRIÑA

*Lendabiziko gizonaren kreaioaren gañean.*

Gaur, N.K., dotriña txit miragarri, eta premiazko bat aditu bear dezue: Aingeruak zer diran: zertako Jaungoikoak egin zituan: eta nola aetatik batzuek eren soberbiagatik betiko zendenatu tiran: eta besteak eren humiltasun, eta esker onagatik salbatu ziran; ori guzia aditu zenduen orain urrengo aldian: eta ori ondo jakitea asko inporta duan gauza bada ere, askoz geiago inporta digu N.K., geur nor geran, eta zertako egiñak geran jakiteak, Orretako esango dizuet bada gaur, 1. nola Jaungoikoak lenbiziko gizona, eta emakumea kreatu zituan: zertako kreatu zituan: nolako doai, eta graziak eman zien: eta 2. zein gaizki Jaungoikoari eranzun zioben. Eta aurrera aen utsegiteak nolako kalteak ekarri zituan, eta aek erremediatzeko Jaungoikoaren ontasun infinitoak zer disponitu zuen esango dizuet. Eta ala txit kontuz dotriña oek aditu, eta gogotan artu bear dituzue: eta probetxuarekin izateko eskatu dezagun Espiritu Santuaren grazia Maria Santisimaren bitartez. Abe Maria.

1. **G.** Aingeruen ondoren zein dira kreatura guzien artean nobleenak? eta Jaungoikoak geiena maitatu dituanak? **E.** Gizonak: eta izen onekin orobat aditzen dira emakumeak.

**G.** Eta munduko gizakume, eta emakume guziak nork kreatu ditu? **E.** Gure Jaungoiko guztiz poderosoa. Eta zertako kreatu, edo egin gaitu aren Majestadeak? bera emen ezagutzeko, amatzeko, eta serbitzeko: eta gero eternidade guzian bera Zeruko Erreinuan Aingeruak bezela ikusten, eta gozaten egoteko. Orra N.K., zerk izan bear duen gure lan, eta egitekorik andiena; eta orra zertan dagoan gure egiazko zoriona, eta gure betiko atsedean, eta gozotasuna: bada Jaungoikoak bakarrik gure biotza osoro bete, ase, eta kontentatu dezake.

**G.** Nor izan ziran Jaungoikoak lenengo kreatu zituan gizona, eta emakumea? **E.** Izan ziran Adan, eta Eba gure lenengo gurasoak.

**G.** Zergatik oei deitzen diegu gure lenengo gurasoak? **E.** Zergatik Adanegandik, eta Ebagandik sortu dira, edo etorri dira munduko gizon, eta emakume guziak: eta ala guziok gera alkarren senideak, eta guraso batzuen ondorengoak, eta alakoak bezela alkar amatu, eta serbitu bear degu.

**G.** Eta gizona, orobat emakumea zer da? Da gorputzarekin, eta animarekin konpondurik, edo formaturik dagoan kreatura bat: gorputzaren aldetik abere, edo animalien antzekoa, eta aek bezela sentikorra, eta ilkorra: eta animaren aldetik illeziña, edo inmortal, Aingeruen gisa Jaungoikoaren antzekoa, eta aek bezela Jaungoikoa ezagutzeko, amatzeko, eta beti gozatzeko gai, edo kapaz dana.

**G.** Jaungoikoak zertatik egin zuen Adanen gorputza? **E.** Egin zuen lurretik, au da lur puska batekin formatu zuen gorputz bat.

**G.** Eta Adanen anima zertatik egin zuen gure Jaungoikoak? **E.** Anima kreatu zuen ezerezetik, eta juntatu zuen Adanen gorputzarekin, eta bereala gizon bizi, oso, eta perfekto bat egiñik geratu zan.

**G.** Eta Jaungoikoak zertatik egin zuen lenengo emakumearen gorputza? **E.** Jaungoikoak Adani lo pisu andi bat artu eragin zion: eta lo zegoala saies bat atera zion, eta arekin emakumearen gorputza formatu zuen, eta bear zuen anditasuna bereala eman zion.

**G.** Eta lenengo emakumearen anima zertatik egin zuen Jaungoikoak? **E.** Ezerezetik egin zuen, edo kreatu zuen Jaungoikoak: eta gorputzarekin juntatu, edo

batu zuen: eta bereala emakume oso, eta bizi egiñik geratu zan.

**G.** Eta munduaren asieratik zenbatgarren egunean egin zituen gure Jaungoikoak lenengo gizona, eta emakumea? Seigarren egunean, lurreko beste kreatura guziak egin ezkeru; Jaungoikoak bere artean esan zuen (Eskritura Santak dionez) egin dezagun gizona gure imajiña eta semejanbara: animaliai, egaztai, arraiari, eta beste guziaz agindu degien. Eta ala guzien jabe, eta guziezaz baliatzeko eskualdiarekin formatu zuen.

**G.** Eta zer da Jaungoikoak bakoitzari eman digun anima au?

**E.** Da Espiritu bat inmortal, edo illeziña, gorputzari bizi emateko, eta gorputzari agintzeko egiña, arrazoi, eta libertadeaz apaindua, edo adornatua: eta Jaungoikoa bera ezagutzeko, eta amatzeko gaia.

**G.** Eta zertan dago gure animaren edertasuna, eta exzelenzia?

**E.** Jaungoikoaren beraren antzera, imajinara, eta semejanbara egiña izatean. Eta ala Jaungoikoa Espiritua da, eta gure anima ere bai: Jaungoikoa da betikoa, eta gure anima ere beti bizitzeko egiña da: Jaungoikoak du adimentua ezagutzeko, eta borondatea amatzeko.

ko, eta gure animak ere badu adimentua ezagutzeko, eta borondatea amatzeko: eta Jaungoikoa bera ezagutzeko; eta amatzeko gai, edo kapaz da.

**G.** Eta nundik dakigu gure anima dala espiritua, eta illeziña, edo inmortala?

**E.** Ori fedea ezeze, arrazoiak argiro erakusten digu Jaungoikoak Eskritura Santuan egia ori txit sarri agertzen digu: eta gure Errelijio santuaren fundamendu prinzipal bat egia ori da. Eta arrazoi, edo argi naturalak ere ori erakusten digu: bada pensamentuak berez egiteko, arrazoiak emateko, eta bere arrazoiak erak juzgatzeko indarra, doaia edo birtutea espirituari bakarrik dagokan gauza da: bada gorputza, eta puska askorekin konpontzen dan edozein gauza material ezta iñola ere gai pensamentuak egiteko, eta arrazoiak emateko; eta bere pensamentu eta arrazoiak erak juzgatzeko, gure anirnak egiten duen bezela: gorputzetan, eta beste gauza materialetan beste gauzarik ikusten ezta neurria, figura, eta mobimentua baik: ezin dateke pensamentua gorputz izatea: eta orobat ezin dateke gorputza pensamentu izatea: bada gorputza bakarrik da ill ditekeana, zergatik dan desegin ditekean, eta egiaz desegiten dan gauza konpondurik dagoan bat: baña espirituak ezta orrelako kon-

posiziorik, eta ez parte askoren, edo gitxiren uniorik; eta ala berez da desegin ezin ditekean, eta ill ezin ditekean gauza espiritual bat: ori da gugan pensatzen duena: eta orri deitzen diogu anima arrazoiduna, eta arrazoi-emallea. Eta bentaja ori degu, eta orrek distingitzen gaitu lurrean bizirik ikusten ditugun beste animalia guziakgandik: bada oek pensamentuak egiteko, eta guk bezela arrazoi emateko gai eztira: eta animaliak duen anima ezta espirituala, eta illeziña: da bakarrik sentikorra, eta sentiduakin batera bukatzen, eta desegiten dana.

**G.** Eta beste bentajarik, eta distinziorik etzion eman Jaungoikoak gure animari?

**E.** Bai: eman zion libertadea: au da nai zuena aututzeko eskualdia: eta ala gizonak bere eskuan zeukan onera, edo gaitzera jartea: gogoak ematen ziona egitea, edo ez egitea: eta orri deitzen diogu libertadea, Aingeruak, eta gizonak bakarrik izan duena; eta merezitzeko gauza bearra, Jaungoikoaren graziarekin batera.

**G.** Nun ipiñi zuan Jaungoikoak Adan gure lenengo gurasoa, kreatu zuenean?

**E.** Lurreko Paradisuan, ura landutzen, eta zaitzen, edo gordetzen okupatu zedin: ez orretan nekatu bearez bizitzeko, baizik alpertasunari iges egiteko,

**G.** Paradisu ura zer zan? Zan atsegiñezko jardin, edo baratza eder bat, Jaungoikoak berariaz egiña; arbola eta fruta gozoz beterik zegoana: eta beste arbolaen artean zeuden bi: bata bizitzako arbola, eta bestea onaren, eta gaitzaren jakinduriako arbola.

Bizitzako arbola (San Agustiñek dionez) zan gizonaren zartzea, eta iltzea eragozteko, eta besteari zeritzon onaren, eta gaitzaren jakinduriako arbola, aren bidez etorri bear zuen ondorengo, edo efekto onakgatik, edo gaiztoakgatik. Eranzuera au ondo aditzeko, jakin bear da, Jaungoikoak gizonari Paradisuko frute-tatik jateko lizenzia eman ziola: eta bakarrik eragotzi ziola onaren eta gaitzaren jakinduriako arbolaren fruitari utkitzea; eta izen au zuen arbola ark: zergatik gizonak, Jaungoikoari obedezitzeagalik, jaten ezpazuen, egiaz zorionekoa, edo bienabenturadua izan bear zuen: eta ala ona bere espereniaz ezagutu bear zuen: eta kontrara Jaungoikoaren agintearen kontra jaten bazuen, egiaz zorigaiztokoa izan bear zuen, eta ala gaitzaren berri bere espereniaz ikasi, eta jakin bear zuen.

**G.** Arbola orren frutua berez gaiztoa zan?

**E.** Berez ona zan, beste arbolak bezela: eta orren frutua etzion Jaungoikoak gizonari eragotzi, onen obediencia probatzeko baizik.

**G.** Eta Adanek, eta Ebak zer egin bear zuen egiaz zorionekoak izateko, eta Jaungoikoak aentzat zuen betiko Gloria alkanzatzeko?

**E.** Jaungoikoa eren jabe, eta Jaun soberanoa bezela adoratu eta amatu bear zuen: aren obedienziaren azpian egon bear zuen; alkarrekin pake, eta amorioan bizi bear zuen: au da, Jaungoikoa gauza guzien gañean amatu bear zuen; eta projimoa eren buruak bezela: eta Jaungoikoak eragotzi zien frututik jan bear etzuen: eta ori guzia Jaungoikoak berak argiro aditzera eman zien.

**G.** Jaungoikoaren aginte oriek erraz gorde zitzaken Adanek, eta Ebak?

**E.** Bai: zergatik, kreatu zituanean, eman zien bear zituen doai, eta grazia guziak, ala gorputzaren aldetik, nola animaren aldetik, ori guzia erraz kunplitzeko.

**G.** Zer doai eman zien gorputzarentzat? **E.** Osasun oso bat, eritasunik batere bage, eta illtzeko premia bage.



**G.** Eta animarentzat, zer doai, eta grazia eman zien?

**E.** Aen animak izan ziran kreatuak, edo sortuak Jaungoikoaren grazian, eta justizia orijinalean: eta bear zituen ezaguera, edo argitasun guziakin. Eta ala 1. bertatik Jaungoikoak egin zituan bere adiskide, eta Zeruko heredero: 2. eman zien adimentu argi bat; eta borondate onera etzin bat, gaitzerako grinarik batere bage: 3. gorputzeko mobimentu, eta gurari guzien jabe ziran: eta eren barruan pake, eta sosegu andi bat zuen: 4. Jaungoikoak eman zien bear zituen grazia, sokorru, eta laguntasun guziak, erak nai bazuen, betiko bizitza iristeko: bada Jaungoikoaren grazia bage, ezin erak berez iritsi zezakean: eta azkenik zorion, eta bentaja oriek guziak etzien erentzat bakarrik eman, baizik eren ondorengo guziaz komunikatzeko, eta gozaerazotzeko ere, pekaturik egiten ezpazuen.

2. **G.** Luzaro konserbatu zituen Adanek, eta Ebak graziatzeko, eta inozenziako estaduan gozatzen zituen doai, eta pribilejio oriek?

**E.** Ez: laster galdu zituen guziak, Jaungoikoari obedezitu bagez pekatu egin zuelako.

**G.** Zertan Jaungoikoari desobedezitu zioben? **E.** Aren Majestadeak eragotzi zien frutatik jan zuen.

**G.** Nola jarri ziran fruta artatik jatera? **E.** Demonioak, aen zoriona ezin ikusirik, tentatu zituan; fruta artatik jatera mobitu zituan, eta pekatura ekarri zituan.

**G.** Orretarako zer egin zuan Demonioak? Suge edo serpiente batean sarturik, andik Ebari hitz egin, eta galdetu zion; Zergatik Jaungoikoak debekatu dizue, Paradisuko fruta guzietatik jatea? Ebak eranzun zion, Paradisuko fruta guzietatik jaten degu: bakarrik Paradisuaren erdian dagoan arbolaren frutarik ez jateko, eta ari ez utkitzeko agindu digu Jaungoikoak, esaten digula, fruta artatik jaten badegu illko generala. Demonioak orduan esan zion: etzerate orregatik illko: eta bai, jaten badezue, zuen begiak irekiko dira: Jaungoikoa bezela izango zerate; eta onaren, eta gaitzaren berri jakingo dezue.

**G.** Eta Ebak orduan zer egin zuen? **E.** Demonioaren tentazioari atzera esan ordean; eta Jaungoikoaren esanari sinistu, eta obedezitu ordean, jarri zan arbolarri, eta bere frutuari begiratzen; berez ederra zan, eta jateko gozoa izango zala iritsi zion: eta berak lenengo artu, eta jan zuen, eta bere senarrari eman zion, eta onek ere jan zuen.

**G.** Zergatik orrela engañatzen utzi zan Eba? **E.** Soberbiari, curiosidadeari, eta gulari bere biotzean

leku eman ziolako: bada 1. bere buruaren amorio geiegiak, edo soberbiak Jaungoikoaren antzeko, edo Jaungoikoa bezela izatea deseatu eragin zion: eta bere Egille, edo Kriadorearen kontra biurtu zan: 2. kuriosidadeak mobitu zuen; eta ala jakin nai izan zuen ona, eta gaitza ezagutu al zitzakean, fruta artatik janaz. Eta 3. gulak pekatura mobitu zuen, bada frutua berez ederra zan, eta gusto ona ote zuen probatu nai izan zuen.

**G.** Eta Adanek ere Jaungoikoa ofenditu zuen Ebak izan zituan motibo aekgatik berakgatik?

**E.** San Agustinek leku askotan dio, Adanen pekatuaren lenengo asiera, edo sustraia soberbia izan zala: bere buruaren amorio erabagea, eta zan baño geiago izateko ansia: eta orren ondorengoak izan zira-la kuriosidadea, gula edo sensualidadea, eta bere emazteari atsegin eman naia. Eta ori da Elizako erakusle guzien iritsia; eta ori bera Eskritura Santuak sarri aditzera ematen du.

**G.** Adanen pekatua txit andia izan zan? San Agustinek ezin esan al bezelakoa deitzen dio, bere anditasun, edo pisutasunagatik. Eta ori nolabait ezagutu liteke, ofenditu zuen Jaungoikoaren Majestade infinitoari begiratuaz; pekaturik egin bage egoteko Adanek zuen

erraztasun andiarekin; eta pekatu orren ondorengo izugarriak ondo ezagutuaz, edo pensatuaz: au da, pekatu orren anditasuna ezagutuko degu, Adanek bere buruari, eta bere ondorengo guziaz ekarri zien kalte guztiz arrigarriak argiro, eta banaka konsideratuaz; eta orien erremedioa zenbat kosta zitzaion Jaungoikoaren semeari ondo pensatuaz. Baña ori izango da N.K., beste dotriña baten berriazko langaia; bada gauza bearragorik bearbada eztegu, gere buruak ondo ezagutzeko; eta gere gaitz guzian erremedioa gogotik billatzeko. Eta ona orain bitartean gaurko dotriñatik guziok atera bear degun frutua.

1. Gogora sarri ekarri, eta ondo pensatu bear degu, nola Jaungoikoak, gure bearrik ezertako ezpazuen ere, beretzat, eta bere antzera, eta bera ezagutzeko, eta amatzeko, eta eternidade guzian beraz gozatzeko, eta egiaz zorionekoak izateko egin gaituan: eta orretako bear ditugun argi, ezaguera, eta grazia guziak eman dizkigun. Eta ala egiaz zorionekoak izan nai badegu, betiko galdu nai ezpagera, eta Jaungoikoari zor diogun esker onaz, eta amorioaz eranzuteko, 2. berak eman digun adimentua, borondatea, eta libertadea berari konsagratu bear diogu; eta erabaki betiko, pekatuan nola ere ez konsentitzea,

eta orretako tentazio gaiztoai atzera esatea; pekatu-  
rako okasio, edo peligroai kontuz alde egitea, eta gure  
pasio-gurari eta griña gaiztoak, eta batez ere gure  
soberbia ezitzeko egiazko alegiñak egitea; baliatzen  
gerala egunoroko orazioaz, mortifikazioaz, eta Sakra-  
mentu Santuetan guzionzat Jesu-Kristok utzi zizkigun  
erremedioaz: bada bestela Infernuko Demonioak, beti  
zelata, gu galtzeko, gure inguruan dabillen etsai forti-  
zak, erraz benzituko gaitu, eta gure lenengo gurasoak  
bezela beretuko, edo menderatuko gaitu: eta gure  
betiko zoriona, edo betiko gloria galdu eragingo digu.  
Jaungoikoari nai eztakiola orrelakorik permititzea; eta  
digula arren emen bere grazia, eta gero betiko gloria.  
Amen.

# AMABIGARREN DOTRIÑA

*Pekatu orijinalaren kalteak:*

*eta oriek erremediatzeko*

*Erredentore baten premia edo nezesidatea:*

*eta Jaungoikoak gizonarekin egin duan miserikordia.*

Kristauaren jakinduriarik andiena, eta bearrena da, ondo ezagutzea Adan gure lenengo gurasoa, eta argandik etorri zaizkigun kalte izugarriak: eta Jesu-Kristo, gure Erredentore edo Salbadore maitagarria, eta ari zor diozkagun erremedioak, eta ontarte, edo fabore guztiz miragarriak. Gaur aditu, eta ikasi bear dezue bada, N.K., txit kontuz, Adanen pekatuak nolako kalteak ekarri zizkigun: eta orien erremedioa, nolako erruki, eta miserikordia andiarekin Jaungoikoak eman zigun; Jesu-Kristo bere Seme bakarra, gu erredimitzeko emanarekin, eta aren bidez Zeruko bidea erakutsiarekin: eta probetxu andi bat ateratzeko eskatu dezagun Espiritu Santuaren grazia. Abe Maria.

1. Zer gertatu zitzaien Adani, eta Ebari fruta debekatutik jan, eta bereala, edo pekatu egin, eta bereala?

**E.** Begiak iregi zitzaien eren malizia ikusteko: narrugorrian zeudela ikusi, eta lotsatu ziran: eta pikuaeren ostozabalakin eren lotsakizunak estali zituen.

**G.** Etzuen bada pekatu egin baño lenago lotsakizunik ikusten, eta sentitzen, narrugorrian zeudela?

**E.** Ez, zergatik maliziarik batere etzuen, eta inozentian zeuden, baño ozta pekatu egin zuen, aragiaren griña gaiztoa espirituaren kontra sentitu zuen, eta lotsalu ziran.

**G.** Jaungoikoak Adanen, eta Ebaren pekatua kastingu bage utzi zuen?

**E.** Ez: kastingu izugarri bat erai, eta eren ondorengo guziaz eman zien. 1. Aen gorputzak, eta eren ondorengo guzienak eritasun, eta gaitz mota guzietara, eta eriotzara sujetaturik gelditu ziran: orra iñoiz gaixotu bage, eta ill bage Zeruko gloriara bear zuenak; zer kalte arrigarriak eren buruai, eta ondorengo guziaz ekarri zien alde orretatik bakarrik: baño ona beste kalte andiago bat. 2. Aen animak len aiñ argituak; bertatik ignoranziaz beterik gelditu ziran: eta len eren pasio eta griña guztiak arrazoiaren mendean zeuzkatena, eta Jaungoikoa gauza guziaz gañean amatu bear zuenak, eren buruen amorio erabagez beterik,

eta munduko honra, ondasun, eta atsegiñen deseo, edo gutiziaz beterik: eta gaitzerako, edo pekaturako griña gaiztoz beterik, eta onerako pisu, nagi, eta argalak gelditu ziran: eta ala libertadea ere agitz argaldu, edo flakatu zitzaien; guztiz galdu ezpazuen ere. 3. Abere edo animalia guziena gañean Jaungoikoak eman zien agintea galdu zuen: erak Jaungoikoaren kontra altxatu ziran: eta gauza guziak eren kontra biurtu zitzaien. 4. Esan zion Jaungoikoak Adani, lurrak etziora emango elorri, aranza, eta beste era orretako belarrak baizik: eta ezer jango bazuen, bere bekokiko izerdiaren kostuan izan bearke zuela: eta Ebari esan zion; Aurgite txit nekezak, eta oñaza aundiakin izango zituala: eta gizonaren mendean, edo eskupean beti egon bearke zuela. 5. Lotsa andiarekin biak bota zituan Jaungoikoak Paradisutik kanpora, eta ango sarrera itxi zien, eta ala arrezkero ara itzulzeko modurik iñoiz izan etzuen. 6. Demonioaren esklabo, edo mendekoak egiñik gelditu ziran. 7. Eta azkenik galdu zuen Zeruko deretxoa: Zerua aentzat, eta aen ondorengoentzat itxirik gelditu zan: eta betiko kondena-zioa merezitu izan zuen, erentzat, eta bere ondorengo guzientzat.



Orra, N.K., gure lenengo gurasoen pekatuak, edo pekatu orijinalak, edo etorkizkoak ekarri zituan kalte lastimagarri, eta ondorengo izugarriak: eta orra, aek, eta gu guziok gerez betiko galduak, Jaungoikoaren miseriak infinituak errukiz begiratu, eta gaitz orientatik gu libratzeko, eta galdu ginduzan betiko ondasunak irabazteko erremedioa eman ezpaligu.

**G.** Zer izango zan bada munduko gizakume, eta emakume guzietan, Jaungoikoak tratatu nai izan balitu bere justiziaz batera, edo pekatuak merezi zuen bezela?

**E.** Guziak erremedio bage berez kondenatuko ziran; zergatik berez eren itxumena, eta miseria ezagutuko etzuen; eta ala pekatuan itxuturik, eta gogorturik gaizki bizi eta naitaez kondenatuko ziran; luzaroko esperenziak munduko geienetan erakutsi izan zuen bezela. Eta eren itxumena ezagutu arren ere, eta gaizki bizi zirala ikusi arren ere; beren pekatuen barbazioa iristeko modurik etzuen.

**G.** Zergaitik? Zergatik pekatuaren zorra ezin iñola ere pagatu zezaken. Zergatik ordea? Zergatik pekatua da Jaungoikoaren Majestade infinituari egiten zaion injuria, agrabioa, edo ofensa, eta edozein ofensa anbat da andiagoa zenbat dan ofendituaren dignida-

dea, eta anditasuna geiago: eta nola Jaungoikoarena dan infinitoa edo neurribagea, alde orretatik pekatuaren zorrak, edo Jaungoikoaren ofensak kaburik eztu. Eta ala munduko gizon, eta kriatura guziak eztaue pekatuaren zorra pagatzeko, edo Jaungoikoaren justiziara satisfakzio osoa emateko kaudalik, edo baliorik; guziak ill bear bage ere, pekatu batekin Jaungoikoari egindako ofensa, injuria, edo agrabioa desegiteko, edo borrarzeko: desegin bage, borraratu bage, eta zorra pagatu bage, geldituko litzateke: eta ala erremedio bage, galduak, eta kondenatuak izango giñan Demonioakin batera, Jaungoikoak gurekin errukiz, eta miserikordiaz usatu ezpalu.

2. Zertan dago Jaungoikoak gizonakin egin zuan miserikordia ori?

**E.** Esan al baño, eta ezagutu al baño infinitamente andiagoa da miserikordia ori: Eskritura Santuak dio: ainbesteraño Jaungoikoak mundua maite izan du, nun bere Seme bakarra eman dio, pekatariak erredimitzeko.

Aita Eternoaren Semea, Aita bezela Jaungoiko egiazkoa, gu erredimitzeko Ama Birjiña Santisimaren sabelean gizon egin zan: bere eriotzarekin gure pekatuen zorra pagatu zuen: deabruaren mendetik libratu,

edo atera ginduzen: Jaungoikoarekin errekonziliatu, edo adiskidetu ginduzen: Zeruko sarrera iriki zigun: ango deretxoa guretzat irabazi zuen: arako bidea bere dotriña Santuarekin erakutsi zigun: bear ditugun argi, eta ezaguera guziak eman dizkigu. Bere hume, eta diszipulu, edo jarraitzalle egin gaitu: Orretako bere Espiritu Santua eman digu: bere graziarekin piztu, edo animatu gaitu; mantenatu, eta fortalezitu gaitu. Berak gure etsaiak edo demonioa Gurutze Santuan benzitu zuen: eta egunoro gugan benzitzen du; etsaiaren tentazioak garaitu eragiten dizkigula, edo oriek benzitzeko grazia, eta indarra ematen digula: eta eternidade guzian Zeruan triumfatu eragingo digu, orain bizi geran artean aren grazian irauten badegu. Orra hitz gutxitan gure erredenpzioko misterio andia.

**G.** Eta zergatik Jaungoikoak gizonarekin ain miserikordia andia usatu du: eta Demonioai, edo Aingeru gaiztoai erremediatzeko, edo konbertitzeko, eta berekin errekonziliatzeko lekurik, eta biderik eman etzien?

**E.** Jaungoikoak iñori ezer zor eztio, N.K., eta aren justizia adoratu bear degu: eta eztitugu barrendu bear aren juizio guztiz ezkutatuak, edo inkomprensibleak. Ala ere, gure modura, pensatu dezakegu Santo Toma-

sekin batera; Aingeru gaiztoentzat erremediorik izan eztala, zergatik aek batetan, eta argiro ezagutzen due, beren adimentuak gai diraneraño, eta bein jarten diran era artan, mudatu bage gelditzen dira: eta ala eren soberbian gogorturik berez, eta iñork tentatu bage gelditu ziran. Baña gizonaren adimentua berez laburragoa da, eta ez batetan, baizik apurka gauzak ezagutzen ditu: eta orain motibo bategatik on deritzonari, gero beste motibo bategatik gaizki deritzo, eta ala gizona da mudakorra, eta damukorra: eta gizona etzan berez bakarrik gaitzera jarri, eta pekatuan erori, baizik deabruak tentaturik, edo bestek artara mobiturik: eta kulpa txit andia izan bazuan ere, zerren tentazioan libremente erori zan; ala ere deabrua baño errukigarriago zan gizona: eta berez barkaziorik merezi ezpazuen ere, Jaungoikoak errukiz, piedadez, eta miserikordiaz begiratu nai izan dio, eta eztu nai izan, deabruak Jaungoikoari zion gorrotoz, eta gizonari zion enbidia andiagatik, gizona galtzeko, edo bere zorigaitzean, edo kondenazioan nastutzeko zituan asmo gaiztoak kunplitu ditzen.

**G.** Eta gizonari pekatuaren ondoren bereala Jaungoikoak erremedioa eman zion? **E.** Bertatik Adani berari aditzera eman zion, deabruaren burua ausiko

zuen beste emakume bat etorriko zala: eta onen Semeak, aren pekatua erremediatuko zuela, edo ura, eta bere ondorengoak pekatutik, eta deabruaren mendetik libratuko zituala: eta promesa ori askotan Jaungoikoak berri zuen mundukoen konsuelorako, eta baita noiz, eta nola Jaungoikoaren, eta Maria Birjiña Santisimaren Semea agertuko zan sarri aditzera eman zuen: baña lau milla urte gutxianez igaro ziran, Jaungoikoaren Semea orrelako gizon egin zaneraño Ama Birgiñaren entraña, edo errai garbietan.

**G.** Eta Adan, eta Eba salbatu ziran? **E.** Bai, N.K.: bada inozentzia, eta grazia aiñ erraz galdu bazuen ere, Jaungoikoak egin zien promesa sinistu zuen: aek, eta beste guziok salbatzera etorriko zan Erredentorea-gan beren esperanza guzia ipiñi zuen: pekatu egiñaz txit damu edo dolore andia artu zuen: penitentzia txit latza, eta luzea egin zuen; bada bederatzi eun urte bizi izan ziran, eta beti penitentzia egiten iraun zuen: eta Jaungoikoak eren pekatua barkatu zien: eta Jesu-Kristo gure Jaunak, linbora jatxi zanean, aen animak konsolatu, eta gloriáz bete zituan; eta gero Zeruko Gloriara berekin eraman zituan.

**G.** Lau milla urte igaro baziran Adanen pekatua ezkeru Jesu-Kristo gure Jauna, gu erredimitzeko gizon

egin artean; bitarte artan ill ziranak, nola pekatutik libratu zitezkean, eta salbatu zitezkean?

**E.** Jaungoikoaren miserikordiak guzirako erremedioa ipiñi zuen: Jesu-Kristok munduko guzien pekatuakgatik satistiakzioa eman zuen: lenengo izan ziranakgatik, eta gero izango ziranakgatik: eta ala Salbadorearen satisfakzio eta merezimentuen birtutez Jaungoikoak eman zien graziarekin, eta eren partetik Jaungoikoaganako fedea, esperanza, eta karidadea exerzituarekin, salbatu zitezkean, eta salbatu ziran batzuek, Jesu-Kristo mundura etorri baño lenago: baño askoz geiago izan ziran denbora artan gaizki bizi, eta kondenatu ziranak ondo bizi, eta salbatu ziranak baño.

**G.** Eztirudi bada, gizona pekatu orijinala ezkerro, galtzera aiñ etziñik, makurturik, eta inklinaturik gelditu zan ezkerro; eta onerako, edo birtuterako aiñ pisu, aiñ nagi, eta aiñ flako, eta argal berez dagoan ezkerro; libertadea galdu duela, eta pekatuan erorten bada, ezinbestez, edo naitaez erorten dala? Eta ala libertade faltaz kulparik eztuela?

**E.** Ez N.K.: ori esatea, eta sinistea Herejiako pekatu andi bat da: bada gure fede santuak erakusten digu, gure libertadea ezteguna iñola ere galdu: eta

gerez txit argalak, eta gaitzera etziñak, edo inklinatuak izan arren, Jaungoikoak, guk eskatu ezker, ematen digun graziarekin, badegula bear dan indar guzia tentazio gaiztoai atzera esateko, eta gure obligazioak kunplitzeko: eta ala kondenatzen dana, bere kulpaz kondenatzen da. Bada ikusten degu, egiazko alegiñak eren aldetik egiten dituen Kristau guziak, argalak berez izan arren, pekatu mortalean erori bage irauten duela, Jaungoikoak ematen dien laguntasun, eta graziarekin: eta grazia ori Jesu-Kristok guzionzat irabazi zuen; eta beti prest dago baliatu nai duanarenzat.

**G.** Eta orain zer frutu, edo probetxu atera bear degu guziok dotriña onetatik?

**E.** 1. Pekatu orijinalak ekarri zizkigun kalte izugarriak gogora sarri ekarri bear ditugu: eta ikusirik gure ignoranzia, eta itxutasuna animako salbaziorako bearren ditugun gauzaenzat: gaitzerako guziok degun griña, inklinazio, eta arintasuna; eta birtuterako degun atzerapena, pisutasuna, eta nagitasuna, humillatu bear gera: eta ez gera iñola ere gere indarretan fiatu bear: baizik ezagutu ondo, eta aitortu gure eze-reza, eta argaltasuna. Baña beste aldetik ikusirik, gure Jaungoikoak zein maite gaituan, zein erruki gaituan; gure salbazioa zenbateraño deseatzan duen;

bada orretako bere Semea eman digu; bere odolaren kostuan, pekatutik, eta betiko eriotzatik gu libratzeko eta azkenik ikusirik, zein gogotik laguntzen digun, eta bear ditugun argiak, eta indarrak ematen digun, Jesu-Kristoren izenean eskatu ezker. 2. Konfianza bizi batekin egunoro, eta alik sarriena Jaungoikoari eskatu bear diogu, arren digula, berari zor diozkagun obligazioak, eta egin dizkigun fabore guztiz andiak ondo ezagutzeko bear degun argia: eta gere partetik aritu bear gera fedea erakusten dizkigun misterio miragarriak, eta batez ere gure erredenzziokoa ondo kon sideratzen: eta zerren ezagutzea asko ezta 3. eskatu bear diogu, arren digula bere grazia, eta indarra, gure griña gaiztoak ezitzeko, eta Jesu-Kristok erakutsi zigun Zeruko bideari, edo birtuteari gogotik jarraitzeko: eta gure aldetik aritu bear gera, pekatuko okasio, edo peligroai kontuz iges egiten: eta gure aztura gaiztoak benetan benitzen; bada indar egin bage Zeruko erreinua irabaziko eztegu, Jesu-Kristok berak Ebanjelio Santuan erakusten digun bezela. Eta 4. azkenik peka tutik etorri zaizkigun naigabe, eta trabaju guziak, penitentzia orde, pazienziarekin, eta Jaungoikoaren izenean eramateko alegiñak egin bear ditugu: eta orrez gañera gure egunoroko lanak, naiz obligaziozko-



ak, naiz deboziozkoak, guziak Jaungoikoari ofrezitu  
bear diozkagu, eta berari atsegin emateko asmo edo  
intenzioarekin egin bear ditugu. Eta orrela egunoro  
eta errazago gure animako etsaiak benzituko ditugu:  
ariñago, eta gogotiago Zeruko bidean ibilliko gera, eta  
azkenik gure betiko zoriona iritsiko degu. Ala gerta  
dedilla. Amen.

# AMAIRUGARREN DOTRIÑA

*Sei dotriña edo platika*

*Kristauai Pulpitotik aditzera emateko*

*Eskritura Santuak dakatzen gertaera prinzipalak*

*Adanen denboratik Jesu-Kristo gizon egin arteraño:*

*eta lenbiziko irakorri aldi onetan*

*Adanen denboratik Abran Patriarka*

*andiaren denborañoakoak.*

## SARRERA

Adan, eta Eba, gure lenengo gurasoen denboratik Jesu-Kristo gure Jauna gu salbatzeko gizon egin zan bitarteko denboran gertaera guziz miragarriak ikusi ziran munduan: eta Jaungoikoaren Majestadeak beti agertu zuela bere Probidentzia miragarria, eta zuzena gizon guziakin: eta batez ere Israelgo bere Pueblo eskojituarekin. Eta orduko gauzak argi guztiz andia ematen digue, Jaungoiko gure Jauna, eta bere Seme Jesu-Kristo ondo ezagutzeko: eta exenplo, eta dotriña guztiz asko, eta ikusgarriak begien aurrean ipinten

dizkigue, gure bizimodua zuzentzeko: eta zuen probe-  
txurako, Jesu-Kristo gure Jaunaren gizon egitea expli-  
katu baño lenago dotriña legera, Eskritura Santuak  
berak dakatzen orduko gertaera prinzipalak aditzera  
eman nai dizuet: eta baderitzot, gogotik eta gustoz  
adituko dituzuela: Eskritura Santuko berri, edo eza-  
guera, probetxu andikoa izango dezuela: eta arrezke-  
ro sermoiak, eta dotriñak frutu geiagorekin adituko  
dituzuela. Gakizkun bada; eta gaur Adanen denbora-  
tik Abran Patriarkaren denborañako gauzak aitatuko  
dizuet.

**G.** Nola bizi izan ziran Adan, eta Eba, gure lenen-  
go gurasoak, Jaungoikoaren Majestadeak Paradisutik  
atera erazo zituan ezkerro? **E.** Jaungoikoak errukiz  
begiratu zien: eren utsegitea ezagutu zuen: damutu  
ziran: eta penitenziarekin santifikatu, eta salbatu  
ziran.

**G.** Pekatu egin baño lenago aurrik izan ote zuen?  
**E.** Ez: arrezkero izan zituen: eta argatik aen ondoren-  
go guziok jaio gera jatorrizko pekatuan, au da pekatu  
orijinalean sorturik.

**G.** Nunduan izan diran gizakume, eta emakume  
guziak Adanen, eta Ebaren jatorrizkoak dira? **E.** Bai:

Eskritura Santak Ebari deitzen dio bizi diran guzien Ama.

**G.** Zergatik gure Jaungoikoak nai izan du, guziok Aita bategandik etorzea? **E.** Guziok alkar amatu dezagun, egiazko senideak bezela: eta argatik Jesu-Kristok argiro esaten digu, gizon guziak gure projimoak, edo gideak dirala.

**G.** Hume asko izan zituen Adanek, eta Ebak? **E.** Guztiz asko: bada bizi izan ziran bederatzi eun urte baño geiago: eta nola Jaungoikoak aen humeakin mundua poblatu eta bete nai zuen, txit asko eman zien.

**G.** Badakigu zenbat izan ziran, eta nola zerizten Adanen humeai? **E.** Iru bakarrik aitatzen ditu Eskritura Santuak eren izenakin: eta dira Kain, nagusiena, Abel, aren urrena: eta gero Seth.

**G.** Zer dio Eskritura Santuak Kain-egatik? **E.** Adanen lenengo semea izan zala: nekazaria izan zala: lurreko fruetatik sakrifizioa, edo ofrenda Jaungoikoari egin ziola: ez bera, eta ez aren sakrifizioa izan zira-la Jaungoikoaren gogokoak: bere anaia Abel enbidiaz, eta gaitziritziz ill zuela; zerren onen sakrifizioak Jaungoikoaren atsegiñezkoak, edo gogokoak izan ziran; eta bereak ez: Jaungoikoak madarikatu zuela: bere

pekatu, edo gaiztakeriaren pena, edo kastiguan bizi izan zala alderandurik, eta igesi alde guzietara: Jaungoikoak marka, edo siñale bat ipiñi ziola, arkitzen zue-nak ill etzezen: Ziudade, edo erri bat fundatu, edo eragin zuela: eta bere Seme Enok-en izena erriari ipiñi ziola.

**G.** Zer dio Eskritura Santuak Abelegatik? **E.** Adanen bigarren Semea izan zala: artaldea ipiñi zuela: eta arzaia izan zala: bere artaldeko bildotxik gizenenak, eta ederrenak Jaungoikoari sakrifizioan ofrendatu ziozkala: aren sakrifizioari, eta eskinte, edo ofrendari begi onez Jaungoikoak begiratu ziola: Kainen eskuz illa izan zala: eta aren odolaren oiua, edo deadarra benganza eske Jaungoikoaren Tronuraño igo zala.

**G.** Eta zer esaten du Eskritura Sagraduak Seth-egatik? **E.** Abel ill ezkerro jaio zala: ona, eta Santua izan zala: aren ondorengoetan geiago iraun zuela Jaungoikoaren ezaguerak, eta bildur Santuak, Kainen ondorengoetan baño: eta Seth-egandik, edo aren jatorritik etorri zala gero Jesu-Kristo gure Jauna, eta argatik Eskritura Santuak geiago aitatzen ditu Seth, eta bere ondorengoak, Adanen beste Seme, eta ondorengoak baño.

**G.** Nola bizi izan ziran Kain, eta aren Semeak, eta aren jatorrikoak, eta Adanen beste Semeak? **E.** Geienak desordenan, erabagetasunean, eta gaiztakerian bizi izan ziran: adiñean aurreratzen zioazen bezela, Jaungoikoaz aztutzen ziran: eta egunetik egunera zabaltzen, eta banatzen zijoan aen gaiztakeria mundu guzian.

**G.** Eta Kainen anaia Seth justuaren jatorrikoak, besteak bezela, laster gaiztotu ziran? **E.** Ez: aek eren aitaren birtuteari ondo, eta luzaro jarraio izan zioben: baña azkenean aen ondorengoak ere, beste gizonak bezela gaiztotu ziran.

**G.** Nola gaiztotu ziran? **E.** Besteakin nastuaz, eta aen exenplo gaiztoai jarraioaz.

**G.** Etzan bada arrezkero munduan ondo bizi zanik, eta justurik? **E.** Ainbesteraño eldu zan munduko gaiztakeria, eta erabagetasuna, nun ozta arkitzen zan inozentzian, eta santidadean osoro bizi zanik.

**G.** Eta mundukoen gaiztakeria ainbesteraño eldu zanean, etzitan gure Jaungoikoak kastigatu? **E.** Bai: eta guztiz kastigu izugarri bat egin zien. Bada Noe Patriarka, Seth onaren ondorengoa, bakarrik arkitzen zan, bere emaztearekin, eta iru seme, eta oen emazteakin justu zanik, eta Jaungoikoa serbitzen zuenik:

eta aek ez, ze beste guziak gaiztakeriari, aragiari, eta onen griña gaiztoai zerraitzen: eta guziak ugolde, edo dilubio jeneral batekin ito eragin zituan gure Jaungoikoak.

**G.** Nola gertatu zan kastigu ikaragarri ori? **E.** Jaungoikoak Noe justuari dilubioarekin mundukoak kastingatzeko zuen bere gogo, edo asmoa aditzera eman zion eun urtez lenago, gizonak konturatu, zenzatu, eta penitentzia egin zezen: eta agindu zion neurri guziak emanaz, kutxa, edo arka guztiz andi bat, itxas-onzi baten antzekoa egin zezala: eta dilubioa, edo ugoldea zetorreneko animalia, edo abere, eta egazti mota guzietatik, geroko bearko ziranak ar emeak, arka artarra sartu zitzala: eta baita bere buruarentzat, eta familiarentzat, eta animalia guzientzat bearko zuen jan-edanak, edo alimentua. Eta euriak abiatzen ziranean, Noe bera, bere emaztea, eta iru semeak, Sem, Kam, eta Jafet, eren emazteakin sartu zitezela kutxa, edo arka barruan. Noe justuak Jaungoikoak agindu zion guzia egin zuen; eun urte igaro zituan arka ura egiten: zertako zan, eta nola mundutar guziak galduak, edo ondatuak izan bear zuen dilubioarekin, guziai esaten zien: eta mundu guztitik berri ori banatu zan: baña sinistu nai izan etzioben: erremediatu etziran: dilubio

jenerala etorri zan: berrogei egun, eta berrogei gau, batere atertu bage euri jasa arrigarriak erori ziran: munduko mendirik gorenak baño amabost besoz gorago urak altxatu ziran: arkan sartu ziranak ur gañean zijoazen arkarekin batera: aek bakarrik libratu ziran: munduko beste gizakume, eta emakume guziak, txiki, eta andiak urtan itoak izan ziran, animalia, eta egazti guziakin batera. Eta andik urte batera, lurrak legortu ziranean, irten zan Noe arkatik bere familia, eta animalia guziakin: eta Jaungoikoari esker-rak emateko sakrifizio bat egin zion: eta berriro alako dilubiorik bidalduko etzuela Jaungoikoak agindu zion: eta arren señaile izango zala odei ondoan agertuko zan ostrilakea.

**G.** Eta dilubio jeneral artan ito ziran guziak kondenuatu ote ziran? **E.** Sinistu, edo uste dezakegu, lenbizian Noe Santuaren esanak sinistu etzituen batzuek, dilubioaren asiera ikusi zuenean, bildurtu zirala: orduan egiaz sinistu zuela: eta benetan konbertitu zirala: eta salbatu zirala.

**G.** Eta munduaren asieratik dilubio, edo ugolde jeneraleraño zenbat urte igaro ziran? **E.** (1656) milla seireun, eta berrogeita amasei urte: eta orduan Noe justuak seireun urte zituan: eta arrezkero beste iru-



reun, eta berrogeita hamar urte bizi izan zan: guzira (950) bederatzieun eta berrogeita hamar urtekoa zala ill zan: eta nola denbora artan gizonaren bizia ain luzea zan, Noe Santuaren Aitak; Lamek Patriarkak, ezagutu, eta tratatu zituan Adan bera, eta aren seme Seth, eta beste ondorengoak: eta guzien berri ondo zekienak bezela Noeri, eta onen semeai, erakutsi zien munduaren asieratik araño gertatu zan guzia: baña dilubioaren ondoren laburtuaz joan zan gizonaren bizia, erdiraño bezela: eta geroago, eta laburrago izan zan: alimentuak ere geroago, eta indar gutxiago zuen: dilubioaren aurretik lurrak zekatzen frutuakin bakarrik bizi izan ziran: abererik, edo animaliarik batere orduan jaten etzuen: baño Jaungoikoak Noeri, eta bere ondorengoai animaliak jateko lizenzia, edo baimena eman zien: baña aen odola edatea eragotzi zien.

**G.** Eta Noe justuaren asabak Adanegandik bere Aitaganaraño norzuak izan ziran? **E.** 1. Adan bera: eta au ill zan (950) bederatzieun, eta ogeita hamar urte zituala: 2. Seth, eta au ill zan 912 urtekoa: 3. aren seme Enes, eta au ill zan 903 urtekoa: 4. Kainan, eta au ill zan 910 urtekoa: 5. Malaleel, eta au ill zan 895 urtekoa. 6. Jared: eta au ill zan 962 urtekoa. 7. Enok;

eta au ezta oraindio ill: Jaungoikoak beregana eramane zuen 565 urtekoa zala. 8. Matusalen: eta au ill zan 969 urtekoa: eta au da munduan geiena bizi izan dana, 9. Lamek: Noeren Aita: eta au ill zan 777 urtekoa: bost urte dilubioa baño lenago.

**G.** Eta dilubioa ezkeron nola bizi izan ziran Noe Santuaren semeak, eta aen ondorengoak? **E.** Iru semetik bi, Sem, eta Jafet leialak, eta txit errespeto andikoak izan ziran bere aitarekiko: baño Kam, beste semeak aitari errespetoa galdu zion: eta aitaren, eta Jaungoikoaren madarikazioa bere buruari, eta bere ondorengoai ekarri zion: Zer gertatu zan bada? Noe Santuak masti bat ipiñi zuen; matsaren frututik aren indarra jakin bage, zerbait ugari edan zuen: burua artu zion: eta era lotsagarri batean loak artu zuen: ala zegoala Kam bere semeak lenengo ikusi zuen; eta, estali ordean, farra gogotik egiten abiatu zan: eta bere senideak ere ekarri nai zituan eren Aita estadu artan ikustera, eta farra egitera; baño beste seme biak, guraso bati zor zaion honra, eta errespetoa ederki erakutsi zuen: kapa bat artu zuen: atzeraka aitagana eldu ziran eta lotsakizunik ikusi bage, kaparekin estali zuen: Eta Noe santuak, esnatu zanean, eta guzia jakin zuenean, seme on biak bedeinkatu zituan:

eta beste seme Kam burlariaren seme Kanan madarikatu zuen: eta orra exenplo guztiz egokia, humeak gurasoai zor dien errespetoa erakusteko.

**G.** Eta Noeren semen ondorengoak, aurrekoak baño obeak izan ote ziran? **E.** Zenzatu bear zuela zirudian Jaungoikoaren alako kastigu izugarria gogoan zeukela: baño geituaz zijoazen bezela, Jaungoikoaz eta aren eskualdi neurribageaz, aren justiziaz, eta probidenziaz aztuaz zijoazen: ez arrazoari, ez lege naturalari, eta ez konzienziaren zuzentasunari begiratzen zioben: baizik eren pasio, edo griña gaiztoai: deabruak, eta eren buruen amorio propio erabageak itxuturik, soberbiari, abarizari, eta lujuriari zerraizten. Indarrik geienak zituenak besteak menderatu nai zituen: lapurretak ardurabage egiten zituzten: gerrak ere laster sortu ziran: eta bata bestea illtzen zituen: aurreko asaba zarraen esanak ezertan etzeuzkaten, gurasoenzat errespetorik etzuen: Jaungoiko egiazko, eren egilleaz aztutzen zijoazen bezela; Demonioak itxuturik, abiatu ziran Jaungoiko berriak egiten: lenengoan eguzkia, eta illargia Jaungoikoaren eskuetako obrak izanik; Jaungoikotzat artu zituen: eta berez balira bezela, adoratzen abiatu ziran: gero ezin kontatu ala Jaungoiko denboraz asmatu zituen: eta Idolatria,

edo gezurrezko Jaungoikoen adorazioa geienen artean sortu zan: eta eren bizio lotsagarrien estalgarri Jaungoiko falsoak zituzten. Ainbesteraño deabruak, eta eren pasio gaiztoak itxutu zituen.

**G.** Eta munduko bazter guzietara banatu baño lenago zer gauza andirik egin nai izan zuen orduko gizonak? **E.** Eren soberbiaren, erakeriaren, eta itxumen andiaren señaile ageri bat utzi nai izan zuen. Erri andi bat, eta Zeruko odeietaraño altxatu zitekean torre arrigarri bat egiten abiatu ziran; dilubio, edo ugolde jeneralik berriz gertatzen bazan ere; torre artan uretatik libratzeko: torre ura, eta milla torre alakoak desegiteko, eta ondatzeko eskualdia Jaungoikoari kenduko baliobe bezela.

**G.** Eta nola eragolzi zien Jaungoikoak torre ura bukatzea? **E.** Artean gizon guziak munduan hizkuntza, edo lenguaje bat baizik etzuen: eta torre artan ari ziran jenden artean sortu zituan Jaungoikoak (72) irurogeita amabi hizkuntza, edo lenguaje diferenteak: alako moduan, nun ezin alkar aditu zuen: eta obra andi ari larga zioben eta argatik deitu zioben Babelgo torrea: esan nai du, konfusio, edo nasteriako torrea: hizkuntza guziak andik duelako eren nasteri guzia: eta orrelako hizkuntza mota bakoitzekoak, alkar aditzen

zuenak, alkarrekin andik banatu ziran: batzuek baztar batzuetara, eta besteak bestetara: eta orrela berriz mundua poblatu zan: eta munduan orain ere ikusten diran ainbeste hizkuntza mota diferenteak, ori aditzera ematen due.

**G.** Eta orduko gizonak ala gaiztotu ziran ezkerro, bazan munduan oraudio Jaungoiko egiazkoaren ezaguera, sinismena, eta bildurra zuenik? **E.** Bai, bazinan batzuek Jaungoikoaren ezaguera, eta fedea zuenak: eta iñoiz ere eztira faltatu, eta ez faltatuko munduan Jaungoikoaren serbitzari leialak: baña orrelakoak txit gutxi ziran denbora aldi artan: bada, len esan degun bezela, geienak bizioari, eta Idolatriari zerraizten.

**G.** Eta etzituan Jaungoikoak lenagokoak bezela kastiñatu? **E.** Begiz ikusten eztan, baña arrigarriagoa, eta kaltegarriagoa dan kastigu bat eman zien: eta izan zan, eren borondatezko itxumenari, eta bizioari jarraitzen utzi, eta geroko betiko kastigua gorde Eternidade guzirako Infernura gero bota: eta ori da N.K., geiena ikaratu, eta bildurtu bear gaituan kastigua.

**G.** Eta etzuen gure Jaungoikoak, bere justizia bezela, bere ontasuna, eta miserikordia ere agertu denbora artan? **E.** Bai: orduan bertan, munduko jendagiro edo pueblo guzien artean esleitu, berezi, eta autu nai

izan zuen pueblo, edo nazio bat, guzia enpleatu bear zana, Jaungoikoa modu partikular batean ezagutzen, adoratzan, eta serbitzen: eta Pueblo artatik etorri bear zan munduko Salbadorea, edo Jesu-Kristo gure Jauna, gizona dan aldetik.

**G.** Eta orrelako zer egin zuen? **E.** Formatu, edo sortu nai zuen pueblo berri orren buru, eta guraso egin nai zuena autu zuen: ori izan zan Abran Patriarka, Hebreotar, Israeldar, edo Judu guzien aita izan bear zuena. Abran bizi zan Ur zeritzan erri batean, Kaldeako probinzian Asiako partida batean, eta gizon Santu bat zan, Idolatraen artean arkitzen bazan ere: Noeren seme nagusi Sem Patriarkaren jatorrikoa, edo ondorengoa zan: Irurogeita amabost urte zituan Jaungoikoak deitu, eta esleitu zuenean: Tare izena zuen aren aitak: onek Noe, bere asaba, ezagutu, eta luzaro tratatu zuen: eta Abranek berak ere bere asaba Sem Noeren seme nagusia txit luzaro ezagutu, eta tratatu zuen: eta ala artean munduan gertatu ziran gauza andi guziak aurrekoetatik ondo zekizkian.

**G.** Zergatik Jaungoikoak autu zuen Abran, eta ez besterik? **E.** Zerren argan bere ontasuna, eta miseri-kordia agertu nai izan zuen: **G.** Noiz deitu zion? **E.** Dilubio jeneraletik 426garren urtean.

**G.** Nola deitu, eta autu zuen? **E.** Jaungoikoak berak agindu zion, bere erria, bere etxea, eta bere nazioa larga, edo eutzi zezala: eta argandik sortu eragingo zuela pueblo andi bat: eta oni mesede asko, eta andiak egingo ziozkala.

**G.** Zergatik nai izan zuen Jaungoikoak Abran bere erritik eta bizitokitik ateratzea, eta alde egitea? **E.** 1. Gaiztoen konpañiatik alde eragiteko, edo apartatzeko, besten exenploarekin gaiztotu etzedin: 2. lurrari begira zegoen, destierro, edo deserri bati bezela, eta Zeruari betiko bizilekuari bezela: eta 3. Jaungoikoaren ezagueran, bizimoduan, eta inklinazioetan berezia, edo distingitua izan bear zuen puebloaren guraso, edo aita egiteko.

**G.** Eta Abranek zer egin zuen? **E.** Sinistu zuen Jaungoikoak esan, edo agertu zion guzia: bereala obeditu zuen: irten zan bereala bere erritik Sara bere emaztearekin: bere aita Tarerekin, eta Lot bere illobarekin: eta etorri zan Mesopotamiako, Haran zeritzan erri batera: an ill zitzaion bere aita Tare: eta andik igaro zan Kanango lurrera bere emaztearekin, eta Lot bere illobarekin Jaungoikoak agindu zion bezela: eta ara eldu zanean, aldare bat egin zuen, eta Jaungoikoa adoratu, eta sakrifizio bat egin zien: eta Jaungoikoak

Abranen fedeari, eta obedienziari sari ugaria eman zion, ondorengo dotriñetan ikusiko degun bezela.

Eta orra orain N.K., zein gertaera miragarriak, eta arrigarriak ikusi ziran Adanen denboratik, edo munduaren asieratik, Abran Patriarka Jaungoikoak esleitu zueneraño pueblo berri bat argandik sortzeko; eta pueblo berri orretan oraindio mirari, edo prodijio andiagoak egiteko. Eskritura Santuak gauza oek guziok ain zeoro eztitu alperrik aitatzen. Gure Jaungoikoak berak Moisesi eskribitu eragin ziozkan, guziok argitzeko, guziok zenzatzeko, eta nola bizi bear degun erakusteko. Jaungoikoaren justizia, eta miseriak bere obra guzietan beti agertu da. Ikusi dezue Kain gaizto bat: eta aren anaia Abel justua: bata Infernua dago, eta beti egongo da bere kulpaz: bestea Zeruko glorian dago, eta beti egongo da, kontentuz beterik. Orobat ikusi dezue munduko gaiztakeri arrigarria, eta aen kastigu izugarria dilubio, edo ugotze jeneral batekin: eta baita Noe justua, eta bere familia, Jaungoikoak berariaz eragin zion area batean, dilubiotik libratu: eta berriz mundua aen ondorengoekin poblaturik: eta nola oek ere, aurrekoak bezela gaiztu ziran; eta deabruak, eta eren pasio erabageak itxurik, etaeren Kreadore, edo Egille, edo egiazko Jaun-



goikoaz azturik, Idoloak eta gezurrezko Jaungoikoak egiteraño, eta adoratzeraño etorri ziran: eta nola gure Jaungoikoak, oriek guziok largarik, edo eren pasioen erara bizi izaten utzirik (baña ez kastigu bage: bada emen erremediatzen eztan pekatua, nai ta ez Infernuan beti, eta tormentu arrigarrien artean pagatu bear da:) deitu, eta esleitu nai izan zuen pueblo edo nazio berezi baten burua izan bear zuen Abran justua, bese ezaguera, eta fedea munduan konserbatzeko: eta denboraz pueblo artatik bere Semea bera gure Salbadore Jesu-Kristo, gizona egiñik jaio erazotzeko graziazko lege berrian: eta guziori Zeruko bide zuzena erakusteko: eta bide orri jarraitzeko bear ditugun argitasun, eta laguntasun guziak ugari emateko. Zorionean etorri zan Jesu-Kristo denbora señalatuan. Grazia andi orren posesioan arkitzen gera Kristau guziok, Jesu-Kristoren legean bizi gera: eta ala millarezko eskerrak Jaungoikoari sarri, eta gogotik eman degiozkagun; zerren bere egiazko fede, eta ezaguerara ekarri nai izan gaituan: eta alegiñ guziok egin ditzakun, gure fede santuak erakusten dizkigun egia andiak beti gogoan erabiltzeko: eta aekin batera gure bizimodua zuzentzeko: bada orrela esker bagentzat dagoan kastigutik, edo Infernutik libratuko gera: eta esker oneko-

entzat dagoan betiko saria, edo gloria seguratu-  
degu. Amen.

# AMALUGARREN DOTRIÑA

*Jaungoiko gure Jaunak Abran Patriarkarekin  
egin zuen alianza edo alkar artze bat  
gutziz solemnea, etc.*

Gaur esan bear dizuet, N.K., Eskritura Santuaren historiari narraiola; nola gure Jaungoikoak Abran Patriarkarekin egin zuen alianza edo alkar artze bat gutziz solemnea: eta nolakoak izan ziran Abran bera, eta aren ondorengoak, eta batez ere Isak, Jakob, eta oben semeak, amabi Patriarkak: eta aen artean nola distingitu zan Jose kastoia, Ejitoko erreinuan Israeldarrak sartu ziran bitartean. Exemplo, eta dotriña andiko gertaerak aditu bear dituzue: atenzioa eskatzen dizuet.

**G.** Gure Jaungoikoak Abranek agertu zuen fede, edo sinismenari zer sari eman zion, aren mandamentu, edo aginteari obeditzeagatik bere erria, edo bizilekua utzi zuenean? **E.** Gizon Santu arekin egin zuen alianza edo konbenio solemne bat, au da tratu edo alkar artze bat gutziz miragarria. Bada Jaungoikoak egin ziozkan eskinte, edo promesa solemne, eta guz-

tiz andi batzuek, Jaungoikoaren aldetik absolutuak, eta graziazkoak.

**G.** Zer eskeñi, edo ofrezitu zion bada? **E.** 1. Bera izango zala aren Jaungoiko, eta beraren, eta bere ondorengoen protektore, edo lagunzalle: 2. Pueblo edo jenerazio guztiz andi baten aita egingo zuela: 3. Lur guztiz aberats, eta ugari bat emango ziela, au da Kanango bazterrak, promisioko lurra, berari eta bere ondorengoai: eta 4. eren jatorritik jaioko zala Mesiasa, edo munduko Salbadorea. Eta azkeneko au da ezkeinte guzien artean andiena, eta miragarriena: gure Salbadore Jesu-Kristoren etorrera aiñ anzinatik, eta aiñ klaru segurutzen zuena.

**G.** Eta alianza, edo alkar artze, edo tratu orren kanpoko, edo ageri zan señalerik Jaungoikoak eman bazuen? **E.** Bai: bada juramentu egiñaz agindu zuen Jaungoikoak promesa, edo oskeinte oriek kunplitzea: eta orduan disponitu zuen Zirkunzisia; Abran, eta bere ondorengoak distingitu, edo berezi bear zituan señaile, edo marka bezela munduko beste pueblo, edo jende mota guziokgandik: eta Zirkunzisia zan gorputzaren alde minbera batetik aragi zatitxo bat gañibetaz kentzea: Juduak orain ere gordetzen duena, baña Kristauak ez; zerren Jesu-Kristo gure Jaunak aren

ordez Bautismoko Sakramentua eman zigun: eta Zirkunzizio ura Bautismoaren figura, edo itzal bat zan; eta egia agertu ezkeren figura bearrik ezta: bada gorputzaren Zirkunzizioak aditzera ematen zuen biotzaren Zirkunzizioa, au da aragiaren deseo, edo griña gaiztoak menderaturik, edo ezirik, Jesu-Kristogan gizon berriak izatea: aren espirituaz batera bizi izatea: eta ori da Bautismo Santuan agintzen deguna: eta Kristau guziok egin bear deguna.

**G.** Zer bizimodu egiten zuen Kanango bazterretan Abran Santuak, eta bere familiak, eta Lot bere illobak?  
**E.** Arzaiak ziran, eta artalde, eta ondasun andiaren jabeak; eta eren mendean mirabe, eta serbitzari asko zituen: eta osabak, eta illobak alkar txit ondo artzen bazuen ere, aen mendeko arzaiak alkarrekin ondo etzetozen: diferenziak, eta disputak sortu zituen. Abrani kontu eman zioten, eta onek Lot bere illobari esan zion: alkarren aide gertuak gera: pakean bizi bear degu: eta aserratzeko okasioak, edo gaiak kendu bear ditugu. Gauden tokian ezin guziok ondo izan gaitzke, eta ala aukera ematen dizuet: zere artaldearekin ezker aldera joan nai badezu, ni eskui aldera joango naiz, eta zu eskaira bazoaz, ni ezkerredera joango naiz. Gertuan zegoan Sodomako erri guztiz ederra,

eta alde ura autu zuen Lotek: baña ondo begiratu bage, nolako arrisku, edo peligroetan bere burua ipintzen zuan: bada erri artan, eta inguruetan munduan ziran gizonik gaiztoenak bizi ziran: aen kastigo izugarriak gero erakutsi zuen bezela.

**G.** Eta zer beste gauzarik gertatu zitzaion Abran Santuari Lot bere illobarekin? **E.** Sodomako Erregeak, eta inguruetako beste lau Erregek gerra bat izan zuen alde aetako beste lau Erregekin: lau oek garaia, edo bitoria irabazi zuen, eta Sodomako erriaz jabetu ziran: eta an ziranak eren ondasunakin katibu zeramazkien: eta aen artean Lot, bere emazte, eta alaba birekin, eta bere ondasun guziakin. Bereala Abranek guziaren berri jakin zuen, igesi etorri zan bategandik: eta kari-dadeak alaiturik, eta beroturik, bere mirabe eta serbitzarien artean irureun, eta emezorzi egokienak autu zituan: eta aekin, eta beste lagun batzuekin lasterka garaia eraman zuen lau Erregeen ondoren joan zan: antxitu, goitu, edo benzitu zituen: iges eragin zien: eta zeramazkien katibu, eta ondasun guziak, ala artu zituenak, nola erenak kendu zien: eta bere illoba Lot, bere familiarekin, eta ondasunakin libratu zuen. Eta orduan, gerratik zetorrela, bidera irten zitzaion Abrani, Eskritura Santuak, Jaungoiko guztiz altu, edo gore-

naren Sazerdotea deitzen dion Melkisedek Salengo Erregea, Jesu-Kristoren antz, edo figura bizia izan zana: onek ofrendatu zituan orduan ogia eta ardoa Aldareko Sakramentu, eta Sakrifizioa ordutik aditzera ematen zituana: eta bereala ondoren bedeinkatu zuen Abran, eta Jaungoikoari eskerrak eman ziozkan zerren arene etsaiak goitu zituan: eta Abranek lau Erregeak kendu zien guziaren amarrena Melkisedek Sazerdoteari egin zion: ordutik, (*San Paulo Apostoluak esplikatzen duenez, ad Hebr. 7.*) ezagutzen zuela Jesu-Kristo izango zala betiko Sazerdotea, eta guzien gañekoa. Eta Sodomako Erregeak ere bidera Abrani irten zion: eta esan zion, libratu zituan bere mendeko personak eman zegiozkala, baña ekarri zituan ondasun guziak beretzat izan zitzala: baña Abranek interesarik batere beretzat nai izan etzuen: esan zuen, etzuela nai, esan zedin, iñork Abran aberastu zuela: eta interesagatik ibilli zala: eta arrezkero luzaro aurrik izan bage egon bazan ere, Jaungoikoak azkenik eman zion, ofrezitu zion ondorengoa.

**G.** Abrani Jaungoikoak eman zion promisioko semea zein izan zan? **E.** Isak santua: bere emazte Saragan luzaro anzu egon ezkerro, eta larogeita amar urte kunplitu ezkerro, izan zuena. Eta beste emazte bi,

eta aetan beste seme batzuek izan bazituan ere: Isak bakarrik izan zan Jaungoikoak esleitua, aren promesen herederoa izateko: eta Jesu-Kristoren figura, edo antz eder bat izateko.

**G.** Zertan izan zuen Isak santuak Jesu-Kristoren antza? **E.** 1. Aingeruak aren sortzea Abrani aurrez aditzera eman, edo errebelatu zion: eta bera, eta Sara sarturik bazeuden ere, sinistu zuen: 2. Isakek bere inozentian, eta santidadean Jesu-Kristoren bizitzaren antz, edo semejanza andi bat agertu zuen: eta 3. Isak santuaren sakrifizioak Jesu-Kristoren eriotzaren, eta erresurrezioaren misterioa aurretik aditzera eman zuen.

**G.** Nola gertatu zan Isak santuaren sakrifizioa? **E.** Jaungoikoaren Majestadeak probatu, eta argitara eman nai izan zuen Abran bere serbitzari andiaren fedea, esperanza, eta karidatea: eta oriek agertu bear zituan obediencia. Agindu zion, mundu onetan zuen gauzarik maiteena, bere seme Isak, bere ondatsun eta promesa guzien heredero izan bear zuena, mendi baten gañean sakrifikatu zegio-la, au da, bere eskuz ill zezala: eta aren biziaren ofrenda egin zegio-la. Aitzaki andiak, eta arrazoi guztiz indarsuak gogora bazetozkion ere Abran santuari sakrifizio bat ain gogo-



rra, eta nekeza ez egiteko, sinistu zuen, eta esperatu, edo uste zuen Jaungoikoak bere hitzak, eta promesak kunplituko zituala, bere semea piztuko bazuen ere: Jaungoikoaren borondatea, eta agintea egitera berea-  
la jarri zan: berekin eraman zuen mendi gañera bere seme maitea: eta onek bere bizkarrean eraman zuen sakrifiziorako egurra: lotutzen utzi zan sakrifikatua izateko: aitak eskuan zuen, ura illtzeko ezpata: besoa jaso zuen bizia bere semeari kentzeko: baña Jaungoikoak eragotzi zion sakrifizioa bukatzea: besoa detentatu zion: eta aitaren, eta semearen obedienez, eta borondateaz kontentatu zan. Eta aren orde sasi artean trabaturik zegoan ari bat sakrifikatzea agindu zion: eta ala egin zuen: eta bere semea eriotzaren atzaparretatik libratu, eta bizirik zuela, etxera itzuli zan. Eta orra misterio, eta dotriña andiak dituan gertaera miragarri bat: Jesu-Kristoren sakrifizioa, eta eriotza gurutzearen gañean, eta aren erresurrekzioa anziñatik aditzera ematen zuena: eta gurasoai txit argiro erakusten diena, nola eren humeak Jaungoikoari sakrifikatu bear diozkat: bada erenak baño, Jaungoikoarenak geiago dira. Eta ala Jaungoikoarentzat batez ere azi, eta bizi erazo bear ditue, eta ez munduarentzat, eta deabruarentzat, askok gaizki egiten duen bezela.

**G.** Eta Abranen denboran beste gauza andirik gertatu bazan? **E.** Bai: Sodomak, eta aren gertuko beste lau errietan bizi ziran jendeak ainbesteraño gaiztotu ziran: nun aen pekatu izugarriak, eta lotsagarriak deadar Zerura egiten zuen benganza, edo kastigu eske. Jaungoikoaren Majestadeak bere justiziaren exenplo arrigarri bat orduan eman zuen. Aingeru bi bidaldu zituan erri aek ondatzera, erretzera, eta kiskaltzera; barruan zituan gizon eta emakume guziakin: Abran lenago kontu eman zion Jaungoikoak. Abran bitarteko jarri zan: eta baita amar justu baizik arkitzen ezpaziran erri aetan, guziai barkatuko ziela agindu zion, baña etziran arkitzen: bere illoba Lot bakarrik bere familiarekin arkitzen zan justurik Sodomako errian: eta ura Jaungoikoak libratu zuen bakarrik bere emazte, eta alaba biakin. Aingeruak Loti kontu eman zioten nola erri aek ondatu bear zituen: eta etxetik, eta erri-tik atera erazo zituen: eta laster alde egitea, eta atzera ez biurtzea agindu zien: eta aek alde egin zuenean, Jaungoikoak bereala bidaldu zuen erri aen gañera suzko, eta zufrezko euri jasa aiñ arrigarria, nun bereala guziak erre, kiskaldu, eta desegin zituan. Eta zerren Lot santuaren emazteak urrutitik otsa aditu zuenean, atzera begiratu zuen, bertan ill zan, eta gatz arri egi-

nik gelditu zan, beste askoren eskarmenturako. Eta orra N.K., Sodomatarraen kastiguan pekatarien itxutasunaren, eta sufritu beariko duen Infernuko suzko, eta garrezko betiko kastiguaren antz bizi bat. Bada dio Jesu-Kristok berak aren hitz santua aditu, eta ikasi duen Kristauak, baldin gaizki bizi badira, Sodomatarrak baño kastigu andiagoa izango duela. Baña gakizkon Abran, eta Isak bere seme santuaren bizitzari: eta aen ondorengoai.

**G.** Abran santuak norekin ezkondu erazo zuen bere seme Isak? **E.** Arenzat emaztea billatu eragin zuen Mesopotomian, bere jatorrian: eta Jaungoikoak esleitu zuen Rebeka, emakume zinzo, eta modesta bat, Isak santuaren emazte izateko.

**G.** Eta Isakek zenbat hume izan zituan Rebekagan? **E.** Bi seme biokiak: batari Esau, eta besleari Jakob deitu zienak: biak alkarren antz gutxi izan zue-nak: eta aen artean Jakob autu zuen Jaungoikoak Isak bere aitaren herederoa, Jesu-Kristoren aita aurrekoa, eta Israelgo puebloaren fundatzalle prinzipala izateko: bada Israel deitua bera ere izan zan.

**G.** Eta norekin ezkondu zan Jakob santua? **E.** Lau emazte izan zituan: eta aetatik amabi seme eta alaba bat izanzituan. Eta semeai derizte amabi Patriarkak,

edo familien buruak: eta aetatik etorri dira Judu guziak.

**G.** Nola derizte amabi Patriarka aei? **E.** 1. Ruben: 2. Simeon: 3. Lebi: 4. Judas: 5. Isakar: 6. Zabulon: 7. Dan: 8. Neftali: 9. Gad: 10. Aser: 11. Josef: 12. Benjamin. Eta alabari zeritzan Dina: eta onek bere arintasunarekin, eta erabageko kuriosidade, edo alde aetako emakumeak ikusi naiarekin, atsekabe andiak aitari, eta senideai eman zizten: eta kalte arrigarriak ekarri zituan: alako batean Sikengo emakumeak ikustera joan zan: ango Erregearen seme nagusienak ikusi zuen: bereala beregana ekarri zuen: eta arekin ezkondu nai izan zuen: Jakob bere aitak, eta senideak ori igui zuen: eta zirkunzidatu bage ezin Dinarekin ezkondu zitekeala aditzera eman zioben: jarri zan artara Prinzipe ura, neskatxari artu zion amorioagatik: eta ari gusto emateagatik aren aita bera, eta Sikengo guziak orobat zirkunzidatu ziran: eta orra irugarren egunean zirkunzisioko zauriak erituenak, eta argalduenak zeudenean Dinaren anaia osoak ziran Simeon, eta Lebi armaturik, benganza artzera joan ziran: eta Sikengo guziak Erregeraño ill zituen: Jakob santuak ori jakin zuenean, agitz sentitu zuen: eta bildur zan alde aetako jende guziak aren kontra altxatuko zirala: eta

Jaungoikoaren konsejuz andik alde egin zuen: eta Jaungoikoak gorde zuen: baña orra donzella gazte ikusizale, eta eren buruak erakutsi, eta agertuzale diranenzat exenplo arrigarria. Orra zenbat kalte eren buruai, eta eren gurasoai ekarten dizten, lotsatiak, modestak, eta erretirozaleak eztiranean.

**G.** Nola deitzen dira eskuarkiro Jakob en seme, amabi Patriarka aetatik sortu ziran familiak? **E.** Juduen amabi Tribuak deitzen dira. Baña jakin bear da: ze Josef Patriarka antxaren seme biak, Efrain eta Manases, izan zirala Jakob santuak berak autuak, eta izentatuak, Tribu, edo familia biren buruak izateko. Eta ala bazirudian, amairu izan bear zuela Tribu guziak: baña eztira ala ere amabi baizik kontatzen: zerren Lebiren Tribuak, gero Jaungoikoaren kulto, eta serbiziorako, eta orduko Elizlanak egiteko esleitua izan zanak, etzuen parte berezirik izan promisioko lurrean: zergatik Jaungoikoak nai izan zuen Lebitarrak naasi beste Tribuakin bizi zitezen: duda bage eren exenplo, eta dotriñarekin guziak ekarri zitzaen Jaungoikoa serbitzerara.

**G.** Eta Israelitak, edo Abran, Isak, eta Jakob santuen ondorengoak gozatu zuen beti Jaungoikoak Abran- ni agindu zion promisioko lurra? **E.** Abran, Isak, eta

Jakob, bizi izan ziran lur artan kanpotarrak bezela: eta aen ondorengo Israeldarrak etziran lur arzaz jabetu, Jaungoikoak promes ura egin zuenetik laureun urte igaro artean.

**G.** Zergatik ainbeste denbora luzatu zuen? **E.** Zergatik luzaro Ejiptoko katiberioan ango Erregeren mendean egon bearra izan zuen.

**G.** Zerk eraman zituan Ejiptora? **E.** Gosete arrigarri batek: eta jakin zuelako, gosete ark zazpi urte iraungo zuela: eta baita ustez ustebage Jakobean seme Josef Ejiptoko agintari, eta Erregeren urrengo gizon arkitzen zala: eta are artu zituan neurri, eta probidenciakin Ejipton goserik izango etzala.

**G.** Nola izan zan bada Jose aurretik Ejiptora? **E.** Jaungoikoarenzat ustekaberik ezta: etorkizun guzia dakusanak bezela, gauza guziak, nai bezela zuzentzen ditu. Jakob santuak Rakel bere emazterik maiteengan seme bi izan zituan: bata Jose, eta bestea Benjamin: eta onen aurgitez Rakel ill zan. Seme guzien artean maiteena izan zan Jose: eta oni besteai ez bezelako soñeko bat Aitak egin zion: eta orregatik, eta baita pekatu izugarri batez anaiak salatu zituelako, beste senideak gaitz iritsia artu, eta ezin ikusi zuen: asi zan gaitz iritsi ori, Josek, izan zituan, eta batere

gaitz bage kontatu zien ames misteriozko birekin:  
esan zien: guziak kanpoan zeudela, amesetan ikusi  
zituela amabi garizko azau: eta berarena beste guzie-  
na baña altxatuago zegoela: eta beste guziak makur-  
turik agur egiten ziobela: eta orobat esan zien, beste  
batean, ikusi zituala, eguzkia, illargia, eta amaika izar,  
bere oñetan etzin zitzaiola, eta adoratu zuela. Orra  
Joserren geroko goratasuna, eta anditasuna aditzera  
ematen zuen misteriozko amesak: aren anaiak geiago  
sumindu zituanak: eta ura saltzera ekarri zituenak.  
Ona artarako izan zuen era, edo okasioa. Berekin  
etxean eduki oi zuen Jakob santuak Jose bere seme  
gaztea: besteak eren artaldeakin kanpoan zebiltzan:  
bein bidaldu zuen bada anaietara, nundik, eta nola  
zebiltzen berriak ekarri zegien. Urrutitik ikusi zue-  
nean, eren artean esan zuen: ona nun datorren gure  
amesgillea, gure agintari izan bear duena: eta berea-  
la illtzeko asmoa geienak artu zuen: baña Ruben  
anaia nagusienak eragotzi zien: esan zien: etzitzela  
senide baten odolean eskuak busti: sartu zezela legor-  
turik zegoan potzu andi batean, berez an akabatu  
zedin; baña asmoa zuen, andik atera, eta aitari biur-  
tzeko: eta potzuan sartu zueneko, andik zijoazen tra-  
tulari, edo merkatari batzuek Ejiptora: eta Judas eren

anaiaren konsejuz merkatariak saldu zien eren anaia Jose: eta au esklabo egiñik eraman zuen merkatariak Ejiptora: eta an saldu zioben Putifar zeritzon anditsu bati. Eta Aita Jakob Santuari bidaldu zioben Joserren arropa, antxume baten odolez bustirik, edo gantxiturik; eta gastigatu zioben, aren seme Jose abere gaizto batek desegin, puskatu, eta ill zuela. Eta nork esan Jakoberen orduko pena, eta naigabea? Ezin iñola ere konsolatu zan bere seme maite Jose era lastimagarri artan galdu zuelako. Eta orra nola gure Jaungoikoaren probidenziak atsegiñak, eta atsekabeak mundu onetan bere adiskide maiteai partitzen dien, aen birtutea probatzeko, eta geiago, eta geiago irabazi eragiteko.

**G.** Eta Ejiptoko nagusi Putifarrek nola artu, eta tratatu zuen Jose bere esklaboa? **E.** Laster ezagutu zuen aren zinzotasuna, eta leialtasuna: bere etxe guziaren, eta ondasun guzien kargua eman zion: bere emaztea ez, ze etxeko beste guziak aren mendean ipiñi zituan: eta nola guztiz ederra, eta egokia zan, bere etxeokandreak berak kariño, naiera, edo amorio geiegizko bat artu zion: bere pasio itxua bein baño geiagotan agertu zion: baña Jose beti eskusatu zan: beti leial Jaungoikoarentzat, eta nagusiarentzat izan zan: eta alako batean bakarrik zegoela agitz tentatu zuen bere etxe-



koandreak: kapatik ere eldu zion: eta orduan Jose kas-  
toak kapari larga, eta alde egin zuen: eta etxe-  
koandreak kolera bizi batean sarturik deadarrari eman  
zion: eta egotzi zion falso testimonio arrigarri bat, esa-  
ten zuela; bere etxe-ko esklabo Josek indar egin nai  
izan ziola; eta kapatik eldu ziola: baña kapa aren  
eskuetan utzirik iges egin zuela. Eta gezur andi ori  
sinistu eragin zion bere senarrari. Eta onek bereala,  
bere aserre bizian ipiñi eragin zuen preso bere eskla-  
bo Jose Erregearen kartzelan. Eta orra kulpaduna libre,  
eta koroa eder bat merezi zuen inozentea lotsaturik,  
eta kastigaturik: baña Jose kastoia, bere konzienziako  
testimonioa, eta pakea pozgarri zuela, konformatu  
zan, guzia zekusen Jaungoikoaren probidenziarekin;  
eta onek ala humillatu, eta beeratu ondoan altxatu  
zuen Ejiptoko agintari, eta ango Erregearen lenengo  
Ministro, eta gobernari izatera.

**G.** Nola ori gertatu zan? **E.** Kartzelako nagusi, edo  
kargudunak ezagutu zuen Joseren guzirako prudenzia,  
eta jakinduria: eta preso guzien kuido berari eman  
zion: Faraon Erregearen serbitzari bi preso ipiñi  
zituen: batak zuen Erregeren maiko ardo guzien kar-  
gua: eta besteak ogiarena. Oek izan zituen ames  
bana, txit larritu, eta estutu zituenak: zerren aen

zoria, edo suertea erabakitzen zuen: Joseri aditzera eman ziozkaten: eta onek Zeruko argiz etorkizuna ezagutu, eta esan zien: ogiaren kargua zuenari andik irugarren egunean bizia kenduko ziobela: eta beste-ri lengo kargua biurtuko ziobela: eta oni eskatu zion, Erregeren serbiziara biurtzen zanean, artzaz oroitu, edo akordatu zedilla, nola kulpabage zegoan Erregeri aditzera eman zegiola. Josek esan zuen bezela guzia gertatu zan: baña laster artzaz aztu zan lengo kargu-  
ra biurtu zan Erregeren serbitzaria. Eta orra nun andik urte bira Jaungoikoak disponitu zuen, Erregeak berak izatea beste ames bi, agitz larritzen zuenak: eta ezin iñork aditzera eman zion ames aek zer esan nai zuen. Orduan akordatu zan Josez Erregearen serbitzaria: eta Erregeri esan zion, nola preso ark amesak asmatzeko, Zeruko argia zuen: eta nola berak, eta bere lagunak izan zituenak explikatuz zien; eta ark esan bezela gertatu ziran. Bereala Faraon Erregeak Jose erakarri zuen: bere amesak esan ziozkan: eta ziran, 1. Niloko ibai anditik irteten ikusi zituala zazpi bei guztiz gizenak: eta aek larrean zebiltzala, ondoren irten zirala beste zazpi bei, guztiz meak, eta argalak; eta oek irentxi zituela lenengo zazpiak: orobat ikusi zituela zazpi galburu txit ugariak, eta ederrak: eta aen ondoren

beste zazpi guttiz txarrak: eta oek beste zazpiak iren-  
txi zituela. Ames oek aditu zituaneke Josek esan zion  
Erregeri zazpi urte oetan izango dira abustu guttiz  
ugariak: baña ondoren etorriko dira beste zazpi urte  
gosete guttiz andikoak: eta konseju eman zion Farao-  
ni, erri andi guzietan eragiteko granero edo biltegi  
andi batzuek, eta aetan gordetzeko gariak eren  
buruetan geroko urte gaiztoetarako. Ederki iritzi zion  
aren konsejuari, eta pensatu zuen etzuela iñor ere  
bere erreinuan arkituko, ura kunplitzeko gaiago zanik:  
eta bertatik bere eskualdi guziak eman zion: eta agin-  
du zuen, Ejiptoko guziak Joserren mendean egon zite-  
zela: ari obedezitu zegiobela: eta bere karroza batean  
sartu eragiñik, aren aurrean zijoan pregonero bat,  
Erregeren ordena publikatzen, eta Joserren aurrean  
guziak belaunikatu zitezela agintzen: eta izen berri  
bat ipiñi zion munduko salbadorea deitzen ziola. Eta  
orra munduko goraberak zein miragarriak diran. Eta  
nola gure Jaungoikoak nai duen bezela gauza guziak  
zuzentzen dituan.

**G.** Nola jakin zuen Jakob Santuak bere seme Jose  
Ejiptoko agintari zegoela? **E.** Eldu zan esan degun  
gosetea Kanango errietara. Ejipton baizik, garirik arki-  
tzen etzan: eta garia eroatera bere semeak Ejiptora

bidaldu zituan. Orduan ango agintari Jose zegoan: bere burua anaiai ezagutu erazo zien: eren dollorkeria barkatu zien: laztandu zituan: bear zuen gari guzia doarik eman zien: eta erakarri zuen Ejiptora bere aita Jakob bere familia guziarekin: eta guziak ziran orduan irurogeita amar persona: baña laster an geitu ziran: eta pueblo andi bat izatera eldu ziran. Ejipton ill zan Jakob Patriarka, baña Josek aren gorputza eraman eragin zuen Abran, eta Isaken sepulturara Kanango lurrera: eta ill baño lenago Jaunaren espirituarekin argiturik seme guziai etorkizunak esan zien: bakoitzari zegiozkanak: eta Judas bere semeari esan zion aren etxean, edo familian iraungo zuela Israelgo puebloaren aginte prinzipala, munduko salbadorea etorriko zan artean, eta ala gertatu zan: bada Jesu-Kristo agertu zan denboran akabatu zan Judeako buruen agintea. Eta Josek Ejipton noiz artean agindu zuen? Agindu zuen bizi izan zan arte guzian: baña aren gorputzeko ezurrak ere Kanango lurrera denboraz eraman zituen berak agindu zuen bezela. Eta orra, N.K., gaurko historiarik asko, dotriña andiak erakusten dizkigutenak. Jaungoikoak digula arren guziori fede bizi bat aitatu ditugun Abran, Isak, Jakob, eta Jose Santuai bezela; eta gero betiko gloria. Amen.

# AMABOSTGARREN DOTRIÑA

*Moises santuaren denborako  
gertaera agitz miragarrien gañean, etc.*

Orain urrengo dotriñan mirari andiak aditu zinduzten N.K., eta batez ere Jose santu, eta kastoaren gertaera miragarrietan ikusi zenduen kastidade santuaren exenplo andi bat: eta baita bere naigabe guzien artean Jaungoikoaren borondatearekin konformidade oso bat: eta nola Jaungoikoak honratu, eta altxatu zuen Ejiptoko agintari, eta gobernari egiteraño. Gaur aditu bear dituzue bada gertaera agitz miragarriagoak Moises santuaren bizitzan: Ejiptoko plaga edo zauri arrigarrietan Israeldarrak Faraon Errege gogorraren katiberiotik libratzeko: eta itxas gorriaren igarotze, edo pasaje prodijios betean. Kontuz aditzeko, eta gogoan ondo artzeko alegiñak egin itzatzue.

**G.** Nola artu zituen Hebreotar, edo Israeldarrak Ejiptoko erreinuan? **E.** Jose Patriarka andia eren agintaria bizi izan zan artean txit ondo: baña ura ill ezkerro, eta beste Errege Faraon bat sartu ezkerro txit gaizki: (Faraon izena zuen Ejiptoko Errege guziak): Aztu

ziran bada Josek egin zizten mesede guztiz andiaz: eta nola Israeldarrak zijoazen geitzen, bekaiztu zitzaien Faraoni: eta onek, aek gutxitzeko, neke arrigarriak eragiten zizten: eta ala ere geroago eta geiago geitzen ziran. Orretan Kristauen Elizak lenbizian ikusiko zuenaren antz andi bat erakusten zuen: eta Faraon gogorak aek desegiteko agindu zien aurgiten laguntzen zuen emagin guziaz: Israeldarraen emakumeak egiten zituzten semetxo guziak bereala ill zitzatela: eta alabak gorde zitzatela: baña aiñ gogortasun arrigarria igui izan zuen Ejiptoko emagiñak: errukitzen ziran: eta estaltzen zituen aurtxoak: eta Jaungoikoak erruki orren saria eman zien. Baña Faraonek kargu egin zien emagiñai: eta esan zioben, Israelgo emakumeak etzirala besteak bezela; aek eldu baño lenago aurrak egiten zituztela. Eta ori ikusirik, bere mendeko guziaz agindu zien Errege gogor ark, Israeldarraen mutiltxo guziak Niloko ibaira bota zitzatela. Eta orduan Jaungoikoaren Majestadeak artu zituan Israelgo bere puebloa Faraonen katiberiotik libratzeko providentzia guztiz miragarri batzuek.

- G.** Norzaz orretarako baliatu zan gure Jaungoikoa?  
**E.** Moises esleitu zuan artarako.

**G.** Nola jaio zan, aurtxoan eriotzatik libratu zan, eta azi zan Moises? **E.** Lebi, Jakob santuaren semearen jatorrikoa zan: gurasoak izan zituan Amran, eta Joka-bed: jaio zanean iru illabetean ezkutaturik eduki zuen: baña ezin geiago gorde izan zuen: eta iesko saski bat, kumaren gisa, betunez, eta pikez zirristuak itxirik, egin zuen: eta an sarturik Niloko ibaiaren bazterrean ipiñi zuen: eta aren arrebatxo bat Maria zeritzona, aurrari zer gertatzen zitzaion ikusteko zai ipiñi zuen: eta orra nun Jaungoikoaren probidenziak bertara erakarri zuen Faraonen alaba bere neskatx serbitzariakin; ibai artan freskatzeko, edo bañatzeko aitzakiarekin. Bereala ikusi zuen saski artan aurtxo eder bat, negarez zegoela. Kupitu, eta errukitu zan artzaz Erregearen alaba, eta urtatik atera eragin zuen: eta ori ikusi zuenean zai zegoan arrebatxoak, esan zion, nai bazuen ekarriko ziola, aur ari titia emango zion, eta aziko zuen emakume Israeldar bat: ekarri zezala bereala agindu zion: etorri zan aurtxoaren beraren ama: eta berari Faraonen alabak kargua eman zion aur ura azitzeko: eta zegokion saria ere agindu zion. Eta orra Jaungoikoaren probidenzia guztiz miragarri batekin Moises eriotzatik libratu, eta bere ama propioari azitzeko emanik. Nolakoa izango zan onen

poza, milagrozko semetxo ura azitzen zuenean! Azizanean bada eraman zion Erregearen alabari, eta onek bere seme orde artu zuen: eta Erregearen beraren Jauregi, edo Palazioan orduko estudio, eta jakinduri mota guziak ikasi eragin ziozkaten; eta guzietan txit aurreratu zan.

**G.** Eta noiz artean egon zan Moises Faraonen etxe, edo Palazioan? **E.** Berrogei urte osatu arteraño: orduan igaro zan Hebreotarretara, edo Israelgo bere pueblora: oek Gasengo lurrean aparte bizi ziran: naia-go zuen aen artean Jaungoikoa serbitzen, eta adoratzzen bizi, Faraonen etxean ikusten zituen Idolo, eta gaiztakerien artean egon baño. Eta egun batean ikusi zuen, Ejiptoar batek Israeldar bat golpatu zuela: eta bere zelo irazekiarekin Ejiptoarra ill zuen: eta iñork ikusi bage, areen artean aren gorputza ezkutatu zuen, eta bigaramonean Hebreotar, edo Israeldar bi aserraturik ikusi zituan: eta kulpa zuenari esan zion: Zergatik orrela zure projimoa, edo gidea golpatzen, edo jotzen dezu? **E.** Eta bereala eranzun zion: Nork gure juez, eta nagusi egin zaitu? Benturaz atzo Ejiptoarra ill zenduan bezela ill nai nazu? Bildurtu zan orduan Moises: eta esan zuen: Nola gauza au barreatu, edo publikatu da? Eta zerren Faraonek ori jakin zuenean, Moi-



ses illeragin nai zuen; alde egin zuen Moisesek: eta Madiango lurrera igaro zan. Eta an Jetro zeritzan Sazerdote baten alabarekin ezkondu zan: eta aren artaldeak zaitzen luzaro jardun zuen, eta noiz deitu zion Jaungoikoak Moisesi, eta Israelgo puebloa libratzeko kargua eman zion? Larogei urtera eldu zanean Jaungoikoa agertu zitzaion Horeb esaten zibenen mendi batean era ikusgarri, eta miragarri batean. Ikusi zuen sasi bat, guzia sua zeriola: eta ala ere batere erretzen etzala: eta gerturatzen zala, erretzen etzalako mirari andi ura ikustera; Jaungoikoak sasi artatik bere izenaz deitu zion: Moises, Moises: eranzun zion: emen nago. Eta esan zion Jaungoikoak, etzaitezela gerturatu: zure oñetakoak kendu itzatzu zergatik zauden tokia lur santua da. Eta orduan esan zion Jaungoikoak: ni naiz zure Aitaren Jaungoikoa: Abranen Jaungoikoa: Isaken Jaungoikoa: Jakoberen Jaungoikoa. Eta Moisesek errespetoz bere aurpegia estali zuen: eta Jaungoikoagana begiratzera atrebitzen etzan. Eta Jaunak esan zion, nere puebloak Ejipton daramazkian neke gogorraz errukitu naiz: eta bidalduko zaitut, Faraonen mendetik aek libratzera. Eskusatu nai izan zan Moises, lan andi artarako gai etzalako; baña Jaungoikoak agindu zion berak lagunduko ziola. Eta dudarik izan etzezan, esan

zion, nere puebloa Faraonen mendetik, edo katiberio-  
tik ateratzen dezunean, mendi onen gañean Jaungoi-  
koari sakrifizioa egingo diozu. Berriz esan zion Moise-  
sek Jaungoikoari: joango naiz Israelgo semeetara: eta  
esango diet, zuen gurasoen Jaungoikoak zuetara  
bidaldu nau: eta galdetzen badidate, nola du izena?  
zer eranzungo diet? Esan zion Jaungoikoak: Ni naiz  
naizana: ala esango diezu Israelgo semeai: *Danak*  
zuetara bidaldu nau.

**G.** Baña zer esan nai du Jaungoikoak, *Ni naiz nai-  
zana*, dionean? Benturaz ezin edozeinek esan dezake,  
ni naiz naizana? **E.** Jaungoikoak bezela ezin iñork esan  
dezake. Zertan dago bada diferentzia? Jaungoikoa  
bakarrik da berez dana: beti izan dana: eta bere iza-  
tea iñori zor eztiona: berez daukana: eta beti izan  
duena: eta bera da beste izate guzien egillea, eta  
jabea: ezta beste gauzarik batere, ez Zeruan eta ez  
lurrean, berez danik: guziak duen izate guzia, eta aren  
iraupena ere Jaungoikoagandik due: eta ala eztira  
berez beti izanak, Jaungoikoa bezela. Eta bestetik  
kreatura guziak izate labur bat baizik eztue, bakoitza-  
ri dagokan, edo Jaungoikoak eman dien neurrian:  
baña Jaungoikoak beregan dauka modu miragarri  
batean izate guzia, eta izan al ditekean guzia: eta

gauza guzien perfekzioak, eta anditasunak Jaungoiko-  
agan arkitzen dira, iturburu kabubageagan bezela:  
bada ezta perfekziorik, eta anditasunik batere Jaun-  
goikoari bere izate guzia zor eztionik: eta orra bidez  
dotriña miragarria, Jaungoikoaren esan labur onekin  
*Ni naiz naizana*, aren Majestadearen kabubageko  
anditasuna, eta guzien gañeko goratasuna nolabait  
ezagutzeko.

**G.** Eta zer egin zuen Moisesek Jaungoikoaren orde-  
na ori aditu zuenean? **E.** Oraindio eskusatu zan berriz:  
eta Jaungoikoari eranzun zion. Ez nabe sinistuko:  
eztue nere esana adituko: baizik esango due: etzatzu  
Jauna zuri agertu. Orduan Jaungoikoak milagro birekin  
obeto sinistu eragin zion: esan zion: Eskuan dezun  
zigor, edo bakulu ori lurrera bota ezazu: bota zuen:  
eta bereala zigorra serpiente bat egiñik agertu zan:  
eta Moises igesi abiatu zan: baña Jaungoikoak agindu  
zion: zure eskuz buztanetik eldu egiozu: eta ozta artu  
zuen, bereala zigor, len bezela biurtu zan. Orobat  
esan zion: Zure eskua kolkoan sartu ezazu: ala egin  
zuen: eta bereala lepraz beterik eskua atera zuen. Sar  
ezazu berriz esan zion: eta berriz sartu zuen: eta atera  
zuen leprarik batere bage. Eta ala ere berriz eskusatu  
nai izan zan Moises: eta Jaungoikoari esan zion: Ni hiz-

tun motel bat naiz: eta zure hitzak adituta ere nere mingaña pisua dago. Baña esan zion Jaungoikoak: ni zure mingañean arkituko naiz, eta zer esan erakutsiko dizut, eta oraindio eskusatu nai zuen: baña Jaunak aserraturik esan zion: zure anaia Aaron Lebita hiltun ona da: bidera irtengo dizu: eta nere esan guziak aditzera emaiozkatzu: eta zuen aoak nik gidatuko ditut. Eta ark Israelgo puebloari guzia aditzera emango dio. Eta ar ezazu zure eskuan zigor au: eta mirari, edo prodijioak orrekin egingo dituzu. Orduan bada Moises bere aitagarreba Jetrogandik despeditu zan: eta Ejiptora biurtu zan. Eta Israeldarrai Jaungoikoaren borondatea, eta aek libratzeko asmoa aditzera eman, eta sinistu eragin ezker, Moises, eta bere anaia Aaron Faraon Erregearen aurrean agertu, eta presentatu ziran. Jaungoikoaren ordena aditzera eman zioben: eta lizenzia, edo baimena eskatu zioben, pueblo guziarekin Orebgo mendiaren gañera sakrifizio bat Jaungoikoari egitera juateko. Baña Faraonek etzitan sinistu nai izan: gogorkiro artu zituan: eta Israeldarrak len baño geiago nekatu eragin zituan. Baña Jaungoikoak berriz Moises, eta Aaron Faraonegana bidaldu zituan leena bera esatera, eta eskatzera: baña au itxuturik eta gogorturik zegoan: eta aren gogortasuna

ausitzeko Ejiptoko amar plaga, edo zauriak orduan asi ziran. Jaungoikoak Moisesi eman zion mirari, edo prodijio guztiz arrigarri batzuek egiteko bere eskualdi, edo poderio guzia; orrela Faraon obligatzeko, edo premiatzeko libertatea ematera: guziak zeoro gertatu ziran bezela esatea lan guztiz luzea da: asko dezue jakitea 1. Ejiptoko ibai, eta erreka guzietako urak odol biurtu zituala. 2. Igel andi, itxusi, arrigarriz Ejipto guzia, Erregearen beraren etzalekuraño bete zuela: eta alimentu guziak ere igelak zikintzen ziztela. 3. Eltxozko plaga arrigarri batek Ejiptoar guziak pikatzen, eta mortifikatzen zituela: 4. aen ondoren euli andi guztiz asko, eta mota guzietakoak bazter guzietan sortu eragin zituan: baña ez Israeldarrak zeuden tokian. 5. Izurri arrigarri batek Ejiptoar guzien abereak bukatu zituala: baña Israeldarraenak libratu ziran. 6. Ejiptoar guziak andituz, eta zauriz bete zituan: baña Israeldarrak ez: 7. arrite izugarri iñoiz ere ikusi etzan bezelako batek ango frutuak puskatu, eta desegin zituan: Israeldarraenak libre gelditu ziran: 8. Langostazko plaga arrigarri batek, au da egazko animalia txiki guztiz askok, txartalak, edo sarrepetitak deitzen die, batetan etorri, eta jan zituen arrileak eutzi zituan frutu, eta belarrak. 9.a izan zan illuntasunez Ejipto

guzia iru egunean betetzea; alako moduan, ze gertura ere ezin alkar ikusi zuen: eta orduan bertan Israeldarrak zeuden tokia argi osoan zegoan. Larritu zan askotan Faraon plaga izugarri oekin: eta baita Moisesi, eta Aaroni beregana deitu, eta agindu zien libertadea emango ziela; plaga gaiztoak geldi erazotzeagatik: bada Moisesek, nai zuenean, sortzen zituan: eta nai zuenean, Jaungoikoari erregutu, eta bereala kentzen, edo desegiten zituan: eta askotan ala egin zuen: baña Faraonek, plagak gelditurik, edo kendurik ikusi ezkeru, bere hitza kunplitzen etzuen: bere itxumenera, eta gogortasunera biurtzen zan: baña amargarren plagarekin, au da, Erregeren beraren seme eta Ejiptoko beste seme nagusi guzien eriotzarekin ainbesteraño Faraon bera, eta Ejiptoar guziak estutu, eta larritu ziran: nun bere-bereala Ejiptotik Israeldar guziak irte-teko agindu zien.

**G.** Nola ori gertatu zan? Jaungoikoaren ordenaz Moisesek Israeldarrai agindu zien; familia bakoitzean arkume edo bildots bat mantxabagea ill zezatela illaren amalaugarren egunean: arrasaldean aren odolarekin busti, edo señalatu zitzatela eren ate guziak: arku-mearen aragia surtan errerik jan zezatela beanzagi bageko ogiarekin, eta letxuga miñakin: ezer ere utzi

bage, eta kanpora atera bage: baña ezurrik ausi bage. Eta arkume ura jateko denboran zeudela zuti, makilla, edo bakulu barra eskuan zuela: eta bidezkoen gisa, bereala bidean jarteko etxuran. Ori guzia kontuz egin zuen Israeldarrak: eta orra nun gauerdian Aingeru batek Ejiploko seme nagusi guziak, baita Faraonen semea ere ill zituan: etzan etxerik difunturik etzanik: baña arkumearen odolaz seinalaturik zeuden Israeldarren etxeak libre utzi zituan. Nolakoa izango zan orduan Faraonen, eta Ejiptoar guzien larritasuna? Bereala Moisesi, eta Aaroni deitu eragin zien Faraonek: eta agindu zien len baño len Israeldar guziak, zituen abere, eta gauza guziakin irten zitezela Ejiptotik: baña eren neke andiaren saria ere eramatea Jaungoikoak nai zuen: eta aurrez esan zien Israeldarrai, eska zegiela prestaturik, edo fiaturik bezela Ejiptoarrai al zituen urre, zillar, joia, eta alaja guziak: eta Ejiptoarrai, Jaungoikoak artarako gogoa emanik, eskatu zien guzia eman zien. Eta urrengo egunean, Moises, eta Aaron gidari zituela, atera ziran Ejiptotik Israeldar guziak: seireun millataraño ziran, gerrarako gai ziran gizonak bakarrik: emakumeak, eta gaztetxoak kontuan sartu bage: eta eri, edo gaixorik batere aen artean etzan. Eta orra N.K., gure Jaungoikoaren eskua,

edo poderioa nolakoa dan, nai duen guzia, eta nai duen moduan egiteko: eta nola gizonik gogorrenak, eta etsairik andienak humillatzen, beeratzen, kastigatzen dituen: eta bere eskura dakazkian: eta bere serbitzariak altxatzen, honratzen, eta saristatzen dituen.

**G.** Eta zer egin zuen Ejiptoarrak, Israeldarrak andik irten ziranean? **E.** Laster damutu ziran libertadea emanaz: eta jarraio zien Faraonek bere soldaduakin atzera erakarteko: eta orduan gertatu zan itxaso gorriaren pasaje, edo igarotze guztiz miragarria, eta aiñ fama, edo ospe andikoa.

**G.** Nola ori izan zan? **E.** Itxas egalean arkitzen ziran Israeldarrak: eta atzetik zerraizten Faraon, eta bere exerzitoak: estutasun arrigarri batean zeuden: eta Moisesen, eta Aaronen kontra murmuratzen asi ziran, an guziak illtzera eraman zitualako: baña Moisesek alaitu zituan: itxasoko ura bere eskuaz ukitu zuen: eta bat-batean urak alde bitara partitu ziran: eta itxas zorua legorturik ikusi zuen: eta andik beste aldera igaro ziran guziak: aen ondoren sartu ziran Faraon, eta bere soldaduak: baña Moisesek berriz urak ukitu zituan: eta lengo tokira biurtu ziran: eta urpean Faraon, eta bere soldadu guziak itorik gelditu ziran:



eta orrela aen mendetik, edo katiberiotik Israeldarrak libratu ziran.

**G.** Eta orduko libertade miragarri orren memoria, edo oroipena konserbatzeko zer agindu zuen Jaungoikoak? **E.** Bi gauza: bata, urteoro egun artan bertan Israeldar guziak egin zezatela arkume jate, edo apari bat, orduan egin zuen modu, edo era artan bertan, eta urrengo egunean urteoro Pazkuako festa andia gorde, eta zelebratu zezatela, bada Pazkuak pasaje, edo igarotze ura esan nai du: eta bestea, Israeldarrak aurre-ra izango zituen seme nagusien guziak, eta baita abereak egiten zituen lenbiziko humeak izan bear zuela Jaungoikoari ofrendatuak, edo konsagratuak: eta lege ori gordetzeko Maria Birjiña Santisimak bere Seme maite Jesu-Kristo presentatu, edo ofrendatu zuen Jerusalengo tenploan.

**G.** Eta aitatu ditugun mirari, edo prodijio andiak: eta Israeldarren arkune jate misteriosoak: eta aren odolarekin señalaturik zeuden etxeetako guziak erioztatik libratuak izateak zer esan nai due? **E.** Misterio guztiz andiak aditzera ematen dizkigue. Eta 1. Farao-nen mendean Israeldarrak padezitzen, eta sufritzen zuen katiberioak aditzera ematen digu, Infernuko deabruren mendean pekatariak daukaten katiberio gogo-

rra: eta au, bestea bezela, begiz ikusiko bagendu, Israeldarraen katiberio gogor, eta nekagarriak baño geiago izutuko, eta ikaratuko ginduzke: bada aek gorputzak zeuzkaten besteren mendean: ez animak: baña pekatariak eren animak, Jaungoikoak bere antzera egin dituanak, eta beti zorionekoak izan bear lukeanak dauzkate deabruaren mendean: eta Jesu-Kristo, Jaungoikoaren arkume, edo bildots, mantxaba-geak, munduko pekatuak kentzen dituanak, atera ditzake bakarrik deabruaren, eta pekatuaren mendetik, eta betiko eriotzatik: eta orretako arkume artan figuraturik zegoan Jesu-Kristok bere odola ixuri zuen: eta alako eriotza gogorra Gurutze Santuan sufritu zuen; eta aren frutua aplikatzen digu, bear dan fede, eta prestaerarekin Sakramentu Santuak errezibitzen ditugunean. Eta mirari andi ori lenengo egiten du Bautismo Santuarekin: bada orduan igarotzen gera deabruaren katiberiotik Jaungoikoaren semeen libertadera: eta Faraon, eta bere soldaduak itxas gorrian bezela, gure pekatuak gelditzen dira itoak, eta desegiñak Bautismoko ur santuan. Eta 2. ori bera berritzen da penitenziako Sakramentu Santuan, pekatariak bere utsegiteak, eta gaiztakeriak ondo ezagutu, eta egiaz damaturik: eta bizitza on bat egiteko asmo irmoak

arturik, konfesatzen dituanean: bada orduan ere deabruaren mendetik ateratzen dira: eta Jaungoikoaren semeak, eta Zeruko herederoak egiñik gelditzen dira: eta 3. Israeldarraen orduko arkume jateak; eta jateko moduak, aditzera ematen zuen, orain kristauok Komunio Santuan egiaz jaten degun Jaungoikozko arkumearen aragia, edo Jesu-Kristoren Gorputz guztiz preziosoak: eta ura jateko modua: au da, izan bear degu, 1. egiazko Kristauak, edo Israelita fededunak: 2. bidezkoak bezela ondo konsideratu bear degu eztagoala mundu onetan gure atsedean, edo deskansu lekua, baizik Zeruan: ete ala Ejiptoko, edo munduko amorio erabagari gure biotzetan leku eman bear eztiogu: baizik gure deseo, eta ansia guzia izan bear da betiko deskansua, eta zoriona Zeruan billatzea: 5. Jesu-Kristogan fede bizi bat, eta berarekin uniturik, edo bat egiñik egoteko deseo bero bat eduki bear degu. 4. Letxuga miñak aditzera ematen duen gure aragiaren mortifikazioari jarraio: eta azkenik gaitz bageko, edo maliziaren beanzagi bageko biotz garbia eduki bear degu: eta orra ondo komulgatzeko izan bear degun prestaera.

**G.** Eta zer esan nai zuen arkumearen ezurrik ez ausitzeko Jaungoikoak Moisesi eman zion ordenak? **E.** Ori zan Jesu-Kristo gure Jaunari gurutzean ill ezkerro

gertatu zitzaionaren figura, edo antz bat, bada etzuen  
nai izan Jaungoikoak ezurrik Jesu-Kristori ausi zegio-  
ten, lapur biai ausi zien bezela. (*Joan. 21. v. 36.*) Eta  
orain N.K.: zer probetxu, edo frutu atera bear degu,  
Eskritura Santuak ain zeoro aitutzen dituan, edo aditu  
dituzuen mirari, edo prodijio arrigarrietatik? Ikusi  
dezue argiro Jaungoikoaren probidenzia guztiz andia,  
eta guztiz zuzena alde batetik aren justizia eta beste-  
tik aren ontasuna eta miserikordia Moisesen historia  
miragarri onetan: Israelgo puebloaren libertadean:  
Ejiptoko plaga edo zauri izugarrietan: eta Faraonen  
eta bere ejerzito guziaren eriotza eta kastigu ikaraga-  
rrian: itxas gorriaren uretan itorik batetan gelditu zira-  
nean: gertaera ain miragarriak gogoan erabilli ditza-  
kun: eta gere kargura dauzkagunai ere erakutsi  
degiezkun. Eta guziok gere biotzetan Jaungoikoaren  
bildur Santua biziro artu dezagun: baña beraren onta-  
sun kabubageagan esperanza andi batekin: eta bere  
borondate Santua gauza guzietan egiteko deseo bero  
eta irazaki batekin: bada mundu triste onetan gure  
lanik eta egitekorik andiena, bearrena eta baliosoena  
degu, orain Jaungoikoa biotz guztitik amatzea eta ser-  
bitzea: eta orri darraio gero eternidade guziko zorio-  
na, pakea eta gloria. Amen.

# AMASEIGARREN DOTRIÑA

*Eskritura Santuaren historiaren gañean.*

Gaur, N.K. Eskritura Santuaren historiari narraiola, esan bear dizuet, zer gertatu zan, Israelgo puebloa Ejiptotik atera edo libratu zanetik, promisioko lurrean, Kanango bazter ugarietan sartu zaneraño. Mirari ikusgarriak, eta dotriña andiak gaur aditu bear dituzue: eta batez ere ikusiko dezue, nola Jaungoikoak amar mandamentu santuen legea Sinaiko mendian eman zuen nolako itxumen eta esker gaiztoarekin Israeldarrak portatu ziran: eta nolako zelo eta karidade miragarria Moisesek agertu zuen.

**G.** Nora eraman zituan Moisesek Israelitak itxas gorria igaro ezker? **E.** Eraman zituan eremu batetik Sinaiko mendira: eta ara eldu ziran Ejiptotik irten ziranetik berrogeita zazpigarren egunean.

**G.** Bazekian Moisesek Sinaiko mendirako bidea? **E.** Jaungoikoak berak erakusten zion: egunaz odei bat zijoan puebloaren aurretik, eguzkiak erre etzitzan: eta gabaz suzko pillare edo kolumna bat zijoan aurretik argi egiteko: eta odeiak eta pillareak erakusten zien

noiz gelditu eta noiz ibilli: eta zein aldetara artu: bada aek gelditzen ziranean Israeldarrak gelditzen ziran: eta abiatzen ziranean jarraitzen zien.

**G.** Zerekin mantenatu ziran Israeldarrak eremu artan? **E.** Jaungoikoak Zerutik bidalizen zien Mana esaten zioten alimentu edo janariaz.

**G.** Sinaiko mendira zijoazela zer gauza esatekorik gertatu zitzairen? **E.** Lau gauza: 1. murmuratzen ari ziran, ur miñak edo amargoak arkitu zituelako: 2. ogirik etzuelako: eta 3. urik etzan toki batera eldu ziralak: eta guzia Jaungoikoak erremediatu zuen Moisesen erreguz. 1. Jaunaren ordenaz zur puska bat ur miñetan bota zuen; eta bereala ur gozo biurtu ziran. 2. Guztiz galeper asko Jaungoikoak erakarri zituen zeuden tokira pueblo ura asetzeko: eta goizoro, zapatuaz edo larunbataz kanpora bidaltzen zien Mana, Eremuan ibilli ziran bitarte guzian: eta au izan zan aen janaria berrogei urtean: eta eguzkia irten baño lenago bitu bear zuen, bada bestela urtu egiten zan, eta egun bakoitzeko diña bakarrik artu bear zuen: bada gañerakoari arrak egiten zitzaiozkan: eta bakarrik irauten zuen egun bitarako jai bezperan, au da, orduko zapatu edo deskansuko bezperan artzen zuenak. Eta 5. uraren falta erremediatzeko Moisesek Jaungoikoaren

ordenaz bere zigorraz aitz bat jo zuen; eta aitz artatik bereala urak ugari irten ziran, Israeldarrak eta aen abere guziak mantentzeko.

**G.** Zer beste gauzarik gertatu zitzaien Sinaiko mendira eldu baño lenago? **E.** Amalezitak esaten zien jende gaizto batzuek armaturik bidera irten zien: eta gerra eman zien: orduan Moisesek esleitu zuen Josue Israeldarraen Kapitana izateko: eta agindu zion, artu zitzala berekin Israeldarren arteko pizkorrenak: eta gerra eman zegiela Amalezitarrai: baño Jaungoikoagan zuen bere konfianza guzia: eta gerrako edo pelea-ko denbora guzian Moises egondu zan altu batetik begira Aaronekin eta Hur esaten zioten beste batekin; eta besoak Zerura altxaturik, Jaungoikoari ondo egiten zion: eta besoak goraturik zituan bitartean Israeldarrak zeramen garaia edo bitoria; baño nekaturik besoak beeratzen zituanean, Amalezitak pizkortzen ziran eta goitzen zituen Israeldarrak: eta Aaronek eta Hur-ek ori ikusi zuenean; eta Moisesek ezin beti besoak goraturik eduki zituala; jarri erazo zuen arri baten gañean eta biak besoak altxaturik eduki ziozkaten arratsalderaño: eta orrela garai edo bitoria oso bat iritsi zuen Israeldarrak.

**G.** Eta zer aditzera ematen digue? 1. ur miñak gozatu zituan zurak: 2. Zerutik goizoro zetorren Manak: 3. Aitzetik sortu ziran urak: eta 4. Amalezitarak goitzeko moduak? **E.** 1. Aditzera ematen digue ur miñak mundu onetan guziok eraman bear ditugun nai-bageak, edo miñ ematen diguen atsekabe eta nekeak: eta oriek gozatzeko gauzarik egokiana dala beste zur batean, au da, Gurutzeko arbola santuan Jesu-Kristok erakutsi zigun pazienza gogoratzea; eta pazienziaren premia, eta probetxua ezagutzea; eta ori ejerzitateko alegiñak egitea: bada orduan gauzarik garrantzenak, eta miñenak ere gozatzen dira: eta gure probetxurako dira. 2. Zerutik goizoro erorten zan Manak aditzera ematen zuen, Jesu-Kristo izango zala gure animen Zeruko ogia edo janaria; bere graziarekin ezeze bere gorputz guztiz preziosoarekin. 3. Aitzetik sortu ziran ur milagrosoak aditzera ematen zituen Jesu-Kristo gure Jaunak emango zizkigun graziaren ur probetxugarriak munduko gauzen egarria edo deseo erabagea kenduko zizkiguenak: eta Zerukoak deseatu eragingo zizkiguenak: bada Eskritura Santak Jesu-Kristori deitzen dio aitz edo arri espirituala, nundik ur biziaren iturria sortzen dan: eta igarotzen dan betiko bizitzaraño. Eta 4. Amalezitar gaiztoak aditzera ematen due,



gure anima gaxoari gerra bizia egiten dioben etsai for-  
titzak; au da deabrua, mundu zoratua eta gure aragia  
bere griña edo apetituakin: eta nola Moisesek goitu  
eragin zituan, ez bakarrik aen kontra peleatuarekin,  
baita orazioa egiñarekin, eta Zerura besoak altxaturik,  
Gurutzearen figura bere posturan agertuarekin: guk  
ere, 1. peleatu bear degula lazki animako etsaien kon-  
tra: eta aek goitzeko edo bitoria irabazteko Zeruko  
laguntasuna gogotik eskatu bear degula: eta beti  
gurutzean gugatik ill zan, eta gure etsaiak benzitu  
zituan Jesu-Kristoren izenean: eta orra nola Israelda-  
rrai gertatu zitzairen gauza guziak gure erakuste edo  
dotriñarako ziran.

**G.** Zer egin zuen Israeldarrak Sinaiko mendira eldu  
ziranean? **E.** Agindu zien Moisesek purifikatu edo gar-  
bitu zitezela, eta prestatu zitezela Jaungoikoaren  
legea errezibitzeko: mendiaren oñean edo azpian  
muga batzuek señalatu zituan: eta biziaren penan  
eragotzi zien muga aetatik aurrera igarotzea: eta iru-  
garren egunean, au da, Ejiptotik irten ziranetik berro-  
geita amargarrenean, ikusi zan mendi guzia suz bete-  
rik: au da, sua zerion odei batez guzia estalirik tronpe-  
ta izugarri batzuek aditu ziran: eta turmoi eta tximis-  
ta ikaragarrien artean Jaungoikoak hitz egin zien: ala-

baña pueblo ura guzia gogorra eta aragitarra zan: eta bildurra bear zuen, Jaungoikoaren esanik egingo bazuen: etzan oraindio amoriozko legearen denbora etorri.

**G.** Zer esan zien Jaungoikoak Israeldarrai Sinaiko menditik? **E.** Amar mandamentu santuak argiro, eta banaka aditzera eman zien, eta asi zan modu onetan: Ni naiz zuen Jaungoikoa, Ejiptoko nekepetik eta kati-beriotik ateza zaitudana: 4. eztezue iñola ere nere aurrean, ni besterik Jaungoikotzat edukiko: eztezue egingo Idolorik batere, eta ez gezurrezko Jaungoikoaren antz, iduri edo imajiñarik, ari agurrak egiteko, edo adoratzeko. 2. Eztezue nere izenean juramentu alperrik egingo etc. eta onela guziok dakizkitzuen amar mandamentu santuak Jaungoikoak berak eman zituan. (*Mandamentuen sarreran gauza au berau zeoro esango degu*).

**G.** Eta Israeldarrak Jaungoikoaren beraren boza edo hitza era izugarri artan aditu zuenean, zer egin zuen? **E.** Agitz lastu, ikaratu eta bildurtu ziran: eta Moisesi esan zioben: ez begigu arren Jaungoikoak hitz egin ill ez gaitezen: zuk hitz egiguzu Jaungoikoaren partetik, eta aditzera eman egiguzu aren Majestadeak agindu nai digun guzia. Jaungoikoak deitu zien bada

orduan Moisesi, eta mendi gañera igo eragin zuen; eta berrrogei egun eta gau igaro zituan Moisesek, ezer ere jan bage eta edan bage, mendi gañean Jaungoikoarekin tratatzen edo hitz egiten: eta aren Majestadeak eman ziozkan arrizko losa bitan eskribiturik Jaungoikoaren Legeko amar mandamentu santuak: baita pueblo ura gobernatzeko justiziako eta ordena oneko legeak: eta orduan bertan erakutsi ziozkan zeoro pueblo ark eta beraren izenean sazerdoteak egin bear ziozkaten sakrifizio mota guziak, eta aek ofrendatzeko gorde bear zituen zeremoniak eta lege guziak.

**G.** Eta Moises mendi gañean Jaungoikoarekin egondu zan bitartean, zer egin zuen Israeldarrak? **E.** Munduan izan dan gaiztakeririk andiena: ainbeste mesede eta aiñ andiak Jaungoikogandik artu ezkeru, eta ainbeste mirari, prodijio, edo milagro erak eren begiz ikusi ezkeru; zerren luzatzen zuen Moisesek mendi gañean, uste izan zuen ill zala: eta Jaungoiko egiazkoaz eta aren probidenzia miragarriaz azturik, premiau edo obligatu zuen Aaron, Moisesen anaia, urrezko txal edo zekor baten figura, bulto, edo imajiña bat eragitera: eta emakumeak pozik artako eren urrezko belarrietakoak eman zituen: eta urrezko zekor ura Jaungoikotzat artu zuen Ejiptoarren gisa eta ari

festak egiten abiatu ziran; janari eta edanari lazki eman zioten: eta orien ondoren danzatzan, kantatzen eta erabageko jolasak iskanbilla andiarekin egiten zituzten. Eta orretan ari zirala, jatxi zan Moises menditik amar mandamentu santuen legea losa bitan Jaungoikoak berak ezarririk zekarrela: eta gertura zanean, eta alako danza zoroak aditu zituanean, eta zekor bati festa aek guziak egiten ziozkatela; bere barru guzia irazeki zitzaion: zelo santu batek artu zuen: eta zekatzan legearen arrizko losa biak lurrera aserrearekin bota zituan: eta mendiaren azpian puskatu ziran. Bazeritzon Moisesi pueblo bat aiñ mudakorra, eta aiñ esker gaiztokoa etzala gai, eta etzuela merezi Jaunaren lege santua errezibitzea: Artu zuen urrezko zekorra erre eragin zuen: aren autsak urtan bota zituan: eta ur artatik Israeldar guziai edan eragin zien: nolako Jaungoiko iruripenekoa eta despreziagarria adoratu zuen ikusi zezan: baita etzan orretan bakarrik gelditu: erreprenditu zuen bere anaia Aaron puebloa atzeratu etzuelako aiñ gaiztakeri anditik: eta justiziaren zelo miragarri batekin deadar egin zuen: Jaungoikoari jarraio nai diobenak betoz nerekin: bereala Lebitarrak, edo Lebi Patriarkaren ondorengoak edo Tribukoak, juntatu ziran Aloisesen inguruan: eta agindu zien,

ezpatak eskuetan artu zitzatela: eta batetik bestera pueblo guziak okupatzen zuen tokia aurrera eta atzera igaro zezatela: eta kupidabage aurrera topatzen zituzten guziak ill zitzatela, naiz adiskideak, naiz aideak izan zitezela: eta ogeita iru milla gizonetaraño ill zituzten: eta Moisesek Lebiren Tribua bertatik bedeinkatu zuen: eta esan zien, Jaungoikoak etzuela gaitzat artzen aek egin zuena: baizik konsagratu ziozkatela oren eskuak.

Eta Elizako erakusle edo Doktore San Gregorio andiak, Moisesen zelo andi onezaz miretsirik, dio, ze eren humeak eta mendekoak erreprenditzeko garrrik etzuen gurasoai, eta besteren kargua duen guziai dotriña eta ejemplo miragarri bat ematen diela Moisesek: bada onek pueblo ura maite bazuen ere ain bizi-ro, nun aekgatik bizitzako liburutik bere burua borratua izateraño prest bazegoan ere, aen gaiztakeria eta Jaungoikoari egin zioten ofensa arrigarria ezin sufritu zuen: eta guraso eta agintari asko ikusten dira, eren humeak, eta mendekoak pekatuetan ondaturik dau dela igerri eta jakin arren, erreprenditu eta kastigatu nai eztituenak: eta ori ezta humeak mate izatea, baizik egiaz aborrezitzea: bada karidade egiazkoak izan bear du garra eta animoa, eren kargura dauzkatena

kondenazioko bidetik apartatzeko, eta bestela ezin danean kastigatzeko.

Baña biurtu gaitzen Moisesek orren ondoren egin zuena ikustera. Etzuen bada etsi alde batetik alako pueblo gogor, mudakor eta esker gaiztoko bat ezin onera ekarriko edo onduko zuela pensaturik: eta bestetik Jaungoikoaren Majestadea aen kontra guztiz aserre zegoala ikusirik? Ez, etzuen etsi: urrengo egunean batu zuen pueblo guzia beregana: eta aditzera eman zien egin zuen Idolatriako pekatuaren anditasun arri-garria: eta esan zien, Jaungoikoagana zijoala, aren aserrea bigundu zezakean ikustera: eta ondo merezirik zeuken kastiguaren barkazioa iristera. Presentatu zan bada Moises Jaungoikoaren aurrean humillaturik, eta pueblo guziaren pekatuak bereak balira bezela lotsaturik: eta karidadeak alaiturik edo animaturik, Jaungoikoari erregutu zion, barka zegiola arren pueblo ari bere gaiztakeria, edo ezpada aekin batera borra zezala bera ere bizitzako liburutik: eta naiago izan zuen gure Jaungoikoak inozente baten errespetoz ainbeste kulpaduni barkatu: ezenez aekin batera inozente bat illerazo. Eta agindu zion Moisesi puebloagana biurtu zedilla: eta esan zegiola, aen Asabai, Abran, Isak eta Jakob, bere serbitzariai eskeñi zien lurra

emango ziela: baña etzala aekin eta len bezela aen  
aurrean joango, zerren buru gogorregiak zituzten:  
obligatu etzezen guziak arras illerazotzera, eta ere-  
muan akabatzera: eta agindu zien eren gaiztakeriaren  
damuaren señalean soñeko ederrak edo apaindurak  
utzi zitzatela. Eta baita agindu zion Moisesi beste  
arrizko losa bi, leenak bezelakoak, apaindu edo landu  
zitzala: eta aekin mendi gañera berriz zetorrela: ala  
egin zuen: eta beste berrogei egun eta gau Jaungoiko-  
arekin mendiaren gañean igaro zituen, ezer ere jan  
bage eta edan bage: eta Jaungoikoaren Majestadeak,  
Moisesen erreguakin errukiturik, eman ziozkan berriz  
bere mandamentu santuak bere beatzaz losa bietan  
ezarriak edo eskribituak: eta aditzera eman zion  
aurrera egin bear zuen guzia: eta puebloari ekarri  
ziozkan lege eskribituaren losa biak; eta Jaungoikoa-  
ren ordenak: baña pueblo guzia miretsirik eta arriturik  
zegoan zerren Moisesen aurpegia ikusten zuen argita-  
sun miragarri batez beterik: eta iñor atrebitzen etzan  
aren gertura arrimatzen: eta Moisesek ori ikusirik,  
belo batekin aurpegia estali bear izan zuen: eta orre-  
la Jaungoikoaren aginteak aditzera eman zien: eta  
belo arekin arrezkero beti hitz egiten zien; eta baka-

rik kentzen zuen, tabernakuloan sartzen zanean Jaungoikoarekin hitz egitera.

**G.** Eta zer besterik egin zuen Moisesek Jaungoikoaren legea barreatu edo publikain ezker? **E.** Jaungoikoak berak agindu zion bezela, eragin zuen testamentuko arka zeritzan kutxa txiki bat, guzia urrez estalia edo urreztatua barrutik eta kanpotik: eta kutxa artan sartu zituan amar mandamentuen legea zeukaten arrizko losa biak: eta kutxa edo arka ura gordetzeko eragin zuen tabernakuloa zeritzan, eta bidez zebiltzanean erraz eraman zezakean oial ederrezko estalgarri bat, eliz edo etxe txiki baten antzekoa: eta onen aurrean ipini eragin zuen aldare bat, nun Jaungoikoari egin bear zitzaizkan sakritizioak eta ofrendak, Jaungoikoak berak orduan ordenatu zuen moduan: eta orduko sakrifizioak ziran bildotsak, ariak, zekorrak, idiak edo beste onelako gauzak Jaungoikoari Sazerdoteen eskuz presentatzea: eta aldarearen aurrean illtzea eta erretzea: eta orrela ezagutzera ematen zuen Jaungoikoa zala guzion Jaun eta jabe soberanoa, ofrenda aezaz bezela, guzaz nai duen bezela disponitzeko esku edo poderio guzia daukana.

**G.** Eta sakrifizioak egiteko, eta eliz lanetarako nor esleitu zuen Jaungoikoak? **E.** Aaron eta bere



semeak, eta aen ondorengoak: eta beste Lebitarrak edo Lebi Patriarkaren jatorrikoak edo Tribukoak: eta Aaron izan zan Israelgo lenengo sazerdote nagusia edo sumo Pontifizea.

**G.** Eta orren ondoren zer gauza andirik gertatu zan? **E.** Jaungoikoak berritu zuen Israeldarrakin Abra- nekin egin zuen alianza, alkar artzea edo konbenioa: berriro agindu zien bere pueblotzat artuko zituala: eta Kanango lur ugariak emango ziztela: eta ondasunez beteko zituela: eta Israeldarrak eren aldetik eman zuen hitza Jauna bakarrik eta ez besterik Jaungoiko- tzat ezagutu eta adoratuko zuela: eta ura bakarrik serbitu eta amatuko zuela eta hitza gordetzen ezpa- zuen, nai zekiola Jaungoikoari, aek Kanango bazterre- tatik ateratzea; eta bearrez, premiaz eta nekez bete- rikako bazterretara banatzea. Orra Jaungoikoaren eta Israeldarraen arteko hitzak: eta oriek batere utsegin bage gorde bearko ziralako señaletzat, artu zuen Moi- serek hisopo bat, eta sakrifizioetako odolaz busti zuen: eta Israeldarrak eta an arkitzen ziran gauza guziak hisopoak zuen odolarekin busti zituan. Eta gure Jaungoikoak bere aldetik bere hitza beti gorde zuen: eta Israeldarraen alde edo fabore mirari guztiz andiak egin zituan, aek promisioko lurrean sartu eragiteko.

Jordango ibai andia legortu zuen, itxas gorria bezela, ango urak atzera geratu eraziarekin, Israeldarrak igaro artean: eguzkia bera geratu, edo gelditu eragin zuan, biktoria, edo garai oso bat bere etsaietatik Israeldarrak eraman artean: Jerikoko Ziudadeko mura-llak, armarik bage, tronpeta soñuak inguruan jotzea- rekin beste bage bota eragin zituan Jaungoikoak Israeldarrak an sartu eragiteko: eta beste onelako prodijio, edo milagro arrigarriak egin zituan gure Jaun- goikoak, Israeldarrai eman zien hitza kunplitzeko: eta sartu eragin zituan azkenik agindu zien Kanango baz- ter ugarietan; baña Moises bera an sartu etzan, gertu- tik ikusi bazuen ere promisioko lurra: eta Josue esleitu zuen puebloa gidatzeko, eta gobernatzeko bere lekuan: eta illtzan Jaunaren grazian, eta santidade guztiz andian: eta Josuek, eta Eleazaro sazerdote nagusiak, eta Aaronen arrenak lur guzia egin zuen amabi zati, edo parte, eta tribu bakoitzari bere partea eman zitzaion: eta Judako tribuari andiena eman zio- ten: baña Israeldarrak eren aldetik etzuen ondo eren hitza kunplitu: askotan aserratu, eta Moisesen kontra gogortu ziran bidean: eta Kanango lurraz jabetu ezke- ro, etzituen desegin osoro ango jende gaiztoak Jaun- goikoak agindu zien bezela: eta bai aekin askotan bat

egin ziran: eta aen Idolo, edo gezurrezko Jaungoikoak adoratzera ere jarri ziran. Eta orregatik gure Jaungoikoak askotan kastigatu zituan, eta eren gaiztakeria ezagutu, eta Jaungoikoagana biurtzen ziranean, errukitzen zan: eta nork libratu eren etsaietatik sortu eragiten zuen, eta laguntzen zien. Eta orretan Jaungoikoaren justizia alde batetik, eta bestetik aren ontasun, errukia, eta miseriak argiro ikusi ziran: baña dotriña labur batean ezin zeoro aditzera eman ditezke Eskritura Santuak ain luze dakazkian gertaera guziak. Eta dotriña onetan, eta aurrekoetan aditu dituzuen Eskritura Santako historia miragarriak nai adiña dira Jaungoikoaren Majestadeak gizonarekin beti eduki duen probidenzia guztiz zuzena ezagutzeko: eta baita beraganako gure fedea, edo sinistea, beraganako gure esperanza, eta beraren bildurra, errespetoa, eta amorio santua gure biotzetan piztutzeko, bizi erazotzeko, eta irazekitzeko: eta are geiago, ondo konsideratu nai badegu Kristauok Jaungoikoak Israeldarrak egin zien mesede guziak, guri egin dizkigun fabore, edo mesedeen itzalak baizik etzerala: eta agitz andi-goak, eta estimagarriagoak guri egin dizkigula: bada aei arrizko losa bitan, eta ain bildurkunde andiarekin eman zien mandamentuen legea bera gure biotzetan

ezarri nai izan digu: eta ura gordetzeko alako argitasun, eta grazia andiak Espiritu Santuak komunikatzen dizkigu: legearen ezaguerarekin batera legearen amorioa ematen digula: eta ori guzia guk izateko bere Seme propioa bera Jesu-Kristo gure Jauna zerutik bidaldu digu: Israeldarrak Faraonen katiberiotik bezela, gu deabruaren, eta pekatuaren katiberiotik ateratzeko: guri zeruko bidea argiro bere ejemplo, eta dotriñarekin erakusteko: eta bide orri jarraitzeko bear ditugun grazia, laguntasunak, eta indarrak emateko: eta azkenik Kanango lur ugariak, eta ango ondasunak aditzera ematen zituen zeruko gloria, eta betiko ondasun kabubageak guri irabazi eragiteko.

Jaungoikoari bada millarezko eskerrak eman degiozkagun, N.K., eta ezagutu dezagun ondo, zein esker gaiztoarekin guk ere oraindano eranzun diogun: eta Israeldarrak baño kastigu andiagoak ondo merezirik dauzkagula: humillatu, eta lotsatu gaitezen, eta egiaz damaturik, gure pekatuen barkazioa benetan, eta sarri eskatu degiogun; aurrera bizimodu santu bat egiteko asmo, edo propositu egiazko, eta indarsu batekin eta baita eska degiogun, arren digula fede bizi bat: esperanza andi bat: eta beraren amorio irazeki

bat, orain mandamentuak ondo gordetzeko, eta gero orien saria Zeruan gozatzeko. Amen.

# AMAZAZPIGARREN DOTRIÑA

*Eskritura Santaren historiaren gañean.*

Gaur dotriña bakar batean gertaera guztiz asko, guziak Eskritura Santuak dakatzenak, esan bear dizkitzuet: Israelgo puebloaren historia promisioko lurrean sartu ziranetik Babiloniako Erregeak katibu eraman zituenerañokoa laburtxo esango dizuet: bada ala ere gauza andiak, eta miragarriak aditu bear dituzue. Iku-siko dezue, nolakoak izan ziran Israelgo Juezak, eta Erregeak: eta batez ere Saul, Dabid, Salomon, Eze-kias: eta denbora artako Profetarik prinzipalenak: Isaias, Elias, eta Eliseo mirarigilleak.

**G.** Nola bizi izan ziran Israeldarrak promisioko lurraz jabetu ezker? **E.** Jaungoikoaren legea gorde zuen, aren Majestadeak aen alde egin zituan mirari andiak ikusi zituen Josue, eta beste zaarren denboran: baña arrezkero berriz gaiztotu ziran: Kanango lurrean zeuden fedebageakin juntatu ziralako: eta aen Idoloak adoratzera ere jarri ziran: eta orduan Jaungoikoak nai-gabez, nekez, eta bearrez bete zituen: baña nekeakin zinzotzen, edo zenzatzen ziranean, eta barkazioa

eskatzen zuenean, Jaungoikoak bidaltzen zien nork gidatu, libratu, eta eren nekepetik atera: eta libratzaille oriei deitu zien eren juezak: bada oriek gobernatzten zituen, anparatzen zituen, eta justizia eragiten zuen. Eta orien denboran gertaera miragarri asko ikusi ziran, batez ere Otoniel, Debora, Jedon, eta Salomonen denboretan eta azkeneko jueza, eta gidaria, edo gobernaria izan zuen Samuel, gizon guztiz santua, eta profeta andia.

**G.** Zergatik Samuel ezkeru juezik izan etzuen? **E.** Zergatik Samuelen beraren bitartez, onek igui bazuen ere, eta Jaungoikoak berak ere sentitu bazuen ere, Israeldarrak aurrera Erregeak eskatu, eta eduki nai izan zituen: eta Jaungoikoak berak esleitu zien lenbiziko izan bear zuen Erregea, eta izan zan Saul; eta Samuelek berak Jaunaren ordenaz konsagratu zuen: eta aren aukera Jaunarena zala, suerteak konfirmatu zuen: bada Errege esleitzeko lenengo amabi tribuen artean suerteak bota zituen: eta Benjaminen tribuari erori zitzaion: gero Benjaminen tribuko familia guzien artean suerteak atera zituen: eta Saulen aita zan Abielen familiari erori zitzaion: eta azkenik familia artakoen artean Sauli suertia tokatu zitzaion, eta Erregetzat jaso zuen. Eta ondo asi bazan ere, eta erreinua bere-

tzat, eta ondorengoentzat izan bear bazuen ere, arrotu zan, gaiztotu zan, eta bizia gerra batean galdu zuen: eta Jaungoikoak Erregetako esleitu zuen Dabid, Jeseren semen, Judako tribukoa: eta arzai zebillela, Samuel profetak berak Jaunaren ordenaz unjitu, edo konsagratu zuen.

**G.** Eta Dabid Erregea nola bizi izan zan? **E.** Jaungoikoak egin zuen Dabid, bere biotzaren antzekoa. Izan zan Errege andi bat, eta Profeta andi bat: Saulek agitz persegitu zuen, eta bizia galtzeko arrisku, edo peligro andietan arkitu zan, eta bere balore, eta birtute andiaren prueba, eta señaie miragarriak eman zituan: erreinu guziaz jabetu ezkerro pekatu andi bi egin zituan, bata adulteriokoa Betsaberekin, eta bestea, ura ezkutatzeke Urias aren gizona, edo senarra illerazo zuelako. Eta Jaungoikoak Natan Profeta bidaldu zion bere gaiztakeri andia ezagutu erazotzeko: agitz humillatu zan: penitencia benetan egin zuen: eta Jaungoikoak bere kulpa barkatu zion: baña pekatuaren pena tenporala mundu onetan naigabe guztiz arrigarriakin pagatu erazo zion: iraun zuen arrezkerro bere bizi guzian Jaungoikoaren bildur, eta serbizioan: eta eriotza santu bat izan zuen: eta bere seme Salomon bere erreinuaaren posesioan utzi zuen.



**G.** Zein izan ziran Jaungoikoak Dabidi egin ziozkan mesederik prinzipialenak? **E.** 1. Eman zion biotz bat zuzena, eta sinzeroa, edo engaño bagea: 2. bere seniden artean gazteana izanik Erregetzako esleitu, edo autu zuen: 3. Saul Erregearen denboran peligror, edo arrizko andietatik libratu edo gorde zuen: 4. beti garaia, edo biktoria bere etsaieetatik irabazi eragin zion: 5. humiltasunezko, eta penitenziako espiritua eman zion: eta naigabe tenporalakin garbitu, edo purifikatu zuen, eta bere pekatuaren ondoren errukiz begiratu zion: 6. agindu zion aren etxetik, familiaratik, edo jatorritik etorriko zala Mesiasa, edo Kristo gure Jauna. 7. Aren etxean konserbatu zuen Erregetasuna: eta 8. profeziako espiritua komunikatu zion, eta inspiratu ziozkan eskribiturik utzi zituan kantiku Jaungoikoak, edo salmoak, guzior dotriña, edo erakustetarako, eta Elizaren konsuelorako beti serbituko duenak.

**G.** Nola bizi izan ziran Israeldarrak Saulen, eta Dabiden denboran? **E.** Errege oriek eman zitzen ejemploaz batera, batzuetan ondo, eta besteetan gaizki: baña badirudi, orien denboran etzerala idolatrian erori.

**G.** Eta Salomon Erregea nola bizi izan zan? **E.** Antxitian izan zan Errege guzien ispillua: guztiz prudentea, eta zinzoa, guztiz jakinsua, guztiz aberatsa,

poderio guztiz andikoa, etaguztiz estimatua, eta honratua. Baña gero emakumen amorioak itxutu zuen: emazte asko batetan artu zituan (denbora aetan Jaungoikoak ori gizonai permititzen zien: baña ez iñoiz ere emazteai senar bat baño geiago edukitzea) eduki zituan, batzuek Israeldarretakoak, edo fededunak, eta baita fedebageak, edo Jentilletakoak ere: eta aen esanak egiteagatik, edo bere emazteai gusto emateagatik, aen Idoloak adoratzera jarri zan: eta orra zertaraño pasio zikin itxuak gizonik jakinsuena, eta andiena ekarri zuen. Eta ill baño lenago konbertitu zan edo ez ziertu eztagigu: penitentzia egin zuela askok diobe, eta beste askok ezez esaten due: eta arritzeko, eta guziok humillatzeko, eta esnatzeko ejemplo arrigarria utzi zigun.

**G.** Zer gauza andirik egin zuen Salomon Erregeak?  
**E.** Pekatuan erori baño lenago Jerusalengo tenplo guztiz andia, ederra, eta guztiz famatua eragin zuen: eta Jaungoikoak berak trazatu, edo modeloa eman zion, edo nola egin erakutsi zion: eta dirudienez, ura izan zan Jaungoikoaren honran lenengo munduan egin zan tenploa: eta aldare bat baizik etzuen: eta tenplo artan, eta aldare artan bakarrik sakrifizio guziak Jaungoikoari egin bear zitzaizkan: eta tenplo aren dedikazioa,

edo konsagrazioa zazpi eguneko festakin, eta ezin kontatu ala sakrifizioekin egin zuen: eta urteoro orren memoria berritzeko Israeldarrek festak egiten zituzten.

**G.** Salomonen ondoren nor izan zan Israeldarraen Errege? **E.** Aren seme Roboan.

**G.** Eta aren Erregealdian, zer gauza esatekorik gertatu zan? **E.** Israeldarraen erreinua zati bi, edo puska bi egin zan: eta ori Jaungoikoak permititu zuen, Salomonen pekatuak kastigatzeko, berari lenaz bizi zala, aditzera eman zion bezela.

**G.** Nola ori gertatu zan? **E.** Roboan Salomonen semeak, gogorkiro puebloa artu zuen: aen gogotik irten zan; Jaungoikoak ori permititu zuen, bere justizia ikusi eragiteko. Eta amabi tribuetatik amarrak Roboan utzi zuen: errebelatu ziran: eta Jeroboan eren Erregeztat artu zuen: eta tribu bi bakarrik, au da, Juda, eta Benjamin Roboanen mendean gelditu ziran. Eta Roboanek gerra eman nai izan bazion ere Jeroboani, eta orretako eun, eta larogei milla soldadu jaso bazituan ere, Jaungoikoak Profeta batekin aditzera eman zion, etzezala gerrarik egin, eta pakean utzi zegiola Jeroboani. Eta iru urtean pakean egon ziran: baña arrezkero beti alkarren etsaiak izan ziran.

**G.** Nola zerizten arrezkero erreinu bi oriei? **E.** Roboanen erreinuari Judako erreinua: eta Jeroboaneari Israelgo erreinua. Eta Judako erreinuaren burua, edo kortea izan zan Jerusalem: eta Israelgo erreinuaren burua gero izan zan Samaria. Eta baita deitzen zien arrezkero batzuei Juduak: eta besteai Samaritanoak: eta zisma, edo apartatze ori ezkeru ezin alkar ikusi zuen: eta gaitz iritsi orrek baziraben Jesu-Kristo etorri zanean ere.

**G.** Eta Erregetasunean bezela errelijioan ere apartatu ziran Israeldarrak Juduetatik? **E.** Juduen artean Jerusalemene zegoan egiazko Errelijioa, eta legea, eta Jaungoikoaren egiazko tenplo, edo Eliza: eta ara joan bear zuen festa denboretan Juduak ezeze, Israeldarrak ere: bada guziak Moisesen legea gordetzera erabatera obligaturik zeuden, eta okasio, edo aitzaki ori Israeldarrai kentzeko, eren Errege gaizto Joroboanek, Jaungoikoaren legea, eta bildurra munduko interesagatik utzirik, eragin zituen urrezko zekor bi: eta aek Jaungoikotzat artu zituen, eta bere mendeko Israeldarrak aek adoratzera ekarri zituan: eta askok aren ejemplo gaiztoari jarraio zioben: baña gelditu ziran orregatik ere asko (ainbeste ezpaziran ere) eren legea gordetzen zuenak, eta Jaungoikoari leialak izan ziranak.

**G.** Zenbat izan ziran Judako Erregeak, eta nola bizi izan ziran? **E.** Ogeitaraño izan ziran: eta batzuek txit onak, eta beste batzuek txit gaiztoak: eta batzuek bien bitartekoak, birtuteak, eta utsegiteak izan zituenak.

**G.** Eta zenbat izan ziran Israelgo Erregeak, eta nola bizi izan ziran? **E.** Emeretzi guziak izan ziran: eta guziak gaiztoak, Jeroboanen antzekoak: ark bezela urrezko zekorrak adoratu zituen, eta beren ejemplo gaiztoarekin besteak ere ori bera egitera ekarten zituen.

**G.** Nola bizi izan ziran Juduak denbora orietan? **E.** Eren Erregeak ematen zien ejemploari eskuarkiro zerraizten baña beti erreinu bietan Jaungoikoak bereztat gorde zituen bere legea kontuz gorde zuena serbitzari leal batzuek: eta Juduko erreinuan bazituzten Sazerdote egiazkoak, Jaunaren legea erakusteko kargua zuenak: eta aezaz gañera eman zien Profetak, gizon santuak, Jaungoikoak berariaz esleituak, eta argituak, gaiztakeria erreprenditzeko, eta nola bizi erakusteko, eta etorkizun andiak aurrez aditzera emateko. Eta Israeldarrai ere bidaldu zien beti bere Profetak, bere legera itzulerazotzeko: eta egiazko fede, eta erreljioan zirabenak konsolatzeko, eta indartzeko:

Elias, eta Eliseo Profeta bi guztiz andiak, mirari arrigarriak egin zituenak Israelgo erreinuan bizi izan ziran.

**G.** Profeten artean señalatuena zein izan ziran? **E.** Orain aitatu ditugun Elias, eta Eliseo, eta aek ezer eskribitu etzuen: eta Isaias profeta andia luzaro predikatu zuena, eta asko eskribiturik utzi zuena: eta baita izan ziran txit señalatuak Dabid, Jeremias, Zakarias, Ezekias, eta Daniel.

**G.** Zer dio Eskritura Santuak Elias Profetagatik? **E.** Jaungoikoaren honraren zelo guztiz andia izan zuela. Iru urte, eta erdian euri egitea eragotzi zuela: eta ondoren beraren erreguz Jaungoikoak euria eragin zuela: milagro arrigarri bat egin zuela, gezurrezko Jaungoiko Baal adoratzeko zuten Israeldarrak lotsatzeko, eta zentzatzeko, eta Jaungoiko egiazkoaren ezaguerara ekartzeko: eta ondoren Idolo aren laurak, eta berrogeita hamar Sazerdote illerazo zituala: Akab Errege Idolatraren aurrean presentatu zan Elias: puebloa juntatu eragin zion, eta esan zien guziaz: zein dan Jaungoiko egiazkoa ezagutzeko, edo zuek adoratzeko dezuen Baal, edo nik adoratzeko dedan Zeruaren, eta lurraren egille, eta jabe bakarra. Zuen Baal orren Sazerdoteak idi bat zatiturik aldare baten gañean Baali sakrifikatu degiobela, eta sakrifizioa erretzeko

Zerutik sua jatxi erazi dezaela: eta nik beste idi baten sakrifizioa nere Jaungoikoari beste aldare baten gañean egingo diot: eta ura erretzeko sua Zerutik bidaldu dezala eskatuto diot: eta Zerutik sua bidaltzen duen Jaungoikoa egiazkotzat, eta Jaungoiko bakartzat eduki dezagun: ondo iritsi zioben prueba ikusgarri orri. Arritu ziran Baalen Sazerdoteak goizetik eguerdiraño, sakrifizioa erretzeko sua Baali eskatzen, baña alpe-rrik: Eliasek orduan esan zien burlan, egizue deadar, egizue oiue geiago, zuen Jaungoikoa lo egongo da; ala egiten zuen, baña Zerutik surik etorri etzitzaben: Elia-sek orduan Jaungoikoari orazio egin zion, eta bereala etorri zan Zerutik sua, guziak zekustela, eta erre zituan bereala aldareko egur guziak, eta aen gañean zegoan idia: eta pueblo guzia arriturik auzpez etzin zan: eta konfesatu zuen Eliasek adoratzen zuen gure Jaungoikoa zala bakarrik egiazkoa: eta agindu zion Eliasek puebloari Baalen Sazerdote gezurti aek guziak akaba zitzatela: eta bereala guziak ill zituzten. Eta Akab Erregeari bereala euria agindu zion: eta etxera eldu zaneke euria abiatu zan: eta beste mirari asko egin zituala, dio Eskritura Santuak; eta batez ere bela batek janaria ekarri, eta mantendu zuela: alargun baten aurtxoa, piztu, edo erresuzitatu zuela: Aingeru

batek alimentua, edo janaria, Jezabel Erregiña guztiz gaizto, eta Idolatragandik igesi zijoala ekarri ziola: eta Erregiña doaka ari aditzera eman ziola, txakurrak aren gorputza jango zuela, eta ala gertatu zan: Erregeai libertade miragarri batekin hitz egin ziela: Zerutik sua bi bider jatxi erazo zuela aldi bakoitzean berrogeita amar soldadu illeragiteko: Jordango ibaia bere kaparekin alde batean partitu zuela: eta oñik busti bage igaro zuela: suzko karroza batean Zerura altxatu izan zala: Jaungoikoak bizirik daukala, Henok Patriarka bezela: eta etorriko dala munduaren kabuan Antekristoren kontra predikatzeraz: eta Juduak konbertitu erazotzera. Orra, N.K., nola izan zan Elias Profeta: nolako mirariak egin zituan Jaungoikoak eman zion eskualdi andiarekin: eta nolako lan andiak eginkizun dauzkan azkene-ko juizioaren aurretik.

**G.** Eta zer dio Eskritura Santuak Eliasen diszipulu, edo jarraitzalle andia izan zan Eliseo Profetagatik? **E.** Gauza miragarriak esaten ditu: Jordango ibaia, oñak busti bage igaro zuela: Jeriko urak osasun-suak, edo onak egin zituela: burla egin zioten mutiltxo batzuek madarikatu zituala: eta bereala artz bi etorri, eta ill zituztela: Judako, Israelgo, eta Idumeako Erregeai profetizatu, edo aurrez esan ziela Moabitaen kontra era-



mango zuen biktoria edo garaia: alargun baten etxean olio a geitu zuela, batu zituan onzi guziak betetzeraño, alarguna sokorritzeko: Sumango emakume aberats bati seme bat izatea ofrezitu ziola, eta Jaungoikoagandik iritsi ziola: eta aurra ill ezker o piztu ziola: Naaman lepratik sendatu zuela: eta bere serbitzari Jiezi despeditu zuela, bera, eta bere ondorengoak leprearekin kastigatuaz, zerren Naamani erregalo, eta sari bat eskatu zion, nagusiak milagro z lepratik sendatu zuelako: ur gañean ondatu bage aizkora baten burua, edo burnia erabilli erazo zuela: Israelgo Erregeari agertu ziola Sirako Erregearen konsejuan ixillik tratatzen zana: eta Sirioen kontra Israeldarrak irabaziko zituan biktoria aurrez esan ziola: eta azkenik aren gorputz illa ukituaz bestebage piztu zala aren sepulturan bota zuten gizon difuntu bat. Orra, N.K., nola gure Jaungoikoak honratzen zituan bere serbitzari leialak: eta nolako mirariak denbora guzietan egin dituan, beragan bakarrik sinistu dezagun: beragan gure esperanza guzia eduki dezagun; eta bera gauza guzien gañean gure jabe, gure Aita, eta gure ongille maitagarria bezela amatu dezagun.

**G.** Eta Isaias Profetak zer gauza esatekorik egin zuen? **E.** Eskribitu zuen liburu bat, nun aiñ anziñatik

aitatzen dituan aiñ argiro, eta aiñ ugari Jesu-Kristok bere denboran egingo zituan mirariak: eta aren sortzean, jaiotzan, aren bizitzan, eriotzan, erresurrekzioan, Zerurako igoeran, eta Espiritu Santuaren etorrian, eta munduaren konbersioan ikusiko ziran gauza guztiz andiak, nun San Jeronimo Elizako erakusle, eta Eskritura Santuaren esplikazioaren maisu famatuak dio, ze Isaiasi begiratu dakiokela obeto Ebanjelista bati bezela ikusia esaten duenari bezela, ezenez etorkizuna aurrez esaten duen Profeta bati bezela.

**G.** Eta Profeta santu orrek, eta denbora aetan izan ziran Profeta egizkoak, Jesu-Kristori, eta Elizari zegozkan gauza etorkizunak bakarrik aitatzen zituen? **E.** Baita Judako, eta Israelgo Erregeai, eta aen mendeko puebloai laster gertatu bear zitzaien etorkizunak esaten zien: eta guziak, aek esan bezela, gertatu ziran. Ortik aek, eta guziok ikasi genzan Jaungoikoaren espi-rituarekin argiturik aurrez esan zituen orduko gauzak kunplitu ziran bezela, gero esan zituenak ere orobat kunplituko dirala: eta ala orobat kunplilu ziran Jesu-Kristoren eta bere Elizaren gañean esan zituen gauzak: eta orobat kunplituko dira Profetak erak, eta aen ondoren Jesu-Kristok berak, eta Apostoluak esan zituen, eta erakutsi ziguen, aragiaren erresurrekzioa;

edo ill guziak piztu bearra: guziok Jesu-Kristoren tribu-  
nalean orain juizio partikularrean, eta gero juizio jene-  
ralean gure bizitzako kontu guziak nabarbenkiro eman  
bearra: eta orren ondoren, edo betiko gloria Zeruan,  
edo betiko pena, eta oñaza finbageak Infernuan sufriu-  
tu bearra. Bada egia oriek guziak Jaungoikoak berak,  
ezin engañatu ditekeanak, eta ezin gezurrik esan  
dezakeanak, agerturik, eta argiro erakutsirik dauzka.  
Eta Kristauok gogoan ondo sarturik eduki bear ditugu.  
Eta oriekin batera gure bizimodua moldatu, eta zuzen-  
du bear degu, betiko galduak izan nai ezpadegu: bada  
orien azmenak dakaz munduko pekatu, eta erakeri,  
edo banidade guziak: baña gakizkon gure lanari.

**G.** Israelgo, eta Judako Erregetasunak zenbat den-  
boran iraun zuen? **E.** Israelgo erreinuak iraun zuen  
berreun, eta berrogeita amabost urte: eta Judako  
erreinuak guzira iraun zuen lareun, eta larogei eta  
zazpi urte.

**G.** Noiz, eta nola bukatu zan Israelgo erreinua? **E.**  
Denbora aetako kontuak ajustatu, edo atera dituen  
jakinsuak diobenez; Israelgo Errege Oseo zala (Jesu-  
Kristo mundura etorri baño zazpireun, eta ogeita bat  
urtez lenago) Salmanasar Asirioen Erregeak gerra  
eman zion Oseo Israelgo Erregeari: goitu, eta benzitu

zuen: eta tributua pagatu eragiten zion: altxatu nai izan zan Oseo Asiriako Erregearen kontra: eta orduan Asirioen Errege Salmanasarrek, sitiatu, edo inguratu, eta iru urteren buruan, Samariako erri, edo ziudade andia, Israelgo Errege osoaren korte, edo bizilekua, indarrez artu zuen: eta erreinu guziaz jabetu zan: eta Israeldar guziak katibu Asiriako bazterretara eraman eragin zituan. Eta orrela bukatu zan Israelgo erreinua, Jaungoikoaren legea, Moisesen medioz ainbeste mirarirekin aen aurrekoai eman ziena; eta ainbeste Profeta Santuen esanak gorde nai izan etzituelako.

**G.** Eta denbora orietan zer gertatu zan Judako erreinuan? **E.** Ezekias zan orduanango Errege: gizon santua: Jaungoikoaren legea berak gorde ezeze, bere mendekoai gorde eragiteko alegin andiak egiten zituen: Isaias Profeta andiaren konsejuak txit kontuz gordetzen zituan. Eta ala Jaungoikoaren laguntasunarekin bere etsaiak goitu zituan: Senakerib, Asiriako Errege soberbioak gerra eman zion Ezekiasi: Jerusalemgo ziudadea inguratu zuen estutasun arrigarrian ikusi zan Ezekias: Isaiasi, bere orazioak, eta laguntasuna eskatu zion: eta biak Jaungoikoari erregutu, eta Aingeru batek Jaunaren ordenaz gau batean Senakerib Erregearen ejerzitoko eun, eta larogeita bost milla

soldado ill zituan: berak iges egin zuen: eta bere seme propioak Idoloen tenplo batean ill zuen: eta orra nola Jaungoikoak Errege onak, aren Majestadeagan konfianza guzia ezartzen zuenak, etsairik andienetatik, mirari andiak egiñaz, libratzen zituen.

Ezekias ill zanean, aren seme Manases Judako Errege izan zan: antxitian txit gaiztoa, eta orregatik Babiloniara preso eramana: baña naigabeakin humillatu zan: penitencia egiazkoa egin zuen: eta Jaungoikoak katiberiotik libratu eragin, eta Jerusalem erakarrri zuen: eta an ill zan: (eta aren denboran Juditen historia gertatu zan).

Manases Erregearen ondoren izan ziran Judako Erregeak, Amon, Josias, Joakaz: eta Joakaz au Nabukodonosor Babiloniako Erregeak preso artu zuenean eraman zuen Babiloniara: eta aren lekuan aren anaia Joakin Erregetzat esleitu zuen: eta au Jerusalem utzi zuen kondizio gogorren azpian, bere mendeko bat bezela: eta orduan Nabukodonosorrek Babiloniara eraman zituan Jerusalemgo tenploan zeuden onzi, eta alaja preziatu asko: eta baita Erregen jatorrizko humeak: eta familiarik prinzipalenak: eta aen artean joan ziran Daniel, eta bere lagunak. Eta emendik asitzen dira Babiloniako katiberioak irauñ bear zuen iru-

rogeita amar urteak. Eta Joakin Judako Erregea altxatu zan Babiloniakoaren kontra: baña goitu zuen, eta preso arte, illeragin, eta sepultura bage utzi zuen, eta jarri zan aren lekuan bere anaia Joakin, edo Jekonias: au iru illabetean Errege izan zan: eta besteak bezin gaiztoa, eta Nabukodonosorrek preso eramán zuen Babiloniara bere amarekin; eta Jerusalengo korteko anditsuakin: eta oen artean joan ziran Ezekiel, eta Mardoqueo, Ester (gero Erregiña izan zanaren) osaba: eta orduan eramán zituen Judako aberastasun guziak: eta tenploan gelditu ziran onzi, eta alaja guziak: eta ipiñi zuen Judako Erregetzat Sedezias: eta au izan zan azkeneko Judako Erregea amaika urtean: eta au ere preso artu zuen: bere aurrean seme bi ill zioben: eta berari begiak atera zioben: eta kunplitu zan Profetak esan ziona: Babiloniara eramango zuela, baña Babilonia ikusiko etzuela. Eta aren palazioa, eta Jerusalengo tenplo famatua erre, eta desegin zituen: ango muralla guziak bota zituan: eta pueblo guzia katibu Babiloniarara eramán zuen.

Orra N.K., Juduak nolako kastigu izugarria izan zuen, gure Jaungoikoak eman zien lege santuaz kaso-rik egin etzuelako, ainbeste bider Profeta santuen aotik abisatu bazituan ere. Eta orra guretzat dotriña,

eta ejemplo ikusgarria: bada gure fedea bizierazotzen  
ezpadegu: mundurako bakarrik bizi nai badegu: emen  
bakarrik gure zoriona, eta gustoak billatzen baditugu,  
Juduak baño kastigu arrigarriagoa, ez denbora piska  
batean, baizik eternidade guzian Infernuko su, eta  
garretan, erromedio bage, sufritu bearko degu; Jaun-  
goikoak arren argitu gaitzala guziok: eta digula bere  
bildur, eta amorio santua, eta gero betiko gloria.  
Amen.

# EMEZORTZIGARREN DOTRIÑA

*Eskritura santuaren historiaren gañean.*

Israeldarraen, eta Juduen pueblo esleituaren historiako azkeneko gertaera ikusgarriak gaur aitatu bear dizuet, N.K., eta batez ere esan bear dizuet, nola bizi izan ziran Juduak Babiloniako katiberioan egon ziran bitartean: nolako mirari arrigarriak orduan Jaungoikoak egin zituan Daniel Profetaren bitartez: nola katiberiotik Juduak libratu ziran: eta arrezkero, Jesu-Kristo gizon egin arteraño; eta Jerusalengo zitudadea, eta tenploa desegin arteraño, nola bizi izan ziran: eta arrezkero aen ondorengoak nola bizi diran. Guzian ikusiko dezue Jaungoikoaren probidenzia andia, eta ikasbide ederra.

**G.** Zenbat denboran iraun zuen Juduen katiberioak Babilonian? **E.** Irurogeita amar urtean; Jaungoikoak berak aurrez aditzera eman zien bezela Jeremias Profetaren bitartez.

**G.** Juduak nola bizi izan ziran Babilonian? **E.** Beregan biurtu ziran: kastiguarekin eta naigabeakin zenzatu ziran: eta Jaungoikoaren legea gorde zuen, aekin



Joan ziran, eta Jaungoikoak ematen zien Profeta santuak gidari zituela, jentil itxu Idolatraen artean bizi baziran ere.

**G.** Zein izan ziran orduko Profetarik prinzipalena?

**E.** Izan ziran Ezekiel, Daniel, Abakuk, Sofonias, Zakarias, eta Malakias.

**G.** Katiberioko denboran Babilonian gertatu ziran gauzarik miragarrienak zein izan ziran? **E.** Batez ere Daniel Profetak egin zituanak: 1. Gaztetxoa zalarik, Jaungoikoak argiturik, ezagutzen zuen Susanari, emakume ezkondu, prestu, eta kastari egotzi zioten gezurrezko testimonioa, adulterioan arkitu zuelakoa: adulterioan konsentitu nai izan etzuelako asmatu bazioen ere tentatzalleak erak: oriek ziran Israelgo Juez gaizto bi, giza bazte batekin pekatu egiten arkitu zuena asmatu ziobenak, benganzaz, zerren erai gusto zikiñik eman nai etzien. Eta salatzalleak erak testigo falso, eta Juezak zirala, eriotzara, au da arrika illtzera Susana zeramela, Danielek deadar egin zuen: eta pueblo guziari esan zion: emakume ark kulparik baterre etzuela: inozente bat illtzera zijozela, eta testigo gezurri aek examiñatu bear zirala. Berak examiñatu zituan, bata besteagandik berezirik, edo apartaturik, eta gezurretan arkitu zituan: Susana eriotzatik, eta

deshonratik libratu zuen: eta ari testimonio falsoa egotzi zibon Juezak erak arrika puebloak ill zituen: eta Danielen fama orduan ots andiarekin abiatu zan. Eta orra, N.K., ejemplo, eta dotriña miragarria, kastidade santua nola gorde bear degun ederki erakusten diguna: eta baita lujuriosoak zenbateraño itxutzen diran, eta bizio orrek, nolako gaiztakeriak eragiten dituan: alako falso testimonioak jasotzeraño! eta nolako honra, eta saria darraion kastidadeari: eta nolako kastigu arrigarria darraion lujuriari, eta gezurrezko testimonioari argiro agertzen diguna. Baña biurtu gaitezen Daniel Profetaren historiara. 2. Judako Erregen jatorrikoa zan Daniel: eta beste iru lagunekin Ananias, Misael, eta Azariasekin Babiloniako Erregearen palaziora eraman zuen, ango gisa aziak izateko, eta ango jakinduri guzia ikasteko: eta Erregeak berak señalatu zien, artu bear zituen alimentuak: eta kontu artzallea ipiñi zien. Baña Danielek, eta bere lagunak aen kontua zuenari aditzera eman zibon, naiago zuela ekosari, edo berdura gauzakin, eta urarekin bakarrik mantendu, ezenez, Erregearen maiko erregaloakin: bildur zan aen kontu artzallea, argalduko zirala, eta zer sentitu Erregearen aurrean izango zuena. Ala ere amar egunean prueba egiten utzi zien: eta galanki jan, eta edan

egiten zuen Palazioko beste lagun guziak baño, gize-  
nagoak, eta ederragoak arkitu ziran: eta ala aurrera  
ere egiten zuen: eta orra nola Jaungoikoak bere ben-  
dizioa ematen dion modu onean artzen dan kostu  
gutxiko janari, eta edanari: eta kalte geiago ekarri oi  
duela ikusten da erabageko, eta kostu andiko jan-eda-  
nak: bada onek osasuna lapurtu oi du: eta adimentua  
illuntzen du, batez ere animako gauzetarako: eta kon-  
trara modu oneko barauak, eta tenplanzak osasuna  
dakar: eta adimentua argitzen du: eta espiritua Zeru-  
ko gauzetara altxatzeko gai egiten du: eta ori Danie-  
legan, eta bere iru lagunetan txit argiro ikusi zan;  
orain adituko dezuen gertaera miragarri onetan. 3.  
Nabukodonosor, orduko Babiloniako Erregeak agitz  
ikaratu zuen amets guztiz misterioso bat izan zuen:  
eta bere ametsaz aztu zan; bere erreinuko sabioak,  
edo gizon jakinsuak batu zituan: eta zer amets egin  
zuen: eta zer aditzera ematen zuen asmatzea, edo  
adibinatzea bear zuen: guziak era batera esan zioben,  
ezin datekeala gizonak asmatzea, zer amets beste  
batek egin duen: geien egin dezakeana zala, ametsa  
jakin ezkeru, ark zer aditzera ematen duen ezagutzea.  
Ala ere Erregea aserratu zan: eta guziak illerazotzeko  
agindu zuen, egin zuen ametsa asmatzen ezpazioben.

Daniel, eta bere iru lagunak, beste sabio, edo jakin-suakin batera, ill bearrak ziran, Erregearen ametsa asmatzen ezipazuen: eta nola Zerutik bakarrik orren ezaguera iritsi zezaken, Jaungoikoari orazio egin zio-ben laurok: eta ondoren, Zeruak argiturik, Daniel Erregeari joan zitzabon: eta esan zion, ark izan zuen ametsa izan zala modu onetan: Ikusi zuela bere aurrean estatua, edo bulto guztiz andi bat, burua urrezkoa zuena: bularra, eta besoak zillarrezkoak: sabela, eta isterrak kobrezkoak: eta zankoak, eta oñak puska burnizkoak, eta puska lurrezkoak: menditik jatxi zala arri bat, iñork bota bage: eta estatuaren oñak jo zituala: guzia puskatu, desegin, eta auts egin zuela. Eta esan zion Danielek Erregeari: ona orain amets onek zer aditzera ematen duen: urrezko buruak oraingo erreinu au aiñ aberatsa, eta indar andikoa aditzera ematen du. Zillarrezko bular eta besoak esan nai due, oben ondoren etorriko dala beste erreinu bat, oraingoa baño txikiagoa, eta aren ondoren beste bat: kobrezko sabelak, eta isterrak aditzera ematen zuena, eta lenagoko erreinuak goituko zituana: eta azkenik beste erreinu bat etorriko zala burniaren antzekoa beste guziak desegino eta beretuko zituana: baña erreinu orien denboretan Zeruko Jaungoikoak beste erreinu bat

jasoko du, iñoz desegingo eztana: eta beste pueblo batera igaroko eztana: baizik beste erreinu guziak desegingo dituana; eta berak beti iraungo duena: eta ori aditzera ematen du menditik berez jetxi zan arriak, lurra, burnia, kobrea, zillarra, eta urrea puskatu, eta auts biurtu zituanak: eta ametsa egiazkoa da, eta aren esplikazioa ziertua da, esan zion. Arritu zan Nabukodonosor Erregea: ametsa, eta aren esplikazioa aditu zuenean: eta Jaungoikoaren espiritua izan bage, ezin Danielek ori jakin izan zezakeala ezagutu zuen: eta bazijoan Daniel Profeta adoratzera, Jaungoiko bat baliz bezela, eta inzensua, eta sakrifizioak ere ofrezitu nai ziozkan: baña Danielek aditzera eman zion Zeruan dagoan guzien Jaungoikoak argitu zuela: eta bestela ezin jakin zezakeala: eta orduan Erregeak ezagutu zuen, eta esan zuen Danielen Jaungoikoa zala Jaungoiko guzien Jaungoikoa. Eta honraz bete zuen Daniel, eta Babiloniako gobernari, edo agintari prinzipala egin zuen: eta aren errespetoz bere iru lagunai ere, Ananias, Misael, eta Azariasi kargu, edo enpleo andiak eman zien: eta beste Judu guziak txit konsolatu ziran gertaera miragarri onekin: bada zekusten argiro, Jaungoikoaren probidenziak, eta ontasunak etzituala desanparatzen katiberioko denboran ere.

**G.** Eta zer beste ikusgarririk denbora artan gertatu zan? **E.** Urte gutxiren barruan Nabukodonosor Erregeak urrezko estatua, edo bulto arrigarri bat eragin zuen: eta agindu zuen, bizia surtan galtzeko penaren azpian, bere mendeko guziak estatua ura adoratu zezatela. Eta len aitatu ditugun iru Hebreotar, edo Juduak, Ananias, Misael eta Azarias, Danielen lagunak, enbidiaz ezin ikusi zituenak, Erregearen aurrean salatu zituen, aren ordenaz kasorik egiten etzuela, eta aren urrezko estatua adoratu nai etzuela. Beregana deitu zituan Nabukodonosor Erregeak: eta guztiz aserre artu zituan, zerren obedezitu nai etzioben: eta bereala erre eragingo zituala, esan zien, aren estatua adoratzeko ezpazuen: baña humildade, eta errespeto-arekin eranzun zioben: erak adoratzeko zuten Jaungoikoak nai bazuen, aren eskutik libra zitzakeala: baña libratu nai ezpazituan ere, etzuela aek adoratuko estatua ura, eta ezta beste Jaungoikorik ere. Ori aditu zuenean Erregeak, aen, eranzuera ezin sufriturik, labe irazeki arrigarri batean bereala, eren soñekoakin bota eragin zituan; baña Zeruko laguntasuna bertan ikusi zuen gazte santu aek: Aingeru bat bereala aen artean agertu, eta ikusi zan: suari bere indar guzia kendu zion: Zeruko intz suabe miragarri bat jatxi zan berea-

la aen gañera: eta suak kalterik batere egin etzien, ez erai, ez eta soñekoai ere; eta bereala abiatu zitan Jaungoikoari eskerrak ematen, eta kriatura guziak Jaungoikoa alabatzera, eta bedeinkatzera konbidatzen. Eta orduan Nabukodonosor Erregeak, ain mirari andia bere begiz ikusi zuenean, legea eman zuen, eta agindu zuen bere erreinuko pueblo guziak adonatu zezatela, Ananias, Misael, eta Azariasek adonatu zuen Jaungoikoa, esaten zuela: ura bakarrik zala Jaungoiko guztiz altua, edo guzien gañekoa: aĩn prodijio miragarriak egin zituana: eta bakarrik aren erreinua, eta eskualdia betikoa zala. Eta orra ejemplo ederra, ori guzia, eta fedeko egiak sinisten ditugun Kristauok lotsatzeko: bada gure Jaungoikoa biotz guztitik adonatu ordean, eta beragan gure zorion, eta felizidade guzia billatu ordean; urreagatik, zillarragatik, edo interesagatik, eta emengo honra, edo punto zital, eta atsegin zikin batzuekgatik aren Majestadea ofenditzen, eta despreziatzen degu eta itxumen arrigarri batekin jarten gera eternidade guziko zoriona galtzera: eta betiko suzko tormentuetara gure anima gaxoak kondenatzera: Jaungoikoak berak arren argitu gaitzala, eta erremediatzeko grazia digula.

**G.** Eta beste gauza andirik gertatu bazan Babiloniako katiberioko denboran? **E.** Bai: gauza asko, eta guztiz miragarriak orduan ikusi ziran: eta aetatik bat izan zan, Nabukodonosor Erregea bera aïñ poderio, eta indar arrigarria munduan zeukana, zazpi urtean aberen artean, animalia, edo ganadu bat baliz bezela basoetan belarra baizik jaten etzuela, bizi izan bearra, Jaungoikoaren kastiguz, bere arrotasun, edo soberbia andia beeratzeko, eta humillatzeko: eta ori guzia Daniel Profetak argiro lenago aditzera eman zion: eta baita, humillatzen zanean, eta bazala Zeruan Erregeak kendu, eta ipiñi egiten zituan guzien jabe soberanoa ezagutzen zuenean: bere erreinura biurtuko zuela, eta ala guzia gertatu zan: bada humillatu zan Nabukodonosor: eta berriz erregetasunera Jaungoikoak biurtu zuen eta ejemplo onek guziori erakusten digu, degun guzia Jaungoikoari zor diogula: eta arrotzen bagera, guzia galduko degula: baña egiaz humillak, eta esker onekoak bagera, Jaungoikoak gordeko gaituala: eta betiko erreinua Zeruan emango digula.

**G.** Eta Daniel Profetak zer geiago egin zuen denbora artan? **E.** Nabukodonosor Erregea ill zanean, aren seme Ebilmedorakek orobat estimatzen, eta honratzen zuen Daniel: eta oni galdetu zion, zergatik adora-



tzen etzuen Babiloniakoak Jaungoikotzat zeuken Bel:  
eta eranzun zion Zeruan zegoan, eta guzien jabea zan  
Jaungoiko bizia baizik adoratzen etzuela: eta Erregeak  
esan zion: eztakizu bada Bel, gure Jaungoikoa ere  
bizia dala, egunoro ainbeste janari, eta edari ofrenda-  
tzen zaion ezkerro, eta guziak jaten dituan ezkerro?  
Danielek far eginaz esan zion: Idolo ark etzuela ezer  
jaten: lurre utzezkoa zala: eta bizia etzala: eta ura ser-  
bitzen zuen Sazerdoteak, Errege bera, eta beste  
guziak engañaturik zeuzkela: erak, eta eren emazte,  
eta humeak ofrenda guziak jaten zituela: etzion Erre-  
gek sinistu: eta prueba egin nai izan zuen, ala zan,  
edo ez: ofrendak, beti bezela, ipini eragin zituan Belen  
aldarearen gañean: Tenploko atea itxi zuen: eta Erre-  
gearen sillua gañetik ipiñi zioben, iñork iregi etzezan:  
baña Danielek ixillik autsa bota zuen, edo banatu zuen  
tenploaren soruan: eta urrengo goizean etorri zan  
Errege bera Danielekin tenplora: eta atea itxirik zego-  
an: iregi eragin zuen: eta urrutitik ikusi zuen ofrenda-  
rik aldare gañean etzegoala: eta Danieli bereala esan  
zion oraiñ esango dezu, gure Jaungoiko Belek ezer  
jaten etzuela, eta Jaungoiko illa dala? Ara nola ofren-  
datu zaiozean janari, eta edari guziak despatxatu  
dituan: eta Danielek, farra ezin edukiaz, Erregeari

esan zion norenak ote dira tenploan dauden oiñarras-  
to aek guziak? Emendik igaro dira gizonak, emaku-  
meak, eta aurrak eta ala zan: Ate estali, edo sekreto  
batetik, sartzen ziran gabaz Sazerdoteak eren familia  
guziarekin: eta Idoloaren ofrendetatik jan, eta edan  
lazki egiten zuen: baña orduan ondo pagatu zuen:  
Erregeak aen gezurra, eta Danielek zion egia ikusi  
zuenean; Sazerdote guziak eriotzara kondenatu  
zituana: tenploa desegin zuen, eta Idoloa erdi bi egin  
zuen.

Baria bazuen Babiloniakoak Jaungoikotzat arturik  
dragoi arrigarri bat: eta Danieli Erregeak esan zion;  
ura beintzat Jaungoiko bizia zala; eta besteak bezela  
adoratu zezakeala: baña Danielek, Errege desengaña-  
tzeko esan zion: eutzi nai bazion Dragoiari bizia ken-  
tzen, etzuela arma bearrik, ikusiko zuela, zeñ ezereza  
zan Dragoi ikaragarri ura, Jaungoikotzat edukitzeko:  
lizenzia eman zion, eta Danielek pikearekin, ganzare-  
kin, eta illearekin opill bat egin zuen: Dragoiari jateko  
eman zion; eta ozta irentsi, edo tragatu zuen, bertan  
eztanda, edo ler egin zuen, eta ill zan: orduan Babilo-  
niako jende itxua, bere Jaungoikoak ala desegiñik  
ikusi zituanean, desengañatu, eta egia ezagutu  
ordean, gorrotoan Danielen kontra jarri zan: alborota-

tu, eta altxatu zan: eta Erregeari esan zioben, eman zegiela Daniel, leoiak zeuden leze, edo tokira botatzeko; eta besteak berari bizia kenduko zibela. Bildurtu zan Errege, eta bere gogoaren kontra entregatu zien Daniel: bereala leoiak zeuden tokira bota zuen: eta goseak bazeuden ere, zerren berariaz jaten eman etzien, profeta santuari ukitu etzioben: zazpi egunean leoien artean eduki zuen, eta Jaungoikoak milagro andi batekin Daniel mantendu zuen. Abakuk Profeta, Judako partidan bizi zana, zijoan bazkaria eramatera bere langin batzuei: eta Aingeru batek bidera irtenik esan zion, bazkari ura Danieli eraman zegiela Babiloniara: eranzun zion Abakuk Profetak, etzekiala Babilonia nun zegoan; eta are gutxiago Daniel zegoan tokia: eta orduan Aingeruak Abakuk illetatik artu zuen, eta instante batean Babiloniara eraman zuen eta ezarri zuen leoiak zeuden tokiaren begian: eta Abakuk Profetak deitu zion Danieli, eta esan zion: Jaungoikoaren serbitzaria, ar ezazu, Jaunak berak bidaltzen dizun bazkaria. Danielek Jaungoikoa alabatu zuen: eta hitz oek esan zituan: O! Zu nere Jaungoikoa: oroitu zera zure serbitzariaz: gogoan dauzkatzu maite zaituztenak; ori esan, eta jaten abiatu zan: eta Aingeruak eraman zuen atzera Abakuk lengo bere tokira. Eta zazpi-

garren egunean etorri zan Babiloniako Errege leoiak zeuden tokira: orduko illik egongo zala Daniel uste zuen: eta leoien erdian bizirik, eta sosegu andian zegoala ikusi zuenean, arritu zan: eta deadarrez esan zuen Erregek: Danielen Jaungoikoa, ala andia baizera! Atera eragin zuen bereala Daniel leoien lekutik, eta ara bota eragin zituan Danielen etsaiak: eta ozta an erori ziran, nun bere-bereala leoiak puskatu, eta jan zituzten. Eta Erregeak hitz oek esan zituan: lurreko pueblo guziak adora bezate Danielen Jaungoikoa: ura da bakarrik ainbeste mirari, edo prodijio egin dituana: eta Daniel leoien erditik atera duena.

Eta ona oraindio denbora artako beste gertaera arrigarri bat, katiberioaren azkenean gertatu zana, eta Danielek zuen Zeruko argia agertu zuena: orduan Babiloniako urrengo Errege zan Balthasar: onek konbite txit andi bat Babiloniako grande, edo anditsuai egin zien: eta txit berotzeraño, eta buruak moteltzeraño, Jerusalemgo tenplotik Nabukodonosorrek ekarri zituan ontzi sagraduetan jan, eta edan galanki egiten ari zirala; konbiteko gelan bertan paretean agertu zan esku bat, iru hitz bakarrik eskribitu zituana: eta ziran oek: *Mane Thezel Phares*. Turbatu zan txit Balthasar Erregea ikusgarri orrekin: eziñ irakurri zituan ez berak,

eta ez beste iñork letra aek: bereala erakarri zituan Babiloniako sabioak, edo jakinsuak, letra aek irakurri zitzaen, eta zer esan nai zuen aditzera eman zegio-ben: baña eziñ iñork ezagutu zituan: eta orduan Erregiña oroitu, edo akordatu zan Danielek zuen Zeruko doaiatz, orrelako gauzak asmatzeko, edo ezagutzeko: Erregeari hitz egin zion Danielen doai orrezaz; eta bereala Balthasarrek erakarri zuen: eta ondasun andiak agindu ziozkan, letra misterioso aek irakurten bazituan, eta zer esan nai zuen aditzera ematen bazion, Danielek esan zien, bere ondasunak beretzat eduki zitzala; eta bere doaiak beste bati eman zegioz-kala: baña esango ziola letra ark zer aditzera ematen zuen: lenengo letrak dio *Mane*: eta esan nai du; Jaungoikoak zure erreinuko kontuak artu dizu: eta zure erreinua bukatu da: bigarren letrak esan nai du *Thezel*: eta aditzera ematen du: Jaungoikoak bere justizia-ko balanza pisatu zaituala, eta faltadun arkitu zaituala: eta irugarren letra da *Phares*: eta esan nai du: zure erreinua partitu duela, eta Medoak, eta Persak jabetuko dirala. Eta gau artan bertan, Babiloniakoak gutxiena uste zuenean, Ziro Erregeak, ango ibai andiari beste bide bat eman, eta bere ejerzitoarekin, legorrik gelditu zan kaletik sartu, eta Babilonia artu zuen: eta

Balthasar Erregea gau artan bere Palazioan ill zuen. Eta Danielek esan zuen bezela, Babiloniako erreinu andia beste buru batera igaro zan. Eta orra erabageko jan-edanak, eta Jaungoikoari konsagraturik zeuden tenploko ontzi sagraduen desprezio, eta profanazioak zer ekarri zien. Eta orra ejemplo arrigarria guziok zentzateko: eta nola gure buruak kontuz gorde bear ditugun, eta Jaungoikoari ukitzen zaion gauzak errespeta-tu bear ditugun erakusteko.

**G.** Babiloniako katiberioko irurogeita amar urteak osatu ziranean, nork libratu zituan Juduak? **E.** Ziro Per-siako Erregeak, Oriente aldeko Erreinu guzien jabe egin ezkerro, Juduai eman zien libertadea eren errieta-ra biurtzeko, eta Jerusalemgo Ziudadea, eta tenploa berriz egiteko: biurtu zien tenploko ontzi sagradu guziak: eta doai, eta ondasun andiak eman zizten.

**G.** Eta zerk mobitu zuen orretara Errege ura? **E.** Agertu ziobelako, berreun urtez lenago Isaias Profetak esan zuela, bere izenaz deituaz nola Oriente guziko Errege izango zan, eta nola aren denboran, eta aren ordenaz Jerusalemgo arria, eta tenploa berrituko ziran.

**G.** Zenbat jende itzuli ziran Judeara, eta nor izan zuen eren gidari edo agintari? **E.** Itzuli ziran 42370 Judeatik: gidari zituela Jesus Josedeken semea, orduko

apaiz-nagusia, eta Zorobabel Salatielen semea Judako tribuaren burua: eta mundutik banaturik zeuden israeldar asko etorri ziraten Judeara: baña aek etzuen iñoiz pueblo berezirik, edo diferenterik egiten: arrezkero guziak deitzen ziran Juduak, eta Hebreoak, Abran, Isak, eta Jakob, eren Asaba komunetatik zetozenak bezela: eta Juduen orduko historia Jesu-Kristo mundura etorri arterañoa, mirari andiz eta ejemplo arrigarriz beterik badago ere; nola dotriña labur batzuetan ezin guzia esan ditekean: orain bakarrik diot: 1. Juduak arrezkero etziralara Idolatrian erori: 2. diot: Errege mota askoren mendean egon baziran ere, konserbatu zuela eren tenploa, eta ango sakrifizioak eren Apaiz-nagusiakin, eta beste Eliz-gizonakin: 3. diot, baita ere gorde zuela aren gobernu berezia, edo diferentea, puebloaren buruak, edo agintariak, eta conseju andi, edo Juez askoren batzarre, edo junta andi bat eren gobernurako zeukela: eta baita justizia egiteko, eta gaitzgilleak eriotzarekin kastigatzeko eskua ere, Erromatarrak eskualdi ori kendu zien artean, Jesu-Kristo mundura etorri zan denboran: eta 4. diot, Juduen artean, batzuek, edo geienak zirala aragiari, eta munduari zerraizkanak: honrazale arroak; diruzaleak, munduan gustora, eta aisa bizi nai zue-

nak: eta geroko bizitzaz, edo Zeruko ondasunaz kaso-rik egin gabe bizi ziranak. Baña baziran beste Judu batzuek argituagoak, espirituari zerraizkanak: Jaungoikoaren lege santua gogoan, eta biotzean zeukenak: Jaungoikoaren bildur santuan bizi ziranak: eren zoriona, ez munduan, ezpada Zeruan esperatzen zuenak: eta Mesias, edo Salbadorearen zai zeudenak: eta len bailo len mundukoak argitzera, eta erremediatzera etortzea biziro deseaten zuenak: eta onelakoak Jesu-Kristoren dotriña erraz sinistu, eta artu zuen: baña mundutarrak, aragitarak, eren zoriona munduan nai zuenak; eren antzeko Salbadore, guztiz aberats, eta poderoso bat nai zuen: munduko anditasunak, honrak, ondasunak, eta era, edo konbenienzia guziak argandik itxoten zituen: eta orra zergatik Jesu-Kristoren Zeruko dotriña sinistu nai izan etzuen: eta Jesu-Kristori bizia kentzeraño itxutu, eta gogortu ziran. Baña aen zorigaiztokoak! Jesu-Kristok egia erakutsi zuen; eta Profeta santuak aurretik esan zuen bezela, bere Jaungoikotasunaren, eta gizatasunaren prueba guztiz ziertuak, eta ikusgarriak eman zituan: bere guziasun, edo poderio infinitoa argiro aditzera eman zuen berak, eta aren izenean bere Apostoluak egin zituen mirari guztiz andi, eta publikoakin: eta



batez ere Jesu-Kristoren beraren erresurrekzioarekin, eta difuntu askoren piztuera miragarriakin: eta munduan egin zuen mudanza arrigarriarekin: bada fedebage bizi ziran Jentil itxuak tropelka laztandu zuen orduan Jesu-Kristoren fedea, eta Kristau egin ziran: eta bitartean Judu itxutuak, eta gogortuak galdu zuen eren pueblo guzia: eren Jerusalem andia, eta ango tenploa: milloi bat, eta eun milla Juduk bizia galdu zuen, Jerusalem Erromatarrak desegin zuenean: eta besteak katibu eraman zituen: eta arrezkero oen ondorengoak badirabe oraindio: baña erri bat bererik ez tue: besteren mendean bizi dira: iñork ikusi nai ez titu: eta Jaungoikoaren maldizioa badarraie denbora, eta leku guzietan: eta ala ere noizbait ezagutuko due eren itxumena, eta konbertituko dira Jesu-Kristoren lege santura.

**G.** Eta orain zer probetxu atera bear degu Kristauok Eskritura Santutik ikusi, eta aditu ditugun mirari eta ejenploetatik? **E.** Zenzatu bear gera besteren buruan, Judu itxutuak bezela galdu nai ez pagera.

Eskatu degiogun bada sarri Jaungoikoari, arren digula fede bizi bat: esperanza andi bat: eta karidade bero, irazeki bat: bere mandamentu santuak kontuz

gordetzeko grazia eta indarra: eta gero Zeruko gloria.  
Amen.

# EMERETZIGARREN DOTRIÑA

*Jesu-Kristo nor dan.*

Kredoaren lenengo artikuluaaren esplikazioan, oraindañoko dotriñetan ikusi degu, N.K., fedeak ematen digun argiarekin nor dan gure Jaungoikoa: nola ezta Jaungoiko egiazko bat baizik: eta ala ere nola Jaungoiko bakar bategan iru persona distintuak dauden: au da, Aita Jaungoikoa, Seme Jaungoikoa, eta Espiritu Santu Jaungoikoa. Nola Jaungoikoak bere poderio infinito arekin ezerezetik egin zituan Zerua, eta lurra, eta orietan arkitzen diran kreatura guziak, ala espiritualak, nola korporalak: eta zertako kreatu zituan batez ere Aingeruak, eta gizonak: au da, Jaungoikoa bera ezagutzeko, eta amatzeko, eta eternidade guzian beraz Zeruko erreinuan gozatzeko: eta azkenik ikusi degu, nolako estadu miserable, eta errukigarrian gizona geratu zan, pekatu egin ezkeru; eta nola gure Jaungoikoaren ontasun, eta miserikordia infinitoak gizona salbatzeko, au da, pekatutik ateratzeko, eta galdu zuen Zeruko deretxora biurtzeko, bere Seme unijenittoa, edo bakarra eman dion bere

erredenptore, eta maisu izateko. Emendik aurrera bada kredoaren bigarren artikuluan, ikusi bear degu astiro, nor dan Jesu-Kristo gure Jauna: eta urrengo artikuluetan, zer egin zuen, eta zer erakutsi zigun Jesu-Kristo gure Salbadore, eta maisu soberanoak, gu pekatutik libratzeko, guri Zeruko bidea erakusteko; eta egiazko zoriona, edo betiko gloria guri irabazi eragiteko: onetantxe dago Kristauaren jakinduriarik andiena, eta premiazoena.

Kredoaren bigarren artikuluan esaten degu onela: *Sinisten det aren Seme bakar Jesu-Kristo gure Jaungana*: eta orretan aitortzen, eta konfesatzen degu, Jesu-Kristo dala Aita Jaungoikoaren Seme bakarra: Aita bera bezela Jaungoiko egiazkoa: baña Aitagandik persona distintoa izan arren, ez Aitagandik Jaungoiko distintoa, edo diferentea; baizik Aitarekin Jaungoiko bat: au da, Aitak duen Jaungoikotasuna bera daukana. Eta orregatik esaten degu Jesu-Kristo dala Aita Eternoaren Seme konsustanziala: au da, Aitak duen esenzia bera, naturaleza bera, izate Jaungoikozkoa bera betidanik daukana: Trinidadeko misterioaren esplikazioan ugariago esan nizuen bezela. Eta esaten degu; Jesu-Kristo dala gure Jauna, zergatik Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batera, ezerezetik egin gaituan, eta bere

odolaren kostuan erreskatatu, erredimitu, edo erosi gaituan. Baña ori guzia zuei obeto aditzera emateko, eta nor dan Jesu-Kristo obeto ezagutzeko gure dotriñaako galde, eta eranzuera laburrak esplikatu ditza-gun: eta kontuz aditu itzazue. Eta probetxu andi bat ateratzeko eskatu dezagun Espiritu Santuaren grazia. Abe Maria.

**G.** Iru persona Dibinoetatik zein egin zan gizon? **E.** Bigarrena, au da, Semea. **G.** Aita gizon egin zan? **E.** Ez: etzan, Aita gizon egin. **G.** Espiritu Santua gizon egin zan? **E.** Ez: etzan Espiritu Santua gizon egin. **G.** Nor egin zan bada gizon? **E.** Bakarrik Semea gizon egin zan: eta deritza Jesu-Kristo.

**G.** Beraz nor da Jesu-Kristo? **E.** Da Jaungoiko biziaren Semea gizon egin zana, gu erredimitzeagatik, eta guri nola bizi erakusteagatik. **G.** Nun egin zan gizon? **E.** Maria Birjiña Santisimaren errai garbietan. **G.** Noren obraz, gizon egin zan Jesu-Kristo gure Jauna? **E.** Ez gizonaren obraz, baizik Espiritu Santuaren obraz, eta birtutez, kredoan esaten degun bezela: eta nola ori gertatu zan aurrera beste dotriña batean esango degu: orain Jesu-Kristo nor dan obeto aditzera emateko; zuen euskera garbian aditu ezazue San Juanek bere Ebanjelioaren lenengo kapitulari nola hitz egi-

ten duen Jesu-Kristoren Jaungoikotasunaren, eta giza-  
tasunaren gañean.

*In principio erat Verbum:*

Gauza guzien asieran, edo prinzipioan Berboa  
bazan: eta Berboa Jaungoikoagan zegoan: eta Berboa  
Jaungoiko zan: au asieran Jaungoikoarekin zegoan:  
gauza guziak berak egin izan diitu: eta bera bage,  
egin danetik ezertxo ere egin ezta. Beragan zegoan  
bizia: eta bizia zan gizonen argia: eta illunpetan argiak  
argitzen du: baña illunpeak argia eztue bereganatu,  
edo itzali. (Ebanjelio Santuko hitz misterioso oek  
obeto adituko dituzue, gogoratu ezkeru Jesu-Kristok  
berak esan zuena: ni naiz bidea, egia, eta bititza: ni  
naiz munduko argia: eta niri darraitana illunpean ezta-  
bill: eta ala Jesu-Kristori darraionak bizitzako argia  
izango du). Orren ondoren dio Ebanjelista Santuak:  
Jaungoikoak bidaldu zuen gizon bat, izena Juan zuena:  
au etorri zan testigo izatera, eta argiaren testimonio  
ematera: beragatik guziak argan sinistu zezaten:  
etzan bera argia, baña bai argiaren testimonio eman  
bear zuena. Ura zan egiazko argia mundura datozen

gizon guziak argitzen dituana. Munduan zegoan: berak mundua egin zuen, eta munduak, (edo mundu-tarrak) ezagutu etzuen. Beretara (au da bere jatorriko-  
etara) etorri zan: baña bereak (au da bere pueblo, edo Juduak) etzuen errezibitu, (edo beren Salbadoretzat artu). Baña bera errezibitu zuenai (au da beragan fede biziarekin sinistu zuenai) Jaungoikoaren semeak egi-  
ñak izateko podere, edo eskua eman zien: eta oek eztira odoletik jaioak: ez aragiaren borondatetik, ez eta gizonaren borondatetik, baizik Jaungoikoagandik: eta Berboa aragitu zan, au da, aragiz janzi zan, edo gizon egin zan: eta gure artean, edo gurekin bizi izan zan: eta aren gloria ikusten degu (dio Ebanjelio Santuak) Aita Jauragoikoaren Seme bakarrari dagokan gloria bezela: grazia, eta egiaz beterik, au da, graziaz beterik gizonak pekatutik ateratzeko, eta doaiez bete-  
tzeko: eta egiaz beterik, eta (betiko egia danak beze-  
la) gizonai salbaziorako bear duen guzia erakusteko. Orra gure fedeko misteriorik andienak, eta altuenak San Juanen Ebanjelio onetan argiro aditzera emanik: baña zuei dagokizuen moduan obeto adieragiteko, galde batzuek egin bear ditugu.

**G.** Galdetzen det: Jaungoikoaren Semea gizon egin zanean Jaungoiko izatetik gelditu zan? **E.** Ez: Jaungoi-

ko izatetik gelditu bage gizon egin zan: eta orregatik Jesu-Kristo da batetan Jaungoiko egiazkoa, eta gizon egiazkoa. Eta ala Jesu-Kristok ditu naturaleza bi: bata Dibinoa edo Jaungoikozkoa: eta bestea humanoa edo gizonezkoa.

**G.** Eta noiztanik du Jesu-Kristok naturaleza Dibinoa, edo Jaungoikozkoa? **E.** Betidanik, edo eternidade guztitik: Trinitate Santisimoko misterioaren explikazioan esan nizuen bezela.

**G.** Eta noiz ezkerro dauka naturaleza gizonezkoa, edo humanoa? **E.** Maria Birjiña Santisimaren errai garbietan sortua, edo konzebitua izan zan ezkerro.

**G.** Orrela Jesu-Kristo batetan da Aita Jaungoikoaren Semea, eta Maria Birjiña Santisimaren Semea? **E.** Bai: Jaungoikoa dan aldetik da bakarrik Aita Jaungoikoaren Semea: eta da bere Seme betikoa, naturala, eta propioa, eta bere Aitarekin Jaungoiko naturaleza baizik eztuena: ez gu bezela: bada gu Jaungoikoaren semeak deitzen bagera, eta egiaz bagera ere, ez gera seme naturalak, eta propioak, Jesu-Kristo bezela, baizik seme adoptiboak, edo graziaz bakarrik semetzat artuak. Eta gizona dan aldetik Jesu-Kristo da bakarrik Maria Birjiñaren Semea; eta da seme bakarra, eta naturala, edo propioa. Orrela Jesu-Kristo ezta seme



bat bakarrik, baizik seme bi izango da? Ez: sortze bi, edo jaiotza bi diferenteak, eta naturaleza bi distintoak izan arren; ezta ala ere Jesu-Kristo seme bakar bat baizik: nola da bada ori? Zergatik naturaleza bi diferenteak izan arren, Jesu-Kristo da persona bakar bat: eta da Trinitate Santisimoko bigarren persona Jaungoikozkoa: eta persona orregan daude juntaturik, edo uniturik naturaleza biak Jaungoikozkoa, eta gizonezkoa.

**G.** Nola bada izanik Jesu-Kristo Jaungoiko egiazkoa, eta gizon egiazkoa, ezta persona bat baizik? Eta ori bakarrik Jaungoikozkoa, edo Dibinoa? Eta nola eztago Jesu-Kristogan persona gizonezkorik, edo humanorik? **E.** Zergatik Jaungoikoaren Semeak, edo Trinitateko bigarren persona Dibinoak, gure gizatasuna, edo naturaleza humanoa Maria Birjiña Santisimaren sabelean artu zuanean, eragotzi zuen persona humanoa, edo gizonezkoa an sortzea: eta argatik esaten, eta sinisten degu Trinitateko bigarren persona Dibinoak gure naturaleza, edo gizatasuna egiaz artu zuela, edo berekin unitu, eta laztandu zuela, au da anima, eta gorputz egiazkoak, gureak bezelakoak, artu zituala; baña eztegu ala ere esaten, eta ezin esan dezakegu persona gizonezkorik, edo humanorik artu

zuela: bada orren lekua okupatu zuen persona Dibinoak. Eta ala onetan beti firme egon bear dezue: Jesu-Kristo eztala persona bat baizik, eta ori Dibinoa edo Jainkozkoa bakarrik: baña ala ere dituala naturaleza bi bata Dibinoa, eta bestea humanoa: eta naturaleza bi diferenteak izan arren, eztala Jesu-Kristo bat baizik: ara nola gugan anima eta gorputza, diferenteak izan arren, alkarrekin uniturik eztira gizon bat baizik. Baña Jesu-Kristo gure Jauna, persona Jaungoikozko bat baizik ezpada ere, ditu adimentu bi eta borondate bi, bata Dibinoa edo Jaungoikozkoa, eta bestea humanoa, edo gizonezkoa. Zergatik ala adimentua, nola borondatea naturaleza bakoitzak du naitaez, berea: baña gizonaren aldetik Jesu-Kristok zuen borondatea, beti egondu zan uniturik bat egiñik, eta konformaturik Jaungoikoaren aldetik zuen borondatearekin: baña etzuen Jesu-Kristok memoria bat baizik, eta ori bakarrik gizona zan aldetik; zergatik Jaungoiko zan aldetik memoria bearrik etzuen: bada Jaungoikoak gauza guziak dauzka beti presente: eta ezin ezerzaz aztu diteke.

**G.** Eta Jesu-Kristo gure Jauna bere Aita Eternoarekin berdin edo igual ote da: edo Aita baño gutxiago ote da? **E.** Naturaleza biak Jesu-Kristoren personan

uniturik daudelako, esan bear degu batzuetan, Jesu-Kristo dala berdin, edo igual bere Aita Jaungoikoarekin eta beste batzuetan Aita baño gutxiago dala. Jesu-Kristok berak esan zuen: *Nera Aita, eta ni bat gera: eta ala da egia* Jaungoikozko naturalezaren aldetik, eta Jesu-Kristok berak beste batean esan zuen: *nere Aita ni baño andiago da:* eta ori ere egia da naturaleza humanoaron edo gizonezkoaren aldetik begiratzeko zaiola.

Eta orrez gañera naturaleza biak, bata Jaungoikoarena eta bestea gizonarena, Jesu-Kristoren personan uniturik daudelako; Jaungoikoari aplikatzen, edo egozten diogu gizonari bakarrik dagokiona: eta orobat gizonari aplikatzen diogu Jaungoikoari dagokiona: zergatik persona bat berbera da Jaungoikoa eta gizona: eta ala egiaz esaten degu Jaungoikoak padezitu zuela, ill zala, eta erresuzitatu zala: eta gizona Jaungoikoaren Semea dala, eta Jaungoiko dala.

**G.** Eta esan diteke orobat Aita Jaungoikoa eta Espiritu Santu Jaungoikoa gizon egin zirala, eta padezitu zuela, eta ill zirala? Jesu-Kristorekin naturaleza bat berbera dauken ezkerok: Jesu-Kristogatik esaten degun bezela, gugatik gizon egin zala, padezitu zuela, eta ill zala? Ez: ori bakarrik esan diteke Jaungoikoaren

Semeagatik: zergatik semearen persona bakarrik unitu zan gure naturaleza, edo gizatasunarekin; ez Aitaren persona, eta ezta Espiritu Santuarena ere.

**G.** Nola bada iru persona Dibinoak naturaleza bat berbera baizik ezpadue, Semea bakarrik eta ez Aita, eta ez Espiritu Santua, gizon egin zitekean? **E.** Ori gure adimentu laburrak ezin iritsi lezake: baña ala dala ziertu gaude, eta sinisten degu; zergatik Jaungoikoak berak ala agertu, eta erakutsi duen: eta Eliza Ama Santak beti onela erakutsi digu: eta ori sinistu nai izan eztuenak herejetzat deklaratu ditu.

Mezako kredoan esaten degu, Jaungoikoaren Semea jatxi zala Zerutik lurrera gure salbazioagatik. Benturaz utzi zuen Zerua, lurrean gizon zanean? Ez: zergatik Jaungoiko bezela, leen guztietan dago: eta etzuen Zerua utzikizunik lurrera etortzeko. Eta ala Jaungoikoaren Semea Zerutik lurrera jatxi zala diogunean, bakarrik esan nai degu, Jaungoikoaren Semeak lurrean artu zuela, len etzuen naturaleza humanoa, edo gizonezkoa: eta bere gizatasunean edo humanidadean lurrean agertu zala, eta ikusgai egin zala; Zerua, eta lurra bere Dibinidadearekin eziñ esan al bezelako era miragarri batean beti betetzen, edo okupatzen dituen bera.

**G.** Zergatik Jaungoikoaren Semea bere Aita Eternoarekin berdin igual, edo bat dana, eta Aitarekin Jaungoiko egiazko bat dana, ainbesteraño beeratu, edo humillatu da, nun gizon eginda? **E.** 1. Gizona bezela sufritzeko, edo padezitzeko, eta illtzeko gai, edo kapaz izateagatik; bada Jaungoikoak eziñ ezer padezitu lezake, eta eziñ ill liteke. Eta 2. Jaungoikoa bezela, dolore, tormentu, eta eriotza santuari balio, prezio, edo merezimentu infinito bat emateagatik: eta orrela gizonaren pekatu guziak berak pagatzeko, eta gizona erremediatzeko, edo erredimitzeko gai izateagatik; bada etzegoan orretako beste erremediorik bada kreatura utz guziak eziñ pekatuaren zorra pagatu zezakean. Eta ala bear zan Jaungoiko eta gizon izatea pekatuaren zorra osoro pagatzeko. A! zenbat zor diogun, N.K., gure Jaungoikoari bere Seme maitea bera gu erredimitzeko, eman digulako! eto zeñ obligazio estua degun gugatik gizon egin, eta gurutze batean ill zan Jesu-Kristo gure Jauna biotz guztitik amatzeko!

**G.** Eta zergatik geiago gizon eginda Jaungoikoaren Semea? **E.** Gizonak Jaungoikoaren Seme adoptiboak, eta Zeruko herederoak egiteko, eta gizonari nola bizi erakusteko, eta ondo bizitzeko grazia emateko: ata ori

egin zuen 1. bere bizimodu santuaren ejenploarekin eta bere hitz, edo dotriña santuarekin. Eta 2. bere grazia guri aplikatzeko utzi zigun Sakramentu Santuakin. Eta nola gure pekatu guzien sustraia, eta gure itxumena datorkigun soberbiatik, eta gure buruaren amorio erabagetik, berariaz autu zuen aren Majestadeak, guzian Maisuak bezela, bizimodu guztiz humill, pobre, eta nekatu bat: eta erakutsi zigun, eztagoala gure egiazko zoriona munduko honra, ondasun, eta atsegiñetan, baizik beti iraungo duen Zeruko erreinuan. A! Egia oek gure biotzean ondo sarturik, eta inprimiturik baleude, zein jakintsuak bertatik izango ginatekean; zein biotzetik pekatua aborrezituko gendukean; zein erraz munduko erakeria, eta banidadea ezagutuko, eta despreziatuko gendukean; eta zein gogotik gure betiko zoriona billatuko gendukean.

**G.** Jaungoikoaren Semeari gizon egin zanean zer izen ipiñi zioben? **E.** Jesus deitu zioben: eta izen miragarri ori Zerutik Aingeru San Gabrielek ekarri zuen: eta berak Maria Birjiña Santisimari, eta Aita San Josef gloriosoari esan zien, Jesus deitu zegiobela: eta au da Jaungoikoaren Semearen izen propioa.

**G.** Eta Jesusek zer esan nai du? **E.** Salbadorea, edo libratzallea: **G.** Zertatik salbatu, edo libratu ginduzen?

**E.** Gure pekatuetatik, eta demonioaren katiberiotik, edo mendetik. Eta ori obeto ezagutzeko, eta geiago estimatzeko gogora ekarri bear dezue, N.K., nolako estadu errukigarrian pekatu orijinalak utzi ginduzan guziok: eta Jesu-Kristo gure Salbadore maitearen graziak libratu ezpaginduz, etzegoala guretzako salbaziorik, baizik betiko kondenazioa.

**G.** Eta Kristok zer esan nai du? **E.** Unjituia, edo gantzutua.

**G.** Zerzaz izandu zan unjituia? **E.** Espiritu Santuaren graziaz, eta doaiatz.

**G.** Eta orretan zer aditzen degu? **E.** Jesu-Kristo konzebitua izan zan instantean, Espiritu Santuak aren anima bete zuela bere grazia, eta doai guziezaz eziñ esan al bezelako ugaritasun, edo abundanziarekin Aingeru guzien, eta santu guzien buru, jaio eta Errege izan bear zuenari zegokan bezela: hitz batean: Jaungoikoaren Semearen personarekin uniturik egon bear zuenari zegokan bezela.

**G.** Eta Kristoren izena Jaungoikoaren Seme gizon egin zanaren izen propioa da Jesusen izena bezela? **E.** Ez: ezta izen propioa, ezpada Jesusen izenari egotzia, edo añaditua: eta da bere ofizio, kargu, edo dignidadearen izen komuna.

**G.** Zer ofizio, kargu, edo dignidade aditzera ematen du Kristoren izenak? **E.** Erregearena, Sazerdotearena, eta Profetarena: bada Erregeak, Sazerdoteak eta Profetak izaten ziran unjituak, eta deitzen ziran Kristoak. Eta nola aek olibazko olioarekin unjituak, edo gantxituak izaten ziran; ala Jesu-Kristo gure Jauna, ez ikusten dan lurreko olioarekin, baizik Espiritu Santuaren grazia, eta doai guzien olio espiritualarekin izan zan unjitua, egiazko Errege soberanoa bezela; sumo Sazerdotea bezela; eta Profetarik, eta Maisurik andiena bezela.

Eta orain bakarrik enkargatzen dizuet, N.K., (egiaz jakinsuak, eta zorionekoak izan nai badezue) zuen alegin guziak egin ditzatzuela, Jesu-Kristo gure Jauna nor dan ondo, eta sarri konsideratzeko: eta Jesu-Kristori zenbat zor diozuen, eta zein maite zaituen ezagutu ezkerro, esker onez eranzuteko: zuen erredemptoreari bezela millarezko eskerrak egunoro ematen diozkatzuela; bere biziaren, eta odolaren kostuan zueri pekatuen zorrak pagatu nai izan ditualako; Infernuko Demonioaren mendetik atera zaituelako; eta Zeruko deretxoa zuendako irabazi duelako: eta zerren asko eztan ori guzia; zuen maisu, eta Zeruko erakusleari bezela jarraitzen ezpadiozue; alegin guzia egizue,



dotriña santua beti gogoan erabiltzeko: eta arekin batera zuen bizimodua zuzentzeko, eta orretako naitaez bear dezuen Zeruko argia, grazia, eta indarra sarri eskatzeko: eta orrela zuen griña gaiztoak, eta erabageko pasioak erraz menderatuko dituzue: eta emen pake andi bat, eta gero Zeruan betiko deskan-sua, eta zoriona izango da zuen saria. Amen.

# OGEIGARREN DOTRIÑA

*Jesu-Kristoren Enkarnazioa, edo gizon egitea.*

Jaungoikoaren Semea; Jesu-Kristo gure Jauna, gizon egiteko denbora seinalatua eldu zanean, Jaungoikoaren probidentzia miragarriak aurretik bere Semearen Ama egiazkoa izan bear zuen Maria Santisima prestatu, disponitu, apaindu, edo, ordenatu zuen, Jaungoikoaren Amari, eta Aingeru guzien, eta gizon guzien Erregiñari zegozkion grazia, doai, eta pribilejio guziakin: Maria Santisimaren sabel birjinalan gizon egin nai izan zuen bada Jaungoikoaren Semeak gu erredimitzeko, edo gu betiko infernutik libratzeko: eta guri nola bizi erakusteko: eta ona misterio bat, iñoiz ere aztu bear ez gendukeana: eta orain al dezuen atenzio guziarekin aditu bear dezuena.

Gure dotriñako katezismo laburrak galdetzen du, **G.** Jesu-Kristo gure Jauna nola sortua, edo konzebitua izan zan, eta jaio zan Ama Birjiñagandik? Eta eranzuten du hitz batean Jaungoikoak egiten zuala obra milagrosoa. Esan nai du etzala Jesu-Kristo gure Jauna konzebitua izan beste aurrak bezela gizonaren obraz, bai-

zik Espiritu Santuaren obraz, eta birtutez: eta orobat jaio zanean ere, etzala beste aurrak bezela jaio, bere Amari kalte, edo dañu bere gorputzaren Birjinidadean egiten ziola; baizik jaio zala milagrosamente, bere Ama Santisimak kalterik, edo dañurik batere izan bage bere gorputzean: au da, Birjiña, edo donzella geratzen zala.

Jesu-Kristoren jaiotzako misterio atsegiñezkoa beste dotriña batean aditzera emango dizuet: gaur bakarrik esan nai dizuet, nola gertatu, edo obratu zan Jesu-Kristoren konzepzio, sortze, gizon egite, edo Enkarnazio guztiz miragarria Maria Birjiña Santisimaren errai garbietan.

**G.** Jaungoikoaren Semea nola izan zan konzebitua, eta gizon egin zan? **E.** Ara nola esaten duen Ebanjelio Santuak. Jaungoikoak bidaldu zuen San Gabriel Aingerua Nazaret zeritzan Galileako Ziudadera, Maria zeritzan Birgiña bategana; zeña desposaturik arkitzen zan, Dabid Erregearen jatorriko gizon, Jose zeritzan batekin. Aingeruak, Maria Birjiñaren gela, edo aposentara sarturik, esan zion: Agur Maria, edo Abe Maria graziaz betea, Jauna da zurekin: bedeinkatua zera zu andre guzien artean: hitz oek aditu zituanean turbatu zan Maria: eta bere artean pensatzen jarri zan, zer

izan zitekean salutazio ura: Aingeruak orduan esan zion: etzaitezela bildurtu Maria, Jaungoikoaren aurrean grazia zuk arkitu dezu: zure sabelean sortuko, edo konzebituko dezu, eta argira emango dezu seme bat, Jesus deituko diozuna: au andia izango da: eta Altisimoaren, au da Jaungoikoaren Semea deituko, edo izentatuko da: bere Aita Dabiden tronoa Jaunak emango dio Jakoberen etxean beti erreinatuko du: eta bere erreinuak fiñik, edo bukaerarik izango eztu.

Birjina Santisimak Aingeruari galdetu zion: Nola ori izango da; bada gizonik ezagutzen ez det? (Eta hitz oetan aditzera eman zuen Birjinidadea beti gordetze-ko promesa eginik zeukala Elizako Padre Santuak erakusten duenez:) Aingeruak eranzun zion: Espiritu Santua zuregana jatxiko da: eta Altisimoaren, edo Jaungoikoaren birtuteak itzal egingo dizu: eta orregatik zugandik jaioko dan frutua, Jaungoikoaren beraren Semea deituko da: eta orra zure lengusu Isabel, bere zarzaroan, oraindano anzu, edo aurrik izan bagea, sei illabeteko aurdun dago; bada Jaungoikoarentzat inpossiblerik ezta. Sinistu zuen Birjiña Santisimak Aingeruak esan zion guzia: eta bere baiezkua, edo konsentimentua eman zuen, esaten zuela: «ona Jaunaren sierba, edo esklaba: egin bedi nigan zure hitzaz kon-

forme». Eta instante artan Jaungoikoaren Semea konzebitua izan zan, edo gizon egin zan Espiritu Santuaren obraz, eta birtutez Maria Santisimaren errai garbietan.

**G.** Zer obra egin zuan orduan Espiritu Santuak? **E.**

1. Espiritu Santuak Aitarekin eta Semearekin batera Maria Birjiñaren odol piska batekin formatu zuen gorputz bat: 2. instante artan ezerezetik egin zuen anima bat: 3. instante artan anima, eta gorputza juntatu, edo batu zituan alkarrekin: eta 4. instante artan bertan animarekin, eta gorputzarekin unitu zan Trinitadeko bigarren persona, Aita Eternoaren Semea, persona humanorik an sartu bage eta orrela leen Jaungoiko baizik etzana, arrezkero da Jaungoiko, eta gizon egiazkoa: eta deritza Jesu-Kristo.

**G.** Zergatik diogu Espiritu Santuaren obran, eta birtutez egin zala Enkarnazioko misterioa, Aitak, eta Semeak orobat egin bazuen? **E.** Zergatik Espiritu Santuari atribuitzen, edo ematen diozkagu amoriozko obrak; Aitari poderioarenak, eta Semeari sabiduriarenak bezela: eta Jaungoikoaren gizonaganako amorioa iñun ere agertzen ezta obeto Enkarnazioko misterio miragarri onetan baño.

**G.** Zeiñ etxetakoa edo familiakoa zan Maria Birjiña Santisima? **E.** Zan Dabid Erregearen etxekoa, familia-koa, edo jatorrikoa: eta orobat zan bere esposo San Jose bere eskuetako neke, eta arotziako lanarekin bizi bazan ere.

**G.** Maria Santisima ezkondu, edo desposaturik bazegoan San Joserekin, zergatik turbatu zan, Seme bat izango zuela, Aingeruak esan zionean? **E.** Zergatik, Elizako Doktore santuak diote, Birjinidateko boto, edo promesa egiñik zeukela.

**G.** Zergatik bada ezkondu zan, boto ori egiñik bazeukan? **E.** Orretako Jaungoikoaren berariazko ordena izan zuen: eta bazekian birjinidatea gordetze-ko enbarazorik San Joseren aldetik izango etzuela. Eta ona zergatik Jaungoikoak disponitu zuen bere Ama Santisima San Joserekin ezkontzea. 1. Jaungoikoaren Semearen gizon egitea, edo Enkarnazioko misterio guztiz miragarria ezkutuan egon zedin, Jaungoikoaren miseriardiaren, eta justiziaren disposizio, eziñ barrendu ditezkeanai ondo zegokien denboraraño. 2. Birjiña Santisimak bere honra, eta estimazioa galdu etzezan, ezkondu egon gabe Ama egiazkoa zala Juduak ikusi balue. Eta Jesu-Kristo bera Seme ilejimito edo bortatzat eduki etzezen, misterioaren berri etze-

kitenak. 5. Birjiña Santisimak bere neke, eta trabajuetan izan zezan nork lagundu: bada munduko naibageetatik eskusatu nai izan etzuen: pazienziaren bidez koroa andiagoa Zeruan irabazi zezan, eta bere Semea bezela, guzion ispillu orretan ere izan zedin. Eta 4. San Ignazio Martir, San Juan Ebanjelistaren diszipuluak erakusten duen bezela, Infernuko deabrua engañatu zedin ezkonza onekin; eta uste izan zezan Jesu-Kristo gizon utza zala; eta ala kunplitu, edo osatu zitezzen Jaungoikoaren dekretuak, Salbadorearen eriotzaren gañean: bada deabruak ziertu ezagutu balu, Jesu-Kristo Jaungoikoaren Seme Unijenittoa zala, etzuen illerazoko: eta bai eragotziko zuen bere aldetik danez Jesu-Kristo illtzea; aren eriotzaren frutua gizonari aplikatu etzegion; eta bere mendetik atera etzedin.

**G.** Eta Maria Santisima Enkarnazioko misterio au obratu zan ezkeru, Jaungoikoaren Ama egiazkoa da? **E.** Bai, zergatik aren Seme Jesu-Kristo batetan da Jaungoiko, eta gizon egiazkoa: eta nola eztan Jesu-Kristo persora bat baizik, eta Jaungoikozkoa; persona orren Ama naitaez Jaungoikoaren Ama da.

**G.** Eta Maria Santisima beti izan da Birjiña? **E.** Bai, beti izandu da Birjiña: Semea egin baño lenago Birjiña zan: Semea egitean, edo argira ematean Birjiña gera-

tu zan: eta arrezkero ere beti Birjiña izan zan: eta ori da pribilejio bat, emakume guzien artean Maria Santisimak bakarrik izan duena, au da, batetan Ama egiazkoa, eta Birjiña izatea: eta anziñatik Isaias Profetak eskribiturik utzi zuen, Mesiasa, au da Jesu-Kristo jaioko zala Birjiña bategandik. Birjiña batek, dio Isaias Profetak, Seme bat sortu, edo konzebituko du, eta argira emango du: eta Seme au Emanuel deituko da: eta esan nai du: Jaungoikoa gurekin: edo Jaungoiko gizona. Eta argatik Kristau guziok deitzen diogu Maria Santisimari Ama Birjiña: eta Kredoan Ama Eliza Santarekin batera aitortzen, eta konfesatzen degu, Jesu-Kristo gure Jauna jaio zala Maria Birjiñagandik. *Natus est ex Maria Birgine:* Eta ona orain gaurko dotriñatik guziok atera bear degun frutua.

Gogora sarri ekarri dezagun bada, N.K., nola Jaungoikoaren Semea, bere Aita Eternoarekin, eta Espiritu Santuarekin, Jaungoiko egiazko bakar bat dana; iñoren bearrik ezertarako eztuena: guzielduna, edo guztiz poderosoa; eta gauza guzian Jaun, eta jabe soberanoa, ainbesteraño jaitxi, eta humillatu dan gizona salbatzeagatik, nun bera gizon egin dan: eta gizonaren pekatuen zorrak beragan artu izan dituan eta orien pagua, edo satisfakzioa Jaungoikoaren justiziara ema-



teko Gurutzeko eriotza gogor, eta lotsagarri bat sufritzera jarri dan: eta orrela infernuko demonioaren mendetik atera, edo libratu gaituan, eta Jaungoikoarekin paketu, edo errekonziliatu nai izan gaituan. Eta orrez gañera Zeruko bidea bere ejemploarekin, eta dotriñarekin erakutsi ezeze, pekatutik libratzeko, eta bizimodu santu bat egiteko bear degun grazia, eta indar guzia ematera etorri zan. Orra, N.K., Jaungoikoaren ontasuna, eta misericordia zein miragarria dan: orra Jaungoikoaren gizonaganako amorioa zein andia, eta arrigarria dan: orra zenbateraño Jaungoikoak zuen Anima gaixoak estimatzen dituen: Eta guk zer egin bear degu, Jaungoikoaren amorio miragarri oni ondo eranzuteko? Lotsatu gure oraindañoko esker gabetasunaz: eta gure Animako salbazioarentzat izan degun arduragabetasunaz: eta egunoroko millarezko eskerak eman; kondenatu ez gaitualako, eta salbazioko bidera ekarri gaitualako: 2. gere buruak osoro berari eskiñi, eta entregatu: eta 3. Jaungoikoa gauza guziak baño geiago amatu, eta aren borondate santua egiteko alegin guziak egin: eta orretako Jesu-Kristori, eta bere Ama Birjiña Santisimari jarraio, batez ere humillak izatean, eta animako, eta gorputzeko garbitasuna gordetzean: gure amorio propio erabagea, edo desor-

denatua ukatzen, ezitzen, eta mortifikatzen degula, eta gure zorion, eta felizidade egiazkoa billatzen degula, ez mundu triste onetako honra, ondasun, eta gorputzaren atsegiñetan; bada oriek laburrak, eta iraupen gutxikoak dira; eta gure biotzak ezin ase, eta kontentatu ditzake: baizik eternidade guzian iraungo duen Zeruko honra, ondasun, eta atsegiñetan: bada oriek beti gozatzeko Jaungoikoak egin gaitu: eta oriek osoro gure biotzak ase, eta kontentatuko ditue. Ala izan dedilla Amen.

# OGEITA BATGARREN DOTRIÑA

*1. Santa Isabelen bisitazioa.*

*Eta 2. San Jose gloriosoaren naigabea bere esposa Maria Santisima aurdun ikusi zuenean: eta nola Jaungoikoak argitu, eta konsolatu zuen.*

Orain urrengo aldian aditu zenduen ezkerro, nola obratu zan Maria Birjina Santisimaren errai garbietan Espiritu Santuaren birtutez Jaungoikoaren Semearen gizon egitea, edo enkarnazioko misterio miragarria; onen ondoren, Jesu-Kristo Jaungoiko eta gizon egiazkoa jaio baño lenago gertatutako misterio aundi bi aditzera eman nai dizuet, N.K., eta bietan ikusiko dezue, nola Jaungoikoak agertu zuen bere Semearen gizon egitea, edo Enkarnazioa, mirari andiak orretarako egiñaz; eta dotriña miragarriak guziori erakutsiaz.

**G.** Zer misterio gertatu ziran bada, Jesu-Kristoren gizon egitea, jaio ere baño lenago agertu zuenak? 1. Maria Santisimak bere lengusu Sanla Isabeli egin zion bisita: eta okasio orrekin gertatu ziran mirariak: eta, 2. Aita San Jose gloriosoak izan zuen pena, naigabe, eta turbazio andia Maria Santisima aurdun ikusi zuenean,

misterio ori jakin baño lenago: eta orduan Aingeruak eman ziozkan Enkarnazioko misterioaren berri onak: eta beste dotriñaren erara misterio oek biok aditzera emateko: galdetzen det.

**G.** Zer egin zuen Maria Santisimak Aingeru San Gabriele gandik jakin zuenean, bere lengusu Isabel bere zarzaroan sei illabeteko aurdun arkitzen zala? **E.** Etzan batere arrotu Zeruak orduan eman zion Jaungoikoaren Amaren dignidade, eta honra paregabearekin, baizik zenbat altxatuago Jaungoikoaren aurrean ikusi zan, anbat humillago bere barruan gelditzen zala, humiltasuna, eta karidadea ejerzitatzen zituala, eta bere sabelean zeukan bere Seme Jesu-Kristoren espirituari jarraitzen ziola, bereala, eta lasterka joan zan bere lengusu Santa Isabel bisitatzera, bide luzea, eta nekosoa bazegoan ere Nazaretgo erritik Santa Isabelen erriraño: au zegoan ezkondurik Zakariasekin: eta biak ziran justuak, iñori zer esanik ematen etziobenak, Ebanjelio Santuak dionez: eta ozta Maria Santisima aen etxean sartu zan, lenengo bere lengusu Isabel topatu zuen, eta bereala Maria Santisimak salutatu zuen.

**G.** Eta instante artan zer gertatu zan? **E.** Santa Isabelen sabelean zegoan sei illabeteko aurtxoa (Jesu-

Kristoren bide aurreko, edo prekursore izateko Jaungoikoak esleiturik zeukan San Juan Baupista) bat batetan Zeruko argiz beterik, eta santifikaturik arkitu zan: eta ezagaturik, Jaungoikoaren Semea, eta onen Ama Santisimak egiten zioben mesede, grazia, eta honra andia; pozezko salto miragarri batzuek eman zituan, eta eziñ hitz egin bazuen ere, Amaren sabeletik, al zuan moduan bere esker ona, edo agradezimentua agertu zuen.

**G.** Eta orduan zer beste gauzarik gertatu zan? **E.** Ozta Santa Isabelek bere Semearen salto prodijiosoak igerri, edo sentitu zituan; nun bereala Espiritu Santuak argitu zuen: eta ezagutu zuen bere aurrean zeukana munduko Salbadorearen zorioneko Ama egiazkoa zala: eta beregan pozez ezin kabiturik, deadar aundi batekin Maria Santisimari esan zion: bedeinkatua zu zera andre guzien artean; eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua: Eta nundik niri onen ditxa, edo zorion andia, nun, nere Jaunaren Ama ni bisitatzera datorkidala! Nere sabelean daukadan aurrak zure prezencia sentitu, eta zure boza aditu du; eta pozez saltoka abiatu da: zorionekoa zu, Jaungoikoak agertu dizun guzia, batere duda bage sinistu dezuna: Jaunak berak zugaran asi dituan gauza aundiak osatuko, edo kunplitu-

ko ditu. Au guzia Santa Isabelek esan zion Maria Santisimari.

**G.** Eta orduan Maria Santisimak zer eranzun zien?

**E.** Agertu zuen bere humiltasun guztiz andia; eta humilltasunaren balioa Jaunaren begietan: eta modestia andi batekin, Jaungoikoari eskerrak ematen ziozkala, esan zuen orain egunero bezperetan kantatzen dan Magnifikatzeko kantiko miragarria.

**G.** Eta zenbat denboran egondu zan Maria Santisima Santa Isabelen etxean? **E.** Iru illabetean detenitu zan, bere sabelean zeukan Jesu-Kristoren presenziarekin ekarri zien grazia geiago, eta geiago amentatzeko; eta orrela preparatzeko, edo prestatzeko bere Seme Dibinoaren prekursore santua, Jaungoikoak auturik zeukan enpleo, edo kargu andirako. Eta gero zorioneko etxe ura ala santifikatu, eta Zeruko bendizioz bete ezkeru, itzuli zan Maria Santisima Nazaretgo bere etxera. Eta ona orain N.K., atseginezko misterio onetatik atera bear degun frutua. 1. Maria Santisimaren, eta bere lengusu Santa Isabelen humiltasunari jarraitzea: bada bata, eta besteak ain fabore, eta honra andiak errezibitu ezkeru, etziran batere arrotu, eta altxatu: baizik ezagutu zuen eren ezereza, eta guzia Jaungoikoaren ontasunari atribuitu zioben, eta

berari eskerrak eman zioben. Eta ala guk ere, egiaz humillak izateko, ondo ezagutu bear degu gere ezereza; eta gerez gauza onik batere egiteko gai ez gerala; eta gerez ezer merezi ezteguna: eta Jaungoikoak ala ere bere ontasun utsagatik graziaren bat, edo mesederen bat egiten digunean, berari eskerrak eman bear diozkagu: eta batez ere Jaungoikoaren Semeak, Jesu-Kristo gure Jaunak komunio santuan gure biotzera etortzeko mesede, eta honra guztiz andia egiten digunean, Santa Isabelek bezela esan bear degu. Nundik niri onenbeste ditxa, nun nere Jaungoikoa bera, nere jabe soberanoa, Jaun guzien Jauna, Errege guzien Erregea, ni bisitatzera, eta bere graziaz ni betetzera nere biotzera en persona datorkidala! Eta konsiderazio oni dagozkan eskerrak ematen aritu bear gera.

Eta 2. misterio onetan aldizka gogora ekarri bear ditugu, Maria Santisimak, eta Santa Isabelek eren biotzetan izan zituan pozaldi, atsegiñ, eta konsuelo miragarriak: ikusirik eren sabeletan zeuzken semeen artean igaro ziran gauza prodijiosoak: Jesu-Kristok San Juan Bauphistari zion amorio andia: bada orduan bertan santifikatu zuen, au da pekatu orijinaletik garbitu zuen: bere grazia, eta birtuteak eman ziozkan: eta baita arrazoiaren argia, eta ezaguera oso bat bertati

komunikatu zion: eta ala San Juan Baupstak bere amaren sabeletik ezagutu, eta adoratu zuen bere Salbadorea: eta bere esker ona erakutsi zuen, orduan eman zituan pozezko salto miragarriakin. Eskatu degiogun bada guk ere Jesu-Kristori, bitarteko ipintzen diozkagula bere Ama Santisima, San Juan Baupstak eta onen Ama Santa Isabel, arren argitu gaitzala; eta bere amorioa gure biotzetan irazeki dezala.

**G.** Eta Maria Santisima Nazaretgo bere etxera biurtu ezkeru, zer gertatu zitzaion berari, eta bere esposo San Jose gloriosari? **E.** Naigabe, eta pena guttiz andi bat izan zuen. Nola, edo nundik pena ori etorri zitzaion? Ara nundik; Aita San Jose, eta Maria Santisima alkarrekin bizi ziran, anaia arrebak bezela, edo obeto esateko Aingeru batzuek bezela, birjinidadea osoro gordetzen zuela: eta arako San Josek ikusi zue-nean bere Esposa Maria aurdun zegoela, arekin trataturik izan bage; bere artean turbatu zan, naigabetu zan, eta zer pensatu etzekiela gelditu zan: zergatik, bere sabelean zeukan aurra, Espiritu Santuaren graziz, eta birtutez sortua, edo konzebitua izatea, zan milagro, edo prodijio bat, ezin konprenditu zuena: edo zergatik artean Jaungoikoak misterio ori aditzera eman etzion: edo zergatik, nola aiñ humilla zan, bildur zan bere



esposatzat edukitzean Espiritu Santuak beretzat autu zuena: edo zergatik, Birjiña Santisimaren kontra sospetxarik egitera ezin atrebitu zan: eta beste aldetik ama izatea, eta Birjiña batetan izatea nola zatekean, ezin konprenditu zuen; eta zer egin etzekiala duda guztiz penagarri batean arkitu zan. Alde batetik nai zuen bizi bere esposarekin: bestetik bazeritzon bere burua nolabait kulpadun egiten zuela disimulazioarekin, bestetik ezagutzen zuen nabarbenkiro dibortziatzen, edo bere esposa agerian despeditzen bazuen, Juduakiko bere kredito, eta estimazioa kenduko ziola, eta arrika illerazoko zuela legeaz batera: legeak berak satisfakzioa eskatzea permititzen zion: baña justua zan San Jose, eta naiago zuen sospetxa gaiztorik ez egitea, eta baita injuriak barkatzea ere, iñori dañurik egitea baño: eta ala etzuen satisfakziorik eskatu nai izan: eta bakarrik pensatu zuen, iñori ezer esan bage ixilik alde egitea.

**G.** Etzekian bada Maria Santisimak bere esoso maite San Jose zerk penatzen zuen: eta ezin berak sosegatu zezakean, gertatu zitzaiona aditzera ematen ziola? **E.** Bai guzia zekien: eta erraz sosegatu ere zezakean: baña misterio au guzia Zerukoa zan: eta bera osoro Jaungoikoaren eskuetan utzirik zegoan: Jaungoi-

koak berak ondoen zeritzonean, guzia erremediatuko zuelako esperanza zuen: eta ala ixilik egondu zan: (eta ona ejemplo bat, gure arrotasuna, eta soberbia lotsatzeko, ondo egokia).

**G.** Eta nola argitu, eta konsolatu zuen Jaungoikoak San Jose bere serbitzari maitea? **E.** Bere penen erdian loak arturik zegola, Jaungoikoaren partetik etorri zitzaion Aingeru bat, eta esan zion: akorda zaitez Mesias, edo Salbadoreak etorri bear duen Dabiden etxekoa, edo jatorrikoa zerala; eta ez dezazula bildurrik batere izan Maria zure esposatzat edukitzean, eta ez dezazula pensatu argandik apartatzean: bere sabelean daukan frutua, edo aurra Espiritu Santuaren obraz, eta birtutez konzebitu du: eta argira ematen duenean Jesusen izena ipiñiko diozu: au da, Salbadoreak ipiñiko diozu, edo deituko diozu: mundu guziak jakin dezan, bere puebloa erreskatatzera, eta munduko pekatuak desegitera: edo munduko pekatuakgatik sakrifikatua izatera datorrela. Onela kunplitu da anziñako profezia prometitzen zuena, Birjiña batek seme bat bere sabelean konzebituko zuela, eta argira emango zuela: eta seme ori Emanuel deituko zala, au da Jaungoikoa gurekin.

**G.** Eta ori guzia aditu zuenean zer egin zuen San Josek? **E.** Sinistu zuen, Aingeruak esan ziona: bada ikusten zuen zorionean kunpliturik profezia andi ori: eta bere esposa Santisimaren birtuteak txit ondo zegozkiola Jaungoikoak ematen zion bere Semearen Amaren dignidade paregabeari: eta bereala utzi zituan erretiratzeko artu zituan asmoak: bere burua txit zorionekotzat zeukala Maria Santisima bere espasazat edukitzean: eta bestetan arrezkero pensatu etzuen Jaungoikoaren borondatea egitean baizik. Eta ona orain dotriña onetatik guziok atera bear degun frutua. Emen batez ere adoratu bear degu gure Jaungoikoaren probidenza miragarria: konsidera dezagun sarri gertaera onetan ikusten deguna: au da, Jaungoikoak berariaz askotan berak maiteen dituan personak naigabeakin, eta estutasunakin probatzen dituala: ez gaizki nai dielako, baizik aen birtutea geiago ejerzita-tu erazotzeko, eta sari ugariagoak irabazi eragiteko. Eta ala Jaungoikoak iñor alperrik bere serbizioan nai eztu: guziok naigabe, eta trabajuakin probatu nai gaitu: pekatariak bagera, humillatu, zenzatu, eta beragana biurtu gaitezen, eta gure pekatuen zorra pazienziarekin emen pagatu dezagun: eta justuak, eta Jaungoikaaren adiskideak bagera, birtutearen ejerzi-

zioarekin Zeruko ondasun, eta tesoro andiak oraiñ irabazi ditzagun. Eta ala, N.K., Maria Santisimak, eta Aita San Jose gloriosoak, mundu triste onetan eraman zituen naigabe andiak; eta oen guztizko pazienza, eta Jaungoikoarekiko konformidadea gogora sarri ekarri dezagun; eta biai eskatu degiogun, arren Jaungoikoa-gandik iritsi degiguela bear degun indarra, eta grazia, gure borondatea ukatzeko; gere naigabe guziak Jaungoikoaren izenean gogotik sufritzeko: aren borondate santua gauza guzietan egiteko, orain, eta eternidade guzian Amen.

# OGETA BIGARREN DOTRIÑA

*Jesu-Kristoren jaiotzako misterio atsegingarria.*

Erakutsi dizuedan ezkeren lenagoko dotriña aldie-tan, nor dan Jesu-Kristo gure Jauna: nola sortua, edo konzebitua izan zan Maria Birjina Santisimaren errai garbietan, ez gizonaren obraz, baizik Espiritu Santua-ren birtutez: nola jaio baño lenago agertu zuen, bera nor zan, eta zein maite gaituan guziok, Ama Birjiña Santisimak, Jesu-Kristo bere sabelean zeukala, Santa Isabel bisitatu zuenean, eta orduan aren seme San Juan Bautista santifikatu zuenean: eta sola Aita San Jose, Ama Birjiñaren Esposo maitea, Aingeru baten bitartez konsolatu zuen, agertzen ziozkala Jaungoiko-aren Seme bakar Jesu-Kristoren beraren gizon egite, edo sortze miragarria: eta berarekin eta bere Ama Santisimarekin Aita San Jose zorionekoak berak egin bear zituan lanak: eta nola Jesus, edo Salbadorea dei-tuko zion: gure dotriñari, eta Jesu-Kristoren bizitzari narraiola; gaur aditzera eman, edo gogora ekarri bear dizuet: nola jaio zan Jesu-Kristo bera: eta noiz, nun, eta zein estadu humill, pobre, eta nekagarrian jaio nai

izan zuen. Jesu-Kristok berak argitu gaitzala arren guziok dotriña au ondo ezagutzeko, eta frutu andi bat ateratzeko. Eskatu degiogun biotzetik bere Amaren bitartez, digula orretarako Espiritu Santuaren grazia. Abe Maria.

**G.** Nola jaio zan Jesu-Kristo gure Jauna Ama Birjiñagandik? **E.** Jaungoikoak egiten zuela naturalezaz gañeko lan, edo obra miragarri bat. **G.** Eta orretan zer aditzen degu? **E.** Etzala Jesu-Kristo jaio, edo bere Amaren sabeletik irten beste aurren gisa: beste ume guziak jaiotzen dira Amaren gorputza askatuaz, birjiñatasuna galdu erazoaz, eta oñaza, edo dolore andiak Amari sufritu eragiñaz: baña Jesu-Kristo irten zan Ama Santisimaren sabeletik miragarrikiro, edo milagro andi bat egiñaz, Amaren gorputza askatu bage, bere Birjiñatasuna galdu eragin bage: ara nola gero Jesu-Kristoren beraren gorputza, enterratua, eta arrizko losa andi batekin estalia izan ezkeru, piztu zan, eta obitik irten zan, gañeko losa mugitu bage, eta erabilli bage: orobat Ama Birjiñaren sabeletik irten zan, Amaren gorputza osorik, eta batere kalte bage geratzen zala: bada Jaungoikoarentzat inposiblerik ezta: eta ori aitortzen, edo konfesatzen degu, kredoan esaten degunean, jaio zan Maria Birjiñagandik. Eta orobat, fedeko egia beze-

la sinisten degu, Ama Santisima beti Birjiña izan zala, Semea egiñ baño lenago, Semea egitean, edo bere aurgitean; eta Semea egiñ ezkeru. Eta mirari andi orietatik kontu atera ezazue, Jesu-Kristo gure Salbadore maitagarriak zenbateraño estimatzen duen animako, eta gorputzeko garbitasuna; bada gizon egiazko gugatik egin bazan ere, aragiaren lan zikiñik, edo likitsik batere bage sortua, edo konzebitua izan zan Amaren sabelean: eta Ama Birjiña bategandik jaio nai izan zuen, au, eguzkia baño argiago, ederrago, eta garbiago geratzen zala bere bizi guzian: eta ikasi dezagun guziok ejemplo onetan animako, eta gorputzeko garbitasuna maitatzen, eta loikeri, edo likitskeri guziak iguitzen, edo aborrezitzen.

**G.** Eta noiz jaio zan Jesu-Kristo gure Jauna? **E.** Bere Ama guztiz santaren sabelean sortua, edo konzebitua izan zanetik bederatzigarren illabetean, abenduaren ogeita bostgarrenean, igande, edo domeka egun batean, gabaren erdian: mundua asi zanetik lau milla urteren inguruan.

**G.** Zergatik izanik Jesu-Kristo guztiz poderosoa, eta sortua izan zan une, edo instantetik, neurribageko jakinduria zuena, donzella, edo Birjiña baten sabelean sarturik, bederatzi illabetean, beste aurrak bezela,

egon nai izan zuen, bere eskuan zeukala, nai zuenean, eta nai zuen gisa munduan argitzea? **E.** 1. Aditzera emateko, egiazko gisatasuna, edo ez iduripeneko artu zuela: eta ala, Jaungoiko bazan ere, beste guziok bezela egiazko gizona ere zala. 2. Gizonaren adiñ, edo estadu guziak santifikatzeko; estadu, edo adiñ guzietatik igarotzen zala, eta guzietatik probatzen zuela: eta 3. Orrela obeto guziori agertzeko bere guztizko humiltasuna, pazientzia, eta karidadea, edo guganako amorioa.

**G.** Zer egiten zuen Jesu-Kristok, bere Ama Santisimaren sabelean egondu zan denpora luzean? Beste aurrak bezela ezaguera bage eta sentimentu bage ote zegoan? **E.** Ez N.K.: orain duen neurribageko jakinduri guzia orduan ere bazuen: orain duen, eta beti eduki duen bere Aita Jaungoikoaganako, eta gure guziokganako kabubageko amorioa orduan ere bazuen: Zer egiten zuala bada Amaren sabelean uste izan, edo konideratu bear degu, baizik birtute guziak, eziñ esan al baño perfekzio andiagoarekin orduan ere ejerzitzen aritu zala? Nork esan orduko Jesu-Kristoren, Aita Eternoaren Seme bakarraren, gure Erredenptore, Maisu, eta Salbadore maitagarriaren; eta Zeruaren, eta lurraren jabe soberanoaren humiltasun parega-



bea: aren pazientzia: aren obediencia: eta aren karidade guztiz irazekia, bere Aitarekiko, eta gurekiko? Eta nola instantero bere Aita Eternoari ofrezitzen zion bere buruaren sakrifizio osoa bere Majestadearen honrarako, eta gure guzian salbaziorako? Alabatua beti izan dedilla bada onelako ontasuna, eta amorioa.

**G.** Nun jaio zan Jesu-Kristo gure Jauna? **E.** Belengo errian, edo ziudadean. **G.** Etziran bada bizi Nazaretgo errian aren Ama Santisima, eta bere esposo maite San Jose? Zergatik Belena etorri ziran neguaren erdian, lau eguneko bidea zegoalarik batetik bestera? Jaungoikoaren probidenzia miragarriak ala zeukan disponiturik, eta aurrez Profeta Mikeasen aoz aditzera emanik: eta ona ori kunplitzeko, Jaungoikoak nola gauzak zuzendu zituan: eman zion Erromako Enperadore Zesar Augustori gogoia jakiteko, bere mendeko Erreinu, eta erri guzietan zenbat persona zeuden, eta agindu zuan, guziak beren jatorrietan, edo eren aurrekoen familiak zeuden errietan asentatu, eta guzien lista eskribitu, eta bidaldu zegiela: eta nola Aita San Jose, eta Mari Santisima ziran Dabid Erregearen jatorrikoak: eta Dabiden ondorengoak Belenen zuen eren jatorria; Enperadoreari obedezitzeagatik, eta orretan Jaungoikoaren borondatea egiteagatik joan ziran Belena;

Enperadore guzien, eta Errege guzien jabe soberanoa  
Ama Birjiña Santisimak bere sabel guztiz garbian zera-  
mala.

**G.** Eta zein tokitan jaio zan Jesu-Kristo gure Jauna  
Belengo errian? **E.** Jende tropel andia okasio, edo  
motibo orrekin Belena etorri zan: ostan guziak jendez  
beterik zeuden: eta Zeruko Erregiña Maria Birjiña San-  
tismak, eta Aita San Josek etzuen arkitu ostaturik  
nork eman: baña ori gure Jaungoikoak berariaz ala  
zuzendu nai izan zuen; erakustera zetorkigun pobre-  
zaren ejemplo miragarri bat guziori emateko: erritik  
kanpora bada Belengo portale, edo atearen gertuan  
txaola, edo abere toki triste batean nolabait akomoda-  
tu bear izan ziran; eta antxe, gabaren erdian Ama Bir-  
jiña Santissima orazioan, eta misterio onen kontenpla-  
zioan zegoala eldu zan Jaungoikoaren Seme bakar  
Jesu-Kristo gure Jauna, gugatik gizon egiña, jaiotzeko  
zorioneko ordua: eta Ama Santismaren sabeletik irten  
zan kanpora, len esan dizuedan bezela, Ama Birjiña  
Santismak oñazerik batere, eta kalterik batere bere  
gorputzean izan bage: eta, Nork esan ditzake orduko  
Ama Birjiñaren, eta Aita San Joseren biotzetan mugitu  
ziran afekto, edo sentimentu miragarriak? Bertatik  
humiltasunik, errespetorik, esker onik, eta amioririk

irazekienarekin adoratu zuen Jaungoikozko aur guztiz maitagarri ura, eren jabe soberanoa bezela, eta guzion Egille, Erredenptore, Maisu, edo gidari, eta guzion Salbadore egiazkoa bezela. Eta Ama Santisimak bere beso bedeinkatuetan artu zuen, laztandu zuen, bere bularreko titia eman zion: oialtxo garbi batzuetan batu zuen, eta aberenzat zegoan aska batean lasto pista baten gañean, eta animalien aldean paratu zuen. Eta orra, N.K., Zeruaren, eta lurraren jabe soberanoak, munduko palazio, eta jauregi guziak utzirik berariaz autu zuen jaiotzeko toki humilla, pobrea, eta nekagarria.

**G.** Zergatik ordea uste dezue bere buruarenezat etzuela nai izan munduko honra, eta anditasunik: munduko aberastasunik, edo ondasunik; eta are gutxiago bere gorputz minbera, sentikor, eta delikaduenarenezat gustorik, eta atsegintasunik? **E.** Zergatik zetorren Zerutik lurrera, ez bakarrik bere biziaren, eta odolaren kostuan gu pekatutik, edo Deabruaren kati-beriotik libratzera, eta bere Aita Eternoarekin adiskidetzera, eta bere grazia, eta Zeruko deretxoa guretzat iristera; baita ere zetorren Zeruko maisu, erakusle, gidari, eta gure gaitz guzientzako sendatzaile, edo mediku izatera. Eta nola zekusen, Adanen hume guziok,

jatorrizko pekatuan sortuak bezela, itxuturik geudela: gure egiazko zorionaz, edo Zeruko betiko gloriaz, eta ango honra, ondasun, eta atsegintasunaz azturik bizi giñala: gure ditxa, eta kontentu guzia munduan baka- rrik billatzen genduala: emengo honra, eta estimazio- ak; emengo ondasunak, eta aberastasunak; eta gor- putzaren gurariak, eta gustoak, gure biotzeko deseo, eta amorio guzia beren ondoren eramaten ziguela: eta ori zala gure pekatu guzien, gure itxumen guzien, eta gure eragabeko griña gaiztoen sustrai pozoatua: eta ortik zetorkigula batez ere soberbia, edo andinaia; abarizia, edo gutizia gaiztoa: loikeria, edo aragiaren likiskeria: ira, edo aserre eragabea; gula, edo jan-eda- nerako eragabeko griña fortiza: enbidia, eta gorrotoa; eta gauza onak egiteko nagitasuna, eta nekearen igui- tasuna: ori guzia zekusena bezela, gaitz oriek guziak sendatu nai zituanak bezela, eta Zeruko bide zuzena erakutsi nai zigunak bezela, etzan bere Ebanjelioko dotriña santua gero erakustearen zai egon, baizik jaio zan instantetik, edo unetik bere ejenploarekin, au da, bere bizimodu humill, pobre, eta nekatuarekin biziro erakutsi nai izan zigun, gure animen egiazko zoriona, eta biotzeko pake, eta atsedena alperrik billatuko gen- duala munduko gauzetan: eta Zerukoak, beti iraungo

duenak, eta gure biotzak betiko aseko dituenak guzien gañetik deseatu; eta billatu bear ditugula: eta orduan egiazko pakea, eta betiko zoriona iritsiko genduala. Eta nola dotriña miragarri au gure adimenu laburrak eziñ konprenditu zezakean gure pasio eragabeak dakarkiguen itxumenarekin: erakutsi nai izan zigun argiro, aiñ pobre, aiñ humill, eta ainbeste neke sufritzera bazetorren ere, bera zala Aita Eternoaren betiko Seme bakarra: Zeruari, eta lurraren jabe soberanoa: Jaungoiko eta gizon egiazkoa, gure salbaitzalea: eta gure maisu bakar egiazkoa, eziñ engañatu zitekeana, eta eziñ engañatu ginzakena. Eta ala beragan sinistu, eta berari jarraio bear diogula.

**G.** Nola jaio, eta bereala erakutsi zigun bera nor zan, eta zertara zetorren mundura? **E.** Bere Jaungoikotasunaren, eta gizatasunaren prueba, eta testimonio guztiz asko, eta andiak, eta ikusgarriak eman zituan aurretik, eta ondoren: baña bere jaiotza humill, eta pobreak denboran argiro ori bera, Aingeruak, arzaiak, eta iru Erregeak eman zioten adorazioarekin, erakutsi nai izan zuen. Zeruko Aingeru guziak bertatik beren Jaungoikoa, Egillea, eta jabe soberanoa bezela adonatu zuen. Eta Aingeruai agindu zien, bere jaiotzako berri ona, eta atsegingarria bereala eraman zegie-

la Belengo inguruan ganadu zai arkitzen ziran artzai batzuei; eta bertatik obedezitua izan zan: bada Espiritu zelestial aetatik bat joan zan arzaietara, eta aen aurrean alako erresplandore, edo argitasunez beterik agertu zan, nun guziak ikaratu, edo bildurtu ziran: baña Aingeruak bereala konsolatu zituan: esan zien, estezue zer bildurtu, zuentzat, eta zuen pueblo guziarentzat atsegiñezko berri ona dakarkizuet. Gaur jaio da zuen, eta guzien Salbadorea; bera dan zuen animen salbatzallea, eta zuen Jauna, eta Jaungoikoa: bere jaiotzarako autu nai izan du Belengo erria, Dabid Erregearen Ziudade ori: or arkituko dezue oialtxo pobre batzuetan biturik, eta aska batean ezarririk: orra bera ezagutzeko señaleak. Eta ozta Aingeruak arzaiai ori esan zien, an bertan espirtu Zerutar askoren bozak, eta atsegiñezko kantak aditu zituen: Jaungoikoa alabatzen zuela: eta esaten zuela: *Gloria in excelsis Deo, et in terra pax hominibus bonae voluntatis*. Gloria; eta honra Jaungoikoari goi orietan: eta pakea lurrean borondate ona duen gizonai: eta kantikori bukatu, eta Aingeruak desagertu ziran.

**G.** Eta orduan artzaiak zer egin zuen? **E.** Eren artean alkarri esan zioten: goazen Belena: Jaungoikoak egin duen; eta agertu nai izan digun mirari andi au

ikustera: eta bereala lasterrari eman zioen: eta arkitu zuten Ama Birjiña Santisima, eta bere esposo San Jose establoan; eta billatzen zuten aur dibinoa, an eren begiz ikusteko, zoriona, eta konsuelo andia izan zuten: aska batean ezarririk arkitu zuten: bera zala, Aingeruak esan zien, Salbadore, eta Mesias egiazkoa, Zeruko argiarekin sinistu zuten: eta al zuten errespeto guziarekin adoratu zuten: eta ikusi, eta Aingeruai aditu zien guzia eren ezagun, eta adiskideai alako modu senzillo, eta naturalarekin kontatzen zien: eta guziak ain gertaera miragarriaz arriturik gelditzen ziran.

**G.** Eta Juduai ezeze Jentillai, eta fedebageai bere jaiotzako berri andiak gure Jesus onak bertatik eman ote zien? **E.** Bai: bada Orientean izar berri bat, beste izarrak ez bezelakoa berariaz orduan sortu, eta agertu eragin zuten, bera jaio zala aditzera emateko: eta iru Errege bera adortzera alde artatik etorri ziran: baña ori nola izan zan beste dotriña batean berariaz aditzera emango dizuet.

**G.** Zer beste gauzarik gertatu zala, dio Ebanjelio Santuak, artzaiak Jesu-Kristo adoratu ezkeru? **E.** Dio eze Maria Birjiña Santisimak orduko hitzak, eta gauza guziak bere biotzean gordetzen zituala, eta beti ausnartzen, edo konsideratzen ari zala: eta artzaiak atse-

giñez, eta kontentuz beterik itzuli zirala Jaungoikoa alabatzen, eta glorifikatzen, aditu, eta ikusi zituen mirari guziakgatik.

**G.** Eta guk zer egin bear degu, Jesu-Kristo gure Jauna guretzat orobat jaio zan ezkeru? **E.** 1. Adoratu bear degu gure Jaun, eta jabe soberanoa bezela, eta eskiñi, edo ofrezitu bear diozkagu biotz osotik gure anima, eta gorputza, gure adimentua, memoria, eta borondatea, berea gauza guzietan egiteko deseo bizi, eta eragille batekin. 2. Eskerrak gogotik eman bear diozkagu gu salbatzeko egiñ dituan alegiñ andiakgatik, eta eraman dituan neke gogorakgatik: eta 3. Eskatu bear diogu benetan humiltasun, eta konfianza andiarekin, arren gure biotzetan betiko jaio dedilla bera, eta gudan beti agindu dezala; au da, digula bere espirituaz animaturik bizitzeko grazia, eta orretako Adan zarragandik ditugun griña gaiztoak goitzeko edo menderatzeko, digula bear degun Zeruko laguntasuna, eta indarra: eta emendik aurrera Adan berriaz, edo Jesu-Kristoz beraz janzirik, eta pizturik bizitzeko gogo bizi eragillea au da Jesu-Kristoren antzera, gure Jaungoikoa gauza guzien gañetik, gure biotz guztitik bera danagatik amatzeko: eta gure lagun urkoak, edo projimoak gure buruak bezela Jaungoikoagatik esti-



matzeko, eta maitatzeko bear degun karidadearen doai estimagarria: eta ori beti gordetzeko, kandado bizi bati, lagundu bear dioben, eta bere ejemploarekin, eta dotriñarekin erakutsi zizkigun birtuteak gure biotzetan sortu ditzala: eta dirade batez ere. 1. Biotzeko, edo gogozko pobreza. 2. Mansotasuna, edo injuriak pazienziarekin eramatea. 3. Pekatuaren iguitasuna, eta sentimentua. 4. Birtutearen gose-egarria, edo deseo irazekia. 5. Projimoaren errukia. 6. Biotzeko garbitasuna. 7. Guziakin pakea. Eta 8. Persekuzioetan birtuteari irmo jarraitzea. Bada oriena da Zeruko Erreina. Jaungoikoak ori guziori digula. Amen.

# OGEITA IRUGARREN DOTRIÑA

*Jesu-Kristoren Zirkunzisioko misterioa:  
eta Jesusen izena.*

Kredoan, eta fedeko artikuluetan Jesu-Kristoren jaiotza santuaren ondoren bereala aren pasio, eta eriotza santuaren misterio andiak erakusten zaizkigu: Jesu-Kristoren aurtasuneko, eta bizitzako misterio, eta gertaera andiak aitatu bage. **G.** Eta ori zergatik dala uste dezue? **E.** 1. Zergatik Jesu-Kristoren etorrera mundura izan zan batez ere bere pasio, eta eriotza borondatezkoarekin gure pekatuen zorrak pagatzera: eta pekatuaren, eta deabruaren mendetik, eta katibebriotik guziok ateratzera; edo libratzera: eta 2. Zergatik etzan erraz, eta ez egoki Kristau guziaz era batera Jesu-Kristoren bizitzako gertaera guziak erakusten; eta ikasi eragitea. Baña Eliza Ama Santak agitz deseatzten du, Kristau guziak Jesu-Kristoren bizitzako, eta aren Ebanjelio santuko egia andiak ondo ezagutzea, aekin batera eren bizimodua moldatzeko, edo zuzentzeko. Eta argatik Jesu-Kristoren misterio prinzipalak festa andiarekin zelebratu oi ditu: eta Elizako arzai,

eta dotriña erakusleai enkargatzen, eta agintzen die, misterio orien, eta Ebanjelio Santuaren dotriñak Kristau guziaz Elizako ofizioetan domeka, edo igande, eta beste jai andietan aditzera ematea. Eta (nola sei dotriña aldietan Adanen denboratik Jesu-Kristo gizon egin zan arteko bitartean gertatu ziran, eta Eskritura Santak aitatzan dituan gauzarik miragarrienak aditzera eman nizuen) orain dotriña banaka batzuetan, Jesu-Kristoren pasioraño, aren aurtasuneko, eta bizitzako misterio prinzipalenak, eta gertaera miragarrienak aditzera eman nai dizkitzuet: eta gaur bakarrik zirkunzisioko misterio aundia azalduko, edo esplikatuko dizuet: eta esango dizuet, noiz, nola, eta zertako Jeru-Kristo gure Jauna zirkunzidatua izan zan, eta nola orduan Jesusen izen miragarria ipiñi zioten. Eta guzian probetxu andiarekin izan dediñ, eskala degiogun Jesu-Kristori berari bere Ama birjiña Santisimaren bitartez Espiritu Santuaren argia, eta grazia. Abe Maria.

**G.** Zeiñ egunez izan zan zirkunzidatua Jesu-Kristo gure Jauna? **E.** Orain arte berri esaten diogun egunean: jaio zanetik zorzigarren egunean: eta jakintsuak erakusten digue, Sazerdote batek zirkunzidatu zuela Ama Birjiña Santisimak bere besoetan zeukala.

**G.** Zirkunzisiaoa zer zan? Nork agindua zan? Eta zertako zan? **E.** Zirkunzisiaoa zan zeremonioa guztiz gogor bat: bada mutiltxoai jaio ta zorzigarren egunean aragi zatitxo bat gañibeta edo kutxillo zorrotz batekin kentzen zien alde minbera batetik, eta oñaze andia ematen zien, eta odola ere isurten zuen. Eta zeremonia ori Jaungoikoak berak Abran Patriarka santuari agindu zion beretzat, eta bere ondorengo, edo jatorriko guzientzat: eta ala zirkunzidatuak izan bear zuen Jaungoikoaren pueblo berezia konponzen zuen Hebreotarrak, Israeldarrak, eta Juduak, Abran Patriarka andiagandik zetozenak bezela: eta orrekin batez ere distingitzen ziran munduko beste jende edo pueblo guziagandik.

**G.** Eta Juduak distingitzeko baizik etzan zirkunzisiaoa? **E.** Bai: orrez gañera zan lege zarreko sakramentu bat, pekatu orijinala, edo jatorrizkoa barkatzen zuena: baña Jesu-Kristok, bera zirkunzidatua izan bazan ere, Abranen jatorrikoa zana bezela, zeremonia gogor ori akabatu, edo bukatu eragin zuen: eta orren orde beste sakramentu bat errazagoa, eta eragilleagoa bere lege berrian ipiñi zuen: eta da bateo santua, pekatu orijinala, eta beste edozein barkatzen duena: Jaungoikoaren grazia, eta Zeruko erreinuaren dere-

txoa ematen diguna: eta Jesu-Kristoren señaideak, eta bere Elizako humeak egiten gaituana.

**G.** Eta Jesu-Kristo gure Jauna obligaturik zegoan zirkunzisioko legeari obedeitzera? **E.** Ez: etzegoan obligaturik, bada bera zan lege emallea, eta legearen jabea: zan inozenzia, eta santidadea bera: pekatu-rik batere etzuana: zeñ izan zezakeana; eta pekatarien, Salbadore egiazkoa.

**G.** Zergatik bada pekataria baliz bezela, zirkunzidatua nai izan zuen? **E.** 1. Abranen jatorrikoa zala gizon zan aldetik, aditzera emateko. 2. Jaungoikoak Abrani eman zion legea honratzeko, eta osatzeko. 3. Pekaturik ezpazuen ere, nola gure pekatuen zorra bere gaiñ artu zuen, orren pena sufritzeko, eta bere odolaren kostuan pagatzeko: 4. Aiñ bearra degun humiltasuna, eta pazientzia ain ejemplo miragarriarekin guziori erakusteko. Eta ala lotsatu bear gaitu gure arrotasunak, ikusirik Jesu-Kristo bera, Zeruaren eta lurraren jabea, Aingeru, eta santu guzien santifikatzailea, pekatuaren silluarekin markaturik bezela zirkunzisi-  
oan: eta odola dariola aiñ oñaza arrigarriak sufritzen gure amorioagatik: eta aiñ goiz, zorzi eguneko aur jaio berria oraindio zalarik.

**G.** Eta aragiaren, edo gorputzaren zirkunzizioarekin zer beste gauzarik erakusten zigun gure Jesus onak? **E.** Biotzeko zirkunzisia: au da, gure buruaren, eta munduko banidade, ondasun, eta atsegiñ, edo gustoen eragabeko amorioa, eta deseoa gure biotzetik kentzea: eta orren lekuan Jaungoikoaren guzien gañeko amorioa: gure lagun urko, edo projimo guzien amorio egiazkoa: eta gure animako salbazioaren deseoa bizia, eta eragillea gure biotzetan sortzea, eta beti konserbatzea: eta orixe da Jesu-Kristoren dotriña, edo Ebanjelio guziaren fiñ prinzipala.

**G.** Eta Jesu-Kristo zirkunzidatu zuenean, zer beste gauzarik gertatu zala dio Ebanjelio santuak?

**E.** Orduantxe (orain bateoan ipintzen dan bezela) izena ipiñi zibela: Jesus deitu zibela: eta izen miragarri ori etzala mundukoak ipiñia, edo autua: baizik Zerutik ekarria, bere amaren sabelean sortu baño lenago: eta Aingeruak berak Maria Birjiña Santisimari, eta bere Esposo Aita San Joseri errebelatua, edo aditzera emana.

**G.** Eta Jesusek zer esan nai du? **E.** Salbadorea, edo libratzallea: eta ori da izen bat Jaungoikoaren seme bakarrari, gugatik gizon egiñ zanari, osoro dagokiona, eta bakarrik dagokiona: izan al ditekean izenik andie-

na, eta honragarriena, Jesu-Kristori bere Aita Eternoak berariaz emana, anbat geiago bere seme propioa honratzeko, zenbat geiago bera bere Aitaren honragatik, eta obedienziagatik, eta gu salbatzeagatik, edo pekatutik libratu, eta Jaungoikoarekin adiskidetzeagatik humillatu, jatxi, eta beeratu zan: bada izanik bere Aita Eternoarekin betidanik Jaungoiko bat, gizon egin zan: gizonaren pekatuak bere gañ artu zituan: pekatariaren antza artu zuen, eta eriotza gogor, eta lotsagarri bat gurutze batean sufritzeraño humillatu zan, eta bere Aitari obedezitu zion. Eta argatik dio San Pablo Apostoluak, Zerukoak, lurrekoak, eta Infernukoak belaunikaturik erreberenziatzen, eta errespetatzen due Jesusen izena.

**G.** Eta zergatik batez ere Jesusen izen miragarria honratu bear degu? **E.** Zergatik bera da Deabruaren ikaratzallea, eta Kristauaren konsolatzallea. **G.** Nola da Deabruaren ikaratzallea? **E.** Zerren, nola Jesusek goitu zituan: eta eren agintea desegiñ, eta kendu zien, asko da guk Jesusi fede bizi, eta debozioarekin deitzea, eta bere laguntasuna eskatzea, Infernuko etsai guziak ikaratzeko, eta guziai igas eragiteko: eta aen tentazio guziak benzitzeko. **G.** Eta nola da Jesusen izena Kristauen konsolatzallea? **E.** 4. Zerren Jaungoi-

koak agindurik, edo eskiñirik dauka, Jesusen izenean eskatzen diogun guzia emango digula gure animen salbaziorako konbeni bazaku. Eta 2. Zergatik ezta Zeruaren azpian beste izenik gu salbatu gaitzakeanik: au da, gu pekatutik atera gaitzakeanik, eta Aita Eternoarekin errekonziliatu, paketu, eta adiskidetu gaitzakeanik: bada Jesusek gure pekatuen pagu, edo sakrifizio osoa Jaungoikoaren justiziarri eman zion: eta sakrifizio neurribageko orren balioa aplikatzen digu, beraz ondo baliatu nai bagera: au da, egiaz humillaturik, eta pekatu egiñaz benetan damaturik, eta bizitza berri bat egiteko asmo, gogo, eta proposito irmo, eta eragillea arturik konfesio on bat egiten badegu: bada orduan Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuaren frutua, au da, guretzat irabazi zuen grazia, Penitenziako Sakramentu Santuan errezibitzen degu: **G.** Zerekin mesede ori, eta ori eragiñ dion guganako amorio guztiz miragarria, eta estimagarria gure Jesus onari pagatuko diogu? Eta zer izango da guzaz, gere itxumenagatik, arduragabetasunagatik, eta eskergabetasunagatik Jesu-Kristok erakutsi zigun Zeruko bideari jarraio nai ezpadiogu? **E.** Zenzatu gaitezen bada arren N.K., jarraio degiogun gogotik Jesu-Kristoren ejemploari, eta dotriñari: eta batez ere zirkunzizioan, eta bere bizitza-



ko pauso guzietan erakutsi zigun humiltasunari, pazienziari, Jaungoikoarekiko, eta gure projimoakiko karidade, edo amorio egiazkoari. Gogoan beti eduki dezagun, ez gerala mundurako egiñak, ezpada Zerurako: eztagoala munduan gure egiazko zoriona: ezpada Zeruko erreinuan: eta ura iristeko egiazko alegiñak egiten ezpeditugu, betiko galduak, betiko zorigaiztoak, betiko Infernura kondenatuak izango gerala: aritu gaitezen bada bertatik gure eragabeko pasio, edo griña gaiztoak menderatzen; eta orretako begira dezagun astiro, zerk eragozten digun Jesu-Kristori, eta ark erakutsi zigun Zeruko bideari jarraitzea: batzuek arkituko dezue, banidadeak, andinaiak, edo soberbiak itxuturik zauzkatela: beste batzuek diruzale, ondasunzale, intereszale gutiziosoak zeratela: eta zuen tratu, eta artu-emanetan irabazi ezker, ondo, edo gaizki dan, oker, edo zuzen dan erreparatzen eztezuela, eta bearbada eragabeko joku andiak, eta kaltegarriak arduragabe egiten dituzuela zuen buruen, eta zuen familia tristearen dañu, edo kalte andiarekin: beste batzuek loikeriara, eta aragiaren gusto, eta atsegiñ zikiñetara emanak zeratela: beste batzuek eragabeko jan-edanetara, eta bearbada ordikeriara; zuen pasio zikiñak, eta lotsagarriak iñoiz ere menderatzeko, edo

goitzeko egiazko erremediorik egiñ gabe, eta arrisku, edo okasioko perill anditik alde egin gabe. Beste batzuek aserrekorrak, puntusoak, enbidiosoak, biraugilleak zeratela: eta beste asko guztiz arduragabeak zuen obligazio jeneralak, eta zuen estaduari, edo karguari dagozkienak ondo ikasteko, eta kunplitzeko. Bakoitzak bada examiñatu, ezagutu, eta juzgatu bear degu gere burua: Jaungoikoari orretako bere argia eskatu bear diogu: eta baita benetan, eta sarri humiltasun, eta konfianza andi batekin Jesusen izenean, arren eman degigula bear degun indarra gure griña, inklinazio, edo apetitu eragabeak goitzeko: eta Kristauari, Jesu-Kristoren jarraitzalle bati dagokion bizimodu on bat egiteko: eta orrela iritsiko degu bertatik animako pake andi bat; eta gero beti iraungo duen oraingo nekearen pagua, edo saria, eta eternidade guziko gloria. Amen.

# OGEITA LAUGARREN DOTRIÑA

*Iru Erregeak Jesu-Kristo adoratu zueneko:  
edo Epifaniako misterio guztiz atsegingarria.*

Jesu-Kristo gure Jauna, egiazko Jaungoikoa eta egiazko gizona zala, nai ta ez sinistu bear degu, salbatuko bagera: bada Jaungoiko bakarrik izan balitz, eziñ ezer sufritu edo padezitu zezakean, eta eziñ ill zitekean: eta gizon utsa izan balitz, eziñ erredimitu ginzakean, eta eziñ gure pekatuen zorra Jaungoikoaren justiziara osoro pagatu zeikion. Eta argatik bere gizon egitean, bere jaiotzan, bere zirkunzizioan, eta bere bizitzako misterio guzietan, baita bere eriotzan ere, argiro erakutsi zigun, persona bakar bat baizik ezpazan ere, au da, persona Jaungoikozkoa bakarrik; persona orretan zeudela uniturik Jaungoikotasuna, eta gizatasuna: edo zuek esaten dezuen bezela, Jesu-Kristok zituala naturaleza bi, bata Jaungoikozkoa, edo dibinoa, eta bestea gizonezkoa, edo humanoa: baña eztagoala Jesu-Kristogan persona bakar bat baizik, eta ori ez gizonezkoa, edo humanoa baizik bakarrik dibinoa, edo Jaungoikozkoa: eta nola persona orrek kabu-

rik, eta neurririk eztuan diñatasuna, eta anditasuna zuen, orren lan guziak, neke guziak, trabaju guziak zuen neurribageko, edo kabubageko merezimentua, balioa, edo prezioa: eta argatik bere gizatasunean sufritu zuen pasio, eta eriotza zan asko adiña, eta sobra, mundu guziko, eta milla mundu balira ere, guzien pekatuak pagatzeko: eta ona fedeko dotriña bat guzientzat txit atsegingarria, eta konsolagarria: eta zuen konsuelo geiagorako diot: Jesu-Kristoren gizatasuna, munduan agertu zanean, ikusgaia zala; arekin tratatu zuen guziak begiz ikusten zuena: baña Jaungoikotasuna eziñ mundu onetan iñork ikusi zezakean. **G.** Zer egin zuela, uste dezue bada, Jesu-Kristok, bera egiazko Jaungoikoa zala sinistu eragiteko? **E.** Alako mirari arrigarriak bere neurribageko poderio, eta eskualdiarekin egiñ zituan, eta alako Zeruko argiarekin askoren adimentuak, eta borondateak argitu, ukitu, eta mugitu zituan, nun batere duda bage sinistu zuen, begiz ikusten zuen, eta kanpotik gizon utsa zirudian gizon mirarigille ura, Jaungoiko egiazkoa zala: eziñ engañatu zitekeana, eta eziñ engañatu gaitzakeana zala: eta ala aren esanak, eta aren dotriña Jaungoiko egiazkorenak bezela artu, eta sinistu bear ditugula: eta eztagoala beste biderik Zerurako. Ala egia,

Jesu-Kristoren Jaungoikotasunaren a­ñ prueba asko, a­ñ ziertuak, eta a­ñ ikusgarriak erakusten dizkigu gure fede santuak Ebanjelioan bertan, eta batez ere prueba guzien andiena, eta guzien sillua, eta osogarrria izan zan bere egiazko erresurrekzioan; au da, egiaz ill ezkeru, eta enterratua izan ezkeru, bera bere birtutez piztutzean, eta orrela bere neurribageko guzialtasuna, edo poderioa a­ñ argiro ikusi eragitean; nun Kristauok poztu, eta konsolatu bear gera, egia orren ezaguerara, eta sinismenera gure Jaungoikoak ekarri nai izan gaitualako. Eta fede bizi batekin gure Jesus onaren bizitzako misterio guziak sinistu bear ditugu, eta orietan erakutsi digun dotri­ari jarraio bear diogu. Gaur bada egia andi ori bera, au da, nola Jesu-Kristo gure Jaunak aurtxoa zalarik, Jaungoiko egiazkoa zala argiro agertu zuen, iru Erregeen adorazioan, edo Epifaniako misterioan aditzera eman nai dizuet: eta probetxu andi bat guziak ateratzeko, eskatu degiogun Jesu-Kristori berari bere Ama Santisimaren bitartez Espiritu Santuaren argia, eta grazia. Abe Maria.

Aditu zenduen ezkeru bada, nola Jesu-Kristo gure Jauna a­ñ estadu humill, pobre, eta nekagarrian, guri Zeruko bidea bere ejemploarekin erakusteagatik jaio

bazan ere, Aingeruak eta arzaia adoratu zuen, eta eren jabe, eta Jaungoikotzat ezagutu zuen; eta nola bere Zirkunzizioan ere; pekatariaren antza gugatik artu zuenean ere, Jesusen izen adoragarria, edo munduko pekatari guzien Salbadorearen izen miragarria ipiñi zioten: Aingeruak Jaungoikoaren ordenaz lenago Ama Birjiñari, eta Aita San Joseri agindu zien bezela: orain, txit kontuz aditu bear dezue, nola Erregeak ere Jesu-Kristo gure Jauna, Jaungoiko egiazkoa, eta gizon egiazkoa bezela adoratu zuen.

**G.** Nola adorazio ori gertatu zala esaten digu Ebanjelio Santuak? **E.** Ara nola San Matheo Ebanjelistak eskribiturik utzi zigun (Mathei c. 2.) Herodes Erregearen denboran Judako probinzian Belenen Jesus jaio zanean, Orientetik Magoak Jerusalem etorri ziran: eta bereala abiatu ziran galdetzen; nun dago Juduen Errege jaio dana bada aren izarra, edo ura jaio dala aditzera ematen duena, Orientean ikusi degu: eta gatoz bera adoratzer. Berri oek Herodes Erregeak aditu zituanean turbatu zan: eta baita arekin batera Jerusalem guzia. Eta bereala bere aurrera erakarri zituan Sazerdote nagusienak, edo beste guzien prinzipa, edo buru ziranak: eta Eskribak, edo Doktoreak, Moisesen legea puebloari erakusteko kargua zuenak: eta galde-

tu zien, nun jaio bear du Kristok, edo esperatzen zaudeten Mesiasak: eta eranzun zioben: jaio bear du Judako Belenen: bada ala eskribiturik utzi zuen Profetak. Eta zu Belesen Judako erria etzera txikiena Judako Ziudade, edo erri prinzipalaen artean: zergatik zuegandik irtengo da, Israelgo nere puebloa giatuko duen erakuslea: (esan nai du Zeruko bidea erakutsiko diona.) Orduan Herodesek ixillik Magoai beregana deitu zien: eta kontuz galdetu zien, noiz jaio zan agertu zitzaben izar ura: eta esan zien: zuazte Belena: aur jaio berri orrezaz ondo inormatu zaitezte: eta arkitzen dezuenean, gasteatu egidazue, ni ere bera adoratzera joan nadiñ: eta ori aditu zuenean Erregearen aotik, bereala bidean jarri ziran: eta orra nun Orientean ikusi zuen izarra bera aen aurrean zijoan, eta Belena eldu ziranean, aurra zegoan tokiaren gañean geratu zan: eta izarra ikusi zuenean, guztiz alegratu, eta poztu ziran: eta barruan sartu, eta arkitu zuen aurra bere Ama Mariarekin: eta auspez etziñik adoratu zuen: eta eren tesoroak iregirik, beren doaiak, edo ofrendak ofrezitu, eta presentatu zioten: eta ziran urrea, inzen-sua, eta mirra. Eta izanik Zeruko abisua Herodesegana ez biurtzeko, beste bide batetik eren errietara itzuli ziran: eta orra Ebanjelio Santuak misterio miragarri

orren gañean diona. Baña misterio, edo doktriña guztiz andiak sartzan dituana: eta oriek zuei obeto aditzera emateko, galde labur batzuek egiñ bear ditugu: eta 1. Magoak, eta Juduak zer egiñ zuen jakiteko.

**G.** Zer gizamodu ziran Ebanjelio Santuak aitatzen dituan iru Magoak? **E.** Oriente aldeko, edo eguzkia goizean agertzen dan alde artako gizon jakinsu, eta anditzu batzuek, Erregen izena zuenak: Zeruko astro edo izarren ezagueran txit adituak: eta zekienak, izar berri bat, besteak ez bezelakoa, agertuko zala, Juduak esperatzen zeuden Salbadorea jaiotzen zanean. Eta nola izar berri ori Jaungoikoak sortu eragiñ zuen, gure Jesus Belenen jaio zanean; eta Jaungoikoak berak gogargia, eta inspirazioa ere eman zien, aur jaio berria billatzeko, eta guzion Salbadorea bezela adortzeko; neke andiak artu bear bazituen ere bide luze, eta perill andiak zituan batean, alkarri eren asmoak adieragiñ, bereala bidean jarri ziran, izarra bera gidari zuela, eta Jaungoikoaren laguntasuna izango zuelako uste osoan. Eta nola Juduen erri nagusiena, edo guzien burua zan Jerusalem, arako bidea artu zuen; eta ara baño lenago izarra ezkutatu zitzaien: bazekien erri artan Errege gogor, eta arrotasunez beterik zegoan bat arkitzen zala: eta perill andian eren buruak ipiñiko



zituela; Juduen beste Errege jaio berri baten billa, eta Erregetzat ezagutzera zetozeela berria banatzen zanean: eta ala ere Jaungoikoaren deiari, eta inspirazioari jarraitzen ziotela, beraren laguntasunean fiaturik, Jerusalemaren eldu ziran: eta bereala aldean abiatu ziran, nun zegoan Juduen Errege jaio dana: eta jakin zutenean, Belenen jaio berri zuela; ara bereala joan ziran, arkitu zuen Jesus, guzian Salbadorea: adoratu zuen: eta Jaungoikoaren abisoarekin, Jerusalemaren bihurtu bage, beste bide batetik eren errietara itzuli ziran: eta munduko Salbadore egiazkoaren etorrerako berri onak, eta atsegingarriak barreatu zituen, eta gero martiriaren koroa ederra irabazi zuen: eta bitartean Herodes, eta bere korteko guziak, Jerusalemarrak, eta ango apaiz nagusiak, eta legeko doktore, edo erakusleak, guziak itxumen arrigarri batean gelditu ziran: inor ere Jesusen billa joan etzan: eta zerren anditasunez, ondasunez, eta atsegintasunez inguraturik etzertoren Zeruko Maisua, edo Jaungoiko gizon gure Salbadorea, erak uste zuen bezela; baizik humill, pobre, eta nekatua; Judu arroak, gutiziosoak, munduko zoriona baizik billatzen etzuenak; ez bakarrik artu nai izan etzuen gure Salbadorea, eta Zeruko Maisu maitagarria: baizik begitan artu, aborrezitu, persegitu, eta

gurutze batean illerazo zuten: eta bide orrezaz baliatu  
zan gure Jaungoikoaren kabubageko ontasuna, eta  
miserikordia, gizon pekatariak erredimitzeko, eta sal-  
batzeko: bada ainbesteraño maite izan gaitu, nun  
eman izan digu bere seme bakarra bera, gizon egiñik,  
ez bakarrik guri Zeruko bide zuzena argiro erakuste-  
ko, baita ere gure pekatu guzien zorrak bere biziaren  
kostuan gurutzeko eriotzarekin pagatzeko. Bedeinka-  
tua izan dedilla beti onelako guganako Jaungoikoaren  
amorioa, eta miserikordia: baño jarraio degiogun oraiñ  
gure dotriñari. Eta 2. **G.** Zergatik Jaungoikoak nai izan  
etzuen, iru Mago edo Erregeak Herodesegana biur-  
tzea? **E.** 1. Zergatik bazekian Herodesen malizia, eta  
gaiztakeri arrigarria, eta Jesus bera, edo Errege jaio  
berria, eta aren jarraitzalleak illtzeko zuen asmo gaiz-  
toa; gero agertu zuen bezela. Eta 2. guziok ikasi gen-  
zan, Jesu-Kristo ezagutu ezkerro, eta aren Zeruko dotri-  
ña ikasi ezkerro, Herodesek bezela galdu, eta kondena-  
tu nai gaituan deabruari iges egiñ bear diogula: eta  
aren esan engañagarriai kasorik egiñ bear ezteigula:  
baizik Jesu-Kristori, eta aren dotriñari gogotik jarraio  
bear diogula: eta orretako 3. **G.** Iru Magoak edo Erre-  
geak Jesu-Kristori ofrezitu zioben urreak, inzensuak,  
eta mirrak zer aditzera ematen digue? **E.** 1. Elizako

Doktore, eta erakusle jakinsu, eta Santuak erakusten digue, iru Magoak iru ofrenda oriekiñ batera, eren buruen ofrenda Jesu-Kristori egiñ ziotela: eta aditzera eman zuela: ezagutzen zuela Jesu-Kristo, aur jaio berria, eren Erregetzat, eren Jaungoiko egiazkotzat, eta gizon zan aldetik guzion Erredenptoretzat. Eta 2. urrearen ofrendarekin erakusten digue, karidadearen, edo Jaungoikoaren, eta projimoaren amorio egiazkoaren ofrenda osoa Jesu-Kristori egiñ bear diogula: bada, nola urrea dan metalik preziatuena, baliosoena, eta estimagarriena, ala karidadea da birtuterik andiena; beste birtute guzien erregiña, guzien ama, eta guziak piztutzen dituana, eta bizirik dauzkana, eta Zeruko tesoro, edo ondasunak irabazi eragiten diguna; eta kontrara karidade bage illak gaude: eta Zerurako ezer irabazten eztegu: eta argatik karidadea gure biotzetan sortutzeko eta konserbatzeko alegiñ guziak egiñ bear ditugu: eta batez ere inzensuaren, eta mirraren ofrendak erakusten diguena egiñ bear degu: au da, orazioari, eta mortifikazioari jarraio. (Badakizue, nola inzensua surtara botatzen danean, usai gozoarekin gora Zeru aldera igotzen, edo altxatzen dan: bada Kristauak, ikusirik gure itxumena, gaitzerako degun griña gaiztoa, birtuterako degun pisutasuna, nagitasu-

na, eta atzerapena, eta gerez bakarrik gauza onik eziñ egiñ ala; lotsatu bear gera, humillatu bear gera; eta Jesu-Kristoren izenean konfianza osoarekin Jaungoikoagana gure biotza altxatu bear degu: eta benetan eskatu bear diogu, arren digula bear degun Zeruko argia, gogo bizia, eta indarra, gure amorio propio eragabea, eta munduko gauzentzat degun inklinazio gaiztoa menderatzeko: eta gure Jaungoikoa bera, gauza guzien gañean biotz osotik amatzeko, eta gure lagun urkoak edo projimoak gure buruak bezela Jaungoikoagatik amatzeko, eta estimatzeko. Baña nola orazioa, edo eskatzea bakarrik asko eztan, gure borondate, edo nai gaiztoa ukatzeko, eta gure naigabeak pazienziarekin sufritzeko egiazko alegiñak egi-ten ezpaditugu: orregatik orazioarekin, edo inzensuak aditzera ematen digunarekin juntatu bear degu mirraren ofrenda, edo orrek erakusten diguna. Mirra da gauza miña, eta usteldasuna eragozteko egokia); bada, egiaz nai badegu, gure anima pekatutik libratu, eta Pekatura biurtzetik gorde, nai ta ez gure pasio eragabeak, eta aztura gaiztoak ilduratzeko, edo mortifikatzeko, eta menderatzeko alegiñ guziak egiñ bear ditugu: eztago beste erremediorik N.K.: munduan gauden artean gerra bizian egon bear degu: (*militia est*

*vita hominis super terram*) guziok gaude etsaiez inguraturik: deabruak, mundu gaiztoak, eta aragi gaizki eziak beti gerra egiten digue: eta oriek baño etsai andiagoak ditugu, geurk ezi, edo goitu nai eztitugun, eta gure barruan dauzkagunak: nola diran 1. Biotzeko arrotasuna, antuste, edo soberbia, eta besteak baño geiago izateko ansia: eta 2. orri darraion gutizia, edo munduko ondasunak leia geiegirekin biribillatzeko apetitu eragabea: eta 3. gorputzaren gurari zikiñak kunplitzeko griña fortiza: orien ondoren ditugun beste pasio eragabe askorekiñ orietatik sortu dira oraindaño munduan ikusi diran, eta aurrera ikusiko diran gerrak, aserreak, alkar eziñ ikusiak, gorrotoak, eta orien ondorengo birau, edo maldizio izugarriak, enbidiak, lapurretak, alkarren engañoak: joku andi erabageak, eta kaltegarriak: gorputzaren gurari loi zikiñak, lujuriazko pekatu loiak, jostatze libre peligro andikoak: danzazale eskandalosoak: jan-edan modubagekoak, ordikeriak; eta oriei darraien beste eziñ kontatu ala pekatu, eta gaiztakeriak. Nola bada al dateke, pekatutik libratzea: Jaungoikoaren grazian irautea: eta betiko gloria iristea: eta infernura betiko ez joatea; ainbeste pekatu lodi, pisu, larriak sortzen dituen sustrai gaiztoak ebakitzeko egiazko alegiñak egin bage? Pasio gaiz-

to orien kontra gogotik peleatu bage? Animo bada N.K.: Jesu-Kristok bere ejemplo, edo dotriñarekin ematen digun argiarekin; eta berak eskeintzen digun Zeruko grazia, eta laguntasunarekin guzia dagikegu: eta uste degun baño errazago gure pasioak goituko ditugu, batez ere gauza aundi, grabe, edo larrietan, pekatu mortalik ez egiteko moduan. Esna gaitezen, eta azkartu gaitezen bada guziok: oraindño baño alegiñ biziagoak egiñ ditzagun, gure Jesus onaren guganako neurribageko amorioa ezagutzeko: egiñ dizkigun mesede andiak, eta gugatik eraman zituan neke arri-garriak gogoan erabilli ditzagun: gure betiko salbazioak, edo gure betiko kondenazioak zenbat inporta duen astiro konsideratu dezagun: oraindñoeko pekatuen egiazko penitentzia biotzetik egin dezagun: eta aurre-ra pekatuko bide, edo arriskutik kontuz alde egiñ dezagun: gure pasio eragabeak, eta batez ere pekatu-rik geiena eragiñ oi diguenak aborrezitu ditzakun: eta orien kontra gogotik peleatu dezagun: eta bizimodu berri bat artu dezagun: au da Jaungoikoaren amorioan, eta projimoaren amorioan pakean bizi gaitezen: eta orretako Jaungoikoaren borondate santuarekin gurea osoro konfirmatzeko alegiñ guziak egiñ ditzagun: eta seguru iritsiko degu Zeruko gloria. Amen.

# OGEITA BOSTGARREN DOTRIÑA

*Jesu-Kristoren presentazioa,  
eta Maria Birjiña Santisimaren  
purifikazioa Jerusalemgo Tenploan.*

Jesu-Kristo gure Jaunaren gizon egite guztiz miragarria: aren jaiotza pobre, humill, eta nekez betea: baña Aingeruak, arzaiak, eta Erregeak, urrutitik etorri-rik, ezagutua, honratua, eta eren jabe, eta Errege soberanoarena bezela adoratua: eta orobat aren Zir-kunzisioko misterio humillagarria, penagarria, eta lotsagarria, pekataria balitz bezela, pekatuarentzat zegoan erremedioa artzen zuela: baña aren ondoren bereala Jesusen, edo guzion Salbadore egiazkoaren izen adoragarriarekin, Jaungoiko eta gizon egiazkoa zala, Zeruko Aingeruak deklaraturik, edo agerturik, ikusi dezue, N.K., aditu dituzuen Jesu-Kristoren aurta-suneko misterio guziz gozo, eta maitagarrietan. Guzietan nor zan, eta zertara Zerutik etorri zan erakutsi zigun, aur txikia bazan ere, Zeruko gure gidaria, eta Maisua zanak bezela: bada guzia bere neurribage-

ko jakinduriarekin, eta gure salbazioaren deseo irazekiarekin, bere Aita Eternoaren onerako zuzentzen zuen, au da, beraganako fede bizi, esperanza irmo, eta amorio andi bat gure biotzetan sortzeko, eta ori bera, oraiñ aditzera eman bear dizuedan Jesu-Kristoren beraren Presentazioko, eta Ama Birjiñaren Purifikazioko misterio andietan ikusiko dezue: eta guzior probetxurako izan dedin, eskatu dezagun gogotik Espiritu Santuaren argia, eta grazia Maria Santisimaren beraren bitartez. Abe Maria.

**G.** Zer agindu zuen gure Jaungoikoak Moisesi eman zion legean presentazioaren gañean? **E.** Seme nagusi, edo primojenito guziak lenbiziko jaiotzen ziranak Jaunari berari presentatu, edo ofrendatu bear ziozkatela eren gurasoak: eta erreskatatu, edo erredimitu bear zituztela orduan bertan, ofrenda bat aekgatik egiñaz.

**G.** Jaungoikoak zertako ordenatu, edo eman zuen lege ori? **E.** Israeldarrai beti gogora ekarteko, edo oroitutur eragiteko, nola aen Asabak, eta pueblo guzia Ejiptoko Errege Faraon gogorraren mendetik, edo katiberiortik libratuak izan ziranean; Ejiptoko seme nagusi guziak Aingeru baten bitariez illerazo zituan gure Jaungoikoak: eta orduan bertan aen artean bizi ziran



Israeldar guzien seme nagusiak eriotzatik gordeak, edo libratuak izan ziran. Eta orretako agindu zien, aurretik Pazkuako bildotsaren odolaneekin Israeldarren ate guziak markatzea, edo seinalatzea: eta orrek esan nai zuen, guziokgatik sakrifikatua izango zan Jesu-Kristo bildots inozentearen odolarekin libratuko giñala deabruaren mendetik, eta betiko eriotzatik.

**G.** Eta zer agintzen zuen legeak emakumeen purifikazioaren gañean? **E.** Agintzen zuen, seme egiten zuen andre guziak zetozela Tenplora berrogeigarren egunean: eta alaba egiten zuenak larogeigarren egunean, purifikatuak izatera: eta aberatsak baziran, urtebeteko bildots bat, eta usakume, edo tortola bat ofrendatu zezatela: eta pobreak baziran usakume bi edo tortola bi bakarrik.

**G.** Eta lege ori zertako zan? **E.** Aditzera emateko, Adan gure lenengo gurasoaren pekatua ezkerro, guziok jaiotzen gerala pekatuarekin loiturik, zikiñdurik, edo mantxaturik: eta guziok degula purifikatu, edo garbitu bearra.

**G.** Eta lege orretara obligaturik zeuden Jesu-Kristo gure Jauna, eta bere Ama Maria Birjina guztiz Santa? **E.** Ez: zergatik Jesu-Kristoren sortzean, eta jaiotzean etzan arkitu pekatuaren kutsurik, edo mantxarik bate-

re Maria Birjinagan: eta etzuen purifikatukizunik: eta Jesu-Kristo Jaungoiko bezela, bera zan lege emallea: eta etzegoan legearen azpian.

**G.** Zergatik bada, Amak, eta Semeak lege oni obedezitu nai izan zioben? **E.** Bere ejemploarekin guri humiltasuna, eta obediencia erakusteko: eta aitzakiarik billatu bage Jaunaren lege Santua gordetzen erakusteko.

**G.** Eta zer egiñ zuan Jesu-Kristok bere Amak Tenploan presentatu, eta Aita Eternoari ofrendatu zionean? **E.** Bere burua, edo zan guzia biotz guztitik ofrezitu zion bere Aitari sakrifziorik egokiena, preziatuena, eta atsegiñgarriena bezela, Jaungoikoaren beraren honrarako, eta gure pekatuen pagurako. Etzan alabaña Tenplo artan aiñ balio andiko sakrifziorik inoiz ere ofrezitu: eziñ kontatu ala sakrifizio on ofrezitzen baziran ere: bada guziak ziran Jesu-Kristoren sakrifizioaren itzalak, edo figurak: eta etzuen berez birtuterik, eta baliorik, Jesu-Kristoren sakrifizioaren antz bat bakarrik ziralako baizik.

**G.** Eta presentazioko legeaz kunplitzeko, zer ofrendatu zuen Maria Santisimak? **E.** Legeak agintzen zuen bezela eman zituan bost siklo, edo bost diru, bost peseta, gutxi gora bera balio zuenak.

**G.** Eta puritikazioko legeaz kunplitzeko, zer eman zuen? **E.** Usakume bi, edo tortola bi; pobrenzat agindurik zegoan bezela.

**G.** Eta ofrenda miragarri ori Tenploan egiten ari zirala, zer gauza andirik gertatu zan? **E.** Espiritu Santuak erakarri zituan Tenplora Simeon zeritzan agure santu bat: eta Ana zeritzan alargun zar santa bat, bere denbora guzia barau, eta orazio egiten enpleatzen zuena, profeziako doaia zuena, eta beti Tenploan egon oi zana. Aspaldian Simeon Santua bere, eta guzion Salbadorea bere begiak in ikusteto deseo, eta ansiarekin zegoan: eta Espiritu Santuak errebelatu, edo aditzera eman zion, zorion andi ori iritsiko zuela ill baño lenago: eta ala kunplitu zion. Agure Santu ark Espiritu Santuaren argiarekin ezagutu zuen, gure Jesus aur txiki Jaungoikozko ura zala, esperatzen zegoan guzion Salbadorea, egiazko Kristo, edo Mesiasa: bere besoetan artu zuen: eta pozez, edo atsegiñez beterik Jaungoikoari eskerrak ematen abiatu zan: eta orduan esan zuen oraiñ Elizako ofizio, edo errezoan egunoro esaten dan kantiko miragarri bat, Jesu-Kristoren alabanza: eta ona zer esan nai duen: orain, Jauna, zure hitzaz, edo promesaz batera zure serbitzaria mundu onetatik pakean joango da: bada nere

begiak munduari eman diozun salbatzallea ikusi due: onek jende, edo pueblo guziak argituko ditu, au da, pekatuaren itxumenetik aterako ditu, eta Zeruko bidea erakutsiko die: eta bera izango da Israelgo honra, eta gloria. Eta kantiko orren ondoren Ama Santisimari bere Seme maitea biurtu zion: eta esan zion: au izango da askoren kondenaziorako, eta beste askoren salbaziorako Israelen: au da, askok itxuturik, eta gogorturik ezagutu naiko eztue, persegituko due, eta illerazoko due: eta eren kulpaz kondenatuko dira: baña beste askok beragan sinistuko due, jarraioke diobe, eta salbatuko dira: eta zure semeak sufrituko dituan naigabeak, eta tormentuak, ezpata zorrotz batek bezela, zure anima, edo biotza erdiratuko due: batetik bestera igaroko due, eta penaz, eta dolorez beteko due.

**G.** Eta orduan Tenploan arkitu zan Ana alargun santak zer egin zuen? **E.** Ark ere Zeruko argiarekin ezagutu zuen Jesu-Kristo bere, eta guzion Salbadorea: adonatu zuen bere biotz guziarekin eta arrezkero aren berri onak ematen zien, Salbadorea, edo Mesiasa esperatzen zeuden guziaz.

**G.** Eta Jaunaren legearekin Tenploan osoro kunplitu ezker, zer egin zuen Maria Santisimak, eta Aita

San Josek? **E.** Itzuli ziran Galileako probinziara, Nazaretgo eren errira, eta etxera, berekin zeramela gure Jesus aur dibinoa: eta zerren erri artan izan zan, Nazarenoa deitu zioben: aurretik Profetak esan zuen bezela.

**G.** Eta oraiñ esan ditugun presentazioko, eta purifikazioko misterio andi oek biok Kristauai gogoratzeke, eta obeto zelebratu eragiteko, zer zeremonia eragiten ditu Eliza Ama Santak? **E.** Bi eragiten ditu: eta 1. da kandelaen bedeinkazioa: eta orregatik Kristauak misterio andi oen egunari deitzen diobe Kandelari eguna: edo Ama Birjiña Kandelariokoa: eta 2. da, egun onetan egiñ oi dan prozesioa.

**G.** Eta zertako egun onetan kandelak bedeinkatzen dira, eta dauzkate irazekirik Kristauak eskuetan mezako denbora batean? **E.** 1. Aditzera emateko, Kristau guziok Simeon santuarekin batera poztutzen, eta alegratzen gerala Jesu-Kristo gure Salbadorea ezagutzeko zorion andia izan degulako: eta bera dala munduko guzien argia, eta Israelgo gloria: 2. Erakusteko, argitu bear ditugula gure lagun guziak dotriñako egiak al deguneraño erakutsiarekin, eta obra onaen ejenploarekin.

**G.** Eta zer aditzera ernaten du presentazioko egunean egiten dan prozesioak? **E.** 1. Simeon santuak, eta Ana alargun santak eman zituen pausoak Tenplo-ra joan ziranean: eta 2. Ama Birjiña Santisimak, eta Aita San Josek egiñ zuen biajea Belendik Jerusalemara, Tenploan presentatzera Jesu-Kristo eren aur dibinoa eraman zuenean.

**G.** Eta orain zer frutu, edo probetxu atera bear degu gaurko dotriñatik? **E.** Jesu-Kristo gure Jauna, eta gure Maisua, edo gidaria bera, gugatik aiñ amorio andiarekin bere Aita Eternoari ofrezitu zitzaion ezker; berarekin uniturik gure buruak osoro Jaungoikoari ofrezitu, eta konsagratu bear diozkagu, aren borondate santua gauza guzietan egiteko deseo bizi, eta eragille batekin: eta ori benetan egiten degulako seña-lean, gure biotzak garbitu bear ditugu pekatutik, eta pekaturako ditugun griña gaiztoetatik: eta batez ere, Jesu-Kristok aiñ igui dituan soberbiatik: gutizia, edo abariziatik: eta aragiaren gurari zikiñetatik: eta ori guzia iristeko maite izan bear degu, Jesu-Kristok, eta Ama Santisimak beren ejemploarekin erakutsi ziguen egiazko humiltasuna: ez bakarrik kanpotik agertzen dana, baita ere, eta oraindio obeto, biotzekoa: gure ezereza, gure gaiztakeria: eta gerez bakarrik gauza

onik ezin egin ala erakusten diguna: bada gure barruan humillatzen ezpagera, kanpoko humilltasunak ezer balioko eztigu: eziñ Jesu-Kristori jarraiko diogu: gure barruko soberbiak itxutuko gaitu: penitentzia egiazkorik eziñ egingo degu: eta eziñ salbatuko gera: baizik deabruarekin batera betiko kondenatuko gera; eta kontrara egiazko humilltasuna gure biotzean badegu, Jaungoikoa guzaz errukituko da: argituko gaitu: bere grazia ugaria emango digu: eta arekin batera bear ditugun indarrak ere bai, gere griña gaizto guziak eskuratzeko: eta Jaunaren lege santua kontuz ezeze, gogotik, eta gustoz gordetzeko: eta orduan erraz goituko degu ondasun gura, edo gutizia eragabea: eta maite izango degu biotzeko, edo espirituko pobreza santua: eta aragia ezirik edukiko degu espirituaren mendean: eta animako, eta gorputzeko garbitasuna erraz gordeko ditugu: eta orrela Simeon santuak bezela gure zoriona Zeruan bakarrik esperatuko, eta billatuko degu: eta eztegu gure biotza munduan josirik edukiko, baizik aren gisa, Jaunak nai duenean, pakean mundu triste onetatik igaroko gera, eternidade guziko pakea, deskansua, eta gloria gozatzeraz; Jesu-Kristok guretzat irabazi zuen Zeruko erreinua. Amen.

# OGEITA SEIGARREN DOTRIÑA

- 1. Ejiptora iges egitea, eta aur inozenteen eriotza:*
- eta 2. Jesu-Kristo Doktoreen erdian Tenploan arkitua:*
- eta 3. Nazarethen egin zuen bizitza ogeita amargarren urteraño.*

Jesu-Kristo gure Jaunaren aurtasuneko gertaera, eta misterio miragarriai narraielai; (aditu zenduen ezkerreko aurreko dotriña aldian, zer gertatu zan Jerusalemgo Tenploan Jesu-Kristoren beraren presentazioan, eta bere Ama Maria Birjiña Santisimaren purifikazioan) gaur esan bear dizuet, nola Herodes Errege gogorrak, Jesu-Kristo illeragitea, erabaki zuen: nola Aita Eternoak Ejiptora alde eragin zion: nola Herodesek aur inozenteak illeragin, edo martirizatu eragin zituan: eta Herodes bera ill ezkerreko, Jesu-Kristo Ejiptotik Galileara itzuli zan. Eta azkenik amabi urteko aurra zalarik, nola Jerusalemgo festa ondoan desagertu zan: eta irugarren egunean Ama Santisimak eta Aita San Josek Tenploan Doktoreen erdian arkitu zuen: eta nola itzulirik Nazaretgo eren errira, ogeita amargarren urteraño bizi izan zan. Gertaera oetan guzietan dotriña, eta



ikasbide andiak gure Jesus onak eman zizkigun: eta laburtxo bada ere aditzera eman nai dizkitzuet: eta guzien probetxurako izan dedin, eskatu dezagun guziok espiritu Santuaren argia, eta grazia Ama Birjiña Santisimaren bitartez. Abe Maria.

**G.** Herodes Erregeak jakin zuenean, iru Errege Magoak, beragana agertu bage, beste bide batetik eren errietara itzuli ziralala, zer uste izan zuen, edo zer pensatu zuen? **E.** Arkitu etzuela billatzen zuen Juduen Errege jaio berria: siniste errazeko, edo ariñeko gizon batzuek ziralala: eta lotsaturik, agertu bage, biurtu ziralala.

**G.** Eta Jerusalemgo Tenploan presentatu zuenean Jesu-Kristo gure Jauna: eta Simeon santuak, eta Ana alargun, birtute andiko fama, eta profeziako doaia zuen santak: arzaz esan zituen miragarritzko gauzak barreatu ziranean, Errege gogor, eta superbo ark zer egin zuen? **E.** Ainbesteraño bere artean turbatu, estutu, eta aserratu zan, gaizki arturik zeukan koroa, eta erreinua kenduko ziobelako bildurrez, nun Jesu-Kristori bizia kentzeko asmo kruela bereala artu zuen. Baña gure Jaungoikoak aren barruko berri ondo zekienak bezela, eta orduan bere Seme Jesu-Kristo illtzea nai etzuenak bezela: (bada lenago guziori bere bizitzako

ejenploarekin, eta Zeruko bere dotriñarekin arako bidea erakutsi bear zigun) eragotzi zion Herodesi bere asmoak osatzea, eta Jesu-Kristo illtzea: eta Aingeru bat bidaldu zion, lotan zegoala Aita San Joseri: eta esan zion: bereala jaiki zaitez: ar itzatzu aurra, eta bere Ama, eta iges egizu Ejiptora: eta zaude an, beste abisurik nik eman artean: bada Herodesek alegiñak egingo ditu, aurra billatzeko, eta galtzeko, edo illerazotzeko: eta bereala jaiki zan San Jose: eta gauaz, egunaren zai egon bage, aurra, eta bere ama artu zituan berekin; eta Ejiptora aekin erretiratu zan: eta an egondu, edo bizi izan zan, Herodes ilitzaneraño: eta Aingeruak berriz, atzera biurtzeko, abisoa eman arteraño.

**G.** Eta zer egin zuen Herodes gogorrak, gure Jesus aur dibinoa eziñ arkitu izan zuenean? **E.** Kolera bizian sartu zan: eta ura illtzeko asmoarekin izan ditekean krueldaderik, eta itxumenik arrigarrienarekin agindu zuen, Bethelenen, eta aren inguru, edo bazter guzietan arkitzen ziran urte bi osatu bageko aur inozente guziak bereala akabatzea, edo guziaz bizia kentzea: eta ala egin zan: Nor arritzen ezta ejemplo onekin, soberbiaren, eta andinaiaren pasioak zertaraño gizona itxutu dezakean ikusirik!

**G.** Eta zer paradero, edo bukaera izan zuen Herodes gaiztoak? **E.** Aren gaiztakeri izugarriak merezi zuen bezelakoa. Zorigaiztoko eriotza batekin laster bere pagua izan zuen: eta jetxi zan betiko, iñoiz ere bukatuko eztan infernuko pena, eta kastigua sufritze-ra.

**G.** Eta ura ill zanean, Aingeruak Aita San Joseri zer esan zion? **E.** Jaungoikoaren partez, lotan zegoala agertu zitzaion Ejipton: eta esan zion: jaiki zaitez: ar itzatzu aurra, eta bere ama: eta zoaz Israelgo lurrera: bala ill dira aurrari bizia kendu nai ziobenak: eta bereala obedezitu zion: eta bidean jarri zan: baña jakin zuenean Arkelao Herodesen semea Aitaren Erreinuaz jabetu zala; ara joateko bildurrak artu zuen: eta Aingeruaren abisu berri batekin sosegatu zan: eta Galileara etorri zan; eta bere emazte Maria Birjiñarekin, eta aur dibinoarekin Nazaret zeritzan errian bizi izan zan: kunplitu zedin Profetak aurrez esan zuena: Nazarenaoa gure Jesus onari deituko zibelatela.

**G.** Eta zer dotriña, eta ikasbide gure bizimodurako eman zizkigun gure Jesus onak esan ditugun gertaera andi orietan? **E.** Guztiz asko, guztiz ikusgarriak, eta guztiz probetxugarriak: eta 1. eztegu iñoiz ere aztu bear, gure Jesus aur txikia zalarik, beste aurrak beze-

la bere adiñaz batera kanpotik agertzen bazan ere, sortua izan zan unetik, edo instantetik bere Ama Birjiña Santisimaren erraietan, zala guztiz poderoso, edo guzalduna, eta guztiz jakinsua, eta gauza guziak zuzentzen, eta egiten zituala ezin obeto bere Aita Eternoaren honrarako, gure salbaziorako, eta erakus-biderako: 2. Gogoan ondo sarturik eduki bear degu, gure Jaungoikoaren borondate bage eztala munduan ezer gertatzen: eta permititzen dituan gaitzetatik, on geiago, eta probetxu geiago ateratzen dakiala: eta ala Herodesi bizia kendu zeikeolarik, aur inozenteak illtzen utzi bage, permititu zuen aren itxumena, aren gogortasuna, eta krueldade arrigarria, alde batetik, bere justiziaz konforme zegokion betiko kastigua Herodesen gaiztakeriari emateko: eta bestetik, bere neurribageko ontasunaz, eta miserikordiaz konforme, aur inozenteai martirioaren koroa, eta betiko zorioneko bizitza seguratzeko: bada Jesu-Kristogatik, eta Jesu-Kristoren orde zilleraziak izan ziralako, beren odolaren bateoarekin iritsi zuen betiko gloria eta aur inozente martiri aen festa zelebratzen du Eliza Ama Santak abenduaren ogeita zortzigarren egunean: eta emen ikasi bear degu, Jaungoikoarekin adiskide bagera, eta aren borondatearekin gurea konformaturik

badegu, munduko persekuzioak, desprezioak, eta naigabeak gure onerako izango ditugula: eta gloriatzko gradu andiak irabaziko ditugula: eta dotriña ori, iñork baño obeto, Jesu-Kristok berak, Ama Birjiña Santisimak, eta aren esposo maite San Josek eren ejemplo miragarriarekin erakutsi ziguen orain aditu dituzuen gertaera andietan: erraz ezagutuko dezue N.K., zein pena, neke, eta naigabe andiak sufritu bear izan zituen: Aingeruak abisatu zituanean, Herodesek aur dibinoa illeragin nai zuela: eta bereala gabaz eren etxeari, gauza guziaz, eta ezagun, eta adiskideai lagarik, pobreza andian, eta erbesteturik urrutiko beste erreinu batera, fedebageen, edo Jentil idolatra itxuen artera joan bear zuela. Zuei orrelakorik orain gertatuko balitzaketzue, nolako estutasunean, eta naigabean arkituko zinatekee? Bada jakizue, etzala munduan gure Jaungoikoak maiteago zituan personarik, bere Seme propioa, gugatik gizon egiña: bere Ama Santisima eta Aita San Jose baño: eta ala ere, ez gaizki nai zielako, bada guztiz maite zituan; baizik birtuteak ejerzitate eragiteko, eta oriei dagokien sari guztiz andiak emateko; eta guri zer egin erakusteko, guzia ala ordenatu, edo disponitu zuen: andiak ziran, ala egia, Jesu-Kristok, orduan illabete bi ozta zituan

aurrak: bere Ama donzella gazte minbere, nekera oitu gabeak; eta Ama Semeen kuidoarekin zijoan Aita San Josek eraman zituen nekeak, ala gorputzaren aldetik, nola espirituaren aldetik aĩn bide luzean, eta alako jende, deabruak itxuturik, eta menderaturik zeukanaren artean: baña ala ere etziran batere iñoiz ere kejatu, sumindu, eta aserratu: guzia zerameen eziñ esan al baño humilltasun, pazienza, obediencia, eta konformidade geiagorekin: eta orra N.K., ikasbide, edo dotriña guztiz andiak guziontzat: Baña zer serbituko digue, gogoratzen ezpaditugu, eta oriekin batera gure bizimodua moldatzen, eta zuzentzen ezpadeгу? Gure zoriona eztago munduan, ezpada Zeruan, eta arako bidea da Jesu-Kristok berak artu zuena, eta erakutsi ziguna: eziñ Zerura joan gaitezke, gure biotza, gure gogoia, eta gure deseoia ipiñirik badauzkagu munduko anditasunetan, ondasunetan, eta atsegiñetan: alegiñak egin ditzagun bada gure eragabeko pasioak, edo griña gaiztoak goitzeko, edo eskuratze-ko: eta batez ere arrotasunari, interes gura itxuari, eta loikeriari, edo aragiaren gurari zikiñai gure biotzean lekuri ez emateko: ori da Jesu-Kristok bere humiltasunarekin bere pobreza guztiz andiarekin, eta bere bizimodu nekatuarekin erakutsi ziguna: eta ori da

gauza guztiz bearra gure borondate gaiztoa ukatzeko, eta Jaungoikoarena egiteko, edo aren mandamentu santuak ondo gordetzeko: eta ori bera txit ederki orain ikusiko dezue Jesu-Kristok berak egin zuenarekin Jerusalemgo Tenploan Doktoleen erdian beren gurasoak arkitu zuenean: eta arrezkero, aen mendean zegoala, Nazarethen ogeita amargarren urteraño egin zuen bizimoduarekin.

2. **G.** Zer gauza andirik esaten digu bada Ebanjelio Santuak Jesu-Kristoren aurtasuneko gertaera miragarrien artean? **E.** Ona San Lukas Ebanjelistak esaten digun dotriña andiko gauza bat: aurra azitzen zijoan bezela adiñean, edo indarretan, zijoan agertzen bere jakinduriaren betedasuna, eta zuen Jaungoikoaren grazia: (ez au azitzen zalako, bada izan al guzia zeukan, gizatasuna Jaungoikotasunarekin unitu zan unetik, edo instantetik: baizik adiñaz konforme kanpotik agertzen zuelako: guri erakusteko, adiñean, eta ezaqueran aurreratzen goazen bezela, birtutean, eta Jaungoikoaren amorioan, eta grazian azi, eta indarrak artu bear ditugula). Eta Jesusen gurasoak, au da, Maria Santisima, eta San Jose zijoatzen urteoro Jerusalemna Paskuako jai andian: eta Jesu-Kristo, amabi urtera eldu zanean, berekin eraman zuen: eta ango lan

guziak egin zituenean, festa ondoan, etxera biurtzen zirala, aurra gelditu zan Jerusalemenean, gurasoak oartu bage: uste zuen oek bazerraiela beste jendeen artean: (eta bearbada, zerren aurrak zijoatzen, naiz aitarekin, naiz amarekin; eta gizakumeak alde batera, eta emakumeak bestera berezirik, edo aparte zebiltzan, uste izan zuen Maria Santisimak San Joserekin zijoala: eta onek uste zuen Maria Santisimarekin zetorrela): eta uste orretan egun bateko bidea egiñ zuen eta illunabarrean txit penaturik agiri etzalako, aren galdez beren aide, eta ezagunai ibilli ziran: eta eziñ iñun arkitu zuenean, urrengo goizean Jerusalemaren beren aurmaitearen billa itzuli ziran: eta irugarren egunean Jerusalemengo Tenplo Santuan Doktore, eta legeko maisu, edo erakusleen erdian jarririk arkitu zuen, alako Jaungoikozko modestiarekin aen esanak aditzen zituala, eta alako jakinduriarekin bere galdeak egiten ziztela, nun guziak zeuden arriturik aren prudenziaz, eta aren eranzueraz. Eta era onetan ikusi zuenean, miritsi edo admiratu ziran: eta Amak esan zion: nere semea: Zer egiñ diguzu modu orretan? Ona nun zure Aita, eta ni naigabez, eta penaz beterik zure billa ibilli geke. Eta biai eranzun zien: Zeri dagokala era orretan billatu nazue? Etziñakien bada, nere Aitaren lanetan,



au da, aren gustoa, edo borondatea egiten nik jardun bear nuela? Eta etzuen osoro erreparatu, edo bereala konprenditu, zer esan nai zien eranzuera orrekin. Aditzera eman nai izan zien, nor zan, eta zertara Zerutik lurrera etorri zan: au da, bere Aita Eternoaren borondatea egitera: eta guri ori kunplitzen erakustera etorri zala: eta orretako nai ta ez gaztedanik, eta gure bizi guzian, aren legea ikasten, eta gogoratzen jardun bear degula: bada bestela eztegu jakingo Jaungoikoak zer agintzen, eta zer eragozten digun, eta ezpadakigu, eziñ aren Majestadeak nai duena egingo degu. Jesu-Kristok berak orrelako ikaste bearrik etzuen, bada zan neurribagea aren jakinduria: baña ejemplo ori guziori, eta batez ere gaztetxoai eman nai izan zien: eta baita ere, orretan erakutsi zigun, Jaungoikoaren borondatea jakiñ ezkeru, munduko errespeto guziak, eta personarik estimatuenak, eta maiteenak, nola gure gurasoak, senideak, humeak, senar-emazteak, eta adiskiderik maiteenak eztiguela eragotzi bear Jaungoikoari obedezitzea, eta guziak baño geiago bera amatzea: eta ala Jesu-Kristok berak bazekian ere, nolako naigabea izango zuen aiñ maite zituan bere Ama Santisimak, eta bere Aita-ordeko San Josek ixillik Jerusalemenean gelditu zanean: eta aen pena, hitz bat esanaz, erre-

diatu bazezakean ere, naiago izan zuen bere Aita Eternoaren borondatea egiñ, gurasoai gusto eman baño, eta eztezue orrezaz zer miretsi: Ama Santisimak, eta San Josek batere kulparik izan etzuelako: bada Jesu-Kristok berak iñoiz ere utsegiterik batere egiñ etzuen: eta iñork baño naigabe geiago sufritu zituan, eta nai zuen, berak bezela, bere Ama Santisimak, eta Aita San Josek guziori pazienziaren ejemplo miragarri bat ematea: eta guziori erakustea Zeruko bide zuzena, guztiz bearra, eta guztiz probetxugarria dala gurutzearen bide erreala: eta mundu onetan zenbat geiagogo Jaungoikoagatik, eta gure salbaziogatik sufritzen degun, eta nekatzen geran, anbat merezimentu geiagogo oraiñ, eta anbat gloria geiago Zeruan gozatuko degula eta orra dotriña guztiz ederra guziontzat, aprobetxatu nai bagera. 3. **G.** Eta orren ondoren zer beste gauzarik dio Ebanjelio Santuak? Jesu-Kristo jetxi zala bere gurasoakin, eta Nazaretha etorri zala, eta aen mendean zegoala: eta Maria Santisimak orduko aren hitz guziak bere biotzean gorde zituala, aen gañean bere konsiderazioak astiro egiteko: eta orra beste ejemplo eder bat guziontzat: bada ogia gorputzarenzat bezin bearra degu Jesu-Kristoren hitz Santuaren alimentua animarenzat. Eta azkenik dio Ebanjelioak

berak, Jesu-Kristo edadean, edo adiñean aurreratzen zijoan bezela, agertzen zijoala geiago Jaungoikoaren, eta gizonen aurrean bere sabiduria, eta grazia: eta orra Ebanjelio Santuak dion guzia, Jesu-Kristok gurasoakin erretiroan egin zuan bizitzaren gañean, ogeita amargarren urteraño. Baña gutxi badio ere, txit asko erakusten diguna: eta ori aditzera emateko, galdetzen det 1. Zergatik Jesu-Kristok, izanik Zeruaren, eta lurra-  
ren jabe soberanoa, eta Aita Eternoaren Sabiduria bera, egon nai izan zuen ixiltasunean, eta erretiroan, guraso pobre, eta beargille batzuen mendean: aei laguntzen, eta obeditzen beren neke, eta langaietan: ainbeste denboran agertu bage bere neurribageko eskualdia, eta Jaungoikozko jakinduria? 2. Zer lan ofizio, edo beargai egin zuen Jesu-Kristok denbora artan guzian? Eta 3. Nolakoak izan ziran Ama Santisimaren, eta Aita San Joserren biotzetako afektoak Jesu-Kristori begira, aren betiko konpañian, tratuan, eta konbersazio gozoan? Lenengo diot: Gauza oriek kontenplatze-ko egokiagoak dirala, aditzera emateko baño: 2. diot: Jesu-Kristok berariaz autu zuela izan ditekean bizimodurik humillena, pobrena, eta nekatuena: zergatik bere ejemploarekin erakutsi nai izan zigun, munduko anditasunak despreziatzen: ondasun gura, edo kodizia

gaiztoa benzitzen: gorputzaren aisatasuna, eta atsegin gaiztoen deseo, eta griña zikiñak menderatzen: eta orrela, ez munduan, ezpada Zeruan gure zoriona billatzen. 3. Diot: Aita San Joseri arotziako bere langai, edo ofizioan laguntzen ziola: eta bere bekokiko izerdiarekin egunoroko ogia irabazten zueia, gure alpertasuna kondenatzeko, eta nekearen amorioa erakusteko: eta azkenik diot: Ama Santisimak, eta San Josek izan zituen afekto, edo sentimentu gozoak Jesu-Kristorekin bizi zirala, zein esan alak dirala: bada ezta izan munduan iñor ere aek bezela Jesu-Kristoren anditasunak, edo perfekzioak ezagutu dituanik: ez eta aek bezela Jesu-Kristo amatu duanik: eta ala beti zeuden arriturik, eta Jesu-Kristoren amorioan urturik aen biotzak.

Eskatu degiogun bada benetan Ama Birjiñari, eta bere esposo maite San Joseri, arren iritsi degiguela guziori Jesu-Kristoren ezaguera andi bat: fede bizi bat, esperanza irmo bat, eta amorio irazeki bat; eta gero Zeruan beti kontenplatzeko, ikusteko, eta gozatzeko zoriona. Amen.

# OGEITA ZAZPIGARREN DOTRIÑA

*1. Jesu-Kristoren Bateoa, eta tentazioak:  
eta 2. Diszipunuen eta Apostoluen elezio,  
edo aututzea:*

*eta Jesu-Kristo-ren bizimodu ageria, bera nor zan:  
eta nolako bizitza, Zerua irabazteko,  
guziok egin bear genduan erakusteko.*

Oraindailoko dotriñetan, Jesu-Kristo gure Jauna Ama Birjiñaren errai garbietan Espiritu Santuaren birtutez sortua, edo konzebitua izan zanetik ogeita amar urteraño, Ebanjelio Santuak aitatzen dituan aren misterio guztiz andiak, eta miragarriak; eta berak egin zuen bizimodu humilla, pobrea, eta nekatua, guri Zeruko bidea erakusteko, aditu dituzue, nere Kristauak. Bada aurrera orobat Jesu-Kristok berak bere bizitza agerian, edo nabarbenean, guziak zekustela, eman zituan ejemploak: erakutsi zituan egia andiak, eta egin zituan lan miragarriak, guri Zeruko bide zuzena ezagueragiteko: eta bere Aita Eternoarekin adiskidetzeko, eta paketzeko, edo errekonziliatzeko, eta

deabruaren, eta pekatuaren mendetik, eta betiko eriotzatik libratzeko, txit kontuz aditu bear dituzue. Guziak zeoro eziñ azalduko, edo explikatuko dizkizuet: baña prinzipalenak, bearrenak, eta probetxugarrienak adieragin nai nikizkizuet. Eta gaur Jesu-Kristoren Bateoa: etsaiak eman ziozkan tentazioak: nola Diszipuluak, eta Apostoluak esleitu zituan: nolako bizimodua egin zuen: eta bera nor zan; eta Zeruko Erreina guziok irabazteko zer egin bear degun, nola erakutsi zigun, aditzera eman bear dizuet: eta guzien probetxu andiarekin izateko, eskatu degiogun gure Jesus onari, bere Ama guztiz Santa bitarteko arturik, Espiritu Santuaren argia. Abe Maria.

**G.** Jesu-Kristo gure Jaunak, Zeruko dotriña agerian erakusten asi baño lenago zer egin zuen? **E.** Nola soberbia izan zan Aingeruak galdu zituana, eta Deabru, edo Demonio biurtu zituana: eta gizonak pekatu-  
ra ekarri zituana: eta deabruaren esklabo, menpeko, edo katibu billabak egin zituana: eta gaitz orien erre-  
medioa, eta birtute guzien zimendua, edo sustraia humilltasunak izan bear zuen: beregan eman nai izan zigun bertatik, askotan gero berritu zuen, humilltasun miragarri baten ejenploa, eta ikasbidea. Joan zan bada, izanik guzien Salbatzallea, eta inozentzia, eta

santidadea bera, pekatari andi bat baliz bezela, San Juan Bautistaren urrezko Batea errebitzera beste pekatarien artean. San Juan zan Kristoren beraren Prekursora, edo bide aurrekoa izateko gure Jaungoikoa autu zuen, eta bere Amaren sabelean santifikatua izan zan santu guztiz andi bat: eremuan bere bizia penitencia egiten, eta Aingeruen antzeko bizimodu miragarri bat egin ezker; Jordango ibaiaren aldean penitencia predikatzen ari zana: eta penitencia egin nai zuen Judu guziak bateatzen zituan: eta orrela prestatzen, edo disponitzen zituan, esperatzen zeuden Kristo, Mesiasa, edo Salbatzallea errebitzeko. Jesu-Kristo bada, beste jenden artean, joan zitzaion San Juani, eta bere bateoa eskatu zion: San Joanek oraindio ezagutzen etzuen aurpegiz Jesu-Kristo gure Jauna, baña bertan Espiritu Santuak argitu zuen: eta nor zan ezagun eragin zion eta lotsaturik bere Salbadorea aïñ humillaturik ikusteaz, esan zion: Jauna, zuk ni bateatu bear nazu: eta zatoz nere bateoa artzera? Eta Jesu-Kristok eranzun zion: etziola orduan Jaungoiko zan aldetik begiratu bear; baizik gizon ilkor bati, eta munduko pekatuak bere gañ arturik zeuzkan bati bezela: bere Aitaren borondatea zala, pekatarien artean Batea errebitzea: eta guziai ejemplo emateko kon-

beni zala biak Jaungoikoaren borondatea egitea: beste guziaz Jaungoikoaren borondatea osoro egiten erakusteko. Bateatu zuen bada San Joanek gure Jesus ona: eta au bereala urtatik irten, eta orazio egiten Aita Eternoari asi zan: eta bertatik Zeruk iregirik ikusi zituan: eta Espiritu Santua, uso baten antzean Zerutik zetorrela, eta bere buruaren gañ jarri zitzaion: eta mirari, edo prodijio andi ori askok ikusi zuen: baña ondoena San Joanek: eta orduan bertan Aita Eternoaren boz bat Zerutik aditu zan, esaten zuena: au da nere Seme guztiz maitea, zeñean nere atsegin guzia dedan. Eta ona, N.K., Jesu-Kristoren Bateoan izan ditekanean humilltasunik andiena, eta orra Zeruko bidearen zimendua, edo fundamentua: bada gure ezereza, gure argaltasuna, eta gaitzerako degun leia, eta griña andia, eta birtuterako degun atzerapena, eta pisutasuna ondo ezaguturik humillatzen ezpagera, eta ondo bizitzeko bear degun Zeruko grazia, laguntasuna, eta indarra gogotik eskatzen ezpadegu Jesu-Kristoren izeñean; gure arrotasunak, edo soberbiak kondenatuko gaitu: baña egiaz humillatzen bagera, eta Jesu-Kristogan gure konfianza guztia ipintzen badegu, eta aren laguntasunarekin aleginak egiten baditugu: betiko gloria, eta honra guretzat dago. Ekusi dezue, nola Aita



Eternoak, eta Espiritu Santuak honratu zuen, eta Jaungoikoaren Seme propioa zala ainbeste humillatu zan Jesu-Kristo ura bera agertu zuen: bada jarraio degiogun batez ere humiltasunean, eta erraz gure etsai arroaren tentazioak ere goituko ditugu, Jesu-Kristok berak bere bateoaren ondoren goitu zituan bezela: eta nola goitu erakutsi zigun bezela.

**G.** Nola izan ziran Jesu-Kristori etsaiak eman ziozkan tentazioak? Eta nola garaitu zituan? **E.** Ara nola Ebanjelio Santuak esaten dituan: Bateoaren ondoren Jesu-Kristo Espiritu Santuak mugiturik, eremu batera erretiratu zan, deabruak tentatuko zuela, zekienak bezela; eta berrogei egun, eta gau barautu zuen, eta orazio egiten igaro zuen, eta gero gosea sentitu nai izan zuen: eta deabruak, Jesu-Kristo gizon utsa ote zan, edo Jaungoikoaren Seme propioa, eta Jaungoiko zan jakiteko ansiarekin; (bada ezin ori ziertu ezagutu zuen) giza antza arturik, eta goserik zegoala Jesu-Kristo ikusirik, erruki baliz bezela, malizia andiarekin esan zion: Jaungoikoaren Semea bazera, agindu ezazu, arri oek ogi biurtu ditezela. Baña Jesu-Kristok, bere burua agertu bage, eranzun zion: ezta gizona ogi utsaz bizi, baizik Jaungoikoaren aotik datorren hitz guziaz. Arriturik etsaia gelditu zan eranzuera orrekin: baña etzuen

etsi, eta banagloriaz tentatu nai izan zuen: eta Jaungoikoak berak permititurik, jaso zuen etsaiak gure Jesus ona tenploaren gañeraño: baña jendeak eziñ ikusi zezakean moduan joan zan Jesu-Kristo, eta tentatzalleak esan zion: Jaungoikoaren Semea bazera, ortik bera etzin zaitez, edo airean jatxi zaitez, eta eztezu gaitzik artzeko bildurrik zer eduki: bada Eskritura Santak dionez: Jaungoikoak Aingeruai agindurik dauka, beren eskuetan artu zaitzatela, arriak jo, eta oñak eritu eztitzatzun. Baña Jesu-Kristok eranzun zion: Baita Eskritura Santuak dio: eztezu zere Jaungoikoa tentatuko. Eta orretan erakutsi zigun, ez gerala ardurabage peligro andian jarri bear, Jaungoikoa guztiz poderosoa, eta guztiz ona dan, edo ez jakiteko asmoarekin. Etzan ala ere aspertu etsai giztoa, benziturik ikusi bazan ere; eta eraman zuen gure Jesus humilla mendi guztiz altu baten gañera: eta andik erakutsi ziozkan munduko erreinu guziak: eta aetako ondasun, eta aberastasunak: eta esan zion: oriek guziak nereak dira: eta guziak emango dizkizut, nere aurrean makurturik, edo etziñik, zure Jaungoikoa bezela adoratzen banazu. Orra etsaiaren soberbia, eta arrotasuna zeifñ arrigarria izan zan. Eta orduan Jesu-Kristok, zelo miragarri batekin, eta aserre justu batekin esan zion: Zoaz

ortik Satanask, bada Eskritura Santuan ezarririk dago: Zure Jaungoiko Jauna adoratuko dezu, eta ura bakarrik serbituko dezu. Eta ori aditu zuenean, etzuen geiago tentatu. Andik iges egin zuen etsaiak: eta Aingeruak orduan Jesu-Kristori jaten ekarri zioten: eta serbitu zuen: eta orra nolako tentazioak etsai gaiztoak Jesu-Kristori eman ziozkan, eta nola Jesu-Kristok garaitu zituan: eta orra guretzat dotriña, edo ikasbide guztiz andia: bada 1. erakusten digu, bateatuak izan giñanetik, Jesu-Kristoren senideak, soldaduak, eta jarraztalleak egin giñala: deabruaren partidua larga, eta erre-nunziatu genduala: eta nai ta ez etsaiak egiten digun gerra bizian, eta tentazioetan aren kontra peleatu bear degula: eta batez ere gula, edo jan-edan erabagen gurariak: soberbiaren, edo arrotasunaren apetitu, edo griña gaiztoak: eta munduko ondasunak biribillatzeko ansia andiak goitu, edo azpiratu bear ditugula: eta garai edo bitoria ori iristeko 2. erakusten digu Jesu-Kristok, baliatu bear gerala, erretiro santuaz, edo peligrotik alde egiñaz: orazio humillaz: eta bere hitz santuaz edo dotriñako egia andiakin gure adimentua, eta borondatea, edo gure biotza argituaz, eta indartuaz: eta gure aragia eziaz, edo mortifikatuaz: bada bestela etsaiak txit erraz goituko gaitu, eta betiko

koroa, edo Zeruko gloria galdu eragingo digu. Baña ez geiegi orain luzatzeagatik: 2. **G.** Zer egin zuen Jesu-Kristo gure Jaunak etsaiaren tentazioak benzitu, edo garaitu ezkeror? **E.** Bere Aita Eternoak eman ziozkan lan andiak egiten abiatu zan: au da, agerian erakutsi zuen bera zala Jaungoikoaren Seme propioa, eta betikoa, gugatik gizon egiña: eta gure egiazko Maisua, Salbadorea, eta Erredentorea, ainbeste milla artean munduak esperatzen zuena: eta betiko zoriona iritsi nai bagenduan, beragan sinistu, eta berari jarraio bear giñiola. Orretako San Juan Bautistak bere enzunleai, eta jarraitzalleai argiro esan zien, Jesu-Kristo seinalatuaz: orra Jaungoikoaren bildotsa munduko pekatuak kentzera datorrena: au da, pekatuen zorrak pagatzeko sakrifikatua izango dana. Baita esan zien: nere bateoak pekatuak kentzen eztitu: baña bai pekatariak bidea emalen die, eren pekatuak ezagutzeko: eta orien kalteakin arriturik, eta esnaturik, pekatuen barkazioa eta barkatzalle egiazkoa billatzeko: Jesu-Kristoren bateoak bakarrik du birtutea pekatuak desegiteko: Espiritu Santuaren amoriozko sua biotzetan irazekitzeko, eta animak garbitzeko. Ni aren aldean aĩn gauza ezereza naiz, nun aren oñetako lokarriak askatzea ere merezi eztedan: eta ni aren aurretik eto-

rri banaiz ere, bera ni baño lenagokoa da, bada beti-  
koa da. Eta beste gauza asko San Juanek bere diszipu-  
luai esan zien, Jesu-Kristo nor zan, eta nola egiazko  
Salbadorea zan, sinistu eragiteko: eta aetatik askok  
Jesu-Kristori jarraio izan zioten.

**G.** Eta Jesu-Kristok berak ala zala ezagutu eragite-  
ko, zer egin zuen? **E.** 1. Mirari andiak bere Jaungoi-  
kotasuna agertu zuen: eta berari jarraitzen zioteneta-  
tik, esleitu zituan diszipulu batzuek: eta aen artean  
gero Apostoluak, edo bere dotriñaren berri onak mun-  
dukoai eman bear zienak: eta 2. berak bere ejemplo,  
eta dotriñarekin erakutsi zigun Zeruko bidea; eta  
pagatu zuen gure pekatuen zorra. **G.** Zertako esleitu  
zituan diszipuluak, eta Apostoluak? **E.** Bere bizimodu-  
aren, bere milagroen, eta bere dotriñaren testigo izan  
zitezten: eta erak ikusi, eta Jesu-Kristoren aotik aditu  
zuen bezela, guziaz predikatu zegien.

**G.** Zer gizamodu ziran Apostolu izateko esleitu  
zituanak? **E.** Berez pobreak, jakiñezak, edo ignoran-  
teak: munduan estimaziorik etzuenak, eren nekeaz  
bizi ziranak. Baña eman zien bear zituen Zeruko jakin-  
duri, eta doai miragarriak Apostoluen lanak ondo egi-  
teko.

**G.** Zer lan eman zien? **E.** Mundu guziari Ebanjelio Santua, edo Zeruko erreinuaren berri onak, eta bidea erakustea: beragan sinisten zuen guziak bateatzea: bere Eliza gobernatzea: Sakramentu Santuak Kristauai administratzea: Mezako sakrifizio Santua zelebratzea: bear ziran toki guzietan Obispoak, Sazerdo-teak, Diakonoak, eta beste Eliz-gizonak ordenatzea, eta ipintea; ondorengo Obispo Jaunak, ori bera aurre-  
ra ere, munduak diraben artean, egiteko eskualdi guziarekin. Eta azkenik eman zien Jesu-Kristoren dotri-  
na obeto sinistu eragiteko, milagro mota guziak egite-  
ko, eta munduko hitzkunza guzietan hitz egiteko doai miragarriak: eta eren odolarekin Jesu-Kristoren fedea-  
ren egia konfirmatzeko indarra, balorea, eta animo guztiz miragarria: eta ala kuniplitu zituen Apostoluak lan oriek guziak: munduaren konbersioak, eta Elizaren iraupenak argiro erakusten duen bezela.

**G.** Eta Apostoluen artean nor esleitu zuen Jesu-Kristok beste guzien, eta Eliza guziaren buru prinzipala, edo nagusiena izateko? **E.** Aita San Pedro Aposto-  
lua, Erromako Obispo edo Sumo Ponifize zala, ill zana: eta argatik aren ondorengo Erromako Obispo guziak beti izan dira Eliza guziaren buruak, gobernariak, eta guzien maisu, edo erakusleak: eta beti erakusten due

Aita San Pedro Apostoluak Jesu-Kristogandik ikasi zuen dotriña bera: San Pedrori berari Jesu-Kristok aseguratutako bezela, esan zionean: zu zera Pedro, edo arria, eta arri onen gañean nere Eliza fundatuko det, eta deabruak iñoiz azpiratuko eztue.

**G.** Eta zein da Jesu-Kristok erakutsi zuen Zeruko bidea; eta nola pagatu zuen gure pekatuen zorra? **E.**

1. Ebanjelio Santuan, edo Kristauaren dotriñan, eta bere lau parteetan zeoro, eta argiro erakusten digu: eta 2. au da, gure pekatuen zorra pagatu zuen bere pasio, eta eriotzako sakrifzioarekin Jaungoikoaren justiziarik satisfazio, edo pagu osoa emanaz: (Au nola izan zan, urrengo dotriña aldiaren aditzera emango dizuet).

**G.** Eta orain bakarrik galdetzen det: Jesu-Kristok gure bizimodurako, eta orrekin Zerua iristeko, erakutsi zigun dotriña zertara dago biturik? **E.** Gure biotzak munduaren amoriotik, eta orrek dakarren itxumenetik libratzera: eta gure zorion egiazkoa, orain Jaungoikoaren guzien gañeko amorioan, eta projimoaren amorio egiazkoan bizitzeko: eta gero eternidade guzian Jaungoikoaz beraz, eta bere kabubageko gloriaren Zeruko erreinuan gozatzeko alegiñak benetan egitera.

**G.** Eta gure biotzak munduaren amorio erabagetik, eta orrek dakarren itxumen arrigarritik libratzeko, zer

egin zuen, eta zer erakutsi zigun Jesu-Kristo gure Zeruko Maisuak? **E.** Izanik gauza guzien jabea autu zuen beretzat bizimodu pobrea, humilla, eta nekatua: eta erakutsi zigun mendiko sermoi miragarrian, zorionekoak dirala 1. biotzez pobre diranak, edo egiazko humillak: au da, egiaz bearsuak badira: ansia bage bizi diranak, Jaungoikoak ematen dienarekin konformaturik daudela: eta aberatsak badira, ondasunetan biotzak ipiñi bage, ondasunaz baliatzen diranak ez arrotzeko, baizik eren obligazioak kunplitzeko, eta karidatea pobreaki egiteko; bada oriena da Zeruan erreinua, dio Jesu-Kristok. 2. Erakutsi zuen, zorionekoak dirala mansoak, zergatik oriek lurraren jabe izango dira: eren buruen jabe diralako. Eta mansoakgatik aditzen dira, egiten zaien injuriak pazienziarekin daramazkienak: aserratu bage, eta benganzarik artu bage, eta asmorik eren barrean konsentitu bage: edo gaizkilleai gaitzik opatu bage, eta deseatu bage: eta oriek gozatuko duen lurraz aditzen da Zeruko Paradisuaren betiko gozamina. 3. Erakutsi zuen Jesu-Kristok, zorionekoak dirala, negar egiten duenak: au da, munduko erabageko gusto, edo atsegiñik billatzen eztituenak, eta eren pekatuak, eta projimoenak biziro sentitzen dituenak, Jaungoikoaren ofensak diralako, eta eren



buruen, edo animen kaltegarri, eta kondenagarri diralako: bada oriei Jaungoikoak ematen die espirituko poza; eta konsolatuak izango dira. 4. Dio, zorionekoak dirala, justiziaren gosea, eta egarria duenak: au da, ez nolana, ezpada deseoa biziarekin, edo ansiarekin birtuteari darraizkanak: eta eren lagunak ere artara ekarri nai dituenak: bada oriek izango dira aseak emen biolzeko poz andi batekin, eta gero betiko ondasunakin. 5. Dio; zorionekoak dirala miserikordioak: au da, ez bakarrik limosnagilleak, baita ere besteen utsegiteak, eta argaltasunak sufritzen dakiztenak: barkatzen dienak: eta animako, eta gorputzeko premietan laguntzen dienak: bada oriek seguro iritsiko due miserikordia. 6. Dio: zorionekoak dirala, biotz garbia duenak: au da, eren pasioak ondo ezirik dauzkatena: erabageko deseorik ez tuenak: eta gauza guzietan Jaungoikoari gusto emateko asmo garbia, eta zuzena daukatenak: bada oriek ikusiko due Jaungoikoa. 7. Dio: zorionekoak dirala paketsuak, au da, Jaungoikoarekin, eta eren buruakin, eta eren lagunakin pakean bizi diranak: eta besteak ere Jaungoikoarekin, eta eren lagunakin, eta etsaiakin paketzeko, alegiñak egiten dituenak: bada oriek izango dira deituak Jaungoikoaren semeak. Eta azkenik 8. dio: zorionekoak dirala justiziagatik perse-

gituak diranak: ez munduko justiziak persegitzen dituanak, ezpada onak, justuak, eta birtutetsuak diralako munduak despreziatzen, eta persegitzen dituanak: bada oriena da Zeruetako Erreinua. Eta orra N.K., hitz gutxitan Jesu-Kristok berak erakutsi zigun Zeruko bide zuzena, guziok ondo ikasteko, eta ondo gordetzeko alegin guziak egitea merezi duena: bada ori da Santuak autu zuen bidea, eta aek bezelako perfekzioarekin Jesu-Kristok erakutsi zizkigun birtuteak ejerzitatezera eziñ eldu bagera: gutxianez alaitu bear gera birtuteak alako moduan maitatzera: nun erabaki bear degu benetan, aen kontrako pekaturik ez egitea: ez bakarrik gai pisuan, baita arinean ere, batez ere eza-gueraz, eta borondatez. Eta ori iristeko gure erabageko pasioak, edo griña gaiztoak goitzeko, edo menderatzeko nekea gogotik artu bear degu: gure biotzak munduko honra, ondasun, eta gustoen erabageko amoriotik libratu, eta eranzi bear ditugu: Zeruko ondasunak, ango betiko zoriona biziro billatu bear degu: eta Jaungoikoaren guzien gañeko amorioan, eta projimoaren amorioan ondo irmaturik egon bear degu. Orra, oraingo pake egiazkoa: eta gero deskansua, edo betiko atsedeen, eta kontentua seguratzeko bide zuzena. Eta ortik kontu atera ezazue, zein itxuturik bizi

diran, batere nekatu bage Zerua nai duen Kristau nagiak: eren borondate gaiztoa gauza guzietan egin nai duenak: arroak, gutiziosoak, guraritsuak, aserrekorrak, enbidiosoak, eta erabageko jan-edanetara, jostatzerara, eta joku luze andietara emanak: badirudi, oriek Zerurako egiñak eztirala: bada eren zorion guzia munduan billatu nai due, eta betiko zoriona iristeko batere nekatu nai eztira. Jaungoikoak bada arren guziok argitu gaitzala, eta digula bear degun argia, eta grazia, oraiñ bere Seme, eta gure Zeruko Maisu Jesu-Kristoren dotriña ondo ezagutzeko, eta gordetzeko: eta gero eternidade guzian beraz Zeruan gozatzeko zorion guztiz andia. Amen.

# OGEITA ZORTZIGARREN DOTRIÑA

*Jesu-Kristoren pasio santuan  
gogoan eduki bear diran zirkunstanziak.  
Padezitu zuen Ponzio Pilatosen agintearen azpian.*

Ezta Jaungoikoarenzat gauza honragarriagorik, eta Kristauarenzat probetxugarriagorik Jesu-Kristo gure Jaunaren pasio, eta eriotza santua baño, bear dan bezela konsideratzen badegu: eta konsiderazio orri darraizkan afektoak, eta frutuak ateratzeko alegiñak egiten baditugu. Ezta asko orretako, laburtxo jakitea, eta sinistea, Kredoak erakusten digun bezela, Jesu-Kristok padezitu zuela Ponzio Pilatosen agintearen azpian: izan zala guruzifikatua, illa, eta enterratua: eta gure dotriña laburrak erakusten digun bezela; Jesu-Kristok nai izan zuela ill Gurutze batean gu pekatutik, eta betiko eriotzatik libratzeagatik. Dotriña orretatik fruktu ugaria ateratzeko, konbeni da ondo jakitea, eta konsideratzea: 1. nork padezitu zuen: 2. zenbat padezitu zuen: 3. norgatik padezitu zuen: 4. zertarako padezitu zuen: eta 5. nola padezitu zuen: eta ori

guzia esplikatzea, edo azaltzea izango da gaurko dotriña gaia, Jaungoikoari nai dakiola zuen biotzetan ondo inprimitzea, eta fruktu andi bat guziok ateratzeko, eskatu dezagun Espiritu Santuaren argia, eta grazia, Ama Birjina Santisimaren bitartez. Abe Maria.

1. **G.** Zeiñ da Jesu-Kristoren pasio santuko kontsiderazioan lenbiziko gogora ekarri, eta kontsideratu bear degun gauza, edo zirkunstantzia? **E.** Nor zan miragarritzko misterio aek egiten zituana: eta aiñ pena, neke, eta tormentu arrigarriak sufritzen zituana: bada zenbat poderosoagoa, jakinsuagoa, andiagoa, eta santuagoa dan persona, anbat geiago estimatzen da aren egitura, aren lana, edo aren obra: eta on egiteagatik daraman trabajua, nekea, eta naigabea, gogoan beti eduki ezazue bada N.K., ainbeste pena, neke, oñaze, afrenta, burla, desprezio, eta injuria: eta alako eriotza lotsagarria Gurutze batean eta lapur biren erdian sufritu zituana, zala Zeruarien, eta lurraren jabe soberanoa, Jaungoiko, eta gizon egiazkoa: Aita Eternoaren betiko Seme propioa: Aita Eternoarekin, eta Espiritu Santuarekin betidanik Jaungoiko egiazkoa dana: eta ala neurribageko anditasunak, eta kabubageko perfekzioak dauzkana: guziz poderoso, edo guziz alduna; guziz jakinsua, guziz justua, edo santua; eta santu

guzien santua, edo guzien santifikatzalea, edo santu-  
gillea: eta aiñ guzizko ona, eta miserikordiosoa, nun  
betiko gizonak galdu, eta kondenatu etzitezzen, eta  
betiko zoriona iritsi zezaen, gizon egiazkoa egin zan:  
gizonaren pekatuak bere gañ artu zituan, eta aen  
pagua, edo satisfazioa osoro Jaungoikoaren justiziari  
eman zion bere pasio eta eriotzarekin. Eta deabruaren  
mendetik atera, eta Jaungoikoaren Semeak, eta Zeru-  
ko herederoak izateraño altxatu zituan.

2. **G.** Eta orretako zenbat sufritu zuen? **E.** Ori da  
gogoan beti eduki bear degun bigarren gauza, edo zir-  
kuntanzia. Baña nork ori bear bezela aditzera eman  
dezake? Eziñ kontatu ala izan ziran: eta eziñ pondera-  
tu al baño andiagoak, garratzagoak, eta mingarriago-  
ak Jesu-Kristo gure Jaunak sufritu zituan dolore, pena,  
neke, tormento, eta naigabeak; ala gorputzaren alde-  
tik, nola animaren aldetik; munduaren asieratik ordu-  
raño, eta munduaren fineraño, edo bukaeraraño gizo-  
nik naigabetueuak, eta martiriorik arrigarrienak, sufri-  
tu zituenak, eta sufrituak dituenak baño agitz andia-  
goak, eta ikaragarriagoak sufritu zituan gure Jesus  
onak; eta zerren bere pasio, eta eriotza Santuaren his-  
toria, edo gertaera miragarria zeoro, Ebanjelista San-  
tuak eskribitu zuen bezela, beste dotriña batzuetan

esateko asmoa dedan, orain Jesu-Kristoren dolore, oñaze, eta tormentuak banaka aitaturko ez dizuet: baña sinistu bear dezue, guztiz arrigarriak izan zirala: eta batez ere, gorputzaren aldetik sufritu zituanak baño, agitz penagarriagoak izan zirala animaren aldetik, sortua izan zanetik iltzeraño padezitu zituanak: bada eziñ esan eta ponderatu al baño andiagoa zan Aita Jaungoikoaren alderako bere amorioa: eta orri zegokana zan bere Aita maiteari gizonak egin ziozkaten, eta aurrera ere egingo ziozkaten ofensa arrigarrien ezaguerak ematen zion guztizko pena, eta naigabea: eta orren antzekoa zan eziñ kontatu ala animaren galdu bearrak ematen zion sentimentua, edo kondenatu bearrak, zerren, eren kulpaz itxuturik, eta gogorturik, baliatuko etziran bere pasio, eta eriotzaren fruktuz: eta orrez gañera beti zeuzkan gogoan ez bakarrik berak sufritu bear zituan tormentu arrigarriak; baita ere bere Ama guztiz maiteari oriek ekarri ziozkaten dolore, neke, eta naigabe, aiñ guztizkoak, nun ezta izan, Jesu-Kristoz kanpora, bere Ama Santisimak baño geiago munduan sufritu duanik, eta ala Jesu-Kristoren biotza, eta bere Ama maitearena beti zeuden dolorezko itxaso bat egiñik.

3. **G.** Norgatik padezitu zuen Jesu-Kristo gure Jaunak esan degun guzia? **E.** Gizon guziakgatik, eta bakoitzagatik: alako moduan, nun ezta gizonik pekatiririk andiena izan arren, Jesu-Kristo gure Jaunak guzientzat bere pasio, eta eriotzaren kabubageko merezimentuakin irabazi zuen graziarekin salbatu eziñ datekeanik; bere partetik alegiñak egin nai badi-tu Jesu-Kristoganako fede biziarekin, esperanza humillarekin, eta pekatuen egiazko damutasunarekin Jaungoikoagana gogotik biurtzen dala: bada orrela iritsiko du seguru pekatuen barkazioa, eta Jaungoikoaren grazia, eta galdurik zeukan Zeruko deretxoa: eta ori obeto ezagutuko dezue, gogora ekarten badezue, eta ondotxo konsideratzen badezue, zergatik, edo zertako humillatu zan Aita Jaungoikoaren Seme propioa, eta naturala, berarekin bat, edo Jaungoiko egiazkoa zana, ainbesteraño, ze gizon illkorra egin zan, eta alako pasio garratza, eta eriotza lotsagarria Gurutze batean lapur biren erdian sufritu nai izan zuen.

4. **G.** Zergatik nai izan zuen bada Gurutzeko eriotza sufritu? **E.** Ona zeurok dotriña laburrarekin ematen dezuen eranzuera. Jesu-Kristok nai izan zuen ill Gurutze batean gu pekatutik, eta betiko eriotzatik, au da, betiko infernutik libratzeagatik: eta orobat esaten



dezue, Jesu-Kristo gizon egin zala gu erredimitzeagatik, au da, bere biziaren kostuan gu erosi eta pekatutik, eta deabruaren katiberiotik, edo mendetik libratzeagatik: eta guziori nola bizi erakusteagatik bere ejemplo eta dotriñarekin. Orra hitz gutxitan dotriña guztiz andia: baña ori obeto ezagutzeko, gogora ekarri bear dezue, nola gure Jaungoikoak gure lenengo gurasoak, Adan, eta Eba ezerezetik egin zituanean, eternidade bateko zoriona Zeruan gozatzeko egin zituan: eta ori iristeko bear zituen grazia, eta laguntasun guziak eman zitzen: eta arrotasunez, edo ziran baño geiago izan nai izan zuelako, deabruak tentaturik, eta engañaturik, Jaungoikoa ofenditu, eta aserratu zuen: eta bere grazia, eta adiskidetasuna, eta Zeruko deretxoa galdu zuen, ez bakarrik erenzat, baita eren ondorengo guzienzat ere: eta munduan ikusten ditugun gorputzeko, eta animako gaitz guziak andik etorri zaizkigu. Oriek banaka oraiñ esatea geiegi luzatzea lizateke aditzera emanik dauzkagu pekatu orijinalaren, edo jatorrizkoaren dotriñan. Diot bada, gure Jaungoikoak, deabruak erremedio bage betiko kondenatu bazituan ere, errukiz gizonari begiratu ziola: eta munduan trabaju, eta neke asko sufritzera kondenatu bazuan ere, erremediatu nai izan zuela: eta pekatutik

libratzeko, deabruaren mendetik ateratzeko, eta galdu zuen grazia, eta Zeruko deretxoa, edo eskubi-dea iristeko, eman nai izan ziola, ez Aingeru bat, ez gizon utsa zan santu andi miragarri bat, baizik bere Seme Jaungoiko egiazkoa, eta berarekin bat, edo igual zana, gizon egiñik, gizon pekatarien Salbadore, Erredentore, eta Maisu, edo erakusle izateko. Eta onek berak Aita Eternoaren justiziara bere pasio, eta eriotzarekin; eta bere guztizko humilltasun, pazientzia, obediencia, eta karidadearekin, eman izan ziola, bere gañ artu zituan gure pekatu guzien zorraren pagu, edo satisfazio osoa, beste iñork ere eziñ eman zezakeana. Orra zergatik, edo zertako Jesu-Kristok nai izan zuen ill Gurutze batean. Baña nork esan, edo aditzera eman ditzake ortik etorri zaizgigun, eta eziñ kontatu ala diran probetxo guztiz andiak? A! Ondo ezagutuko baginduz, eta gogoan beti edukiko bagimduz! zein jakinduri miragarria, eta munduko beste jakinduri guziak baño probetxugarriagoa bertatik iritsiko genduan: baño zerren ori ondo aditzera emateko dotriña luzeak, eta asko bear liratekean, diot oraiñ bakarrik, 1. Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuarekin Jaungoikoaren Majestadeari, eta aren goratasun eta anditasun kabugabeari eman zaiola zor zaion honra, eta glo-

ria guzia: eta Jesu-Kristoren Gurutzeko sakrifizioak bakarrik atsegin geiago eman diola bere Aita Eternoari Zeruko Aingeru guziak, eta munduko kreatura guziak beroren amorioz ill balira, emango likioben baño. 2. Diot, gizon pekatariarenzat eziñ asmatu, eta imajinatu zitekeala probetxu geiago ekarri zeikion gauzarik Gurutzeko Jesu-Kristoren eriotza baño: bada 1. gizona errekonziliatu, paketu, eta adiskidetu du txit aserraturik zeukan bere Jaungoikoarekin: aren pekatuaren zorra osoro Jaungoikoaren justiziarik pagatu diolako: 2. libratu du pekatutik, deabruaren katiberiotik, eta betiko kondenaziotik: 3. Jesu-Kristok bere eriotzako sakrifizioarekin irabazi dio, eta Sakramentu Santuetan aplikatzen dio, munduko ondasun guziak baño geiago bailo duen Jaungoikoaren grazia, eta adiskidetasuna, eta Zeruko deretxoa, edo eskubidea: eta ala, lenago Demonioaren katibu, prisionero, eta menpeko billau egiñik zegoana: pekatuarekin Demonioaren anzeko monstruo itxusi, izugarri, nazkagarri bat zegoana: gauza onik egiteko eskurik, eta indarririk batere berez eztuena: eta betiko gloria galdurik, infernuko illeti zorigaiztoko beti erre bearra izan bear zuena: Jesu-Kristoren eriotzari eskerrak, libratzen da gaitz, eta kalte izugarri orietatik: eta bertatik arkitzen da,

deabruaren mendetik libratu: pekatuen zikinkeria, eta itxusitasun arrigarririk garbitu: grazia eder-tasun zoragarriaz apaindu, Aita Eternoaren seme, edo alaba maite, Jesu-Kristoren senide, zati, edo mienbro bizi eder: Espiritu Santuaren tenplo; bizileku, edo jarleku atsegingarri: eta Zeruko Erreinuaren, eta ango ondasun guzien heredero, eta jabegai egiñik. Zer trukada, zer aldaera, eta zer mudanza miragarria! A! gorputzeko begiak ori ikusi al bagenza, animako begiak, eta fedearen argiarekin bakarrik sinisten degun bezela, nolako izango lizateke Jesu-Kristoganako gure esker ona, amorio irazekia, eta beragatik gure bizia pozik emateko deseo bizia? Eta nolako berriz mundu guziagatik ere pekatu ez egiteko propositu, determinazio, eta asmo oso, sendo, eta eragillea? eta lenago gure itxumenak, eta griña gaiztoak eragin dizkiguen pekatuen iguitasuna, aborrezimentua, eta biotzeko damutasuna? Ori guzia bada, eta beste eziñ esan al baño probetxu andiagoak ateratuko dituzue Jesu-Kristo gure Jaunaren pasio, eta eriotza santua zertako izan zan, sarri, eta fede bizi batekin gogortzen badezue. Ikusiko dezue bada, ortik etorri zaiela Zeruan dauden santu, eta santa guziaz: eta munduan bizi diran Kristau on guziaz, munduko erakeriaz largatzen.

tzeko: bizioai gerra egiteko: penitenzia egiteko: birtuteari gogotik jarraitzeko: emengo atsekabeak, nekeak, eta naibage andiak pazienziarekin ezeze, gusto, eta atsegintasunarekin sufritzeko eta Jesu-Kristoren antzera Jaungoikoaren borondatearekin berena beti bat egiñik edukitzeko bear zituen Zeruko sokorro guziak: ango gogarki, edo pensamentu santuak: ango grazia, argitasun, laguntasun, eta indar guziak. Bada-kizue Martin Santuak, San Esteban batek, San Lorenzo batek, San Bizente batek, eta beste guziak, ala gizakumeak, nola emakume argalak, eta orien artean ezin kontatu ala birjiña, edo donzella gaztetxoak, aiñ delikaduak, nolako balorea, animoa, eta indarra tormenturik ikaragarrienak pozik sufritzeko izan zuen: eta orobat dakizue, Apostoluak, eta beste Santuak, eta batez ere eremuetan aiñ luzaro bizi izan ziran, eta gizonen baño Aingeruen antz geiago zuenak, nolako trabajuak, nolako barau luzeak, nolako mortifikazioak, eta zeñ gogotik sufritu, eta eraman zituen: bada orien guzien birtute miragarria, eta artarako indarrak zetozkien Jesu-Kristo gure Jaunaren pasio, eta eriotzaren kabugabeko merezimentuetatik: eta orien frutua iristeko egiten zituen konsiderazio, orazio, eta alegiñetatik, eta orobat Sakramentu Santuak dauken birtute

guzia gizonak santifikatzeko, eta Zeruko bidean ariñ, eta gogotik ibillera zotzeko, Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santutik datorkie. Zerekin bada eranzungo diogu Jesu-Kristok agertu digun guganako amorio guttizkoari? Bada hitz batean guzia esateko; gu betiko galdu, eta kondenatu ez gaitez, eta betiko zoriona iritsi dezagun alako pasio garratza, eta eriotza lotsagarria sufritzera gure ordez borondate osoarekin jarri zan. Eta oraiñ ikusi dezagun, nola padezitu zuen: bada orretan ere, dotriña, eta ikasbide guziz andia eman zigun: eta zeñ maite gaituan ondo agertu zigun.

5. **G.** Nola padezitu zuen bada Jesu-Kristo gure Jau-nak? **E.** Ez gaizkilleak bezela bere pekatu, edo gaiztakeriak gatik: bada etzuen, eta eziñ izan ere zezakean pekatu propio, edo bererik: eta eriotzara, indarrez bezela, kondenatu zuen Ponzio Pilatosek iru bider, eta agerian deklaratu zuen, kulparik batere Jesu-Kristogan ezin arkitu zuela: padezitu zuen bada gure pekatuak gatik: eta bere borondatez, edo bera nai zuela, bere etsai amorratuen eskuetan entregatu zan: eta eziñ esan al baño geiago sufritu bazuen ere, geiago, eta geiago sufritzeko borondatea agitz andiagoa zan, ala bear izan baliz. Bai, N.K., aiñ andia da Jesu-Kristoren guganako amorioa, nun ez mundu guzia salbatzeaga-

tik, baizik anima bakar bat salbatzeagatik prest zegoan, iru ordu gurutzean zinzilika aiñ tormentu arrigarriak sufritzen egon zan bezela, ala bear izan baliz, milla urte, edo munduaren bukaeraraño aek guziak sufritzen egotera: eta ortik kontu atera ezazue, zuen animak zenbat balio duen, eta zenbateraño Jaungoikoak estimatzen dituan. Eta izan zuen Jesu-Kristok bere tormentu arrigarrien arlean ariñgarririk, alibiorik, edo konsuelorik? Ez Zerutik, eta ez lurretik nork konsolatu orduan izan etzuen: berak ori deklaratu zuen, gurutzean iltzez josirik zegoala, bere Aita eternoari esan zionean Nere Aita, zergatik desanparatu nazu? eta alde guzietatik etzuen ikusten naigabea baizik. Bere Ama Santisimak berak (kulparik batere ezpazuen ere) beste iñork baño geiago penatzen zuen: bada Ama Birjiñaren dolore guztiz miñak biotza erdiratzen zio-ben: eta bere Apostoluetatik, batak saldu zuen, besteak ukatu zuen, eta besteak bildurrez utzi, eta desanparatu zuen, eta etsai amorratuak baizik bere inguruan ikusten etzuen. Eta nola zeramazkian Jesu-Kristo gure Jaunak aiñ pena gogorrak, eta aiñ naibage arrigarriak? Aditu ezazue arren atenzio guziarekin azkeneko zirkunstantzia au: bere sufritzeko modu miragarriarekin 1. erakutsi zigun gizon utsa baño geiago

zala: bada ainbeste tormentuen artean etzuen ikararik batere agertu: eta guztizko serenidadea, grabedadea, modestia, eta bere kabugabeko birtutea, eta fortaleza agertu zuen: 2. bere sufritzeko moduarekin birtute guzien ejemplo miragarriak eman nai izan zigun: bada, askotan esan dizuedan bezela, Jesu-Kristo gizon egin zan, ez bakarrik gu erredimitzeko, baita ere guziori Zeruko bidea bere dotriña, eta ejemploarekin erakusteko. Eta batez ere bere humiltasun miragarriarekin, bere pazientzia arrigarriarekin, bere eriotzaraño-ko, eta gurutzeko eriotzaraño-ko obedienziarekin, bere mansotasun eziñ andiagoarekin, bere ixiltasun guztizkoarekin ainbeste falso testimonio, burla, iskarnio, eta injuria arrigarrien artean: bere karidade, eta zelo, ta ansia aiñ irazekiarekin bere Aitaren honra, eta gure salbazioa seguratzeko: bere guztizko pobrezarekin, eta munduko anditasun guzien desprezioarekin, deabrua, mundua, eta aragia goitu, azpiratu, eta benzi- tuarekin. eta beste eziñ kontatu al baño ejemplo miragarriakin: ez bakarrik erakutsi zigun birtute guzien ekiera, edo ejerzizioa, baita ere artarako alaitu, animatu, eta indartu ginduzen; eta oraiñ ere indartzen gaitu berak guretzat irabazi zuen graziarekin, guk ori



gogotik eskatu nai badiogu: eta berari jarraitzeko egiazko alegiñak egin nai baditugu.

Eta orra, N.K., zeñ frutu andiak atera ditzakegun Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuaren konsiderazioetik, gogoan ondo sarturik edukitzen baditugu aditu dituzuen bost gauza, edo zirkunstantzia prinzipalak: a) da, 1. nork padezitu zuen: 2. zenbat padezitu zuen: 3. norgatik padezitu zuen: 4. zertako padezitu zuen: eta 5. nola, edo zer moduz padezitu zuen.

Oitu zaitezte bada arren, N.K., konsiderazio ori egunoro al dezuen eta ondoena egitera: zuen itxumenak aienatuko dituzue: pekatuak, eta pekaturako bideak, eta zuen griña gaiztoak iguituko dituzue: Jesu-Kristori jarraitzeko gogoia, eta indarra iritsiko dezue: bizimodu Santu bat egingo dezue: eta Zeruko gloria iritsiko dezue. Amen.

# OGEITA BEDERATZIGARREN DOTRIÑA

*Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuaren  
konsideraziotik atera bear ditugun  
afektoak, eta frutuak.*

Jesu-Kristo gure Jaunaren pasio, eta eriotza santuaren kontsiderazioan, probetxu andia ateratzeko, gogoan eduki bear ditugun bost gauza, edo zirkunstanzia prinzipalena aditzera eman nizuen aurreko dotriñan: baña orien ezaguera bakarrik asko ezta, saiatzen ezipagera, oriei dagokien afektoak, edo sentimenduak gure biotzetan sortutzera: bada oetan dago kontsiderazioaren frutu guzia: eta atera bear ditugun afekto prinzipalak dira, 1. Jesu-Kristoren pasioko dolore, edo tormentuen konpasioa, edo errukia. 2. Gure pekatuen kontrizio, edo biotzeko damutasuna. 3. Esperanza humill bat beti edukitzea. 4. Esker ona. 5. Jesu-Kristoganako amorioa. 6. Arriturik, edo miretsirik beti egotea bere ontasun neurribageaz: eta 7. Jesu-Kristori gogotik jarraitzea, edo berak erakutsi zigun bezela gure bizimodua moldatzea: eta orra dotriña gai

bat txit probetxu andikoa, Jaungoikoak digula frutu andi bat ateratzeko bere grazia: eskatu dezagun Ama Birjiñaren bitartez. Abe Maria.

1. **G.** Zeiñ da Jesu-Kristo gure Jaunaren Pasio penagarria, eta eriotza gogor lotsagarria gogoratzen degunean eduki bear degun lenengo afektoa, edo biotzeko sentimentua? **E.** Da gure barrean penatzea, tristetzea, eta errukitzea ainbeste pena, neke, dolore, naigabe, eta tormentu; eta aiñ arrigarriak batere kulpa bage sufritu zituala konsideratuaz. Ala egia arrizkoak, eta burnizkoak baño gogorrakoak gure biotzak eduki bear ditugu, biguntzen, eta tristetzen ezpagera, ikusirik, ez nolanaiko persona bat, ezer zor eztioguna: dala, bera danagatik, edo dala mesederik batere egin eztigulako: baizik dala gure jabea, gure egillea, gure Aita ona, gure ongille guztiz andia, gure adiskiderik fiñena: bere odol guzia gure salbazioagatik eman duena: eta eziñ esan al baño geiago gugatik nekatu dana. Lotsatu gaitezen bada, N.K., gure gogortasun arrigarriaz, eta esker bagekeriaz: eta lagundu degiogun Jesu-Kristori bere penetan, biziro sentitzen ditugula, ez bakarrik erruki, eta amorio natural batekin, baita ere berari Kalbarioan zerraizkan emakume piadosak bezela; batez ere fedea erakusten dizkigun motibo guztiz

andiakgatik; konideratzen degula, nor zan Jesu-Kristo, zenbat padeitzen zuen: norgatik, zertako, eta nola padeitzen zuen: berak kulparik batere etzuela: eta gure kulpakgatik guzia aiñ humill, eta aiñ gogotik sufritzen zuela. Eta bidenabar erakusten zigula, zenbateraño gure pekatuak aborrezitu bear ditugun: bada Jaungoikoaren justiziak ainbesteraño kastigatu zituan bere seme propioagan, gure fiadore egin zalako, eta gure pekatuen zorraren pagua bere gañ arte nai izan zuelako: eta ortik kontu ateratzen degula, pekatuen egiazko penitenzia egin nai ezpadegu, polako kastigua Infernuko su, eta garretan beti sufritu bearako degun: Eta 2. **G.** Zein da orretako Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuaren konideraziotik atera bear degun biotzeko afektoa, edo frutua? **E.** Gure pekatuakin Jaungoikoaren Majestadea ofenditzeko ausardia ikaragarria izan degulako dolore, damu, eta sentimentu andi bat beti edukitzea gere barrean: pekatua biotz guztitik iguitzea, eta aborrezitzea, Jaungoikoaren ofensa, eta injuria dalako, eta gure animaren betiko kondenagarri dalako: eta berriz pekaturik ez egiteko asma irmoa, proposito sendoa, edo determinazio osoa, eta eragillea gure biotzean artzea, eta sarri berritzea, Jaungoikoaren justiziarri, al degunera-

ño, satisfazioa emateko deseo egiazko batekin. Orixe da kontriziozko, edo penitenziazko aktoak egitea. Eta orretako gauza egokiagorik, eta eragilleagorik munduan ezta Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuaren kontsiderazioa baño, esan ditugun bost gauzak, edo zirkunstanziak ondotxo ausnartzen baditugu. Ala egia pekatu mortal baten malizia, edo gaiztakeria, zeñ arrigarria, zeñ pisua, eta zeñ kaltegarria, eta iguigarria dan, ondo ezagutzeko, eta ezagutzen dan bezela aborrezitzeko, txit asko balio badu ere, ondo kontsideratzeak, 1. pekatu mortala, edo larria dala gure Jaungoikoaren aiñ injuria andia, aiñ desprezio izugarria, eta aiñ billaukeri, eta eskergabetasun ikaragarria, nun ezta munduan gizonik, dan jakinsuena izan arren, orren pisutasuna ondo ezagutu lezakeanik. Bada ezta gutxiago, kreatura bat, arrazoiak bizi bear duena, eta dan guzia, eta duen guzia bere Kreadore, edo egille, eta ongille soberanoari zor diona, bere majestadearen kontra altxatzea, edo errebelatzea: eta aren etsairik andienaren mendeko bere gogoz, eta borondatez egitea baño. Orra nola munduan injuriarik andiena, eta traizione billauena izan oi dan, basallo bat, duen guzia bere Errege onari zor diona, Erregearen kontra altxatzea, edo errebelatzea; eta koroa, eta bizia kendu nai

dioben etsai gaiztoakin juntatzea. Zer injuria andiagorik! Bada ona beste andiago bat 2. pekatu mortala da, balanza, edo pisu batean, alde batetik munduko puntu, edo banidade zital bat: edo ondasun, edo interes labur bat: edo gorputzaren atsegin zikin bat ipiñi: eta bestetik Jaungoikoaren lege santua, bere borondate soberanoa, eta guziz justua, edo zuzena, eta bere kabubageko ondasun guziak paratu: eta naiago izatea kreatra zirzill ezerez batek bere borondatetxea, edo nai gaiztoa egitea, Jaungoiko guziz poderoso, eta guziz santuarena baño. Zer desprezio, eta billautasun izugarriagorik! bada ezta ori bakarrik: zerren pekatu mortala 3. da eskerbeltzik, eta eranzuerarik izan ditekian iguigarriena. Gogora ezpada ekarzue, Jaungoikoaren ontasunari, zuek merezi bage, zenbat zor diozuen. Badezue alabaña ezer, ala animaren aldetik, nola gorputzaren aldetik, Jaungoikoari zor eztiozuenik, edo berak eman eztizuenik? Etzaitue ezerezetik egin bere anlzera, eta eternidade guziko zoriona gozatze-ko? Eta ori iristeko, bear dituzuen argi guziak, eta laguntasun guziak eztizue aiñ ugari eman? Eta betiko infernua askotan merezitu izan arren, ara bota ordean, eztizue itxon? Etzaitue askotan beregana deitu? Eta Sakramentu santuetan aiñ erremedio erra-

zak, eta eragilleak ipiñi entizue, zuek pekatutik libratzeko, zuek ondutzeko, eta orain bere grazia, eta gero betiko gloria emateko? Eta au guzia ezer ezpaliz bezela, ezertan asko eduki eztezue: eta berriz, eta berriz, eta askotan pekatu mortalak egitera ardurabage itzuli zerate: esker gaiztoko humeak bezela zuen Aita ona despreziatu, eta deshonoratu dezue: traidore lotsabage batzuek bezela zuen adiskiderik eta ongillerik andiena saldu dezue: emazte zoro esker gaiztoko batek bere esposo ona deshonoratzen duen bezela, beste batekin dabillenean; ala zuen animen Esposo guztiz maitagarria, kreatura baten amorioagatik despreziatu dezue: zuen Salbadore, eta Erredentore maitagarriaren amorioa ezertan eduki eztezue: zuekगतik sufritu zuen pasio, eta eriotzaren kabubageko merezimentuak, eta aren frutua, zeurok galdu ezeze, zuen eskandalo, edo gaitz-bideakin beste askori galdu eragin diozue: Demonioaren beraren lanak egin dituzue: eta Jesu-Kristo berriz (ala bear baliz) gurutzean illtzeko, eta aren tormentu guziak berritzeko nai adiña motibo eman dezue: eta zuan aldetik danez berriz (San Pablok dion bezela) Jesu-Kristo guruzifikatu dezue, pekatu mortala egin dezuen aldi guzietan. A, zeñ itxumen, eta eskergabetasun izugarria, aiñ sarri gertatu-

ko ezpaliz, sinistu ere eziñ zitekeana! Eta ala ezagatu dezagun, N.K., gere barruko lotsa, eta damutasun andi batekin, txit arrazoi andiarekin, pekatuak Jaungoikoaren aserrearan ipiñi gaituala: betiko gloriaren herentzia gozoa, eta aberatsa galdu eragin digula: eternidade guziko tormentuak animan, eta gorputzean Infernuko su, eta garretan beti-beti sufritzen egotera kondenatzen gaituala: Jaungoikoaren seme eta Zeruko erreinuaren heredero giñanak, deabruaren zorigaitzoko katibu billabak, eta aren lagun desditxatuak, eta bere antzeko monstruo itxusi nazkagarriak, eta izugarriak egin gaituala: gure anima tristea pekatuak gaixotzen, argaltzen, itxutzen, eta illuntzen duela, bere zorigaitza ez ezagutzeko: eta gaitzerako giña gaiztoz berriz betetzen duela: eta azkenik Jaungoikoaren grazia galdurik, eziñ ezer merezi dezakean estadu errukigarrian ipinten duela: bada obra onak egiteko illik dago pekatuan dagoan artean: orra zer dan, eta zein kalte arrigarriak dakazkien pekatu mortal batek: eta argatik zein iguigarria dan. Bada diot, ori guzia txit egokia bada ere, pekatua ezagutzeko; pekatu mortal baten malizia, eta gaiztakeria askoz obeto ezagutzen dala, eta geiago aborrezitu bear degula: gauza oek biok gogora ekarriaz, eta ondo konsidera-



tuaz. 1. Da, pekatu mortala dala Jaungoikoaren majestadeari egiten zaion injuria, desprezio, edo ofensa bat aĩn arrigarria, nun munduko kreatura guziak, Aingeru, eta Santu guziak, pekatu mortal bakar baten zorra pagatzeko, eta orren barkazioa iristeko, egiñ al obra on guziak eta eraman al trabaju, neke, eta tormentu guziak Jaungoikoaren justiziara ofrezituko baliobe ere: zorra pagatu bage, eta barkazioa iritsi bage geldituko lizatekean. Zerren kreatura utzetan, Ama Birjiña bera bezin santuak balira ere, ezin arkitu diteke kaudalik, eta merezimenturik pekatu mortal batek Jaungoikoaren majestade soberanoari egiten dion injuria izugarriaren zorra pagatu lezakenik: badakizue alabaña, ofensa bat dala andiagoa, zenbat ofenditua andiagoa dan, eta ofenditzallea txikiagoa dan: eta nola Jaungoikoaren anditasuna, eta majestadea dan kaburik eztuena, eta gizon bat ezeze, kreatura guziak ere ezezez bezela diran Jaungoikoaren aldean; orra zergatik pekatu mortala dan alde orretatik kaburik eztuen gaiztakeria, eta injuria: eta orra zergatik kreatura guziak orren zorra ezin pagatu zezaken. Zer erremedio bada arkitu zitekean pekatuen zorra pagatzeko, eta Jaungoikoaren justiziara satisfazio osoa emateko: eta berarekin pekatariak errekonziliatzeko, paketzeko,

eta adiskidetzeko? Eta gizonak aiñ desdixta, eta zorigaitz arrigarritik libratzeko: eta galdu zituan graziazko, eta gloriako ondasunak goatzera biurtzeko? Ez zegoan besterik, Jaungoikoa bera gizon egitea, eta gizatasunean padezitzea, eta illtzea baizik, baña nork ori espera zezakean? eta nori burura ere etorri zeikion orrelako erremediorik? Orra bada N.K., 2. Jaungoikoaren ontasuna, eta justizia: eta beraren guzialtasuna, eta neurribageko jakintasuna zertan enpleatu diran, pekatua desegiteko: gizonak pekatuaren, eta Demonioaren mendetik ateratzeko: eta Jaungoikoarekin berarekin adiskidetzeko. Orretako batez ere Jaungoiko egiazkoa zan Jesu-Kristo, gizon egin zan: orretako ainstebesteraño humillatu zan: padezitu zuen: eta gurutze batean iltzez josirik lapur biren erdian ill zan. Eta or ezagutzen da argiro, 1. pekatu mortal baten gaiztake-ria zeñ neurribagea, eta ikaragarria dan: bada alako erremedioa, edo kabubageko pagua, edo satisfazioa bear izan da, orren zorra pagatzeko. 2. or agiri da Jaungoikoaren justizia zeñ ikaragarria dan: eta zenbateraño pekatua aborrezitzen duen. 3. Or bertan ikusten da Jaungoikoaren ontasuna, eta miserikordia zeñ miragarria, eta neurribagea dan, eta gizonak zeñ maite, eta zeñ erruki dituan: eta azkenik, ez geiegi

luzatzeagatik, or ageri da, N.K., zuen animak zeñ pre-  
ziatuak diran Jaungoikoaren begietan: zuen salbazioak  
zenbat balio duen: ori zuei iritsi eragiteko, Jaungoiko-  
ak zenbat egin duen, eta zenbat sufritu duen: eta  
zuek, borondatez itxutu, eta zoratu nai ezpazerate,  
zer egin bear dezuen, betiko zorigaitzetik libratzeko,  
eta betiko zoriona iristeko. Zer egin bear degu bada?  
Pekatu mortalak beste gaitz guziak baño geiago igui-  
tu, eta aborrezitu, eta oraindañoko pekatuen damuta-  
sun egiazkoarekin, eta bizimodu berri bat egiteko  
asmo, edo proposito eragille batekin konfesio on bat,  
eta aurrera Jaungoikoaren grazian irauteko eta bizio-  
ak goitutzeko, eta birtutean aurreratzeko Jesu-Kristo  
guruzifratuari sarri begiratu, eta aren pasio, eta erio-  
tza santua ondo konideratu. Eta zenbat ori sarriago,  
eta arreta geiagorekin egiten dezuen, anbat frutu  
ugariagoak, eta afekto, edo sentimentu biziagoak, eta  
probetxugarriagoak zoko biotzetan sortuko dira: eta  
batez ere oituko zerate 1. Jesu- Kristogan esperanza  
humill bat txit konsolagarria edukitzera: 2. esker one-  
koak izatera: 3. Jesu-Kristo biotz guztitik amatzera: 4.  
beraren ontasunaz, eta zuekin eduki duen errukiaz  
arriturik, eta miretsirik beti egotera: eta 5. leiatuko  
zerate bere antzekoak izateko egiazko alegiñak egite-

ra: bada guzirako motibo, eta arrazoi guziz indarsuak, eta eragilleak Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santua-  
ren kontsiderazioan arkituko dituzue: eta ori da orain,  
laburtxo bada ere, nola egin erakutsi bear dizuedana.

**G.** Eta 1. Jesu-Kristogan esperanza humill bat,  
baña guztiz andia, eta konsolagarria edukitzeko, zer  
pentsatu, eta zer egin bear degu? **E.** Sinistu bear degu  
biziro, eta kontsideratu, gure Jaungoikoaren ontasuna,  
miserikordia, eta digun amorioa guztiz andia, eta mai-  
tagarria dala: guk merezi bage egin dizkigun mesede  
guztiz andietan, eta batez ere gu pekatutik, eta beti-  
ko eriotzatik, edo infernutik libratzeko artu dituan  
neurri, eta medio errukizko, eta amoriozkoetan argiro  
ageri danez. Eta 2. ondo pensatu, eta gogoan sarturik  
eduki bear degu, guk gerez ez merezi arren pekatuen  
barkaziorik, eta Zeruko sokorro, laguntasun, edo gra-  
ziarik; kabubageko diñatasuna, eta neurribageko  
merezimentuak dauzkala Jesu-Kristo, gure bitarteko,  
eta pagatzalle andiak: beretzako bear etzituala, gure-  
tzat irabazi zituala: eta guziak gugatik Aita Eternoari  
ofrezitu ziozkala, eta beti ofrezitzen dagoala: eta Aita  
Eternoak hitza emanik dauka, Jesu-Kristoren izenean  
gure salbaziorako eskatzen digun guzia emango digu-  
la: eta ala gure pekatuak balira ere, eziñ kontatu ala,

eta munduan oraindano egin diran, eta aurrera egingo diran itxusienak, eta nazkagarrienak, guzien barkazioa emateko prest dago gure Jaungoikoaren kabubageko ontasuna, eta miserikordia, Jesu-Kristoren ize-nean, eta aren neurribageko merezimentuakgatik, egiaz damaturik, esperanza humill batekin barkazioa eskatzen badiogu. Eta orobat emango dizkigu bear ditugun Zeruko argiak, laguntasunak, eta indarrak bere grazian, eta adiskidetasunean irauteko: gure animako etsaiak, kanpokoak, eta barrukoak menderatzeko: eta Jesu-Kristori berari jarraitzeko. Zer konsuelo andiagorik, egiaz ondo, eta salbatu nai duen Kristau pekatari batenzat! baña orretako eduki bear dezue, ez nolanaiko esperanza, baizik humilla: bada asko Kristau arkitzen dira gai onetan txit itxuturik, eta Deabruak engañaturik. Batzuek bildurtiegiak, guztiz argalak, eta gaitzerako griña biziak, eta pasio sutuak, eta irazekiak dauzkatelako, etsitzen duenak edo esperanza txit urria duenak: eta alaitzen eztira; zergatik uste due grazia berez egin bear duela: eta eren pasioak goitzeko indarrik eztuela: orien erremedio andia da bada esan degun esperanza humilla: sinistu bear due, erak bakarrik gauza onik ezin egingo duela: baña ori ezaguturik, eta humillaturik, eta ondutzeko deseo era-

gille batekin, gogotik, eta esperanza osoa Jesu-Kristo-  
gan ipiñirik Jaungoikoari eskatzen badiobe bear duen  
Zeruko laguntasuna, eta indarra, seguro iritsiko duela.  
Kontrara beste Kristau batzuek, alde batetik arroak,  
eta bestetik alper nagi andiak, pekatu mota askoren  
mendean egon arren, uste due, ez Jaungoikoak orain  
deitzen dienean, baizik erak nai duenean txit erreme-  
diatuko dirala: eta ala egingo duelako esperanza ere  
badue: baña da esperanza artoa, erabagea, funda-  
mentu bagea, eta engañagarria: bada eskuarkiro orre-  
lakoak iñoiz bear bezela humillatzen eztira: zerren  
eren buruak ezagutzen eztituen: eta kondenatu oi  
dira: eta are gaiztoago dira beste Kristau itxutu  
batzuek, erremedioaz pozoil gaizto ilgarria egiten due-  
nak: eta dira, Jaungoikoa aiñ ona, eta miseriakordioa  
dalako: eta pekatuen pagu osoa Jesu-Kristok gugatik  
eman zuelako, nekatu bearrik eztuela: gustora orain  
bizi ditezkeala: eta azkeneko gaitza, edo eriotasuna  
datorkienean grazia erremediatuko duela: eta salba-  
tuko diralako esperanza andian bizi diranak. A! zeñ  
arrigarria dan oen guzion itxumena! eta zeñ bildur  
izateko dan, oraingo esperanza gaizto ori, pekatuen  
irauteko serbitzen dien uste falso ori, egiazko deses-  
peraziora biurtuko zaiela; lenago askori gertatu zaion

bezela, supito iltzen ezpadira ere! bada Jaungoikoaren Majestadea biotz guztitik amatzera ekarri, eta mugitu bear dituan motiborik andiena: au da, bere kabubageko ontasuna, eta gizonari egin dion mesederik andiena, pekatutik libratzeko, eta birtuteari benetan jarraitzeko, artzen due aitzakitatzat, eta okasiotzat, Jaungoikoa bera geiago ofenditzeko; pekatuetan irauteko, eta alper nagi andiak izateko. Jaungoikoak arren argitu gaitzala guziok; gere gaiztakeriak ondo ezagutzeko: eta digula egiaz humillaturik, lotsaturik, eta damuturik esperanza humill, baña eragille batekin, Jesu-Kristoren izenean gere pekatuen barkazioa sarri, eta ondo eskatzeko bear degun grazia: bada orrela iritsiko degu: eta gugan sortuko da Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuaren konsiderazioari beti lagundu bear dion beste afekto bat guziz probetxugarria, eta Jaungoikoarentzat txit atsegingarria.

**G.** Eta zer da esker onekoa izatea? eta Jesu-Kristoganako esker ona ejerzitzatzeko zer pensatu, eta zer egin bear degu? **E.** 1. Esker onekoa izatea da, errebitu degun faborea, mesedea, edo benefizioa, au da, on egiña ondo ezagutzea, eta agitz estimatzea: 2. da, ongillari, edo mesedegillari eskerrak gogotik ematea: eta egin digun mesedearen anditasuna autortzea,

eta alabatzea: eta 5. da, al deguneraño gere obra, edo lan onakin egilleari korresponditzea, edo ondo eranzutea, eta atsegiñ ernatea: eta ori guzia da, persona humillak txit gogotik egiten duena: baña arroak txit nekez, zergatik oek uste due guzia zor zaiela: eta kontrara humillak uste due, ezer merezi eztuela: diot bada 2. Jesu-Kristoganako esker ona ejerzitzeko, alegiñak egin bear ditugula, bere bizi guzian, baña batez ere bere pasio, eta eriotzako denboran egin dizkigun mesede guztiz arrigarriak eta oriek eragin diozkan guganako amorioaren anditasuna ondo ezagutzeko, eta gogoan beti erabiltzeko, nor dan Jesu-Kristo: zenbat sufritu zuen: norgatik sufritu zuen: zertako sufritu zuen: eta nolako amorioarekin sufritu zuen: eta nola ori guzia zeoro aditurik daukazuen, orain berriztuko eztizuet. Eta diot bakarrik, bost gauza, edo zirkunstantzia orien ezaguerak, eta konsiderazioak agitz argituko, eta mugituko zaituela: esker onekoak izatera ezeze, Jesu-Kristoren maitatzalle andiak izatera: eta au da Jesu-Kristo gure Jaunaren pasio, eta eriotzako, eta bere bizitzako pauso guzietatik atera bear degun afekto, eta frutu prinzipalena: bada, nola gure amorio propio erabagea, eta munduaren amorioa dan gure pekatu guzien, eta gure kondenazioaren sustraia, eta



jatorria, ala gure Jaungoikoaren, eta bere seme Jesu-Kristo, Jaungoiko, eta gizon egiazkoaren guzien gañeko amorioa da, gure pekatu guziak desegiten dituana: eta on guziak, ala oraingoak, nola gerokoak edo betikoak dakazkiguna.

**G.** Eta zer pensatu, eta zer egin bear degu amoriozko afekto aiñ probetxugarri ori alkanzatzeko? **E.** 1. Esker onaren gañean esan deguna bera. 2. Jesu-Kristoren maitagarritasuna alik ondoena ezagutzeko alegiñak egitea, ala bera danagatik, nola gurekin egin dituan amoriozko lanakgatik, eta gugatik eraman dituan neke arrigarriakgatik: bera da alabaña, beregan kaburik eta neurrik eztituen perfezio guziak dauzkana: bera da guztiz ona, guztiz poderoso, edo alduna, guztiz jakinsua, guztiz santua, guztiz ederra, edo edertasuna bera, eta edertasun guzien sortzallea, edo emallea: bera da gure jabe soberanoa: gure Kriadore, edo egillea, bere idurikoak, edo antzekoak, eta beti zorionekoak izateko egin gaituana: bera da gure Salbadorea, gure Erredenptore, edo eroslea: gure Maisu, edo Zeruko gidaria: bera da gure Abogadua, edo anparatzallea: bera da gure Medikua, edo sendatzallea: gure Arzaia, eta Arzai ona: Bera da Zerurako gure bidea: egia bera, eta gure argia: eta hitz batean

esateko, bera gure on guzia: gaitz guzien erremedioa: eta on guzien ekarlea: gu betiko eriotzatik libratzea-gatik, eta betiko gloriara eramateagatik gizon egin zana, eta gurutze batean iñork obligatu bage, bere borondatez eriotzara entregatu zana. Nork amatuko eztu bada orrelako Jaun maitagarria, eta orrelako ongille miragarria? Eta nork pozik bizia emango eztu, Martiri santuak bezela, orrelako jabe guztiz ona ez ofenditzeagatik; eta amorioz berari eranzuteagatik? Eta nor egongo ezta arrezkero beti arriturik eta miretsirik, ikusirik Jesu-Kristoren guganako amorio aiñ andia, eta irazekia, eta orrek eragin diozkan mirari aiñ andiak? Eta au da beste afekto eta frutu andi bat, Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuaren konsiderazioak berez dakarrena: eta orretara oitu ziran santuak, askotan kordebage uzten zituana, eta beregandik ateratzen zituana: bada mundu guzia ezerezetik hitz bakar batekin egiteak: mundu guzia konserbatzeak: eta Zeruan eta lurrean Jaungoikoak egin dituan ezin kontatu ala prodijio, eta marabilla guztiz andiak etzitan ainbeste arritzen, nola Jaungoikoaren seme propioa, mundu guziaren jabea gurutze batean gizonaren amorioagatik illik ikusteak arritzen, ola miresten zitan: bada beste obra miragarri oriek guziak Jaun-

goikoak egin ditu, berari ezer kostabage: nai izatea, eta agintzea asko zuen guziak egiteko: baña gizona erredimitzeko, eta salbatzeko ezin geiagoraño humillatu zan, eta nekatu zan: eta Sakramentu santuetan gizonaren alde mirari arrigarriagoak, eta andiagoak egin zituan, eta egunoro egiten ditu: eta or ezagutuko da argiro, askoz obra andiagoa, eta miragarriagoa dala gizonak pekatutik, eta deabruaren katiberiotik ateratzea, eta santifikatzea, munduko beste obra andi miragarri guziak egitea baño. Alabatua izan dedilla betiko orrelako gure Jaungoikoaren ontasun aiñ miragarria.

**G.** Eta orain, Jesu-Kristok aiñ maite gaituan ezkerro, eta gu salbatzeko ainbeste nekatu dan ezkerro, zer egin bear degu berari esker onaz, eta amorioz eranzuteko? Eta gure animak salbatzeko? **E.** 1. Millarezko eskerrak sarri eman: 2. bera dan ezkerro ez bakarrik gure Erredenptorea, baita ere gure Maisu, erakusle, eta Zerurako gidaria, berari, erakutsi zigun bizimoduan ala bere ejemplo onarekin, nola bere dotriñarekin, gogotik jarraitzeko alegin guziak egin bear ditugu: bada bestela eztegu Kristauaren izenik edukitzea ere merezi. Baña, nola aiñ itxuak gauden munduko zora-keriarekin, eta gora berakin: eta gure andinai, eraba-

geko ondasun gura: atsegin, gusto, nai, deseo, edo griña andiakin: eta beste pasio erabage askorekin: beti pekatura ekarri, edo mugitu oi gaituenakin: 3. egunoro, eta alik sarriena orazio piskatxo bat bere konsiderazioarekin egitera oitu bear gera: eta Jaungoikoari biotzetik eskatu bear diogu, arren digula Jesu-Kristoren pasio, eta eriotzaren merezimentuakgatik, bear degun argia eta grazia, gure itxumena ezagutzeko: Jaungoikoaren ontasun neurribagea, eta egin dizkigun mesede guztiz andiak sarri gogoratzeko, eta batez ere, zer dan, edo betiko zorionekoak, edo betiko zorigaiztokoak izatea beti gogoan edukitzeko: eta egia oriekin batera argiturik, azkarturik, eta Jesu-Kristoren graziarekin armaturik, eta indarturik, gerra bizia beti pekatuari egiteko: birtuteari gogotik jarraitzeko: eta orrela zoriona edo Zeruko gloria iristeko. Amen.

# OGEITA AMARGARREN DOTRIÑA

*Jesu-Kristo gure Jaunaren Pasio santuaren historia,  
edo gertaera miragarria:  
lau Ebanjelista santuak eskribitu  
zuenetik atarea, eta bildua: bi dotriñetan partitua.*

Aurreko dotriña bietan aditu dituzuen ezkerro probetxu andiarekin, Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuaren kontsiderazioa egiteko modua: eta atera bear dituzuen biotzeko afektoak, eta frutuak: beste dotriña bitan aditu bear dituzue al dezuen atenzio guziarekin: eta gogoan ondo sartu bear dituzue Jesu-Kristo, gure Salbadore, gure erosle, edo Erredentore, eta gure Zeruko Maisu, edo erakusle guztiz maitagarriak gugatik eraman zituan neke arrigarriak, azkene-ko asnasea gurutze Santuan eman arteraño: eta bide-nabar bere ejemploarekin, eta bere hitzakin erakutsi zizkigun dotriña, edo ikasbide guziz probetxugarriak. Eta gaurko dotriña aldian (asko inporta duen galdera bi lenago eginda) Ostegun Santu gabean gertatu ziran gauza miragarriak aitatuko dizkitzuet: eta frutu andi

bat guziok ateratzeko, eska dezagun aurretik Espiritu Santuaren argia, eta grazia, Ama Birjiña Santisimaren bitartez. Abe Maria.

1. **G.** Nor izan ziran Jesu-Kristo gure Jauna a­ñ bizi-  
ro persegitu; a­ñ gogorkiro nekaerazi, eta gurutze  
batean illeragin zuenak? **E.** Juduen Apaiz nagusiak, eta  
Moisesen legea puebloari erakusteko kargua zuenak  
erak. **G.** Eta zergatik Jesu-Kristori alako gaitz iritsia,  
eta gorroto arrigarria artu zioten gizon a­ñ andi, eta  
errespetagarri batzuek? **E.** Zergatik, kanpolik santu  
batzuek bazirudien ere, ziran guztiz arroak, andinaiak,  
enbidosoak, ondasunzaleak, eren zorion guzia mun-  
duan bakarrik billatzen zuenak: estimazio guzia eren-  
zat bakarrik nai zuenak: eta eren jakinduri arroaz a­ñ  
itxuturik zeudenak, nun aen esanera jarten etziran  
guziak aborrezitzen zituen: eta ezi­ñ geiagora­ño perse-  
gitzen zituen. Eta, nola Jesu-Kristo gure Jaunak bere  
guztizko mirariakin, edo milagroakin guziai on egi­naz,  
guzien biotzak bereganatzen zituan; eta bere ejemplo,  
edo bizimoduarekin, eta bere dotri­ñarekin bere etsai  
guzien iruipeneko birtutea, eta egiazko gaiztakeria,  
eta ipokresia a­ñ argiro agertu zuen: eta Zeruko bide  
zuzena humiltasunaren, biotzeko pobrezaren, pazien-  
ziaren, eta alkarrekiko egiazko karidadearen ga­ñean

ezartzen, eta erakusten zuen: (Agertu bazuen ere eziñ dudatu zitekean moduan, bera zala aspaldian itxodoten zeuden Mesias, edo Salbadore egiazkoa, eta Aita eternoaren Seme propioa, naturala) geiago, eta geiago aren etsaiak itxutu ziran, gogortu ziran, eta amorratu ziran: blasfemiak esaten zituala, asmatu zioben: eta bizia gurutze batean kendu arteraño gelditu etziran eta Jaungoikoak orien itxumena permititu zuen eta alako moduan zuzendu zituan gauza guziak, nun etzuen nai izan aren Majestadeak, deabruak bere arrotasunaz, eta maliziaz itxuturik, ezagutu zezan argiro Jesu-Kristoren Jaungoikotasuna, baizik gizon utsa zalako ustean persegitu, eta illeragin zezan; orrela Jesu-Kristoren pasio, eta eriotzaren sakrifizioaren bidez, edo bitartez mundu guzia salbatzeko, eta deabruaren mendetik ateratzeko. Adoratu ditzakun, N.K., Jaungoikoaren juizio guztiz miragarriak: eta millarezko eskerrak sarri eman degiozkagun; ez bakarrik zerren erredimitu nai izan gaituan Jesu-Kristoren biziaren kostuan, baita ere, zerren Zeruko bide zuzena erakutsi nai izan digun.

2. Eta orain asko inporta duen beste galde bat egin dezagun: zergatik, Jesu-Kristok, Jaungoiko, eta gizon egiazkoa izanik, eta kaburik eztuen diñatasuna

edukirik: eta bere odol tanta batekin, edo eskaera bakar batekin mundu guziaz salbatzeko diña birtute, eta merezimentu izanik, aiañ neke, eta tormentu arri-garriak, eta alako eriotza lotsagarria sufritu nai izan zitan? **E.** Motibo guztiz asko, eta guztiz andiakgatik: 1. zergatik zenbat geiago bere Aita eternoaren honra-gatik sufritzen zuen, inozentea izanik, anbat honra, eta gloria geiago ematen zion: eta anbat gloria geiago bere gizatasunarengat, au da, bere animarengat, eta gorputzarengat irabazten zuen. 2. Zerren gudanako zuen amorio guztizkoa obeto agertzen zigun: bada ezer kostabage on egitearekin baño, asko nekatu, eta eriotzara bere burua gugatik emanda, agitz obeto, zeiañ andia, eta irazekia dan digun amorioa agertu zigun: eta beraren amorioan gure biotzak irazekitzeko izan ditekean motiborik andiena eman zigun. 3. Zerren gizonak pekatuagatik ez bakarrik zeuden Jaungoikoaren etsai egiñik, eta deabruaren mendean jarri-rik, baita ere zeuden arrotasunez, gutiziaz, eta gorputzaren gurari zikiñaz itxuturik: eta beti gaitzera makurturik, eta birtuterako pisuturik, eta nagiturik: eta pekatu guziaz sustraiak diran gaitz izugarri oriek sendatzeko: eta gizonai Zeruko bidari jarraitzeko gogoia, eta indarra emateko, gauza bearrak ziran, alde



batetik ejenploa, edo ikasbidea, eta bestetik Zeruko grazia eta laguntasuna. Eta biak Jesu-Kristok bere neke, eta tormentu arrigarriakin eman zizkigun: eta erakutsi zigun, guziok ditugun griña gaiztoak goitze-ko, eta menderatzeko nekatu bage, eziñ iritsiko genduala, ez humilltasunik, ez biotzeko edo espirituko pobrezarik, ez animako, eta gorputzeko garbitasunik edo kastidaderik, eta ez pazienziarik; eta birtute oriek bage eziñ Jaungoikoaren amoriozko legea gordeko genduala, eta eziñ salbatuko giñala. Baña Jaungoikoagatik humillatzeko, sufritzeko, gure borondate erabagekoa ukatzeko, eta berarena egiteko alegiñak egiten baginduzen, bizioak goitu ezeze, Zeruko ondasun guziz andiak irabaziko giñituala: eta oraingo neke piska bategatik kaburik izango eztuen betiko poza, atsedena, eta gloria seguratuko genduala: eta orra zergatik konbeni zan, ez bakarrik pekatariak, baita justuak ere mundu onetan naibagetuak, penatuak, eta nekatuak izatea: bada zenbat geiago Jaungoikoari atsegin emateagatik sufritzen degun, anbat sari ugariegoa, eta gloria andiegoa betiko irabaziko degu; eta ezaguera orrekin Martiri santuak, eta beste santu guziak, eta Kristau onak, naigaberik, eta nekerik andienak, ez bakarrik pazienziarekin zeramazkien,

baizik munduko tesoro guziak baño geiago estimatzen zituen: eta atsegiñarekin sufritzen zituen: aekin egiten zuen irabaziari, Jaungoikoari ematen zioten atsegiñari, eta Jesu-Kristo guruzifikatuarekin zuen antzari, edo semejanzari fede biziarekin begiratzen ziobela: eta bidez eren pekatuen zor denborala errazago munduko naibage, neke, eta trabajuakin pagatzen zuen: eta Purgatorioko pena arrigarriak sufritzetik libratzen ziran. Eta ala, Jesu-Kristo gure Jaunak, guzien Maisu, gidari, eta Kapitanak bezela, neke arrigarriak, eta eriotza lotsagarri bat aiñ humiltasun, eta pazienza miragarriarekin sufritu nai izan zituan, guzioi, nai ta ez sufritu bear degula erakusteko: eta baita orretako bear degun Zeruko grazia, eta indarra guri iristeko, ori gogotik eskatu nai badiogu: eta orrekin batera egiazko alegiñak gere aldetik egin nai baditugu: Zerekin Jesu-Kristori pagatuko diogu bada, N.K., gugatik artu zituan nekeak? Eta zenbateraño lotsatu, humillatu, eta damutu bear ez gera, ikusirik ondo, zenbat nekatu zan Jesu-Kristo, gu galdu, eta betiko kondenatu ez gaitezen: eta ondo konsideraturik, ainbeste dijoakigun gure betiko salbazioaren egitekoan, geur aiñ lotiak, aiñ ardurabageak, aiñ nagiak, eta nekearen aiñ etsaiak gaudela? Azkartu gaitezen bada guziok: eta

orrelako Jesu-Kristoren pasio santuko misterio andiak, neke arrigarriak, eta eman zizkigun ejemplo ikusgarriak orain gogoan ondo artu ditzakun; eta gero sarri, eta betaz kontsideratu ditzakun.

**G.** Eta 1. Noiz asi zan Jesu-Kristoren pasio santuko gertaera guztiz miragarria: eta noiz bukatu zan? **E.** Asi zan Ostegun Santu gabean: eta bukatu zan Ostiral Santu arratsaldean irurak ziran orduan: eta guzia gertatu zan Paskuako jai andiaren bezperan: bada, guk orain egun osoa gaberditik gaberdira kontatzen degun bezela, orduan Juduak arratsaldeko seiretatik urrengo arratsaldeko seiretaraño bakarrik eguna kontatzen zuen.

**G.** Ostegun Santu gabean, bere pasio santuaren aurretik zer egin zuen Jesu-Kristo gure Jaunak? **E.** Misterio guziz miragarri batzuek orduan egin zituan: 1. bere Aposloluakin legeak agintzen zuen Paskuako Biltots errearen azkeneko Aparia egin zuen: eta aditzera eman zien, apari ura aekin egitea agitz deseatu zuela. 2. Maitik jaiki, esku ojal, edo legorkai bat bere gerrian ipiñi, onzi batean ura ezarri: eta bere Jaungoikozko eskuakin Apostoluai, eta Judas bere saltzalle billabari oñak garbitu zien, Zeruko Aingeru guziak arri-turik zeuzkan humilltasun parebagearekin. San

Pedrok, oñak garbitzen utzi nai etzion, Jesu-Kristoren anditasuna, eta bere ezereztasuna ikusirik: baña Jesu-Kristok esan zion San Pedrori, garbitzen usten ezpazion, etzuela beragan parterik izango: etzekiala orduan zer egiten zuen: gero erakutsiko ziola. Guziai oñak garbitu ezkeru, maian berriro jarri zan; eta esan zien: zuek deitzen nazue, zuen Jauna, eta Maisua: bada ala izanik, oñak nik garbitu badizuet, ikasi ezazue, alkarrekin zer egin bear dezuen: ejenploa neurk eman dizuet, nik bezela egin dezazuen. Nor arritzen ezta Jesu-Kristoren humilltasun onezaz? Eta ori guziori erakusteko egin dituan alegiñaz, eta artu dituan neurriaz gizon egin zanetik gurutzean il zaneraño? Ala egia bazekusen, soberbia izan dala, eta beti izango dala pekatu guzien sustraia, eta guzien sortzallea: eta humilltasun egiazkoa izan bear duela orien erremedioa: eta birtute guzien zimendua, edo fundamentua.

Ikasi dezagun bada, N.K., biotzaz humillak izaten, bada bestela Jesu-Kristori ezin jarraituko diogu, eta arrotasunagatik kondenatzen bagera, deabruaren zorigaiztoko lagunak izan bearko degu. 3. Ondoren Jesu-Kristok bere guganako amorioaren señalearik, eta prendarik andiena, eta mirari guzien miraria disponitu, eta ordenatu zuen: au da, bere gorputz, eta odol

preziosismoaren Sakramentua, eta sakrifizioa ordenatu zituan. Berak lenengo meza orduan eman zuen: berak bere eskutik Apostoluak, eta Judas bera komulgatu zituan: eta ori bera munduak diraben artean beti egiteko, Apostolui, eta aen ondorengo Sazerdote guziaz eskualdia, edo poderea eman zien. Amoriozko misterio oek hitz-gai guztiz andia due: eta bakarrik esaten dizuet orain, millarezko eskerrak txit sarri Jesu-Kristori eman bear diozkatzuela: eta Sakramentu guztiz miragarri orren frutu ugariak iristeko, sarritxo, eta ondo komulgatzeko oitura santua artzeko alegiñak egin bear dituzuela. 4. Misterio andi orien ondoren Jesu-Kristok apalondoko sermoia esaten zaion platika luze, eta txit dotrina andiak dauzkana Apostolui egin zien: gertatuko zan guzia zekienak bezela, esan zien; nola eretatik batek bere etsaiak saldurik zeukan, eta aen eskuetan entregatuko zuen: nola San Pedrok ukatuko zuen, aĩ balentia andiarekin agindu bazion ere beste guziak larga, eta desanparatu arren, eriotza berarekin sufritzeraño jarraituko ziola: baña baita esan zuen konbertituko zala, eta gero salbatuko zala: nola eldu zan ordua, mundu onetatik bere Aita eterno-agana igarotzeko: ill bear zuela; baña piztuko zala: naigabe andiak, eta persekuzio arrigarriak mundu

itxuagandik sufritu bear zituala: baña etzituala iñoiz desanparatuko: bidalduko ziela Espiritu Santua, eta argituko, eta indartuko zituala. Eta geiena enkargatzen ziela alkar beti amatzea, berak amatu zituan bezela: eta onelako beste dotriña txit konsolagarriak eman zien: Eta ondoren bere Ama Birjiña Santisimari kontu eman zion, nola bere Aita eternoaren borondatea egiteagatik, eta gizonak salbatzeagatik padezitzera, eta iltzera zijoan. Nork aditzera eman ditzake alako Ama Semen artean orduan igaro ziran biotzeko afektoak, eta sentimentuak, eta Ama Birjiñaren negar samiñak? baña nolakoa ala ere bien konformidade osoa Jaungoikoaren borondatearekin! eta zein dotriña andia, gure naigabeak Jaungoikoagatik pozik eramatera gu alaitzeko!

**G.** Eta arrezkero, zer egin zuen Jesu-Kristo gure Jaunak bere pasio santuari asiera emateko? **E.** Orduko Judas gaiztoak, gaizki komulgatu, eta deabrua bere biotzean zuela, geiago itxuturik, eta gogorturik alde egin zuen: eta egiñik zeukan trato madarikatua osatzera, edo bere Maisu dibinoa bere etsaiari entregatzeko neurriak artzera joan zan. Eta Jesu-Kristo beste amaika Apostoluakin Jetsemanira erretiratu zan: eta Jetsemaniko baratza edo hortu batean sartu baño

lenago guziaz esan zien: zaudete emen, nik nere Aitari orazio egin artean: eta arturik berekin San Pedro, Santiago, eta San Juan, sartu zan aekin baratza artan: eta abiatu zan tristetzen, eta penatzen bere artean: eta esan zien, eriotzaraño tristuraz beterik dago nere anima: alabaña bizia kentzeko diña pena, edo naigabea sentitzen zuen. Emen itxo ezazue: eta esna zaudete nerekin batera: eta piska bat alde egiñik eta auzpez etziñik, bere Aitari orazio egin zion, eta esaten zion: nere Aita, al bada, igaro bedi nigandik kaliz au, edo ill bearra: baña ez bedi egin nik nai dedana, ezpada zuk nai dezuna. Esango balu bezela gizatasunak berez ipiñi du ill bearra, eta onen deseo naturalak biziarentzat, eta atzerapenak eriotzarentzat eskaera au eragiten dit, o nere Aita: baña Espiritua prest dago zuk nai dezun guzirako, eta ala egin bedi zure borondatea. Eta orra N.K., guziok egin bear degun orazioa gere naigabetan, eta batez ere iltzeko zoria datorkigunean. Orazio onetan ordubete gutxianez iraun zuen, eta biurtu zan bere iru Apostoluetara, eta irurak lo arkitu zituan. Eta San Pedrori esan zion: Simon, lo zaude? eta guziaz orobat esan zien: ezin nerekin batera ordu batean esna egon izan zerate? jaiki zaitezte: zaudete esna: eta orazio egizue, tentazioan erori

etzaitzeten: Espiritua prest dago, baña aragia argala dago. Eta ona guzionzat abisu bat txit premiazkoa: bada tentazioan ez sartzeko, edo uste bage tentazioa datorkigunean ez erorteko ezaguturik gere argaltasuna, Zeruko grazia, eta indarra gogotik eskatu bear degu. Ori esanik, berriz biurtu zan Jesu-Kristo bere Aita eternoari orazio egitera, esaten ziola: nere Aita: ni iltzea gauza bearra bada, egin bedi zure borondatea. Eta Apostoluetara bihurturik, lo berriz topatu zituan, eta zer eranzun etzekiela gelditu ziran, eta aek utzirik, irugarren aldian orazio egitera biurtu zan: eta aiñ penaturik, eta tristeturik zegoan, ze bere Aita maiteak Aingeru bat konfortatzera, edo indartzera bidaldu zion: eta guzia kongojaz beterik, eta agoniazko puntuan zegoalarik ere orazioari geiago, eta geiago egiten zion: eta ainbesteraño bere barru guzia estutu zitzaion, nun odolezko izerditan jarri zan: eta lurra bustitzeraño odola zerion. Ona, N.K. gure konsiderazio guzia ondo merezi duen gauza, izan ditekean arrigarriena, eta miragarriena. Martiri santuai tormenturik andienak, eta eriotzarik gogorrenak pozik sufritzeko indarrak eman zien Jesu-Kristo bera arkitzen da tranze onetan aiñ naigabetua, ta turbatua! Nundik dator- kio argaltasun aiñ arrigarri ori, aiñ prest bazegoan ere



tormento guziak aĩn borondate osoarekin gugatik sufritzeko? Erakutsi nai izan zigun, N.K., 1. egiazko gizona zala, Jaungoikozko persona batetan bazan ere, pekatuaz kanpora, beste gure argaltasun guziak bere gañ artu zituala: gurea zala orduan agertzen zuen argaltasuna, eta bere borondatez estadu tristegarri, eta nekagarri artan jarri nai izan zuela: gure argaltasunak ekarten dizkigun, edo bestela datozkigun estutasunetan, zer egin bear degun erakusteko; au da, orazio egin eta Jaungoikoaren nai santuarekin gure borondatea bat egiteko: eta ori pozik egiteko, Martiri santuak bezela, berak eman bear digu indarra: eta ala eman zien martiriai: bada berenez, gu bezela, argalak ziran. 2. Erakutsi nai izan zigun, alako tristura, eta agonia arrigarrian jarteko motibo guztiz andiak zituala: bada ikusten zegoan eraman bear zituan neke, eta oñaze arrigarriak: afrentak: desprezioak: lotsak, eta injuria guztiz mingarriak: eta oriek baño geiago penatzen zuen ikusteak banaka-banaka bere Aita Eternoari gizonak itxuturik, egiten ziozkaten, eta aurrera ere egingo ziozkaten ofensa guztiz andiak: eta ainbeste milloi animaren kondenatu bearra, zerren onerako, eta gaitzerako zuen libertadeaz, edo aukeraz gaizki usatuko zuen: eta onerako, eta salbaziorako eman

zien graziaren laguntasunaz baliatu naiko etziran eta bere pasio, eta eriotzaren frutua aentzat alferra izango zan: gauza oriek zenbateraño Jesu-Kristoren biotza eztutzen zuen, nork aditzera eman lezake? Alabaña orretako bear da ezagutu, zenbateraño Jesu-Kristok bere Aitaren honra, eta gizonaren salbazioa deseatzten zuen. Eta 3. orrela argiro erakutsi zigun, zenbateraño gure pekatuak iguitu, edo aborrezitu bear ditugun: eta nolako alegiñak egin bear ditugun, ez berriz pekatura biurtzeko; baizik bizitza berri bat egiteko: beti esna, erne, eta kontuz gaudela, tentazioai alde egiteko: bada aditu dezuen bezela, guziok gera gerez guziz argalak: eztegu geregan fiatu bear: okasio gaiztoai, eta peligro, edo arriskuai alde egiten ezpadiegu, galduak gera: baña kontuz bizi, eta orazioaz armaturik bagaude salbatuko gera. A! zenbat zor dizugun, gure Jesus ona! Eta zeñ itxuak gauden! Zu, gure pekatuakgatik, eta gu salbatzeagatik, odolezko izerditan, aiñ tristura, kongoja, eta agonia arrigarrian! Eta gu, aiñ zenzubageak, aiñ ajolabageak, eta aiñ ardurabageak, gure animak ezerezkeria batzuekgatik kondentzen: eta aiñ esker gaiztoarekin zuri eranzuten, eta ofenditzen! Lotsatu gaitezen arren N.K.; eta gure buruak erremediatu ditzakun: misericordia arren

guzaz: damu degu, Jauna, zu ofendituaz: modu onetan logratzeko Zeruko gloria, zeña deseaten dizuedan guztioi Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

*Aurreko dotriñaren beraren gañean.*

Ostegun santu gabeko misterio andi asko aditu dituzue aurreko irakorraldian. Eta orain aditu bear dezue: 1. nola Jesu-Kristo preso artu zuen: 2. nola Anasen, eta Kaifasen etxetan presentatu zuen, eta illeragitea erabaki: eta 3. nola San Pedrok bere Maisua ukatzeko argaltasuna izan zuen, baña bereala konbertituzan, eta penitentzia egin zuen: eta dotriña onetatik frutu andi bat ateratzeko, eskato dezagun Espiritu Santuaren argia, eta grazia, Ama Santisimaren bitartez. Abe Maria.

**G.** Zer egin zuan Jesu-Kristok hortuko orazioa bukatu zuenean? **E.** Erakutsi zuen orazioak berez dakarren alaitasuna: bereala jaiki zan: bere Apostoluetara etorri zan: esnatu zituan: eta esan zien: jaiki zaitezte: goazen, bada or dator, ni saldurik naukana, eta nere etsaiari entregatzera datorrena. Eta bereala

agertu zan Judas traidorea, soldaduz, eta jendetalde andi batez lagundurik, ezpataz, eta makillaz armaturik. Eta iges egin etzegien, eta seguro preso artu zezaen, Judasek berak señailea lenago eman zien, esaten ziela: nik musu emango diodana da zuek preso artu bear dezuena? eta kontuz eldu, eta eraman bear dezuena: eta aurrea arturik gerturatu zitzaion, eta billautasunik izugarrienarekin esan zion *Ave Rabi*: agur Maisua: eta musu eman zion: eta Jesu-Kristok guztizko pazientzia, eta amorioarekin esan zion: Judas nere adiskidea, zertara etorri zera? Esango balio beze-la, izanik zu nere diszipulu, eta Apostolu maitea, pakezkoa dirudian musu gezurti batekin nere etsaiari entregatzen nazu? Baña etzan ez kupitu, eta ez lotsatu, eta damutu: eta bereala bere maisuaren etsaietara biurtu zan, eta bere traizioaren saria, edo ogeita amar diruak artu zituan. Nor arritzen ezta emen, N.K. Judasen billaukeriaz, eskergabekeriaz, eta aren biotzaren gogortasunaz? Eta Jesu-Kristoren mansotasun, sufrimentu, eta karidadeaz? A! zer ejemplo, eta ikasbide andiak oek guretzat! Aserratzten gera guziok Judasen kontra, eta arrazoi andiarekin: baña ark egin zuan maldade, eta gaiztakeri arrigarria bera geurk egiten degu, eta ez gera gere buruaren kontra aserratzten, ez

gera lotsatzen, ez gera damutzen. Judasen traizioa gorputzeko begiakin ikusi zan, zerren kanpotik agertu zan: baña, guk pekatu mortal bat egiten degun guzian, orobat Jesu-Kristo saltzen degu: eta bearbada Judasek baño merkeago: eta zerren pekatu mortal ori gorputzeko begiakin ikusten ez degun: eta animako begiakin, eta fedearen argiarekin begiratu nai eztiogun, ezertan eztaukegu, Judas bera beziñ kulpadunak bagera ere. A! zeñ itxuak gauden N.K. eta orazioaren eta konsiderazioaren zeñ premia añdia daukagun, Zeruko argia iristeko, eta gure pekatuen larritasuna ondo ezagutzeko, eta bear bezela damutzeko, eta penitentzia egiazkoa egiteko! Bada aiñ ardurabage pekatuak egin arren penarik ematen eztiague: eta argatik erremediatzen ez gera. Jesu-Kristok arren argitu gaitzala guziok, eta baita digula, beraren antzera humillak, mansoak, sufrituak izateko, eta alkar biotzez amatzeko, eta erruki izateko bere grazia. Bazekian ondo aren dibina Majestadeak gertatuko zitzaion guzia: eta ala ere, alde, edo iges ordean, bera aurrean jarri zitzaien jentetalde aei guziai, eta galdetu zien: Noren billa zatozte? Eta eranzun zioben: Jesus Nazareno billatzen degu. Eta esan zien: Ni naiz. Eta hitz onekin beste bage erori ziran. Eta Jesusek itxon zien: eta

berriz galdetu zien: Nor billatzen dezue? Eta esan zio-  
ben: Jesus Nazareno billatzen degu: bada ni besterik  
billatzen ezpadezue, osan dizuet, ni naizala, eta nere-  
kin daudenai utzi egiezue, pakean dijoatzen. Eta  
arako bera preso artzeko lizenzia eman zienean, zen-  
zatu ordean, eta aren poderio neurribagea ezagutu  
ordean; tropelkeka eldu ziohen, eta txit gogorkiro itxa-  
txi ziohen gaizkille andi bat baliz bezela. Orduan Aposto-  
toluak galdetu ziohen: ea erak defenditzea nai zuen:  
eta eranzueraren zai egon gabe, San Pedrok bere zelo  
andiarekin ezpata golpe balez belarria kendu zion  
Mateo zeritzan Pontifizearen serbitzari bati. Baña  
Jesu-Kristok San Pedroren erabageko ausardia erre-  
prenditu zuen, bere borondatez iltzera zijoala, eta  
konbeni zala esan zion: eta ikutuaz beste bage bela-  
rria osatu, eta sendatu zion Malkori: eta an zeuden  
jende guziai esan zien Jesu-Kristok: lapur bat banintz  
bezela, armaz, eta makillaz beterik, ni arrapatzera  
etorri zerate: egunoro Jerusalemgo Tenploan guzioi  
erakusten ikusi nazue, eta iñork eskurik egotzi eztida-  
zue. Etzan artean ordua etorri: etzuen artean dea-  
bruak eskurik, edo lizenziarik: eldu da ia ordua: oraiñ  
nere Aitak lizenzia ematen dio, nai duen guzia nerekin  
egiteko. Eta orduan soldaduak eren kapitanarekin, eta

beste ofiziale batzuekin, gure Jesus ona gogorkiro lotu zuen, preso eramateko: eta Apostoluak ikaraturik, iges egin zuen. Eta emen gogoan ondo artu ezazue nola Jesu-Kristo milagroak egiten ari zala, eta nor zan argiro erakusten zuela, bere borondatez bere etsaien eskuetan jarri zan: zerren berak padezitzea, eta gugatik iltzea konbeni zan: eta bidez ekusi ezazue, zeñ ezerezak, eta argalak geran gerez guziok; bada Apostoluak, agindu ezkeru Jesu-Kristori, eriotzaraño lagunduko ziobela, eta beragatik, bear bazan, illko zirala: guziak, preso ikusi zuenean, larga zioben, eta iges egin zuen: eta ala humillatu gaitezen, eta Jesu-Kristogan gure konfianza guzia ezarri dezagun.

**G.** Eta nola, eta nora eraman zuen gure Jesus ona, preso artu ezkeru? **E.** Deadarka, injuria arrigarriak eginaz, loturik eraman zuen, lenengo Anas Pontifizearen etxera, au zan Kaifas, urte artako, Sumo Pontifizearen Aitagiarraba: eta biak ziran gizon guztiz arroak, eta Jesu-Kristoren etsai andiak. Eta Anasek, abisu emanik, bidaldu zuen loturik, ola gaitzgille andi bat baliz bezela gure Jesus guztiz humilla, eta mansoa Kaifasen etxera, examinatu, eta eriotzara kondenatu eragin zezan: eta orduko Kaifasek erakarri zituan bere etxera Sazerdoteak, Eskribak, eta puebloko zarrak edo

prinzipalenak, Jesu-Kristo preso ikusteko ansiarekin zeudenak. San Pedro ere, urrutitik Jesu-Kristori jarraio ziola, etorri zan Kaifasen etxeraño: eta atari barruan sarturik surtan berotzen jarri zan: eta begira zegoan, zertan gelditzen zan bere Maisuari ematen zioen tratua gaiztoa.

Kaifasee guzien aurrean Jesu-Kristori galdetu zion bere diszipuluen, eta bere dotriñaren gañean: dotriña gaizto, edo gezurtiren bat erakutsi balu bezela: eta Jesu-Kristok eranzun zion txit egokiro: ezkutuan ezer nik erakutsi ez det: agerian, guziak aditzen nabela, Tenploan, eta zuen Sinagogaetan, Juduak bitzen diran tokietan, nere dotriña erakutsi det. Galdetu egiezu bada aditu nabenai berai. Arrazoi oberik ezin eman zezakean, bere burua, eta bere dotriña defenditzeko: baña itxumen geiegi zeukren arrazoia aditzeko, eta ezagutzeko. Eta gaizki eranzun balu bezela, Pontifizearen Ministro batek ausardia andiarekin lotsagarriko masalleko bat, edo golpe arrigarri bat eman zion Jesu-Kristori, esaten ziola: Orrela eranzuten diozu Pontifizeari? Eta gure Jesus humillak (bertan kastigatu, eta Infernura bota bazezakean ere Ministro lotsagabe ura) pazienza andiarekin eranzun zion: Nik gaizki hitz egin badet, zertan erakutsi ezazu: baña ondo hitz egin



badet, zertako jotzen, edo eritzen nazu? Eta ona, N.K.,  
inork injuriatzen gaituaneko ondo gogoan sarturik  
eduki bear degun ejemplo, edo ikasbide guztiz ederra:  
bendekuari, edo aserretasunari ez lekurik eman, bai-  
zik Jesu-Kristoren gisa pazienziaz armatu, eta modu  
onarekin hitz egin.

Kaifasen etxera batu ziran Apaiz nagusiak, eta aen  
batzarre, edo Konzilio lagun guziak Jesu-Kristo illeragi-  
teko testimonio billa zebiltzan: eta ezin arkitu zituen  
ondo zetorkienak: eta testigu batzuek jaiki ziran, eta  
testimonio falso bat esan zuen, segurutzen zuela,  
aditu ziobela esaten: eskuz egindako Tenplo au nik  
desegingo det, eta irugarren eguneko berriz jasoko  
det. Eta aen testimonioak etziran konformatzen. Eta  
Jesu-Kristo ixilik zegoan. Eta orduan Kaifasek jaikirik,  
eta kolera bizian sarturik esan zion: zergatik zure kon-  
tra esaten dituen testimonioai erantzuten ez tiezu? Eta  
Jesu-Kristok hitzik egiten etzuen, eta Sumo Pontifizeak  
esan zion: Jaungoiko biziaren izenean konjuratzen zai-  
tut; esan egiguzu bertan: Kristo, eta Jaungoikoaren  
Semea zeran? Eta bere Aitaren izenari zion errespeto-  
agatik, eranzun zion: bai ni naiz, eta esaten dizuet,  
orain errezibitu nai eztezuen Salbadorea, zerren  
pobre, eta humill datorren, ikusiko dezuela Jaungoiko

gutziz poderosoaren eskuitik eta Zeruko odei gañean datorkizuela. Eta hitz ikaragarri oekin bildurtu, eta zenzatu ordean, geiago itxutu, eta gogortu ziran: eta blasfemia andi bat aditu balue bezela, Kaifasek atsegin artu zuen Jesu-Kristo illerazotzeko aitzakia arkitu zuelako; eta aserre andi bat erakutsiaz, bere soñekoak urratu, eta lagunai esan zien: blasfematu du: testigu bearrik eztegu: zeurok aditu dezue oraiñ esan duen blasfemia. Zer deritzozue merezi duela? Eta guziak erabatera esan zuen; eriotza merezi du: ill bear du. Eta orra, N.K., gorrotoak, eta enbidiak zertaraño itxutu zituen Juduen agintariak, eta Juez andiak: Jesu-Kristogan etzuen ikusi santidade miragarri bat baizik: aren egiteko, edo lan guziak izan ziran gaitz, edo eritasun mota guziak, aginduaz beste bage, sendatzea: illak hitz bakar batekin piztutzea: guziai on egitea: eta Zeruko Maisuak bezela arako bidea guziai erakustea. Eta ala ere eziñ ikusi zuen, zerren aen arrotasuna, eta hipokresia agertu zuen; eta ori, ez gaizki nai zielako, baizik eren buruak ezaguerazotzeko, eta erremedia-tzeko. Jaungoikoak arren libra gaitzala guziok erabageko pasioetatik. Erabaki zuenean bada Juduen agintariak Jesu-Kristo illeragitea, aren persona entrogatu zien soldadu gogorrai, eta eren serbitzari lotsagabeai,

Jesu-Kristo zaitu zezaen, eta nai zuen desprezio guziarekin tratatu zezaen. Eta erak pozik eren etxetara joan ziran sosegu galantean lo egitera; urrengo egunean berriz juntatzeko, eta eren neurriak artzeko asmoarekin. Eta bitartean, gau triste artan guzian gure Salbadore inozenteak zenbat sufritu zuen, nork aditzera eman lezake? soldadutzar aek, eta beste jendegiro billau lotsabage aek guziak lotu zuen gure Jesus maitea, eta abiatu ziran bata bastearen leian, Errege guzian Erregea, eta Zeruaren, eta lurraren jabea zan gure Salbadoreari txistuz, eta karkaisez aurpegia betetzen. Zer deshonra, desprezio, eta injuria arrigarriagorik asma liteke? Baña nola gure Jesus maiteak bere guztizko pazienziarekin, eta santidade miragarriarekin bere etsaiak erak lotsatzen zituan: ikusi etzezan, nork burlatzen, eta despreziatzen zuen, begiak trapu zatar batekin estali zioten, eta batzuek buruan jotzen zuen, beste batzuek masallekoak ematen ziozkaten, eta injuria geiago egin bearrez, esaten zioten: asma ezak, nork jo aben, Profeta aizen ezkerok: eta guziak iji aja, oi, eta burla egiten zioten: eta gau guzia gure Jesus ona atormentatzen igaro zuen. Eta norgatik ori guzia gure Jesus maiteak sufritu zuen? Gugatik, N.K., eta gure pekatuakgatik: gu betiko tor-

mentuetatik libratzeagatik: guri pekatuen egiazko penitentzia egiten erakusteagatik: eta baita Zeruko gloria iristeko, gure borondate txarra, eta gurari gaiztoak ukatu, egunoroko gurutzea, edo naigabeak sufritu, eta berari jarraio bear diogula erakusteagatik.

Azkartu gaitezen bada arren guziok, eta Jesu-Kristori gogotik jarraio diozagun. Eta oraiñ azkenik, ikusi dezagun gau artan bertan Jesu-Kristok izan zuen beste naigabe guztiz andi bat. Zeiñ izan zan ori? San Pedro Apostoluaren ukoa. Bada, bere Maisu dibinoa estadu negargarri artan ikusi zuenean, lenaz abisaturik bazeukan ere, ollarrak bi bider kantatu baño lenago, iru bider ukatuko zuela: eta San Pedrok berak agindu bazion ere, beste guziak uzten, edo desanparatzen bazuen ere, berak etzuela desanparatuko, berarekin ill bear bazuen ere: orra aren balentia zertara etorri zan, eta nola okasioak erakutsi zuen, berez zeñ argala zan: bada Pontifizearen neskatxa batek, eta beste serbitzari batzuek esan zibenean; ura ere Jesu-Kristoren diszipulua zala; illko zuelako beldurrak artu zuen: eta beiñ, eta berriz eta irugarren aldian ukatu zuen: eta ezagutzen ere etzuela, juramentu, eta birau egiñaz aseguratatu zuen. Eta bereala ollarrak bigarren aldian kantatu zuen. Eta Jesu-Kristok, zegoan tokitik,

errukiz begiratu zion, eta bere pekatu arrigarria eza-  
gutzeko, eta damutzeko, argia eta grazia eman zion.  
Eta bereala okasioak alde egin, eta negarrez abiatu  
zan, eta bere bizi guzian egunoro negar malkoak txit  
ugari botatzen zituan, bere Maisua, eta alako Maisua  
ukatu zuelako damuaren indarrez: eta Jesu-Kristok  
barkatu ezeze, bere Elizako buru egin zuen; eta San  
Pedrok, bere bizi guzia, Jesu-Kristo bere indar guziakin  
serbitzen, eta mundu guziari ezaguerazotzen igaro  
zuen: eta azkenik Jesu-Kristogatik eriotza tormentuen  
artean sufritu zuen. Eta orra, N.K. guretzat egiazko  
penitenziaren ispillu ederra: humillatu gaitezen bada,  
gure argaltasuna, eta gaiztakeria ezaguturik: peka-  
tuari gorroto andi bat artu degiogun: bizitza berri bat  
gogotik egin dezagun: eta orrela iritsiko degu betiko  
gloria. Amen.

# OGEITA AMAIKAGARREN DOTRIÑA

- 1. Jesu-Kristok Ostirala Santuan eraman zituan neke arrigarriak, eriotzara Pilatosek sentenziatu zueneraño:  
eta 2. gurutzearekin kargaturik nola Kalbariora eraman zuen:  
eta Gurutzean esan zituan azkeneko zazpi hitzak,  
eta nola obiratu zuen.*

Aditurik daukazuen ezkerro Ostegun Santu gabeen Jesu-Kristo gure Jaunak obratu, edo egin zituan amoriozko lanak, eta eraman zituan neke, eta naibage arrigarriak, gure pekatuen zorrak pagatzeko, eta nola bizi guri erakusteko, ematen zizkigula, batez ere humiltasunaren, pazienziaren, eta penitenziaren ejemplo, edo ikasbide guztiz miragarriak: oraiñ arreta, eta atenzio guziarekin aditu bear dituzue Ostiral Santu egunean sufritu zituan tormentu izugarriak, eta erioztza lotsagarria: eta alegiñak egin bear dituzue, beti gogoan edukitzeko: Nor zan Jesu-Kristo: zenbat padezitu zuan: norgatik padezitu zuan: zertako padezitu

zuan: eta nola padezitu zuen: eta baita konsiderazio orri dagozkion biotzeko afekto, edo sentimentuak zuen barruan formatzeko, edo sortutzeko ere, Jaungoikoari benetan eskatuaz, berak zuen adimentuak argitu ditzala: eta zuen biotzak ukitu, eta mugitu ditzala, Jesu-Kristoren oñaze, eta dolore guztiz andien erruki edo konpasiara: pekatuaren gorroto andi batera: eta egiazko damutasunera: esperanza humil bat beti Jesu-Kristogan edukitzera: esker onekoak izatera Jesu-Kristori zor diozkatzuen mesede andiakgatik: bera biotz guztitik amatzera: eta berari gogotik jarraitzera, batez ere humilltasunean, pazientzian, eta Jaungoikoaren borondatearekin gauza guzietan konformatzean. Eskatu dezagun bada bertatik guzirako bear degun Espiritu Santuaren argia, eta grazia Ama Birjiña Santisimaren bitartez. Abe Maria.

**G.** Zer egin zuen lenena Ostiral santu egunean Jesu-Kristoren etsaiak? **E.** Ozta eguna zabaldu zan, Apaiz prinzipalak, puebloko zarrak edo nagusienak, eta Esribak, edo lege erakusleak batu ziran Kaifasen etxean, eta erakarri zuen eren aurrera Jesu-Kristo gure Jauna loturik zegoan bezela, eta berrero esan zio-ben: Kristo bazera zu, esan egiguzu: eta baietz, ala zala eranzun zien: baña aditzera eman zien, egia adi-

tzeko, eta sinisteko dispozizioan etzeudela: eta bere inozentzia agertzeko arrazoiak eman arren, kasorik egingo etziobela, eta libratu naiko etzuela: bada guziak alkar arturik, eta ari bizia kentzeko erabakirik, edo determinaturik zeuden: baña, nola Juduak iñori bizia kentzeko eskualdirik etzuen, (bada Erromatarren mendean zeuden) eraman zuen gure Jesus ona Erromako Enperadorearen eskuarekin Jerusalemeneko Gobernadore zegoan Ponzio Pilatosegana, ark examinatu, juzgatu, eta eriotzara kondenatu zezan; (eta ori nola gertatuko zan aurrez Apostoluai Jesu-Kristok berak esan zien:) eta ala Kaifasen etxetik atera zuen gure Jesus ona eskuak loturik, eta gaizkille arrigarri baren gisa Jerusalemeko kaletatik deadarka lotsa andiarekin eta desprezio andiarekin ekarri zuen Pilatosen etxera. Eta orduan Judasek bere maisu inozentea estatu lastimagarri artan ikusi zuenean, ezagutu zuen obeto bere traizioaren anditasuna: damu andi bat artu zuen, eta eman ziozkaten diruak Apaiz nagusiai, eta beste prinzipalena biurtu zien, eta garbiro esan zien: nik gaizki egin det, gizon inozente bat, obenik, edo kulparik batere eztuena saldu, eta entregatu dizuet: eta eranzun zioben, guri zer dijoakigu orretan? Ori zeurk begiratu bear zenduan: or konpon: etzioben diruak



artu nai, eta tenploan bota zituan: ojala bere gaizki egiña ezagutu, eta konfesatu zuen bezela, humillatu, eta esperanza osoarekin barkazio eske Jesu-Kristoga-na biurtu baliz, pozik barkatuko zion: baña esperanza guzia galdu zuen, eta eziñ bere burua sufriturik, bere eskuz soka batekin bere burua urkatu zuen; desesperaturik il zan, eta betiko kondenaturik infernura jetxi zan. Ikara gaitezen guziok ejenplo onekin: Judas apurka-apurka oitu zan lapurreta txikiak egitera, diruzale egin zan bere Maisu dibinoa, txit ona, eta guztiz biguña zalako, saltzeraño atrebitu zan. Eta gero bere gaiztakeri arrigarriak ainbesteraño lotsatu zuen, nun barkazioaren esperanza galdu, eta burua akabatu, eta infernura bota zuen; eta zorigaitz arrigarri ori ekarri oi du barkazio errezaren esperanzarekin ausardi geiagorekin pekatu egiteak. Esperanza erabagea, pekatuan irauteko aitzaki dana, desesperaziora azkenean etorri oi da: bada Jaungoikoaren misericordia kabubagea dalako, bera geiago ofenditzeko aitzaki, eta motibotzat artzen du: eta nola Jaungoikoaren misericordia bera zuzen-zuzen injuriatzen, eta ofenditzen duen, aren, bear danean, egiazko penitentzia egiteko, eskuarkiro desalaturik, edo desanimaturik arkitzen da. Eta nekez esperanza ona edukitzera iristen da, ez,

Jaungoikoak, ondo eskatzen badio, beti erruki izango eztuelako, baña bai bere kulpaz, ondo eskatzeko bear dan konfianza artzen eztuelako. Humillatu gaitzen bada, N.K., eta Jesu-Kristoren errukitasunaz, eta miserikordiaz baliatu gaitzen, ez orain pekatuan irauteko, eta noizbait erremediatuko geralako ustean bizitzeko; baizik pekatutik bereala irteteko, eta bizitza berri bat egiteko asmo, edo deseo bizi, eta eragille batekin.

**G.** Zer egin zioben Jesu-Kristori Pilatosen aurrean presentatu zuenean? **E.** Pilatosek galdetu zien Juduai: zertan gizon au akusatzen dezue? zer gaiztakeri onek egin du? Eta eranzun zioben: gizon au gaitzgililea ezpaliz, zure aurrera ekarriko ez genduen, zuk juzgatzeko. Eta Pilatosek esan zien: orrela bada, zeurok ar ezazue, eta legeaz batera juzgatu ezazue: baña bereala eranzun zioben: onelako gaizkillerik iltzeko guk eskualdirik eztegu: eta abiatu ziran bereala Jesu-Kristo gure Jauna akusatzen, iru gauzen gañean, 1. zioben: au da gizon bat, gure jende, edo pueblo guzia alborotatu duena: 2. zioben: onek tributua Enperadoreari pagatzea eragotzi du: eta 3. esan zuen: onek bere burua egiten du Kristo, eta Errege. Pilatosek ori guzia aditu zuenean, bere tribulanean jarri zan, eta Jesu-Kristori gauza bakoitzaren gañean bere galdeak

egin ziozkan: baña Jesu-Kristok bere burua orduan defenditu nai izan etzuen, eta ixilik zegoan. Eta Pilatosek, arriturik esan zion: ez dezu aditzen, zenbat gaiztakeri egin dituzula, esaten duen? baña ala ere ixilik, eta alteraziorik batere bage zegoan Jesu-Kristo: eta Pilatosek galdetu zion, Juduen Errege zera zu? Eta Jesu-Kristok esan zion: Ori, zerez, egia jakiteko, edo Juduak asmatu duelako galdetzen didazu? Etzan bate-re sumindu, edo aserratu Pilatos eranzuera onekin: eta esan zion: Benturaz ni Judua naiz, zuen gauzak, eta nolako Erregea Juduak esperatzen dauden jakiteko? Zure jendeak, Apaiz nagusiak, eta pueblo prinzipalak erak nere tribunalera ekarri zaitue: Zer da zuk egia dezuna? *Quid fecisti?* Orduan Jesu-Kristok esan zion: nere erreinua ezta mundu onetakoa: ezta erreinu tenporala, munduko Erregeaen antzekoa: ez naiz ni Zerutik lurrera jatxi munduko gobernuak aldatzera: tributuak ipintzera: ejerzituak, edo armadak jasotzera munduko Erregeak bezela: orrelakoa baliz nere erreinua, nere ministroak, eta nere ofiziale, edo gerra gizonak etzien Juduai utziko ni preso artzen: eta ala eztezu alde orretatik bildurrik zer eduki: bada nere Erreinua ezta emengoa. Nolanai dala, zu Errege zera, esan zion Pilatosek: bai eranzun zion Jesu-Kristok, ala da

egia: baña ni mundura etorri naiz, ez mundua gobernatzera, baizik guziaz egia erakustera, au da, gizonak argitzera; gizonai egiazko, eta betiko zoriona zertan dagoan, eta ura iristeko, zer egin bear duen, erakustera: eta egia maite duenak, nere boza aditzen due. Orduan Pilatosek galdetu zion: Zer da egia? Baña eranzuera zai egon bage, Juduai hitz egitera irten zan: eta esan zien Pilatosek: gizon onegan kulparik batere nik arkitzen ez det: au inozente dago. Eta Juduak ori aditu zuenean, arrabia geiagorekin deadarka Jesu-Kristo akusatzen berrero abiatu ziran: eta esaten zuen: alborotadore bat zala: eta Galileatik asi ta arañño jende guzia mugitu zuela, dotriña berri bat legearen kontra guziaz erakutsiaz eta ill bear zuela. Nor arritzen ezta emen Juduen itxumen izugarriaz, eta aen gogortasunaz? Jesu-Kristok iñori gaitzik batere egiñ eztio; guziaz on egiten aritu zan: Nor zan, edo nola zan egiazko Kristo, Aita Eternoaren Seme propioa, guziok salbatzeko gizon egin zana, argiro erakutsi zien, eta ezin kontatu ala mirarirekin, eta Eskritura Santuko profetia argiak probatu zien: eta ala ere, zerren munduko gisa anditasunez, eta ondasunez, edo aberastasunez beterik ikusten etzuen, eren Salbadoretzat artu nai etzuen: naiago zuen munduko zoriona, eren anima-

koa, eta Zerukoa baño. Eta ala belarriak egiari itxi ziozkaten, eta Zeruko bidearen erakusle egiazkoa gezurtizat, eta alboroladoretzat tratatu zuen. Eta, oraindio arritzekoagoa dana da, Kristau askok, ez hitzez, baña bai obraz egiten duena: bada sinisten due, nor dan Jesu-Kristo, eta Jesu-Kristok erakutsi zigun bezela gere bizimodua zuzendu bage, eziñ salbatu gaitzkeala: eta ala ere, Jesu-Kristoren egiazko dotriñari jarraio nai eztiobe: Jesu-Kristok argiro guziori erakutsi digu, eztagoala munduko anditasun, aberastan, eta atsegiñetan gure zoriona: baizik orain gure erabageko pasioak goitu: gure borondate gaiztoak ukatu: gure gurutzea, edo naigabeak pazienziarekin sufritu; alkar amatu, eta Jaungoikoaren borondatea egitean: eta gero Zeruko glorian Jaungoikoaz beraz beti gozatzean. Ori guzia da Jesu-Kristok erakutsi zigun fedeko egia. Lotsatu gaitzen bada, N.K., ikusirik Judu itxuak baño itxuago gaudela: bada aek baño askoz argi geiago daukagularik, Jesu-Kristori jarraio ordean, deabruari, munduari, eta aragiari jarraitzen diegu. Eta zenzatu, eta Zeruko bideari jarraio degiogun, betiko galduak, Juduak bezela, izan nai ezpade-gu.

**G.** Eta zer egin zuek Pilatosek, aditu zuenean Jesu-Kristo Galileakoa zala, eta Herodesen mendekoa zala alde orretalik? **E.** Nola ezagutu zuen Jesu-Kristoren inozentzia; eta Juduen itxumen, eta gorroto arrigarria, bildur zan egiteko orretan parte izateaz: eta atsegin artu zuen, bere burua libratzeko aitzakia arkitu zuenean: eta nola Herodes zan gizon itxu, gogor, eskandalo nabarbenean bizi zana: eta ori erreprenditu ziolako, San Joan Baptistari burua kendu eragin ziona: eta atsegin artu zuen, Jesu-Kristo bere aurrean presentatu zionenean; zerren aspaldian aren milagro andiak adituta, bera ikusteko, eta milagro berriren bat bere aurrean eragiteko deseoarekin zegoan. Galde asko Jesu-Kristori egin ziozkan: baña batere eranzun nai izan etzion: alabaña aren arrotasunak, eta erabageko jakin naiak merezi etzuen: eta Jesu-Kristok bere inozentzia aren aurrean defenditu nai etzuen: Juduen Apaiz nagusiak gelditzaka Herodesi aren kontra asma al guzia esaten bazioben ere. Eta Herodesek berak, eta bere korteko zaldunak etzuen Jesu-Kristogan kulparik arkitu: baña bai desprezio, eta injuria arrigarri bat egin zionen: bada erotzat, eta zenzu bagetzat eduki zuen: eta orren señaile, soñeko zuri bat paratu zionen, eta ekarri zuen baño lotsa andiagorekin Pila-

toski atzera bidaldu zioen: eta len alkarrekin aserre ziran Pilatos, eta Herodes adiskidetu ziran.

**G.** Eta zer disponitu zuen Pilatosek, gure Jesus ona bere tribunalera berriz ekarri zioberen? **E.** Artu zituan asmoak Jesu-Kristo libratzeko alegiñak egiteko: bada argiro zekusen kulparik batere etzuela: eta enbi-diak, eta gorrotoak Judu prinzipalak itxuturik zeuzka-la: erakarri zituan bada aek bere aurrera, eta esan zien: gizon au ekarri didazue, alborotadore bat beze-la, nik juzgatu, eta kondenatu dezadan. Examinatu det zuen aurrean: eta kulparik batere arkitzen eztiot zuek akusatu dezuen gai guzietan: eta Herodes Erre-geak ere au illeragiteko motiborik arkitu eztiot: bera-riaz juzgatu dezan bidaldu badiot ere. Eta ala erabaki det, libre uztea: eta bakarrik korrejitu, ta eragotziko diot jendea batzaia, eta Erregearen izena artzea. Onenbesterekin sosegatu bear zizala Juduak uste izan zuen Pilatosek: baña obeto seguratzeagatik Jesu-Kris-toren libertadea, eta bizia, artu zuen beste bide bat, bere iritsian ona, baña txit gaizki irten zitzaiona. Baze-kian egun artan, au da, Paskuaren besperan, pueblo-ak eskatuko ziola preso bat libratu zezala, eta ala eskatu zion: eta orduan zegoan preso, Barrabas zeri-tzon gaizkille famatu bat, giza erallea, eta alborotado-

rea: eta obeto bere asmoa logratzeko, etzien proponitu nai izan preso guzien artean Barrabas, eta Jesu-Kristo baizik, bietatik bat libratzeko. Zer deshonra andiagorik Jesu-Kristorentzat alako gizatxar infame batekin bere burua pareaturik, edo igualaturik ikustea baño? Bada geiago oraindio deshonratu, injuriatu, eta agrabiatu zuen: zerren Barrabas bera baño gaiztoagoztzat eduki zuen: eta ala, Apaiz nagusiak, eta puebloko buruak, beste guziaz konseju emanik, eta guziak beraganaturik eskatu zuen Barrabas libratu zezala; eta ez Jesus. Eta orduan Pilatosek galdetu zien: Zer nai dezue dagidan Kristo, eta zuen Errege esaten zaion Jesu-Kristorekin? Eta guziak eranzun zuen: gurutze batean illeragizu. Zer gaitz ordea egin du, gurutzifikatzeko? Eta guziak deadar egiten zuen: gurutzifikatu ezazu. Eta Pilatosek berriz esaten zien: zer gaitz egin du? Eta deadar geiago orduan egiten zuen: gurutzifikatu bedi. Eta Pilatosek irugarren aldian esan zien: Zer egin du onek? nik au illeragiteko kulparik batere arkitzen eztiot, erreprentio bat emanda, libratuko det. Eta orduan iskanbilla, eta deadar andiangoak egiñaz, eskatzen zioben, gurutzifikatu zezala: eta Pilatos, aen alborotoa eta itxumena ikusirik bildurtzen asi zan. Eta oraindio, Jesu-Kristori bizia gordetzeko asmoarekin,



beste medio bat artu zuen: baña iltzea baño gogorra-  
goa eta lotsagarriagoa. Pillare, edo kolumna bati lotu  
eragin zuen gure Jesus inozentea, eta esklabo billau  
eta gaiztagin andi bat bezela azotatu eragin zuen, aiñ  
gogorkiro, nun alde guzietatik odola zerion, edo obeto  
esateko, guzia zauri bat egiñik utzi zuen: eta bertan  
illik eroriko zan, berariaz gurutzean iltzeko, bizia kon-  
serbatu nai izan ezpalu. A! nere Kristau onak, zenbat  
zor diogun gure Jesus maiteari! A! ikusi al bagenzake,  
nolako a zegoan Jesu-Kristoren biotza, aiñ deshonna,  
eta tormento arrigarrien artean! Zeiñ humillatua bere  
Aita Eternoaren Majestade soberanoaren aurrean;  
zerren gure pekatu guzien zorrarekin, eta penarekin  
kargaturik ikusten zan! Zeiñ obedientea, eta presta-  
tua geiago, eta geiago sufritzeko, bere Aita Eternoa-  
ren justiziarri gure orde z satisfazioa emateko: eta gu  
betiko infernutik libratzeko: eta betiko gloriara bere-  
kin eramateko: eta arako bide zuzena bere ejemploa-  
rekin eta batez ere, aiñ bearra degun humilltasunare-  
kin, pazienziarekin, eta obedienziarekin erakusteko!  
Millarezko eskerrak bada sarri eman degiozkagun: eta  
eskatu degiogun, digula arren humillak, sufrituak, eta  
obedienteak izateko grazia, eta indarra.

**G.** Eta etziran sosegatu, eta bigundu Juduak Jesu-Kristo gure Jauna aiñ gogorkiro azotaturik, eta iltzeko zorian ikusi zuenean? **E.** Ez: aen gorrotoa aiñ arrigarria zan, nun gurutzean illik ikusi artean, eziñ aspertu ziran. Eta Pilatosek aek sosegatzeko intenzio, eta deseoarekin soldadutzar lotsabage, eta kupide bageai gure Jesus ona entregatu zien, nai zuen bezela tratatu, burlatu, eta iskarniatu zezaen. Bereala narrugorrian paratu zuen: kapa gorri zatar bat gañean ipiñi zioben: aranzako, edo elorrizko koroa gogor bat kruekiro bere buruan sartu zioten: kañabera bat, Zetro orde, edo Erregearen señaletzat eskuan paratu zioben: eta aren aurrean belaunikaturik eskarnio andiarekin esaten zioten: Agur Juduen Erregea: eta txistuak aurpegira egozten zioten: eta kañabera eskuetik kendu, eta arekin buruan jotzen zuen. Eta ala ere gure Jesus ona, izanik gizon guzien jabe egiazkoa, orizuzia aiñ humill sufritzen zegoan, gure soberbiaren kalteak erredimitzeagatik, eta guri humillak izaten erakusteagatik. Alako etxura errukigarri, eta lastimagarrian gure Jesus inozentea Pilatosek ikusi zuenean, uste izan zuen, zegoan estadu tristean Jesu-Kristo bera guziaz erakustea asko izango zala aen biotzak biguntzeko: eta asmo orrekin bere palazioko balkoi,

edo leio batera ateratu zuten, eta deadarrez Juduak esan  
den: *Ecce homo*: begira egiazue gizon oni: emen  
dakarkizuet, guziori deklaratzeko, edo adieragiteko,  
nik kulparik batere arkitzen eztiadala. Ikusi ezazue  
nolakoa dagoan; ea giza antzik ere daukan, zuek ille-  
ragin nai dezuen onek: begira ezazue, nor akusatzen  
dezuen, Errege izan nai duelako. Badirudi, ikusgarri  
aiz lastimagarri batek, ukitu, eta errukitu bear zitala  
biotzik gogorrenak ere: baña arriak, eta kalziuak baño  
gogortuagoak zeuden Juduen biotzak: eta ala batere  
kupitu bage, batez ere Pontifizeak, eta aen Ministroak  
deadarrez Pilatosi esaten zioten: gurutzifikatu ezazu:  
gurutzifikatu ezazu: eta Pilatosek, etsirik, esan zien: ar  
ezazue zeurok, eta gurutzifikatu ezazue, bada nik  
motiborik arkitzen ezte, au gurutzifikatzeko: orduan  
eranzun ziboen: guk legea badegu, eta legeaz batera  
ill bear du; zerren bere burua Jaungoikoaren Semea  
egiten du. Eta Pilatosek, ori aditu zuenean, bildur  
andiagoa artu zuten: eta Jentil itxu bat bazan ere, iku-  
sirik Jesu-Kristoren inozentzia, eta aren pazientzia mira-  
garria ainbeste tormentuen artean, errezelatu zan,  
izan zitekeala Jaungoikoaren Semea, edo beinzat  
gizon utsa baño geiago zala, edo beste gizonak ez  
bezelakoa zala. Eta obeto informatzeagatik Jesu-Kris-

tori berari galdetu zion: Zunortarrik zera? Baña, nola bere burua orduan defenditzeko asmorik etzuen, ixilik zegoan. Eta Pilatosek esan zion, eztidazu niri hitz egin nai? Eztakizu, zu illeragiteko, edo libratzeko eskualdia daukada? Eta orduan Jesu-Kristok esan zion: Etzen-duen eskualdi ori edukiko, Zeruan dagoan Juez Soberanoak eman ezpalizu: baña zure eskuetan entregatu naubenak, zuk baño kulpa geiago due: eta orretan aditzera eman zion, bera ere kulpadun izango zala, justizia egiten, edo gordetzen ezpazuen. Hitz oekin geiago bildurtu zan Pilatos: eta nai zukean Jesu-Kristo libratu: baña aren alegiñak libratzeko baño, biziagoak, eta eragilleagoak ziran Juduenak Jesu-Kristo illeragiteko, eta deadarka esan zioben Pilatosi: Au illerazotzen ezpadezu, Enperadoren grazia, eta adiskidetasuna galduko dezu; bada Errege egiten dana aren kontra altxatzen da: eta ezin ori sufritu dezakezu: arrazoi oekin turbatu zan, eta desanimatu zan Pilatos: eta esan zien: Ona zuen Erregea: *Ecce Rex vester*: eta eranzun zioben: *tolle, tolle, crucifige*, illeragizu: gurutzifikatu ezazu. Baña zuen Erregea gurutzifikatuko det? berriz esan zien. Eta orduan eranzun zioben: Guk beste Erregerik eztegu, Enperadorea baizik: eta orduan Pilatosek, jende guzia alborotaturik ikusi zue-

nean; eta ezin sosegatu zituala, eskuak garbitzeko ura erakarri zuen: guzien aurrean garbitu zituan, eta esan zien: Justo onen eriotzan nik parterik artzen ez tet: Ni kulpabage gelditzen naiz: Begira ezazue zuek, zer egi ten dezuen. Eta pueblo guziak eranzun zion: orren odolaren bendekua, edo benganza erori bedi gure gañ, eta gure hume, eta ondorengoan gañera. Eta ori aditu zienean Pilatosek, libratu zuen Barrabas, lapur, eta eralle infamea: eta izan ditekean injustiziarik andienarekin, inozentetzat zeukan, gure Jesus ona, Juduai atsegin emateagatik, eriotzara sentenziatu, eta kondenatu zuen: eta gurutze batean illeragiteko Juduai erai entregatu zien: eta Jesu-Kristok bere Aita Eternoaren sententzia bezela azeptatu zuen.

Emen, N.K., konsiderado gai andiak, eta txit probetxugarriak ditugu. Eta ona orain txit egokiak: 1. ikusten dezue, eta beti gogoan eduki bear dezue, Jesu-Kristo bere Aita Eternoari zor zaion honra guzia emateagatik, eta bere justiziara gure orde z, eta gu betiko eriotzatik libratzeagatik, satisfazio osoa emateko, jarri zala ainbeste neke, deshonra, eta tormentu arrigarriak, eta alako eriotza lotsagarria borondatez iñork obligatu bage, sufritzera. Eta ori sinisten degu nok, zer egin bear degu? Aborrezitu pekatua, eta

pekatu gai guziak, munduko gaitz guziak, eta eriotza bera baño askoz geiago. A! gure Jesus ona, zenbat zor dizugun! zein maite gaituzun! eta zein gaizki eranzun dizugun! zein esker gaiztokoak, zein itxuak, eta zein zoroak izan geran! zenzatu gaitzatzu arren, Jauna; argitu gaitzatzu, eta iguzu egiazko penitenziaren doaia: damu degu biotz guztitik, zu ain ona izanik, zu ofendituaz lenago ill nai degu, Jauna, zu berriz ofenditu baño: miserikordia arren, Jauna, guzaz: eta 2. ikusten dezue, alde batetik Juduen Apaiz nagusiak, Pontifizeak, lege erakusleak, Eskriba, eta Fariseoak zenbateraino itxutu, eta gogortu zituan eren arrotasunak, andinaiak, enbidiak, eta Jesus onari artu zioben gorroto arrigarriak: eta bestetik, nolako argaltasunarekin Pilatosek munduko errespetoagatik, egiaren, justiziarren, lege guzien, eta bere konzienziaren testimonioaren kontra, inozentetzat zeukan gure Jesus ona erioztzara sentenziatu zuen: eta emen ikasi dezagun guziok, erabageko pasio, eta griña gaiztoak zenbateraino itxutzen, eta argaltzen gaituen: eta zein erraz pekatu eragiten diguen. Eta orazioaz, eta konsiderazioaz baliatzen ezpagera, gure buruak argitzeko, eta indartzeko, eta gure pasio, edo inklinazio txarrak goitzeko, edo menderatzeko, pekatuan bizi, eta pekatuan

illko generala, Juduen agintariak, eta Pilatos Juez bildur-  
tiegia, eta zuzen eza, edo injustua ill ziran, eta konde-  
natu ziran bezela. Esna gaitzen bada arren, N.K.,  
humillatu gaitzen: fedeko egia andiak, eta batez ere  
Jesu-Kristoren pasio, eta eriotzako misterioak sarri,  
eta ondo ausnartu ditzakun: eta Zeruko argia, eta  
laguntasuna gogotik eskatu dezagun. Eta orrela bizi-  
modu on bat egingo degu, eta betiko gloria iritsiko  
degu. Amen.

*Aurreko dotriñaren beraren gañean.*

Jesu-Kristoren pasio santuaren historia miragarria-  
ri narraiola esan bear dizuet orain, eriotzara senten-  
ziatua izan zanetik enterratua izan zanerañoko guzia.  
Eta dotriña, eta konsiderazio gai guztiz miragarriak,  
eta probetxugarriak aditu bear dituzue. Gogoan ondo  
artu itzatzue, eta frutu andi bat ateratzeko alegiñak  
egin itzatzue. Eta orretako Espiritu Santuaren argia,  
eta grazia eskatu dezagun, Ama Birjiñaren bitartez,  
esaten degula, Abe Maria.

**G.** Zer egin zioben Jesu-Kristo gure Jaunari, Pilato-  
sek eriotzara kondenatu zuenean? **E.** Bereala solda-

duak arrapatu zuen: eta indarka, eta lotsabagekiro, gorputzeko zauriai itxatxirik zegoan purpurazko soñeko zatar farregarria kendu zioten: eta obeto ezagutua izan zedin, bere lengo soñekoak paratu zioten: eta bera gurutzifikatzeko serbitu bear zuen gurutze andi, pisu, edo astun bat bere sorbaldan ipiñi zioten: eta arekin kargaturik Ziudadetik kanpora atera zuen, eramateko Kalbariora, edo gaiztagin andiak, eta billabak illtzen zituen tokira: eta lotsa geiago eman bearrez, eriotzara kondenaturik zeuden lapur infame bi lagunzatzat eman zioten: eta Jesu-Kristorekin batera Kalbariora eraman zituzten.

Aiñ argaldia, eta nekatua bazijoan ere gure Jesus ona, berak eraman zuen gurutze aiñ pisua, eta astuna Ziudadetik kanpora irten artean: baña zijoan erorka, eta eziñ Kalbariora eldu zitekean milagro bage: eta nola Juduak Kalbarioan, eta gurutzean illik ikusi nai zuen, kanpotik zetorren Zirineako gizon bat, Simon zeritzana, obligatu zuen Jesu-Kristori gurutzea eramaten laguntzera. A! zorioneko gizona! Eta zeñ zorionekoak gu ere, bakoitzak gere gurutzea, edo gere neke, naibage, eta atsekabeak Jesu-Kristoren ondoren pazienziarekin badamazkigu! Kalbarioko bidean, beste jendetalde askoren artean, ikusi zituan Jesu-



Kristok bere gertuan zijoazela emakume piadosa batzuek negarrez beraren errukiz; eta gogoan zeuzkalla zorigaiztoko pueblo itxutu aren gañean etorri bear zuen desditxa arrigarriak, esan zien: ez nigatik negar egin, baizik zuen buruakgatik, eta zuen humeakgatik: bada alako naibageak, eta desditxak etorriko zaizte, nun orduan aurrik ez izatea fortuna anditzat emakumeak artuko due: eta jendeak mesedetzat mendiai, eta aitzai eskatuko die, erori, eta azpian artu ditzate-la, zerren Jaungoikoaren Justizia, frutu onak dakatzan arbola ezea onela tratatzen badu, besteren pekatuak bere gaiñ artu ditualako, zer egingo du fruturik, edo obra onik ematen eztuen arbola igartuarekin? edo pekatuan gogorturik daudenakin? Surtarako baizik izango eztira.

**G.** Eta Kalbariora eldu ziranean, zer egin zioben Jesu-Kristori? **E.** Soldaduak beazunez, eta mirraz nastutako ozpiñ guztiz mindua edatera eman zioten, orduko oituraz, edo usadioaz batera, iltzera kondena-tzen zituenaren sentiduak moteltzeko: eta eriotzako penak, eta garratzasunak gutxiago sentitzeko. Eta probatu zuen gure Jesus onak edari miñ ura: baña etzuen guzia esan nai izan, zergatik alibiorik, edo arin-garririk bere tormentuetan nai izan etzuen. Eta berea-

la ezin esan al baño andiagoak, eta lotsagarriagoak eman ziozkaten: bada guzien aurrean soñeko guziak, aragiari itxatxirik zegoan tunikaraño tiraka kendu ziozkaten, eta narrugorrian gurutzearen gañean ezarri zuen: eta krueldade arrigarri batekin bere esku biak, eta oñ biak gurutzeari josi ziozkaten iltze lodi, eta entenga batzuekin, batetik bestera igarotzen ziozkaitela: A! Zer oñazeak orduan Jesus maitearenak! eta zer penak begira zegoan bere Ama Santisimarenak! Eta estadu orretan gurutzea gora jaso zuen: berariaz egiñik zegoan zulo batean paratu zuen: eta zinzilika, gurutzean josirik, airean agertu zan gure Jesus ona, Zeruaren eta lurraren Jabea, Errege guzien Erregea, eta Jaun guzien Jauna. Eta aren aldamenean lapur biak, gurutzitikaturik ipiñi zituzten: eta orrela osatu zan, Eskritura Santuan aurrez errezibiturik zegoana: au da, gaizkilleakin berdindua, edo igualatua izango zala! Eta Pilatosek Jesu-Kristoren gurutzearen gañean ipiñi eragin zuen titulu bat iru hitzkuntzatan eskribitua: Hebreoz, Latiñez, eta Griegoz. Eta titulu orretan zegoan eskribiturik: *Jesus Nazareno Juduen Erregea*. Eta ori irakurri zuen Judu prinzipalak Pilatosi esan zio-ben: etzala eskribitu bear; Juduen Erregea, baizik bere burua Juduen Errege egin nai izan zuena. Baña Pilato-

sek orretan etzien atseginiak eman nai izan, eta eran-zun zien: *Quod scripsi, scripsi*: eta etzuen tilde batere mudatu nai izan.

**G.** Zenbat ordu egon zan Jesu-Kristo gure Jauna gurutzean josirik, eta altxaturik: eta denbora artan zer egin zuen; eta zer erakutsi zigun? **E.** Egondu zan iru ordu, eguerditik iruretaraño; ala gorputzaren aldetik, nola animaren aldetik guztizko pena, neke, dolore, oñaze arrigarriak sufritzen zituala pazienza, obediencia, eta zelo irazeki batekin bere Aita eternoaren honragatik, eta gure salbazioagatik: eta ala zegoala, gurutze santutik, pulpito batetik bezela, zazpi hitz bakarretan agertu, eta erakutsi zigun eziñ obeto, zeññ maite gaituan, eta Zeruko gloria iristeko, zer egin bear degun: Eta bada guraso on batek iltzeko zorian batez ere bere hume maiteai gauzarik bearrenak enkargatzen dizte, Jesusen hume onak bezela aditu ditzakun, eta kontuz gure biotzetan sartu, eta beti gogoan eduki ditzakun, Jesu-Kristoren azkeneko hitzak. 1. Bere begiak Zerura altxatu, eta bere Aita eternoari orazio egin zion bere etsaiakgatik, eta esan zion: «Nere Aita barkatu egiezu ni onela tratazen nabenaiz, bada ezta-kie, zer egiten duen». Bazekien gaizki egiten zuena: baña, pasioak itxuturik, etzuen ondo ezagutzen egiten

zuen gaitz guzia. Eta orra, bere Ebanjelio santuan era-  
kutsi zigun dotriña gure etsaiak barkatzearen gañean  
bere ejemploarekin nola berriz konfirmatu zigun. Eta  
ala alaitu, eta esforzatu bear gera, N.K., Jesu-Kristok  
bezela, gure gaitzgilleagatik Jaungoikoari erregutzera:  
eta oitu bear gera, igui degun, edi miñ ematen digun  
desprezioren bat edo atsekaberen bat, edo agrabioren  
bat egiten diguenean, edo desarrazoiren bat esaten  
diguenean, biotzetik esatera: Jaungoikoak arren barka  
degizula: eta guziok erremedia gaitzala: bada orrela  
txit pekatu asko eskusatuko dituzue: biraurik, edo  
maldiziorik egingo eztezue: biotzeko pakea gordeko  
dezue: Jaungoikoari txit atsegin andia emango diozue:  
aren majestadeak zuen pekatuak, edo egin diozka-  
tzuen ofensa andiak barkatuko dizkitzue: eta ondasun  
gutziz andiak Zerurako irabaziko dituzue: eta kontra-  
ra, aserreari, eta gorrotoari leku ematen badiozue,  
zuen buruak, eta besterenak galduko dituzue. Eta zer  
egiten zuen Jesu-Kristo zaitzen zeuden soldaduak, eta  
puebloak, edo an zegoan jende-taldeak? Soldaduak  
partitu zituen Jesu-Kristoren soñekoak lau puskatan,  
eta bakoitzak bat artu zuen: eta nola barruko tunika  
zan pieza batean eoa, eta kosturarik etzuena, etzuen  
puskatu, baizik norenzat izango zan suerteak bota

zituen: eta ori guzia, nola gertatuko zan, anziñatik eskribiturik Eskritura santan zegoan. Eta soldaduak Jesu-Kristo zaitzen zeuden artean jende guzia zegoan Jesu-Kristori begira: eta blasfemia, eta injuria arrigarriak esan ziozkaten: Batzuek burua jiratuaz, eta burla egiñaz, esaten zioten: Bah: desdixadua, irugarren eguneko Tenploa desegin, eta berriz egiteko eskua zenduana, zere burua orain libratu ezazu; eta Jaungoikoaren Semea bazera, gurutzetik jatxi zaitez. Eta orobat Apaiz nagusiak, eta puebloko buruak bata besteari burlaz esaten zioten: Onek besteak salbatu, eta eriotzatik libratu ditu; eta bere burua ezin libratu du: Israelgo Erregea, eta Mesiasa bada, jatxi bedi orain gurutzetik, eta beragan sinistuko degu: Jaungoikoagan esperatzen zuen: libra dezala orain nai badu, eta agertu beza, bere Semea duela. Nai adiña zeruan ori agerturik, Juduak borondatez itxutu nai izan ezpalira. Eta geienak eren itxumenean iraun bazuen ere, izan ziran orduan bertan, eta aurrera ere txit asko Jesu-Kristo Jaungoikoaren Semea, eta Jaungoiko egiazkoa zala sinistu zuenak: eta aetatik bat izan zan lapur ona, edo orduan ondua: bada bere lapur lagun gaiztoak besteak bezela Jesu-Kristori blasfemiak esaten baziozkan ere, lapur onak Zeruko argiaz, eta graziaz truka-

turik, humillaturik, eta damaturik bere laguna erreprenditu zuen, eta Jesu-Kristoren inozentzia, eta neurribageko poderioa konfesatu zuen. Lagun gaiztoari esan zion: Iltzeko zorian zaude, eta Jaungoikoaren bildurrik orain ere eztezu? guk kastigu au ondo merezi-turik daukagu gure gaiztakeriagatik: baña onek, zer gaitz egin du? kulparik batere eztu. Eta Jesu-Kristogana itzulirik, erregu, edo eskaera au egin zion: Jauna, zure erreinuan sartzen zeranean, nizaz oroitu, edo akordatu zaitez. Onela agertu zuen Jesu-Kristoganako bere fedea, eta esperanza gurutze batean josirik ikusten bazuen ere. Eta Jesu-Kristok orduan esan zuen bigarren hitza: bada eranzun zion «Gaur egongo zera nerekin batera Paradisuan»; eta orra konfesio humilla, edo egiazko penitentzia egiten duen guzienzat hitz guztiz konsolagarria: baña pekatuan bizi, eta ondu bage iltzen diranentzat, lapur gaiztoa, eta Judu itxuak bezela, betiko kondenagarria: bada orientat eztago Paraisurik, eta bai dago betiko infernua.

Jesu-Kristok irugarren hitza bere Ama Santisimari esan zion. Ikusten zuen zegoala dolozko itxaso bat egiñik: eta beraren aldean zeuden txit penaturik iru Mariak: Maria Magdalena: Maria Kleofe: eta Maria Salome: eta aekin batean San Juan Ebanjelista, guziak

Jesu-Kristori begira: eta bere Ama Santisimari esan zion, San Juan señalatuaz; «Andrea, orra zure Semea»: orra nere orde z Semetzat ematen dizudana. Eta San Juani esan zion, Ama Santisima señalatuaz «orra zure Ama» edo Amatzat eduki bear dezuna. Eta alakoa bezela bere bizi guzian honratu zuen, eta beti lagundu zion San Juanek. Eta emen erakusten digu Jesu-Kristok bere ejemploarekin humeak gurasoakin, eta gurasoak humeakin eduki bear duen piedadea, eta kuidadua: eta baita zein maite gaituan Kristauok: bada San Juanen personan guziok egin gaitu bere Ama Santisimaren, Zeruko Erregiña andiaren humeak: eta eman digu Amatzat bere Ama propioa bera: eta aren anparo andiaren azpian ipiñi gaitu: eta ortik kon-tua atera ezazue, zenbat inporta digun Ama Birjiñaren egiazko hume leialak, eta debotoak izatea: bada aren laguntasunarekin, edo bitartekotasun andiarekin bear ditugun Zeruko sokorruak, edo graziak iritsiko ditugu bere Seme maite Jesu-Kristogandik.

Aditu itzatzue orain Jaun onek gurutzean esan zituan azkeneko hitzak: baziran ia arratsaldeko irurak: eta eguerdi ezkerro, iñoiz ere ikusten etzan bezelako, eta naturalezaz kanpora zan eklipse, edo Eguzkiaren illuntasun arrigarri batekin mundu guzia zegoan illun-

pean, eta doluz, edo lutoz janzirik bezela: eta orduan, Jesu-Kristok, zein pena, eta oñaze arrigarriak zera-mazkian aditzera eman nai izan zuen, eta deadar andi batekin bere Aita Eternoari esan zion «Nere Jaungoikoa, nere Jaungoikoa: Zergatik desanparatu nazu?» *Deus meus, Deus meus quare dereliquisti me?* Gure pekatuakgatik, N.K., Aita Eternoak nai izan zuen bere Seme maiteak, inozentea zalarik, ainbeste sufritzea: eta bere Aitaren borondatea egiteagatik Semeak nai izan zuen gure zorra aiñ garesti pagatu. Eta zein bizi-ro deseatzan zuen gure erremedioa aditzera emateko, urrengo hitza esan zuen, au da, «*sitio*» egarriak nago: eta ala egarri ori etzan bakarrik gorputzarena, baita ere zan animarena, edo espirituarena. Eta egarri zala aditu ziobenetatik batek bereala esponja bat ozpiñetan busti, eta kañabera luze batekin aora eman zion. Eta edari miñ ura probatu, eta esan zuen peste hitz au «*Consumatum est*» guzia dago ia kunpliturik. Esango balu bezela, nere Aitaren borondatea osoro egin det: Nizaz hitz egiten zuen Eskritura Santuko Profeziak, edo gertakizun guziak osatu ditut. Eta ondoren deadar andi bat eman zuen, eta esan zuen, azkenik: «Nere Aita zure eskuetan nere Espiritua enkomendatzen det:» eta ori esatearekin batera, burua makurturik,



azkeneko asnasa eman zuen, eta ill zan, eta berak nai zuela gurutzean ill zan, N.K. Eta mundu itxuaren begietan eriotza lotsagarri, eta deshonoragarri bat sufritu izan bazuen ere; Jaungoikoaren begietan, eta fede egiazko baten begiakin Jesu-Kristori begiratzen diobenentzat, eriotza ori izan zan guztiz honragarria Jaungoikoarentzat eta guziz probetxugarria gizonarentzat. Bada Jaungoikoaren majestadeari biurtu dio gizonak pekatuarekin au da, bere arrotasunarekin eta desobedienziarekin kendu zion baño honra agitz andiagoa: eta gizona atera du deabruaren mende, edo katiberiotik, eta adiskidetu, edo paketu du aserraturik zeukan bere Jaungoikoarekin: eta iritsi dio galdurik zeukan bere grazia, eta Zeruko gloriaren deretxoa. Eta guzia hitz batean esateko, gure gaitz guzien erremedioa, eta ondasun guzien esperanza Jesu-Kristoren gurutzeko eriotza santutik etorri zaku.

**G.** Eta Jesu-Kristo ill zanean, Jaungoikoaren Seme egiazkoa zala aditzera eman zuen mirarik gertatu zan? **E.** Bai, eta asko. Aditu dezue berariaz Jaungoikoak orduan sortu zuen Eguzkiaren illuntasun aiñ luzea, eta arrigarria. Orduan bertan Jerusalemgo Tenploan, leku Santua, eta Santuarioa bata besteagandik apartatzen zituan goitik berako kortiña, edo belo, bat

batetan urratu zan: eta agerian Tenplo guzia gelditu zan: Jesu-Kristok bere eriotzarekin Zerua iriki zigula aditzera emateko. Lurra ikara bereala abiatu zan: arriak, edo aitzak berenez zatitu, edo puskatu ziran: sepultura asko batetan iriki ziran; eta aetan zeuden justuak, Jesu-Kristo irugarren egunean piztu zanean, pizturik, edo erresuzitaturik askori agertu zitzairen. Eta kalbarioan soldaduak agintzen zegoan Kapitanak, Jesu-Kristoren azkeneko hitzak, aren deadar miragarria, eta beste prodijioak ikusi zituanean, guzia bere artean arriturik, esan zuen: batere duda bage Jaungoikoaren Semea da gizon justu au. Eta soldaduak erak, eta jendetaldeak ori bera zioben: eta damuren pasioz bularrak jotzen zituela Jerusalem itzuli ziran.

**G.** Eta Jesu-Kristoren anima gorputzetik irten, edo apartatu zanean nora joan zan? **E.** Abranen senora, an zeuden anima justuak libratzera, konsolatzera, eta gloriatzera.

**G.** Eta Jesu-Kristoren gorputz Santuari zer egin zioben? **E.** Nola urrengo eguna jai andia zan: iru gorputzak isegirik egon etzitezzen, Juduak eskatu zioben Pilatosi, bereala zankoak antsi eragin zegiela: eta enterratu zitzatela: eta ala lapur biai zankoak autsi zizten, zerren artean bizirik zeuden: baña Jesu-Kristo-

ri etzioben zankorik autsi, zerren orduko ill zan. Eta orren orde z soldadu batek lanza batekin bere bularra iriki zion: eta odola, eta ura bularreko zauritik irten ziran: eta begira zegoan San Juan Ebanjelistak guziaren testimonio eman zuen bere Ebanjelio Santuan. Eta errespeto andiko gizon aberats eta karguduna, Judua, eta lagunaen bildurrez ezkutuan Jesu-Kristogan sinisten zuena, Jose zeritzona: Jesu-Kristo ill ezker, lengo bildurra botarik, edo Jaungoikoak indarra emanik, joan zitzaion Pilatosi, eta eskatu zion Jesu-Kristoren gorputza enterratzeko lizenzia: eta ori iritsirik, Nikodemus zeritzan beste diszipulu batek (lenago ixilla, edo sekreto, eta orduan nabarbendua bestearen gisa) laguntzen ziola, jatxi zuen Jesu-Kristoren gorputz santua gurutzetik erreberenzia, eta errespelo guziz andiarekin: ala bada, Jaungoikotasunarekin uniturik zegoan gorputz santu ura: eta usai gozo, eta kostu andiko uegoento batzuekin enbalsamatu zuen: eta izara berri batekin inguratu zuen: eta Kalbarioaren gertuan zegoan hortu, edo baratza batean, esan degun Jose piadosoak beretzat egiñik zeukan arrizko sepultura berri batean, lenago iñor enterratu etzan lekuan obiratu, edo sartu zuen Jesu-Kristoren gorputz santua: eta ango sarrera losa andi batekin itxi zuen; eta Juduak

erak Pilatosen lizenziarekin eren sillua arriari ipiñi zioten, eta baita eren mendeko soldadu, edo guardiak ere, iñor atrebitu etzedin Jesu-Kristoren gorputz illa andik eramatera: eta guziaren begira zeuden Ama Birjiña Santisima, eta berari zerraizkan Maria Magdalena eta bere lagunak: eta guziaren testimonioa eman zuen San Juan Ebanjelistak. Eta nork esan, edo aditzera eman ditzake batez ere Ama Santisimak Jesu-Kristo pizturik ikusi artean, bere biotz minbere, eta sentikor artan eraman zituan pena, eta doloreak? Ori zuen kon sideraziorako uzten det.

Eta orain ikusten dezue, N.K., zuek pekatutik, eta deabruaren katiberiotik ateratzeko, eta zuei Zeruko bidea erakusteko, eta bide orri jarraitzeko bear dezuen grazia zuei iristeko; Jesu-Kristok bere aldetik bear dan guzia egin duela, ainbeste kosta bazaio ere: eta orain, zer falta da, Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuaren frutua zuek iristeko? Ez besterik, baizik Jesu-Kristoganako fede bizia: beraganako esperanza humilla: eta beraren amorio irazekia zuen biotzetan sortzea: eta oni darraion projimoaren egiazko amorioa. Eta ori konserbatzeko biotzeko humilltasuna, pazienza, Jaungoikoaren borondateari zuena sujeta-tzea. Hitz batean, pekatua, gaitz guziak baño geiago

aborrezitzea: eta bizitza berri bat egitea, Jesu-Kristoren ejemploak, eta nekeak beti gogoan ditugula. Jaungoikoak digula orretako bere grazia, eta gero betiko gloria. Amen.

# OGEITA AMABIGARREN DOTRIÑA

*Jesu-Kristoren erresurrekzioaren gañean  
eta aurretik nola Linbora jatxi zan.*

*Jatxi zan infernuetara:  
eta irugarren egunean piztu zan illen artetik.*

Jesu-Kristo gure Jaunaren pasio, eta eriotza santuaren misterio guztiz andiak: eta nola aren gorputza obiratu, lurperatu, edo enterratu zuen, aditu dituzue aurreko dotriñetan: eta Kredoari, eta aren explikazioari narraiola, gaur esan bear dizuet, 1. nola Jesu-Kristoren anima guztiz santa Infernuetara jatxi zan, eta zertara jatxi zan. Eta 2. nola irugarren egunean illen artetik piztu zan, edo erresuzitatu zan. Txit konsolagarria, eta probetxugarria da dotriña onen gaia Kristau on guzienzat: eta bear dan frutua guziok ateratzeko, eska dezagun Espiritu Santuaren argia, eta grazia Maria Birjiña Santisimaren bitartez. Abe Maria.

**G.** Jesu-Kristo gure Jauna, ill ezkerro, jetxi zan Infernuakgatik zer aditzen dezu? Ez kondenatuen tokia:

ezpada justuak zeuden lekua. Bada orrela infernu bat baiño geiago? Bai: Infernuak esan nai du lurpeko toki bat: eta lau toki, edo leku bereziak dauzka ipiñirik gure Jaungoikoak lurraren barruan, eta dira kondenatuen Infernua: Purgatorioa edo garbitokia: aurren Linboa: eta Justuak zeuden Linboa edo Abranen senoa. Nor dira kondenatuen Infernuen daudenak? Demonioak, eta pekatu mortalean zeudela ill ziran guziak. Nor dira Purgatorioan edo garbitokian daudenak? Jaungoikoaren grazian zeudela ill ziranak, baña pekatuen zorra osoro pagatu bage: eta zor ori pagatu ezkerro igarotzen dira Zeruko gloriara: baña zor ori pagatzen due toki artan tormentu guztiz arrigarriakin. Nor dira aurraen Linbora doazenak, eta an beti egongo diranak? Bateo santua errezibitu bage ill ziran aur guziak. Eta nor ziran justuen Linboan, edo Abranen senoan zeudenak? Jesu-Kristo guziokgatik ill baiño lenago, Jaungoikoaren grazian ill ziran justuen animak, eta eren pekatuen zorra pagaturik zeukenak. Eta Justuen toki orretara jatxi zan Jesu-Kristo gure Jaunaren anima, gorputzetik irten zan instantean. Eta zergatik justuen animak, pekatuen zorra pagatu ezkerro, etziran orduan bereala Zeruko gloriara igotzen? Zergatik Zeruko sarrera guzientzat zegoan itxirik, Jesu-Kristok

bere pasio eta eriotzarekin pekatuen zorra pagatu, eta Zeruko ateak guzionzat iregi artean: eta berak guzion aurretik lenengo Zerura igo bear zuen. Eta nola jatxi zan Jesu-Kristo justuen Linbora? Jetxi zan aren anima Jaungoikotasunarekin uniturik. Eta gorputza nola gelditu zan ill ezkerero? Ura ere zegoan Jaungoikotasunarekin berarekin uniturik: bada Jaungoiko egiazko dan Trinidadeko bigarren personak iñoiz ez uzteko beregana artu zituan anima, eta gorputza: eta persona ura zegoan uniturik betiko gizatasunarekin, au da Jesu-Kristoren animarekin, eta gorputzarekin: eta oek alkargandik apartatu baziran ere, Jesu-Kristo gurutze santuan ill zanean, Jaungoikotasuna iñoiz ere apartatu etzan ez animatik, eta ez gorputzetik.

**G.** Zertara jatxi zan Jesu-Kristo justuen Linbora? **E.** Beraren esperanza zeuden anima santa aek libratzera, konsolatzera, eta gloriiaz betetzera: eta ala bertatik betiko gloriiaz gozaten abiatu ziran: bada argiro erakutsi zien, edo bertatik klaridade, edo argitasun guzian bere Jaungoikotasuna ikusi eragin zien. Eta nork esan dezake, orduko anima zorioneko aen poza, atsegiña, eta kontentua? Eta aen Jesu-Kristoganako amorioa, eta esker ona, ainbeste ondasun, eta alako



zorion neurribagea bere odolaren, edo bere biziaren kostuan irabazi, eta komunikatu zielako? Eta nork esan, Jesu-Kristoren beraren atsegiñ guztizkoa, bere pasio, eta eriotzaren frutua anima santa aei aplikaturik ikusi zuenean? Eskerrak guziok eman degiozkagun bada bere ontasun kabubageagatik: eta orain ikusi dezagun irugarren egunean piztu, edo erresuzitatu zan illen artetik.

### *Erresurrekzioko Misterioa.*

Orain bada Jesu-Kristo gure Jaunaren Erresurrekzioko misterio glorioso aditzera eman bear dizuet, N.K. Aditu dezue nola Jesu-Kristoren anima Jaungoikotasunarekin uniturik jetxi zan Infernuetara, au da Abranen senora; beraren esperanzan zeuden anima justuak libratzera, eta konsolatzera. Aditu ezazue bada txit kontuz, nola berak aurrez esan zuan bezala, irugarren egunean piztu, edo erresuzitatu zan illen artetik: eta nola onekin bere Jaungoikotasunaren prueba, edo testimonio guztiz ziertuak, eta ikusgarriak eman zizkigun: eta ortik zein probetxu andiak etorri zaizkigun.

**G.** Jesu-Kristoren gorputz santua luzaro egondu zan enterraturik? **E.** Ez: Jesu-Kristo piztu, edo erresuzitatu zan, eta irten zan gloriuz beterik sepulturatik domeka goizean, ill zanetik irugarren egunean, berak aurrez askotan esanik zeuken bezela: eta anziñatik Profeta Santuak, Jaungoikoak etorkizunaz lenago argiturik, aditzera emanik zeuken bezela.

**G.** Eta zer aditzen degu Jesu-Kristo piztu, edo erresuzitatu zala diogunean? **E.** Aditzen degu, aren gorputz, eta anima glorioso, lenago eriotzaren medioz alkargandik apartaturik zeudenak, berriro alkarrekin batu, eta juntatu zirala ez geiago iñoiz ere iltzeko.

**G.** Iru egun oso egondu zan Jesu-Kristoren gorputza sepulturan? **E.** Ez: ill zanetik irugarrenean piztu zan: bada Ostirala Santu arratsaldeko iruretan ill zan, eta seiretako enterratu zuen: eta zapatu guzian, eta domekaren parte batean ere enterraturik egondu zan: eta ori da asko, irugarren egunean piztu zala egiaz esateko: baña iru egun osoak etzitian sepulturan igaro.

**G.** Zergatik nai izan zuan luzatu bere erresurrekzioa irugarren eguneraño bere eskuan zeukela, nai izan bali ill da bereala piztutzea? **E.** 1. Aditzera emateko egiazko eriotza sufritu zuela, eta ez iruipenekoa,

eta illen artetik piztu zala: eta 2. irugarren egunean piztuko zala bere profezia, edo hitza osatzeko, edo kunplitzeko.

**G.** Nola irten zan Jesu-Kristoren gorputza sepulturatik, au losa, edo arri andi batekin itxirik, eta sellaturik bazegoan? **E.** Aren gorputz gloriosoarenzat enbarazorik batere ezin izan zitekean; irten zan bada bere birtutez, gloriatz, argitasunez, eta edertasunez dana beterik, sepulturako sarrera estaltzen zuan arria kendu bage: eta bereala ondoren Aingeru bat Zerutik jatxi zan: lur ikara andi bat mobitu zuan: sepultura, edo obia estaltzen zuan arria, edo losa andia apartatu zuan: eta bere argitasun, eta marabilla, edo mirari andi aekin, obiaren zai zeuden guardak, edo soldaduak ikaratu, eta illak bezela erori ziran.

**G.** Eta oek beregan biurtu ziranean, zer egin zuen? **E.** Bereala, gertatu zan guziaren berri ematera joan ziran Juduen agintari, edo Apaiz nagusiai: baña oek, aiñ itxutuak zeuden, eta aiñ gogortuak Jesu-Kristoren kontra, nun aiñ mirari andiak aditu, eta egiaz Jesu-Kristo piztu zala, eta Jaungoikoaren Semea zala sinistu ordean, iñork ori sinistu etzezan, obi zai egon ziran soldaduai dirua ugari eman zien, eta agindu zien, esan zezela; aek lo zeuden artean, Jesu-Kristoren diszipu-

luak etorri, eta aren gorputza eramán zuela. Lo dau-  
den testigo batzuei iñork sinistu bear balie bezela: A!  
zein itxuak, eta zenzu bageak zebiltzan Jesu-Kristoren  
etsaiak.

**G.** Nundik dakigu bada Jesu-Kristo egiaz piztu  
zala? **E.** Jesu-Kristo piztu ezkeró, askorí, eta askotan  
agertu zitzaién, Zerura igo zan arteko berrogei egun  
aen bitartean: eta Jesu-Kristo pizturik ikusi zuenak  
erak, (ukitu zuenak) hitz egin zióbenak, eta jaten, eta  
edaten berekin eduki zituanak erak, Jesu-Kristo egiaz  
piztu zalako testimonioa eman zuen.

**G.** Eta testimonio ori eman zuenak asko ziran? **E.**  
Amar aldi edo okasíotan Apostoluai, eta beste diszipu-  
luai, bein batzuei, beñ bestei Jesu-Kristo pizturik  
agertu zitzaiela aseguratzen digue Ebanjelista San-  
tuak; eta zer esan zien, eta zer egin zuan aen aurrean  
zeoró kontatzen due: eta aldi aetatik batean bost eun  
personari agertu zitzaiela: eta guziak osoro seguratu-  
rik gelditu ziran, eren begiz gurutze batean illik, eta  
sepultaturik ikusi zuen eren Maisua bera zala egiaz  
pizturik beren begiz orduan ikusten zuena.

Eta noró esan dezake Jesu-Kristoren Ama Santisi-  
mak, eta Santa Maria Magdalenak, eta Jesu-Kristoren  
billa sepulkrora joan ziran beste emakume santa aek:

eta orobat Jesu-Kristoren Apostolu, eta beste diszipulu maiteak izan zuen poz, atsegin, eta kontentu parebagea, eren Maisu Dibinoa pizturik ikusi zuenean? Bada osoro seguraturik gelditu ziran, eriotzaren eta biziaren jabe soberanoa zala: eta bere borondatez eriotzara, gu salbatzeagatik, au da, gu pekatutik eta betiko eriotzatik libratzeagatik, sujetatu bazan ere; bere poderio infinitoarekin, nai izan zuenean, eta berak lenago esan zuan bezela, berriz bizia artu zuela, eta bere etsai guziak garaitu zituala: eta ala Jaungoiko egiazkoa zala. Eta arrezkero batere duda bage sinistu zuen, Jesu-Kristok erakutsi zien dotriña guzia egia bera zala: eta batez ere gure animak beti-beti bizi bearrak dirala: gure gorputzak ere piztuak, edo erresuzitatuak izango dirala: eta ala gure egiazko zoriona eztagoala mundu onetako honra, ondasun eta atsegiñ laburretan; baizik beti-beti iraungo duen gero-ko Zeruko erreinuan.

**G.** Eta Jesu-Kristo pizturik ikusi zuelako, Aposto-  
luak, eta beste diszipuluak eman zuen testimonioak  
indar, eta pisu andia du? **E.** Aiñ andia, ze iñola ere ezin  
dudatu diteke aen testimonioaz: bada testigo aetatik  
bati ere iñoiz ere etzaio damutu testimonio ura ema-  
naz: eta geienak Jesu-Kristoren erresurrekzioa, eta

aren Jaungoikotasuna aseguratzeko, eta sinistu erazotzeko pozik eren odola eta bizia eman zuen: eta Jesu-Kristoren izenean egin zituen ezin kontatu ala mirari, milagro edo prodijioekin egia ori probaturik, eta aseguraturik utzi zuen: eta orren frutua izan zan munduko jende, edo Nazio guzien konbersioa, au da Idoloak utzi, eta Jaungoiko egiazkoaren ezaguera egiazkora ekartea. Bada Jesu-Kristoren erresurrekzioa da fedeko beste misterio guzien fundamentua, zimentua, eta prueba ziuru eta ageria: zergatik arrezkero errez sinisten degu, Jesu-Kristo dala Jaungoiko, eta gizon egiazkoa, infinitamente jakinsua, eta poderoso; eta aren esanak nai ta ez egiazkoak dirala, bada ezin bera engañatu diteke, eta ezin iñor engañatu dezake.

**G.** Eta orain guk zer frutu atera bear degu Jesu-Kristoren Erresurrekzio gloriosoaren misterio onetatik? **E.** Piztu eta bizi erazo bear degu Jesu-Kristogana-ko gure fedea, gure esperanza, eta gure biotzeko amorio guzia: gogoan sarri erabilli bear degu, ez gera-la lurrerako, eta emengo honrak, ondasunak, eta atsegiñak gozatzeko egiñak: gure egiazko zoriona Zeruan gozatu bear degula: eta ala gure biotzeko deseo guziak Zerura altxatu, edo jaso bear ditugula. Au da San Paulo Apostoluak guziori erakusten diguna, esaten

digunean: Jesu-Kristorekin piztu, edo erresuzitatu bazerate, Zeruko gauzak billa itzatzue, eta ez lurrekoak: Zeruko gauzai gusto artu egiezue, eta ez lurrekoai. Baña orretarako gure biotzetik, eta gure animatik aienatu bear degu betiko pekatua, eta pekaturako griña gaiztoak ezi, eta menderatu edo garaitu bear ditugu; eta bizitza berri bat egin bear degu, eta orretan irauteko alegin guziak egin bear ditugu; bada Jesu-Kristo piztu zan egiaz: piztu zan ez berriz iltzeko, eta piztu zan bizitza glorioso bat beti gozatzeko, ala bere animan, eta nola bere gorputzean. Eta Jesu-Kristo dan ezkerro gure guzion burua, eta gure Kapitana, guziok egiaz piztu bear degu: eta ez berriz iltzeko, au da, ez geiago pekatuarekin gure animako bizia galtzeko orain piztu bear gera: eta Jaungoikoaren grazian betiko irauteko medio guziak benetan artu bear ditugu. Eta batez ere, Jesu-Kristok berak esan zizkigun hitz labur oek gogoan erabiili, eta aekin gure bizimodua moldatzeko alegiñak egin bear ditugu. Nere ondoren Zerura etorri nai duenak, uka beza edo garaitu beza bere burua, jaso beza bere gurutzea, eta jarrai bekit neri. Esan nai du: gere borondatea bere erabageko deseo, edo griña gaiztoakin ukatu, ezi, eta mortifikatu dezagula: gure egunoroko naigabeak, eritasu-

nak, atsekabeak, eta egiten dizkiguen menosprezioak  
pazienziarekin, eta konformidadearekin eraman ditza-  
gula: eta Jesu-Kristori berari bere pausoetan jarraitu  
degiogula: eta batez ere humillasunean, pazienzian,  
eta Jaungoikoaren, eta projimoaren egiazko amorioan:  
eta ori guzia erraz egingo degu, sarri konsideratzen  
badegu, Jaungoikoa nor dan: nolako mesedeak, guk  
merezi bage, egin dizkigun, eta zenbateraño maite  
gaituan: eta gogotik eskatzen badiogu bera biotz guz-  
titik amatzeko grazia: bada amorioak arinduko, eta  
erraztuko digu Jaungoikoaren legearen nekea, eta  
karga pisua; eta orra N.K., Zeruko bidea: orra bertatik  
pakearen bidea: eta orra geroko erresurrekzio glorio-  
soa iristeko guziok nai ta ez oraiñ egin bear deguna.  
Jaungoikoak digula arren guziori artarako bere indarra  
eta grazia. Amen.



# OGEITA AMAIRUGARREN DOTRIÑA

*Jesu-Kristoren Aszenzioaren gañean.*

Gaur Jesu-Kristoren Zeruetara igotzea, edo aren Aszenzio miragarria aditzera eman bear dizuet, N.K. Gure fede santuko misterio edo artikulua au Kredoan aitortzen edo konfesatzen degu esanaz: *igo zan Zeruetara; an dago jarririk Aita Jaungoiko guziz poderosoaren eskubitik*. Misterio onen ezaguera, eta kon siderazioa guziz egokia da, N.K., Jesu-Kristoganako gure fedea, esperanza, eta amorioa piztutzeko, geitzeko, eta irazekitzeko: eta baita gure biotzak munduko honra, edo estimazio eta banidadeetatik, eta emengo ondasun, atsegin eta erabageko deseo, gurari, eta gutizia guzietatik apartatzeko: eta Zeruko erreinua, eta ango ondasunak gogotik billaerazotzeko. Orretarako esan bear dizuet. 1. Noiz Jesu-Kristo gure Jauna Zeruetara igo zan. 2. Nola igo zan, eta nola dagoan Zeruan: eta 3. zertara igo zan; eta 4. zer egin bear degun guk ere Zeruetara igotzeko eta ango betiko

ondasunak iristeko. Eta probetxuarekin izateko eskatu dezagun Espiritu Santuaren grazia. Abe Maria.

**G.** Noiz igo zan Jesu-Kristo gure Jauna Zeruetara?

**E.** Erresuzitatu zanetik berrogeigarren egunean.

**G.** Zergatik egon nai izan zuan mundu onetan berrogei egun? **E.** Zergatik gurutze batean ill ezker, eta sepultatua izan ezker, egiaz piztu edo erresuzitatu zala argiro, eta batere duda bage ezagutu erazotzeko, eta sinistu eragiteko. Eta ala Apostoluak, illik ikusi zuenean, izan zuen turbaziotik, eta bildurretik atera zituan: bere Jaungoikotasunaren fede edo sinistean konfirmatu zituan: eta artarako askotan agertu zitzaizen: hitz egin zien: bere Espiritu Dibinoa komunkatu zien: pekatuak barkatzeko eta Sakramentuak administratzeko eskualdea eman zien; jakin bear zituzten egia asko erakutsi zizten: eta bere Eliza gobernatzeko erreglak, edo instruzioak eman zizten: Espiritu Santua eta bere doai miragarriak Zerutik bidalduko ziztela agindu zien: eta bitartean Jerusalemen egoteko ordena eman zien: eta azkeneko egunean mundu guziaz bere dotriña erakusteko, eta sinisten zuen guziaz Bautismo Santua, Aitarean, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean emateko kargua eman zien: eta baita, Zerura igo bañon lenago, eman

zien hitza munduak zirauen artean, beti lagunduko zuela, edo etzituala iñoiz ere desanparatuko. Eta au da promesa, edo agintza solemne bat Jesu-Kristok bere Elizari egin ziona: beti oraindano gorde duena: eta aurrera ere gordeko edo kunplituko duena: bada lenago Zeruak, eta lurra faltatuko dira Jesu-Kristoren hitza baño.

**G.** Eta nola igo zan Jesu-Kristo Zerura berrogeigarren egunean? **E.** Bere Apostoluak, eta diszipuluak eraman zituan Jerusalemene gertuan zegoan Betaniako errira, eta andik Olibeteko mendiaren gañera: eta ara eldu ziranean, guziaz bere bendizioa eman zien: eta aen aurrean, guziak zekustela, geldi-geldi Zerura igo zan: eta odei zuri eder batek aen begietatik ezkutatu zuan: baño eren begiak, eta biotzak Zerura altxatuak eduki zituen: Aingeru bi, giza anzean, zuriz janzirik etorri zitzaizten artean: eta Aingeruak esan zien: Zeren begira zaudete Galileako gizonak? Zuek Zerura igotzen ikusi dezuen Jesu-Kristo ori bera etorriko da berriro era orretan mundu guzia juzgatzera. Eta orduan Apostolu guziak, eta beste diszipuluak Maria Birjiña Santisimarekin erretiratu ziran Jerusalemara, eta alkarrekin orazio egiten jardun zuen Zenakuloa zegoan etxean, Jesu-Kristok berak esan zien bezela: eta

Jesu-Kristori zioten amorio naturalaren aldetik, aren ausenzia agitz sentitu, eta tristetu baziran ere, fedea ematen zien ezaguera, eta argiarekin atsegiñez beterik gelditu ziran, Jesu-Kristoren triunfoa, eta gloria ikusiaz, eta andik etorriko ziran probetxu guztiz andiak kontsideratuaz.

**G.** Eta Jesu-Kristo gure Jauna Zerura altxatua izan zan; edo berez, eta bere birtutez igo zan? **E.** Igo zan bere birtute propioarekin: eta ez bakarrik Jaungoikotasunaren aldetik zuan birtute, edo poderio infinitoarekin; baita ere gizatasun, edo humanidade santuaren aldetik zuen birtutearekin: bada Jesu-Kristoren anima gloriosoak bazuan bere gorputza noranai altxatzeko, eta eramateko indarra, edo birtutea: eta gorputza bera ere nola gloriosoa zegoan, arintasuneko doai, edo birtutearekin noranai igo zitekean.

**G.** Eta bere Aszenzio edo igoera gloriosoraño etzegoan Jesu-Kristo Zeruan? **E.** Jaungoikoa zan aldetik bai, baña gizona zan aldetik ez.

**G.** Eta nola dago Jesu-Kristo Zeruan? **E.** Dago eseririk Jaungoiko Aita guztiz poderosoaren eskuitik. Eta eseririk dagoala, Eskritura Santak esaten digunean, zer aditzera eman nai digu? Esan nai eztu jarleku edo sillaren batean jarririk dagoala, bada gorputz glorioso-

ak nekerik eztu, eta deskansu bearrik eztu; baizik bere gloriaren, eta bere eskualde guziaren posesioan seguru, eta betiko dagoala.

**G.** Eta Jaungoikoak (espíritu purua izanik) eskuirik, eta ezkerrik ezpadu, zeri dagokala, esaten digu Kredok, Jesu-Kristo dagoala Jaungoiko Aita guztiz poderosoaren eskuitik? **E.** Aditzera emateko, Jesu-Kristo gure Jaunak, Jaungoikoa dan aldetik daukala gloria iguala edo berdiña, bere Aita Eternoarekin, eta Espiritu Santuarekin: eta gizona dan aldetik, Zeruko Aingeru, eta Santu guziak baño geiago: bada guzien Errege Soberranoa da.

**G.** Eta Jesu-Kristo gure Jauna bakarrik igo zan Zerura? **E.** Ez: berekin eraman zituan Linbotik atera zituan justuen anima guziak: Eta nork esan dezake orduko Jesu-Kristoren triunfoa, eta zorioneko animak guzien poza, atsegiña, eta kontentua, beren Salbadore maitearen konpañian Zeruko Erreinuan, eta glorian sartu ziranean? Nolako ongi-etorria egingo zien Zeruko Aingeru guziak, eta Trinitate Santisimok berak? Zer festak orduan Zeruan egingo ziran! Ori astiro konsideratzeko egokiago da, aditzera emateko baño.

**G.** Eta zertara igo zan Jesu-Kristo gure Jauna Zerura?

**E.** 1. Igo zan bere gizatasun esto humanidade santuari zegokion honra eta gloria guztizkoa betiko gozaerazotzera: bada zenbat geiago munduan Jaungoikoaren honragatik, eta gure salbazioagatik humillatu zan, anbat honra, eta gloria geiago merezirik zeukan: 2. Igo zan Zerura, aditzera emateko aren erreinua eztala munduko erreinak bezela mudakorra, eta iraupen gutxikoa: baizik betikoa, eternoa, eta iñoiz ere mudanzarik, edo aldarterik izango eztuena: eta ala Zeruan bakarrik arkituko degula betiko atsedena, eta gure biotzak osoro aseko dituan zoriona. 3. Igo zan Zerura, bere Aita Eternoarekin gure bitarteko, eta gure abogadu izatera; eta berariaz konserbatu zituan bere gorputzeko zauri, edo llaga preziosoak bere Aitari presentatzeko. 4. Igo zan Zerura; andik Espiritu Santua bere doai guziakin Apostolui, eta Eliza guziari bidaltzera. Eta 5. igo zan Zerura; ango sarrera (lenago pekatuagatik guzionzat itxirik zegoena) iregitzera, guzion izenean posesioa artzera, eta an okupatu bear ditugun zorioneko tokiak preparatzera, edo prestatzera: eta azkenik igo zan Zerura, beraganako gure fedea, esperanza, eta karidadea, edo amorioa, piztu-

tzeko, bazierazotzeko, eta geitzeko. Bada guziok bada-  
kizue fedea dala ikusten ezteguna sinistea, zergatik  
Jaungoikoak ala erakutsi, edo agertu digun: eta Jesu-  
Kristok berak Santo Tomas Apostoluari (ikus bage  
sinistu etzuelako) esan zion: zorionekoak dirala ikusi  
bage sinistu duenak: eta ala fedea meritua andia  
dauka, humilla, humilla ikusi bage Jaungoikoaren esa-  
nak sinisten dituanen: eta dudarik eztago Jesu-Kristo  
bere gorputzeko prezentearekin emen bertan gelditu  
baliz, gure fedea agitz eskasagoa, eta merezimentu  
gutxiagokoa izango zala: eta ori bera Apostolui erai-  
gertatu zitzaion; bada beren aurrean Jesu-Kristo eduki-  
zuen artean, aren gizatasun, edo humanidadeari geie-  
na begiratzen zioten: eta amorio natural utsa zan  
batekin maite zuela dirudi: baña Jesu-Kristo Zerura igo  
ezkero, begiratzen zioten fede bizi, eta espirituko  
begiak, eren Jaungoikoari bezela. Eta orobat arrez-  
kero Jesu-Kristoganako esperanza, eta amorio bizi-  
goa, irazekiagoa, eta indarsuagoa eduki zuen: eta  
argatik Jesu-Kristok berak esan zion: *konbeni zatzue ni  
joatea*: bada ni ezpanoa, Espiritu Santua errezibituko  
eztezue, edo zuen gañera etorriko ezta. Eta guziok  
dakizue N.K., amoriozko Espiritu Dibino ura errezibitu  
ezkero, nolako fede bizi, nolako esperanza irmoa eta

nolako amorio irazekia Apostoluen biotzetan sortu zan: eta nolako efektu miragarriak kausatu zituan.

**G.** Eta orain guk zer egin bear degu Zerura igotzeko, eta ango betiko ondasunak iristeko? **E.** 1. Poztu, eta alegratu bear gera Jesu-Kristo Jaungoiko, eta gizon egiazkoa gure guzion Maisua, gidaria, eta burua aiñ honratua, altxatua, eta gloriosoa bere Aitaren eskuian konsideratuaz. 2. Orobat atsegin andi bat artu bear degu, gure naturaleza gizonezkoa Jesu-Kristogan, Aingeruak erak baño goratuagoa ikusirik. 3. Gogoan ondo sarturik beti eduki bear degu, emen erbeste edo destierroan gaudela, bidezko edo peregrino batzuek gerala; eta gure betiko bizilekua, gure zoriona, eta egiazko atsedeen edo deskansua Zeruan dagoala: arako egiñak gerala: eta azkenik 4. Jesu-Kristok berak Zeruko bidea erakutsi digun ezker, alegin guziak egin bear ditugu bide orri gogotik jarraitzeko. Pekatuan bagaude; penitentzia edo konbersio egiazko baten bitartez, Zeruko bidean jarri bear degu: eta Jaungoikoaren grazia iritsi ezker, bizitza berri bat benetan egin bear degu: mundu eroari, deabruari, eta gure aragiari gerra egin bear diegu. Deboziazko bizimodu bat artu, eta egunoro denbora puska bat, orazio egiten, eta gure fede santuko egia prinzipalak, eta egin disgigun mese-



de andiak konsideratzen jarduteko egiazko alegiñak egin bear ditugu; eta egunoro argi geiago, eta indar geiago Jaungoikoak emango dizgigu, bera obeto eza-gutzeko, eta gogotiago amatzeko: eta orduan erraz humildadea, pazientzia, eta karidadea, eta beste birtuteak ejerzitatuko ditugu: eta Zeruko ondasun andiak, edo irabazi miragarri batzuek iritsiko ditugu. Baña kontrara, orain Jesu-Kristori gogotik jarraitu nai ezpadiogu, betiko galduak edo kondenatuak, eta betiko zorigaitzokoak Infernuan izango gera. Bada andik, au da Zerutik etorriko da Jesu-Kristo bera, biziak eta illak juzgatzeraz, Kredoaren urrengo artikuluak erakusten digun bezela: eta onai emango die betiko gloria, eta gaiztoai betiko infernua: eta juizio ori egingo du Jesu-Kristok: 1. Iltzen geran instantean; eta orri deitzen diogu juizio partikularra: eta 2. Juizioa izango da munduaren bukaeran; munduko, eta Zeruko guzien aurrean: eta orri deitzen diogu juizio jenerala: baña naiz juizio partikularrak, eta naiz jeneralak eskatzen ditue, beren esplikaziorako, berariazko dotriñak: eta oriek aurrerago emango zaizkitzue: eta bitartean, arren aditu dituzuen egia andiak, ala pozgarriak, nola bildurgarriak gogoan erabilli itzatzue: eta zuen anima gaixo errukigarriak betiko zorigaitzetik libratzeko; eta

betiko zorionera edo Zeruko gloriara eramateko alegin biziak egin itzatzue, Jesu-Kristoren beraren ejemploarekin, eta graziarekin. Amen.

# OGEITA AMALUGARREN DOTRIÑA

*Espiritu Santuaren etorreraren gañean.*

Kredoaren esplikazioari garraizkola oraindañoako dotriñetan; Aita Eternoari eta bere Seme maite Jesu-Kristo gure Jaunari atribuitzen zaizkan, munduaren kreazioa, edo ezerezetik egitea, eta gizonaren erre-den-zioa, edo pekatutik libratzeko pagua, edo satisfak-zioa ematea aditzera eman ditugun ezkerro; aurrera Espiritu Santuari batez ere dagokion gizonaren justifi-kazioa edo santifikazioa azaldu, edo erakutsi bear dizuet: eta gaur aditu bear dezue gogotik, eta arreta, edo atenzio andi batekin: 1. Noiz, eta nola Espiritu Santua jatxi zan Apostoluen gañera: 2. Nolako efekto-ak obratu zituan Aposlotuetan, eta Jesu-Kristogan sinistu zuen Kristau berrietan: eta 3. zer eragiten dien orain ere Espiritu Santuak, bera errezibitzeko zoriona duen Kristauai.

**G.** Jesu-Kristo gure Jauna Zeruetara igotzen ikusi ezkerro nora jua ziran Apostoluak, eta Jesu-Kristoren diszipulu, edo jarraitzalleak? **E.** Guziak alkarrekin Jeru-

salena erretiratu ziran, Jesu-Kristok berak, Zerura igo baño lenago, agindu zien bezela: eta an egondu ziran Espiritu Santuaren etorreraraño, Jesusen Ama Maria Birjiña Santisima berekin zuela.

**G.** Eta bitarte artan zertan jardun ziran? **E.** Erretiroan, ixiltasunean, eta orazioan, biotzak Zerura altxaturik zeuzkatela, egondu ziran, eren animak prestatzen, preparatzen, edo disponitzen Jesu-Kristok agindu, eskeiñi, edo prometitu zien Espiritu Santua errezi-bitzeko.

**G.** Noiz, eta zer ordutan jetxi zan, edo etorri zan Espiritu Santua Apostoluen gañera? **E.** Zerura Jesu-Kristo igo zanetik amargarren egunean: piztu, edo erresuzitatu zanetik berrogeita amargarrenean; domeka egun batean, goizeko bederatzietan: Juduak zelebratzen, edo gordetzen zuen Pentekosteko jai, edo festa andian.

**G.** Zergatik Jaungoikoak Espiritu Santua bidaldu nai izan zuan, Juduen Pentekosteko egunean? **E.** Argiro erakusteko lenagoko itzalak, figurak, edo antzak oraingo egiarekin zuen eranzuera ederra: Juduak Jaungoikoaren legea arrizko losa, edo ol bitan eskribiturik errezibitu zuen Moisesen eskutik, Faraonen mendetik irten ziranetik berrogeita amargarren egunean: Jaun-

goikoak nai izan zuan bada, Espiritu Santua bera etortzea gizonen biotzetan bere amoriozko legea ezartzera, eta estanpatzera, Jesu-Kristok bere erresurrekzioaren birtutez infernuko deabruaren mendetik atera ginduzanetik berrogeita amargarren egunean: eta Faronen mendekotasuna, edo katiberioa zan deabruak gure animetan zuan nagitasun, edo agintearen figura, itzala, edo antza.

**G.** Nola jetxi zan Espiritu Santua Apostoluen gañera? **E.** Bat-batean aditu zan Apostoluak Ama Birjiña Santisimarekin zeuden etxe guzian aize indarsu baten gisako ots andi bat: eta bereala suzko mingaiñ batzuek partitu, edo bereztu ziran: eta Apostoluen, eta diszipuluen gañean jarri ziran: eta guziak Espiritu Santuaz beterik arkitu ziran: Zer esan nai du, Apostoluak Espiritu Santuaz beterik arkitu zirala? Aditzera eman nai du, Espiritu Santua, Trinitade Santisimoko irugarren persona, Aita Eternoarekin, eta Semearekin Jaungoiko egiazko bat dana; bestela ere Jesu-Kristoren Espiritua, eta egiaren Espiritua deitzen dana, Apostoluen animetan jarri zala bere doaiakin, eta Zeruko Espiritu berri bat eman ziela.

**G.** Zer egin zuen bada orduan Espiritu Santuak Apostoluetan? **E.** Gizon berri batzuek egin zituan:

bada 1. Jaungoikoaren, eta projimoaren amorioz, zelo irazekiz, eta indar, edo birtute miragarritz bete zitan: izanik lenago aiñ argalak, bere buruen aiñ maitatza-lleak, eta guztiz bildurtiak, eta imperfektoak. 2. Espiritu Santuak orduan eren adimentuko begiak iregi zien: eta Jaungoikoaren lege santuko egiak, eta misteriorik gorenak txit argiro, eta barrundik ezagutzeko gai egin zituan: izanik lenago aiñ jakinezak, edo ignoranteak: Eta 5. hizkuntza, edo lengUAGE askotan hitz egiteko doia; eta mirari, milagro, edo prodijio mota guziak egiteko eskualdea eman zien, izanik lenago eskola edo estudio bageak; eta arrantzale pobre batzuei zegokien aziera komun, edo ordinario bat baizik etzuenak.

**G.** Zer egin zuen Apostoluak Espiritu Santua, eta bere doaiak artu ezker? **E.** Espiritu Santuak berak aditzera ematen zien bezela, Jaungoikoaren anditasunak, eta obra miragarriak publikatzen, eta predikatzen abiatu ziran, lenago etzekiten hizkuntza mota askotan hitz egiten zuela; eta baita hizkuntza batean hitz egiñagatik, hizkuntza diferenteak zituen jendeai era batera aditzera ematen ziela, bakoitzari bere hizkuntzan hitz egingo balie bezela, eta orrela barreatu, edo publikatu zuen Jesu-Kristoren Ebanjelio Santua;

lenengo Jerusalemen bertan, eta Judeako errietan: gero Samariako Ziudadean, eta ango beste errietan: eta azkenik mundu guzian, Jesu-Kristok berak agindu zien moduan.

**G.** Zer aditzen degu, Apostoluak Ebanjelioa predikatu zuela diogunean? **E.** Aditzen degu: Zeruko berri onak munduko guziaz aditzera eman ziela: bada 1. erakutsi zien Jesu-Kristo gure Jaunak obratu zuan gure erredenzioko misterio guztiz atsegiñezkoa: au da bere pasio, eta eriotza santuarekin gure pekatuen zorra pagatu zuela: bere Aita Eternoaren justiziarik gure ordez satisfakzioa eman ziola: eta berarekin errekonziliatu, edo paketu, eta adiskidetu ginduzela: 2. Erakutsi zuen Jesu-Kristo ill ezkerre, eta sepultatua izan ezkerre, bere birtutez piztu zala: eta erak eren begiz pizturik, edo erresuzitaturik askotan ikusi zuela: eta Zerura igo baño lenago berarekin askotan hitz egin, eta bere aotik Zeruko Erreinura daraman dotriña santua ikasi zuela: Zerura igotzen ere eren begiz ikusi zuela: eta hitz batean esateko, Kristauen dotriñako egia guziaz mundukoai predikatu zien: eta oriek batre duda bage sinistu eragiteko, ezin kontatu ala milagro, edo prodijio Apostoluak egin zituen: eta Aita San Pedro Apostoluak, beste guziaz burua bezela, Jerusa-

lenen bertan, Pentekosteko egunean egin zuan lenbiziko sermoiarekin, iru milla persona Espiritu Santuak argitu, eta jarri ziran Jesu-Kristoren fede santura, eta bateatuak izan ziran: eta andik egun gutxiren barruan, elbarritu bat, guziak ezagutzen zuena, eta Jerusalengo Eliza atean limosna eske zegoana, Jesu-Kristoren izenean jaiki zedilla San Pedrok esanaz beste bage bat batetan sendatu zan; eta jende guzia arriturik zegoela, Aita San Pedrok berak egin zuan beste sermoi batekin, bost milla personak Jesu-Kristoren legea laztandu zuen: eta beste Apostoluak orobat eren sermoiakin, eta egiten zituen milagroakin Jesu-Kristoren ezaguerara, eta fede santura txit jende asko ekarri zituen, eta orrela Kristauen Eliza mundu guztitik zabaldu zan.

**G.** Eta zer bizimodu egiten zuen Jesu-Kristoren fedea laztandu zuen lenbiziko Kristau aek? **E.** Etzuen uste mundurako bizi zirala, ezpada Zerurako: eta ala munduko honrak, aberastasunak, eta aragiaren atsegiñak ezertan etzeuzkaten: orazioan, eta Zeruko gauzen konsiderazioan txit sarri okupatzen ziran: munduko ondasunak pobrei txit gogotik partitzen zien: guziak biotz bat baizik etzuela zirudian: Jesu-Kristoren dotriña santuarekin, eta Eukaristiarekin, edo Komunio



santuarekin txit sarri mantenatzen, eta indartzen ziran: eta Jesu-Kristoren fedeagatik eren biziak tormentuen artean pozik emateko prest arkitzen ziran; orduko ainbeste milloi martiri santuk erakutsi, edo agertu zuen bezela.

**G.** Eta Apostoluen dotriña aditu, eta aen mirariak ikusi zituen Judu guziak Jesu-Kristoren fedea artu ote zuen? **E.** Aetatik askok Jesu-Kristogan sinistu zuen: baña beste asko, batez ere agintariak, eta munduko estimazioetan, ondasunetan, eta atsegiñetan eren biotzak ipiñirik zeuzkatenak, eren gogortasunean, eta itxumenean gelditu ziran; eta Apostotuak, eta Jesu-Kristoren jarraitzalle, edo diszipuluak agitz persegitzen, eta illerazotzen zituen, eta argatik ainbeste martiri orduan izan ziran; bada Judu itxu, eta gogor aek kastigatu zituan agitz gure Jaungoikoak: eta orain ere badarraie aen ondorengo Judu itxutuai Jaunaren maldizioia mundu guzian.

**G.** Eta Juduen artean baño frutu geiago atera ote zuen Apostotuak Jentillen artean? **E.** Bai askoz geiago: bada munduko Nazio, edo jende mota guziak Idolatrian, edo Jaungoiko falsoak adoratzen zituela bizi ziran: eta gaiztakeria guzietan ondaturik, eta itxuturik zeuden: eta Apostoluen dotriñarekin argitu ziran, eta

Jesu-Kristoren fedea laztandu zuen: eta Jaungoiko falsoak, eta Idoloak utzirik egiazko Jaungoiko bakar baten ezagueran, eta adorazioan jarri ziran.

**G.** Apostotuak nola orrenbeste frutu atera zuen Jentillen artean? **E.** Espiritu Santuak berak lagunzen zien: eta aen hitzai, aen ejemplo onari, eta milagroai ematen zien indarra aditzallen adimentuak argitzeko, eta aen biotzak ukitzeko, eta Jaungoikoagana erakarteko: eta baita ematen zien Apostoluai erai, eta aen jarraitzalle Kristau berriai miragarrizko indarra, edo birtutea neke, naigabe, desprezio mota guziak, eta eriotza bera pozik sufritzeko; Jesu-Kristoren fedearen testimonioa eman zuen martiri guzietan ikusi zan bezela. Eta zenbat alegin geiago egiten zuen Jesu-Kristoren etsaiak aren fedea eta erreljio santua desgiteko, eta galtzeko, ainbat Kristau berri geiago sortzen ziran, eta kristandadea geitzen, eta zabaltzen zan mundu guzian: bada guziak ikusten zituen Kristauen ejemplo onak, aen inozentzia, aen humiltasuna, aen pazientzia, eta alkarrekiko karidadea edo amorioa; eta txit nabarbenak, edo publikoak ziran gure Jaungoikoak egunoro egiten zituan milagroak Apostoluen, eta aen diszipulu edo jarraitzallen bitartez: eta orrela, Espiritu Santuak orduan ematen zien barruko argita-

sun, eta graziarekin, txit asko konbertitzen ziran: eta Kristau egiten ziran.

**G.** Apostoluak erentzat baizik etzuen errezibitu Espiritu Santua? **E.** Baita ere errezibitu zuen aen bitartez, eta aen ondorengo bitartez Jesu-Kristogan sinisten zuen guziaz komunikatzeko, Espiritu Santuaren beraren doai, eta birtuteakin.

**G.** Noiz errezibitzen due orain Kristauak Espiritu Santua Apostoluen ondorengo diran Jaungoikoaren Ministroen bitartez? **E.** Lenengo aldian Bateo santuan errezibitzen due: eta gero ugariago Konfirmazioko Sakramentu Santuan: eta pekatu mortalarekin galdu ezker, berriz errezibitzen due, Jaungoikoagana egiaz bihurturik, penitenziako Sakramentuaren birtutez pekatuaren barkazioa, eta Jaungoikoaren grazia iristen duenean.

**G.** Zer eragiten du orain Espiritu Santuak, bera errezibitzen duen Kristauetan? **E.** Jaungoikoaganako fede bizia, esperanza, eta amorioa sortzen die eren biotzetan, Apostoluen biotzetan sortu zuen bezela: eta zelo, edo leia andi bat, gogo bizi bat, eta indarra, edo birtutea ematen die Jesu-Kristoren legea ondo gordetzeko, eta al dituen guziak salbazioko bidera ekarteko. Baña ez tie beti ematen Apostoluai bezelako

Jakinduri miragarria, eta mirari, edo milagroak egiteko doaia: bada doai miragarri oriek fedebageai fedeko egiak sinistu eragiteko, eta aurretik Eskritura Santan eskribiturik zeuden Profeziak osatzeko, gauza bearrak ziran denbora artan: baña orain fedearen egia, ezin ukatu ditezkean ainbeste prueba, eta testimoniorekin, seguraturik dagoan ezkerro, eztira orduan bezela premiazkoak doai miragarri oriek: eta ala ere arrezkeroko denbora guzietan Jesu-Kristoren fede santuan bizi, eta ill ziran santu askoren bitartez ezin ukatu ditezkean millarezko milagroak egin ditu gure Jaungoikoak, eta erakutsi du beti, aen fedea, eta dotriña egiazkoa, eta Zerukoa dala.

Ikusi dezue bada, N.K., noiz, eta nola Espiritu Santua Apostoluen eta Jesu-Kristoren diszipuluen gañera jatxi zan: nolako efeko miragarriak orduan egin zituan: eta baita nolakoak orain ere egiten dituan, Espiritu Santua, eta bere doaiak eren biotzetan errezi-bitzen dituen Kristau justuetan. Begira ezazue bada orain, N.K., ea Espiritu Santua dan zuen biotzetan agintzen duena: edo dan munduaren, eta aragiaren Espiritua. Fede bizi bat, esperanza irmo bat, eta Jaungoikoaren, eta projimoaren amorio egiazkoa zuen biotzetan arkitzen bada: eta orren señaletzat, pekatua-

ren iguitasun, eta gorroto andi bat baldin badezue, Espiritu Santua zuen biotzetan dago: bada berak ori guzia eragiten dizue: baña kontrara fedeko egiakin zuen adimentuak argitzen ezpadituzue, edo fedea illik bezela badaukazue: zuen biotzak munduko honra ondasun eta atsegiñetan josirik badauzkatzue: eta Zeruko ondasunak bizirosi deseatzen ezpadituzue: eta hitz batean Jaungoikoaren, eta projimoaren amorio egiazkoa daukazuelako señaletzat amar mandamentuak kontuz, eta osoro gordetzeko alegiñak egiten ezpadituzue, zuen biotzetan eztu agintzen Espiritu Santuak: baizik munduaren, eta aragiaren Espirituak: eta egiaz illik daude zuen anima gaixoak; baña orain zenzatzen, konturatzen, eta Jaungoikoagana benetan penitentzia egiazko batekin biurtzen bazerate, eta bizitza berri bat egitera jarten bazerate, biziko zerate; eta Espiritu Santua izango dezue: zuen zorionekoak ori egiten badezue: eta kontrara zuen zorigaiztokoak! Jaungoikoak arren argitu gaitzala bada guziok bere Espiritu Santuarekin: irazeki ditzala gure biotzak bere amorio santuarekin: eta eraman gaitzala gero, eternidade guzian bera ikustera, eta beraz gozatzera Zeruko gloriara. Amen.

# OGEITA AMABOSTGARREN DOTRIÑA

*Eliza Santa Katolika zer dan:*

*Jesu-Kristoren Eliza egiazkoaren señaleak zein diran:  
eta Santuen Komunioa zer dan.*

## SARRERA

Espiritu Santuaren etorrera Jesu-Kristoren Aposto-  
luen gañera, eta Kristauen Elizaren asiera, edo funda-  
zio miragarria aditzera eman nizuen orain urrengo  
aldian: eta gaur esan, edo erakutsi bear dizuet, zer  
dan Kredoan sinisten degun Eliza Santa Katolika: zein  
diran Jesu-Kristoren Eliza egiazkoaren señaleak: eta  
zer dan Santuen Komunioa. Eta ona dotriña gai bat  
Kristau Katoliko guzionzat txit atsegingarria, eta pro-  
betxugarria: bada Jaungoikoaren Majestadeak ez  
bakarrik egin gaitu, munduko beste gizon, eta emaku-  
me guziak bezela, bera ezagutzeko, serbitzeko, ama-  
tzeko, eta eternidade guzian bere gloriatz Zeruko  
erreinuan gozatzeko gai, edo kapazak: baizik mundu-

ko Nazio, edo jendegiro guzien artean, egiazko fedearren, eta Zeruko argiaren ezaguerarik eztuen ainbe fedebage, edo infiel, Jentil itxu, Judu, Hereje, Zismatiko, Turko, Mauru, eta Idolatraen artean, guk merezibage, Kristau errian jaio erazo gaitu, esleitu gaitu, eta egin gaitu Bateo Santuan bere Eliza egiazkoaren humeak: bere Seme maite Jesu-Kristoren eskolakoak, edo diszipuluak: Espiritu Santuaren Tenplo, edo bizilekuak: eta Zeruko erreinuaren herederoak. Nolako eskerrak zor eztiozkagu bada gure Jaungoikoaren ontasun parebageari mesede guztiz andi onegatik? bada beste mesede guztiak au bage alperrak ginduzke: eta, nolako alegiñak egin bear eztitugu Kristau guziok, zer, eta nolakoa dan gure Eliza Ama Santa ondo ezagutzeko: eta Eliza Ama Santaren egiazko humeak izateko? Humillak, obedienteak, eta esker onekoak; Elizaren dotriña, Jaungoikoarena berarena bezela sinistuaz; aren lege, eta mandamentu Santuai obedezituaz: eta gure Eliza Ama Santaren Arzai, Maisu, eta gidariai esker onez eranzunaz? eta orra gaurko dotriñatik aterako degun probetxua, gure Eliza Santa Katolika zer dan, eta zenbat ondasun Eliz barruan daduzkegun ondo ezagutzen, eta konsideratzen badegu.

1. **G.** Zer da bada Eliza Santa Katolika? **E.** Ezta gure Eliza Ama Santa, gizonak asmatutako, egindako, edo zuzendutako batzarre, junta, edo askoren hermandade, edo kongregazio bat: gizonen obra izan baliz, aspaldian desegiñik, eta azturik egongo zan, beti izan dituan etsai guztiz indarsu, eta maliziosoen persekuzio arrigarriakin. Jaungoikoaren beraren obra da: Jaungoikoak berak bere poderio, eta jakinduri neurribagearekin sortu zuen gure Eliza Ama Santa: eta berak beti gorde du, eta munduaren azkeneneraño gordeko du, aren Majestadeak agindurik, edo hitza emanik daukan bezela: eta fedearen gañeko beste dotriña batean zeoro esanik daukagun bezela. Eliza Santa Katolika, bada, Kredoan sinisten, eta konfesatzen deguna, da Kristau fiel, edo fededun guzien kongregazioa: Jesu-Kristo gure Jauna bera, bere buru prinzipal, edo nagusitzat ezagutzen, eta daukana: eta aren ordeko, edo Bikarioa, Erromako Obispoa, Aita Santua, edo Erromako Sumo Pontifizea mundu onetan bere burutzat ezagutzen, eta daukana.

**G.** Zergatik esan degu Eliza Santa Katolika dala Kristau fiel, edo fededun guzien kongregazioa? **E.** Zergatik Kristau eztiranak: bateaturik eztaudenak: eta Jesu-Kristoren fedea eztuenak eztira Elizako mienbro,



edo zatiak. Eliza da gorputz bat bezela, bere burua, eta mienbroak dituana: burutik datorkie gorputzari, eta mienbro guziai eren bizia: buruak ematen dien espirituarekin gorputzeko mienbroak bizi dira: eta ala Jesu-Kristoren fedea eztuenak, Jesu-Kristogan sinisten eztuenak, eztira aren mienbroak, ez eta Elizarenak ere: bada Elizak Jesu-Kristo bere burutzat dauka; eta ala Elizako mienbroa izateko Jesu-Kristogan sinistu bear du, bada bestela ezta Kristaua.

**G.** Eta zergatik esan degu, mundu onetan Elizaren burua dala Erromako Obispoa, Aita Santua, edo Erromako Sumo Pontifizea? **E.** Zergatik Jesu-Kristok berak Apostolu guzien buru, guzien Arzai prinzipal, edo nagusi, Jesu-Kristoren beraren ordeko, edo Bikario, eta Eliza guziaren buru egiñik utzi zuen Aita San Pedro Apostolua: eta au izan zan Erromako lenengo Obispoa: eta ura ill ezkeru, San Pedrok zituan karguak, eskualdiak, eta dignidadea gozatu ditue beti, eta orain ere gozaten ditue Erromako Obispoak, San Pedroren ondorengo lejitimoak bezela: eta munduko Eliza guzietako Obispo Katolikoak ezagutzen due, eta gordetzen diobe Erromako Obispoari, edo Aita Santuari daukan eskualdia, guzien nagusienari bezela, eta Eliza guziaren buru prinzipalari bezela: eta argatik Kris-

tauen Eliza deitzen da, Eliza Ama Santa Katolika Romana, edo Erromakoa: au da Erromako Obispoa bere buru, eta Maisu prinzipalzat ezagutzen, eta daukana.

**G.** Eta Eliza ori Jesu-Kristoren Eliza egiazkoa dala-ko señaile ziertoak, beste inork eztauzkanak zein dira?

**E.** Dirade lau oek: 1. izatea bat bakarra: 2. izatea Santa: 3. izatea Katolika: eta 4. izatea Apostolika. Eta ala Mezako Kredoan aitortzen, eta konfesatzen degu guziok: *Credo unam, sanctam, Catholicam, et Apostolicam Ecclesiam.*

**G.** Zergatik diogu, Eliza dala bat bakarra? **E.** 1. Zergatik eztan Jaungoiko egiazko bakar bat baizik: eta 2. zergatik Elizako mienbroak asko badira ere, eztue buru bat baizik, guziak gorputz bat egiten due: eta ala guziak fede bat, edo siniste komun bat due: guziak esperanza bat: eta guziak Sakramentu batzuek errebitzen dituzte: eta ala emen bizi geran Kristauok, eta munduko bastarrik urrutienetan bizi diranak gorputz bat egiten degu: guziok dotriña bat berbera daukagu: bada Jaungoikoak ezin dotriña diferenteak, edo kontrarioak bere egiazko serbitzariai erakutsi leizke.

**G.** Zergatik diogu Eliza dala Santa? **E.** 1. Zergatik Elizako burua da Jesu-Kristo, santidade guziaren itur-

buru guztiz ugaria: bere grazia, eta Espiritua Elizari, eta Elizako mienbroai ematen diena. 2. Zergatik Elizako dotriña da santua, eta santidadeko bidea erakusten duena: 3. Zergatik dauzka Sakramentu santuak, Jaungoikoaren grazia, eta santidadea komunikatzeko doaia, eta birtutea duenak: 4. Zergatik Elizako mienbro guziak santuak izatera deituak dira, eta Jaungoikoari konsagratuak daude Bateo Santuan, eta denbora guzietan izan ditu, eta izango ditu Santuak, eta justuak bere barruan, edo bere mienbroen artean, eta ez nolanaiko Santuak izan ditu, baizik alde batetik ezin kontatu ala, eta bestetik santidade bat aiñ andia, eta miragarria izan duenak, nun Jaungoikoak berak milagro guztiz zieltuakin, eta ikusgarriakin konfirmatu nai izan duen: aditzera emateko aen fedea zala egiazkoa: bada ezin Jaungoikoak milagrorik egin dezake gezurrezko dotriña sinistu eragiteko. Eta 5. zergatik ezta Santurik, eta ez salbaziorik Elizaren barruan baizik.

**G.** Eta asko da Eliz barruan egotea, edo Kristau Katolikoa izatea, santua, edo justua izateko, eta salbazioa iristeko? **E.** Ezta asko: mundu onetan gauden artean, Kristauak izan arren, fede bat berbera eduki arren; onak, eta gaiztoak, aleak, eta lastoak, arrai onak, eta kaltetsuak alkarrekin bizi dira: eta juizioko

egunean alkargandik betiko apartatuko dira, onak Zerurako, eta gaiztoak Infernurako: baña eztira galduko gaiztoak, Elizak Santuak izateko erremedioak eman bagez, baizik eren kulpaz erremedioak artu bagez.

**G.** Zergatik diogu Eliza dala Katolika, edo uniber-sala? **E.** 1. Zergatik munduko bazter guzietan banaturik dagoan, eta Jesu-Kristogan sinistu nai duen guziak beregana artzen dituan: eta 2. zergatik denbora guzietan iraun duen, eta beti iraun bear duen. Eta orrela distingitzen da Kristau Katolikoen Eliza, Juduak izan zuen Elizagandik, edo Sinagogagandik: bada ura oraingo Elizaren bide aurreko bat bezela zan: Jesu-Kristogan, eta bere Elizan osatu, edo kunplitu ziran, Jaungoikoagandik Juduak artu, eta konserbatu zituen Profeziak, eta promesak: eta aek osatu, edo kunplitu ezkerro, Kristau egin bear ziran: eta aetatik askok Jesu-Kristogan sinistu zuen, eta bateatu ziran: eta Jesu-Kristo mundura etorri baño lenago, Judeako, edo Palestinako Probinzian bakarrik arkitzen zan Juduen Eliza, eta legea, eta etzuen iraun bear Jesu-Kristoren Ebanjelio Santua predikatu artean baizik: eta orduan bukatu zan bere Tenplo, eta sakrifizio guziakin batera: baña Kristauen Eliza, Jesu-Kristogan sinistu zuen

guziak beregana artu zituana, mundu guzian banaturik dago: eta iraungo du munduaren bukaeraraño: eta kontrara munduan oraindaño sortu diran Hereje gaiztoen batzarreak, eta dotriña gezurrezkoak, eztira beti izan: aetatik asko laster agertu, eta desagertu dira: eta orain dirauenak ere, uniorik eren artean eztue: mudakorrak dira, gizonen pensamentuak, eta juizioak, edo iritsiak bezela: eta Kristauen izenaz gloriatzen badira ere, zerren bateatuak dauden, eta misterio batzuek sinisten dituela esaten duen, eztira Kristau Katolikoak, zergatik fedeko misterio guziak erabatera sinistu nai eztituen: eta ala eztue Jesu-Kristoren fede egiazkoa: bada au balue, era batera fedeko gauza guziak sinistuko lituzke: zerren guziak sinisteko motibo bat berbera daukagu guziok: au da Jaungoikoak Eliza Ama Santari agertuak, erakutsiak, edo errebelatuak izatea, eta Eliza Ama Santak alakotzat guri erakustea; Jaungoikoak berak artarako Elizari bakarrik eman dion eskualdi, edo karguarekin eta utsik egiten utziko eztiolako promesa solemne, eta guztiz segurua-ekin: eta emen ageri da Jaungoikoaren probidenzia miragarria, eta guztiz premiazkoa: bada libertatea bakoitzari eman baligu, nai deguna, edo ondo deritzoguna sinisteko, eta nai ezteguna, edo gaizki deritzogu-

na ez: ez litzate munduan dotriña egiazkorik izango: bada bakoitzak bere gisa juizio egingo luke: eta nola gizonaren juizioak, eta iritziak ain diferenteak diran, zenbat buru, ainbeste juizio: eta ezin iñork ere ziertu jakingo luke, utsegiten duen, edo ez: bada kezka orientatik guzietatik libratu bear ginduzen gure Jaungoikoa, guk egia ziertu jakitea nai bazuen: eta ala egin izan du, guri erakusteko kargua, eta beti egia erakutsiko digulako seguridadea Eliza Ama Santari emanarekin. Eta orra konsuelo guztiz andia Kristau Katoliko guzionzat.

**G.** Eta zergatik diogu Eliza dala Apostolika? **E.** 1. Zergatik Jesu-Kristorekin mundu onetan bizi izan ziran Apostoluak, Jesu-Kristoren ordenaz, eta aren izenean fundatu zuena bera da Kristauen Eliza. 2. Zergatik Apostoluen ondorengo, edo sukzesore lejitimoak, zein diran Erromako Aita Santua, eta beste Obispo Jaun guziak Eliza gobernatzen duen: eta 3. zergatik Apostoluak predikatu, eta erakutsi zuen dotriña berbera orain ere Eliza Ama Santak erakusten digun: eta beti ori bera erakutsiko du.

**G.** Gure Eliza Ama Santa Katolika ikusten da? **E.** Bai. Nola bada esaten degu: sinisten det, Eliza Ama Santa Katolika: fedea dalarik ikusten ezteguna sinistea?

Gauza bat ikusten degu, eta orrez gañera beste bat, ikusten eztana, sinisten degu. Ikusten degu esateko moduan, Elizaren gorputza: baña eztegu ikusten Elizaren Espiritua: ikusten ditugu Elizako Arzaiak, eta Ministroak, eta nola Elizako lanak egiten dituen, Meza eman, bateatu, konfesatu, eta beste Sakramentuak ematen: eta sinisten degu Elizako Ministro oriek, Jaungoikoaren Ministroak dirala, artako konsagratuak, eta ordenaturik dauden ezkerok: eta kanpotik ikusten ditugun Sakramentuen administrazioarekin barruko grazia Jaungoikoak ematen duela: eta ori da ikusten eztana, baña ikusi bage sinisten deguna: zergatik Jaungoikoak berak ala Elizari agertu, edo errebelatu dion, eta Eliza Ama Santak ala erakusten digun. Eta seguru gaude askotan esan degun bezela, Eliza Ama Santak eziñ gezurrik erakutsi dezakeala, zergatik Jaungoikoaren hitza, eta dotriña baizik erakusten eztegu: eta Jaungoikoak berak ori ala dalako testimonio aiñ ikusgarriak, eta ziertuak, eta aiñ ugariak beti eman ditu, nun Eliza Ama Santa bera engañatzen dalako, edo engañatzen gaitualako kezkarik batere ezin eduki dezakegu: bala orduan Jaungoikoak berak engañatuko ginduzke: eta ori esatea blasfemia arrigarria da.

**G.** Eta fedearen egiarekin batera, zer beste benta-ja arkitzen ditugu Eliz barrean Kristau Katoliko gera-nok? **E.** Guztiz asko, eta guztiz probetxugarriak: eta aen artean bat da Santuen Komunioa.

2. **G.** Zer esan nai du, Santuen Komunioak? **E.** Kris-tau fiel, edo fededun guziak duela parte besteen ondasun espiritualetan, gorputz bateko mienbroak bezela, zeña dan Eliza.

**G.** Eta Kristau guziak due parte Elizako ondasun espiritual komun guzietan: eta justuak aparte egiten dituen orazio, eta obra onetan? **E.** Bai, exkomunikatu-rik ezpadaude: bada lenago esan degun bezela, guziok buru bat degu, eta guziok gorputz bat egiten degu: eta nola gorputzak dituan mienbro guziak, nola eskuak, oñak, begiak, belarriak, eta beste guziak, alkarri laguntzen dioben, eta bata bestearen ondasu-netan, eta osasunean parte duen; ala Kristau guziok degu parte Elizako ondasun komunetan, eta justuak aparte egiten dituen orazio, eta obra onetan: eta ori aditzera ematen digu egunoro errezatzen degun Aita gurearen orazioak: bada guziok Aita baten humeak bezela, eta Jesu-Kristogan alkarren senideak bezela, eta herenzia, eta Gloria bat bera esperatzen degunak bezela; eztegu geretzat bakarrik eskatzen, ezpada



guzionzat: eta orobat Mezako Sakrifizio Santua, Eliza guziagatik, eta Kristau guziakgatik Jaungoikoari ofrezitzen zaio.

**G.** Baña eztue probetxu geiago, eta frutu geiago ateratzen, orazioak, eta obra onak besteai enkargatu, edo eskatu dienak, eta Mezak esan eragiten dituenak?

**E.** Bai, oriek probetxu komunaz gañera, frutu espezial bat, eta andiagoa iristen due: eta argatik bata besteari orazioak eskatu oi diegu: eta Konbentuetan, eta kofradietan egiñ oi diran orazioak, eta obra onak eren ongilleakgatik, edo kofradeakgatik, oei geiago balio die bestelakoai baño.

**G.** Eta exkomunikaturik arkitzen diranak, zerren Elizari, edo Juez espiritualari obedezitu nai eztioben, badue parterik, edo probetxurik Santuen Komunioan?

**E.** Ez, eta orregatik deitzen zaie exkomunikatuak, au da, besten komunitatik kanpora daudenak. Eta ori da pena, edo kastigo bat txit ikaragarria: bada ala dauden artean Sakramenturik ezin eman dakike: Elizako orazio, eta ondasun komunetan parterik eztue: Elizako ofizioetan ezin arkitu ditezke: eta Eliz barruan edo sagraduan ezin enterra ditezke: eta eren izenaz publikamente exkomulgaturik badaude, ezin gurekin hitz egin, eta tratatu dezake premia eztu bage: ez eta guk

alakoakin ere: baña Eliza Ama Santak kastigu, edo pena ori usatzen eztu, gogorturik, eta obedezitu nai bage dauden Kristauen kontra baizik: eta medizina, eta erremedio eragille bat bezela usatzen du: eta ala humillatzen badira, eta obedezitzen badue, kentzen die exkomunikazioa, eta artzen ditu bere komunioan. Baña alakoak due obligazioa, ez bakarrik Elizako Juezak agintzen diena egiteko, baita egin zuen pekatua konfesatzeko egiazko pekatuaren damutasunarekin: bada exkomunikaziotik libratu arren, ezta pekatua barkatzen ondo konfesatu artean.

**G.** Eta pekatu mortalean dauden Kristauok, badue parterik, edo probetxurik Santuen Komunioan? **E.** Ez justuak bezela, bada oek besteen obra onakin, orazioakin, eta mortifikazioakin pagatu ditzake eren pekatuen zorrak: ara nola justuak purgatorioko animenzat irabazten dituen induljenziak, eta aplikatzen dien obra onak alibiatzen ditue: zergatik aen zorra Jaungoikoari pagatzen dioben: baña pekatu mortalean daudenaen zorrak ezin iñork pagatu ditzake, zergatik diran mienbro illak bezela; oriek daude graziaren bizitza bage: eztira Jesu-Kristoren, eta Elizaren mienbro biziak: irabazbiderik merezitzeko, eta zorrik pagatzeko deretxorik, edo eskurik eztue, Jaungoikoaren grazia, eta orrek

dakarren bizia iritsi artean. Ala ere Elizatik kanpora eztaudelako; fedea, eta esperanza konserbatzen due-lako, badakazkie Santuen Komunioak beste probetxu asko, exkomunikatuak, eta fedebageak eztauzkenak: bada penitentzia egin nai badue, Sakramentuak errezi-bitzeko deretxoa badauke: eta aek penitenziara ekar-teko, edo konberti erazotzeko laguntasun andiak dauzkate Elizaren orazioetan: bada Jaungoikoak, Eliza Ama Santak egiten diozkan erregu, edo orazioakgatik, pekatariak sarri argitzen ditu, ukitzen ditu, eta bere-gana ekarten ditu: eta orregatik guziok orazio egiten degu pekatu mortalean dauden guzien konbersioaga-tik; eta Jaungoikoak arren argitu ditzala, eta bere gra-ziara ekarri ditzala, oraingo, eta geroko Santuen Komunio zorionekoa iritsi dezen.

**G.** Eta Santuen Komunioan, orain bizi geran Kris-tauok baizik besterik sarturik badago? **E.** Bai: Purgato-rioko animak, eta Zeruko Santuak: bada guziok, esta-du diferenteetan bagaude ere, buru bat degu, au da Jesu-Kristo gure Jauna: eta guziok alkarri laguntzen diogu, bakoitzaren estaduak eskatzen duan moduan. Eta ala Zeruko Santuak Jaungoikoari erregutzen diobe Purgatorioko animakgatik, eta gugatik: eta guk ere ali-biatzen ditugu Purgatorioko animak, aekgatik egiten

ditugun orazioakin, eta beste obra onakin: eta Zeruko Santuak honratzen ditugu, aien zorionaz atsegin artuaz: aek alabatuaz: aei egin dien mesede andiaz, eta eman dien gloriar Jaungoikoari eskerrak emanaz: eta eren laguntasuna, edo bitartekotasuna gogotik eskatuaz: eta orrela ageri da Jesu-Kristogan bizi diran mienbro guzien espiritua alkarren karidade egiazkoa dala: eta ala Aita bat guziok degulako: Ama baten humeak geralako, eta Jesu-Kristoren senideak, eta mienbroak geralako, alegin guziok egin bear ditugu alkarrekiko karidade egiazkoa, eta karidade eragillea edukitzeko, alkarri lagunduaz al deguneraño, alkar sufrituaz, alkar argituaz, eta guziaz Zeruko bidea erakutsiaz, ez bakarrik hitz onakin, bai prinzipalente ejemplo onakin: bada gauza guziz lotsagarria da, Amatzat Eliza Santa Katolika, eta burutzat Jesu-Kristo bera daukagun Kristauok, Jentil itxuak, eta Hereje zatarrak bezela, Elizaren, eta Jesu-Kristoren legea gere obrakin gezurtatzea: Jaungoikoak bada arren argitu gaitzala guziok, eta digula, Kristau egiazkoak, eta fiñak izateko grazia, eta gero betiko gloria. Amen.

# OGEITA AMASEIGARREN DOTRIÑA

*Pekatuen barkazioaren gañean.*

Eliza Ama Santa Katolika zer dan: Jesu-Kristo gure Jaunak, eta aren izenean Apostoluak fundatu zuen Eliza egiazkoaren señaleak zein, eta nolakoak diran: eta Santuen Komunioa zer dan aditzera eman nizuen aurreko dotriñan: eta kredoaren esplikazioari narraio-la, gaur erakutsi bear dizuet, Eliz barruan gauden Kristauok daukagun bentaja miragarri bat, eta probetxu guztiz estimagarri bat: eta da pekatuen barkazioa, Elizatik kanpora iñork ere ezin iritsi dezakeana: atenzioa eskatzen dizuet guziori.

**G.** Zer esan nai degu kredoan pekatuen barkazioa aitatzen degunean? **E.** Jesu-Kristo gure Jaunak utzi diozkala bere Elizari Sakramentuak, guri pekatuak barkatzeko: eta ori bera erakusten digu gure dotriña-ko kartillak, Federo Artikuluen esplikazioan galdetzen duenean, nola da Jaungoikoa Salbadorea? Eta eranzuten duenean: zergatik pekatuak barkatzen dituen, eta grazia ematen digun. Eta ona Kristau guziori atsegin,

eta konsuelo guztiz andi bat eman bear digun gure Fede Santuko Artikulu bat, Jesu-Kristo gure Jaunak berak Apostoluai erakutsi ziena, Eskritura Santuak ezagutzeko doaia eman ezkerro, esan zienean: «gauza bearra zan Kristok padezitzea, eta illen artetik irugarren egunean piztutzea: eta aren izenean munduko guziaz penitentzia, eta *pekatuen barkazioa predikatzea*, eta sinistu eragitea, Jerusalendik asiaz:» (*Luc. 22. V. 26.*)

**G.** Eta nun errezibitzen degu pekatuen barkazioa?  
**E.** Lenena errezibitzen degu Bautismo Santuan: eta aĩñ barkazio osoa ematen digu Bateoko Sakramentuak, nun pekatu orijinala, eta persona larria bada beste pekatuak ere barkatzen ditu: eta pekatuari zor zaion pena guzia, ala betikoa, nola denporala osoro barkatzen digun: eta bataiatuta bereala iltzen dana, bereala dijoa Zeruko Gloriara, Purgatoriora bage. Baña eztigu bateoak kentzen pekatutik etorri zakun gaitzerako griña, edo inklinazioa: eta nola gutxi bai dira ain indarsuak, eta pasioak menderaturik osoro dauzkenak: eta noiz edo noiz utsegiten eztuenak: eta Bateo Santuan artu zuen grazia galtzen eztuenak; argatik gure Jaungoikoaren ontasun, eta miseriakordia neurribageak, gure argaltasunaz errukiturik, Bateoko

Sakramenuaz gañera, utzi zion Eliza Ama Santari, bateatu ezkeroko egindako pekatuak barkatzeko penitenziako, edo konfesioko Sakramentu Santua.

**G.** Eta bateatu ezkeroko pekatu mota guziak, eta denbora guzietan, barkatu ditezke Penitenziako Sakramentuarekin? **E.** Bai: bear dan bezelako pekatuen damutasunarekin, eta propositu egiazko, eta eragillearekin konfesatzen baditugu. Eta pekatuen batzuei deitzen bazaie ere ezin barkatu ditezkeanak, ezta ori barkatzeko eskualdiaren faltaz, baizik pekatariaren prestaeraren faltaz: au da, bear bezela humillatzen ezta, edo esperanza galtzen dualako: edo gorrotoari larga nai ezta, edo gaizki dauken besteren ondasuna biurtu nai ezta, edo pekatuko okasio, edo arrisku gertu, edo anditik irten nai, edo aldegin nai ezta, edo pekatu mortal egiteko aztura, edo oitura gaiztoa erremediatzeko, eta goitzeko egiazko alegiñik egin nai ezta, edo hitz batean ondutzeko borondate onik, eta eragillerik ezta, edo eta asmo uts, edo deseo argal, eta iruripeneko batzuekin kontentatzen dalako. Onelakoak absolutioa artu arren, pekatuen barkaziorik iristen ezta: baña ori da eren faltaz: bada egiaz humillatzen, eta damu-

tzen diranenzat, azkeneko asnasaetan baleude ere badago pekatuen barkazioa.

**G.** Eta nor da pekatuen barkatzallea? **E.** Jaungoikoaren Majestadea bera, eta aren Seme Jesu-Kristo, Jaungoiko eta gizon egiazkoa dira bakarrik berez pekatuak barkatzeko eskualdi guzia daukenak: eta konfesoreak egiaz pekatuak barkatzen badituzte ere, ori ez tute egiten eren birtutez, eta indarrez, ezpada Jaungoikoaren Ministroak, eta instrumentuak bezela: Jesu-Kristoren ordekoak bezela, aren izenean, eta ark emandako eskualdiarekin pekatuak barkatzen dituzte: eta ala beti da, Jesu-Kristo bera aen bitartez pekatuak barkatzen dituana. Eta Jesu-Kristo mundura etorri artean, iñoiz ere etzien gure Jaungoikoak gizonai eman pekatuak iñori barkatzeko eskualdirik: eta argatik Juduak arritu ziran, eta ezkandalizatu ziran, Jesu-Kristok pekatuak barkatzen zituala aditu zuenean: araze, Jaungoikoaren beraren eskualdiak artzen zituala: bada etzuen Jaungoikotzat ezagutu nai: baña Jesu-Kristo gure Jaunak, Jaungoikoaren Semea, eta Jaungoiko egiazkoa zala sinistu eragiteko, guzien aurrean milagro andi bat egiñaz, esan zien: jakin dezazuen bada, Birjiñaren Semeak pekatuak barkatzeko eskualdia edo poderea duela: jaiki zaitez, esan zion, oi



batean elbarriturik ekarri zioben bati, eta zere oia lepoan ar ezazu, eta zere etxera zuaz: eta ala egin zuen elbarritik bat-batean sendatu zanak. Baña arrez-kerro Jesu-Kristok berak, pekatuak barkatzeko eskualdia eman zien Apostoluai, eta aen ondorengo Obispo, eta Sazerdoteai. Eta Ebanjelio Santuak argiro San Juan Ebanjelistaren ogeigarren kapituluan ori erakusten digu: bada dio, ze Apostoluai bere asnasa dibinoa komunikatuaz, esan ziela Jesu-Kristok: Ar ezazue Espiritu Santua, zuek barkatzen dituzuen pekatuak, barkatuak geldituko dira, eta barkatu bage uzten dituzue-nak, eztira barkatuak izango: esango balie bezela: bear bezela prestaturik konfesatzen diranai barkatzeko eskualdia ematen dizuet: baña ondo prestatzen eztiranai absoluziorik, eta barkaziorik eman bear eztiezue: eta ortik dator pekatuak zeoro, eta prestaera onarekin konfesatzeko Jesu-Kristoren legea: bada ezin konfesoreak juizio zuzenik egin lezake, eta nori barkatu bai, eta nori ez jakin lezake, pekatariak garb-iro, eta prestaera onarekin, bere animako gaitzak, edo pekatuak agertu bage: eta ala ezagutu bear dezue, konfesoreak eztirala absoluzioaren jabeak: eta presta-tu bage konfesatzen danari ematen badiobe, eztiela ezer ere serbitzen: eta jakiñaren gañean prestatu

bage daudenak absolbituko balitue, pekatu mortal arrigarri bat egingo lukeela: eta baditue erregla jakiñak, noiz absoluzioa eman noiz luzatu, egun batzuetarako, eta noiz ukatu erakusten dienak. Eta penitenteak obedezitu bear dio konfessoreari: bada alde bateatik bere Jueza du, eta bestetik bere animako Medikua du: eta penitentearen osasun egiazkoa, eta ez iruripe-nezkoa konfesoreak billatu, eta prokuratu bear du. Eta Jesu-Kristoren lege orri eztiozue iritsi bear gogorra, baizik guztiz biguña, eta guztiz probetxugarria. bada 1. gure animako gaitz guziak datozkigu, txit erraz itxutzen gaituan gure soberbia, edo arrotasunetik: eta ori sendatzeko izan ditekean erremediorik egokiena, eta eragillena da, gere buruak ondo geurk ezagutzea, eta orretarako gere pekatuak banaka examinatzea, eta egin ditugun gaiztakeriak beren ondorengo kalte arrigarriakin ondo konsideratzea: bada orduan egiaz humillatuko gera: baña nola ala ere gere gauza propioetan pasioak aiñ erraz itxutzen gaituan, ematen digu Jesu-Kristok konfessoreagan, nork argitu, eta nork lagundu, gere anima gaixoak sendatzeko: eta 2. animako pake, eta sosegu guztiz andi bat dakarkigu konfesio on batek: bada Jaunaren graziarekin, edo laguntasunarekin ondo prestatzeko alegiñak egiten baditu-

gu; deabruaren, eta pekatuaren katetatik libratu ger-  
lako, eta Jaungoikoaren adiskide egiñik gaudelako  
uste osoan gelditzen gera: eta 3. konfesioko Sakra-  
mentuak aurrerako ematen dizkigun indar andiak,  
tentazio gaiztoak goitzeko, eta bizimodu on bat egite-  
ko, eta beste ezin kontatu ala probetxu datozkigu kon-  
fesioko lege onetatik: ainbeste, ze kendu bedi konfe-  
sioko legea mundutik, eta pueblo guziak begi bietara-  
ño gaiztakeriz beterik bereala ikusiko dira: eta kontra-  
ra lege ori bear bezela gorde bedi, eta sarri, eta ondo  
konfesatzeko oitura santua artu bedi, eta mundu  
guzia ondurik ikusiko da. Baña ori obeto ezagutzeko,  
eta obeto estimatzeko, eta pekatuen barkazioa berta-  
tik iristeko alegin biziak egitera zuek mugitzeko, eta  
alaiatzeko, arretaz aditu itzatzue konsiderazio gai oek:  
1. pekatuen barkazioak nolako gaitzetik ateratzen,  
edo libratzen gaituan, eta nolako ondasun estimaga-  
rriak dakazkigun: Eta 2. nolako alegiñak egiten dituan  
gure Jaungoikoak pekatuko estadutik pekatariak ate-  
ratzeko, eta bere graziara, eta adiskidetasunera ekar-  
teko. Eta nolako alegiñak egin bear dituen pekatariak  
erak pekatuaren eriotzatik piztutzeko, eta graziaren  
zorioneko bizitza iristeko. Eta ona, N.K. dotriña labur  
baten ezeze, sermoi askoren gaia, bear bezela aditze-

ra emateko: baña nik laburtxo aitatu dizkitzuedan egiak, zeurok astiro pensatu, kon sideratu, eta ausnartu bear dituzue: eta probetxu guztiz andi bat aterako dezue: eta bearbada orretantxe egon diteke, zuek betiko infernutik libratzea, eta betiko gloria iristea: bada kon siderazioaren faltatik dator itxumena, pekatuan gogortzea, eta betiko kondenatzea.

**G.** Nolako gaitzetatik libratzen gaitu bada, eta nolako ondasunak ekarten dizkigu pekatuen barkazioak? **E.** 1. Libratzen gaitu Jaungoikoaren aserretik, eta etsaitasunetik, eta beraren adiskide egiten gaitu: Atrebituko ziñate zeure bizia, zure ondasunak, eta zure fortuna, edo zorion guzia bere eskuan daukan, zure Erregearen, edo zure Juez, edo zure jabe baten asarrean, eta gaitziritzian egotera; dakizularik, zure berri ondo dakiala, eta ala ere ardurabage ofenditzen, eta injuriatzen ari zerala? eroa izan bear zenduke, len baño len arren aserretik libratu zaitezkeala, libratuko ezpaziña: bada pekatuen zauden artean, Jaungoikoaren etsai zera, aren aserrean zaude, eta bere eskuan dauka zuri bizia kentzea, eta infernuko kartzela illun, suz eta garrez beterik dagoan artara betiko botatzea: baña pekatuaren barkazioa penitenzia egiazko bate-

kin iristen badezu, pakeak Jaungoikoarekin egiten dituzu: aren adiskidetasunera biurtzen zera, infernutik libratzen zera: eta Zeruko Gloria betiko segurutzen dezu: eta nor ori sinisten duelarik, pekatuan dagoala lo egitera atrebitu liteke? baña ala ere: Zenbat arkitzen dira peligro izugarri orretan ardurabage, kontsiderazioaren faltaz? 2. bekatu mortalean dagoana, deabru, edo demonioaren zorigaiztoko esklabo, katibu, edo mendeko billau bat, deabruaren antzekoa da: izan ditekean gauzarik itxusiena, eta nazkagarriena da: eta fedeko argiarekin bezela, gorputzeko begiakin ikusi al bagenzage aren animaren itxustasun izugarria, alako monstroa ikaragarria ez ikusteagatik, aren iges, deabru bategandik bezela egingo genduke: Nork eztaki bada deabrua bera dagoala aren biotzaren jabe egiñik? eta aren biotzean bere jarlekuan, eta bizilekuan bezela arkitzen dala? Nor arritzen ezta ori ondo kontsideratu ezkeror? Bada penitenzia egiazko batekin pekatuen barkazioa iristen duen instantean libratzen da pekataria deabruaren katetik: botatzen du deabrua bere biotzetik; kentzen du animatik itxutasun izugarri ura guzia: eta nolako zoriona, eta ondasunak bertatik iristen eztitu? bada gelditzen da bertatik Jaungoikoaren graziaz, eta ari darraizkan birtuteekin apaindurik,

ederturik, eta Aingeruen antzeko egiñik: Jaungoikoaren seme, edo alaba maite egiñik: Jesu-Kristoren senide, eta mienbro bizi, eta Espiritu Santuaren eserleku, eta bizitoki guztiz eder bat egiñik: len Zerurako saririk batere ezin irabazi zezakeana, egiñal guzia egiñ arren, orain grazia iritsi ezkeru, bertatik merezimentu guztiz andiak, eta geroko gloriako ondasun betikoak, eta munduko tesoro guziak baño infinitamente geiago balio duenak irabazteko deretxoarekin gelditzen da: eta lenago betiko Infernurako kondenaturik zegoana, Zeruko gloriaren heredero egiñik. Eta ori guzia nori zor dio pekatariak? Jesu-Kristoren pasio, eta eriotza santuari, aren kabubageko merezimentuai: orien frutua aplikatzen zaio bada, pekatuen barkazioa Sakramentuetan ematen zaionean. Orra zein gauza estimagarria.

**G.** Eta frutu miragarri ori, au da pekatuen barkazioa, eta orri darraizkan ondasunak guri iritsi eragiteko, nolako alegiñak egiten ditu bere aldetik gure Jaungoikoak? Eta nolakoak egin bear ditu pekatariak ori bera iristeko? Badakizue, eta sinisten dezue N.K., gure Jaungoikoa dala Jaun bat infinitamente ona, infinitamente poderoso, infinitamente sabioa, edo jakinsua, infinitamente justua, eta gauza guzien prinzipioa, eta

fiña, au da, geran guzia eman diguna: guzia zor dioguna: eta gure zorion guzia orain, eta eternidade guzian bere eskuan daukana: bada orobat jakin bear dezue, gure Jaungoikoak bere ontasun kabubagea, bete poderio neurribagea, bere jakinduria guzia, eta bere justizia, edo zuzentasun fin bagea enpleatu dituala, eta enpleatzen dituala beti, gizon pekataria bereganatzeko alegin guztiz andiak egiten: egia da, aren Majestadeak nai izan balu, guziok kondenatu gintzakeala, guraso pekatari, eta errebelde batzuen humeak bezela: baña nai izan digu eman, guk batere merezi bage, bere Seme propioa bera, Jesu-Kristo gure Jauna bera, gure Salbadore, gure Erredentore, eta gure Maisu, eta gidari izateko: eta onen odolaren kostuan atera nai izan gaitu Bateo Santuan deabruaren katiberiotik, eta pekatutik: eta eman zigun bere grazia, eta birtutea, eta egiñ ginduzan Jesu-Kristoren zati, edo miembro biziak, eta bere Elizako humeak, eta Zeruko hereroak: eta orrelako fabore, edo mesede guztiz andiari, esker bagetasun arrigarri batekin eranzun badiogueren; eta bere grazia, eta adiskidetasuna gere kulpaz galdu badegu ere; aiñ ona, aiñ errukitsua, eta aiñ mesede gille biguña izan da gurekin aren Majestadea, nun betiko Infernura bota ordean, epeak eman dizki-

gu: itxon digu: gure eranzuera txarra sufritu du: beragana deitu gaitu, eta beti deiez dagokigu; eta azkenik zenzatu nai badegu, argitzen gaitu, beragana erakartzen gaitu, eta indartzen gaitu, gure erabageko pasioak goitzeko: pekatuen kateak urratzeko: egiazko penitziarekin pekatuen barkazioa, Jaunaren beraren grazia, eta Zeruko deretxoa berriz iristeko. Orretarako, zenbat gogargi, inspirazio, eta pensamentu santu gogora ekarten eztizu aren Majestadeak? Batzuetan ikaritzen, eta bildurtzen zaitu pekatuan supito iltzeko peligroarekin, txit asko ill diran bezela: beste batzuetan gogora ekarten dizu, urlia, eta berendia bere zoramendian, egiazko penitziaren seinalerik eman bage ill zirala: eta eskuarkiro Infernuan egongo dirala: beste batzuetan ezagutu eragiten dizue, kondenatuak izateko daukauen arrisku guztiz andia, erabageko joku luzeari, edo andiari, eta bataren, eta bestearen kaltegarri andi danari largatzen ezpadiozue: moskortzeko oitura galgarri ori goitzen ezpadezue: birau, edo maldizio gaiztoak, edo juramentuak ardurabage egiteko daukauen kostunbre gaiztoa benzitzen ezpadezue: erraz aserratzeko, gorrotoan jarteko, eta bengartzeko aztura erabageko ori menderatzen ezpadezu: pazienziaren, eta karidadearen birtuteak iristeko, eta



exerzitatzeko alegiñak egiten ezpadituzu: erabageko danza zikiñak, eta jostatze, eta hizketa loiak ezpadituzu. Zenbat bider gogora ekarri dizu gure Jaungoikoak, edo zere bakarrean, edo sermoietan, edo dotriñetan, edo konfessorearen konsejuetan, edo zure adiskide onaren konbersazioetan eternidadearen pensamentu guztiz indarsu, eta eragillea? Edo betiko betiko Zeruko gloria, eta ango ondasunak, eta kontentuak galdu bearra: eta beti-betiko Infernuko su, eta garretan erretzen, kiskaltzen, oñazaren pasioz ler, eta estanda egiten egon bearra: barrutik, eta kanpotik dolore, oñaze, eta tormentu arrigarriak sufritu bearra, iñoiz ere alibiorik izateko esperanzatik batere bage? edo kontra-  
ra, penitencia egiazkoa, eta bizitza ona egin nai badezu, gaitz izugarri orietatik betiko libre, eta betiko zorionaren jabe izan bearra. Onelako pensamentu santuak, edo oen antzeko beste batzuek Jaungoikoaren deiak dituzue: aren Majestadeak zuek ondu, eta salbatu nai zaituelako, argitu, utkitu, mugitu, eta beregana ekarri nai zaitue. Eta ortik atera ezazue kontu, ez jaramon egiten badiozue: gogortzen bazerate, penitencia egiazkoa, eta bizitza berria bertatik egin nai ezpadezue, nolako injuria, eta desprezioa Jaungoikoaren ontasunari egiten diozuen: eta aren Majesta-

dea aiñ ona dalako, eta beti sufrituko zaituelako, eta gogoak ematen dizuenan barkazioa eskatu, eta miserikordia iritsiko dezuelako ustean, penitentzia luzatzen badezue; zuen zorigaiztokoak! bada ona bezela, justua, eta justizigillea da: eta, edo lekurik gero emango eztizue penitentzia egiteko, edo leku izan arren, zer egin jakingo eztezue azkeneko gaitza datorkizuenean: orduan azoratuko zerate, eta egiazko penitentiari egin bage illko zeratelako bildur andia eduki dezakezue. Bada erregla jenerala da: nola bizi, ala ill: ondo bizi dana, Zerurako: gaizki bizi dana Infernurako. Ez erremediorik eta pekatuen barkaziorik eztagoalako, azkeneko asnasetan ere, baizik pekataria, batez ere gaizki oitua, orduan prestatzen, edo disponitzen ezta-lako bear bezela: bada denbora estu artan, eskuarkiro illundurik dago adimentua, eta borondatea argaldurik, eta kemenik bage arkitu oi da, orduan penitenziako aktoak bear bezela egiteko.

**G.** Zer erremedio bada, ez kondenatzeko, eta pekatuen barkazioa aseguratzeke? **E.** Geroko utzi bage, bertatik esnatu bear gera, aditu dituzuen egiak sarri gogora ekarri: oitu egunoro konsiderazio piska bat egitera, betiko Infernuaren, eta gloriaren gañean: pensatu askotan Jaungoikoaren ontasun, eta miseri-

kordia kabubagea: eta egin dizkitzuen mesede guztiz andiak, eta zuen esker gaiztoak: eta zuen barruan lotsaturik, humillaturik, eta damuturik, eta bizitza berri bat egitea erabakirik, eskatu sarri, eta benetan Jaungoikoari pekatuen barkazioa, humiltasun, eta konfianzarekin Jesu-Kristoren izenean: eta orrela presaturik ondo, eta sarri konfesatu, eta komulgatu, eta peligrozko okasioai alde egin, eta oitura gaiztoak menderatzen, edo benzitzen aritu bear dezue, humildadearekin, eta konfianzarekin Jaungoikoari laguntasuna eskatuaz: eta onela pekatuen barkazioa iritsiko dezue, eta seguratuko dezue betiko gloria. Amen.

# OGEITA AMAZAZPIGARREN DOTRIÑA

*Aragiaren Erresurrekzioaren aurretik, eta ondoren  
izango ditugun Nobisimoak,  
edo azken gauzak bost dotriñetan  
eta 1. Eriotzaren gañean: eta bertatik eriotza on bat  
iristeko prestaeraren gañean.*

Pekatuen barkazioaren Fedeko Artikuluari darraio Kredoan bereala aragiaren Erresurrekzioaren, edo piztueraren Fedeko egia; guztiz konsolagarria justuenzat, eta penitentzia egiazkoa egiñik ill diran Kristauenzat: eta guztiz bildurgarria, eta izugarria pekatuan daudela iltzen diranenzat: bada orain aiñ maite ditugun gorputz oek erok, ill ezkeru autz egiñak izan arren, gure Jaungoikoak bere poderio infinito, edo kabubagearekin, juizioko egunean, munduaren azkeneko egunean piztuko, edo erresuzitatuko ditu; au da, osatuko ditu eta len izan zituen animakin erakin juntatuko ditu: anima, eta gorputza alkarrekin uniturik, izan ditzen eternidade guzian dagozkien, edo sariak, eta kontentu betikoak Zeruko glorian; edo merezi izan zituen

kastigu, eta tormentu fin gabeak infernuan. Eta orixe esan nai degu, eta sinisten degu, aragiaren Erresurrekzioa Kredoan errezatzen degunean: eta aren ondoren sekulako bizitza fin bagea, edo betiko bizitza, edo zorionekoa, edo zorigaiztokoa konfesatzen degunean. Baña, nola erresuzitatuak izan baño lenago guziok ill bear degun, eta Jesu-Kristoren Tribunalean agertu bear degun juzgatuak izateko, eta gure animai bertatik dagokien sententzia emateko edo Zerurako, edo Purgatoriorako, edo Infernurako: eta erresurrekzioaren ondoren bereala berriz Juizio jeneralean, mundu guzien batzarre jeneral artan, guziak testigu dirala, agertu bear gera pizturik, betiko gloriarako, edo betiko Infernurako sententzia Jesu-Kristoren aotik aditzeko animetan ezeze, gere gorputzetan ere edo betiko poza, edo betiko pena izateko: eta egia andi oek guztiz egokiak, indarsuak, eta eragilleak diran Jaunaren graziarekin batera, pekatarien biotzak ausitzeko, humillatzeko, eta konbertitzeko: eta justuak ere obra onak egitera, eta Jaunaren grazian, eta adiskidetasunean irautera, eta aurreratzera alaiatzeko, edo animatzeko: bada Espiritu Santuaren esana da: gure azken fiña, edo azkenean gertatuko zaizkigun gauzak, gogoan erabilli ditzakula, eta pekaturik, iñoz egingo

ezteguna: obeto egia probetxugarri oek zuei aditzera emateko, bost dotriñatan partiturik, edo berezirik esplikatuko dizkitzuet. Eta izango dira 1. Eriotzaren gañean; 2. Juizio partikularraren gañean: 3. Aragiaren erresurrekzioaren, eta Juizio jeneralaren gañean. 4. Zeruko gloriaren gañean: eta 5. Infernuko penen gañean: ala gloriaren, nola penaren betikotasuna, edo eternidadea sarri gogoratzen dizuedala: betiko zoriona zeuron kulpaz galdu, eta betiko zorigaitza zeuron buruai ekarri eztegiezuen. Abiatu gaitezen bada bertatik gure eriotzaren gañean hitz egiten, eta kontuak ateratzen.

**G.** Zer jakin, eta pensatu bear degu bada eriotzaz?

**E.** 1. Nai ta ez guziok ill bear degula: 2. bein baizik illko ez gerala: 3. eztakigula noiz illko geran: ezta nola, eta zer estadutan illko geran: eta azkenik 4. justuaren, edo egiazko penitentzia egin duanaren eriotza, zein preziatua dan, eta nolako zoriona betiko darraion: eta kontrara, lenago penitentzia, edo bizitza onik egin gabe pekatuan, eta itxumenean bizi izan danaren eriotza, zein tristea, eta bildurgarria dan, eta nolako zorigaitza betiko darraion: eta argatik Jesu-Kristok berak agintzen digun bezela, prestaturik, maneaturik, edo prebeniturik egon bear degula eriotzarako. *Estote*

*parati*. Ill bear deguna guziok dakigu, fedeak, arrazoiak, eta begiak erabatera erakusten digue.

**G.** Eta zer da eriotza? **E.** Anima gorputzetik apartatzea, eta gorputza batere sentidu bage, lur puska bat egiñik gelditzea. Zerk egiten du eriotza aiñ bildurgarria, eta tristea? Oraingo gere bizitza, eta munduan gozaten ditugun honrak, estimazioak, ondasunak, eta atsegiñak, gere gogoaren kontra galdu, edo utzi bearra. Zerk azitzen du bildur ori? Gere buruai, eta munduko gauzai diegun amorio geiegiak, edo erabageak, eta mortifikatzen ezpagera, betiko kondenatu bearra. Eta zerk gutxitzen du, eta gozaten du eriotzaren bildurra? Fede biziak, geroko betiko zorioneko bizitzaren esperanza onak, eta Jaungoikoaren amorio egiazkoak. Eta Jaungoikoak iltzeko egin ote ginduzan? Eta nundik sortu da guziok ill bearra? Ez ginduzan Jaungoikoak iltzeko egin, gure lenengo guraso Adanek pekatu egin ezpalu; bera, eta ondorengo guziok ill bage, eriotzarik ikusi bage, Zeruko gloriara igaroko giñan: eta ala pekatuaren zorra, eta kastigua da eriotza, edo ill bearra. Jaungoikoak berak ori Adani berari esan zion, frutu debekatutik jatea eragotzi zionean: jaten bazuen illko zala: *morte morieris*. Eta ez bakarrik bizitza naturala, au da, animaren eta gorputzaren

artean dagoan unioa desegingo zala, eta alkargandik anima, eta gorputza apartatuko zirala, aditzera eman zion: baita beretzat, eta bere ondorengo guzientzat animaren bizitza espirituala, graziazko bizitza, Jaungoikoarekin berarekin unitzen, eta laztanzen gaituana, galduko zuela aditzera eman zion: eta ala ere, guzia pekatuarekin galdu zuen: baña Jesu-Kristo gure Jaunak bizitza biak, ala espirituala, edo graziazkoa, nola naturala biurtu nai izan dizkigu, bere pasio, eriotza, eta erresurrekzioaren birtutez: bertatik bere grazia gure animai Sakramentuetan emanaz: eta gorputz illak piztutzeko, edo erresuzitatzeko, eta betiko bizitza berri batera altxatzeko grazia guretzat merezituaz, edo irabaziaz. Millarezko eskerrak guziok eman degiozkagun Jesu-Kristori aiñ mesede andiakgatik: eta nai ta ez guziok ill bear degun ezkerro, eta eriotzak erabaki bear duan ezkerro, edo gure betiko zoriona, edo zorigaitza, ondo iltzeko grazia gogotik, eta sarri eskatu degiogun: eta bertatik pekatutik, eta munduaren amorio eragabetik aparta gaitezen. Bada 2. beiñ baizik illko ez gera, N.K. Au da egia bat, gogoan ondo sarturik eduki bear deguna: bi bider ill bear bagendu, lenengoan utsegin arren, bigarreanean erremediatzeko lekua izango genduke: baña bein utsegiten badegu:



ondo prestatu bage gaudela eriotzak arrapatzen bagaitu, erremedio bage betiko galduak, edo betiko kondenatuak izango gera: Eta nor fedea txit illundurik, edo illik ezpadauka, edo eroa ezpada, bein baizik ill bear eztuen ezkeru, gutxiena uste duenean iltzeko, eta kondenatua izateko peligroan egotera atrebitu liteke? Piztu ezazue bada arren pekatariak zuen fede ori: astiro konsidera ezazue zuen peligro izugarri ori: eta zuen animak betiko galdu nai ezpadituzue, zenzatu zaitezte arren: bertatik penitenzia egiazkoa, eta bizimodu on bat egitera jarri zaitezte: bestela betiko kondenatuak izateko arrisku andian zaudete: eta ala zuen arrotasuna, eta soberbia goitzeko, eta humillak izateko egiazko alegiñak egin itzatzue: munduko ondasunak, naiz zuzen, naiz oker biribillatzeko leia, eta ansia andi ori larga ezazue: eta beti iraungo duen Zeruko ondasunak gogotik billa itzatzue: aragiaren gurari gaiztoak, loikeriara, eta jan, edan erabagetara zakastenak arren mortifikatu itzatzue: pekatuari larga egiozue: eta eriotza on bat iristeko presta zaitezte. Bada 3. eztakizue N.K. noiz, eta nola illko zeraten: eta au da beste pensamentu ikaragarri bat, gogoan erabili nai bagendu, erraz zenzatuko ginduzkeana, eta gure pasioak, eta oitura gaiztoak goitu eragingo lizke-

guna. Eztaki gizonak, bere bizia bukatuko zaion eguna: egunoro, eta orduoro iltzeko peligroan, edo arriskuan dago: Zenbat osasunean, edadearen lorean daudela, supitu ill dira? Orretako zenbat ustebageko motibo gertatu oi eztira? Askotan, eztegu aditu, edo ikusi urlia, eta berendia derrepente, eta Jesus esateko leku bage ill dirala? Eta ondo bizi ezpaziran, bereala kondenatuko ziralako bildurrak artzen gaitu: baña demagun supitu iltzeko desdixarik eztegula, eta berealako gaitz eztu batek ere, ezertako astirik eman bage, akabatzen ez gaituala, baizik eritasun jakin batekin geldika iltzen gerala, eta Sakramentuak erre-zibitzeko era ona degula: ala ere lenago egiaz konbertiturik, eta aurretik bizimodu on bat arturik ezpagau-de: aztura gaiztoak goitzeko alegiñik egin bage bizi izan bagera, beti aserrekorrak, bengatiboak, birau gilleak, ordikeriara, edo joku erabagetara, edo loikeriara oituak izan bagera: besteren ondasuna, askotan agindu arren, biurtzeko alegiñik egin nai izan ezpade-gu, hitz batean, estadu gaiztoan ardurabage bizi izan bagera, gero noizbait, edo gutxianez azkeneko erita-suna datorkigunean, guzia batetan erremediatuko degulako uste falsoan, edo esperanza ero batean, bil-dur izan gaitezke N.K.; orduan ere egiazko penitenzia-

rik egingo ezteguna, eta kondena-tuko gerala: bada iru Kristau mota ikusten dira munduan: batzuek eskuarki-ro beti pekatuaren mendean, gaizki oiturik, pekatu mortalak ardurabage egiten dituenak: beste batzuek dira, noiz, edo noiz argaltasunez, peligro, okasio, edo tentazio esturen batean, edo bestean erori arren, las-ter damutzen zaienak, eta barkazioa iristeko alegiñak egiten dituenak: baña jaiki erori dabiltzanak: eta beste Kristau batzuek dira pekatuaren gorrotoan, eta Jaungoikoaren amorioan aiñ irmo daudenak, nun pekatu mortalik batere egin bage, ezagueraz batez ere, irauten duen eskuarkiro bere bizi guzian, edo benetan konbertitu ziran ezkeror: bada lenengoak erio-tza tristea, eta zorigaiztokoa izan oi due: bigarreneko-ak txit arriskatua, edo dudakoa: eta irugarrenak txit ona, eta zorionekoa: baña esango didate, bertatik erremediatzeko asmo eragillerik eztuen pekatariak, Jaungoikoaren miseri-kordia infinitoa dala: Jesu-Kristo-ren merezimentuak kaburik eztuela, eta guretzat ira-baziak dirala: noizbait penitencia egiteko ustean dau-dela: noiznai akto kontriziozko bat egin ezkeror barka-zioa, seguru daukela: Jaungoikoak Zerua eztuela egin lastoz betetzeko, baizik gizonak ara eramateko: eta orain gaizki bizi badira, fedea eztuela galdu, ez eta

salbatzeko esperanza ere: eta azkenean benetan konbertituko dirala. Eta orain, zer eranzutea nai dezue, pekatari ardurabage, temerarioak? Diot bada, Elizako erakusle, Maisu, eta Doktore Santuakin, iñork etsi eztezan, esperanza galdu eztezan, eta guztiak azkeneko estutasunean, eriotzako orduan ere, egiaz konbertitzeko, egiazko alegiñak egin ditzen, noiz edo noiz orrelako pekatariak, lenago itxuturik, eta gogorturik bizi izan diranak, bere grazia espezial, eta indarsu, edo eragille batekin argitu dituala, eta beregana egiaz biurtu erazo dituala gure Jaungoikoak: lapur ona, eta beste banakaren batzuek bezela: baña ori da erregla komun, eta jeneraletik kanpora: ori da mesede, edo fabore guttiz andi bat, Jaungoikoak iñori zor eztiona, eta gutxitan baizik egin oi eztiona, lenago esker bageak, eta ardurabageak azkenearño izan diranai: oen eriotza eskuarkiro, edo komunkiro izan oi da bizi-moduaren erakoa: nola lenagotik pekatuaren iguitasun, eta aborrezimentu egiazkorik izan oi etzuen: konbertitzen etziran benetan, konfesatzen ziranean ere: beti aztura gaiztoen mendean egon ziran: bada eriotzako gaitza datorkienean ere, lengo gisa, zeremoniaz, eta oituraz konfesatzen, eta komulgatzen dira: eta bearbada iruritzen zaie, orduko larritasun, eta bil-

durtasunarekin egiaz konbertitzen dirala: baña engañatu oi dira, eta Infernura doaz: zergatik orrelakoak itxuturik egon oi dira, pekatuaren grabedadea, eta Jaungoikoari egin dioben injuria, eta ofensa arrigarria bear bezela ezagutzen eztue: oiturik eztaude gure fede santuak erakusten dizkigun egia andiak, eta pekatuak iguitzeko, edo aborrezitzeko motibo, edo arrazoi andiak konsideratzen: eztira bear bezela humillatzen: orazorik biotzetik egiten eztue: geroko esperanza ero batean bizi izan dira, benetan konbertitzeko medio eragillerik artu nai izan eztue: eta orain esperanza gutxitzen zaie: gogoia, edo animoa iltzen zaie: larritzen dira: nai luke salbatu: ikaratzen ditu Infernura joan bearrak: baña nola gaitzera oituagoak egon diran, obra onak egitera baño: konfesatu, eta akto kontriziozkoak aoz esanagatik, bildur izateko da, orrelakoetatik txit gutxi dirala benetan penitentzia egiazkoa egiten duenak, eta bizimodua aldatzen duenak: eta ala eskuarkiro ikusten da, peligrotik libratu, eta osasuna iristen duenak, lengo oitura gaiztoak bere oñean dauzkatela. Eta ala nere Kristau maiteak, zeuron buruak betiko kondenaziotik libratu nai badituzue, (eta nork ori gogotik naiko eztu?) bertatik zuen oitura gaiztoak, eta oriek eragin dizkitzuen pekatuak, ondo

ezagutzeko, eta examiñatzeko argia Jaungoikoari benetan eskatu egiozue: humillatu zaitezte Jaungoikoaren aurrean: eta ezagutu ezazue beraren laguntasun bage ezin gauza onik egingo dezuela: ezin zuen aztura zar oriek goituko, edo menderatuko dituzuela: eta orrela zuen ezereza, zuen argaltasuna, eta gaitzerako griña, edo inklinazio gaiztoa ondo ezaguturik, sarri, eta biotzetik eska egiozue Jaungoikoari bear dezuen graziaren laguntasuna, eta indarra, zeuron buruak erremediatzeko: penitentsia egiazkoa, eta bizitza berri bat egiteko: bada eztago beste erremediorik: ziurtu ill bear dezue: bein baizik illko etzerate: eta eztakizue noiz, eta nola illko zeraten: ordu segururik batere eztezue: eta denbora izan arren ere, eta juizioa, edo zenzua azkeneko asnasaraño eduki arren ere, estutasun artan zuen atenzioa eramango dizue, edo dolore, edo oñazak, edo zuen egiteko, eta artuemanak zuzendu bearrak: eta azoraturik, eta zer egin eztakizuela arkituko zerate, zuen animako gauzak bear bezela zuzentzeko. Eta nolako alegin biziak egingo eztitu orduan deabruak, zuek bere mendean konserbatzeko? eta zuek desesperaziora ekarteko? edo beste tentazio andiren batzuekin galdu eragiteko? begira ezazue bada orain ondo, pekatu mortalak ardurabage

egiteko oitura dezuen desdixatuak, zenbat inporta dezuen eriotza on baterako bertatik prestatzeko alegin guziak egitea: eta zuen buruak aĩn peligro arrigarririk libratzea.

**G.** Eta pekatu mortal egiteko oitura jakiñik eztuenak: baizik argaltasunez bakarrik tentazio ezte batean, edo bestean erorten diranak: eta laister damaturik, edo konfesatzen diranak, edo beinzat akto kontriziozkoak biotzetik egiten dituenak, eriotzaren bildur andirik eduki bear ote due? **E.** Ezta iñor, eriotzaren bildur, gutxi edo asko izan bear eztuenik: bada eztaki, ziuru, dan justuenak ere, Jaungoikoaren grazian dagoan, edo ez: eta santurik andienak bildur ziran (beste aldetik pozgarri, eta konsuelo andiak bazituen ere.) Eta ala, Zenbat motibo, eta arrazoi andiagorekin Kristau argalak, jaiki erori dabiltzanak billurtu bear ditu eriotzaren pensamentuak? Eta mugitu bear ditu Jaungoikoaren grazian irautera, eta mundu guzia galdu bear balue ere, pekatu mortal batean ez konsentitzera? bada lengo pekatuak ondo konfesatu arren; berri bat bakarrik egiñarekin betiko kondena litezke, askori gertatu zaion bezela: eta argatik, ainbeste inporta digun egiteko onetan, seguru jokatu bear degu: erabaki Jaungoikoaren laguntasuna-

rekin, lenago milla bider ill, ezenez pekatu mortal bat egiñ: konfesio on bat egiñ, eta lenagokoen damutasuna, eta proposito egiazkoa ez geiago pekaturik egiteko egunoro berritu, eta beti biotzean eduki: eta Jaungoikoari benetan, eta sarri barkazioa eskatu, aurrera bere grazian irauteko bear degun laguntasunarekin batera: eta ori da Jesu-Kristok agintzen digun, esna egotea: Orazio egitea; eta maneaturik egotea, kontuak artzera datorkiguneko: bada dio, eztakigula otsegingo digun eguna, eta ordua: eta nola lapurra etorri oi dan gutxiena uste dan denboran, ala etorriko zakula eriotza, eta kontuak eman bearra, uste eztegun orduan: eta Birjina zoroak bezela arkitzen bagaitu, prebenziorik egin bage, alperrik orduan deituko diogula: atea itxiko degula: eta betiko, gloria galdu, eta Infernura bearko degula. Zer desditxa andiagorik bati gertatu leikio? Eta kontrara, zer konsuelo, eta zorion andiagorik, orduan ondo prestaturik egotea baño? Eta ortik 4. atera ezazue kontu, justuaren, edo muga onez penitentzia egiazkoa, eta bizitza on bat aurretik egin duen Kristauaren eriotza zein preziatua, zein pakeatsua, eta konsolagarria dan: eta kontrara gaizki oiturik bizi izan danaren, eta baita bein jaiki, bein erori, iraupen bage bizi izan danaren eriotza zein arriskatua,



zein tristea, eta zein penagarria dan: Eta ori obeto ezagutzeko, gogora ekarri ezazue, ill bearra guzionzat bildurgarri bada ere, orduko prestaturik dagoan Kristauak, prestatzen lagundu dion Jaungoikoaren aldetik: bere konzienziaren aldetik; eta ikusten eztuen, baña Maria Birjiña Santisimaren aldetik, bere Aingeru gardakoaren aldetik, eta bere deboziziozko santuen aldetik, bere barruan sentitzen duen laguntasuna, esforzua, animoa, alaitasuna, eta indarra. Jaungoikoak begiratzen dio bere seme, eta adiskide bati bezela: Jesu-Kristoren odolaren prezio kabubagearekin erreskataturik, eta garbiturik dagoan Jesu-Kristoren bera- ren mienbro bizi bati bezela: eta bere graziarekin argitzen du: fedeko egia konsolagarriak gogoratzen diozka: Jaungoikoaren ontasun infinitoak, eta Jesu-Kristoren merezimentu kabubageak esperanza firme bat artu eragiten diobe: eta bere amorio santua aren biotzean irazekitzen due: bere naigabe guziak pazienzia- rekin, eta konformidade andi batekin eramateko indarra ematen diobe: eta azkeneko estutasun artan gogotik, eta sarri berritzen ditu fedeko, esperanzako, kari- dadezko, eta kontriziozko aktoak: eta bere anima pakean Jaunaren eskuetan entregatzen du: eta orretar-ako guztiz laguntzen dio bere konzienziaren testimo-

nioak: ara ze, pekataria noizbait izan bazan ere; ondo prestaturik konfesio on bat, edo asko egin, eta bizimodu berria aspaldian egiten ari zalako: peiigrozko okasioetatik alde egiñaz, bere oitura, eta griña gaiztoak eziaz: Jaungoikoari laguntasuna sarri eskatuaz: noizen bein konfesatu, eta komulgatu, eta indar berriak artuaz; eta orobat pekatarien Ama Birjiña Santisimari, Aingeru guardakoari, eta bere deboziozko santuai askotan bere anparoa ordu artarako eskatu zielako memoriak konsolatzen du: eta esperanza oso batekin orduan ere bere laguntasuna eskatzen die: eta, nork esan dezake zenbat balio dion orduan debozio guztiz probetxugarri orrek? bada pozik Maria Santisimak, Aingeru santuak, eta beste Zerutar guziak Jaungoikoaren aurrean bitarteko jarten dira: eta eriotza on bat iristeko grazia espezialak, eta sokorru indarsuak alkanzaten diobe: eta orrela Sakramentu Santuak debozioarekin, eta frutu andiarekin errezibitzen ditu. Eta orrela eriotza preziatu batekin aseguratzen du eternidade guziko zoriona. Baña kontrara, lenago ondo preskatu bage dagoan Kristauak beti oitura gaiztoen mendean bizi izan danak: edo iraupen bageko damu, eta proposito argal, eta ariñakin konfesatzen zanak, eta laizter lengo okasiora biurtzen zanak; eta

benetan bere oitura gaiztoak goitzeko erremedio eragillerik egiten etzuenak; eta orregatik erraz erorten zanak; nolako tristura, nolako bildurra, eta nolako ikara nai ta ez eduki bear eztu iltzeko zoria datorkionean? Penatzen du 1. bere gorputz maiteari larga bearrak; eta ordu gutxiren barruan, ainbeste gusto ematen zion laguna, illik, lur puska bat egiñik, eta laister usteldurik, kiratza dariola, arren janari egiñik ikusi bearrak. 2. Tristetzen du, aiñ maite izan dituan honorak, karguak, eta enpleoak utzi bearrak: bere ondasun guziak, eta munduko atsegin guziak larga bearrak: bere hume maite, senar, edo emazte, aide, adiskide, eta ezagun guzietatik despeditu bearrak. 3. Bere gaitzarekin, eta onek dakatzen oñaza, estutasun, eta turbazioarekin burruka dabill; eta nola pazienziara oiturik eztagoan, ezin ezer sufritu du, eta orobat nola birtuteari jarraio eztion, eta fedea, esperanza, eta karidadea ejerzitzatzeko, eta akto kontriziozkoak biotzetik egiteko oiturarik etzuen, ezin berez gauza onik egin du: Jaungoikoaren argitasun, eta sokorro espezialak ordu artarako, ez eskatu ditu, eta ez irabazi ditu: eta Sazerdoteak, edo adiskideak hitz onakin lagundu arren, ezin alaiatu, eta animatu da: eta nekez fedeko, esperanzako, karidadezko, eta kontriziozko aktoak,

orduan aĩñ bearrak, eta premiazkoak diranak egiten ditu: eta egiten baditu ere, guztiz argalkiro, eta eza-guera gutxitzen dion turbazio, edo azoramen andi batekin. Eta ala Sakramentu santuak ere, beti bezela oituraz, bere barruan bear bezela prestatu bage erre-zibitzen ditu: bildur utsak, eta ez bear bezelako peka-tuaren gorrotoak, eta ari lagundu bear dion bere Jaun-goiko maitea ofenditutako damu egiazkoak mugitzen du. Eta 4. estadu triste orretan Jaungoikoaren Tribuna-lean bereala presentatu, edo agertu bearrak juzgatua izatera, eta apelurik eztuen betiko sententzia aditzera, ezin geiagoraño larritzen du, eztutzen du, ikaratzen du: eta iñundik sokorrurik ez dakus: aserraturik eduki du Jaungoikoa: bere konzienziaren ortxikadai, erre-prenzioai, eta abisoai kasorik egiten etzien: Ama San-tisimarekin, Aingeruakin, eta Santuakin egiazko debo-ziorik izan eztu: iñoiz zerbait errezatzen bazien, edo aen errespetoz obra onen bat egiten bazuen, ez ondu-tzeko, eta benetan konbertitzeko asmo, edo deseo egiazkoarekin, ezpada bestelako fin, edo intenzioakin. Eta ala orain ikusten da illunpe batean bezela, guzia azoraturik, turbaturik, eta kemenik bage: zer egin eztakian baten gisa. Eta orra N.K. zer dakarren bizimo-du lasaiak, ajolabageak, eta geroko esperanzaren

aitzakiarekin, penitentzia egiazkoa luzatzeak, eta erio-  
tza on baterako aurretik prestatu bage, edo disponitu  
bage egoteak. Eta ala ere aiñ andia, eta miragarria da  
gure Jaungoikoaren ontasuna, eta miserikordia, nun  
pekataria azkeneko orduan ere, egiaz humillatzen  
bada, eta benetan lotsaturik, eta damaturik, eta bizi-  
tza berri bat, lekurik badu, egiteko proposito irmo  
batekin, eta konfianza oso batekin, Jesu-Kristoren ize-  
nean barkazioa eskatzen badio, iritsiko du: eta argatik  
iñoiz ere etsi bear eztu, eta alegin guziak egin bear  
ditu humillatzeko, eta miserikordia eskatzeko: baña  
beti da seguruago aurretik prestaturik egotea, bada  
aditu dituzuen arrazoiak, argiro erakusten due, zein  
arrisku, eta peligro andian dagoan, lenago prestatu  
bage, gaizki bizi izan dan pekatari ardurabagea.

Esna gaitezen bada arren N.K.: gure betiko zorio-  
na, edo gure betiko zorigaitza eriotzako puntuak era-  
bakiko du: ondo prestaturik bagaude, eternidade guzi-  
rako zorionekoak izango gera: eta kontrara ondo pres-  
tatzen, edo disponitzen ezpagera ondo iltzeko, eterni-  
dade guzirako zorigaiztokoak, desdixaduak, eta mise-  
rableak izango gera: arrezkero guretzat eztago betiko  
tormentua baizik: beti erretzen, kiskaltzen, ler, eta  
eztanda egiten egon bearra; iñoiz ere alibiorik izateko

esperanza bage. Jaungoikoari millarezko eskerrak eman degiozkagun, zerren gure oraindañoko pekatuakgatik kondenatu ez gaituan, merezi genduan bezela: eta zerren eriotza on baterako prestatzeko lekua ematen digun: eta guk alegiña gogotik egin nai badegu, lagundu nai digun. Baña zer egin bear degu orretarako? 1. Egunoro oitu eriotza onaren, eta gaiztoaren gañean konsiderazio piska bat egitera, eta gogotik eskatu Jaungoikoari eriotza on baterako prestatzeko grazia. Eta 2. bereala ill bear bagendu bezela, gure animako kontuak garbitu, eta zuzendu; eta baita gure artuemanak ere iñori kalterik, etorri eztakion. Eta 3. aurrera bizimodu berri bat artu: pekatuari gorroto andi bat eduki: okasio gaiztoai alde egin: egunoro gure konzienzia examinatu, eta akto kontriziozkoa sarri egin: gure pasio, edo griña gaiztoak ezitzeko alegin biziak egin: eta orretako sarri konfesatu, eta komulgatu: atzerapenak, edo nagitasunak benzitu. Eta guzirako fedeko egiak sarri gogora ekarri, ondo ausnartu, edo konsideratu: eta ondo bizitzeko, eta ondo iltzeko grazia sarri eskatu. Orra ondo prestatu egoteko erremedio egokiak. Jaungoikoak digula oriek gogotik artzeko grazia, eta gero betiko gloria. Amen.

# OGEITA EMEZORTZIGARREN DOTRIÑA

*Juizio partikularren gañean.*

Eriotzaren konsiderazioa bildurgarria, eta ikaragarria bada ere, zerren batek nai ta ez ill bear du: bein baizik ill bear eztu, eta noiz, eta nola eztaki; ala ere eriotzak duen pasorik tristeena, eta izugarriena da, azkeneko asnasaren ondoan, anima gorputzetik irteetan dan instantean Jaungoikoaren juizioan agertu bearra: bere bizimoduaz batera juzgatua izateko: eta bere obrari, edo lanbideari dagokien sententzia bertatik aditzeko, eta ejekutaturik ikusteko. Bai N.K., gure betiko zoriona, edo gure betiko zorigaitza, edo kondenazioa juizio ikaragarri artan betiko erabakiko da. Au da gure fede Santuak guziori erakusten digun egia prinzipal bat: *Statutum est hominibus semel mori; post hoc autem juditium: opera enim illorum sequuntur illos.* Juizio mota bi erakusten dizkigu gure fede Santuak; bata partikularra, eriotzaren ondoan bereala bakoitzari egiten zaiona: eta bestea da juizio jenerala, munduaren azkeneko egunean, munduan izan diran, orain

geran, eta aurrera izango diran gizon, eta emakume guziaz nabarbenkiro, edo publikamente, guzian aurrean egingo zaiena: eta juizio jeneral au egiteko Jaungoikoak dauzkan arrazoi, edo motiboak beste aldi batean esango dizkitzuet: baña orduan ezta mudatuko batere, juizio partikularrean erabaki dana: baizik konfirmatuko da, eta publikatu, edo barreatuko da guzian aurrean: eta ala juizio partikularrean ondo irte-teko, au da gere betiko suerte, ona, edo gaiztoa erabakiko duen auzian ondo irteteko, orain alegin guziak egin bear ditugu. Zure bizia, zure honra, zure ondasunak, eta zure ditxa, edo desditxa guzia inporta dizun auzi bat mundu onetan bazendu N.K., nolako kezka, nolako bildurra edukiko zenduke, auzi ura erabaki artean? ezin lo onik egingo zenduke: beti gogoan erabiliko zenduke. Eta, nolako alegiñak egingo zinduzke auzia irabazteko? nekerik andienak ere pozik artuko zinduzke, ondo irteteagatik. Bada Jesu-Kristoren hitzakin esaten dizuet: Zer probetxu du gizonak mundu guzia irabaziaz, galtzen badu bere anima? au da, kondenatzen bada betiko? Ona sentenzia bat, txit asko argitu, esnatu, eta konbertitu dituana, eta gogoan beti erabili bear gendukeana, gure bizimodua orain aiñ ondo zuzentzeko, nun Jaungoikoaren juizioan kontu



ona eman, eta gure betiko ditxa, edo zoriona seguratu-  
tuko digun sententzia irabazi dezagun.

**G.** Eta orretarako Juizio partikular onen gañean jakin, eta pensatu bear ditugun gauzarik prinzipalenak zein dira? **E.** 1. Noiz, eta nun egingo duan Jaungoikoak juizio ori. 2. Zeren gañean izango diran juizio orrelako karguak. 3. Nor izango diran akusatzalleak, eta defensoreak: eta 4. nolako sententzia Juezak emango duen: eta azkenik orduan faboreko sententzia nai duenak, oraiñ nolako bizimodua egin bear duen. Atenzioa arren N.K.

1. **G.** Noiz, eta nun izango da bada, gure betiko suertea erabakiko duen juizio ikaragarri ori? **E.** Gure anima bere gorputzetik irteten dan instante artan: eta orduan dagoan tokian bertan Jaungoikoaren Majestadeak, bere poderio neurribagea, bere anditasun infinitoa, eta bere birtute, edo indar parebagea senti eragingo dio: alde guzietatik inguraturik bezela arkituko da Jaunaren presentiaz: bakartxorik arkituko da: iñork ere ezin laguntasunik dan txikiena orduan egingo dio: bere obrak bakarrik, exerzitate dituan obra onak, eta egin dituen pekatuak, edo gaiztakeriak (penitentzia egiazko batekin borratu ezpaditu) jarraioko diobe: Orien kontu zea bereala artuko diobe.

2. **G.** Nolako karguak egingo diozkate orduan anima tristeari? **E.** 1. Begi itxi irikitze batean bezela, guztiz argiro, ezin ezer ukatu dezakean moduan, ikusi eragingo diozka, orain gure Aita maitagarria danak, eta orduan Juez justu garratza izango danak, egin ziozkan mesede, fabore, eta benefizio, edo ontarte guztiz andiak: eta batez ere, 1. nola ezerezetik kriatu zuen, bere antzera, edo semejanzara, bere imajiña bizi bat izateko kriatu zuen: izan ditekean ditxarrik, edo zorionik andienak gozatzeko kreatu zuen Jaungoikoaren Majestadea ezagutzeko, amatzeko, eta serbitzeko mundu onetan, eta gero eternidade guzian aren Majestadea Zeruko glorian argitasun guzian ikusteko, alabatzeko, bedeinkatzeko, eta betiko zorionaz gozatzeko. 2. Nola bateo santuan pekatutik garbitu zuen: bere grazia eman zion: bere Seme Jesu-Kristoren senide, eta Espiritu Santuaren bizileku eder egin zuen: eta Elizako hume, eta Sakramentu Santuetan partizipante egin zuen: Jesu-Kristoren pasio, eta eriotzarekin erredimitu, eta deabruaren katiberiotik azera zuen; eta Zeruko heredero egin zuen: 3. Nola fede santuaren argira ekarri, eta Zeruko bide zuzena erakutsi zion: eta aren Majestadea biotz guztitik amatu, eta serbitu ordean, bateo santuan agindurik, edo ofreziturik zeu-

ken bezela, askotan ofenditu, despreziatu, eta aserratu zuen bere pekatuakin: eta betiko gloriako deretxoa galdu, eta betiko infernua merezitu zuen: eta ala ere etzuela bereala kondenatu, baizik askotan itxon, deitu, esnatu, irazarri, eta beregana erakarri zuela: baña esker gaiztoarekin pekatu berriz itzuli zala: naiago izan zuela bere gustoa kunplitu, ezenez Jaungoikoaren borondatea egin. 4. Banaka, eta argiro ikusi eragingo diozka bere pekatu guziak, arrazoiaren argira, edo ezaguerara etorri zanetik azkeneko asnasa eman arterañoakoak: 1. pensamentu, eta deseo konsentitu guziak: bere buruaren estimazio geiegiak: eta besteak baño geiago izan naiak: bere burua besten gañean altxatu naia eta besteak beeratu naia: atsegiñez, edo gustoz bere borondatez, eta ezagueraz buruan erabilli zituen gogorazioak, edo pensamentu loi zikiñak: pekatu egiteko eduki zituen asmo, edo deseo guziak, kunplitu ezpazituan ere: gorrotozko, edo gaitziritzizkoak: enbidiak, eta erabageko juizio, eta sospetxak: 2. hitzezko pekatuak: birau, edo maldizioak: ardurabage egin zituan juramentuak: esan zituan gezurrak: asmatu zituan falso testimonioak: egin zituan murmurazioak, eta txismeak: hitz alpertxo baterañoako guziak: 3. obrazko pekatuak: jostatze, eta

ukitze loi zikiñak: lotsabageko, eta modestia bageko  
danzak: eta janzi, edo apainduria arro banoak, eta kaltegarriak: eta oriei darraien eskandaloak, edo pekatu-  
rako bideak: lujuriazko pekatu zikiñak, besterekin, edo  
bere buruarekin egiñak: lapurreta ixillak: tranpiak  
jokuetan, tratuetan, saldu-erosietan: erabageko joku  
luze, bere buruaren, eta beste askoren kaltegarriak:  
jan-edan geiegiak: tabernetako, edo jan-edanak, eta  
joku erabageak egiteko etxetako sarrera, eta egoera  
luze peligrozkoak, edo okasiogarriak: eta ortik bere  
buruari, eta bere familiari ekarri ziozkan dañu, eta  
kalte andiak: batari, eta besteari eman zien eskanda-  
loak, edo gaitz-bideak: eta eragin zien pekatuak. 4.  
Omisiozko, edo utsegiñezko pekatuak bearbada iñoiz  
ere ondo examiñatu bagez konfesatu ere etzituanak:  
emen errietako kargudunak, naiz espiritualak, naiz  
tenporalak; eta etxetako buru edo agintariak, guraso-  
ak, nagusi-etxeakoandreak; zenbat pekatu edo utsegi-  
te, bearbada guziz larriak argiro ikusiko dituzte; eren  
obligazio partikularrak, eren kargu, edo ofizioai dagoz-  
kienak ondo ezagutzeko, eta ondo kunplitzeko bear  
bezelako alegiñik egin bagez? batez ere dotriña San-  
tua, eta Jaungoikoaren bildur Santua humeai, eta  
mirabeai erakutsi, edo ikasi eragin bagez aen bizio,

eta griña gaiztoak, eta ortik datozen oitura, eta aztura gaiztoak txikitatik korrejitu, edo erremediatu bagez: errietako, eta etxetako eskandaloak, edo pekatuak bideak al daneraño kendu bagez. Eta beste onelako, zenbat utsegite ikusiko ditu bakoitzak, bere karguakin ondo kunplitu bagez? eta orobat orduan ikusiko ditue eren atzerapen, eta nagitasun guztiz kulpadunak, boto, edo promesak bere denboran kunplitu bagez, zor justuak pagatu bagez, errestituzioak egin bagez, eta baita fedeko, esperanzako, karidadezko, eta kontriziozko aktoak egin bagez; oraziorik, eta kon sideraziorik batere egiteko ajolarik izan bagez: aztura gaiztoak ezitzeko, eta menderatzeko erremediorik benetan artu bagez: eta beste onelako utsegitezko, edo omisiozko pekatu asko, orain gogoratzen ere etzaienak, orduan argiro ikusiko dituzte, eta lotsaturik arkituko dira. Bada 5. obra onak ere juzgatuko ditu gure Jaungoikoak: eta ikusiko degu Jaungoikoaren jui zioan, ez ginduzela egin bear zan intenzio zuzen, eta garbiarekin: baizik, edo banidadez, edo interesagatik, edo munduko errespetoakgatik, edo motibo natural utsakgatik: gere inklinazioa, edo gustoa artan genduelako: edo adiskidetasunak eragin zizkigulako: eta orrelako obra onak, birtuteak dirudienak geldituko

dira batere sari bage, frutu bage, eta askotan kastigua obeto mereziko due, galardoa, edo premia baño, zergatik intenzio okerraz egiñak ziran: bada geiago begiratzen dio Jaungoikoak obra onaren anditasunari, edo txikitasunari baño, ura egiteko intenzioari, eta motiboari: eta au ezpada Jaungoikoagana zuzendua, merezimentu bage gelditzen da. Eta ortik atera ezazue kontu, zenbat, eta zenbat kristau lotsaturik orduan arkituko diran, eren obra on guziakin aiñ gitxi, edo batere irabazi eztuelako: eta nolako kuidoia eduki bear degun, gere obra on guziak fin onarekin, eta intenzio garbiarekin egiteko. Eta 6. azkenik pekatutzat eztauzkagun gauza gaizto asko, pekatu zirala argiro ikusiko degu: zerren gure ignoranzia, jakinezta-suna, eta itxumena borondatezkoak ziran: dotriñako egiak bear bezela ikasteko, eta ezagutzeko alegiñik egiñ ez gendualako, Jaungoikoari orretako argirik eskatu ez giñiolako: eta ez Ebanjelio Santuaren legez, ezpada munduko usadio gaiztoen legez, eta gure pasio, edo gurari erabageen legez bizi izan giñalako: bada Jesu-Kristok ez gaitu juzgatuko mundu zoroaren iritziaz batera, ezpada berak guziori erakutsi digun dotriñaz batera. An lotsaturik arkituko dira banidadea-ri, abariziari, eta munduko jolas, eta jostatzeai, edo

dibersioai jarraitu zienak: eta Zeruko bide estuaz kasorik egin nai izan etzuenak. Eta zer eranzun ezta-kiela geldituko dira Jaunak egingo dizten karguai.

3. **G.** Eta izango dira Juizio ikaragarri artan akusatzalleak, eta defensoreak? **E.** Bai: eta dira iru: 1. deabrua: 2. Aingeru Guardakoa: eta 3. gere konzienzia: eta irurak dira, gure bizimoduaren testigoak izan diranak: eta 1. deabruak, gezurraren Aita bada ere, egiaz egiñik daukatzun, eta ezin ukatu ditzaketzun zure gaiztakeri guziak, berak tentaturik, eta zuk erraz konsentiturik, Jaungoikoaren Majestadearen kontra egin zinduzenak presentatuko ditu: salaluko zaitu: eta zure kontra orduan justizia eskatuko du: ari beti gusto eman diozula: ari beti obedezitu diozula: beti aren mendeko izan zerala esango du: aren antzeko soberbio bat, bano arro bat: gutizioso bat: loikeriara emana: jan-edanzale erabageko bat: guzia aserrekorra, bengatiboa, enbidioso bat: eta gauza onetarako, animako salbazioaren gauzetarako ajolabagea, nagia, alperra izan zerala Jaungoikoaren amorioari, eta ontasunari esker gaiztoz, eta desprezioarekin erantzun diozula: Jesu-Kristok zugatik isuri zuen odolaz baliatu nai izan etzerala: aren dotriña santuari, eta aren bizimodu santuaren ejemploari jarraio nai izan eztiozula: Jesu-Kris-

tok erakutsi, eta agindu zizun humiltasuna, pazientzia, eta projimoarekiko karidadea ejerzitate eztituzula: eta ala Zeruko bideari larga, eta Infernukoari jarraio diotzun ezkerre, arrazoiak, eta justiziaz, betiko deabruaren lagun izan bear dezula. Ona deabruaren akusazioak nolakoak izango diran: eta mugaz aurretik, eriotza baño lenago, egiazko penitentiarekin, eta bizimodu on batekin zure pekatuak, eta gaiztakeriak desegin, borraratu, eta erremediatu ezpadituzu: nolako estutasuna, eta larritasuna izango da zurea nere Kristau maittea, ainbeste kargu, eta ain zorrotzak egiten dizkitzue-nean? Bada jakizu ze deabrua ixillik balego ere, zure Aingeru Guardakoak, eta zure konzienziak berak, zure fabore egon nai lukeenak, eta zure obra on guziak pozik Jaunaren juizioan presentatuko dituztenak, ezin eskusatuko zaituela: zerren askotan Aingeru santuak ekarri dizkitzun Zeruko gogargi, eta inspirazioai, zu pekatutik atzeratzeko, eta bizimodu on bat eragiteko, kasorik egin oi etziñien: eta zure konzienziak askotan ematen zitzun barruko abisoak, bere ortxikada, edo erreprentioakin, kezka, eta bildurkunda onakin, ezertan etzenduzken: eta naiago izan zenduan zere pasio gaiztoari gusto eman, ezenez zure borondatea ukatu, eta Jaungoikoarena egiñ: eta ala alde guzietatik arki-



tuko zera lotsaturik, konbenziturik, eta zer eranzun eztakizula: baña kontrara zer poza zurea, muga onez aprobetxatu baziñan Aingeru Guardakoak, eta zure konzienziak eman zitzuen abisoaz: zenzatu baziñan: konfesio on bat, bear dan ezaguera, humiltasun, eta damutasun egiazkoarekin egin bazenduan: eta aurre-ra bizimodu on batean iraun badezu: Jaungoikoarekin, projimoarekin, eta zere buruarekin, edo konzienziarekin pakean bizi izan bazera: deabruaren mendetik libratu baziñan, eta Jesu-Kristoren odol preziosisimoarekin garbiturik bazaude. Nolako lotsa emango diozu deabruari zure salatzalle, edo akusatzalle enbidiosoari? eta nolako atsegiña zure Aingeru Guardakoari, zure konzienziari berari, eta zure Juezari berari? eta Nolako konsueloarekin adituko dezu orduan zure faboreko sententzia; eternidade guzirako zure zoriona seguratu-ko dizuna?

4. **G.** Zer sententzia nai dezue bada aditu N.K., jui-zio ikaragarri artan? **E.** Orduan erremediorik batere eztezue izango: eztizue orduan balioko, ez Aingeru Guardakoak, ez zuen izeneko, eta debozioko santuak; ez pekatarien Ama biguñ, eta gozo dan Maria Birjiña Santisimak: ez Jesu-Kristoren pasio, eta eriotzak, eta ez zuekgatik ixuri zuen odol guztiz preziosoak: orain

bai, guziakin baliatu zaitezke, eta zuen oraindañako utsegite guziak, gogotik nai badezue, erremediatu ditzaketzue: eta betiko kondenazioko sentenziatik libratu zaitezke: eta salbazioko sententzia iritsi dezakezue. Eztago bitarterik: pekatuan iltzen bazerate, aditu bear dezue Jesu-Kristoren aotik zuen betiko zorigaitzaren, eta kastiguaren sententzia; eta bertatik entregatuko zaitue zuen etsai madarikatuen eskuetan: eta eramango zaitue iskanbilla, algara, eta burla arrigarriakin eren zorigaitzoko lagun izatera Infernuko tormentuetan, beti, beti iraungo duen su, eta garretan, erretzen, penatzen, arrabiatzen egotera, iñoiz ere andik irteteko, eta alibiorik izateko esperanza bage. Nor ikaratzen, larritzen, eta zenzatzen ezta, onelako desditxa bere buruari batek bere kulpaz merezi izan diola konsideratzen badu? Baña kontrara, penitentzia egiazko batekin erremediaturik, eta ondurik bazaude, adituko dezu Jesu-Kristoren aotik salbazioko sententzia, guztiz gozoa, eta atsegiñezkoa: eta orduan pekatuen zor guzia, pagaturik badaukazu; nolakoa izango da Aingeruen pozaldia! nolako Aleluiak kantatuko dituzte! nolako ongi-etorria Zerutar guziak egingo dizue! nolako aurpegi gozoaz Jesu-Kristok berak begiratu, eta esango dizu: atoz nere serbitzari leiala, nere

borondatea beti egiñ nai zenduena: atoz zorioneko anima nere biotzeko esposa maitea, Zeruko koroa artzera: sar zaitez betiko zure atsedean lekuan, Zeruko nere Glorian. Nolako eskerrak orduan emango diozkatzu zure Jaungoikoari, eta nolako alabanzak Jesu-Kristori, bere Ama Santisimari, Aingeru Guardakoari, eta zure izeneko, eta deboziozko santuai, zerren lagundu dizuen zure betiko zoriona iristen! O zer poza orduan zurea, neke puska bat emen artu zendualako, humiltasunari, pazienciari, karidadeari jarraitzen penitentiazko obrak egiten; eta misericordia zure lagun proiektuak egeratzen! eta Purgatoriora bazoaz, zure pekatuen zor denporala pagatzera; orren ondoren seguru daukazu betiko zure zoriona, betiko Gloria, betiko kontentua: batere neke bage, beti pozez, atsegiñez, eta alegriaz beterik Zeruko Erreinuan, ezin esan al baño ondasun infinitamente andiakoak gozatzeko zoriona.

**G.** Orain bada fedea erakusten dizkigun egia guztiz andi oek, onela sinisten ditugun ezkerok, nolako bizimodua egin bear degu Kristauok, betiko kondena-ziotik libratzeko, eta betiko zoriona seguratzeko? **E.** Jardun N.K., konsiderazioari, eta orazioari. Gure animako itxumena, eta gaitzerako griña gaiztoa guztiz

andiak dira. Uste degun baño itxuagoak, eta argalagoak gaude: eta Zeruko argia, eta indarra nai ta ez bear degu; bear bezela ezagutuko baditugu, eta maitatuko baditugu Zeruko gauzak; gure animako salbazioa benetan billatzeko gogoia emango diguen egiak: bada Zeruko argitasun ori, eta orri darraion gogo ona, egunoroko konsiderazioarekin iritsiko degu: 1. Pensatu bear degu sarri, gure Jaungoikoari zenbat zor diogun, bera danagatik, eta guk merezi bage egin dizkigun mesede guztiz andiakgatik. 2. Pensatu bear degu Jesu-Kristo gure Jaunaren guganako amorio guztiz andia: guri Zeruko bidea erakusten, gugatik bere bizia Gurutze batean ematen: eta Sakramentu santuetan bere grazia komunikatzen agertu ziguna. 3. Pensatu bear degu sarri guzion azkneko fiña, edo paraderoa, edo guztiz zorionekoa, edo guztiz zorigaiztokoa. Eta artu bear degu gogobizia, eta sendoa, mundu guzia galduko badegu ere, Jaungoikoa ez ofenditzeko, baizik aren lege santua kontuz gordetzeko, eta gure anima salbatzeko. Baña nola ezaguera, eta gogoia eduki arren, gerez aiñ argalak, aiñ gaixoak, aiñ mudakorrak geran: eta alde guzietatik etsaiez inguraturik gauden: bada deabruak, munduak, eta gure aragiak, eta amorio propio erabageak beti gerra egiten digue: eta

pekatura mugitzen, eta tentatzen gaituzte; konsiderazioaz, gañera, nai ta ez bear degu orazio humilla, au da humiltasunarekin, eta konfianza osoarekin gure Jaungoikoari sarri eskatu Jesu-Kristoren izenean bear degun indarra gure etsaiak, eta pasio gaiztoak menderatzeko, eta beraren grazian beti irauteko: eta orazioari juntatu bear diogu ernetasun andi bat kontuz bizitzeko, okasio gaiztoai alde egiteko; eta al ditugun obra on guziak egiteko; bada orrela seguratuko degu ainbeste inporta digun faboreko sententzia, eta orri darraion betika Gloria. Amen.

# OGEITA EMERETZIGARREN DOTRIÑA

## *Juizio Jeneralaren gañean*

Gaur, nere Kristauak, aditu bear dituzue, gure fede Santuak erakusten dizkigun egia andi, eta miragarri batzuek, gaiztoentzat guztiz izugarriak, edo ikaragarriak; eta onaentzat guztiz atsegingarriak, edo pozgarriak. Esan bear dizuet: 1. Zergatik gure Jaungoikoak daukan erabakirik egitea juizio jeneral bat, munduko guziak publikamente juzgatzeko. 2. Juizio aurrean nolako señaile izugarriak ikusiko diran: eta nola mundua suzko dilubio, edo ugolde arrigarri batekin bukatu, edo akabatuko dan. 3. Nola ill guziak orduan piztuko diran: eta Josefateko zelaian juntatuko diran: 4. nola Jesu-Kristo gure Jauna bere Majestade guziarekin juizioan agertuko dan: onak, eta gaiztoak alkargandik apartatu erazoko dituan: guzien pekatuak, eta obra onak guzien aurrean argiro ikusi eragingo dituan: eta azkenik, nolako sententzia emango dien, ala onai, nola gaiztoai. Eta ona dotriña gai bat guztiz probetxugarria guzionzat, bear bezelako fedearekin

konsideratzen, ausnartzen, eta gogoan erabiltzen badegu: bada Jaungoikoaren laguntasun, edo grazia-ekin argituko, eta ukituko, edo mugituko gaitu pekatua aborrezitzera, penitentzia egitera, eta birtuteari jarraitzera.

1. **G.** Gure suerte ona, edo gaiztoa juizio partikularrean betiko erabakirik gelditzen bada, eta mudatuko ezpada, aurreko dotriñan esan genduan bezela; zergatik gure Jaungoikoak juizio jenerala egin nai du, munduko guzien aurrean? Aren Majestadeak infinitamente jakinsua danak bezela arrazoi guziz andiak ditu orretarako: eta ala erabaki duen ezkerro, adonatu bear ditugu aren asmo, edo intenzio guztiz zuzenak, ezin guziak konprenditu ditugunean ere: bada ezertxo ere alperrik egiten eztu. Eta ona Juizio jenerala egiteko dituan motibo, edo arrazoi guztiz andi batzuek. Eta 1. da munduaren gobernuan eduki duen zuzentasuna, edo justizia guziaz ikusi eragiteko, edo bere probidentzia miragarriak zituan motibo guztiz justuak agertzeko; batzuek pobre, besteak aberats egiteko: batzuek eritasunean, besteak osasunean edukitzeko: gaizto askori ondasunak, edo aberastasunak emateko: eta onai eskuarkiro pobrezia, naigabeak, eta trabajuak emateko. Ona N.K., orain askok ezin konprenditu

dituan gauzak, zerren munduko zorionari bakarrik begiratzan dioben, eta betiko zoriona iristeko zer konbeni zaien ezagutzen eztuen: eta juizioko egunean argiro ikusiko dezue, zein egokiro Jaungoikoak gauza guziak partitu, eta disponitu zituan: eta nola gure salbaziorako konbeni zakuna ematen digun, gu ondo baliatu nai bagera, eta aren borondate santuarekin konformatzeko alegiñak egiten baditugu. Juizio jenerala munduko guzien aurrean egiteko 2. arrazoia da, Jesu-Kristoren, eta santuen honra, eta gloria anbat geiago agertzeko, zenbat geiago mundu onetan humillatu, eta nekatu ziran Jaungoikoaren honragatik, eta animen salbazioagatik. 3. Da munduko juizio, eta iritzi okerrak, edo erabageak zuzentzeko; eta bakoitzari dagokion honra, eta estimazioa guzien aurrean emateko: edo dagokion lotsa, eta deshonra nabarbenkiro sufritu eragiteko. Asko daude Zeruan guztizko honra, eta gloria gozaten, munduan desprezioak, eta afrentak ugari sufritu zituenak batere kulpa bage: bada arrazoia da, munduko guziak desengañatu ditezzen, eta bere honra biurtu dakien. Eta kontrara guztiz asko daude Infernuan munduko ustean, edo iritzian santutzat, eta justutzat zeudenak, baña ez Jaungoikoaren aurrean; eta arrazoiak eskatzen du, guzien gaiz-



takeri estaliak agertu ditezen: eta nor zan bakoitza kanpotik, eta barrutik guziak jakin dezen. 4. Arrazoaia, edo motiboa juizio jenerala egiteko da, egun artan munduko defuntu guzien gorputzak piztutzeko, eta len izan zituen animakin betiko juntatzeko, gero esango degun bezela eta azkenik beste motibo, edo arrazoaia ondo konsideratzea merezi duana, juizio jenerala egiteko da; azitzeko, edo geiago saristatzeko santu askoren gloria, egun artaraño osagarri guzia izango eztuena: eta baita orobat azitzeko, edo aumentatzeko pekatari askoren pena, eta tormentua; aen eskandaloak aurrera eragiten dituen pekatuai dagokiena. Bada-kizue alabaña, dotriña, eta ejemplo ona besteai eman dienak, erak salbatuaz gañera, beste asko Zeruko bidera ekarri dituela: eta oek orobat aurrekoen dotriña, eta ejemplo onari jarraioaz munduaren kaburaño ari dirala beste asko ondutzen, eta Zerura gidatzen. Orain ere badirabe N.K., Apostoluak, eta aen ondorengo santuak eman zuen dotriñak, eta ejemplo onak: aen frutuak orain ere ikusten dira: eta munduaren fineraño aziaz dijoaz: bada orobat gaiztoen dotriñak, eta eskandaloak, edo gaitz-bideak badirabe orain, eta iraungo due azken eguneraño. Eta ala aziaz dijoa aen ejemplo onaren, edo gaiztoaren frutuari dagokion

saria, edo kastigua: eta ori juizioko egunean argiro ikusiko da: eta bakoitzari dagokiona emango zaio. Eta ortik atera ezazue kontu N.K. ejemplo ona emanarekin, eta ondo erakutsiarekin zuen humeai, zuen mirabeai, zuen mendekoai, eta zuen lagunai, zein probetxu andiak, eta betiko ondasunak aenzat, eta zeuronzat irabazi ditzaketzuen: eta kontrara ejemplo gaiztoa ematen badiezue, eta gaizki egiten erakusten badiezue, zein kalte arrigarria egiten diezuen: eta zein kontu estua Jaungoikoak juizioko egunean artuko dizuen: eta nolako tormentu arrigarriak beti sufritu beariko dituzuen, zeuron pekatuakgatik, eta besteai eragin ziñienakgatik, orain penitentzia egiazkoarekin, eta ejemplo onarekin erremediatzen ezpedituzue. Eta orra nolako arrazoiak dauzkan gure Jaungoikoak juizio jeneral bat munduko guzien aurrean egiteko.

**G.** Eta noiz izango da juizio jenerala? Eta nolako señaileak aren aurrean ikusiko dira? **E.** Iñork eztaki, eta ezin jakin dezake Jaungoikoak agertu bage. Ziertu dakiguna da, zerren Jaungoikoak berak ala erakutsirik daukan Eskritura Santuan, mundu au akabatuko dala: eta munduaren azkeneko egunean Zerutik etorriko dala Jesu-Kristo gure Jauna biziak, eta illak, au da onak, eta gaiztoak juzgatzeraz: eta lenago ikusiko dira-

la señaile guztiz asko, eta guztiz izugarriak. Eta ona prinzipalenak. 1. Kristauen arteko karidatea txit ozturik arkituko da: eta mundua gaiztakeriz, eta pekatuz beterik. 2. Orduko Jesu-Kristoren Ebanjelio Santua munduko bazterrik urrutianetan ere predikatua izango da. 3. Jesu-Kristoren, eta bere Elizaren, au da Kristauen etsairik andiena, Ante-Kristoa deitzen zaiona agertuko da: eta Infernuko deabru, edo Demonio guziak lagun dituala, Elizari, eta Kristau guzai guztizko gerra gogorra egingo die: Jesu-Kristoren fedea Kristauai ukatu, eta larga eragiteko alegin guztiz andiak egingo ditu, ala ondasunak eskeñiaz, nola eriotzarekin, eta tormentu arrigarriakin bildurtuaz: eta baita deabruaren laguntasunarekin iruripeneko mirari, edo milagroak egiñaz: oraindano munduan ikusi eztan bezelako persekuzio arrigarria Kristauai egingo die Ante-Kristoak. 4. Orduan Jaungoikoak bidalduko ditu mundura ill bage gorderik dauzkan gizon santu andi bi; Henok, anziñako Patriarka justua, eta Elias Profeta andia, Ante-Kristoaren kontra predikatza: Kristauak Jesu-Kristoren fedean alaitzera, konfirmatzera, eta indartzera, eta Juduak konbertitzera: eta santu aek Kristoren fedeagatik martirioa padezituko due: bada Ante-Kristoak illerazoko ditu: baña onen indarrak, eta

engañuak eztue asko iraungo: Jesu-Kristo gure Jaunak bizia kendu erazoko dio era lotsagarri batean: eta Ante-Kristoaren jarraitzalleak, eta batez ere Juduak lotsaturik arkituko dira: eta etsirik ia beste Mesiasik zer esperatu eztuelako, Jesu-Kristogan sinistuko due: eta guziak konbertituko dira Kristauen legera. Eta arrezkero eztu munduak asko iraungo: baña bukatu baño lenago ikusiko dira munduan iñoiz ez bezelako gerrak, izurriak, edo pesteak: lur ikara arrigarriak: itxasoaren orroa, eta ots izugarriak: eta beregan ezin kabiturik itxasoko urak gañez egiñ, eta banatuko dira errietaraño: eta gizonak, eta emakumeak ibilliko dira arrituak, eta kordebageak bezela, ikararen pasioz zer egiñ eztakitela. Orduan basoetako piztiak, eta abere mota guziak azoratuko dira, eta bere zuloetatik irten, eta jende artera etorriko dira, eta eren orroa, eta insiri lastimagarriakin aditzera emango due guzien despeitu, eta bukatu bearra, Zeruan ere ikusiko dira seña-le guztiz ikaragarriak: eguzkia illunduko da: illargia odolduko da: izarrak ereriko dira: Zeru guzia nastu, eta iraliatuko da: eta odei illunez bete, eta tenpestade arrigarriak izango dira: alde guzietatik tximistak, turmoi, eta oñazkarrak; erriak, eta errietakoak ondatzen dituztela: eta orien ondoren etorriko da suzko, edo

garrezko dilubio, edo ugolde jeneral bat mundu guzia erre, kiskaldu, eta auts biurtuko duena. Zer balioko due orduan munduko jauregiak, palazioak, eta ondasun iruripenekoak? Zer balioko due orduan diruak, urreak, zillarrak, diamanteak, eta beste arri prezia-tuak? Utsa. Eta zer beste gauzarik balio due oraiñ ere gizonaren egiatzko zorionerako? bada eztira gai iñoren biotza osoro kontentatzeko: eta batez ere, laster ill bear duanari, zertako serbitzen diobe, geiago penat-zeko baizik? Ala egia N.K. mundu au figura bat beze-la da: eta gutxiena uste degunean guretzat desager-tzen da. Eta zer probetxu atera bear degu desengañu onetatik? Gure zoriona mundu onetan ez billatzea, baizik beti iraungo duen tokian, Zeruko erreinuan: bala arako egiñak gera, eta an gozatuko degu, ez bakarrik gure animenzat, baita gure gorputzenzat Jaungoikoak preparaturik, edo prestaturik daukan eternidade guziko gloria, betiko atsegin osoa, eta beti-ko atsedena: eta orretarako aren Majestadeak dauka disponiturik, orain adituko dezuen bezela, aragiaren erresurrekzioa mundua akabatu, eta bereala gertatu-ko dana.

3. **G.** Fedeko egia da orrela, munduan izan diran gizon, eta emakume guziak, txiki, eta andiak ill bear

duela: eta guziak piztu, edo erresuzitatuko dirala jui-zioko egunean? **E.** Bai N.K.: bakoitza len izan zuan gorputzean Jaunaren agintez bizirik jaikiko da: ala erakusten digu Eskritura Santuak: San Pablo Apostoluak dio: *Canet enim tuba, et mortui resurgent. (1. Corint 15.)* mundu guzian adituko da tronpetaren ots ikaragarria: eta Aingeru batek deadarrez aginduko du: *surgite mortui, et venite ad judicium.* Piztu zaitezte illak, eta atozte juiziora: eta puntu artan Jaungoikoaren Majestadeak bere poderio infinitoarekin, nai duan guzia egiteko daukan eskualdi, eta birtute, edo indar kabubagearekin piztuko, edo erresuzitatuko ditu gorputz ill, edo defuntu guziak. Eta ori sinisten, eta konfesatzen degu Kredoan aragiaren erresurrekzioa esaten degunean.

**G.** Eta zergatik eztegu esaten gizonaren erresurrekzioa, ezpada bakarrik aragiaren, edo gorputzaren erresurrekzioa? **E.** Zergatik gizonak parte bi ditu: bata anima, eta ori da prinzipalena, eta anima ezta ilkorra, ezin ill diteke: beste partea da gorputza, eta au bakarrik da iltzen dana, animak usten duenean, edo argandik apartatzen danean: eta ala gorputza bakarrik da piztuko dana, len zuen anima bera atzera biurtzen zaionean.

**G.** Nola ordea gorputza usteldurik, eta auts egiñik egongo bada; eta ezurak leku askotan banaturik arkituko badira, piztu diteke? Eta gorputz bizia izatera etorri diteke? **E.** Jaungoikoaren poderio infinitoarengat inposiblerik ezta: ark ezin dagikean gauzarik ezta: ezerezetik, nai izanaz, eta aginduaz beste bage, sortu zituan Zeruak, eta lurra, eta beste kriatura guziak: eta nai izatea, eta agintzea asko du, illik, eta auts egiñik dauden gorputz guziak piztutzeko: eta guziak piztuko, edo erresuzitatuko dituala, argiro erakutsirik dauka Eskritura Santuan: eta dudarik batere izan eztezagun, aren Majestadeak piztu, edo erresuzitatu ditu askotan illak, edo defuntuak: eta Eskritura Santuan, ala Testamentu zarrean nola berrian orrelako asko irakurten ditugu: Elias, eta Eliseo Profetak defuntuak piztu zituen Jaungoikoak eman zien poderioarekin: Jesu-Kristok Lazaro bere adiskidea, eta beste asko ill ezkerro piztu zituan; eta bera ere ill ezkerro irugarren egunean piztu zan: Apostoluak asko piztu zituen: eta santuen bizitzetan orrelako asko arrezkerro irakurten degu: eta ala Jaungoikoak esanik daukan bezela guziok piztuko gaitu juizioko egunean: eta betiko piztuko gaitu, au da ez berriz iltzeko.

**G.** Eta nolakoak piztuko dira gure gorputzak? **E.** Ogeita amairugarren urteko adiñean, guziak izan bear zuen bezelakoak. Eta au txikiak zirala ill ziranak: eta zarturik ill ziranak orobat piztuko dira ogeita amairugarren urteko sasoian ill balira bezela: eta eztue izango lenagoko faltarik: ezta izango orduan ez itxurik, ez muturik, ez errenik, eta ez elbarriturik: Jaungoikoak dagozkien mienbro, eta sentidu guziak, oso emango dizte.

**G.** Eta gorputz guziak erabatekoak piztuko dira? **E.** Guziak beti irauteko, edo ez berriz iltzeko piztuko dira. Baña guztizko diferentzia andiarekin. Ozta justuen animak Zerutik etorririk eren gorputzetan sartuko dira, nun bereala, biziarekin batera, komunikatuko dizte, edertasun, eta atsegintasun miragarri batzuek: arrezkero espirituaren antzeko arintasuna izango due justuen gorputzak: noranai espiritua bezela laster joateko doaia: eguzkiarena baño argitasun andiagoa izango due: nundik-nai batere enbarazo bage igarotzeko subtilezako doaia izango due: Jesu-Kristoren gorputzak izan zuan bezela sepulturatik irteteko, sepultura-ko losa, edo arria mugitu bage: eta baita inpasibleak, eta imortalak izango dira, au da beti biziko dira: eta iñoiz ere sufritukizunik, eta nekatu bearrik izango



eztue: eziñ ezerk miñik batere emango die: eta beti kontentuz, eta pozez beterik arkituko dira. Nor alaituko ezta bada orain N.K., gorputzaren gurariak mortifikatzera: eta beti arrazoiaren, eta Jaungoikoaren lege santuaren mendean sentiduak idukitzera, orrelako zoriona gorputzari berari aseguratzeagatik? Ezta, ala egia, izan ditekean zorakeririk andiena, orain denbora labur batean gorputzari erabageko gusto, edo atsegiñak emateagatik, gorputz orri berorri betiko atsegin kontentuek galdu eragitea: eta betiko tormentuetara kondenatzea? Bai N.K., juizioko egun ikaragarri artan Jaungoikoaren agintez kondenatuen animak Infernutik etorriko dira, eta len izan zituen gorputz aetan bere-tan sartuko dira: baña, nolakoak egongo dira kondenatuen gorputzak? Guztiz pisuak, guztiz itxusiak: guztiz nazkagarriak: eta ozta eren animakin juntatuko dira, nun bereala penatzen, erretzen, kiskaltzen, arrabiatzen abiatuko dira. Eta orra gorputzaren gusto zikiñak, eta jan-edan erabageak zer dakarden: eta nola zenzu bage, edo juizio bage bizi dan Kristaua, bera dan bere gorputzaren etsairik andiena: bada bere gusto labur batzuek kunplitzeagatik, betiko oñazetara, eta iñoiz bukatuko eztiran tormentuetara sujeta-

tzen du. Jaungoikoak arren argitu, eta zenzatu gaitzala egia izugarri onen kontsiderazioarekin.

**G.** Eta guzien erresurrekzioaren ondoren bereala zer gertatuko da? **E.** Ala onak, nola gaiztoak juntatu erazoko ditu gure Jaungoikoak Josafateko zelaian: onak txit pozik airean ara joango dira: baña gaiztoak arrabiatzen, eta ernegatzen bere gogoaren kontra joango dira: baña nai ta ez an agertu bear due, izan ditekean lotsarik andiena sufritzera. Munduko guzien batzarre, edo junta jeneral miragarri ori egiten danean, San Migel, edo Aingeru bat bereala agertuko da, gure Salbadorearen Gurutze Santua, edo gure erredenpzioko Estandarte guztiz ederra berekin dakarrela: zer poza justuenzat, gurutzea mundu onetan Jesu-Kristoren ondoren eraman zuelako! Eta zer damua, eta arrabia gaiztoenzat, mundu onetan, bizi-modu on bat egiteko neke puska bat eraman nai izan etzuelako: eta gurutzearen igesi beti ibilli ziralako! Eta gurutzea dakarren Aingeru orrekin batera Zeruko Aingeruen ejerzitoak, gloriaz janzirik etorriko dira, eren Errege Soberanoari korte egitera: eta orduan Jesu-Kristo gure Jauna tronu, edo jarleku guztiz argi, eta eder batean, odei zuri baten gañean, bere poderio, eta Majestade, edo anditasun guziarekin agertuko da:

eta aren aldamenean, eren tronu eder argietan jarriko dira Maria Birjiña Santisima, Apostoluak, eta aen antzeko Santuak, eta justuak, Jesu-Kristori humiltasunean, pobrezan, karidadean, pazienzian, eta beste bir-tutetan jarraio ziobenak, Jesu-Kristorekin batera mundu guzia juzgatzeko: eta dagokien honra, eta gloria guzien aurrean goza erazotzeko.

**G.** Eta zer egingo du orduan Jesu-Kristo, guzior Juez soberanoak? **E.** Iru gauza guztiz izugarriak, eta ezurretaraño ikaraz igarturik bat uzteko diñakoak. 1. Onak, eta gaiztoak alkargandik betiko apartatu erazotzea. 2. Guzior pekatuak, eta obra onak publikatzea: eta 3. betiko sententzia ematea. 1. Aingeruak bada, Ebanjelio Santuak dion bezela, justuen artetik bereziko, edo aterako dituzte gaiztoak, eta ezkerreko aldean ipiñiko dituzte, eta justuak eskuiko aldean. A! zer apartatze lotsagarria, eta zein sentikorra! Aita semeagandik; ama alabagandik; senidea senideagandik: senarra emazteagandik: aideak aideakgandik: adiskideak adiskideakgandik, bizimodu, eta suerte diferentek izan bazituen betiko apartatuko dituzte: eta arrezkero alkar iñoiz ere ikusiko eztue. Justuak ala ere damurik batere artuko eztue: zerren ezagutuko due, Jaungoikoaren juizioaren zuzentasuna, eta eren kul-

paz gaiztoak betiko apartatze lotsagarri ura merezi izan duela: baña gaiztoak, eta batez ere munduko poderosoak, aberatsak, honratuak, agintariak, eta pobretxoak ezertan etzeuzkenak, nolako pena, nolako naigabea, eta nolako lotsa naitaez sufritu bearako due; kondenatuen artean, ainbeste pikaro, traidore billau, eta lapur infameren artean eren buruak ikusten dituenen! Baña 2. Zenbat aziko da oraindio lotsa ori, egin zituen lotsagarrizko pekatu, edo gaiztakeri guziak, ezkutuan eduki zituenak, eta bearbada lotsaren pasioz konfesatu ere etzitzenak, eren ezagun guzien, eta munduko guzien aurrean nabarbendurik, barreaturik, eta argiro ezaguturik ikusten dituenen! Nork aditzera eman dezake orduko lotsaren mintasuna, eta garraztasuna? bada eztago erremediorik: oraiñ egiazko penitenziarekin, eta konfesio humill batekin zuen pekatuak borraratzen, eta desegiten ezpedituzue; zuek ezkutuan egindako loikeriak, lapurretak, dollorkeriak, eta maldade guziak an agertuko dira: eta betiko lotsa guztiz arrigarria sufritu bearako dezue: eta kontrara, egiazko penitenziarekin, eta bizimodu on batekin erremediatu baziñaten, zer konsueloa, zer poza, eta zer atsegiña izango da zuena, justuen artean zuen buruak ikusten dituzuenen! Eta zuen obra on guziak ere, eta

justu guzienak mundu guziaren aurrean, banidatearen bildur bage, Jaungoikoaren honrarako, eta zuen gloriarako publikaturik ikusten dituzuenean! Orduan Jesu-Kristoren imitazioko liburu guztiz preziatuak dion bezela: Zenbat atsegín, honra, eta gloria geiago izango due, emen penitenzia egiazko baten negarrak isuri zituenak, munduko gusto, eta alegria guztiak gozatu zituenak baño? Zenbat poz, eta kontentu andiagoak izango ditue orduan, oraiñ aragiaren, edo gorputzaren gurariak, eta griña gaiztoak eskuratzen dituenak, eze-nez oriek kunplitzen dituenak? Hitz batean esan dezagun: Jesu-Kristori ondoena jarraitu zioberenak humiltasunean, pazientzian, biotzeko pobrezan, mortifikazioan, eta karidade egiazkoan, au da Jaungoikoaren, eta projimoaren amorio egiazko eragillean, ikusiko dira honratuenak, altxatuenak, eta distingituenak guzien aurrean: eta kontrara munduari jarraio zioberen arroak, edo soberbioak; gutiziosoak; eta atsegín loi zikinza-leak: Jaungoikoaren, eta projimoaren amorioa exerzitatatu etzuenak: munduan beren zoriona billatu zuenak; ikusiko dira lotsaturik, deshonoraturik, eta betiko desdixara kondenaturik. Eta ala 3. guzien Juez Soberanoak, guziaren berri ondo dakienak bezela, bakoitzari emango dio dagokion sententzia: baño: nolako senten-

zia? Apelurik eztuena: betiko emango dana: bereala  
kunplituko dana: eta iñoiz ere desegingo, edo errebo-  
katuko eztana. Justuai, edo onai, aurpegi guztiz gozo,  
eta amoriozko batekin esango die Jesu-Kristok: atozte  
nere Aitaren bedeinkatuak, atozte munduaren asiera-  
tik zuenzat preparaturik dagoan Zeruko erreinua  
gozatzera: bada gose ninzanean, jaten eman zindue-  
dan, egarri ninzanean, edaten eman zinduedan,  
narrugorrian nengoala, jantzi ninduzuen: eta onela  
beste miseriakordiazko obrak nerekin egin zinduzuen.  
O! zer poza: O! zer deia, atozte! Doatsuak esango  
due: Noiz Jauna, jana, edana, jantzia eman dizugu?  
eta Jesu-Kristok eranzungo die: arako pobretxoai egin  
ziñien miseriakordiazko obrak, neuri egin zinduztedan:  
pobreari egiñak, neuri egiñak bezela artu nituan: A!  
zenbat balio duen nere Kristauak Jaungoikoaren  
begietan biotz errukitsuak, ongilleak: Lagunari gogo-  
tik barkatzen, eta on egiten dakianak! eta zein erraz  
orrelakoak beretzat irabazten duen Jaungoikoaren  
errukia, piedadea, miseriakordia, eta pekatuen barka-  
zioa, edo ori seguratzeko, edo penitentzia egiazkoa  
egiteko bear duen Zeruko laguntasuna! Bada ikusten  
dezue aiñ argiro juizioko egun ikaragarri artan miseri-  
kordiazko obrakgatik batez ere ematen duela Jesu-

Kristo gure Jaunak faboreko sententzia: eta Zeruko gloria miserikordiaren, eta lagunari Jaungoikoagatik egi-ten diogun karidadearen saria dala. Eta kontrara Jesu-Kristok berak aurpegi asarrezko batekin gaiztoai esango die: *Ite, discedite a me maledicti*: zuazte, nigandik aparta zaitezte madarikatuak: zuazte betiko nere begietatik: zuazte; baña nora? betiko Infernuko surtara: deabruenzat, eta bere zorigaiztoko lagunenzat preparaturik dagoan suzko leze penagarri artara: bada premian nengoela ez nazue alimentatu; ez nazue jantzi; gaixo nengoela ez nazue bisitatu; eta miserikordiarik nerekin egin eztezue: eranzungo diobe: Noiz Jauna, orrelako premian ikusi zaitugu? eta Jesu-Kristok esango die: Pobreaki ukatu diezuen, neuri ukatu didazue: eta ala eztago zuenzat errukirik. Eta esan, eta egin, bereala anima, eta gorputz batzuek Zerura betiko igoko dira, eta besteak Infernura betiko jatxiko dira. Onak betiko zorioneko bizitza gozatzer: gaiztoak betiko zorigaiztoko bizitza penagarri bat, betiko eriotza triste baten izena duena padezitzera, eta sufritzera. Onak, Zeruko Errege Jesu-Kristoren, Ama Birjiña Santisima Zeruetako Erregiñaren, eta Apostoluen, eta Santuen konpañia gozo, atsegiñezkoan, Zeruko ondasunak, eta kontentuak beti gozatzer,

iñoiz ere beren zoriona galtzeko bildur bage: eta gaiztoak deabru guzien, eta aen zorigaiztoko lagun mada-rikatuen konpañian betiko tormentuak, betiko oñaze guztiz sentikorrak, betiko naigabeak, betiko desespe-razioak, eta arrabiak sufritzera. Eta orra N.K. onaen, eta gaiztoen paradero, zein diferenteak: eta orain zer deritzotzue, gauza oek, fedeko egiak bezela sinisten dituen Kristau askoren itxumenari, eta ardurabageta-sunari? Kristauak nola izan ditezke eren buruen aiñ etsaiak, nun munduko honra, eta banidade puska bategatik, interes, edo ondasun labur bategatik; ara-giaren gusto, edo atsegin bategatik, jarri ditezkean, eta jakiñaren gañean, betiko honra, eta gloria, kabu-rik eztuen ondasunak: eta iñoiz bukatuko eztiran atse-gin kontentuenak galtzera? Nundik dator itxumen, eta erakeri arrigarri au? Kontsiderazioaren, eta orazioaren faltatik dator gaitz izugarri ori. Eta ala N.K., egiaz, eta benetan zeuron buruak libratu nai badituzue betiko infernulik, eta seguratu betiko gloria, oitu zaitzte egunoro fedeko egia andiak, ala bildurgarriak, nola pozgarriak kontsideratzera. Eta batez ere, Nobisimoak, edo zuen betiko paraderoa, edo zorigaiztoko, edo zorionekoa: eta Jaungoikoari eskatu egiozue humilda-de, eta konfianza oso batekin, arren eman degizuela:



1. bere argia zuen salbazioaren inportanzia egunoro, ta obeto ezagutzeko. 2. Gogo bizi bat oraindañoko pekatuen penitentzia egiazkoa egiteko: eta 3. bear dezuen grazia, eta indarra pekatuari largatzeko: oitura gaiztoak ezitzeko, eta goitzeko: konfesio humil bat egiteko: eta aurrera bizimodu kontuzko bat egiteko: eta orretarako egunoro zuen konsiderazioa, eta orazioa berritzeko: bada onetara jarten ezpazerate, deabruak, munduak, aragiak, eta zuen pasio erabageak, eta aztura gaiztoak erraz itxutuko zaitue: eta Jaungoikoaren lege Santua kontuz gordetzeko, eta zuen anima gaixoak salbatzeko, nai ta ez bear dezuen gogoa, eta indarra kenduko dizue. Baña konsiderazio, eta orazio puskatxo bat egunoro egiñarekin: eta noizen bein konfesio, eta Komunio Santua berrituarekin, iritsiko dituzue bear dituzuen argi, eta indar guziak zuen animako etsaiak goitzeko, eta bizimodu on bat egiteko: eta orrela seguratuko dezue, bertatik zuen barruko, edo biotzeko pakea, eta gero betiko Koroa Zeruko glorian. Amen.

# BERROGEIGARREN DOTRIÑA

*Zeruko Gloriaren gañean.*

Kredoaren esplikazioa bukatzeko etzaku besterik falta, baizik aditzera ematea, zer dan betiko bizitza, edo sekulako bizitza fin gabea; edo beti zorionekoa, edo beti zorigaiztokoa; onaen betiko saria; eta gaiztoen betiko kastigua: batzuen betiko poza, eta gloria: eta besten betiko pena, eta Infernua. Baña, nola, guzia batetan aditzera emateko, denbora asko bear dan: gaur bakarrik esan bear dizuet, al dedan moduan (ez gaiak merezi duan bezela, bada ezin esan alak dira, Zeruko pozak, eta kontentuek:) nolako ondasunak, eta nolako atsegiñak gozaten dituen, eta beti gozatuko dituen, Zerura doazen zorionekoak. Eta errazago kargu egin zaitezten: 1. aitatuko dizuet Zeruairen anditasuna, zabaltasuna, eta edertasuna. 2. Esango dizuet Zerutar guziak alkarrekin duen amorioa, unioa, pakea, eta gozotasuna. Eta 3. gure Jaungoikoa bere anditasun, eta perfekzio guziakin argiro beregan, aurpegiz aurpegi ikusteak anima justuari ematen dion kontentu, poz, eta alegria oso-oso. Eta

4. gorputzak ere izango dituan gloriako doaiak, eta sentidu guzien atsegin guztiz andiak, eta ala animaren, nola gorputzaren gloriaren betikotasuna, edo eternidadea aditzera emango dizkitzuet. Eta Jaungoikoari arren nai dakiola, guziok dotriña onetatik frutu andia ateratzea: eta guziok Zeruko gloriara eramatea.

**G.** Baña, zer frutu batez ere aterako degu Zeruko gloriaren konsideraziotik? **E.** 1. Betiko zorion egiazkoak galdu eragiten dizkiguen pekatuak aborrezitzea: eta orretara ekarten gaituzten munduaren ondasunak, honrak, eta atsegiñak, despreziatzea. 2. Emengo neke, naigabe, eta trabajuak pazienziarekin ezeze, pozik, eta gogotik sufritzea, orien saria aiñ andia, eta ugaria ikusirik: eta 3. birtute guzietan aurreratzeko, eta obra onak egiteko gogoia; eta bizimodu on bat egiteko, eta mandamentu santuak kontuz gordetzeko nekea pozik laztantzea.

1. **G.** Nolakoa da bada lenengo gure Jaungoikoak justuenzat Zeruan daukan bizilekua? **E.** Ezin aditzera eman diteke mundu onetan bear bezela Zeruaren anditasuna, zabaltasuna, eta edertasuna. Eta ala ere nolabait ezagutu lezake, gogora ekarriarekin bakarrik mundu onetan ikusten ditugun, eta arkitzen diran erreinu, eta probinzia guziak, inguratzen dituen itxaso

zabal guziakin, goieneko Zeruairen aldean ozta dirala, bola txiki bat, lur, eta itxaso guzien aldean dan ainbe ere: eta ala, emengo mundu au guzia ezerez bat bezela kontu egin diteke Enpireoa esaten dieben goeneko Zeruairen aldean. Eta ori obeto ezagutzeko, pensa ezazue, zein txikiak dirudien gure begietan, Zeruan ikusten ditugun izarrak: bada ala ere ziertu da, izar bakoitza lur guzia baño andiagoa dala: eta badirala izarrak larogeita amar bider andiagoak diranak lur guzia baño: eta izarrak dauden tokitik batek beeko mundu oni begiratuko balio, ezin ikusiko ere luke, bere txikitasunagatik: ara nola txit urruti dauden gauzak ezin ikusi, eta distingitu ditugu, guztiz andiak ezti-ranean: Bada zein andia, eta zein zabala izango da, ainbeste izar, eta ainbeste toki uts dauzkan Zerua! eta ori ezin konprenditu badegu ondo; nola konprendituko degu izarrak dauden Zeruairen gañean dagoan azkeneko, eta goeneko Zeruairen anditasuna, eta zabaltasuna? Ezta gizonik ori dan bezela imajinatu, eta asmatu lezakeanik. Baña eztezue zer uste, Zeru guztiz andi, eta zabal ura utsik dagoala: Jaungoiko guztiz poderoso, guztiz jakinsu, guztiz aberats, eta guztiz emalle, edo liberal baten jauregi, palazio eta Korteia da Zerua: eta aren Majestade soberanoak

berariaz bere poderio, eta jakinduri neurribagearekin egiña, bere gloria, bere anditasuna, eta bere perfekzio kabubageak atsegiñezko toki artan argitasun guzian agertzeko, eta gozaerazotzeko bere adiskide maiteai, bere humetzat, eta Jesu-Kristoren senidetzat, eta Zeruko erreinuaren herederotzat arturik dauzkan zorionekoai: eta ortik erraz kontu atera dezakezue, nolakoa izango dan Zeruairen anditasuna, argitasuna, eta edertasuna: aiñ andia, ze San Pablo Apostoluak esaten digu, ezin gizonaren adimentuak asmatu, eta imajinatu litzakeala, Jaungoikoak guretzat prestaturik, preparaturik, edo disponiturik dauzkan Zeruko ondasunak. Eta ala munduko Erregerik poderosoenak, aberatsenak, eta jakinsuenak egin dituzten zitudade, eta palazio guztiz andi, eta ederrak, eren urre, zillar, arri preziatu, eta apaindura guziakin, Zeruko anditasun, eta edertasunaren aldean, ezerez bezela dira: eta ikatza elurraren, eta illunpea eguzkiaren aldean bezin beltz, eta itxusi arkituko lirateke: eta ez bakarrik lurrean ikusten ditugun edertasun guziak, baita Zeruairen onuzko kanpo aldean ikusten diran miragarritzko eguzkiaren, illargiaren, izarraen argitasun, eta beste edergarri guziak ezerez bezela dira Zeruairen barruan Jaungoikoak dauzkan edertasun, eta ondasun

zoragarrien aldean: eta orien antzekoak dira ango argitasuna, eta gauza atsegingarri guzien ugaritasuna: milla eguzki alde bakoitzean balitu baño ere argiagoa da: an ezta iñoiz ere gaurik: an ezta neguko, eta udako otz, bero penagarririk: beti da udaberri eder bat bezela: an ezta egualdiaren aldarterik, edo mudanzarik: beti dago tenple, edo sasoi atsegiñezko batean. Eta munduko paradisian Jaungoikoak ipiñi zituan edertasun, eta atsegintasun guziak, Zeruan arkitzen dira: baño mundukoak baño agitz ederragoak, ugariagoak, eta atsegingarriagoak: hitz batean esateko, Jaungoikoaren Majestade soberanoak bere poderio, jakinduri, eta liberaltasun neurribagearekin berariaz bere adiskide maitenzat sortuak, eta egiñak: eta betiko irauteko egiñak. A! nere Kristauak; munduko erbeste, edo destierro triste onetan negarrezko balle, edo ibar miserable onetan, zuen iduripenezko zoriona billatzen dezuenak, jaso itzatzue sarri zuen animako begiak, edertasunez, ondasunez, eta egiazko atsegintasunez beterik dagoan zorioneko bizileku artara, zuen betiko atsedeen, edo deskansu toki izan bear lukean artara: eta etzaitetzteala arren liluratu, eta itxutu emengo ondasun, eta gusto labur engañagarriakin: eta zuek, Kristau onak, Jaungoikoaren legea kontuz

gordetzen dezuenak: humiltasunean, pazientzian, mortifikazioan, eta karidadean Jesu-Kristori jarraitzen diozuenak: eta zuen egiazko zoriona, ez munduan, ezpada Zeruan billatzen dezuenak, poztu zaitezte, alegra zaitezte: bada zuendako izango da, eta betiko izango da atsegiñezko bizileku eder ura.

**G.** Baña bizilekua berez aĩn miragarria, eta pozgarria bada, nolakoa izango da, an bizi diran ainbeste zorionekok eren artean guziak duen amorioa, unioa, eta poza? **E.** Beinik bein ezin kontatu ala dira Zeruko glorian dauden Aingeruak eta santu, edo justuak: Aingeruak bakarrik munduko beste kria-tura guztiak baño agitz geiago dira: eta santuen zenbatezeoa, edo numeroa guztiz miragarria eta arrigarria da: martirioa padezitu zuen santu jakiñak bakarrik amazazpi milloi, edo alako milla bider milla baño geiago dira: eta onek dira gutxienak: Konfesoreak, Birjiñak, eta ezkonduak agitz, eta agitz dira geiago. Eta ainbeste izanik guziak dira alkarren ezagunak, alkarren adiskide guztiz fiñak: guziak Jaungoikoaren seme-alaba maiteak: Jesu-Kristoren senideak, eta betiko erreinuaren jabeak: guziak Erregeen antzekoak: bada ala ikusi zituan San Juan Ebanjelistak bere errebelazioan, koroak buruetan zituela: guziak dira guztiz jakinsuak, an eztago jakine-

zik, edo ignoranziarik batere: aur txiki ill ziranak ere gauza guziak dakizkite: eta Jaungoikoagan ikusten dituzte: guziak dira guztiz nobleak, guztiz zinzoak, edo prudenteak, guztiz kortesak, edo atentoak, guztiz diskretoak, bada, len izan zituen falta guzietatik garbiturik, eta libratu daude: eta kalidade on guzien jabe daude: an ezta alkarren enbidiarik: eta gloriako grado diferenteak izan arren, alkarren karidade, eta amorioak guziak bat egiten ditu: eta besteren gloriak ainbeste gozaten dira, nola erenaz. Nolako poz, atsegina, eta kontentua izango da bada ainbeste milloi Aingeru, eta santu ezagun, eta adiskide maite edukitzea? eta guziakin, eta batez ere gure izeneko, eta deboziozko santuakin, gure aparatzalleakin tratatzea? Apostoluakin, Martiri Santuakin, Elizako Erakusle, edo Doktore guztiz jakinsuakin, bere adiskide mami, edo biotzekoakin bezela komunikatzea, hitz egitea, eta konfianza oso batekin tratatzea? baña guzien gañean tronu berezi batean dagoan Maria Birjiña Santisimarekin, Zeruko Erregiña, eta guzion Ama guztiz biguñ, eta guztiz maitagarriarekin, gure Ama propioarekin bezela tratatzea, eta aren edertasun, eta gloria paregabea ikustea zer poza, eta atsegiña izango da? Eta oraindio geiago alegratzen, poztutzen, eta konsolatzen ditu



zorioneko aek guziak eren Erredentore, Salbadore, Maisu, eta guzien Errege Soberano Jesu-Kristoren gizatasun, edo humanidade guttiz santa, gugatik ainstesteraño humillatu zana nola dagoan Trinitade Santisimoko bigarren persona Jaungoikozkoarekin uniturik ikustek: eta aren anima santisimak eta gorputz guttiz preziatuak gozaten dituen kabubageko gloriako ondasunak kontenplatzeak: ikusten due alabaña, nola dagoan bere Aita Eternoaren eskuian, Jaungoiko bezela Aitak, eta Espiritu Santuak duen betiko, eta kabubageko gloria berdin, edo igoal gozaten eta gizon bezela, Aingeru, eta Santu guziak baño gloria agitz andiagoa gozaten: eta Jesu-Kristoren gloriak, eta Ama Santisimaren, eta Aingeru eta Santu guzien gloriak ez tira gutxiago poztutzen, eta alegratzen erenaz baño: bada, esan dizuedan bezela, karidadeak, edo alkarrekiko amorioak gauza guziak komun egiten ditu: Eztezue ikusten guraso batek duen poza bere humea honraturik eta altxaturik dakusanean? Eta orobat hume onak duen atsegiña bere guraso maitea estimatua, distingitua, eta guziak maitatua ikusten duenean? Eta ori zerk egiten du? Alkarrenak izateak, eta alkar maite izateak: bada zerutarrak esateko moduan anima bat, eta espiritu bat due, eta alkarri

dioben amorioa infinitamente andiagoa, biziagoa, eta fiñagoa da guraso-humen artean, eta senar-emazte maiten artean, eta adiskiderik laztanenaen artean arkitu ditekeana baño: Nolakoa izango da bada Zerutarrak alkarri komunikatzen dioben poza, kontentua, eta gozotasuna? bada bakoitzak bere gloriak gañera, beste guzientz orobat gozatzen du, egiazko karidadearen bitartez, eta birtutez. Eta ala N.K. zorioneko lagun maite aekin bizi nai badegu Zeruko erreinuan; orain batez ere alkarrekiko karidade, edo egiazko amorioa gere biotzetan eduki bear degu, eta gere obretan erakutsi, edo agertu bear degu: bada guziok gure Aita Jaungoikoaren humeak, eta Jesu-Kristoren senideak, eta Zeruko herederoak gera: eta karidade-rik emen ezpadegu, Zeruan guretzat lekurik izango eztegu: baño karidadean, au da, Jaungoikoaren, eta projimoaren amorioan bizi bagera; guretzat izango dira Zeruko ondasun, eta kontentu guziak: eta orien artean andiena, prinzipalena, guzien gañekoa animaren gloria esenziala egiten duena, eta gure anima oso-oso ase, eta kontentatuko duena, orain aitatu bear dizuet.

**G.** Zein da bada gloria esenzial ori? **E.** Aingeru bat, edo Santu bat Zerutik etorriko baliz ere ori esplikatze-

ra, ezin berez dan bezela aditzera emango likezue: ikusi bage, eta gustatu bage ezta iñor ere gai, edo kapaz mundu onetan ori ezagutzeko; eta are gutxiago ikusi eztuanari aditzera emateko. Hitz batean erraz esaten degu: Jaungoikoa bera bere argitasun guzian ikustea, eta Jaungoikoaren beraren gloriar gozatzea, dala anima zorionekoaren gloria esenziala. Baña ori nolabait adituko badezue, hitz askorekin, eta zeeago esan bear degu: eta ojala ala ere aiñ gauza altua, miragarria, eta gozoa, apur bat baizik ezpada ere, ezagutu al bagenza, eta gloria artzaz zaletuko bagiña, eta billatzen degun baño gogotiago billatuko bagen-du. Gure animaren zorionik, eta gloriarik andiena, osoro kontentatuko, eta aseko gaituana: eta iñoiz ere azpertuko ez gaituana, baizik beti berri, eta beti gozo izango dana da, gure Jaungoikoarekin berarekin unitu-rik, laztandurik, eta bat egiñik betiko egotea izan dite-kean uniorik atsegiñezkoenarekin, garbienenarekin, eta maitagarrienarekin. Eta unio, eta gozamen miragarri ori dator Jaungoikoaren izate soberanoa beregan dan bezela ikustetik. Munduko gauzak ikusi arren, ez gera aen antzekoak egiten: Errege ikusi arren, ez naiz Erre-ge egiten, eta eztet aren Erregetasunaz gozaten: gauza ederrak ikusi arren, ez naiz geiago edertzen:

baña gure Jaungoikoaren izatea, aren esenzia, au da Jaungoikotasuna, edo Jaungoikozko naturaleza, da ondasun aiñ neurribagea, aiñ kabubagea, eta aiñ infinitamente maitagarria, nun beregan, berez dan bezela, gloriako argitasunarekin ikusten duen anima, beregana tiratzen du, berarekin unitzen, bat egiten, eta laztanzen du alako moduan, nun gelditzen dan anima Jaungoikozkoa egiñik, Jaungoikoaren naturalezaren partizipante egiñik. *Divinae consortes naturae*: eta Jaungoikoaren beraren antzekoa egiñik. Eta au guzia aditzera eman zigun San Juan Ebanjelistak esan zue-nean: badakigu Jaungoikoa bere glorian ikusten degu-nean, beraren antza, edo semejanza izango degula: bere antzekoak egingo gaituala: zerren beregan dan bezela ikusiko degu: (*Joan. 13*) Ara nola burnia surtan goritzen danean, aiñ dago suzkoa egiñik, nun eztirudin burnia, ezpada sua, eta suak bezela argitzen du: berotzen du: erretzen du: eta suaren propiedade guziak dauzka, alaxe kontu egin dezakegu, Jaungoikoarekin Zeruko glorian uniturik dagoan anima, dagoala guzia Jaungoikoaz beterik, eta Jaungoikozkoa egiñik: guzia Jaungoikoaren amorioan irazakirik: eta nola Jaungoikoa dan kaburik eztuen ondasuna, eta ondasun guzi-guziak beregan dauzkana, alako moduan

asetzen, kontentatzen, alegratzen, eta poztutzen da anima zorionekoa, nun etzaion gelditzen zer geiago deseatu: jakin nai duen guzia bertatik, eta txit argiro dakus: emen fedearekin ikusi bage, eta illunpean bezela sinisten zituan misterio guztiz altuak, ezin iñork munduan, diran bezela ezagutu, eta konprenditu zitzakeanak, Zeruko glorian batere belo bage, argitasun guzian ikusten ditu. An argiro, edo txit klaru ezagutzen du Jaungoikoaren izate soberanoa: aren betikotasuna, edo eternidadea: aren poderio, edo guzia altasun neurribagea: aren jakinduria eta probidenzia kaburik eztuena: aren ontasun, eta santidade infinitoa: aren miserikordia, eta justizia guztiz zuzena: aren edertasun guztiz miragarria, eta zoragarria: eta orobat Jaungoikoaren beste perfekzio, eta anditasun paregabeak, eta kabubageak. An dakus argiro, nola Jaungoiko bakar bat izanik, Jaungoikotasun bakar batean dauden iru persona diferenteak: Aita Eternoa, Seme Eternoa, eta Espiritu Santu Eternoa: an ikusten du guztiz argiro, nola Jaungoikoak ezerezetik egin zituan kriatura guziak: eta batez ere Aingeruak, eta gizonak: au dakus argiro, nola izan zan Aingeru soberbioen pekatua, eta aen kondenazioa: eta orobat nola izan zan gure lenengo gurasoen, Adan, eta Ebaren

pekatua, eta aren kalteak: eta nola onen erremediara-  
ko, eta gizon pekatariak deabruaren katiberiotik ater-  
ratzeko, Aita Eternoaren Semea, Trinitate Santisimo-  
ko bigarren persona, Jaungoiko egiazkoa zana, gizon  
egiazkoa egin zan, Jaungoiko, eta gizon gelditzen zala;  
misterio guztiz miragarri orri darraizkan fedeko beste  
misterio guziakin: eta ala Zeruan eztu fede bearrik; ez  
eta esperanza bearrik ere: bada ikusi bage emen  
sinisten zuena an ikusten kago: eta esperatzen zituan  
Zeruko gloria, eta betiko ondasunak gozaten dago:  
eta guziok degun jakiteko deseo bizia aserik, konten-  
taturik, eta beterik dauka zorioneko animak: bada  
Jaungoikoagan, ispillu guztiz argi batean bezela, jakin  
nai zituan gauza guziak ikusten ditu; eta ez bakarrik  
fedeari dagozkan gauza espiritual, eta naturalezaz  
gañekoak ikusten ditu, baita ere Jaungoikoak egin  
dituan naturalezazko obra miragarriak argiro ezagu-  
tzen ditu: eta munduko jakinsuak eren estudio luze,  
eta konsiderazio nekagarriakin ezin ondo konprenditu  
zituen naturalezaren sekretoak, an argiro ikusten  
dago: alako moduan, nun nekazari pobre, eskola, eta  
estudio bageak, Jesu-Kristoren dotriñako egiak ikasi,  
sinistu, eta aekin batera bizi izan zanak, jakinduri  
geiago dauka Zeruan, munduko Filosofo, eta Teologo

Jakinsu guziak emen izan zuena baño: ainbesteraño, ze, Salomon jakinsua bera, Aristoteles famatua bera, eta munduan izan diran Maisurik, eta Doktorerik andienak, jakiñez, edo ignorante batzuek bezela dira Zeruan dagoan edozeiñ anima zorionekoren aldean: bada onek jakin al zuen, edo bere zorionerako zegokion guzia argiro dakus Jaungoikoagan: eta ikuste miragarri orri darraio Jaungoikoaren amorio aiñ bizia, irazekia, eta abrasatua, nun anima zorionekoa dago guzia amoriozko su bat egiñik: bada al duen amiorik andienarekin amatzen du bere Jaungoikoa, bere Aita guztiz maitagarria bezela, bere ongille guztiz andia bezela, bere esposo, eta adiskide maitea bezela; bere egille, jabe, eta bere azkeneko fin soberanoa bezela: bada titulo oriek guziok, eta kaburik eztuen perfekzioak Jaungoikoagan ikusten ditu: eta ezin arrezkero egon diteke Jaungoikoa bere indar guziakin amatu bage: zerren ondasun guzien gañeko ondasun soberanoa ikusteak nai ta ez berekin dakar betiko amorio irazeki ori: Jaungoikoa, eta anima zorionekoa bata bestearekin gozoro uniturik dauzkana: eta ortik datorkio alegria bat, poz, eta atsegin bat aiñ andia, eta aiñ miragarria, nun ezin iñola ere mundu onetan aditzera eman diteke: bada munduko amorio guziak, eta aei

darraien konsueloak, aren aldean eztue amorioaren, eta konsueloaren izenik merezi: eta argatik Jesu-Kristok bere serbitzari leialari esaten dio: *infra in gaudium Domini*, sar zaitez zure Jaunaren beraren atsegintasunean, gozotasunean: esan nai du: goza ezazu Jaungoikoaren beraren gloriatz, eta berak duen betiko atsegiñaz. Eta zerk egiten du Jaungoikoaren beraren gloria, eta atsegiña? Bere izate infinitamente perfektoa, eta bere kabubageko edertasuna beti kontenplazten egoiteak: gloria andiagorik Jaungoikoak berak ere ezin izan dezake; bada gloria ori bera gozazten dago zorioneko anima, eta diferentzia dago bakarrik gozatzeko moduan: Jaungoikoak, gure esateko moduan, osoro konprenditzen du, eta ezagutzen du bere izate guzia kabutik kabura, neurririk, eta kaburik eztuen bere adimentu Jaungoikozkoarekin: baña zorioneko animak ezagutzen du, eta ikusten du, Jaungoikoak ematen dion argitasunaz konforme, geiago, edo gutxiago bakoitzaren graziari, eta arekin irabazi zuen gloriari dagokion moduan: eta orretan eztira guziak berdin, edo igual; baña guziak daude kontentu, len esan dizuedan bezela: eta adorazten, eta alabatzen due gure Jaungoikoaren kabubageko zuzentasuna, eta liberaltasuna bere gauza guzietan: eta dauzkate eren



adimentua, eta borondateak beren zorioneko ditxa, eta betiko felizidadeaz gozatzen; okupaturik beti Jaungoikoa argiro ezagutzen, ikusten, amatzen, eta alabatzen. Eta orobat zorioneko animak dauka bere memoria, edo oroimena alde guzietatik atsegiñez betetzen duen gauzaz akordatzen: ezin aztu du bere Jaungoikoa, bada beti presente dauka: etzaio penarik eman leikion gauzarik akordatzen: eta bai poztutzen due gogoratzen dituan lenagoko gauza igaroak, bertakoa, eta gerokoak: oroitzen, edo akordatzen da poz andiarekin Jaungoikoari zor izan ziozkan mesede, edo fabore guztiz andiaz: Jaungoikoagatik eraman zituan neke, eta trabajuaz: goitu zituan tentazioaz: eskusatu zituan arrisku, peligro, eta okasio gaiztoaz, nun beste asko erori, eta galdu ziran: eta nola libratu zan betiko Infernuko kondenaziotik: bere pekatuen memoriak ere nolabait poztutzen du, ez egin zitualako; baña bai egiazko penitenziarekin desegin zitualako, Jaungoikoak orretarako eman zion graziarekin, eta egin zion miseriardiarekin: bada eztue gutxiago poztutzen, eta alegatzen bertan gozatzen dituan ezin esan al bezelako atsegiñak, eta oriek eternidade guzian gozatuko ditualako seguridadeak: iñoiz ere nekerik, naigaberik,

trabajurik, gaitzik dan txikiena ere an izango eztuela-ko poz guztiz andiarekin.

**G.** Eta nolako poza izango da N.K., gure animarenzat, ez bakarrik bere gloria esenziala, edo Jaungoikoa ikustea, eta beraz gozatzea betiko seguraturik idukitzea; baizik bere lagun maite bere gorputzarenzat betiko zoriona, betiko atsedena, edo deskansua, eta betiko kontentuak seguraturik edukitzea? Neke guzietatik, eritasun guzietatik, eta eriotzatik beti libre edukitzea: eta ez ori bakarrik, baizik izan al ditezkean atsegiñ guziak gozaten idukitzea? Zenbat alegin egi-ten eztituzue orain N.K.; (eta bearbada zuen kaltean) zuen begiai, zuen belarriai, zuen sudurrai, zuen gustuari, eta zuen ukitzeari atsegin emateko? Eta ala ere ezin guziak gozatu dituzue; eta ezin luzaro gozatu ditzaketzue: baña Zerura joateko zoriona badezue, zuek aiñ maite dezuen gorputz ori, eta bere sentidu guziak edukiko dituzue atsegintasunez beterik: Baña nolako atsegiñak? guztiz garbiak; guztiz zoragarriak, eta iñoiz ere bukatuko eztiranak. Gorputza, beraren erresurrekzioko dotriñan esan nizuen bezela, egongo da eguzkia baño argiagoa, espirituaren antzekoa egiñik; eta pensamentua bezela noranai laster joateko guztiz ariña: nundik-nai batere enbarazo bage igaro-

tzeko gai, edo kapaz: eta ezerk ere miñik, eta nekerik ezin eman deikion gisakoa: Eta bost sentiduak nolako atsegiñak izango ditue? Begiak ezin aspertuko dira Zeruko edertasun miragarriak beti ikusten: eta batez ere Santu guzien gorputz gloriosoak; Ama Birjiña Santisimarena, eta guzien gañean Jesu-Kristoren gorputz guztiz glorioso, eta guztiz ederra ikustearekin, eta beti aurretik edukitzearekin, ezin esan al baño atsegin andiagoa izango due. Job Santuak anziñako denboretan zuen konsuelo andia, bere naigaben artean, zan, bere gorputzeko begiak noizbait, bere Erredemptorea, edo munduko Salbadorea ikusiko zuelako esperanza irmoa, eta segurua: eta orain zorion ori gozitzen dago Zeruan. Belarriak orobat atsegiñ guztiz miragarria izango due, ainbeste milloi Santuren, eta Maria Birjiña Santisimaren, eta Jesu-Kristoren beraren hitz guztiz gozoak, jakinduriz, eta santidadez beteak adituarekin; Jaungoikoari guziak ematen diozkaten alabanzak enzunarekin: eta ango kanta, eta musika guztiz gozo, eta suabeak, iñoiz ere aspertu bage, aditzen daudela: alako moduan, ze, ango boz bat bakarrik emen adituko bagendu, bera lizate asko, gregandik ateratzeko, eta txoraturik bezela edukitzeko, errebelazio batzuetan irakorten danez: bada sudurrak ere

badue an beren atsegin guztizkoa ango usai gozoakin: eta ez gutxiago gustoak; bada jan bearrik, eta edan bearrik an ezpadue ere, beti bizitzeko, janaririk, eta edaririk gozoenak eman al baño gusto, eta gozo andiagoa Jaungoikoak ematen die, nolakoa dan emen ezin aditzera eman badegu ere: eta orobat ukitzeak, edo taktoak atsegiñtasun guztiz miragarriak izango ditu; munduan izan al ditezkean guziak baño gozoagoak, eta suabeagoak. Eta ala gorputz guziak, eta senti du guziak egongo dira beti atsegiñ guztiz andiz beterik: eta iñoiz bukatuko, edo akabatuko eztiralako konsuelo, boz, eta alegria guztiz miragarriarekin.

**G.** Nolakoa izango da bada, diot berriz N.K., anima zorionekoaren poza, beretzat, eta bere gorputzarentzat alako ondasunak, eta alako atsegiñak eternidade guzirako, seguraturik dauzkalakoa? Munduko Erregetasunak, ondasunak, eta atsegiñak beti goza al bazinza, usteko zenduke, zure zorionaren parerik ezin izan ditekeala: ala ere itxuturik, eta engañaturik egongo ziñate: bada zorion orrek ezin zure biotza osoro ase, eta kontentatuko luke: zerren gure egiazko atsedena, eta kontentua eztago lurrean, ezpada Zeruan. Eta badakizu munduko zorionik andienak duela mingarri bat, atsekabe bat guztiz penagarria, eta da, nai ta ez,

denbora gutxikoa izatea, bukatu bearra, nai ta ez galdu bearra: baña Zeruko gloriak zure biotza gañez egiteraño osoro ase, eta kontentatuko du: eta iñoiz ere bukatuko ezta, iñoiz ere galduko eztezu: iñoiz ere gutxituko ezta, beti-beti osoro gozatuko dezu: igaroko dira ezin kontatu al baño urte geiago: munduaren asieratik onera erori diran euri tanto ainbe baño urto geiago: oraindaño munduan sortu diran, eta aurrera sortuko diran gari bikor baño urte geiago: eta beti berri, beti oso egongo da zure poza, eta zure gloria. Jaungoikoa bera dan arteko: au da eternidade guzian zorionekoa izango zera: eta gaitz guzietatik beti libre arkituko zera: bada hitz batean guzia esateko Zeruko gloria da, ondasun, eta atsegin guzi-guziak beti gozaten egotea: eta gaitz guzietatik beti libre egotea: eta kontrara infernuko pena da, ondasun, eta kontento guzi-guziak bere kulpaz betiko galdu ditualako pena arrigarria; eta gaitz mota guzi-guziak beti sufritzen egon bearra, iñoiz ere alibiorik izateko esperanza bage.

Piztu ezazue bada arren N.K., zuen fedea: konsideratu itzatzue astiro (ondo bizi, eta egiaz zorionekoak izan nai badezue) gure Jaungoikoak zuenzat dauzkan betiko gloria, eta ango ondasun estimagarriak. Aditu

dezue Zeruko bizilekuaren anditasuna, eta edertasuna: Zerutar guziak alkarrekin duen adiskidetasuna, unioa, pakea, eta alkarri komunikatzen dioben alegria, eta gozotasuna: eta gure Jaungoikoa bere Majestade, anditasun, eta edertasun guzian aurpegiz aurpegi argiro ikusteak zorioneko animari ematen dion kontentu, poz, eta alegria oso-oso: eta nola adimentua, borondatea, eta memoria dauden ia Zeruan eren azkeneko, eta zorioneko ditxa, eta felizidade guzia gozaten, eta gorputzak ere nolako atsegiñak betiko izango dituen. Abiatu gaitezen bada, N.K., gero izango degun zorioneko lana bertatik egiten: au da, alegiñ guziak egin ditzakun egunoro, eta geiago gure Jaungoikoa ezagutzeko; beraz, eta egin dizkigun mesede guztiz andiaz, eta oraindio Zeruan egin nai dizkigun andiangoaz sarri akordatzeko: eta aren Majestadea gure animako indar guziakin amatzeko; eta beragatik gure lagun urko, edo projimoak gere buruak bezela amatzeko, eta estimatzeko. Orra N.K., hitz gutxitan Zeruko gloria seguratzeko Jesu-Kristok erakutsi zigun bide guztiz zuzena, eta bide bakarra: baña bide ori, Kristau onarentzat guztiz biguñña, ariña, eta atsegiñgarrria bada ere, pekatari arro, amorio propioz beterik, eta biziora oiturik dagoanarentzat, nekeza, latza, eta

gogorra da. Eta zer erremedio? *Violenti rapiunt Celum*: indar egiten duenak Zerua arrapatzen due. Nagienzat, alperrenzat eztago Zeruko gloriarik. Jesu-Kristok berak esaten digu: aren ondoren Zerura nai badegu, gere borondate gaiztoa ukatu bear degula: egunoroko gere gurutzea jaso bear degula: eta berari jarraio bear diogula. Eta ori guzia egitera nola jarriko da, gaizki oiturik dagoana? Fedeko egia andiak sarritxo konsideratuarekin, orazio humilla egiñarekin, au da, Jaungoikoari berari artarako bere laguntasuna, eta indarra gogotik eskatuarekin: eta bere pasio, edo griña gaiztoak ezitzen arituarekin. A! zer pakea iritsiko duen bertatik ori benetan egiten duenak: eta nola-ko gloria gero izango duen Zeruko erreinuan. Jaungoikoak digula bada arren orretarako bere grazia, eta gero betiko pakea, eta deskansua. Amen.

# **BERROGEITA BATGARREN DOTRIÑA**

*Infernuko penaen gañean.*

Zeruko gloriaren konsiderazioa, birtuteari, edo bizimodu on bati darraizkan Kristauenzat da guztiz gozoa, atsegingarria, eta probetxugarria: zerren zorion infinito ura iristeko, edo alkanzatzeko esperantzak, eta deseoak agitz alaiatzen, animatzen, eta indartzen ditu Zeruko bidean arkitzen dituen nekeak pozik sufritzera: eta eren pasioak, edo griña gaiztoak eskuratzera: bada Infernuko betiko penaen konsiderazioa guzionzat, eta batez ere Kristau burugorrak, eta pasio biziak, edo moldakaitzak dituenen zat, agitz da eragilleagoa, eta indarsuagoa: zerren gure amorio propio erabagea, errazago edo obeto goitzen, eta eskuratzen da, kastigu andi baten bildurrarekin, ezez sari andi baten esperanzarekin; eta nola gure Jaungoikoak guziok beraganatu, eta salbatu nai ginduzke, baña indarrik gure libertadeari egin bage: gure borondatea irabazteko, eta pekatuari larga eragiteko, eta birtutea laztandu eragiteko, bide guztietatik balia-



tzen da: eta ala bildurrezko motibo guztiz andiak txit sarri Eskritura Santuan gogora ekarten dizkigu gu ondutzeko, eta salbatzeko: eta ala ere zenzatu nai ezpagera, eta gure Aita onari, eta ongille guztiz andia-ri bezela amorioz obedezitu nai ezpadiogu, gure juez justuak bezela, arrazoiak, eta justiziaz betiko kondenatuko gaitu, ondo merezi izan degunak bezela, kejarik batere emateko biderik gelditzen etzakula. Jaungoikoari atsegin emateagatik bada, N.K.: eta gere buruak betiko ez galtzeagatik, zenzatu gaitzen arren guziok: eta sarri gogoan erabilli dezagun, ez bakarrik Jaungoikoaren ontasuna, errukia, piedadea, eta miserikordia, esker onarekin egin dizkigun mesede guztiz andiai erantzuteko; baita ere Jaungoikoaren justizia, eta zuzentasuna, pekatuari dion gorroto guztiz arrigarria, eta aren aserre justuak esker gabenzat, pekatan gogortzen diranenzat, prestaturik daukan betiko kastigu izugarria: eta aiñ arrigarria, ze nola Zeruko gloria dan ondasun, eta atsegin guziak beti gozatzen ego-  
tea, iñoiz ere galtzeko bildurrik bage; ala Infernuko betiko pena da, izan ditekean tokirik penagarrienean, etsai amorratuen artean, betiko zoriona galdu duela-ko damu, eta tristura doloregarri, eta arrigarri batekin; kaburik izango eztuen tormentu, oñaze, eta gaitz

mota guziok sufritzen egotea, iñoiz ere alibiorik bate-  
re izateko esperanza bage. Eta ona, hitz gutxitan, zer  
dan Infernuko pena, iñoiz ere bukatuko eztana: baña  
obeto kargu egin zaitezten, eta zuen biotzetan obeto  
sartu dedin pena orren bildur andi bat, eta pekatuaren  
gorroto andiago bat, zeago esan bear dizuet. 1. Infer-  
nuko tokia, eta ango lagunak nolakoak diran. 2. Anima  
kondenatuak sufritzen dituan penak nolakoak diran. 3.  
Gorputzak ere juizio jenerala ezkerro, izango dituen  
tormentuak, eta oñazeak ezin arrigarriak diran: eta 4.  
nola pena oriek guziak beti-beti iraungo duen: eta zer-  
gatik Jaungoikoak eternidade guzirako pekatariak,  
agrabiorik batere egin gabe, justizia guziz zuzenarekin  
kondenatzen dituan. Atenzioa eskatzen dizuet N.K.:  
eta Jaungoikoari arren nai dakiola guziok argitzea, eta  
benetan gure biotzak ukitzea.

1. **G.** Zer da bada Infernua? Eta nolakoak dira an  
dauden lagunak? **E.** Infernua da, lur-pean Jaungoikoa-  
ren justiziak, munduaren asieratik paratu, edo presta-  
tu zuan toki bat guziz illuna, eta ikaragarria: guzia suz,  
garrez, eta kez beterik dagoana: iñundik argirik sar-  
tzen etzaiona: eta ala ere an dauden guztiak alkar  
ikusteko diña argi illun daukana: eta ango sua da,  
Jaungoikoak berariaz an sortua, iñoiz ere itzaltzen,

edo emendatzen ez tana: beti erretzen duena: eta Jaungoikoaren justiziaren Borrero, Ministro, edo instrumentuak bezela, kondenatu bakoitzari, bere pekatuak dagokien neurrian eren tormentu, edo kastigu justua ematen diena: zenbat pekatu geiago, eta andiagoak batek egin zituan, anbat geiago erretzen du, eta tormentatzen du: baña, badakizue, pekatu mortal bat bakarrik asko dala, betiko su izugarriaren tormentua merezitzeko: eta soberbiazko pekatu mortal batean konsentitu zuelako, daude ainbeste milloi Aingeru eder ziranak, Deabru, edo Demonio egiñik, eta Infernuko su ikaragarri artara kondenaturik: bada Infernuko suak Jaungoikoak berariaz eman dion indar, edo birtute miragarri batekin, ez bakarrik erretzen ditu gorputzak, baita erretzen, penatzen, eta tormentatzen ditu espirituak, eta animak: eta aiñ bizia, aiñ indarsua, eta aiñ eragillea, eta erretzallea da Infernuko sua, nun munduko surik bizienak, eta andienak Santuak erakusten diguenez pintatuak bezela dira Infernuko suaren aldean. Zuek karobi irazeki batean ikusiko bazendue zuen ezagun bat, edo beste edozein erretzen, eta oñazez ler, eta eztanda egiten dagoala, ezin illik, eta sentidu guziak beti bizirik dauzkala; errukituko ziñateke, larrituko ziñateke, eta al bazendue,

andik len baño len ateratzeko alegin guziak egingo zinduzke: bada Infernuan erretzen dana, karobi iraze-ki batean baño su biziagoan dago: beti erretzen, kiskaltzen, penatzen, eta oñazearen pasioz eztanda egi-ten dago, eta ala egon bear du eternidade guzian: eta ezin iñork andik atera dezake; eta ezin alibiorik dan txikiena ere eman leikio: eta Ebanjelio Santuak berak esaten digu; Infernuan erretzen zegoan aberats guti-zioso zorigaiztoko ark, Abran Patriarkari erregutzen ziola, arren bidaldu zegiola Lazaro pobre izana, baña santua, Abranen senoan zegoana, beatz punta bat urtan bustirik, aren mingaña ukitzera, eta sugar pena-garri artatik zerbait alibiatzera: gauza txikiagorik ezin eskatu zezakean: etzuan eskatzen pitxar bat ur, ez eta esku guzia ondo bustirik, arekin ukitzea ere; baizik beatz punta bat bakarrik bustirik, aren ukitzeak baka-rrik eman zeikion alibio guztiz laburra: baña ori ere etzuan iritsi, ori ere ukatu zitzaion. Eta ortik kontu atera ezazue N.K.: nolakoak diran Infernuko su izuga-rri ark ematen dituan pena, oñaze, eta tormentu arri-garriak; eta nola orien aringarririk, edo alibiorik iñoiz ere ezin iritsiko duen: eta ori fedeko egia izanik, nola arkitzen dira ainbeste Kristau sinistuko ezpalue beze-la, pekatu mortalean ardurabage bizi diranak? Ori

dator N.K., pasio gaiztoen itxumenetik, eta konsiderazioaren faltatik. Piztu dezagun bada arren gure fedea: gogora sarri ekarri dezagun Infernuko toki izugarri ura, eta ango su ikaragarria, iñoiz ere itzaliko eztana, eta beti kondenatuak erretzen, kiskaltzen, eta tormentatzen dagoana: eta zenzatu gaitezen betiko zorigaiztokoak izan nai ezpadegu.

**G.** Eta an dauden zorigaiztoko lagunak nolakoak dira? eta bata besteari alibiorik, edo konsuelorik ematen ote diobe? **E.** An daudenak dira Deabru, edo Demonio izugarriak: Jaungoikoaren, eta gizonaen gorroto bizian dauden etsai amorratuak; Jaungoikoa betiko galdu duenak: Jaungoikoaren betiko aserrear daudenak: eta ala demonioak, nola beste kondenatuak beti alkarrekiko gorrotoan daude: an ezta pakerik: an ezta adiskidetasunik: eta mundu onetan adiskiderik maiteenak izan ziranak, eta alkarri pekatu egi ten lagundu zienak, dirade eren artean etsairik amorratuenak: eta bata besteari beti birauka, edo maldi zioka daudenak. An gurasoak, eta humeak, senar-emazteak, alkarri Zeruko gloria irabazten lagundu bear ziobenak, baña bata besteari pekaturako bidea eman zienak, eren eskandalo, aserretasun, eta eragabeko bizimoduarekin, alkarren betiko gorroto bizian

daude: eta alkar beti madarikatzen ari dira. A, zer diferentzia arrigarria N.K. Zerutarrak izan ditekean tokirik atsegiñezkoenean, eta lagun guztiz Santu, eta maitagarrien konpañia gozoan beti: eta kondenatuak beti izan ditekean tokirik penagarrienean, eta beti etsai amorratuen artean: beti erretzen kanpotik, eta barrundik: eta beti desesperatuak bezela alkar mada-rikatzen! Autu ezazue bada orain N.K., zein toki, eta zer lagun betiko nai dituzuen: baña egiten dezuen aukera benetan aseguratzeke, neurriak gogotik artu itzatzue. Penitentzia egiazkoa, eta bizimodu berria nai ta ez bear dezue: eta orretako laguntasuna Jaungoiko-ari sarri eskatu; eta zuen eragabeko pasioak, eta aztu- ra gaiztoak eskuratzeko alegin biziak, au da indar egin bear dezue: bada bestela Infernura jatxi bearko dezue, eta esan ditugun betiko penak, arrigarriak, eta ikaragarriak badira ere, oraindio agitz andiangoak dira eternidade guzian sufritu bearko dituzuenak, ala ani- maren aldetik, nola gorputzaren aldetik.

2. **G.** Anima kondenatuak Infernuan sufritzen dau- den penak nolakoak ote dira? **E.** Ori ondo ezagutuko, eta biziro sinistu, eta konsideratuko bagendu, asko genduke pekaturik batere ez egiteko, eta munduko neke guziak pozik sufritzeko: eta guk emen ezagutu

al, eta esan al baño geiago, eta arrigarriagoak badira ere; diot Elizako Doktore, edo maisu andi Santo Tomas de Akinorekin batera, bi modutakoak dirala anima kondenatuaren penak: batari deitzen zaio kalteko, edo dañuko pena: eta besteari sentiduko, eta oñazeko pena. Eta biak dagozkio justamente pekatu mortaliari: zerren pekatu mortal egiten duenak, gauza itxusi bi egiten ditu. 1. largatzen du, uzten du, despreziatzen du, eta injuriatzen du Jaungoikoaren Majestadea, bere jabe soberanoa, bere egillea, bere atsedena, gloria, eta zorion guzia bakarrik egin zezakeana: eta 2. bere gusto guzia, bere borondatea, eta bere gogo, eta amorio guzia ipintzen du kreatura bategan, naiago duela Jaungoikoaren borondatearen kontra, edo honra, eta anditasun bat, edo ondasun, eta interes bat, edo gusto, eta atsegin loi zikin bat. Eta ala kreaturea bategatik Kreadorea bera usten, eta despreziatzen duelako, arrazoiak, eta legez merezi du Kreadoreak betiko larga dezan, utzi dezan, eta bere zorioneko bistatik, eta konpañiatik betiko bota dezan, eta desterratu dezan: eta orobat Kreadorearen injuriarekin, eta desprezioarekin kreaturetan bere amorio guzia ipiñi duenak merezi du, kreatura guziak aren kontra altxatu ditezen, eta gaitz mota guziakin kastigatu, eta

penatu ezen. Baña nork bear bezela ezagutu, eta aditzera eman lezake zer dan Jaungoikoa betiko galtzea: eta zer dan beti penatzen, eta gaitz mota guziak beti sufritzen egotea? Eta orra ala ere, nolabait orain aditzera eman bear dizuedana. Eta 1. Diot, Jaungoikoa betiko galtzea dala animaren penarik andiena: Jaungoikoaren gloria, eta aren izate, eta edertasun neurri-bagea, eta guztiz maitagarria iñoiz ezin ikusi izatea: eta animarentzat Jaungoikoak zeuzkan kabubageko ondasunak, atsegiñak, eta kontentuak betiko galtzea da tormentu guzien tormentua, pena guzien pena: Infernuko oñaze guziak baño penagarriagoa, eta mingarriagoa. Baña bearbada batzuok esango didazue: guk Jaungoikoa ikusten eztegu; eta ala ere esateko penarik eztegu: Nola bada izan diteke pena guzien andiena, guzien gañekoa, guzien azgarria; eta beti surtan erretzen egotea baño andiagoa, eta miñagoa Jaungoikoa ezin iñoiz ikusi izatea, eta betiko galtzea? Egia esango zenduke, orain zaudeten illunpean, eta itxumenean beti egon bear bazendue: gorputzeko kartzela onetan gauden artean, itxuak, eta satorrak bezela gaude: baño ozta anima gorputzetik irteten da, argiro, edo klaru ikusten du Jaungoikoarenzat egiña dala: Jaungoikoagan bakarrik bere zorion guzia, betiko



ditxa, eta felizidade guzia, eta kaburik eztuena arkitzen dala: uraxe dala aren zentroa, aren azkeneko, eta zorioneko fiña, edo paraderoa: eta bestetan ezin arkitu dezakeala sosegurik, atsedenic, eta deskansurik: eta bere indar guziarekin bereala nai luke bere zentrorra eldu: goserik, edo egarririk andiena duenak eztu aiñ ansia andiarekin billatzen jana, edo edana, nola animak, gorputzetik irten ezkerro, billatzen duen Jaungoikoa ikustea, eta gozatzea: ura da bakarrik bere gose, eta egarri guzia; eta bere deseo guziak kunplitu, ase, eta kontentatu leizkiona: eta ansia ori, Zerura doazenak bereala kunpliturik ikusten due: eta betiko pakea, deskansua, eta atsedeen guziz osoa iristen due: baña Infernura doazenak, ansia bizi ori betiko dauke; eta iñoiz ere kunpliturik ikusiko eztue: eta beti arrabiatzen daude: eta Jaungoikoaren, eta eren buruen gorroto bizian arkitzen dira: aenzat destinataturik zeuden betiko honrak, betiko ondasunak, betiko atsegiñak eren kulpaz betiko galdu dituela ikusteak ematen die aiñ pena arrigarria; nun orren paretik ezin arkitu liteke: eta argatik San Juan Krisostoniok, guk baño Zeruko argi geiago zeukanak bezela, bere puebloari egiten ziozkan sermoietan, esaten zion: batzuek Infernuan erretzearen bildurra baizik eztue: baña nik diot,

Zeruko gloriaren galtzea dala garratzagoa, izugarriagoa, eta mingarriagoa. Zergatik ordea alako pena izan bear due? Zergatik kaburik, fiñik, eta neurririk eztuen ondasun soberanoa beti gozaten egoteko egiña da gure anima, eta ondasun ori betiko galtzea da izan ditekean kalterik andiena, kaburik eztuen kaltea eta orregatik da penagarriena. Eta ori nolabait barruntatzeko, pensa ezazue; Españiako Erregearen seme nagusiena, Erreinu guziaren jabe izateko puntuan dagoala; preso artu, eta erreinutik kanpora betiko desterratu, eta ill artean karzela, edo ziega illun, alde guzietatik kiratsa, eta usai nazkagarria baizik eztan batean sartuko, eta kateaz loturik edukiko balue; nolakoa izango litzate zorigaiztoko Prinzipe aren betiko pena, aren tristura, eta naigabea, eta aren desesperazioa, eta arrabia? Bada zer du zer ikusi Españiako ezeze, mundu guziko Erregetasunak, eta emengo ondasun guzien jabetasunak, Zeruko betiko erreinua- ren, eta betiko gloriaren aldean? Eta zer due zer ikusi laster bukatuko diran munduko penarik, tristurarik, eta oñazerik arrigarrienak, Infernuko betiko pena, eta tormentuen aldean? Eta ala, N.K., arren beti gogoan eduki itzazue Jesu-Kristo gure Jaunak berak esan zizki- gun egia andi oek biok: Zer serbitzen dio, edo zer pro-

betxu du gizonak mundu guziaren jabe izatearekin, galtzen badu bere anima? *Quid prodest homini, si univ-ersum mundum lucretur, animae vero suae detri-mentum patiatur?* Eta etzaitezela gorputzeko bizia kendu deikezuenaren bildur izan: bai bildur izan zai-tezte, gorputza, eta anima Infernura botatzeko eskualdia, edo poderioa daukanaren. *Hunc time.* Zer zorakeria andiagorik, eta itxumen arrigarriagorik izan diteke, ori guzia fedeko egia bezela sinisten duen, eta ala ere munduko ezerezkeria, eta atsegin labur batzuek betiko zoriona galdu, eta betiko zorigai-tza bere buruari bere kulpaz ekarten dion Kristauare-na baño? bada ez bakarrik kondenatzen du bere anima; baita ere animaren potentzia guziak obligatzen ditu, eternidade guzian penatzen egotera. Ara nola Zeruan animaren adimentua, memoria, eta boronda-tea kaburik eztuen zoriona beti ezagutzen, ikusten, eta amatzen, eta gozatzen okupaturik dauden; Infer-nuan kontrara daude pena arrigarriak ematen dien gauzarik tristenak, eta izugarrienak beti konsidera-tzen; beti gogoratzen; eta Jaungoikoaren, eta eren buruen kontra gorroto, eta aserre guzia beti berritzen: bada beti ari zaie artxikatzen, eta ler eragiten eren konzienziaren arra: iñoiz ere illko eztan arra: bere

zorakeria, bere itxumena, bere gaiztakeria, eta malizia beti gogora ekarten diela: alako moduan, ze fortuna, eta zorian anditzat artuko luke ill al balitez, desegin, ezerezera biurtu, edo betiko akabatu al balitez: bada Infernuko penaen artean arrigarrienetatik bat da beti bizitzea, ezin ill izatea, eta beti penatzen egon bearra. Baña anima kondenatuak esan ditugun bere pena propioaz gañera beste penarik izango ote du? Bai, munduan izan zuen bere gorputzari dagozkion pena, oñaze, eta tormentuak ere beti sufritu bearko ditu.

3. **G.** Nolakoak izango dira gorputzaren aldetik padezituko dituan penak? **E.** Ori ezagutzeko eztezue gogora ekarri baizik, len esan degun bezela, 1. su guttiz bizi, eta beti irazeki batean beti erretzen, eta kiskaltzen egon bear duela animak, eta gorputzak; eta ez bakarrik kanpotik, edo azaletik, baita barrutik ere, eta ez bakarrik gorputzaren zati, edo mienbro batean, baizik mienbro guzietan, eta sentidu guzietan, alako moduan, ze eztu izango gorputzeko parterik txikiena ere, erretzen, penatzen, eta oñazez beterik eztagoanik: eta orrez gañera bost sentidu jakiñak, au da begiak, belarriak, sudurrak, sabore, edo gustoak, eta ukitze, edo taktoak, izango ditue eren tormentu, eta

pena propioak, pekatuakobidea eman zuelako ondo mereziak.

*Begiak* Infernua izan ditezkean gauzarik itxusienak, eta izugarrienak beti ikusten ariko dira. Demonio, eta kondenatu beltz itxusi ikaragarriak beti begien aurrean edukiko ditu. Orain begiak gaizki darabiltzanak, lurreko edertasun puska bati begira zoraturik dauzkanak, ezta sekulan ikusiko beti penatuko duen deabru, eta kondenatu ikaragarriak baizik.

*Belarriak* beti egongo dira enzuten deabru, eta kondenatuen negar tristeak, deadar, garrasi, birau, maldizio, eta blasfemia ikaragarriak: A zer musika, eta soñuak! eta ori guzia, eta geiago, emen gustoz enzuten zituzten Jaungoikoaren ofensako hitz loi, kanta, eta kopia zikin, eta murmurazioen orde izango due.

*Sudurrak* pena guztiz arrigarria izango due, kondenatuen gorputzak botatzen duen usai ustel, eta kirats loi zikin nazkagarria ezin eramanik: emen usai gozoen zaleak erabage izan ziralako.

*Sabore, edo gustoak*, ainbeste pekatu munduan eragin zituanak, Infernua gose-egarri amorratuak beti sufritu bearko ditu: eta guztiz minduko duen janari, eta edari samiñak baizik emango eztiobe.

*Azkenik, taktoak edo ukitzeak, emen bigunzale, eta erabageko atseginzale izan zanak, Infernuan beti egongo da dolorez, oñazez, eta garraztasunez penatzen: eta emen sartzen da Jaungoikoaren justiziaren aserrea, eta zuzentasuna, bakoitzaren gorputzari dagozkion penaen neurria ematen diela: zertan geiago pekatu egin zuen, artan bertan pena geiago eman-go die: batzuei askoz geiago, beste batzuei baño. Baña penarik gutxiena, edo txikiena duenak izango du aña pena arrigarria, nun munduan ikusi diran, eta aditu diran penarik, tormenturik, eta oñazerik arrigarrienak, guzi-guziak batek sufritu bear balitu ere, eta ez denbora gutxian, baizik emen bizi dan arte guzian: ametsak bezela, edo irudipenak bezela dira Infernuko pena, ta oñazaen aldean. Gogora ekarri itzazue Martiri Santuak sufritu zituen tormentu arrigarriak: nola su bizian egosten zituzten: nola puskaka aragi zatiak kentzen zizten: nola laurdentzen zituzten: nola beren zañ guztiak tiraka urratzen zizten: nola tenaza gorrikin narruak, eta aragiak erretzen, eta atormentatzen zizten: adituaz beste bage ikaratzen gera: Zer izango litzateke bada, pena, eta tormentu aek guziak, eta gorputzak izan oi dituen beste eritasun, eta gaitz mota guziak, ez denbora labur batean, ezpada urte*

askotan, alibiorik batere bage, sufritzen batek egon bear balu? Nor arrituko ez litzateke jakiñaz beste bage, pena oriek guziak bere guraso, seme, edo alaba, senar, emazte, aide, adiskide, edo ezagun batek nai ta ez sufritu, edo padezitu bear dituela? Eta are geiago bakoitzak berak bere buruari pena oriek guziak bere kulpaz ekarten diozkala konsideratu nai badu? Bada pekatu mortalean dagoala iltzen danak, pena oriek guziak bere buruari egozten diozka, eta betiko egozten diozka: au da eternidade guzirako bere kulpaz galtzen du kaburik eztuen gloria, eta zoriona: eta ezin esan al baño tormentu, oñaze, eta dolore arri-garriagoak nai ta ez beti sufritu bear ditu Infernuko su bizi, irazaki artan iñoiz ere alibio, edo konsuelorik dan txikiena izateko esperanza bage.

4. **G.** Eta fedeko egia da Infernuko pena oriek guziak beti-beti iraungo duela: eta Jaungoikoa iñoiz ere errukituko eztala Infernura doazen zorigaiztoko aezaz? **E.** Bai N.K.: fedeko egia da: eta ori sinistu nai eztuana hereje gogor itxua da: eta betikotasun, edo eternidade ori zer dan, ondo pensatuko bagendu, argiro ezagutuko genduke gure zoramena, itxumena, eta juizioaren falta: bada, zer da bizitzarik luzeena eternidadearen aldean? Ezerez bezela: ordu bakar bat eun

milloi urteren aldean baño ere gutxiago: bada denborak badu bere muga; badu bere plazioa; baña eternidadeak mugarik eztu, kaburik eztu, fiñik izango eztu. Kontu atera ezazue munduaren asieratik onera gizon, eta emakume guziak zenbat ille eren buruetan izan dituen: Nork kontu litzake? bada beste ainbeste urte, nola buruko ille guziak izan dituen, igaroko dira, eta eternidadea puskarik batere kendu bage geldituko da: orduantxe asiko baliz bezela oso-oso egongo da: oraindaño munduan sortu diran gari bikor, arto bikor, orri, eta belar ainbe urte igaroko dira: eta ala gloriako, nola Infernuko eternidadea batere gutxitu bage geldituko da: aurrera ere beti bat, beti oso egongo da. Ona beste konparazio, edo antz bat ori bera aditzera emateko: munduko itxaso, ibai, erreka, eta osin guztietan dagoan ur guzia (azi bage dagoala) milla urtetik milla urtera txingurritxo batek ur txorta bat baizik artzen eztuela, noizbait ur guzia akabatuko luke: legortuko lituzke itxaso, ibai, erreka, eta osin guziak baña noizko? nork kontua atera lezake? bada denbora oriek guziak millaka bider doblaturik igaroko dira, eta Infernuko penak, eta baita Zeruko atsegiñak ere, asi berriak bezela orduan ere izango dira: zerren betiko izango dira: kaburik, eta fiñik iñoiz ere izango eztaue.



Au bai dala, N.K., ondo kon sideratzea merezi duen fedeko egia. A zein laister pekataririk gogorrenak, eta itxutuenak ere zenzatu, eta konbertituko liratekean, pensamentu santu au sarri gogora ekartera oituko balira! Ez lirateke ikusiko munduan ainbeste Kristau arro, gorazale, andizale, soberbia darienak, eta oñ azpian besteak dauzkatena. Ez lirateke ikusiko ainbeste gutizioso, naiz zuzen, naiz oker, besteren ondatsunak beretzen dituenak: ainbeste luxurioso, atsegin loi zikiñak lotsa bage billatzen dituenak: ainbeste aserre, eta bendeku, enbidia, erabageko jan-edan kaltegarriak, eta ainbeste atzerapen, iguitasun, nagitasun, eta alpertasun animako gauzetarako: salbazioaren egiteko andirako. Eternidadea gogoan bagendu, betiko Infernutik libratzeko, eta betiko gloria iristeko alegin guziz biziak egingo ginduzke: pozik gere borondate gaiztoa ukatuko genduke: pozik nekeak, naibageak, eta trabajuak sufrituko ginduzke: eta Jaungoikoaren borondate santua gauza guzietan egingo genduke: baña azkenik zorigaiztoko eternidadeak ikaratzen zaituelako, arriturik diozue.

**G.** Zergatik gure Jaungoiko guztiz onak, eta guztiz errukitsuak ainbeste milloi urteren buruan, errukirik, piedaderik, eta miserikordiarik izango eztu, berak

lenago aĩn maite izan zituan ainbeste milloi animakin?

**E.** Orregatik berorregatik: au da, 1. zergatik Jaungoiko bat aĩn ona, aĩn errukitsua, eta aĩn ongillea amatu nai izan etzuen: eta ainbesteraĩno despreziatu, eta injuriatu zuen; nun geiago estimatu zuen eta amatu zuen kreatura ezerez bat, bere Kreadorea, bere Egillea, eta bere Jabe soberanoa baĩno: eta ori maldade, edo gaiztakeri bat aĩn arrigarria, eta aĩn neurribage da, nun Infernuko betiko penakin ere, bear adiĩna kastigatzen eztan: eta erraz ala ere penitenziarekin, eta Jesu-Kristoren merezimentu kabubageakin mundu onetan bar-kazioa iritsi zezakeala, pekatuan gogortu ziran, eta pekatuan ill ziran: eta 2. zergatik miserikordiako denbora igaro zan: eta ill ezkeru penitenziarik egiteko lekurik eztago: arrezkero onerako, eta gaitzerako libertaderik eztago eta pagatzen eztan zorra beti bere oĩnean dago: eta azkenik 3. zergatik ezin utsik egin dezakean Jaungoikoaren justiziak, iĩnori bide gabarik, edo agrabiorik egin gabe, ala ordenaturik daukan: eta ala asegurutzen digu, denboraz zenzatu gaitezen. Eztago bada beste erremediorik, N.K.: penitenzia egiazkoa, eta bizimodu on bat egitea baizik: Jaungoikoak berak digula arren orretarako bere grazia eta gero sekulako gloria. Amen.

# **BERROGEITA BIGARREN DOTRIÑA**

*Purgatorioko penaen gañean.*

*Eta hitz-gaia: 1. Purgatorioa, edo animen garbitokia zer dan, eta an dauden anima bedeinkatuak nolako penak sufritzen dituen. Eta 2. Nolako alegiñak egin bear ditugun Purgatorioko animak len bait len pena aetatik libratzeko: eta pena arrigarri aek geren buruari ez erakartzeko.*

## **SARRERA**

Badakizue, Kristauen animak, gorputzetik irteten diranean, dijoatzela bereala Jesu-Kristoren Tribunale-ra, juzgatuak izatera, eta dagokien saria, edo kastigua artzera. Pekatu mortalaren barkazioa iritsi bage mundu onetatik irteten diran guziak dijoaz betiko Infernura: eta aenzat erremediorik batere eztago: beti-beti penatzen egongo dira. Pekatu mortal, eta benial guzien barkazioa iritsi zuenak: eta aei zegogien

zor denborala emen osoro pagatu zuenak dijoaz bereala Zeruko gloriara: eta aen zorionak beti iraungo du: baña Purgatoriora bage Zeruko gloriara bereala dijoazenak txit banaka dira, Santuak erakusten digue-  
nez: bada Zeruan ezin iñor sartu diteke, pekatuaren zorrik, edo mantxarik txikiena duenik. Eta graziazko estadian iltzen diran geienak, pekatu mortal, eta benial guzien kulparen, eta betiko penaren barkazioa iritsi arren, aei zegozkien pena denboralak osoro emen pagatu bage dijoaz: eta Purgatorioan, edo animen garbitokian, nai ta ez pagatu bear ditue. Eta au da dotriña bat Israelgo puebloak lege zarrean beti sinistu zuena, orduko ejenploak, eta batez ere Maka-beoen liburu Santuak erakusten diguenez: eta dotriña au berau Jesu-Kristogandik ikasi, eta Apostolu Santuak mundu guziari erakutsi zioben; eta orren pruebarako defuntuakgatik Meza Santuaren sakrifizioa ofrezitzen, eta aplikatzen zuen: eta ala Eliza guzietan arrezkero oitura santu ori beti gorde da: eta gure Ama Eliza Santak dotriña ori fedeko egia bezela deklaraturik dauka, eta guziori erakusten digu.

Dotriña oni narraiola bada gaur gogora ekarri nai dizuet: 1. Purgatorioa, edo animen garbitokia zer dan: eta an dauden anima bedeinkatuak nolako penak

daramazkien: eta 2. Nolako alegiñak egin bear ditugun Purgatorioko animak pena aetatik len bait len libratzeko: eta pena arrigarri aek gere buruai ez erakarteko. Eta orra gaurko hitz-gaia, eta erakus bidea, Purgatorioko animenzat, eta guretzat txit probetxugarria. Jaungoikoari nai dakiola, guziok frutu andi bat ateratzea. Eska dezagun orretarako Espiritu Santuaren argia, eta grazia, Ama Birjiña Santisimaren bitartez. Abe Maria.

1. **G.** Zer da bada Purgatorioa, edo animen garbitokia? **E.** Izen orrekin aditzen da eskuarkiro, edo komunkiro Jaungoikoaren justiziak lur-pean, Infernuaren, edo betiko kondenatuak dauden toki izugarriaren gertuan daukan leku triste, eta guztiz penagarri bat, pekatuen zorra pagatu bage mundu onetatik, bere grazian zeudela, irteten diran animak osoro garbitzeko, pena guztiz arrigarri, miragarri, eta samiñakin. Eta toki, edo leku ari deitzen zaio Purgatorioa: baña noiz, edo noiz toki artatik kanpora, beste toki, edo leku askotan Jaungoikoaren probidenziak anima banaka batzuei eren pekatuen zorrak pagaeragitea gertatu da, ejemplo sinisgarri askok erakusten diguenez: eta eskuarkiro pekatuak egin zituen tokietan: eta baita bere ezagunai agertzea, eta sokorruak eskatzea ere,

sufritzen dituen pena arrigarriak aditzera emanaz: eta bidez biziak esnatuaz, eta zer egin bear duen erakutsiaz, zenzatu ditezen. Baña emen gogora ekarri bear dizuet, ez dituzuela erraz sinistu bear edozeñek erausten dituan Purgatorioko animen agertze oriek: bada irudipen asko gertatu oi dira: zerren ametsetan urlia, edo berendia ill ezkerro ikusi duelako, edo onelako, edo alako gauza esan dielako, burura, edo imajinaziora datorkielako, ala dala erraz sinisten due, eta ikusi balue bezela kontatzen due: eta guzia izan oi da amets utsa: eta ori bera burua turbaturik, edo irabiaturik dauken eriai, edo gaixoai gertatu oi zaie: eta askotan iruditzen zaie otzak, eta deadarrak aditzen daudela. Eta guzia eren buruko irudipena izan oi da. Baña esango didazue: esna gaudela, eta buruko gaitzik eztegula, defunturen bat agertzen bazaku, zer egingo degu? Jaungoikoaren baimen, edo lizenzia bage ezin agertu diteke: ez eta gaitzik egin ere. Eta ala eztezue bereala izutu, ikaratu, eta animoa galdu bear: baizik Gurutze Santua bereala egin; fin, edo asmo gaitzoz defuntuaren antzean deabrua badator, bereala iges eragiteko: eta intenzio onarekin datorren anima ona bada, eta hitz egiten badizue, kontuz aditu zer esaten dizuen: eta zuen animen Arzaiari, edo kon-

fesore jakinsu bati kontu eman, eta zer egin bear dezuen galdetu: bada izan diteke anima onaren agertzeta, eta baita deabruaren ilusioa, irudipena, eta engañua ere: baña eztezue zeurok artarako biderik eman bear, animaren estadia jakiteko deseo bizi, eta kuriosidade alperrakin: bada ortik datoz askotan irudipenak, eta engañuak: eta Jaungoikoak igui ditu eztagozkigun gauzak jakiteko deseo oriek: eta gugandik nai duena da, ez animen estadia orain jakitea, baizik animakgatik orazioak, sufrajioak, eta obra onak egitea: bada guztiz premia, edo estutasun andian daude: eta guk erraz sokorritu, eta alibiatu ditzakegu.

**G.** Nolakoak ote dira bada Purgatorioko anima bedeinkatuak sufritzen dituzten penak? **E.** Ezta erraz ori ondo ezagutzea, eta are nekezago da bear dan bezela aditzera ematea. Elizako Doktore, edo erakusle guztiz jakinsuak, eta Santuak erabatera erakusten digue, ezin esan alak, eta ezin ponderatu alak dirala Purgatorioko penak: aiñ arrigarriak, eta mingarriak dirala, nun mundu onetan oraindano gizon, eta emakume guziak sufritu dituzten dolore, oñaze, eta tormentu guziak, eta aurrera sufritu ditzakeen guziak, ezerez bezela diran Purgatorioko penaen aldean. Munduko eritasun mota guziak, kalentura, edo sukar erre-

garri guziak, buruko, sabeleko, erraietako, kostaduko, ijadako miñ arrigarriak; eta begietako, belarrietako, agiñ ortzetako, eta gorputzeko beste zati, edo mienbro guzietako dolore, edo oñaze guztiz andiak, eta arrabiagarriak, batetan betere alibio gabe, egunez, eta gauaz urte batean bakarrik sufritu bear bazinduzte, N.K. A! zein errukigarriak izango ziñatekean! Nork iraun ill bage, edo eztanda egin gabe orrenbeste dolore, eta oñazereren artean? Bada ori guzia ezerez bezela da Purgatorioko edozein animak sufritzen dituan pena, neke, eta oñazeen aldean. Gogora ekarriko banizue Martiri Santuak sufritu zituen tormento mota guziak, ikaratuko ziñateke, aek zeramazkien oñaze arrigarriak pensaturik bakarrik: urratzen zizten gorputzeko aragi guziak burnizko azkazal, edo punta zorrotzakin: bizirik zeudela erretzen zituzten su bizi irazekietan: sartzen zituzten olio irakiñetan, edo berun urtuetan; eta baita bronzeko zezen, su egiñik, eta goriturik zeuzkatenaen barruetan: larrikitzen, eta gorputzeko zati guziak banaka ebakitzen zizten: eta asmatu al tormentu guziak ematen zizten. Nolako oñaze, edo dolore arrigarriak zeramazkien erraz eza-gutu dezakezue. Bada Teologo guzien iritsi komuna da, Martiri Santuak, eta baita munduan eren gaiztake-



riakgatik atormentatuak izan diran gizon, eta emakume guziak sufritu dituzten pena guziak baño agitz, eta agitz andiagoak dirala Purgatorioko edozein animak daramazkienak. Eta Santo Tomas de Akinok, Doktore Aingeruaren izena duenak bere jakinduri miragarriagatik, dio, andiagoak dirala Purgatorioko penak, Jesu-Kristo gure Jaunak bere bizi guzian, eta bere Pasioko denbonan sufritu zituanak baño: eta badakizue Jesu-Kristok bakarrik Martiri guziak baño pena, eta tormenta geiago sufritu zituala: eta aïñ arrigarriak izan zirala, dio San Jeronimok, nun juizioko egun andian bakarrik jakingo dala zenbat sufritu zuan gure Jesus maiteak. Nolakoak izango dira bada Purgatorioko penak, munduko eritasun mota guziak baño: Martiri guzien oñaze, eta tormentu aïñ andiak baño, eta Jesu-Kristoren Pasio Santuko dolore, zein esan al baño, arrigarriagoak baño andiagoak diran ezkerok? A zein arrigarria dan pekatuaren gaiztakeria! eta zein izugarria (kulpa barkatuta ere) ari zor zaion pena, eta merezi duen kastigua! eta zein miragarria gure Jaungoikoaren justizia! eta, a, zein errukigarriak diran alako penak sufritzen dauden Purgatorioko anima bedeinkatuak!

Baña erruki ori zuen biotzetan obeto sortutzeko, anima bedeinkatu aek sufritzen dauden pena mota bi,

gutziz arrigarriak gogora ekarri itzatzue, eta sarri pentsatu itzatzue: eta dira; 1. su irazeki gutziz erregarri batean, batere atsedean gabe egotea; noiz artean ala egongo diran ziertu jakin gabe: eta 2. da, ezin esan al baño ansia andiagoarekin deseatzan dauden Zeruko gloriaren gozamina luzatzea, noiz ori iritsiko duen ziertu jakin gabe.

**G.** Eta nolakoa da Purgatorioko sua? **E.** Infernuko sua berbera bezelakoa: munduko su guziak alkarrekin juntaturik baleude ere baño biziagoa, erretzalleagoa, beti irazekirik dagoana, egunez, eta gauaz beti erretzen, kiskaltzen, penatzen, eta oñazearen indarrez beti ler eragiten dagoana: aïñ indarsua, nun munduko su guziak aren aldean pintatuak bezela diran. Eta ala ere, Jaungoikoaren justiziaren borreroak, eta instrumentuak bezela, neurri justuan, bakoitzaren zorrari dagokan bezela, penatzen, erretzen, eta atormentatzen ditu anima bedeinkatuak: baño ango penarik ariñenak dira munduko pena guziak baño andiagoak, eta miragarriagoak: alabaña asko da jakitea, alako su izugarri batean ondaturik argitzen dirala. Zuek begiz ikusiko bazendue, eztiot zuen guraso, edo hume maitea: zuen senar, edo emaztea: zuen senide, aide, adiskide, edo ezaguna, baizik zuen etsairik andiena, karobi, edo

labe irazeki batean eroririk, edo sarturik, ezin illik, sentidu guziak bizirik dauzkala, dana erretzen, kiskaltzen, eta ler egiten dagoala, kupituko ziñateke, errukituko ziñateke, larrituko ziñateke, eta andik ateratzeko alegin guziak egingo ziñituzke. Bada jakizue, N.K., zuen arteko askoren, edo asabak, edo gurasoak, edo humeak, edo senarra, edo emaztea, senideak, aideak, adiskideak, eta ezagunak Purgatorioko su, eta gar irazeki artan kiskaltzen, eta penatzen daudela: eta zuen belarriakin ezin aditu badituzue ere, aen garrasiak, aen suspirioak, aen deadar lastimagarriak; begietako negar malkoakin eske dagozkizuela, aen pena arrigarriaz arren erruki zaitezte. *Miseremini mei, miseremini mei saltem vos amici mei.* Zuek edolarik gure adiskideak, guzaz erruki zaitezte: pena oetatik gu len bait len ateratzeko alegin guziak egin itzatzue: bada su bizi irazekian pena, eta oñaze arrigarriak sufritzen gaude. Eta badegu, diobe, oraindio beste pena bat geiago naigabetzen, eta atormentatzen gaituana: eta da, guk biotz guztitik amatzen degun, eta len baño len ikusi, eta Zeruko glorian kontenplatu, eta gozatu bear degun gure Jaungoikoaren gloriaren luzamena, noiz ori iritsiko degun eztakigula egotea. Baña arriturik esango didazue batzuok: Nola Zeruko gloriaren goza-

menaren luzamena izan diteke su irazekian erretzen egotea baño pena arrigarriagoa? Guk, Jaungoikoa ez ikusi arren, pena andirik sentitzen eztegu: eta Abe Maria baten denbora laburrean ere beatz bat bakarrik surtan erretzen edukitzea ezin sufritu degu. Diot bada, guk baño argi geiago; eta jakinduri geiago zeukaten Elizako Doktore, eta Maisu andiak ala dala erakusten diguela: eta sinistubear diegu. Eta ona arrazoi prinzipala. Egia da, gure animak, orain daukaten Jaungoikoaren ezaguera laburrean, eta illuntasunean gelditu beaz balue, gorputzetik irten ezkeru, pena andirik izango ez lukeela, Jaungoikoa ez ikusi arren, eta aren gloriaz ez gozatu arren: baña ozta gorputzeko kartzela illunetik irteten dira, argiro dakuste, Jaungoikoa bakarrik dala eren zorion kabugabea, eta betikoa: eren zentro, fin, paradero, eta atsedeen guzia: eren Jabe, Egille, Ongille, Aita maitagarri, eta Esposo guziz maitetsua, betiko ondasunak, eta betiko, eta neurribageko kontentu, poz, eta atsegin guziak aentzat prestatu-rik dauzkana: eta ezin orain aditu al, esan al, eta eza-gutu al baño ansia andiangoarekin nai luke bereala Jaungoikoarekin laztandu, eta bere edertasuna ikusi, alaiatu, eta batere enbarazo bage gozatu: Ikusten dezue, nolako indarrarekin eskopeta, edo kañoi bate-

tik irteten dan bala dijoan botatzen duen tokira, eta bidean enbarazorik arkitzen badu, nola desegiten, edo puskatzen dan: bada pensa ezazue, oraindio indar geiagorekin dijoala anima Jaungikoagana gorputzetik irteten danean: eta, nola bereala arkitzen duan Jaungoikoa ikustea, eta gozatzea eragozten dion enbarazoa, au da, pagatu bage daukan pekatuaren zorra; gelditzen da aiñ penatua, eta naigabetua, nun illkorra baliz, desegingo lizateke, eta akabatuko lizateke dolorearen indarrez: eta ona beste konparazio, edo antzorde labur bat, ori zuei aditzera emateko. Zuetatik batek, auzi luze batekin, eta kostu andi, eta naibage askorekin maiorazgo andi bat irabazi balu; eta txit neke askorekin, miseria, eta pobreza andi batetik libratu, eta txit erara, eta gustora bizitzeko diña errenta gozatzeko puntuan dagoala, preso artuko balue, eta ziega, edo kalabozo illun, eta penagarri batean sartu, eta luzaro edukiko balue, maiorazgoaz gozatu bage, bere zor andi guziak osoro pagatu artean; noizko pagatuko dituan ere jakin bage; zenbateraño sentituko etzendukee orrelako naigabea, nekea, atseka-bea, eta zorigaitz arrigarria? Bada ori guzia utsa da, Purgatorioko anima bedeinkatuak daukaten penaren aldean, betiko maiorazgoa, eta aiñ aberatsa, mundu-

ko maiorazgo guziak, erreinu guziak, eta inperio guziak baño geiago balio duena irabazi ezkeru, ezin gozatu duelako, zor guziak osoro pagatu artean; eta ez nun-nai, baizik su irazekietan, eta alde guzietatik doloreak, oñazeak eta neke, eta naigabe arrigarriak sufrituaz; eta noiz artean iraungo duen ziertu jakin bage. Erruki zaitezte bada arren N.K. anima bedeinkatu aezaz, eta sokorritu itzatzue al dezueneraño.

2. Baña bertatik galdetuko didazue: Nolako alegiñak egin bear ditugu, Purgatorioko animak pena aetatik len baño len libratzeko? Iru motakoak dira Purgatorioko animaen aldera ditugun obligazioak, edo zorrak: lenengoak justiziaz zor diegunak: bigarrenak esker onez zor diegunak: eta irugarrenak karidadez Kristau guziok zor diegunak. Diot bada, defuntuen herederoak, eta aen borondate, edo testamentuen kunplitzalleak daudela obligaturik justiziaz, eta pekatu mortalaren azpian, eren animen sufrajiorako agindu zituen Mezak, limosnak, edo bestelako piedadezko obrak, edo sufrajioak len bait len kunplitzeko alegiñak egitera. Eta eren kulpaz, edo ardurabagetasunez kunplitzen ezpaditue, edo geiegi luzatzen baditue, pekatu mortalean daudela: lapurren antzekoak dirala, jabearen borondatearen kontra, eta aren kalte guztiz andia-

rekin besteren gauza daukatelako: bada aen animak dauzkate bearbada, esan ditugun pena arrigarriak sufrituko, agindu zituen sufrajioak kunplitu artean. A, zeurok bazeundete pena aek sufritzen, edo begiz ikusten, nola larrituko ziñatekean, errukituko ziñatekean, eta bereala edozein neke artuko zendukean, pena arrigarri aetatik len bait len libratzeko! Kontu bada, orrelako obligazioak kunplitu bage dauzkatzen Kristau ardurabageak: bada zuen kastigua izango da, bearbada, Purgatorioa baño agitz penagarriagoa dan betiko Infernua.

Baña obligazio aiñ esturik ez eduki arren, esker onak batzuok, eta karidadeak guziok alaiatu, eta mugitu bear gaitu, Purgatorioko anima bedeinkatu aek len bait len pena aetatik libratzera. Alabaña gauza guztiz gogorra, eta lotsagarria da, defuntuak neke andiarekin irabazi, eta utzi dizkitzen ondasunakin erara bizi zeratenok, eta Purgatoriora joateko bidea orregatik bearbada eman ziñiobenok, aiñ laster aezaz aztutzea: aentzat esker onik ez edukitzea: eta erraz alibiatu ditzaketzuela, aiñ pena arrigarriak sufritzen edukitzea. Ori zuekin iñork egingo batu, zenbat sentituko etzenduke? bada esker gaiztokoenzat esker onekorik izan oi ezta: Eta, nolanaiko dezue, zuekin bes-

teak esker onekoak izatea, eta zuen errukia edukitzea, zeurok besteakin, eta batez ere zuen ongilleekin aĩn esker gaiztokoak zerateala? Baña beste motiborik ezpaliz ere, Kristauak geralako, alkarri zor diogun karityadeak; guziok alkarri on egiteko degun erraztasunak, eta guziok orretan degun irabazi, edo probetxu guztiz andiak biziro alaiatu, eta mugitu bear gaitu Jesu-Kristogan gure anaiak, edo senideak diran Purgatorioko animaen erruki andi bat izatera, eta al ditugun sufrajio guziak aei aplikatzera: nola Mezak aekgatik esatea, edo esan eragitea, edo enzutea; orazio, barau, edo mortifikazioekin, edo limosnakin Jaungoikoari aen orde z satisfazioa ematea: dala induljenziak aplikatzea, edo dala egunoroko gere naigabe, atsekabe, neke edo trabajuakin, edo beste obra onakin, aen alibiorako Jaungoikoari ofrezituaz, dirurik atera gabe, erraz laguntzea, eta ugari sokorritzea, eta Purgatorioko pena arrigarrietatik len bait len Zeruko gloriara igaro erazotzea. Eta orra nolako alegiñak egin bear ditugun Purgatorioko animen alderako.

**G.** Eta nolakoak egin bear ditugu geren buruai pena arrigarri aek ez erakarteko? **E.** 1. Diot, pekatuen zor denboralak pagatzeko, edo Jaungoikoaren justiziarri satisfakzioa mundu onetan emateko, nai ta ez Jaun-



goikoaren grazian, eta adiskidetasunean egon bear degula: bada pekatu mortalean dagoanak, estadu orretan dagoan artean, bere obra on guziakin ezin ezer Zerurako merezitu, edo irabazi dezake; eta ezin zorrik pagatu dezake: eta ala gure alegiñik andiena izan bear da, gure buruak pekatu mortaletik libratzea, edo ateratzea. Eta 2. diot, ondoren Purgatorioko animak, esan ditugun obra onakin, eta sufrajiokan alibiatzea, eta Purgatoriotik ateratzea dala medio bat guztiz egokia, eta guztiz eragillea, gere buruai pena arri-garri aek ez erakarteko, edo aetatik laster libratzeko. Baña esango dezue, nola ori izan diteke, geur zordun bagera, eta gero obra onakin amaten degun satisfazioa, edo zorraren pagua Purgatorioko animai aplikatu ezkeru, geurk gere zorra Purgatorioan pagatu bearke degu? Diot bada, Purgatorioko animen egiazko debotoak, eta laguntzalleak bazerate, edo Purgatoriora bage Zerura joatea, edo Purgatoriotik laster irtetea iritsiko dezuela: eta ona arrazoi andiak. 1. Purgatorioko animen alibiorako obra onak egiten ari bazerate, eta orien satisfazioa karidadez aplikatzen badiezue, alde batetik zeurok graziaren aumentua, edo grado andiagoa, eta orri dagokan Zeruko gloriaren sari ugariagoa zeurontzat irabazten dezue: eta ori da obra onaren

fruturik andiena, eta prinzipalena, beti iraungo duena, besteri ezin aplikatu dakiona, munduko tesoro, eta ondasun guziak baño geiago balio duena: eta beste aldetik graziaren laguntasun andiagoak, indarsuagoak, eta eragilleagoak Jaungoikoagandik iritsiko dituzue, ez bakarrik pekatu mortalik egin gabe Jaungoikoaren grazian irauteko, baita ere pekatu benialak, edo ariñak, ezagueraz beinzat ez egiteko: eta birtutezko aktoak sarri egiteko: eta Zerurako ondasun guztiz andiak zerontzat irabazteko. Orra, zer dakarren eskuarkiro Purgatorioko animen alde obra onak egiten gogotik aritzeak: zuenzat gloria geiago, eta Purgatoriora joateko langai gutxiago zeurok egitea. Eta ona 2. beste arrazoi bat guztiz egokia. Badakizue, gure Jaungoikoak ongilleak txit maite dituala, eta ongilleari ongilleak paratzen diozkala: bada, zuek Jaungoikoari atsegin emateagatik, eta berak aiñ maite dituan Purgatorioko animak, bere adiskide, eta esposa guziz maiteak, beraz Zeruko erreinuan beti gozatu bear duenak, pena aiñ arrigarrietatik libratzeagatik, eta bereala Zeruko gloria goza eragiteagatik, karidadez aen zorra orain pagatzen badezue; seguru espera dezakezue, Jaungoikoaren ontasunak zuen pekatuen zorrak, osoro, eta laster pagaeragiteko modua artuko

duela: eta orretako aplikatuko dizuela Eliza guzian egiten diran obra onaen satisfazioetatik zuek beartzen pagu guzia: ara nola, kontrara uste izateko da, Purgatorioan dauden anima askori egiten zaizkan sufrajioak aren Majestadeak aplikatzen eztiela, edo aiañ laster aplikatzen eztiela, erak lenago gogorrek, eta ardurabageak izan ziralako Purgatorioko animak sokorritzeko. Eta ori erraz sinistu dezakezue, Purgatorioko animai on egiteagatik, zenbat, eta nolako ongi-gilleak zuen alde izango dituzuen, ondo pensatu nai badezue. Jaungoikoa bera: Jesu-Kristo gure Jauna: bere Ama Maria Birjiña Santisima: Zeruko Aingeru guziak, eta batez ere zuen sufrajio, eta obra onakin Purgatorioko penetatik atera dituzuen animen Aingeru zaiak, edo Guardakoak, eta Zeruko Santu, eta Santa guziak ezin geiagoraño alegratzen, eta poztutzen dituzue, anima bedeinkatu aek purgatorioko pena izugarri aetatik len bait len Zeruko gloriara igaro erazoarekin: eta guziak nolabait obligaturik gelditzen dira al duen on guzia zuei egitera.

Baña, nork esan, edo aditzera eman dezake, Purgatoriotik Zerura bidaldu dituzuen anima bedeinkatu aek erak, Jaungoikoaren aurrean dakustenean, nori aiañ ditxa, edo zorion andia zor dioben, nolako alegiñak

egino dituen, esker onarekin zuei erantzuteko; eta zuei betiko salbazioa, edo gloria iritsi eragitzeko, eta Purgatoriora bazuazte, andik len baño len zuek ateratzeko? Ori ezin ukatu dezakezue, Zeruko Santuak esker gaiztokoak dirala esan bage: emen bertan mundu guziak ongilleak aiñ maite baditu, zenbat maiteago izango eztitue Zerutarrak eren ongilleak, eta aiñ mesede andia egin zien ongilleak? eta argatik beti ikusi da, eta orain ere ikusten da, ez bakarrik animako ondasun espiritualetan, baita ondasun denboraletan ere Purgatorioko animen egiazko debotai gure Jaungoikoak laguntasun espezialak, eta txit estimagarriak egiten ditzela: dala biziluzea, eta osasuna emanaz: dala naigabe, eta arrisku andietatik libratuaz: dala eren egiteko edo langaietan aziertua emanaz: dala, ondo dagozkien ondasunak emanaz: edo pobrezia, eren on geiagorako konbeni bazaie, eta ematen badie: pazientzia, pakea, eta konformidadea emanaz, eta beste modu askotara lagunduaz. Ori guzia datorkie bada eskuarkiro Purgatorioko animen egiazko debotoak izatetik, ordekotan bezela, aen laguntzalle fiñak izan diralako. Eta orra arrazoi, eta motibo guztiz andiak, guziok alaiatzeko, eta al ditugun obra on guziak Purgatorioko anima bedeinkatuen fabore eragi-

teko: eta orra, zergatik izan dira, eta badira animen debozio, eta erruki aiñ andia izan duen, eta daukaten Kristau onak, nun eren obra on guzien satisfazioa, eta pekatuen zorraren pagu guzia aplikatu izan dien Purgatorioko animai, erenzat ezertxo ere erreserbatu, edo gorde bage: eta karidadezko obra miragarri ori egin due, eta egiten due, Jaungoikoaren atsegin andiarekin, animen alibio guztizkoarekin, eta erak beste aldetik geiago irabazten duelako uste osoarekin. Egia da, orrenbesteraño premiaturik, edo obligaturik ez gaudela, eta ori conseju utsa dala: baña aplikazio oso ori egiten duenak txit asko irabaziko due: eta ordekoa ugariago errezibituko, edo artuko due mundu onetan, Purgatorioan, (ara badoaz) eta Zeruko glorian. Jaungoikoaren Majestadeak digula bada arren guziori argia, ondo ezagutzeko, nolako pena arrigarriak sufritzen dauden Purgatorioko anima bedeinkatuak; eta sortu dezala gure biotzetan aen erruki andi bat, eta aek sokorritzeko gogo bizi eragille bat: orrela aenzat, eta guretzat irabazi andiak egiteko: eta konpañia gozoan gero eternidade guzian gure Jaungoiko guztiz ona, Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua beti alabartzeko, beti amatzeko, eta beti gozatzeko. Amen.

# BERROGEITA IRUGARREN DOTRIÑA

*Guruzadako sermoia.*

*Venite ad me omnes, qui laboratis, et onerati estis,  
et ego reficiam vos. Math. cap. 11. vers. 29.*

## SARRERA

Jesu-Kristoren Majestadeak, San Mateo Ebanjelis-taren amaikagarren kapituluan, pekatari guziak konbi-datzen ditu beragana amoriozko hitz oekin. Atozte nigana pekatuaren pisuaren azpian nekaturik, eta kar-gaturik arkitzen zeraten guziak, eta nik alibiatuko zai-tuet. *Venite ad me omnes, qui laboratis, et onerati estis, et ego reficiam vos.* Eta hitz oekin berokin Jesu-Kristoren beraren Bikarioak Erromako gure Aita San-tuak, eta onen izenean Guruzada Santako Komisario jeneralak konbidatzen gaituzte guziok Bulda Santua artzera, eta onen grazia, ta pribilejio andi, ta miraga-rrien bidez pekatuaren pisu ikaragarritik irtetera, eta Zeruko bidean alibio ta arintasun andi batekin ibiltera.

Guruzadako Bulda Santua da, Aita Santu Erromakoak, Jesu-Kristoren Bikarioak, Españaiko erreinuetan bizi geranai aurtengo (au da, gaurtik urrengo urteko Buldaren publikazioraño) konzeditzen digun tesoro guztiz andi bat: bada alde batetik Buldaren grazia, ta pribilejioak dirade txit asko; eta bestetik dirade guztizko andiak, eta probetxugarriak: batez ere ditu lau grazia, edo pribilejio mota, beste grazia, eta pribilejio asko berengan sartzen dituenak. Lenbizikoa da Bulda komuna edo biziena. Bigarrena da konposiziokoa: Iru-garrena da Laktiziniokoa edo Esnejakiena: eta Laugarrena da defuntuen Bulda. Gaur adieragin bear dizuet bada, N.K., lau Bulda oetan dituzuen grazia ta pribilejioak: eta lenengo bizien Buldarenak.

*Bizien buldaren pribilejioak.* Bulda onen lenbiziko pribilejioa da Eliza Ama Santak entreditxoa ipiñi oi duen denborarako. Baña jakin naiko dezue, zer dan entreditxoa. Entreditxoa da bada, N.K. Eliza Ama Santak, bere libertade, eta jurisdikzioa gorde nai eztiobean, guztiz aserraturik ipiñi oi duen pena izugarri bat. Orduan Elizak itxitzen dira: sakrifizioak gelditzen dira: Sakramenturik geienak ukatzen dira: ofizio dibi-noak ixiltzen dira: Elizetako sepultura, edo entierroak, ta honrak debekatzen dira: eta baita ezkonduai ema-

ten zaien bendizioak ere: azkenik Jaungoikoaren kulto guzia ixiltasun triste batean paratzen da: eztirudi ia Zerua gure gañean erortea besterik falta dala. Bada alakorik gertatuko baliz ere urte onetan, Bulda artu duenak, berak entreditxoa ipinteko kausa edo motiborik eman ezpadu, dirauen denbora guzian Meza esan, esan erazo, eta enzun dezake, ala ofizio Dibinoak edozein moduz permititzen diran Elizetan, nola Oratorio partikularretan, Obispo Jaunak, edo aren Bisitadoreak aprobaturik daudenetan. Enzun ere dezake Meza, Bulda artu duenaren familiakoak, mirabeak, eta aideak, erak Buldarik ez izan arren ere. Pribilejio au gozatzeko erregutu bear zaio orduan Jaungoikoari Prinzipe katolikoan arteko pakeagatik, eta fedebagen, edo infielen kontrako biktoriagatik, eta esan ditugun Eliza, eta oratorioetan, Paskua egunaz kanpora, beste denbora guzietan komulgatu ditezke, eta beste Sakramentuak errezibitu ditzake, aitatu ditugun persona guziak. Eta enterratu ere baditezke ponpa edo anditasun gutxirekin; baldin exkomulgatuak daudela ill ezpadira. Orra, N.K. zenbat grazia eta pribilejio ematen dizuen bizien Buldak, lenengo pribilejio bakar onetan.



*Aragia jateko eta ez barautzeko.* Bigarren pribilegioa da aragia jateko, eta ez barautzeko, orain esango dizuedan okasioetan. Bulda bage, nai ta ez, bear zan enfermedadezagutu, flakotasun klaru, edo beste motibo ziertu bat, egun debekatuetan aragia jateko, eta barau egunetan ez barautzeko: baña orain, bulda artu ezkeru, asko da Medikiak dudatzea enfermedadea edo flakotasuna ziertua dan edo ez, egiazkoa dan, edo ez; sufizientea dan edo ez; orrelako aitzakia duen Kristauakin konfesoreak dispensatzeko: eta agindurik badago ere aragia jateko lizenzia duenak, aragiarekin bazkaldu ta gañerakoan barautu ditezela; orobat Medikiak dudatzen badu, ala barautzetik ere dañu edo kalte andirik etorriko zaion edo ez, orduan animako eta gorputzeko Mediku bien konsejuz libratu, edo dispensatu diteke osoro barautzeko obligaziotik. Geiago: Garizumako barau egunetan ezin Bulda bage jan ditzakezue aragia ezeze, aragitik datozen gauzak, nola arraultzak, esnea eta gaztaia: baña Bulda artu ezkeru, (Sazerdoteak, eta errelijiosoak aterata beste guziok) jan ditzakezue, baraurik autsi bage.

Irugarren pribilegioa da, induljenziena, eta laugarrena pekatu erreserbatuen absoluzioa edozein konfesoregandik alkanzatzeko. Eta pribilejio andi oek biok

zuei obeto adieragiteko, lenago akorda eragin, edo gogora ekarri bear dizuet dotriña inportante bat, eta da, edozein pekatugan arkitzen dirala gauza bi: 1. da pekatuaren kulpa, edo arekin Jaungoikoari egiten zaion ofensa ta agrabioa. Eta 2. pekatuari dagokan pena edo kastigua. Pekatua berez, eta batez ere mortala edo eriozkoa da aiñ monstruo ikaragarria, aiñ maldade, edo gaitz pisua, ta neurribagea, nun pekatu mortal bakar batekin Jaungoikoaren Majestadeari egiten diozuen ofensa, desprezio edo injuriaren barkazioa zuei alkanzatzeko, bitarteko jarriko balira oraindaño izan diran, eta munduaren kaburaño izango diran Santu ta Santa guziak beren merezimentu guziakin, eta izango balira ere guziak eta bakoitza Maria Santisima bera beziñ santu miragarriak, ala ere zuen kulpa bakar ori, pekatu mortal bakar ori, barkatu bage geldituko litzake. Eta zergatik? Zergatik Kreatura guzietan eziñ arkitu diteke kaudalik, edo merezimenturik Jaungoikoaren Majestade infinitoari egindako ofensa bakar baten satisfakzioa emateko diñakorik, edo gai danik. Jesu-Kristo Jaungoiko eta gizon egiazkoaren merezimentu infinitoak bakarrik alkanzatzeten dira satisfakzio ori ematera: eta Jesu-Kristoren merezimentu oek aplikatzen zaizkigu, N.K. absolutzioaren bidez

konfesioko, edo Penitenziako Sakramentu Santuan, bear bezelako disposizioakin konfesatzen geran guzian: orduan Jaungoikoaren Majestadearen aserrea aplakaturik, eta satisfaziturik gelditzen da, eta barkatzen digu guk berari egin giñion ofensa, edo gure pekatuaren kulpa.

*Pekatu erresebatuetatik absolbitzeko.* Baña badi-ra, N.K. pekatu mota batzuak, konfesore guziak, erio-tzako orduan baizik, eziñ absolbitu ditzakeanak eta alakoak geienean berekin oi dakarde exkomulgazioa ere. Aetatik batzuak dira, Aita Santuak berak bakarrik absolbitzeko erresebaturik dauzkeenak; eta beste batzuak Obispo Jaunak bakarrik absolbitu ditzakea-nak: Nolako pena, ansia, eta naigabea izango zendu-ke zuen pekatuaren, eta exkomulgazioaren barkazioa alkanzatzeko, edo Erromara, edo Obispo Jaunagana joan bear bazendue? Zenbat, eta zenbat batere ez nekatzeagatik, eta lotsa ura ez sufritzeagatik gelditu-ko ziñateke konfesazaka? bada ainbeste lotsa dezue batzuok zeuron errietan bertan ondo, eta klaru konfe-satzeko. Bulda santuak kentzen dizue bada enbarazo oriek guziak. Buldaren birtutez autu, edo eskojitu dezakezue edozeiñ konfesore, beslela Obispo Jaunak, konfesorako aprobaturik daukana. Eta ark absolbitu-

ko zaitue (herejiaz kanpora) beste pekatu jenero guzietatik, eta aei dagozten exkomulgazioetatik: baña diferenzia onekin, Aita Santuagana bakarrik erreserbaturik dauden pekatu, ta exkomulgazioetatik Buldak dirauen urte bakoitzean, beiñ bizitzako denboran, edo osasunarekin zaudetela, eta beste beiñ eriotzako peligroan absolbitu zaitzake: eta bulda bi artzen badituzue, bi bider osasuneko denboran, eta beste bi bider eriotzako peligroan: baña Obispo Jaunagana erreserbaturik daudenetatik absolbitu zaitzake, ondo konfesatzen zeraten aldi guzietan. Esan det, herejiaz kanpora; zergatik Buldak eztu ematen eskualdirik, edozeiñ konfesorek herejiako pekatutik absolbitzeko: (baña eztezue zer uste, herejiako pekatua dala, edo abereakin, edo gurasoakin, edo senideakin, edo bestela pekatu itxusi, edo torpeak egitea. Oriek edozeiñ konfesorek absolbitu ditzake:) herejiako pekatua, Buldarekin eziñ absolbitu ditekeana, da fedean faltatzea, edozeiñ fedeko Misterio ez sinistu nai izatea, eta sinistearen falta ori, edo fedearen falta ori kanpora agertzea edo deskubritzea, orretan beste pekatu mortal bat egiten duela. Baña onelakorik ere gertatuko baliitzekezue, Erromara joan bage, konfesore zinzoak erremediatzeko bidea, edo modua arkituko likezue.

Ikusi dezue bada, pekatuagan arkitzen dan kulpa, edo Jaungoikoaren ofensaren barkazioa erraz alkanzatzeko zenbat laguntzen duen Bulda Santuak.

*Zer diran induljenziak.* Are geiago laguntzen dizue bada, zuen pekatuak, (barkatu ezker ere) zor zaien pena denboralaren satisfakzioa Jaungoikoaren justiziari emateko. Badakizue, konfesioko Sakramentua-ren bidez, edo egiazko kontrizioaren bidez pekatuaren kulpa barkatzen danean, pekatuari zor zitzekon betiko pena, edo kastigua, mudatzen dala pena denboral batera, eta pena au pagatu bear degula, edo mundu onetan mortifikazio, penitentzia, eta obra onakin, edo Purgatorioan, Infernukoak beziñ gogorrak, eta samiñak diran tormentu izugarriakin. Purgatorioko pena arrigarri aetatik Kristauak libratu zitezzen, Eliza Ama Santak beraren lenbiziko urteetan agindu zituan penitentzia ikaragarriak, Konzilioetan, eta Doktore Santuetan irakurrita ere izutzen gaituztenak: baña orain Eliza Ama Santak berak, Zeruko argiz gidaturik, Kristauen argaltasunari begiratzen diola, ematen digu induljenziakin, bide, edo modu erraz bat pena arrigarri aen zorra pagatzeko, eta Jaungoikoaren justiziari satisfakzioa emateko; Baña kontu, N.K.: Elizaren asmo, edo intenzioa, induljenziak guri konzeditzean, ezta inola

ere, gu alperrak, aroiak, eta ardurabageak egitea; eta Jaungoikoaren justiziarri zor diogun satisfakzioa, gure alegiñean ematetik gu libratzea, edo deskargatzea. Elizako fabore, grazia, edo mesede andi oek dira Kristauen argaltasuna sokorritzeko, edo alibiatzeko; baña Kristau penitente egiazkoena; ez, pekatuak ardurabage egin, eta aen satisfakzioa emateko alegiñik batere egin nai ez, edo batere mortifikatu nai eztiran Kristau lasai deskuidaduena. Induljenzia da bada gauza txit estimagarria, eta probetxugarria, arzaz ondo baliatu nai duenarenzat. Zer da bada induljenzia? Induljenzia da, len esan degun pena denboralaren barkazioa: baña eztira induljenzia guziak erabatekoak: batzuak dira osoak edo plenariak, au da pena guzia osoro barkatzen duenak, eta onelako bat irabazi, ta bereala illgo bagiña Zerura zuzen-zuzen joango giñate. Beste induljenzia batzuak dira parzialak; edo zor degun penaren parte bat baizik barkatzen eztuenak. Oetatik batzuak dira amabost urtekoak: beste batzuak zazpi urtekoak; beste batzuak urte batekoak; beste batzuak eun egunekoak, eta onela; eta urte aek, eta egun oek esan nai due: ainbeste urte, edo denboran egindako penitenziakin emango genduan satisfakzioa bera

ematen degula oraiñ orrelako induljenziak irabaziarekin.

Induljenziak irabazteko nai ta ez leenago jarri bear gera Jaungoikoaren grazian: bada kulpa barkatu artean, pena eziñ barkatu diteke: eta argatik induljenzia plenaria edo osoa irabazteko, pekatu mortal guzien damutasun egiazkoa ezeze, pekatu benial guzien damutasuna ere eduki bear degu: Zergatik ezta barkatzen pekatu rik, ez andirik, eta ez txikirik, aek egindako damutasunarekin batera baizik.

*Buldaren induljenziak.* Aditu itzazue oraiñ Buldaren induljenziak. 1. Amabost urteko, eta amabost berrogei eguneko induljenziak konzeditzen dizue Aita Santuak, barautzeko obligaziorik eztan egunetan, baraua ateratzen dezuen aldi guzietan, edo eziñ barautu bazerate, zuen Bikario, edo Konfesoreak señalatzen dizuen beste obra on bat egiten dezuen aldi guzietan; baldin orduan Jaungoikoari erregutzen badiozue Prinzipe Katolikoaren arteko pake, edo unioagatik, eta infielen kontrako biktoriagatik. Eta orrez gañera Aita Santuak berak egiten zaitue partizipante Eliza guzian egiten diran obra on guzietan.

2. Erromako zitudadean estazioak diran egun guzietan konzeditzen dizue Aita Santuak induljenzia

plenaria, edo osoa (nai badezue zeuronzat, eta ezpada aplikatu nai diozuen purgatorioko animarenzat) orretako egun orietan bisitatzan dituzuela, edo bost Altara, edo Altara bat bost bider, eta erregutzen diozuela an Jaungoikoari Prinzipe Katolikoan arteko pake, edo unioagatik, eta infielen kontrako biktoriagatik. Irabazi ditzakezue induljenzia andi oek urtean larogeita amalau egunetan: bada beste ainbeste dira Erromako estazioetako egunak, eta Austerretik asa, eta Erresurrekzioko Paskoaren zortzigarreneraño irabazi dezakezue induljenzia plenaria au egunoro.

3. Induljenzia oriezaz gañera konzeditzen ditu Aita Santuak beste amar induljenzia plenariak, edo osoak, señalaturik dauden beste ainbeste egunetan: baña Purgatorioko animai prezisamente aplikatu bear diezuenak; egiten dezuela aen fabore aparte, leen esan dedan bost Altaretako bisita, eta orazioa, eta induljenzia ori ziertoago irabazteko Purgatorioko animenzat, egin bear dezue alegiña zeurok lenago Jaungoikoaren grazian jarteko.

Eta zenbat errezatu bear degu Altara bakoitzean? Eztu Buldak esaten zenbat. Batzuek akonsejatzan dituzte bost Aitagurea, eta Abe Maria Altara bakoitzean. Beste batzuek iruna: eta beste batzuek konten-



tatzen dirade banarekin Altara bakoitzean. Komisario Jeneralak Bulda onen esplikazioan dio: ea zein Kristau kontentatuko dan, induljenzia aiñ andia irabazteko, gutxiena Altara bakoitzean amar Abe Maria baño gutxiago errezatuarekin. Baña dana dala; beti errezatu bear dezue okasio orietan, esan dizuedan intenziorako, au da Prinzipe Katolikoan arteko pake, edo unioagatik, eta infielen kontrako biktoriagatik: bada beste fiñetarako egindako errezo, edo orazioak, txit luzeak izan arren, eztue serbitzen induljenzia oek irabazteko.

Azkenik Aita Santuak esan diran induljenziaz gañera Bulda artzen duanari konzeditzen diozka bereztat beste induljenzia plenaria bi: bata osasuneko denborarako; eta bestea eriotzako peligrorako; eta bizien Bulda bi artzen baditu (ezin geiago artu ditza-kegu) konzeditzen diozka orduan induljenzia plenaria bi osasuneko denborarako; eta beste bi eriotzako peligrorako. Eta estazioetako egunetan Bulda bi artu ezkerro; eta Altaretako bisita ta orazioak bi bider egiñ ezkerro irabazten dira induljenzia plenaria bi egun bakoitzean. Azkenik jakin bear dezue ezin beste induljenziarik irabazi ditekeala bizien bulda au bage.

*Boto edo promesak aldatzeko.* Bulda onek ematen dizue oraudio beste pribilejio andi bat, eta askorenzat

agitz premiazkoa: eta da, eskatzeko zuen konfesoreari, mudatu edo ganbiatu degizuela, egiñik daukatzuen boto, edo promesak beste obra on batzuetan: eta ala eskatzen badiozue, konfesoreak Bulda onen birtutez, eta Gurutzadarako limosnaren bat ematen dezuela, mudatuko, edo aldatuko dizue beste gauza on, santu, eta errazagoetan zuen promes, edo boto guziak: iru bakarrik aterata: eta oek dira, betiko kastedekoa; Fraile, edo Monja sartzekoa; eta Jerusalengo leku santuak bisitatzera joatekoa. Oek irurok, eta oetatik edozeiñ Aita Santuak beretzat dauzka erreserbatuak: baña orretako izan bear due boto perfektoak, eta kondiziorik batere bage egiñak. Eziñ mudatu ere ditezke beste gauzatan iñoren fabore egindako boto edo promesak, azeptaturik badauzka ia egin zaiozkanak, zergatik Buldak eztu ematen pribilejiorik besteren kalte edo perjuizioan.

*Konposizioko Bulda.* Orain laburkiro aditzera eman bear dizuet beste iru Buldak: eta 1. konposiziokoa.

Andiak izan oi dira egiazko penitente baten ansiak, eta naigabeak: besteren ondasunak dituela ezagutu, eta nori biurtu bear diozkan eztakianean: bildur, eta ikara gogorrak padezitzen dituzte merkatariak, eta beste tratalari guziak, desengañuaren argia-

rekin ezagutzen duenean aberastu dirala pobreen odolarekin, gaizki eramandako interesakin: orobat gertatzen zaie askori beren ofizioetan egin dituen utsegiteakin, batari, eta besteari egin dien kalteakin. Kaso oetan guzietan, deretxo komunaz eta Elizako legeaz batera, nori biurtu bear zaion ezin jakin ezkerro, guzia osoro enpleatu bear zan, edo Elizetan, edo pobreetan, edo beste obra piadosoetan. Baña orain konposizioko Buldaren birtutez, diru gutxirekin kantidadade andiagatik salisfazitu dezakezue. Konposizioko Bulda bear dezuenak, Bulda bakoitzagatik eman bear dezue lau erreal; eta emezortzi marabedi: eta oriekin pagatzen dezue bi milla marabediren, edo berrogeta emezortzi erreal eta zazpi kuartoren kantidadea. Artu ditzaketzue berrogeta amar Bulda konposizioko (eta ez geiago) eta oriekgatik berreun eta ogeita sei erreal eta amasei marabedi pagatuta, satisfazitu dezakezue eun milla marabedi; edo bi milla bederatzi eun eta berrogeita bat erreal eta sei marabediren zorra. Eta oraindio geiago zor bazendue, akuditu zenezake Komisario jeneralagana beragana, edo Bulda geiagoren eske; edo kantidadade guziagatik, batere Bulda bage, berarekin konpontzera; bada guzirako dauka Aita Santuaren eskualdia. Baña kontu, N.K. konposi-

zioko Buldak eztio iñori balio, gauza biurtu bear zaion jabea arkitu ditekenean, bada jabe ziertorik eztuen gauzetarako da Bulda au: eta orobat balio eztio Bulda onek, zerbait ostu, edo gaizki eraman zuenari, Bulda-rekin gero konponduko zalako konfianzan.

Laktizinioko Bulda. Beste Bulda bat da esnejakiena, edo Laktiziniokoa. Au bakarrik da Sazerdote Jauenzat: Nola bizien Buldan eztigun Aita Santuak Sazerdoteai konzeditzen arraultzak, eta esne-gauzak Garizuman jateko lizenziarik, beste Bulda onetan ematen digu lizenzia au, Aste Santuaz kanporako beste egun guzietarako.

*Defuntuen Bulda.* Azkenik, orain esplikatu bear dizuet defuntuen Bulda: baña leenago arren gogora ekarri itzazue, N.K. askotan aditu dituzuen Purgatoriorako animak sufritzen dituzten pena, eta tormentu ikaragarriak. Munduan oraindano izan diran, eta aurrera izango diran tormentu guziak pintatuak bezela dira Purgatoriorako tormentuen aldean. Ango suaren bizitasun izugarriak; eta Jaungoikoa len baño leen ikusteko dauken ansia ezin esan alak, zenbateraño atormentatzen dituen Jaungoikoaren beraren esposa maite aek, ezin iñola ere ez konprenditu, eta ez aditzera eman diteke. Eta bearbada, an dauzkatzue, N.K. edo zuen

gurasoak, edo zuen humeak; edo zuen senideak, edo zuen emazteak, edo senarrak, edo zuen adiskideak. Eta nork daki, zuek eragin ziñien pekatuakgatik ote dauden? eta etzerate animatuko len baño leen tormentu aetatik ateratzera? Aita Santuak ematen dizue bada orretarako bide, edo modu erraz bat. Bulda bat anima bati aplikatu ezkeru, libratzen da ango penetatik, eta dijoa bereala Zeruko gloriara. Baña zergatik induljenzia oso, edo plenaria au, geiago dagoan isekirik Jaungoikoaren borondatetik, Bulda artzetik baño, (bada gerta liteke, Jaungoikoak ez aplikatzea induljenzia ori zuek uste dezuen defuntuari, edo bera lenago deskuidadua izan zalako, edo Jaungoikoaren juizio estali, baño justuak dirala mediante) argatik artu diteke, eta artu oi da urte askotan Bulda defuntu bategatik; baita urte bakoitzean Bulda bi ere, eta ez geiago. Baña defuntu bi, iru, edo laugatik ezin artu diteke guzientzat Bulda bakar bat. Bulda onetan eskribitu bear da artzen duenaren izena, eta baita aplikatzen zaion defuntuarena ere. Eta bein bati aplikatu ezkeru, ezin besteri aplikatu dakiozue. Eta defuntuen Bulda artzen dezuenak, seguruago Purgatorioko animak sokorritzeko, eta zeurok irabazi geiago izateko, arren alegiña egizue, zeurok Jaungoikoaren grazian lenago

jarteko, eta aren dibina Majestadearen adiskideak izateko.

*Buldaren pribilejioak gozatzeko kondizioak.* Edozein Buldaren pribilejioak gozatzeko, nai ta ez artu bear dezue Bulda; eta eztezue asko, Bulda artzeko asmo, edo intenzioa edukitzea: eskribitu ere, edo eskribitu eragin bear dezue Bulda bakoitzean zuen izena: eta orrez gañera Buldaren pribilejioak gozatu nai badituzue, eman bear dezue Bulda bakoitzagatik, señalaturik dagoan limosna, edo zuenetik, edo bestek eman, edo prestatu dizuenetik: eta orobat da, bestek Bulda zuenzat artu, eta limosna ematen badu.

*Zertako dan Buldaren limosna: eta Aita Santuaren intenzioak.* Aditu dituzue ia bada N.K. Gurutzadako Bulda santuaren grazia, ta pribilejio andiak, eta miragarriak. Oriezaz gogotik baliatzera animatzeko, pensatu itzatzue orain ondo, Jesu-Kristoren Bikarioak, Bulda santo au zuei konzeditzean, izan dituan asmo, edo intenzioak. 1. Da, zuei pekatuaren azpitik erraz irteteko, eta orrela Jaungoikoaren grazia, ta adiskidetasuna erraz alkanzatzeko eskua ematea. 2. Da, gure pekatuen zor andia, mundu onetan, pagatzen, induljenziakin laguntzea. 3. Da, Jaungoikoarekin guziok adiskide egin ezkeru, biziro gu animatzea, gure erre-

gu, eta orazioakin Jaungoikoagandik alkanzatzera  
Prinzipi Katolikoan artero pakea, eta unioa, eta Infie-  
len, edo fedebagen kontrako biktoria. Eta azkenik,  
nola gure Españaiko Erregeak, beste iñork ez bezela,  
beti daukan gerra fedearen, eta Eliza Santaren etsaia-  
kin, eta nola oen kontra exerzitoak, eta armadak itxa-  
soan, eta legorrean nai ta ez mantendu bear dituan,  
Eliza Santa guziari ainbeste inporta dion fin santu one-  
tarako animatzen gaitu guziok Aita Santuak Buldaren  
limosna ematera. Aren espiritu, eta intenzioarekin jun-  
taturik bada N.K.; ar dezagun guziok Bulda santua: eta  
Jaungoikoari biziro erregutu degiogun, arren aziertoz  
bete dezala Aita Santua bera: Prinzipi Katoliko guziaz  
diela alkarren artero pake, edo unioa; eta fedebagen  
kontra gerrara doazen guziaz diela animoa, esfuerzoa,  
eta biktoria. Gure Errege Katolikoari eman degiola  
bizitza luzea, eta zorioneko gobernua: eta berari, eta  
bere familia erreal guziari eman degiola urte askotako  
osasuna. Azkenik erregutu degiogun Jaungoikoari  
guziok, digula emen, alkarrekin pakean, eta karida-  
dean bizitzeko grazia, eta gero Zeruko Gloria. Amen.

**DOTRIÑAKO  
BIGARREN PARTE,  
EDO ZATIA**



# **ORAZIOAREN GAÑEKO DOTRIÑAK, EDO ERAKUSBIDEAK**

*Eta 1. Aditzera emateko orazioa zer dan:  
zenbat modutan dan:*

*eta gogozkoa orazioa zein premiazkoa dan.*

Kristauaren dotriñako lau parteen artean, ez da gutxien bear dana orazioaren dotriñako explikazioa: bada orazioa ondo egiten ikasten duenak, eta orazioari gogotik darraion Kristauak bere Jaungoikoa honratzen du: Jesu-Kristori, eta Santuai lan orretan darraie: eta Zeruko argi, eta grazi ugariak iritsiko ditu: Jaungoikoari zor diozkan mesede andiak ezagutuko ditu: bere animako premi, edo nezesidadeak ikusiko ditu: eta orien erremedioa gogotik, humilkiro, eta konfianza osoarekin Jaungoikoari eskatuko dio; eta seguru iritsiko du: eta aren graziarekin indarrak izango ditu, ez bakarrik bere burua pekatutik libratzeko, eta pekatuen zorrak erraz pagatzeko; baita ere birtuteari gogotik jarraitzeko, eta Zeruko ondasun guztiz andiak irabazteko. Aditu ezazue bada gogotik gaurko dotriña

aldian: orazioa zer dan: zenbat modutan dan: eta batez ere orazio biotzekoa, gogozkoa, edo oarmenez, edo konsiderazioaz egiten dana zein bearra dan. Eta 1. Kartillako dotriñari narraiola.

**G.** Galdetzen det: Nork esan zuen Aita gurea? **E.** Jesu-Kristok. Zertako? Orazioa egiten, edo Jaungoikoari zer eskatu, eta nola eskatu guri erakusteko.

**G.** Orazioa egitea zer da? **E.** Jaungoikoagana biotza, edo anima altxatzea, edo jasotzea, eta mesedeak, eta faboreak ari eskatzea, edo erregutzea.

**G.** Zer da biotza, edo anima Jaungoikoagana altxatzea, edo jasotzea? **E.** Gure gogoa, deseoa, eta pentsamentuak Jaungoikoagana, eta Zeruko gauzetara, eta gure animako salbazioaren egitekoetara zuzentzea, mundukoai largarik, edo utzirik. Eta ala egiaz, eta bear bezela orazioa egiten du Zeruko ondasunak bakarrik billatzen, eta eskatzen dituanak.

**G.** Nola altxatzen, edo jasotzen da biotza Jaungoikoagana? **E.** 1. Aren Majestadea adoratuaz, eta alabatuaz. 2. Fedea, esperanza, eta karidadea, eta biotzeko damutasun, edo kontrizioarekin barkazioa eskatuaz, edo birtute orien aktoak egiñaz. 3. Egin dizkigun mesedeen eskerrak Jaungoikoari emanaz. 4. Gure buruak, gure ondasunak, gure lanak, eta gure neke

guziak Jaungoikoari eskeñi, edo ofrezituaz. Eta 5. Azkenik gure premia, edo nezesidade espiritual, eta denboral guzien erremedioa eskatuaz: eta salbazioa iristeko bear ditugun mesede, fabore, laguntasun, edo graziaren sokorruak erregutuaz. Eta ori guzia orazio egitea bada ere; orazioaren izena batez ere dauka mesedeen erreguak, edo eskaerak.

**G.** Eta orazioa, edo eskaera zenbat era, edo modutara egin diteke? **E.** Bitara: 1. Da gogoarekin, edo biotzarekin bakarrik, aoarekin hitz egin gabe, egiten dana: eta orri deritza orazio mentala, edo gogozkoa. 2. Da aozkoa, edo bokala hitzakin egiten dana: baña egiazko orazioa izateko gogozkoarekin lagundu bear dana: bada borondatezko distrazioarekin barruko, edo biotzeko atenzio bage, oartu bage, eta ardurabage egiten danak ezer balio eztu: Jaungoikoak ezertan ez dauka. Eta ala eskuarkiro gogozko orazioak probetxu geiago dakar, aozkoak baño, au egiten ezpada bate-tan hitzakin, eta barruko deseo egiazkoarekin.

**G.** Jaungoikoak gure barrua, eta deseoa ikusten duen ezkeru, zertako da hitzakin orazio egitea? **E.** Hitz onakin gure barruak, eta gogoa esnatzeko, eta mugitzeko: eta animarekin ezeze, gorputzarekin ere gure Jaungoikoa alabatzeko.

**G.** Zenbat modutara da oraindior geiago orazioa?

**E.** Beste bitara: bata da askoren artean egiten dan orazio publikoa, edo komuna; eta bestea da bakoitzak egiten duen orazio partikularra. Orazio publikoa, edo komuna da Kristauak alkarrekin Elizan egin oi duena: eta baita Sazerdoteak egiten duen egunoroko orazioa, edo ofizio dibinoa: eta zelebratzen duen Mezako Sakrifizioa da orazio publikoa, eta komuna; bada Eliza guziaren, eta Kristau guzien izenean egiten due, ixillik errezatzen duenean ere. Eta orazio partikularra da, bakoitzak bere bakarrean egiten duena. Eta biak dira guziz onak, eta Jaungoikoaren guziz gogokoak: baña kondizio berdiñak izan arren, atsegin geiago ematen dio Jaungoikoari orazio publikoak, edo komunak, partikularrak baño: eta indar geiago du Jaungoikoaren aserrea biguntzeko, eta bear ditugun mesedeak iristeko: bada askoren artean beti arkitzen dira Jaungoikoaren adiskide geiago; eta batzuek besteentzat iristen due bakoitzak beretzat bakarrik iritsiko ez lukeana: eta ori askotan ikusi da, eta batez ere Aita San Pedro Apostolua, Elizako burua, Herodesen ordenaz kateaz loturik zegoenean, laster illerazotzeko asmoan, Jerusalemgo Kristauak alkarrekin Jaungoikoari orazio egiten gelditu gabe aritu ziran: eta Jaungoikoak Aingeru

bat bidaldu zuen San Pedro libratzera: kateak kendu ziozkan: karzelatik atera zuen: Kristauak zeuden etxera etorri zan: guziak konsolatu ziran: Jaungoikoari eskerrak eman ziozkaten: eta Herodes burlaturik gelditu zan, eta orra orazio komunaren indarra nolakoa izan zan: eta ala Elizako orazio, eta ofizio publikoetarako gogoia, edo afizioa eduki bear degu.

**G.** Eta gogozko orazioa egiteko, eta Jaungoikoari mesedeak biotzetik eskatzeko obligaziorik badegu? **E.** Bai, eta guziz estua degu: bada gogotik, eta atenzioarekin orazio egin bage, eziñ salbatu gindezke; bada orazio egiteko mandamentua Jaungoikoak ipiñi digu: eta eziñ 1. Jaungoikoa honratu, eta serbitu dezakegu oraziorik egin gabe: eta 2. Eziñ gure obligazioak, ala Jaungoikoaren alderakoak, nola gere buruen alderakoak, eta gere lagun projimoaren alderakoak bear bezela ezagutu, eta kunplitu ditzakegu, gogozko orazioa egin gabe. Eta 3. Eziñ pekatutik libratu, eta grazian iraun dezakegu orazio egin gabe; bada nai ta ez orretako bear degu Zeruko argia, eta grazia; eta ori ondo gogoratu, eta eskatu bage iritsiko eztegu.

**G.** Zergatik gure Jaungoikoa honratzeko, eta serbitzeko gogozko orazioaren aiñ premia andia degu? **E.** Zergatik Fedea, Esperanza, Karidadea, Orazioa, esker

ona, eta Jaungoikoarekiko beste obligazioak, edo egin bearak ezin kunplitu ditzakegu gogozko orazioa egin gabe. Eta ori obeto ezagutu dezazuen, ez daukezue gogora ekarri baizik, Fedea eduki arren, edo fedeko artikuluak jakin, errezatu, eta sinistu arren, ez dala asko oriek aoz esatea: eta ala dirala, oartu bage guziak sinistea: bada fedea orrela, da, karta bat, edo liburu bat itxirik, eta ondo sillaturik edukitzea bezela: karta, edo liburu orretan dauden abisoak ezagutzen ezpadituzu, edo gogoratzen ezpadituzu, batere balio-ko eztizue, edo mugituko etzaitue: eta ala, Fedeak erakusten badizu ere, Jaungoikoa dala gure Egillea eta Jabea, zure sustentatzallea, edo konserbatzallea, zure Salbadorea, zure Ongille guziz andia, zeran guzia, eta dezun guzia eman dizuna, eta betiko zoriona, edo gloria emango dizuna, ondo bizi nai badezu; edo betiko zorigaitza, kastigua, eta tormentua gaizki bizi bazera: eta zu salbatzeagatik gizon egin, nekatu, eta gurutze batean il zala, eta Sakramentu Santuetan aiñ erremedio eragilleak utzi zizula, zu pekatutik libratzeko, eta bizimodu on bat eragiteko: fedeko egia oek, eta oen anzeko beste asko, berez aiñ indarsuak, zu argitzeko, eta zenzatzeko gogora ekarri, eta konsideratzen ezpadituzu; eta zure biotza oriekin esnatzen, mugitzen, eta

azkartzen ezpadezu; eta Jaungoikoari bere grazia eskatzen ezpadiozu: zer serbituko dizue? zure kondena-  
nazio geiagorako izango dira; zerren fedea alferrik eduki dezun, eta aren argiaz, eta abisuaz baliatu nai izan etzeran. Orobat, aĩñ bearra dezun esperanzako birtutea ondo exerzitatuko badezu, esperanza orren motibo andiak gogora ekarri, eta konsideratu bear dituzu: eta ala, zerez bakarrik ezin Zerurako gauza onik egingo dezulako ezaguerarekin humillaturik, zure esperanza guzia ipiñi bear dezu zure Jaungoikaren guzialtasun, edo poderio neurribageagan, eta aren ontasun, eta miserikordia infinitoagan: eta bere Seme bakar Jesu-Kristoren kabubageko merezimentuetan, eta onen izenean, ondo eskatu ezkerro, gure Jaungoikoak zure salbaziorako konbeni zatzun guzia emango dizulako egiñik dauken promesa, edo hitzean zure esperanza guzia ezarri bear dezu: eta eztizu ukatuko, orrela zure salbaziorako eskatzen diozunik, egiaz zere partetik ondu nai bazera: bada gauza bi nai ta ez bear dituzu, zure esperanza egiazkoa izango bada: alde batetik Jaungoikoaren grazia, edo laguntasuna: eta bestetik zure alegiña, edo dilijenzia. Baña nork ez dakus konfianza osoarekin eskatzeko ditugun motibo andiak pensatu, edo gororatu gabe, zure esperanza

izango dala argala, erdi illa, eta frutu gabea? Eta orobat zeregan bakarrik fiatzen bazera, eta uste badezu, zere nai utsarekin, edo zure alegiñakin bakarrik, bear dezun, edo nai dezun guzia iritsiko dezula, gogoak ematen dizun denboran; zure esperanza ori izango da arroa, temerarioa, eta eroa: eta burlaturik arkituko zera: eta ala gauza orien ezaguerea, eta konsiderazioa bear dezu, zure esperanza ona, eta eragillea izango bada. Eta orobat aiñ bearra dezun karidadea, edo Jaungoikoaren eta zure buruaren, eta zure lagun projimoaren egiazko amorioa, nola exerzitatuko dezu, orretako dituzun motiboak ondo ikasi, pensatu, eta gogoratu bage, eta motibo oriekin zure barrua, edo biotza argitu, eta mugitu bage? Eta orretako aiñ premiazkoa dezun Jaungoikoaren argia, eta grazia eskatu bage? bada orobat diot; nola exerzitatuko dezu Jaungoikozko esker ona, egin dizkitzun mesede andiak, gogoratu, eta konsideratu bage? Eta aiñ bearrak ditugun biotzeko humiltasuna, pazientzia, konformidadea, kontrizioa, edo penitentzia egiazkoa, eta beste birtuteak, nola exerzitu, eta iritsiko dituzu, artarako ditugun motiboak, edo arrazoiak konsideratu gabe, eta Jaungoikoari bere grazia, eta laguntasuna eskatu gabe?



Zergatik uste dezu mundua dagoala galdurik, eta gaiztoturik? Espiritu Santuak berak esaten dizu: «*Desolatione desolata est terra, quia nullus est, qui recogitet corde*». Kontsiderazioaren faltak dakar ori guzia. Eta obeto egia ori ezagutu nai badezu, eztezu zere barruan sartu baizik: eztezu pensatu baizik, pekatu orijinaletik, edo jatorrizkotik, Zeruko, eta animako gauzetako guziori etorri zakun ignoranzia, eta itxumena: gure pasioen, eta gurarien eragabetasuna: arrotzeko, aserratzeko, eta sumintzeko errastasuna: interesaren gutizia, ansia, edo eragabeko griña, eta deseoa bizia: eta gorputzaren atsegiñetarako leia, edo inklinazio andia: berriz birtuterako, eta batez ere humillatzeko, pazientzia edukitzeko, injuriak barkatzeko, eta gaitzgilleai on egiteko, eta gure borondate gaiztoa ukatzeko, edo menderatzeko, eta Jaungoikoarena egiteko guziok degun nekeztasuna, pisutasuna, atzerapena, eta nagitasun arrigarria: alde batetik itxuak gaude, eta bestetik elbarrituak bezela, eriak bezela, eta argalak bezela, eta gaitzera makurtuak bezela argi bage, eta indar bage arkitzen gera, gere obligazioak ondo ezagutzeko, eta osatzeko: eta gaitz ori agitz azitzen digue Deabruak bere tenta-aldiakin; munduak, eta lagun gaiztoak beren esames, eta exen-

plo gaiztoarekin: eta gere aragiak bere griña, eta gurari zikiñakin; eta ez gutxiago gure oitura, kostunbre, eta aztura gaiztoak: A! N.K. onak, alde batetik Jaungoikoari zenbat zor diogun; eta gure salbazioak zer balio duen; eta beste aldetik gure itxumena, eritasuna, gaitzerako arintasuna; onerako pisutasuna; eta gure etsai gaiztoen azkartasuna, eta gu galtzeko daukaten ansia andia, ondo ezaguturik bagenduke: orixe genduke asko orazioaren, eta kontsiderazioaren premia, edo bearra ondo ezagutzeko: eta gogozko orazioa egitera oitutzeko: bada orazioarekin, eta kontsiderazioarekin, bear degun Zeruko argi guzia, eta bear degun indar guzia seguru iritsiko degu: eta bestela gere itxumenean, eta gere pasio gaiztoen mendean biziko gera.

**G.** Baña bearbada batzuok galdetuko didazue: Orrela guziok erabatera Abadeak, Fraileak, eta Monjak bezela orazioa, eta kontsiderazioa egitera obligazioa izango degu? Guretzat ezta asko egunoro Aita gurea, Abe Maria, Kredoak, eta akto kontriziozkoa errezatzea?

**E.** Kontsiderazioak egiteko gaiak guk eztakizkigu: eta orrelako gogozko orazio, eta kontsiderazio gabe salbatu uste degu. Arren atenzio, eta arreta andi batekin aditu ezazue, ematera noakizuen eranzuera: eta ezta

nerre burutik jaioa, ezpada Elizako Maisu, edo erakusle andiak ematen duena.

Diot bada 1. Abadeak, Errelijiosoak, eta Monjak motibo bigatik due obligazioa gogozko orazioa egiteko, eta denbora, eta ordu jakiñetan egiteko: lenengo motiboa da zerren orazioa egiteko berariazko erregla, edo legea duen, eta eren ofizioak, edo estaduak artara premiatzen, beartzen, eta obligatzen dituan: eta bigarren motiboa da zerren gogozko orazioa gutxi, edo asko egin gabe, ezin eren beste premiazko lanak, edo egitekoak bear bezela egin ditzakean: ezin eren bizimoduari dagozkien obligazioak bear bezela ezagutu, eta gorde ditzakean. Diot bada 2. Abade, Fraile, edo Monja ez diran beste Kristau guziak eztuela obligatorik, eta legerik ordu jakiñetan gogozko orazioa egiteko: baña Kristauaren beste premiazko lanak, egitekoak, eta obligazioak ezin bear bezela ezagutu, eta kunplitu ditzakeala gogozko orazioa gutxi-asko egin gabe: munduko peligro andien artean, eta barrutik, eta kanpotik dituen animako etsaien artean, ezin egon ditezke luzaro pekatu larriak egin gabe orazioaz armaturik ezpadaude; pekatura ezkerro ezin itzuli ditezke graziazko estadura gogozko orazioa egin gabe, eta penitentzia egiazkoa egiteko bear diran konsiderazioak

egin gabe; edo artarako motiboak berariaz, eta ondo gogoratu gabe: eta ezin graziazko estadian iraun, eta birtuteak aurrera exerzitate ditzake, len esan degun bezela, gogozko orazioa egin gabe, eta nola ori guzia premiazko gauza dan, orra zergatik, gogotik eta biotzetik orazioa egiteko, edo Jaungoikoari bere argia, eta grazia sarri eskatzeko obligazio estua degun Kristau guziok. Eta ala orazio egitea, konsejutzat, eta deboziziozko gauzatzat, eskuarkiro artzen bada ere, askotan da premiazkoa, edo obligaziozkoa: zerren mandamentuak gordetzeko nai ta ez bear degu Jaungoikoaren grazia: eta ezin ori iritsi dezakegu biotzetik eskatu gabe: eta ezin tentazioak goitu ditzakegu (biotzetik eskatu gabe) orazioa egin gabe. Eta premiazko fin bat iristeko nai ta ez bear diran medioak, orobat dira premiazkoak, edo obligaziozkoak. Eta 3. Diot, diferentzia guziz andi bat arkitzen dala Aita gurea, Abe Maria, Kredoa, eta akto kontriziozkoa errezatzen dituen Kristauen artean: 1. Batzuek dira Kristau txit onak: Jaungoikoaren bildur santua, eta eren animako salbazioaren deseio eragillea eren biotzetan ondo sarturik daukatenak: dotriñako egiak ondo ikasteko, aditzeko, eta gogoratzeko alegiñak egiten dituenak: eta iñoiz, ondo oartu bage, jakinezaz edo argaltasunez

utsegite, edo pekatoren bat egiten badue, bereala damutzen zaienak: eta eren orazioak, eta akto kontriziozkoak biotzetik egiten dituenak: eta orrelakoakgatik diot, nola eztakiela eren orazio, edo errezoetan gogozko orazioa, eta konsiderazioa egiaz egiten dituela: bada ezin bizimodu ori egingo luke, eren buruak Zeruko argiaz, eta graziaz argiturik ez baleuzke: eta orrelako Kristau onak, birtutean irauteko, eta geiago aurreratzeke, oitu bear dira, eren egunoroko konsiderazioak kontuz egitera; eta orien ondoren eren asmo, eta proposito santuak berritzera: eta oriek osatzeko, edo kunplitzeko, gogotik eskatzera Jaungoikoari bere grazia, laguntasuna, eta indarra, eta orrela irabazi guziz andiak egingo ditue: 2. Beste Kristau asko dira Kristau epelak, alde batetik pekatu mortala igui duenak, eta ezaguera osoarekin beinzat pekatu mortalik ez egiteko proposito, edo asmoa duenak: baña beste aldetik ardurabageak: eren pasio, eta griña eragabek, nola eren arrotasuna, gutizia, eta atsegin gura andiak ezagutzeko, eta menderatzeko alegiñik egiten eztuenak: eta pekatu andiak ere txikitzat, edo arinzat dauzkatena: geiegi baizik ikusten eztan bezela, eragabeko kostu andiko janzi, eta apainduretan, jostatze, eta danza zikin peligrozkoetan; diru joku andi kaltega-

rrietan, eta projimoaren dañu andiaz egiten diran beste tratu modu askotan: jan-edan geiegizko, etxearen, eta buruaren galgarri, eta ondagarrietan. Onelako Kristau epelak, eta nazaiak, kondenatuak izateko peligro, edo arrisku andian daude: zergatik ordea pekatu andirik egiten duenik uste ezpadue? zergatik eren itxumena uste duen baño kulpagarriagoa dan: bada eztitue eren buruak, eta eragabeko pasioak ezagutu, examiñatu, eta eskuratu nai. Zer erremedio bada orientat? Fedeko egia andien, eta Jesu-Kristoren lege santuaren konsiderazioa; eta gogozko, edo biotzeko orazio, edo eskaera humilla, Zeruko argia, eta grazia Jaungoikoagandik iristeko: bada bestela oituraz errezo luzeak, aoaz egiñ arren, eta akto kontriziozkoak ere kostunbrez esan arren, eta askotan konfesatu, eta komulgatu arren batere erremediatzen ezтира: eren itxumenean gelditzen dira: eta bildur izateko da, azkeneko gaitza, edo ordua datorkienean ere, eren utsegite andiak eren kulpaz ezagutu gabez, penitentzia egiazkoa egin gabe ilko dirala: eta Zerura doatzelako ustean, Infernura jatxiko dirala. Oitu zaitzte bada arren N.K. egunoroko oraziora, eta konsideraziora; eta orrela aterako zerate epeltasuneko estadu kaltegarri orretatik: eta kondenatuak izateko peligro, edo

arrisku andi orretatik. Baña 3. Badira beste Kristau mota batzuek eren pekatuak ezagutzen dituenak: pekatu mortalean daudela dakustenak, edo ezagutzen duenak: eta zorigaitzoko estatu orretatik libratu nai lukeenak, eta erremediatzeko asmoarekin eta deseoarekin Jaungoikoari barkazioa eskatzen diobena: errezoak, eta akto kontriziozkoak ere esaten dituenak: baña argalak bezela, gaizki oituak bezela, okasioan, edo arriskuan sartu orduko, edo tentazioaldi, edo estutasun bat datorkieneko, bereala (eren asmoak, eta propositoak azturik), erraz pekatu biurtzen dira: edo loikeriara, edo ordikeriara, edo gorrotora: edo eragabeko joku andira, beren buruen, eta lagunaren, eta eren etxekoen kalte andiarekin: orrelakoak eztue esperanza galdu bear: eren asmo, eta proposito onak sarri berritu bear ditue: baña eren argaltasuna ikusirik, humillaturik, damuturik, eta lotsaturik benetan, eta konfianza bizi batekin falta zaten indarra Jaungoikoari sarri eskatu bear diobe: eta ori obeto egiteko, eta eren barruak argitzeko, eta indartzeko berriazko kontsiderazioak egin bear ditue, urrengo dotriña aldi esango degun bezela. Eta 4. Azkenik badira beste Kristau itxu, ardurabageak, eta loti batzuek, eren gaiztakerietan arkitzen dituen, edo gusto zikiñak,

edo irabazi justu ezak, maite dituenak, ondutzeko asmo, eta deseorik eztuenak; munduan bakarrik eren zoriona billatzen duenak: Zeruaz, eta betiko gloriar azturik bizi diranak: eta pekatuetan ondaturik, eta uzteko asmo bage egon arren, ala ere atrebitzen dira Jaungoikoari barkazioa eskatzera: baña alperrik, estadu orretan, edo asmo orietan dauden artean: eta ala erremedio bage betiko galduak, eta kondenatuak izan nai ezpadue, eren asmo gaiztoak utzi bear ditue: penitentzia egiteko borondate egiazkoa artu bear due: eta Jaungoikoagana bertatik, eta biotzetik biurtu bear dira: eta orretako orazioari, eta konsiderazioari ekin bear diobe, eren itxumena ezagutzeko: egiaz humillatzeke, eta bizimodua aldatzeko: eta orrela bakarrik salbatu ditezke.

Aditu dezue bada N.K., gaurko dotriña labur onetan orazioa zer dan: zenbat modutan dan: eta gogozko, edo biotzeko orazioa konsiderazioarekin lagundua, zein bearra, edo premiazkoa dan, ez bakarrik birtutean, eta santidadean aurreratzeko, baita ere naitaez egin bear ditugun Kristauaren lanak ondo egiteko: eta gere animak salbatzeko. Artu bear dezue bada gogo bizi bat orazioari, eta konsiderazioari jarduteko: eta nola ori ondo egin urrengo dotriñan esango dizuet.



Jaungoikoak digula arren guziori orazioaren doaia:  
bada orrekin iritsiko degu seguru betiko gloria. Amen.

# BIGARREN DOTRIÑA ORAZIOAREN GAÑEAN

*Gogozko orazioa, eta konsiderazioa  
egiteko moduaren gañean.*

Gogozko, edo biotzeko orazioa, eta konsiderazioa ez bakarrik dira aldi askotan premiazkoak, Kristauaren obligaziozko lanak, edo beargaiak, au da mandamentu santuak ondo gordetzeko, baita ere dira guziz egoikiak, eta probetxugarriak utsegite andiak ezeze, txikiak ere ezagutzeko, erremediatzeko, eta aurrera eskusatzeko: gure eragabeko pasio, gurari, edo griña gaiztoak goitzeko, gure Jaungoikoa egunoro, ta obeto ezagutzeko, eta amatzeko: eta birtutean aurreratzeke, eta irauteko: eta eriotza on bat seguratzeko. Baña baderitzot, berriz galdetzen didazuela.

**G.** Gure salbazioa iristeko eztegu bada asko Kristauaren dotriña santuan erakutsi dizkiguen Kredoan, Mandamentuak, Sakramentuak, eta Aita gurea, Abe Maria eta Elizako beste orazioak jakitea, eta erreza-tzea? **E.** Bear dan ezaguerarekin, atenzioarekin, eta konsiderazioarekin errezatzen badituzue; eta zuen

bizimodua oriekin batera moldatzen, zuzentzen, edo arreglatzen badezue; bai; zuek salbatuko zerate: baña dotriñako egiak jakin arren, eta esan arren; orien sentidua, sustanzia, edo mamia Kristauari dagokan moduan ezagutzeko, eta kontsideratzeko, alegiñak egiten ezpadituzue; eta Jaungoikoari bere grazia eskatuaz, aekin batera bizimodu on bat egitera jarten ezpazerate, zuek eskuarkiro kondenatuko zerate: bada aurreko dotriña aldian argiro erakutsi nizuen bezela, errezoak aoz egin arren, gogozko orazio gabe, eta kontsiderazio gabe, zuen animako etsaiak, eta zuen pasio eragabeak ezin goituko dituzue: Jaungoikoa ezin ondo serbituko dezue: zuen obligaziozko lanak, edo beargaiak ezin ondo ezagutu, eta osatuko, edo kunplituko dituzue: erraz pekatuan erori, eta kontsiderazioarekin, edo gozoko orazioaz dolorea iritsi gabe, ezin jaikiko zerate: eta konfesio on bat noiz, edo noiz egin arren, orazioari, eta kontsiderazioari gutxi edo asko jarraio gabe, laster pekatua biurtuko zerate: eta kontrara oitutzen bazerate dakizkitzuen dotriñako egiak sarri gogoratzera, ondotxo ausnartzera, edo kontsideratzera, eta Jaungoikoari bere argia, eta grazia eskatzera: eta bizimodu on bat egiteko alegi-

ñak egitera; Zerurako izango zeratelako uste, edo esperanza osoa eduki dezakezue.

**G.** Baña berriz esango didazue, gu jakinezak, eskola bageak gera: eta dotriña labur bat baizik eztakigu. Nola bada gogozko orazioa, eta artarako konsiderazioak egin ditzakegu? **E.** Erakutsi begigu, zer eta nola kontsideratu: zer eskatu: eta kontsideraziotik, eta oraziotik zer frutu, edo probetxu atera bear degun. Ori izango da bada gaurko dotriña gaia: eta gogo ona badezue, erraz ikasiko dezue: zuen arteko asko beze-la, jakinezak, eskolagabeak izan ziran San Isidro, eta bere emazte Santa Maria: oek, eta beste ezin kontatu ala Kristau Zeruan daude, eskolarik, eta estudiorik izan bageak: baña zekien dotriña laburrarekin biotz ona, gogo ona, eta Jaungoikoa serbitzeko, eta eren animak salbatzeko arreta andia izan zuen: eta Jaungoikoak argitu zituan: eta Zerura daraman jakinduria erakutsi zien, au da bere bildur santua, eta amorio bizia eren biotzetan sortu zien; eta orretara zuzendu bear dituzue zuen konsiderazioak, eta orazioak: eta ez dizuet gogora ekarriko zeurok zuen dotriña laburrarekin erraz egin ditzaketzuenak baizik. Jaungoikoak eman dizue memoria, edo oroimena beraz akordatzeko: eta egin dizkitzuen fabore, mesede, edo on egiñak

gogoratzeko: eman dizue adimentua, edo ezagume-  
na, beragan pensatzeko, eta bera ezagutzeko; eta  
eman dizue borondatea, edo naimendua aren Majes-  
tadea amatzeko, eta beragatik zuen lagun urkoak  
zuen buruak bezela. Bada konsiderazioa, eta orazioa  
ezta besterik, ezpada fedeko egiak gogoratzea, ondo  
ezagutzea: eta ondoren biotzak mugitzea Jaungoikoa-  
ren amoriora, eta pekatuaren iguitasunera: eta ala  
probetxuarekin orazioa, eta konsiderazioa, egiteko  
naiz Elizan, naiz etxean, naiz soroan, naiz beste lane-  
tan, edo bidetan bakarrik zabilztenean (bada noiznai,  
eta leku guzietan orazio egin diteke, eta pensamentu  
onak gogora ekarri ditezke): 1. Oroitu, edo akordatu  
bear zerate, Fedeak erakusten digun, eta guziok daki-  
zuen egia andi onezaz, eta da, Jaungoikoa, ikusten  
ezpadezue ere, leku guzietan dagoala: eta zuen  
barruan daukazuela: zuek mantenzen, eta konserba-  
tzen beti ari dala: eta zuei begira dagoala: eta zuei on  
egiteko, eta zuek salbatzeko egiazko deseo, eta  
borondatearekin dagoala. Zer gauza errazagorik kon-  
siderazio ori egitea baño, eta zer gauza egokiagorik  
ori baño? zuen atenzioa piztutzeko, eta fede bizi,  
esperanza irmo, eta amorio andi batekin Jaungoikoa-  
gana zuen biotzak altxatzeko, eta bear dituzuen ani-

mako ondasunak eskatzeko? Orduan bada biotz guztitik Jaungoikoari esan bear diozue: Nere Jaungoikoa zugan sinisten det, zugan daukat nere esperanza guzia: nere biotz guztitik amatzen zaitut: nere Jabe soberanotzat ezagutzen zaitut: naizan guzia zurea det, eta zuretzat bakarrik bizi nai det: eta oraindano zu ofendituaz damu det: indazu arren zure argia, eta grazia ez berriz pekaturik egiteko: eta egunoro, eta geiago zu ezagutzeko, eta amatzeko: nere pasio, eta aztura gaiztoak goitzeko: eta zure nai, edo borondate santua beti egiteko Amen. Eta orra N.K. gogozko orazio, eta konsiderazio mota bat txit erraza, eta probetxu andikoa; batez ere biotzetik, eta sarri egitera oitu nai badezue. Bigarrena orobat zeurok dakizkitzuen, eta Kredoan sinisten dituzuen Fedeko egiak erraz gogora ekarri ditzakezue: eta orien gañean guztiz erraz, eta probetxu andiarekin konsiderazioa, eta orazioa egin dezakezue. Ara nola: Kredoaren lenengo hitzak dira: Nik sinisten det Jaungoiko, Aita guztiz poderoso Zeruaren, eta lurraren Kreadoreagan. Hitz orien explikazioa badakizue: 1. Jaungoikoak berak zuek merezi bage, bere ezaguerara, eta fedearen argira ekarri zaituelako autortzen dezue, ikusi gabe sinisten dezuela, Jaungoiko egiazko bakar bat baizik

eztala: eta Jaungoikotasun bakar batean iru persona  
diferenteak daudela: au da Aita Jaungoikoa, Seme  
Jaungoikoa eta Espiritu Santu Jaungoikoa: ez iru Jaun-  
goiko, ezpada Jaungoiko egiazko bakar bat: eta ori  
dala, guk esan al, eta pensatu al baño infinitamente  
miragarriagoa: neurrigabeko, eta kabugabeko perfek-  
zioak, edo anditasunak berak bakarrik berez dituana:  
neurri gabe ona, poderosoa, jakinsua, justua: gauza  
guzien prinzipioa, edo guziai asiera eman diena: eta  
guzien fiña, edo kreaturea guziak bere gloria agertze-  
ko, eta komunikatzeko egin dituana: bada ori guzia  
dakizuen ezkerro, erraz zeurok barruan pensatu, konsi-  
deratu, eta esan dezakezue: Nik Jaungoikoari guztiz  
asko, eta esan al baño geiago zor diot: bada bere eza-  
guerara ekarri nau: eta bera da berez infinitamente  
poderosoa, ona, eta maitagarria, eta bera danagatik,  
beste gabe, merezi du guzien gañeko amorioa, eta  
errespetoa; eta ala ere nik ezertan eduki ez tet, eta  
bera amatu, eta serbitu ordean, askotan, eta andizki-  
ro ofenditu det: eta ez nau Infernura bota, deabruak  
bota zituan bezela, baizik itxon dit: beragana deitu  
nau: eta deitzen dit: eta ondu nai badet, eta bera biotz  
guztitik amatu nai badet, bertatik bere grazia, eta  
gero betiko gloria eman nai dit: Zerekin nere Jaungoi-

koa, eranzungo diot dizudan obligazioari, ala zure anditasun kabugeagatik, nola zure ontasunari, eta niganako amorio guztiz andi orri zor diodanagatik? Lotsatzen naiz nere eskergabetasunaz, eta billautasunaz: damu det Jauna nere biotz guztitik zure Majestadea ofendituaz: lenago ill nai det, zu berriz ofenditu baño: misericordia arren nizaz, zure kabugabeko ontasunagatik, eta Jesu-Kristo zure Seme bakar maitaren merezimentuakgatik. Zurea izan nai det Jauna emendik aurrera: indazu arren zu nere biotz guztitik amatzeko grazia. Amen. Eta orra txit asko balio duen konsiderazioa, eta orazioa.

3. Bada orobat Kredoari garraizkola sinisten degu, gure Jaungoikoa dala guztiz poderosoa, eta guzien Kreadorea, eta jabea: bere nai izanaz beste gabe, nai duen guzia egiteko poderioa, edo eskualdia duena: eta ala ezerezetik, nai izanaz beste gabe, Zerua, eta lurra, eta Zeruan, eta lurrean arkitzen diran kreatura guziak, ala begiz ikusten diranak, nola ikusten ez tiranak sortu, kreatu, edo egin dituala: berak egin dituala, beste kreatura guzien artean nagusienak, edo prinzipalenak diran kreatura mota bi arrazoidunak: au da Aingeruak, eta gizon, eta emakumeak: eta egin gaituala guziok bere Majestade Soberanoaren antzera,



eta imajiñara: emen orain bera ezagutzeko, serbitze-ko, eta amatzeko: eta Zeruko glorian gero eternidade guzian bera aurpegiz aurpegi, edo argitasun guzian ikusteko, alabatzeko, eta berak daukan betiko, eta kabugabeko zorionaz goza eragiteko. Baña egia andi oek sinistea, eta gogoratzea asko ote degu? Ez: Zer egin bear degu bada? 1. Adoratu gure biotzeko erreberenzia guziarekin gure Jaungoikoaren anditasuna, eta guziasuna, edo poderio kaburik eztuena. 2. Ezagutu ondo bere guganako betiko amorioa: bada eternidade guzian beti gogoan eduki gaitu, eta nai izan duen denboran bere anzekoak, eta beti zorionekoak izateko egin gaitu: eta betiko ditxa, eta zoriona iristeko zer egin bear degun argiro erakutsi digu, eta ondo bizitzeko bear degun grazia, eta laguntasuna beti ematen digu, gere partetik alegiñak egin nai baditugu. Eta 3. Ezaguera orri dagokan bezela eranzuteko, exerzitate bear gera, edo ekin bear diogu, orrek eskatzen duen gere barruko humiltasunari: Jaungoikoaganako konfianza, edo esperanza biziari, esker onari, alako Jaungoiko bateganako amorio irazekiari; pekatuaren iguitasunari, eta damutasunari: ez berriz pekatuarek eragiteko proposito, edo asmo irmo, eta eragilleari: eta aurrera gure Jaungoikoarenzat bakarrik bizitzeko

deseo biziari: bada orrelako afektoak, deseoa, eta asmo santuak dira konsideraziotik atera bear ditugunak: eta oriek dira Jaungoikoari benetan eskatu bear diozkagunak: eta aren graziarekin exerzitate bear ditugunak; orrela birtuteak, eta indarrak iristeko, eta bizitza on bat egiteko, eta orrek izan bear du gure konsiderazioaren, eta gogozko orazioaren frutu prinzipala. Eta ala, orain aitatu degun konsiderazioaren ondoren, Jaungoikoa bera begira dagokigula oroiturik, edo akordaturik, esan bear diogu: A! Jauna, zein ona zu guretzat, eta zein esker gaiztokoak gu zuretzat! Zu zera gure Jaun, gure Jabe, gure egille, eta gure Aita guztiz poderosoa, guziz ona, eta guziz ongillea; zuretzat egin gaituzu, eta zugar bakarrik dago gure egiazko, eta betiko zoriona, osoro kontentatu, eta ase gaitzakeana: eta ala ere zu billatu, amatu, eta serbitu ordean, ez bakarrik zutzaz azturik bizi izan gera, baizik askotan, eta lotsagabe ofenditu zaitugu: zure aserrearan erori gera: zure adiskidetasuna, zure grazia, eta Zeruko gloriaren deretxoa galdu degu: zure, eta gure etsairik andienari, deabruari, atsegin egin diogu: aren mendeko billauak egin gera: eta betiko zorigatiza, betiko kondenazioa, betiko Infernua merezi izan degu. Eta ez gaituzu ara bota, beste asko betiko bota ditu-

zun bezela, baizik Aita guziz biguñ, eta gure errukiz betea bezela gurekin portatu zera: itxon diguzu: zuregana berriz deitu diguzu: eta orain ere deitzen gaituzu, eta egiaz humillaturik, damaturik, eta bizitza berria egiteko proposito irmo batekin zugana biurtzea, eta zurekin pakeak, eta adiskidetasunak egitea nai dezuz. Ezagutzen det bada orain nere Jaungoiko, eta Aita guztiz ona, nere zorakeria, nere itxumena, nere eskergabetasuna, eta nere gaiztakeri, eta kulpa guztiz andia: lotsaturik nago nere pekatuaz, eta gaizki egiñaz: damu det Jauna zure Majestadea ofendituaz: eskerrak ematen dizut nere biotz guztitik zure ontasun, eta erruki miragarri orregatik: zugan Jauna, eta zure ontasun kabugabe orretan, eta zure Seme maite Jesu-Kristoren neurri gabeko merezimentuetan daukat nere esperanza guzia, nere pekatuak asko, eta guziz andiak badira ere, zure ontasuna, eta miseriakordia agitz da andiagoa: eta Jesu-Kristok nigatik eman zizun satisfazioa, edo pagua nere zorrak baño agitz andiagoa da: orra zerk ekarri bear ninduan zure Majestadea, eta ontasuna geiago, eta geiago amatzera, eta estimatzera: baño zure onegitasunaz, eta miseriakordiaz beraz baliatu naiz ausardia geiago artzeko, eta ardura gabe zu ofenditzeko: eta ala ere ez nazu Infer-

nura bota: eta humillaturik, eta damaturik zugana biurtzen banaiz, guzia barkatu nai didazu. Zerekin Jauna, zure amorio, eta erruki geiegizko orri eranzungo diot? Damu det Jauna nere biotz guztitik zure Majestadea ofendituaz: amatzen zaitut nere biotz guztitik, eta gauza guzien gañetik, lenago ill nai det, zu berriz ofenditu baño: ez geiago pekaturik: irazeki ezazu, Jauna, nere biotza, zure amorio santuan, eta indazu arren zure grazia, eta indarra nere borondate gaiztoa beti ukatzeko: munduko nekeak pazienziarekin eramateko: eta zure borondate santua gogotik beti egiteko. Amen. Eta orra gogozko orazioa probe txu andiarekin egiteko modua, Kredoaren lenengo hitzak ematen diguen ezaguera, eta argitasunarenkin: eta orri garraizkola.

4. Aurrera kon sideratu dezakegu, ez bakarrik, nola gure Jaungoikoak gizon emakumeak beretako egin gaituan: baita ere, zenbat estimatzen gaituan aren Majestadeak aditzera emateko, nola beste kreatura guziak, ala Zerukoak, nola lurrekoak guretzat egin dituan, eta guretzat konserbatzen dituan. Gure Jaungoikoak beregan dauzka kaburik eztuen ondasunak, eta aberastasunak, eta kreatura bearrik iñoiz ere izan eztu, bere zorionerako: egin ditu bada ezerezetik

Zeruak, eguzkia, illargia, eta izarrak goi-orietan; eta emen be onetan egin ditu, eta ipiñi ditu lurra, ura, sua, eta aizea, eta begiz ikusten ditugun ainbeste animali, egazti, arrai, eta arbola, eta frutu mota diferenteak, aiñ ederki disponituak; eta guziak konserbatzen ditu bere probidenzia guziz miragarriarekin; 1. Bere kabugabeko poderioa, jakinduria, eta ontasuna agertzeko: eta beregan dan bezela, ezin orain ezagutu degulako, bere eskuetako obretan, edo egituretan, nolakoa dan ezagutu dezagun: eta aren kabugabeko anditasunak, eta perfekzioak nolabait barrunta ditzagun: eta guzien jabea, eta egillea bezela adoratu, erreberenziatu, eta amatu dezagun. Eta 2. Gauza oriek guziak egin ditu, eta konserbatzen ditu guretzat, eta gure onerako: gu argitzeko, gu berotzeko, gu mantentzeko, edo alimentatzeko, gu janitzeko, guri laguntzeko, eta guziezaz gu baliatzeko: baña nori guzia zor diogun ezagutzen degula, guzien jabeari, eta emalleari bezela, eskerrak eman degiogun: eta bera serbitzeko, eta ez gure eragabeko pasioak kunplitzeko: munduko ondasunaz usatu dezagun, baña aietan gure biotzak ipiñi gabe; bada, nolanai ta ez ill bear degun, eta noiz, nun, eta nola eztakigun, eta ondasun guziak emen utzi bear ditugun: erakeri, zoramen, eta itxumen guziz arriga-

ria da munduko kreaturakgatik guzien jabea, egillea, eta ongille aiñ maitagarria despreziatzea, injuriatzea, eta ofenditzea: eta beti iraungo duen Zeruko ondasunak, atsegiñak, eta kontentuenak galtzea. Eta ala ere zer besterik ikusten da Kristau askoren artean ere? Zerurako egiñak ezpalira bezela munduko honra, interes, eta atsegiñetan dauzkate ipiñirik eren biotzak, eta amorio guzia: eta eren egille, eren jabe, eta Zeruko eren Aita eta ongille maitagarriaz azturik bizi dira: eta ardura gabe ofenditzen due, puntu zital bategatik, interes labur bategatik, edo atsegin loi zikin bategatik. Eta orain zer probetxu atera bear degu, konsiderazio onek ematen digun ezaguera, eta argitasunetik: eta orrekin batera Jaungoikoak ematen dizkigun gogarki, inspirazio, eta esna-aldietatik? Lotsatu, humillatu, damutu, eta Jaungoikoari biotzetik barkazioa eskatu bear diogu: arritu bear gera Jaungoikoaren ontasunaz, eta guganako amorio aiñ andiaz, eta gure itxumen, eta eskergabetasun arrigarriaz. Aurrera aldatu bear ditugu gure asmoak, eta deseoa: eskerrak sarri eman bear diozkagu gurekiko izan duan miseriakordia miragarriagatik: eta bera biotz guztitik amatu nai degulako señailean, aritu bear gera gere pasio, inklinazio, eta griña gaiztoak ezitzen, gere borondate propio

eragabea ukatzen: naigabeak pazienziarekin sufritzen: eta Kristauari dagokan bizimodu on bat egiten: eta orretarako humill, humill, konfianza osoarekin Jaungoikoari, Jesu-Kristoren izenean bear degun grazia, eta indarra sarri eskatzen. Eta orixe da gogozko orazioa benetan egitea. Eta era onetan dotriñako lau partetan dakizkitzuen Fedeko egiak, naiz Kredokoak, naiz Mandamentuetakoak, naiz Sakramentu Santuen gañekoak, eta naiz orazioaren premiari, eta probetxuari, eta Aita gurearen, eta Abe Mariaren explikazioari dagozkanak, izan ditezke konsiderazio, eta orazio gai guztiz probetxugarriak: bada, ondo oartu nai bazerate, guzietan ikusiko dezue. 1. Jaungoikoaren zuek-ganako amorio guztiz andia: zuek argitzeko, zuzentzeko, eta Zerura eramateko daukan deseo guztiz bizia: 2. Ikusiko dituzue argiro, zuen obligazioak, ala Jaungoikoarekiko, nola zuen buruarekiko, eta zuen lagun projimoarekiko dituzuenak: 3. Ikusiko dituzue orobat zuen utsegiteak: eta 4. Oriek erremediatzeko, eta bizimodu on bat egiteko medio eragille, eta laguntasun andiak. Eta ala, zuen betiko zoriona seguratu nai bedezue, Jaungoikoaren aldetik ezertxo ere falta eztezue; zeurok piztu bear dezue zuen barruan zuen salbazioaren deseo bizi eragille bat: eta ori egunoro, eta

geiago azitzeko, geitzeko, eta irazekitzeko, konsiderazioari, eta orazioari gogotik jarraio bear diozue: eta batez ere gogoan erabili bear dezue. 1. Zertako Jaungoikoak ezerezetik egin zaituen. 2. Zuen egiazko zoriona alperrik billatuko dezuela munduko honra, ondasun, eta atsegiñetan: eta animako kontentu egiazkoa bakarrik arkitzen dala, Jaungoikoaren adiskide orain izatean, eta gero beraz Zeruan beti gozatzean. 3. Ezin esan al baño andiagoak dirala Jaungoikoak zuek merezi gabe, egin dizkitzuen mesede, ontarte, fabore, edo benefizioak, ala beretako egin zaituelako, nola bere ezaguerara ekarri zaituelako: konserbatu zaituelako, eta orain ere konserbatzen zaituelako: deabruaren, eta pekatuaren mendetik, eta betiko eriotzatik, edo Infernutik libratu zaituelako: eta orretako bere Seme bakar maite Jesu-Kristo eman dizuelako gizon egiñik zuen Erredentore, zuen Salbadore, eta zuen Maisu, edo gidari izateko: aren bizimoduaren exemploarekin, eta aren dotriña santuaren argiarekin Zeruko bide zuzena erakutsi dizuelako: aren pasio, eta eriotza Santuaren frutua, au da pekatuen barkazioa, eta bere grazia Sakramentu Santuetan aplikatu dizuelako, eta Jesu-Kristo berbera Komunio Santuan zuen biotzetara datorkizuelako: eta zuek



esker gaiztoz eranzun arren, eta zuen pekatuakin bera berriz aserratu, eta berriz Infernua merezitu arren, kondenatu etzaituelako, baizik beragana deitu zaituelako: eta orain ere egiaz ondu nai bazerate, deitzen zaituelako: eta beste milla mesede Jaungoikoaren ontasunari zor diozkatzue, zuen konsiderazioa, eta esker ona merezi duenak. Baña zuen biotzak Jaungoikoaren amorioan irazekitzeko, eta pekatua geiago aborrezitzeko, Jesu-Kristo gure Jaunaren bizitza, pasio, eta eriotza sarri gogora ekarri bear dezue: eta ondo pensatu 1. Nor dan Jesu-Kristo; 2. Zenbat padezitu zuen; 3. Norgatik padezitu zuen; 4. Zertako padezitu zuen; eta 5. Nolako amorioarekin padezitu zuen; eta frutu txit ugaria aterako dezue; eta amorioarekin Jaungoikoaren bildur santua juntatzeko sarri gogora ekartzue; 1. Ill bearra; eta bein baizik ez ill bear; eta nun, noiz, eta nola ezin jakin: ezaguerarekin, edo ezaguera gabe. 2. Bereala Jesu-Kristoren tribunalean agertu bearra, zuen bizitza guziaren kontu zea ematera; eta zuen betiko suertea erabakiko duen sententzia aditzera. 3. Orren ondoren, ondo bizi, eta ill bazerate, eternidade guziko zoriona, pakea, eta kontentua. Eta 4. Gaizki bizi, eta pekatuan ill bazerate, betiko Infernua, au da betiko ondasunak galdurik, betiko oñaze arriga-

rrien artean erretzen, kiskaltzen, eztanda egiten egon  
bearra: iñoiz ere alibiorik izateko esperanza gabe.  
Orra zeren begira gauden guziok: zenzatu gaitezen  
bada bertatik; orazioari, eta konsiderazioari jarraitu  
degiogun, eta seguru iritsiko degu orain Jaunaren,  
grazia, eta gero betiko gloria. Amen.

# IRUGARREN DOTRIÑA ORAZIOAREN GAÑEAN

*Aita gurearen lenengo hitzak,  
edo sarrera aditzera ematen dira.*

Aditu dezuen ezkerreko aurreko dotriña bietan, orazioaren premia, edo bearra, eta orazio gogozkoa egiteko modua: gaur gure dotriña laburraren galde, eta eranzuerai narraiela, Aita gurea, edo Pater-nosterra esaten diogun orazio miragarria, guziok jakin, eta ondo aditu, edo ezagutu bear deguna, azaltzen abiatu bear gera: eta ikusiko dezue sarrerako lenengo hitzetan, au da, *Aita gurea Zeruetan zaudena esanaz*: zein dotriña andia, pozgarria, eta probetxugarria Jesu-Kristo gure Jaunak erakutsi zigun. Atenzioa eskatzen dizuet.

**G.** Aita gurea esaten degunean norekin hitz egiten degu? **E.** Jaungoiko gure Jaunarekin. Aita Eternoarekin edo Trinitate Santisimaren lenengo Personarekin bakarrik hitz egiten ote degu, Aita gurea esaten degunean? Orobat hitz egiten degu iru Persona Dibino, edo Jaungoikozkoakin: bada Aita Eternoa; bere Seme

bakar Jesu-Kristo gure Jauna: eta Espiritu Santua, Persona diferenteak izan arren, Jaungoiko bakar bat baik ez dira; Persona bakoitza gure Aita guztiz Poderosoa da.

**G.** Eta zeri dagokala gure dotriña laburrak galde ori egiten digu? **E.** Gogora ekarteko, nolako oarmen, edo atenzioarekin, eta nolako errespetoarekin Aita gurea esan bear degun: eta nolako humiltasun, eta konfianzarekin eskatu bear diogun: mesede andi bat Erregearen Majestadeari berari bere aurpegian eskatu bear baziño, nolako errespetoarekin eta atenzio, edo arreta andiarekin hitz egingo ziñiokean gogora ekartzu; eta zure fedea, edo sinistea piztu ezazu: bada Aita gurea esatean, Errege guzien Erregearekin, eta Zeruari, eta lurraren Jabe soberanoarekin berarekin, eta beraren aurrean hitz egiten dezu. Eta zuri ori bera gogora ekarteko galdetzen du berriz.

**G.** Nun dago Jaungoiko gure Jauna? **E.** Eta erantzuten du: Leku guzian, eta batez ere, edo berezki Zeruan, eta Aldareko Sakramentu guztiz Santuan: eta baita justuen animetan: eta ori nola dan Kredoaren dotriñan aditzera emanik dago. Eta ala egin bear dezue alegin guzia, Aita gurea esaten dezuenean gogora ekarteko, zuek ez ikusi arren, Jaungoikoa zuen

begira dagoala, zuek mantenen, konserbatzen, eta bizierazotzen dagoala: zuen barruan daukazuela, eta zuen pensamentu, eta deseo guziak ikusten dagoala. Eta kontsiderazio, edo gogorazio orrek txit asko lagunduko dizue, zuen orazioak beti ondo, eta probetxu andiarekin egiteko.

**G.** Baña esango didazue: guk nai arren atenzioarekin errezatu, edo orazioa egin: eta asmo orrekin asi arren, gure pensamentua erraz dijoakigu etxeko gauzetara: edo kuido ematen diguen lanetara. Orretan kulparik ote degu? Eta ori nola erremediatuko degu?

**E.** Pensamentuaren barreazio, edo banatze ori batzuetan kulpa gabe gertatzen da, eta beste batzuetan kulpaduna da: gure Jaungoikoak badaki gure gogoaren arinkeria: eta zein laster batetik bestera, aizeak beletea bezela, gure imajinazioa gogora datorkigun edo zein gauzak itzultzen duen: eta ori guk nai gabe, edo gure borondate gabe, eta oartu gabe gertatzen bazaku, eztago kulparik: eta antxititik artu genduan ondo errezatzeko asmo onak dirauen artean, orazioak balio digu: baña oartu ezkeru dibertiturik gaudela, ala ere atenzioa ipinteko ardurarik, edo kuidadorik ipinten ezpadegu: edo geurk, gere burua sosegatzeko alegiñak egin bagez, dibertitzeko, edo pensamentua

barraiatzeko, edo aizatzeko motiboak ematen baditugu, orduan gure kulpa da; edo andiagoa, edo txikia-goa, gure arduragabetasuna nolakoa danez. Eta ala orren erremedioak dira. 1. Orazioa egiten asi baño lenago gogora ekartea, norekin hitz egitera goazen: au da begira dagokigun Jaungoikoarekin. 2. Berari eskatzea arren argitu gaitzala, eta ondo eskatzeko, edo orazioa egiteko bere grazia, eta laguntasuna digula. 3. Gere barruko deseoa, eta ansiak, eta gere borondatea Jaungoikoari osoro ematea; bada bestela, nun dagoan gure deseoa, eta amorioa, an dago gure biotza, eta ara juango dira gure pensamentuak. 4. Dotriñako egiak, edo misterio andiak ondo jakiñik edukitzea: bada orrela, liburu orde izango degu gure memoria: eta gogoan ondo sarturik dauzkagun gauzak, erraz imajinaziora, nai degunean ekarriko ditugu: eta aen gañean gure pensamentuak, eta konsiderazioak egingo ditugu, aurreko dotriñan erakutsi nizuen bezela. Eta 5. Ala ere gure pensamentuak beste gauzetara iges egiten badigue, oartu ezker, bereala gure lanera, eta konsideraziora biurtzeko alegiñak egin bear ditugu: eta bein, berriz, eta askotan ori gertatu arren eztegu desalaitu bear: bada indar egiten degun

bitartean atenzioarekin orazio egiteko beti irabazten gaude.

**G.** Eta zergatik geiago erakusten digu gure dotriña laburrak Aita gurea esaten degunean Jaungoiko gure Jaunarekin hitz egiten degula? **E.** Zergatik gure Jaungoikoa bakarrik da ondasun guzien Jabea, eta doai, eta grazia guzien emallea, eta berari eskatu bear diozkagu bere Seme bakar Jesu-Kristoren izenean: eta onek berariaz erakutsi zigun orazioan.

**G.** Ez tiegu bada Ama Birjiña Santisimari, Aingeruai, eta Santuai Pater-nosterrak, edo Aita gurea errezatzen, eta eztegu orduan aekin ere hitz egiten? **E.** Orduan ere Jaungoikoarekin hitz egiten degu: eta bakarrik bitartekotzat artzen ditugu Ama Birjiña, Aingeru, eta Santuak, aek gugatik Jaungoikoari erregutu degioben Jesu-Kristoren izenean: eta Aita gurean eskatzen degun guzia iritsi degiguen: Eta zergatik diogu, Aita Jaungoikoari eskatu bear diogula Jesu-Kristoren izenean? Zergatik Jesu-Kristo bakarrik da kabubageko merezimentuak dituana: eta aren errespetoz, eta ark guretzat irabazi zuelako, Aita Eternoak errukiz begiratzen gaitu. Eta ala, orazio guziak Zeruan, eta lurrean egiten diranak, Jesu-Kristoren izenean egiten dira: eta aren izenean ondo eskatu ezkeru, gure salba-

ziorako bear degun, edo konbeni zakun guzia iritsiko degu: batez ere iraupenarekin eskatzen badegu: bada batzuetan gure onagatik Jaungoikoak luzatzen du, bereala ematea eskatzen deguna: eta beste batzuetan guk eskatzen degunaren orde, geiago balio digun beste mesede bat egiten digu: eta ala orazioaren fruitua beti iristen degu.

**G.** Oraziorik onena zein da? **E.** Aita gurea, edo Pater-nosterra. Zergatik? Zergatik Jesu-Kristok berak esan zuen bere aoz, Apostoluak eskaturik; eta argatik Jaunaren orazioa esaten zaio.

**G.** Orretan zer aditzen degu? **E.** Apostoluai askotan aditzera eman zien Jesu-Kristo gure Jaunak orazioaren bearra, edo premia Zeruko grazia, eta laguntasunak iristeko gure animako etsaiak goitzeko, eta gure salbazioa alkanzatzeko. Eta Apostoluak Jesu-Kristori erregutu zibon erakutsi zegiela berak, guzien Zeruko Maisu zanak bezela, nola orazio egin. Eta orduan Jesu-Kristok esan zien, onela orazio egin, edo eskatu bear dezue: Aita gurea, Zeruetan zaudena, santifika bedi zure izena, etc. Eta orazio labur onetan erakutsi zigun Jesu-Kristo gure Jaunak eskatu bear degun guzia, eta ondo eskatzeko modua. Eta ori aditzera emateko, berriz galdetzen du gure dotriña laburrak. Zergatik



geiago, da, Aita gurea oraziorik onena? Eta erantzuten du, zergatik dituan zazpi petizio esan nai du, zazpi eskaera, otoitz, edo orazio karidade guzian fundatuak.

**G.** Eta orrek zer esan nai du? **E.** Zazpi petizio, eskaera, edo orazio orietan eskatzen degula, Jaungoiko gure Aitaren honra, eta gloriarako; gure animen salbaziorako, eta gure lagun projimo, edo urkoaren salbaziorako eskatu bear degun, eta eskatu dezakegun guzia: au da, bear ditugun, edo konbeni zaizkigun ondasun espiritual, eta denboralak: animako, eta gorputzeko gaitzetatik libratuak izatea: gure pekatuen barkazioa, eta ez berriz pekatuak egiteko bear ditugun Zeruko grazia, sokorru, edo laguntasunak, ala guretzat, nola gure lagun projimoentzat. Eta ala, Aita gurearen hitz guziak ez itoka, edo presaka, ezpada betaz, oarmenaz, eta ondo esateko, eta aen sentidua, mamia, edo espiritua ondo ezagutzeko, eta sarri kontsideratzeko alegiñak egin bear ditugu: bada Jesu-Kristok bere Ebanjelio Santuan erakutsi zigun dotriñaren, eta eskatu bear degun guziaren sustanzia, orazio labur onetan sarturik dago.

**G.** Baña izanik gure Jaungoikoa kabubageko anditasunak, eta perfekzioak berez dituana, Zeruari, eta lurraren Jabe soberanoa: Aingeru, eta Santu guziak

bere Majestadearen aurrean ikara bezela dauzkana: Errege guzien Erregea, eta Jaun guzien Jauna, nola gu Kristau zirzil, ezerezak, eta pekatari esker gaiztokoak atrebitu gaitezke alako Jaunari Aita gurea esatera? **E.** Orra N.K., gure Jaungoikoaren ontasuna, eta digun amorioa zein miragarria dan: bada bere humetzat artu gaitu: eta Jesu-Kristoren senideak, eta Zeruko erreinuaren herederoak egin gaitu: Eta Aita guztiz onaren biotza gurekiko dauka: eta Aita gurea deitzea agindu digu: eta ori bere Seme propioak Jesu-Kristo gure Jaunak erakutsi digu: eta ala Sazerdoteak Meza Santuan, guzien izenean Pater-nosterra esan baño lenago, edo aren aurretik: hitz oek esaten ditu: «*Preceptis salutaribus moniti, et divina institutione formati audemus dicere*». Jaunaren aginte salbagarriakin erakutsirik, eta eman zagon Jaungoikozko dotriñaz batera, atrebizten, edo ausartzen gera esatera: Pater-noster, edo Aita gurea.

**G.** Eta zergatik eskatzen abiatu baño lenago esaten degu Aita gurea Zeruetan zaudena? **E.** Jasotzeko biotza Jaungoikoagana, eta eskatzeko mesedeak humiltasun, eta konfianza geiagorekin: esan nai du, 1. Hitz oriekin gure atenzioa piztu, edo bizierazo bear degula, norekin hitz egiten degun gogora ekarriaz. 2.

Gere barruan humillatu bear gerala, ikusirik Jaungoikoaren Majestadearen aurrean zein ezerezak geran: zein billabak, eta esker gaiztokoak izan geran: gere pekatuakgatik ezereza baño ere gaiztoagoak: Jaungoikoaren aurrean agertzeko, edo presentatzeko indignoak, edo diña ez geranak: mesederik batere eskatzeko, meritorik batere ez degunak: betiko Infernua bai ondo merezi izan degunak: eta pekatutik gere buruak libratzeko, eta gauza onik Zerurako egiteko gerez bakarrik gai ez geranak: gerez jakinezak, itxuak, eriak, argalak, eta etsaiez inguratuak. Orra N.K., motiborik asko egiaz gere barruan humillatzeko: bada ezaguera orrekin eskatzea, orixe da humiltasunarekin orazio egitea: baña 3. Humiltasun orrek eztigu kendu bear gure Jaungoikoaganako konfianza bizia, baizik azi, eta geitu bear digu: bada aren Majestadeak, arroak, presumiduak, soberbioak, igui dituan bezela, humillak maite ditu: eta beregana deitzen ditu, eta bere eskua, eta grazia pozik, eta ugari ematen die: eta ala zenbat obeto gere miseria ezagutzen degun, eta geiago humillatzen geran, anbat konfianza geiago Jaungoikoagan eduki bear degu: eta aren argi, sokorru, eta laguntasunarekin guzia dagikegu.

**G.** Baña zerk batez ere eman bear digu konfianza ori? **E.** 1. Jaungoikoa bera gure Aita guztiz poderosoa, eta guztiz ona izateak: 2. Aren Seme bakar maitea, Jesu-Kristo gure Jauna, Jaungoiko, eta gizon egiazkoa, gure Erredentore, eta gure bitarteko andia izateak: eta bere senidetzat, eta bere zati, edo mienbrotzat arturik edukitzeak: eta aren izenean eskatzen degun guzia emango digulako promesa andiak. Eta 3. Espiritu Santua bera gure argitzalle, gure erakusle, eta gure biotzaren edo borondatearen ukitzalle, eta berotzalle edukitzeak: bada bere argi, eta graziarekin beti ari da onerako gogargiak, edo inspirazioak guri bidaltzen, gu esnatzeko, mugitzeko, pizkortzeko, eta gogotik eskatu eragiteko: eta gure salbaziorako bear deguna iristeko.

**G.** Eta gure Jaungoikoa egiaz da gure Aita? **E.** Modu batera da Jesu-Kristoren Aita, eta beste modu batera da gure Aita. Jesu-Kristo da bakarrik, eta betidanik Aita Eternoaren Seme propioa, naturala, eta konsustanziala: au da bere Aita Eternoarekin Jaungoikozko izate bat bera, naturaleza bat berbera, eta Jaungoikotasun berbera daukana: eta ez gera gu gisa orretan Jaungoikoaren Semeak: baña bai egiaz gera Jaungoikoaren semeak, edo humeak: eta bera da gure

Aita; ez bakarrik ezerezetik egin gaitualako, beste kreaturak bezela, baita ere, besteak ez bezela, gizon, emakumeak bere antzera, eta imajiñara egin gaitualako: eta aren Majestadea ezagutzeko, amatzeko, serbitzeko, eta beraz beti goatzeko egin gaitualako: eta guk merezi gabe konserbatzen, eta sustentatzen gaitualako: eta beste kreatura guziak, ala Zerukoak, nola lurrekoak guretzat egin ditualako: eta Ama Birjiña Santisima gure amatzat, eta anparatzalletzat: Aingeruak gure zai, eta gidaritzat: eta Santuak gure ispillu, erakusle, eta bitartekotzat eman dizkigulako. Eta Aita maitetsu baten lanak gurekin egin ditualako: eta oraindio geiago dana, bere Seme propioa bera, gure Maisu, edo erakusle, gure Erredentore, eta Salbadoretzat eman digulako: bere grazia Sakramentu Santuetan eman digulako: eta bere seme-alabatzat artu nai izan gaitualako: bere Jaungoikozko naturaleza, edo izate dibinoaren partedun, edo partizipante egin gaituelako (*Divinae consortes naturae*) Jesu-Kristoren senide, eta mienbro, edo zatiak egin gaitualako: bere Elizako humeak, eta mienbroak ere egin gaitualako: Espiritu Santua bere doaiakin eman digulako, eta aren jarleku, eta Tenplo biziak egin gaitualako: eta Zeruko erreinuaren, eta betiko gloriaren herederoak egin gai-

tualako. Orra N.K., zenbat aldetara dan Jaungoikoa gure Aita: orra zenbaterako maite izan gaituan, eta honratu gaituan. Nolako amorioa bada, nolako esker-rak, nolako obediencia, eta nolako gure biotz guziaz sakrifizioa zor ez diogu alako Jaungoiko eta Aita guztiz poderoso, guztiz maitatzalle, eta guztiz ongi-llari? Lotsatu gaitzen arren gure itxumenaz, gure esker gaiztoaz; eta alako Aita maitea, biotz guztitik amatu ordean, aia arduragabe ofenditzeko izan degun ausardia izugarriaz: eta arritu gaitzen ikusirik ez bakarrik ez gaitualako betiko kondenatu, baizik, Aita errukitsu, biguiñ, eta guztiz piadoso, eta miseri-kordio-soa bezela gurekin portatu dala: gure zorakeriak, gaiz-takeriak, eta esker gabetasunak ikusi arren, itxon digu, beregana askotan deitu gaitu, eta orain ere deitzen digu: eta zenzatu, eta ondu gaitzela abisatzen digu: eta ala arria baño gogorragoak izan nai ezpade-gu, eta gere buruak betiko galdu nai ezpeditugu, humillatu gaitzen, lotsatu gaitzen gere artean, seme prodigoa bezela, gure Aita ona ofenditu degula-ko; eta konfianza oso batekin beragana biurtu gaitzen; eta Aita errukitsuak bezela, gure utsegiteak bar-katuko dizkigu: eta hume humill, onak, leialak, eta esker onekoak aurrera izateko gogoia, eta grazia

emango digu: eta baita hume onai dagokien bezela, gure Aita onaren borondatea gauza guzietan egiteko: ondasunak, eta konsueloak bezela; pobreza, nekeak, eta naigabeak ere bere eskutik konformidade oso batekin artzen ditugula: bada guk baño obeto daki, gure salbaziorako zer konbeni zakun: eta ala atsegiñak, nola atsekabeak gure onerako zuzentzen ditu: eta gure zorion egiazkoa, eta biotzeko pakea eztegu iñola ere iritsiko, gere borondate gaiztoa ukatu gabe: gere gurutzea, edo egunoroko nekeak, eta naigabeak Jaunaren izenean sufritu gabe, eta Jesu-Kristori garraizkola, gure Aita onaren borondatea egin gabe: eta orra Pater-nosterraren, edo Aita gurearen lenengo hitzak: au da Aitaren hitzak bakarrik, zein dotriña andia, eta miragarria erakusten digun.

**G.** Eta zergatik eztiogu esaten gure Jaungoikoari, Aita nerea, ezpada Aita gurea? Benturaz ezta bakoitzaren Aita? **E.** Bai: baña berariaz Jesu-Kristo gure Zeruko Maisu, edo erakusle soberanoak agintzen digu esatea, Aita gurea, eta ez nerea. 1. Zergatik Jesu-Kristori berari bakarrik dagoka, Aita Eternoari, nere Aita esatea: askotan berak esan zuen bezela: bada bera da bakarrik, len esan dizuedan bezela, Aita Jaungoikoaren Seme propioa, eta naturala: eta gu gera graziaz

bakarrik semetzat artuak. 2. Esaten diogu gure Aita, edo Aita gurea, aditzera emateko Kristau guziok Aita baten humeak, eta Jesu-Kristoren senideak, eta arekin batera Zeruko erreinuaren herederoak berdin generala: eta ala Kristauen artean munduko Erregeak, agintariak, poderosoak, aberatsak, eta munduko pobre, bearsu, humillak, andiak, eta txikiak, guziok gera Aita baten humeak, eta Jesu-Kristogan alkarren senideak: eta ori inoiz ere aztu bear eztegu. Eta 3. Egia orri dagokala, guziok alkar amatu, serbitu, lagundu, sokorritu, eta sufritu bear generala: au da gure Aita Jaungoikoari guziok zor diogun amorioagatik alkarrekiko karitydada, edo amorioa gure biotzetan beti bizirik eduki bear degula: bada bestela ez gera egiaz Aita Jaungoikoaren hume onak: eta eztago guretzat Zeruko herentzia. A zer dotriña au, soberbiaz, enbidiaz, gaitziritziz, edo gorrotoz beterik daudenentzat, eta eren projimo, edo senideen errukirik batere eztenentzat!

**G.** Eta zergatik eztegu esaten bakarrik Aita gurea: baizik orren ondoren esaten degu Zeruetan zaudena?

**E.** 1. Aditzera emateko, gure Aita Zeruan dagoan ezkerro, eta gure betiko, eta egiazko zoriona gure Aitarren erreinuan guretzat dagoan ezkerro; mundu onetan, erbestean gaudela; ez gure erri propioan, eta atsedan



lekuan: emen peregrinoak, eta bidezkoak generalak: eta gure betiko bizileku atsegingarria Zeruan daukagula: eta nola peregrinoak, eta bidezkoak ez dituen eren biotzeko desioak, eta asmoak bidezko lekuetan paratzen, eta ezartzen, ezpada, edo betaz, edo beti bizi bear duen lekuetan, ala guk ere, gure gogo, asmo, eta desio guziak Zerura jaso bear ditugula: eta munduko honra, ondasun, eta atsegin labur, eta iruripenekotan ez ditugula gure biotzak ipiñi bear. 2. Esaten diogu, gure Aita Zeuretan zaudena, aditzera emateko, Zerutik itxodoten degula bear degun laguntasun, sokorru, eta indar guzia, gure egiazko zoriona eragotzi, eta galdu eragin nai diguen animako etsai gaiztoak, ala kanpokoak, nola barrukoak, goitzeko: eta betiko koroa irabazteko, eta aseguratzeke: ara nola hume onak eren konfianza guzia eren Aita maitetsuan ipintzen duen: eta bear duenik ukatuko eztielako uste osoan dauden: eta esperanza orrekin alaiturik sosegu daude: eta premi orduan, hume onak gurasoari bezela, bere laguntasuna eskatzen diobe: eta orixe da, guziok egin bear deguna gure estutasun guzietan: oitu gaitezen bada orretara: gure premia guzietan altxatu dezagun gure biotza, begira dagokigun gure Aita onagana, eta esan degiogun gogotik: lagun gai-

tzatzu arren estualdi onetan, eta zeretzat gorde gaitzatzu. Eta azkenik 3. Esaten degu Aita gurea Zeruetan zaudena: guri oroitu, edo akorda eragiteko, nolako honra, diñatasun, eta noblezi altura gure Jaungoikoak Kristauok jaso, edo altxatu gaituan: eta nolako estimazio, ondasun, atsegina, poz, eta kontentuek dauzkan Zeruko erreinuan, guretzat prestatuak daukan herentzia guztiz aberats, eta guztiz gozo artan. Eta ala, zer gauza egokiagorik, eta probetxugarriagorik N.K., alde guzietara, Aita gurea Zeruetan zaudena, bear dan ezaguerarekin, oarmenarekin, eta atenzioarekin esatea baño? Jaungoikoaren beraren seme, edo alabak, eta Zeruko herederoak geran ezker bada, titulu ori, honra ori geiago estimatu bear degu Erregekumeak izatea baño: mundu guziaren jabeak izatea baño: piztu dezagun bada arren gure fedea: ez dago munduan gure zoriona: emen zorionekoak izatea billatzen badegu, emengo honra, ondasun, eta atsegiñetan, gure biotza ipinten badegu, betiko zoriona galduko degu: eta betiko zorigaitza gere buruai ekarriko diegu: gure Aita, eta gure herentzia Zeruan dago. Hume onak, eta esker onekoak izateko puntua, eta honra izan bear degu: eta ez billabak, eta esker gaiztokoak: Zeruko Erregegaiak gera: Errege guzien Erre-

gea degu gure Aita: ama dezagun bada gure Aita ona,  
gure biotz guztitik, eta gauza guzien gañetik: eta  
beragatik gure projimoak, gure anaiak, edo senideak  
bezela: eta guretzat izango da betiko gloria. Amen.

# LAUGARREN DOTRIÑA ORAZIOAREN GAÑEAN

*Aita gurearen lendabiziko iru petizioak  
aditzera ematen dira.*

Ikusi dezuen ezkerro N.K., aurreko dotriña santuan Pater-noster, edo Aita gurearen lenengo hitzetan nolako honra, eta estimazioa gure Jaungoikoari zor diogun, berak gure Aita izan nai izan duelako: Jesu-Kristoren senideak egin gaitualako: orain ikusi bear dezue, esker oneko semeak izateko, eta zuen Aita ona maite dezuela aditzera emateko, nolako deseoa zuen biotzetan eduki bear dituzuen: eta batez ere Jaungoikoaren beraren honrarako, eta zuen salbaziorako zer eskatu bear diozuen, sarriena, eta gogotiena lenengo iru petizioetan.

**G.** Zein da lenengo petizio, edo eskaera? **E.** Santifikatua izan bedi zure izena. Zer eskatzen dezu petizio, edo erregu orretan? Jaungoikoaren izena izan dedilla ezagutua, eta honratua mundu guzian.

**G.** Santifika bedi zure izena esaten degunean, benturaz eskatzen degu, Jaungoikoaren izena dan

baño santuago izan dedilla? **E.** Ez, zerren dan berez fin gabe, edo kabugabe Santua: eta ezin azi, edo geitu diteke aren neurri gabeko santidadea. Baña merezi du, kreatura guziak ezagutu, honratu, eta alabatu dezatela.

**G.** Zer eskatzen degu bada? **E.** Zeruan ezagutua, eta honratua dan bezela, munduan ere izan dedilla. Eta ori benetan, eta biotzetik eskatzen degula aditzera emateko, Zer egin bear degu? 1. Gure Jaungoikoa gure egiatzko Aita, guztiz maitetsua, eta guztiz maitagarria dala gogoan ondo sarturik eduki: eta hume onai, leialai, eta esker onekoai dagokien biotza Jaungoiko, gure Aita onarekiko eduki bear degu. Eta 2. Beraganako gure amorioa agertu bear degu, biziro deseaten degula, gure bizimodu onarekin, eta guziak Jaungoikoaren ezaguerara, eta amoriora ekarteko alegiñak egiñarekin, gure Aita Jaungoikoa ezagutua, honratua, eta amatua ikustea mundu guzian; Zeruan dau den zorionekoen gisa: eta or ezagun da, petizio, edo eskaera onen, eta beste guzien sustraia dala karidadea, edo gure Jaungoikoaren, gere buruaren, eta gure lagun urko, edo projimoaren amorioa.

**G.** Eta amorio orri dagokion bezela eskatzeko zer gauza dira batez ere deseatu, eta eskatu bear ditugu-

nak? **E.** 1. Fedearen argi gabe dauden idolatrak, edo gezurrezko Jaungoikoaren adoratzalleak, Jesu-Kristoren ezaguerarik, eta Federik eztuen Jentil itxuak, Juduak, Herejeak, eta Eliza Ama Santaren dotriña ezagutzen, eta sinisten eztuen guziak, argitu ditzala arren gure Jaungoikoaren ontasunak: eta ekarri ditzala bere ezaguerara, eta salbaziorako bidera. 2. Eskatzen degu, Kristau pekatariak, eren pasio eragabeekin itxurik daudenak, egiazko penitentzia egiteko bear duen argia, eta grazia eragillea arren eman degiela. 3. Batez ere Jaunaren izen Santua deshonoratzen duen gezurrezko juramentu-gilleak, blasfemariak, eta eskandaloa, edo pekaturako bidea besteai ematen dienak, eren gaiztakeri arrigarria ondo ezagutu dezatela: eta erremediatu ditezela: eta aurrera erak Jaungoikoa honoratu ezeze, besteak ere ekarri ditzatela eren exenplo onarekin Jaungoikoaren izen santua honoratzera. 4. Birtuteak darraien justuak eman degiela gure Jaungoikoak birtutean irauteko, eta aurreratzeke bear duen grazia, eta indarra. Eta 5. Guziori digula alkarri lagunduaz, alkar amatuaz, eta exenplo ona bata besteari emanaz gure Aita onaren egiazko hume leialak: eta Jesu-Kristogan alkarren senide onak izateko bere grazia ugaria: orrela gure bizimoduarekin

Jaungoiko gure Aitaren egiazko humeak gerala: eta aren honra gauza guzien gañean billatzen degula aditzera emateko. Eta orra santifika bedi zure izena esaten degunean, nolako biotza, eta nolako deseoak eduki bear ditugun, egiaz, eta benetan eskatzen degula aditzera emateko.

**G.** Eta nor dira petizio, edo eskaera ori gezurraz esaten duenak? **E.** Txit asko dira: baña batez ere pekatari gogortuak, eta ardura gabe gezurrezko juramentuak, eta birau, edo maldizioak, eta blasfemiak esaten dituenak, eta eskandaloa ematen duenak, au da eren lagun urko, edo projimoak pekatura mugitzen, edo erakartzen dituenak gaizki erakutsiaz, conseju gaiztoak emanaz, edo nolanai pekaturako bidea emanaz: eta eren Aita ona ofenditu eragiñaz.

**G.** Eta orrelakoak ala ere petizio, edo eskaera ori egin dezake, edo Aita gurea Zeruetan zaudena, santifika bedi zure izena egiaz esan dezake? **E.** Bai damuturik badaude: baña bestela ezer serbitzen ez tie: baik eren buruak kondenatzen ditue: aoaz gauza bat, eta biotzaz, eta obraz beste kontrako bat egiten duelako. Begira ezazue bada arren N.K.; aiñ maite izan zaituen zuen Aita onari nolako injuria egiten diozuen: aren honra prokuratu ordean, zeurok deshonoratu era-

giñarekin: lotsatu zaitezte zuen esker gaizto arrigarri orrezaz: humillaturik, eta damaturik barkazioa biotzetik eskatu egiozue: eta aurrera hume onak, esker onekoak, eta leialak izateko, eta zuen Aita onaren izen santua honratzeko, eta honratu eragiteko alegiñak egin itzatzue: eta benetan, eta biotzetik esan ezazue, santifika bedi zure izena.

**G.** Eta zein da bigarren petizioa, edo eskaera? **E.** Betor guregana zure erreinua: Zer eskatzen dezu petizio, edo orazio orretan? Erreina dezala Jaungoikoak gure animetan emen lurrean bere graziaz: eta gero Zeruan digula bere gloria.

**G.** Zenbat erakoa da Jaungoikoaren erreinua? **E.** Iru era, gisa, edo modura da. 1. Da naturalezako erreinua. 2. Da graziazkoa. Eta 3. Da gloriatzkoa. Bere-tuak dauzka gure Jaungoikoak kreatura guziak naturalezako ordean: Zeruak, eta lurrak, eta oetan dauden gauza guziak obedezitzen diote: eta guziezaz nai bezela disponitzen du: eta ezta naturalezako erreinu, edo aginte, edo eskubide ori Aita gurean eskatzen deguna: baizik graziakoa orain, eta gero gloriatzkoa.

**G.** Eta zer esan nai degu, Jaungoikoak erreina dezala bere graziaz gure animetan eskatzen degu-nean? **E.** 1. Jaungoikoak argitu ditzala, eta beregana



ekarri ditzala pekatu mortalean dauden guziak: au da, atera ditzala, penitenzia egiazko baten bitartez, deabruaren, eta pekatuaren katiberio, edo mendetik, eta libra ditzala betiko eriotzatik, edo Infernutik: eta eman degiela bere grazia, eta adiskidetasuna, eta orretan irauteko bere laguntasuna, eta indarra. 2. Eskatzen degu, justuak konserba ditzala bere grazian: eta animako etsaiak goitzeko, eta birtuteari jarraitzeko bear dituen argiak, eta sokorruak eman degiela: hitz batean, desegin dezala deabruaren erreinua, eta geitu dezala Jesu-Kristoren erreinua, edo Jaungoikoak bakarrik gure biotzetan agindu dezala: eta orduan aren izen Santua ikusiko da ezagutua, eta honratua mundu guzian, aurreko petizioan eskatzen degun bezela.

**G.** Eta graziazko erreinuari zer darraio gero? **E.** Gloriazko erreinua: eta au da Jaungoikoak Zeruko erreinuan gozaten duena: eta Zerutar guziai goza eragiten diena. Eta erreinu ori datorkigula eskatzen degunean, Zerura juatea baizik besterik eskatzen degu? Bai eskatzen degu, osatu dedilla len baño len Jaungoikoaren erreinua bere perfekzio guzian: au da, bukatu dedilla deabruaren, munduaren, eta aragiaren erreinua: akabatu ditezela pekatuak, eta Jaungoikoa-

ren borondatea bakarrik egin dedilla mundu guzian, batere enbarazorik arkitu gabe bere kreaturetan.

**G.** Eta ori noiz ikusiko da? **E.** Mundu au akabatzen danean: eta Jaungoikoaren Majestadeak bakoitzari dagokion, edo betiko zoriona Zeruan, edo betiko zorigaitza Infernuan ematen dionean.

**G.** Orrela mundua bukatzea, eta juizio jenerala laster izatea deseatu, eta eskatu dezakegu? **E.** Bai: eta perfekzio andiarekin santuak deseoa ori erakusten zuen: zerren, nola ainbeste pekatu, eta Jaungoikoaren ofensa munduan ikusten zituen: eta ainbeste anima orregatik betiko kondenatzen zirala, gaitz oriek bukatu-rik ikusteagatik deseatzeko zuen, eta Jaungoikoari eskatzen zibena munduaren bukaera.

**G.** Eta Santuen deseoa ori Jaungoikoak kunplitu ote du? **E.** Bai: Jesu-Kristok berak dio munduaren azkeneko egunak laburtuko, edo gutxituko dira, bere esleituen errespetoagatik: esleituak izateko, eta Zeruko erreinua iristeko alegin guziak egin ditzagun bada; jarraitu deiogun orain guziok Jesu-Kristo gure Errege, eta Maisu soberanoari: billatu dezagun berak esaten digun bezela gauza guziena aurretik Jaungoikoaren erreinua, eta ara daraman justizia, edo birtutea: eta aren Majestadeak, gure Aita ona, eta guztiz poderoso

danak bezela, emango dizkigu, azigarri, edo añadigarri bezela emen bear ditugun alimentu, janzi, eta gure salbaziorako dagozkigun beste gauza guziak: bada bere hume onai konbeni zaiena ukatzen ez tie.

**G.** Eta zertan dago batez ere Zeruko erreinura garamazkian justizia, edo birtute guzia? **E.** Irugarren petizio, edo eskaerak erakusten diguna egitean.

**G.** Zein da irugarren petizioa, edo eskaera? **E.** Egin bedi zure borondatea, nola Zeruan, ala lurrean. Eta zer eskatzen degu petizio, edo orazio orretan? Lurrean gaudenok egin dezagula Jaungoikoaren borondatea Zeruan dauden zorionekoak, edo bienabenturaduak egiten duen bezela.

**G.** Eta nola egiten due Zerukoak Jaungoikoaren borondatea? **E.** Bereala, edo atzerapenik batere gabe txit gogotik: amorio guziarekin: eta kontentu, eta atsegin andiarekin.

**G.** Eta egin dezakegu guk orrela, edo era orretan emen lurrean Jaungoikoaren borondatea? **E.** Zerutarak bezin perfekzio andiarekin ez: bada aek ez tue etsairik, eta eragozgarririk batere: guziak goitu zituen, eta Jaungoikoarekin bat egiñik, edo laztandurik daude: bere gloriaz gozatzen daude: eta bera argiro ikusten, eta amatzen, eta beti alabatzen ari dira: eta

gu illunpean, eta etsai askoren artean gaude: baña ala ere emengo, edo oraingo gure estaduari dagokion moduan egin dezakegu Jaungoikoaren borondatea Zerukoen gisa beraren graziarekin, eta gere alegiñakin, artara gogotik leiatu nai bagera; Jesu-Kristok beti egin zuen, eta erakutsi zigun bezela, eta Kristau onak orain ere egiten duen bezela, Jesu-Kristori, eta Santuen exemploari darraiel.

**G.** Izanik bada gure Jaungoikoa gure jabea, gure egillea, gure Errege, eta gure Aita, eta gure Jaungoikoaren borondatea aiñ justua, aiñ santua, aiñ zuzena; eta gure ona baizik nai eztuena: Zergatik aldi askotan ainbeste atzerapen sentitzen degu, gure Jaungoikoaren borondatea egiteko: eta aren Majestadeak dispoitzen, permititzen, edo agintzen digun gauzetan bere borondate santuarekin gurea ez konformatzeko, eta geiago dana, aren borondatearen kontra, eta aren lege santuaren kontra gere gogo gaiztoa egiteko, eta orrela gure Jaungoikoaren borondatea baño, gerea geiago estimatzeko: eta aren Majestadea ofenditzeko, aserratzeko, eta gere betiko kondenazioa geurk gere buruari erakarteko? Nundik dator itxumen, okertasun, eta gaiztakeri izugarri ori? gure Jaungoikoak estadu triste errukarri orretan lenengo gizona, eta emaku-

mea, Adan, eta Eba sortu ote zituan? **E.** Ez: bertatik eman zien grazia, eta inozentzia, eta ori eren kulpaz galdu ezpalue etsaiaren tentazioan erori ziranean, Jaungoikoaren borondatea txit erraz egin zezakean; eta guk ere orobat egingo genduan, aen pekatuan sorturik jaio ezpagiñan. Baña pekatu jatorrizko, edo orijinal artatik etorri da gure itxumena, gaitzerako griña fortitza, eta onerako pisutasuna, nagitasuna, eta atzerapena. Pekatuaren ondorengo tristea, eta kalte negargarri izan da, orain guziok probatzen deguna: au da gere buruaren amorio itxu eragabea: Jaungoikoaren amorio santuaren, eta gere animaren etsairik andiena: Jaungoikoaren lege santuari, eta animako salbazioari dagozkan lanak, edo egitekoak iguitu erazotzen dizkiguna: eta gorputzari, eta onen sentiduai, atsegin ematen dienak, leia geiegirekin billa erazotzen diguna: au da, N.K., gure pekatu guzien sustrai pozoniaz betea: emendik datorkigu, atsegin ematen diguen munduko honrak, eta estimazioak: munduko ondasun, interes, eta aberastasunak: eta aragiaren, edo gorputzaren gustoak aiñ biziro, eta aiñ eragabe nai izatea, eta billatzea: eta neke, naigabe, eta traba-juak aiñ igui izatea, eta ainbeste pena ematea, eta bereala aserraerazotzea. Emendik sortzen dira gure

eragabeko pasio, griña, eta inklinazioak: batzuek atseginzaleak, eta besteak aserrekorrak: ortik jaiotzen dira, gure soberbia, andinaia, eta arrotasuna, edo banidadea: ortik eragabeko gutizia, edo interesaren eragabeko apetitoa: ortik loikeria, edo gorputzaren atsegin likitsaren gurari zikiña: ortik eragabeko jan-edanaren deseo, eta gustoa: ortik dator nai deguna ezin iritsi degunean, edo ukatzen diguenean kolera, ira, edo aserretasuna: ortik enbidia: eta ortik nekearen iguitasuna, eta gauza onak egiteko nagitasuna, edo atzerapena. Orra nolako aldakaitzak, edo erroak dakazkian gure buruaren edo gorputzaren amorio itxu eragabeak: Eta nork kontatu ditzake aldakaitz gaizto orietatik sortzen diran pekatu guziak, gure borondatea Jaungoikoarenaren kontra altxatu erazotzen due-nean? Eta Infernura ainbeste anima daramazkienak?

**G.** Eta badegu beste etsairik gure amorio propio itxu eragabeari laguntzen dionik, eta indarrak ematen diozkanik gure borondatea bereganatzeko, azpiratzeko, eta Jaungoikoaren borondate santuaren kontra altxa erazotzeko? **E.** Bai, baditugu: eta asko, eta indar-suak: Eta zein dira? 1. Deabrua, bere astuzia, eta malizia guziarekin, eta tentazio goaitkgarri askorekin. 2. Mundu gezurtia, edo mundutarrak, beren lisonjakin,

bere izumen, ikara, edo bildurtzeko aitzakiakin: errespeto falsoakin, esamesakin: eta Ebanjelio Santuak kondentzen dituan usadio galgarri askorekin, dala modestia gabeko janietan: eragabeko jan-edanetan: joku andi kaltegarrietan: danza eta jostatze peligrozkoetan, eta beste modu askotan. Orra zein etsai andiak, eta indarsuak dituan gure anima gaixoak, berez aiñ argala, eta gaitzera etziña dagoalarik. Bada, 3. Oraindio indarsuagoa da, bakoitzak bere barruan daukan, eta bere kulpaz sortu duen, onelako, edo alako pekatu egiteko oitura, aztura, edo kostunbre gaiztoa, sentitzaka pekatu dakarrena, gaia, okasioa, edo tentazioa datorkionean, edo loikeriakoa, edo lapurretakoa, edo ordikeriakoa: edo juramentu, edo birau gaiztoak egitekoa, edo erraz aserratu, edo bendeku artzekoa; orrelakoak eztakie zer dan pasio gaiztoari indar egitea: eta ura bezela pekatuak tragatzen, edo irentsitzen ditue. Au bai dala estadu triste negargarria, bada onelakoak, asnasea faltatzea baizik bearzue, betiko Infernura jaisteko.

**G.** Zer erremedio degu bada gure amorio propio eragabea bere griña gaiztoakin, eta deabrua, mundua, eta gere kostunbre, edo oitura gaiztoa eren tentazioakin goitzeko, benzitzeko, edo menderatzeko:

eta gure Jaungoikoaren borondate santua egitera jar-  
teko? **E.** Eztago beste erremediorik N.K., gere burua-  
ren amorio itxu eragabeko ori gere biotzetik ateratze-  
ko, eta orren lekuan Jaungoikoaren, eta gure anima  
gaixoaren amorio egiazkoa sortutzeko, geitzeko, eta  
indartzeko alegin guzia egitea baizik. Orixe da Jesu-  
Kristo gure Jaunak bere Ebanjelio santuan geiena, eta  
sarriena agintzen diguna. Baña, nola ori iritsiko degu?  
1. Egunoro, Fedeak erakusten dizkigun egia andiak,  
gogoratuaz, eta betaz konsideratuaz, gere barruak  
argitzeko, desengañatzeko, eta Jaungoikoaren boron-  
datea ondo ezagutzeko, eta obeto kunplitzeko. Eta  
batez ere gogoan erabili bear degu 1. Gure Jaungoi-  
koaren kabugabeko anditasuna, ontasuna, ta maita-  
garritasuna; gure biotzeko amorio guzia ondo merezi  
duena, bera danagatik, eta egin dizkigun mesede  
guziz andiakgatik: eta espezialkiro, zerren bere Seme  
propioa bera eman digun gure Erredentore, gure Sal-  
badore, eta gure Maisu, edo erakusle izateko, eta  
Zeruko bide zuzena erakutsi ezeze, ari jarraitzeko gra-  
zia ematen digun. Eta 2. Gogora sarri ekarri bear  
degu, zein laburra, eta mudakorra dan emengo bizitza  
tristea: eta nolakoa dan orri darraion eternidade guzi-  
ko, edo Infernuko bizitza penagarria: eta Zeruko gloria



kabubagea. Eta azkenik mundu onetan bertan ere, gustorago bizi dala arrazoiari, eta birtuteari darraiona, ezenez bizioari, eta aragiaren amorio itxuari darraiona. Baña nola ori guzia ezagutzea asko eztan, bigarreno erremedioa da orazio, edo eskaera humilla sarritan, eta konfianza oso batekin Jaungoikoari berrari Jesu-Kristoren izenean egitea; eman degigun bear degun grazia, eta indarra, gere borondate, edo nai gaiztoa ukatzeko: eta gauza guzietan, ala atsegingarrietan, nola nekagarri, edo penagarrietan, aren borondate santuarekin osoro konformatzeko. Eta 3. Zerren eskatzea ere bakarrik asko eztan gogotik peleatu, edo gerra egin bear degu, gure eragabeko pasio, edo griña gaiztoak goitzeko, pekatuko bide, edo arriskutik kontuz alde egiteko: eta gure oitura gaiztoak benzitzeko, edo menderatzeko: ez bakarrik, pekatu larri, edo mortalaren gaietan, baita pekatu benial ezagutuetan ere: eta orrela gure Jaungoikoa eta gure salbazioa maite ditugula aditzera emango degu: atsegiñezko pake andi bat geren buruai ekarriko diegu: eta Jaungoikoaren borondatea Zerutarraen anzeraz egiñaz, irabazi andiak egunetik egunera Zerurako egingo ditugu: eta orren sari guziz ugaria Zeruko glorian gozatuko degu. Eta orretara gogotik leiatu zaitezten, aditu

ezazue, eta gogoan ar ezazue dotriña andia guzoi erakusten digun exemplo miragarri au. Erromako Ziu-dadean bizi izan zan fama andiko Teologo jakinsu bat, txit sarri Jaungoikoari erregutzen ziona, arren arkitu eragin zegiola Zeruko biderik laburrena, eta segurue-na erakutsiko zion gizon bat: eta bein batean orazio ori txit gogotik egiten ari zala, aditu zuen boz bat, esa-ten ziola: zoaz San Pedroren Eliza-atera: eta an arkitu-ko dezu billatzen dezuna. Joan zan bereala, eta eske-ko pobre bat, zauriz beterik, eta tresna txarrez janzi-rik arkitu zuen. Eta bereala agur egiñaz, esan zion Teologo jakinsuak; Jaungoikoak egun on dizula adiski-dea: eta pobreak eranzun zion: eztet gogoan, orainda-ño egun gaiztorik izanik. Teologoak berriz esaten dio: adiskidea, bizitza zorioneko bat deseaten dizut: eta pobreak esan zion: oraindaño ez naiz iñoiz desditxa-dua, edo zorigaiztokoa izan. Teologoak berriro esan zion: Jaungoikoak zure deseoaak kunplitu, edo osatu degizula: eta pobreak eranzun zion: deskontentu iza-teko, edo kejarik izateko motiborik batere eztet; gauza guziak nere gogora, edo gustora gertatzen zaiz-kidan ezker. Orduan Teologoak esan zion, nola orren zorionekoa izan zaitezke, estadu errukigarri orretan zaudela? Eranzun egidazu argiroago galdetu dizuda-

naren gañean. Ondo da Jauna, pozik eranzungo dizut: esan didazu egun on bat deseatzan didazula: eta eranzun dizut: ez naizala oroitzen, edo akordatzan egun gaiztorik iñoiz izanik, zerren nagoan estaduan kontentu arkitzen naiz, nere Jaungoikoak ala nai duen ezkerro: eta nere zoriona eldu zait, nagoan estaduan kontentu egotetik, eta munduaz kasorik ez egitetik: zerren munduko anditasunak, ondasunak, eta atsegintasunak ezertan ez dauzkat. Oetan eren biotzak ipiñirik dauzkatenak poztutzen dira gozaten dituenen, eta naigabetzen, eta tristetzen dira ezin iritsi dituenen, edo galtzen dituenen. Baña nik nere deseoz guziak Zeruko nere Aitagan ipiñirik dauzkat: eta ark gauza guziak zuzentzen, edo ordenatzen dituan ezkerro, berak nai duena baizik, nik ere nai ezte: eta argatik esan dizut, ez naizala iñoiz ere desdixadua, edo zorigaiztokoa izan, bada guztia gertatzen zait nere gogoaz batera. Baldin otzak, beroak, elurrak, edo egualdi gogorak nekatzen banau alabatzen det Jaungoikoa: orobat injuriatzen, edo despreziatzen banaue, bedeinkatzen det nere Jaungoikoa: bada ziuru nago aren ordena gabe, edo ark permititu gabe ezertxo ere gertatzen etzaitala: eta guzia nere onerako disponitzen duela. Badakit, guztiz poderosoa, eta guztiz jus-

tua dala: eta nere zorion guzia dagoala aren boronda-tearekin nerea bat egiñik edukitzean: eta ori bakarrik da nere deseo guzia, eta orretara nere alegin guziak zuzentzen ditut. Orduan Teologoak esan zion, guziz onak dira zure arrazoiak: baña esan egidazu: zure konformidade guzi orrekin zer egingo zenduke Jaungoikoak kondenatu nai bazinduz? Pobreak eranzun zion, nerez bakarrik eziñ ezer daiket: baña Jaungoikoak berak beso bi txit indarsuak eman dizkit: bata da humiltasuna, eta onekin Jaungoikoaren eskuetan osoro jarten naiz: eta bestea da karidatea, eta onekin nere Jaungoikoa biotz guztitik, eta gauza guzien gañetik amatzen det: eta baldin kondenatu nai banindu, beso bi oekin elduko nikio, eta laztanduko nuke Jaungoikoa bera, eta nerekin eramango nuke edozein tokitara: eta nun-nai, naiago nuke egon Jaungoikoarekin, ezenez Zeruan bertan Jaungoikoa gabe.

Arriturik gelditu zan Teologoa pobrearen eranzue-rarekin: eta pensatu zuan uraxe zala, Zeruko biderik laburrena, eta seguruena erakutsi bear zion gizona: eta obeto aren dotriñaz kargu egiteko, galdetu zion: adiskidea, nundik onera etorri zera? Eta eranzun zion: eldu naiz Jaungoikoagandik: berriz galdetu zion: Nun arkitu dezu Jaungoikoa? kreaturai larga diedanean.

Nun utzi dezu Jaungoikoa? Biotz garbia, edo borondate ona duen persona prestuetan: aetan du Jaungoikoak bere atsgiñezko tokia. Zu nor zera? berriz galdezen dio Teologoak: eta eranzuten dio: nor nai izan nadilla, nere suerte, edo kondizioarekin kontentunago: eta munduko Erregerik poderosoenakin trukatu-ko ez nizake: bada bere buruari agintzen dakiana, da egiazko Errege. Eta nun da zure erreinua? galdetzen dio: eta pobreak eranzuten dio: Zerua da nere erreinua: eta baita nere anima ere, onek bere arrazoiaren azpian bere pasioak, edo apetitoak dauzkan ezkeror: eta arrazoia bera Jaungoikoaren borondatearen azpian. Eta azkenik galdetu zion pobreak: Nun ikasi dezu ori guzia, eta nola eldu zera aiñ birtute, eta perfekzio andira? Eta eranzun zion: onetara etorri naiz, munduko erausiak largatuaz: eta Jaungoikoarekin tratatuaz orazioarekin, eta konsiderazioarekin. Nere alegiñik andiena beti da nere buruaren eragabeko amorioa ukatzea: nere deseo guziak Jaungoikoagana ekartea: eta gauza guzietan aren borondatea egitea: eta orretan ori guzia ikasi det.

Ikasi dezagun bada guziok, eta gogoan ondo sartu dezagun dotriña miragarri au: eta orri jarraio degio-

gun. Eta orrela egiazko pakea bertatik, eta gero beti-  
ko gloria izango degu. Amen.

# BOSTGARREN DOTRIÑA ORAZIOAREN GAÑEAN

*Aditzera ematen da  
Aita gurearen laugarren petizioa:  
Egun iguzu gure egunoroko ogia.*

Aurreko dotriñan, batez ere gure Aita Jaungoikoaren honrarako hume onak bezela eskatu, eta deseatu bear ditugun gauzak aditzera eman dizkitzuet, lenengo iru petizion explikazioan: eta orain, Jaungoikoa bera obeto serbitzeko, nola gure premia espiritual, eta denboral guzien erremedioa berari eskatu bear diogun, Jesu-Kristoren beraren hitzakin erakutsi bear dizuet: eta gaur bakarrik laugarren petizioan, au da: Egun iguzu gure egunoroko ogia esaten degunean, zer eskatzen degun zeoro esan nai dizuet.

**G.** Zein da laugarren petizioa, edo eskaera? **E.** Egun iguzu gure egunoroko ogia. Zer eskatzen degu petizio, edo eskaera orretan? Jaungoikoak eman degigula gorputzeko biziarentzat konbeni zaion sustentoa, edo alimentua: eta animarentzat graziaren alimentu espirituala, eta Sakramentuak. Zergatik ogiaren ize-

naz eskatzen degu gorputzarenzat, eta animarenzat bear degun guzia? 1. Zergatik nola ogia, edo jatekoa dan gauzarik bearrena bizitzarako, eskuarkiro Eskritura Santuak ogiaren izenaz aditzera ematen ditu animarako, eta gorputzerako bear ditugun gauza guziak.

2. Zergatik Jesu-Kristo gure Jaunak ogia bakarrik eskatu eragiñarekin erakutsi nai digu, ez degula eskatu bear, ez eta deseatu bear gauza sobraturik, baizik gure premiak estaltzeko diña: baña orretan aditzen da ez bakarrik ogia, edo alimentua, baita ere bizitzeko bear degun edaria, eta janzia, edo soñekoa, eta bizilekua: eta nola mundu onetan bidezkoak geran, eta ez dagoan emen gure egiazko zoriona, baizik Zeruan, Jesu-Kristok berak esaten digu, Zeruko Erreinua, eta ara daraman justizia, edo birtutea beste gauza guzien aurretik, edo gañetik billatu dezagula, eta Jaungoiko gure Aitak azigarri, edo añadigarri bezela gure mantenerako bear ditugun, edo konbeni zaizkigun gauza guziak emango dizkigula, bere humetzat arturik gauzkan ezkerro: eta ala eztegula ansiarik eduki bear gero koaz: eta orri dagokala San Pablo Apostoluak esaten digu, zer jan, eta zerekin estali eduki ezkerro, kontentu egon bear gerala: bada Jaungoikoak bear deguna emangodigu, bera serbitu nai badegu.



**G.** Eta zergatik eztegu eskatzen gerokoa, baizik egunorokoa? **E.** 1. Esan degun ansia, eta geroko kuido, edo arazeri geiegi ori gure biotzetik kentzeko: eta alegin prudente batzuek egin ezker, Jaungoikoa-gandik egunoro bear deguna itxon erazotzeko. 2. Aditzera emateko, guziok ala aberatsak, nola pobreak, degun guzia Jaungoikoari zor diogula: guzia berak emana degula: eta nai balu, bere eskuan dauke, aberatsenak ere pobrezarik andienara ekartea, Job Santuagan, eta Belisario Enperadoreagan ikusi zan bezela: bada gizon guziz aberatsak ziralarik, besteren limosnaz bizitzera etorri ziran. 3. Aditzera emateko egunoroko ogia gorputzarenzat bezela, egunoroko ogi, edo alimentu espirituala animarenzat bear degula: eta egunoro eskatu bear degula: naiz justuak naiz pekatariak gerala, ala pekatutik libratzeko, nola pekatuak eskusatzeko: eta birtuteari jarraitzeko, eta artan beti irauteko. Eta 4. Azkenik gure pobreza, gure premia, eta gure bearra ezaguturik, humillaturik bizi gaitezen, eta egunoro Jaungoikoari, gauza guzien jabe, eta emalleari, eta gure Aitari bezela bear degun guzia gorputzarenzat, eta animarenzat eskatu degiogun.

**G.** Eta zergatik eskatzen degu ez bakarrik digula egunorokoa, baizik egun eman degigula. Egun iguzu?

**E.** Oitu gaitezen gure Aita Jaungoikoaren ontasunetik, eta probidenziatik bear degun guzia itxodetera, edo esperatzera: eta munduko gauzen ansia gabe, egunorokoaz kontentatzera: egun bakoitzeko eskatu bear degun ezkerro, eta gure Aita onaren, eta guztiz podero-soaren kuidoaren azpian gauden ezkerro.

**G.** Eragozten digu beraz Jesu-Kristok, alimentu billa geroko nekatzea: eta nai du aurrerako konturik egin gabe, ardurabagetzea, eta prebenziorik egin gabe bizitzea? **E.** Ez: orrelakorik nai eztu: eta alpertasuna, eta arduragabetasuna txit igui ditu: guzior lenengo guraso Adani, eta argan bere hume guzior agindu zigun gure Jaungoikoak nekatzea, eta gere bekokiko izardiarekin gere mantenua billatzea: eta bakoitzak bere estaduari, kondizioari, edo bizimoduari dagokion moduan nekatu bear du: baña bere neke guziarekin ere Jaungoikagandik frutu guzia esperatu bear du: bada nekatzeko indarra ere beragandik du: eta neke orri Jaunak berak bere bendizioa ematen ezpadio, alperrik nekatzen da; askotan gere pekatuen kastiguan ikusten dan bezela: eta ala, nekatzea bearra dalarik ere, Jaungoikagandik prinzipalente itxon bear degu gure nekearen frutua: eta ansia gabe, egin ditzakegu aurrerako, edo geroko prebenzioak, gure

obligazioai dagokien moduan: bada Jesu-Kristok berak Apostoluakin limosnaz bizi zalarik ere, nai izan zuen erenat, eta pobreenat limosnatik sobratzen zana bolsa batean gordetzea, eta Judas bolsero egin zuen: eta bakarrik eragozten digu gutiziosoak bezela, ansia-ekin ondasunak biribillatzea, eta gordetzea, Jaungoikoaren borondateaz, eta gure projimoari zor diogun karidadeaz kasorik egin gabe: bada eztigu guretzat bakarrik ematen, baita gure lagun projimoarenat ere: eta ori erakusten digu eskaera, edo petizio onetan bertan, esanaz: iguzu gure ogia.

**G.** Zer esan nai due bada hitz oriek? **E.** 1. Eztegu-la eskatzen bakoitzak beretzat bakarrik, baizik guziorat: eta ala, eztegu esaten indazu nere ogia: ezpada iguzu gure ogia: eta argatik beti gogoan eduki bear degu guziok Aita baten humeak geran ezkerro, Jesu-Kristo bera guzior senide nagusia degun ezkerro, eta guziok alkarren senideak geran ezkerro, alkar amatu bear gerala: pobreen errukia eduki bear degula: eta al deguneraño alkar sokorritu bear degula: bada bestela ez gaitu Jesu-Kristok ezagutuko bere eskolakotzat, edo bere jarraitzalle, edo diszipulutzat. 2. Eskatzen degu gure ogia, zergatik zor ezpadigu ere Jaungoikoak eman nai digu, eta ematen digu, gurea baliz beze-

lako liberaltasunarekin: bada badakus gure premia: eta 3. Esaten degu, iguzu gure ogia, aditzera emateko, eztegula nai besterik, edo besteari gaizki arturik, edo kendurik: baizik gere nekearekin ondo irabazirik, edo besteak doarik, edo graziaz emanik.

**G.** Eta zergatik gure Jaungoikoak permititzen du, askotan bere serbitzari, eta adiskiderik maiteenak pobreza, eta miseria andian arkitzea? **E.** 1. Aen fedea obeto probatzeko, aen pazientzia, eta konformidatea exerzitzeko: eren pekatuen penitentzia eragiteko: edo pekatuen zorrak eman pagaeragiteko. Eta 2. Zerurako ondasun andiak irabazi eragiteko: eta gero Zeruan koroa, eta gloria andiagoa eternidade guzian goza eragiteko: eta ala Jaungoikoaren asmoak beti guziz zuzenak, eta bere esleituen alderakoak, eta faborekoak dira; eta pobretxoak, orain humillak badi-ra, Zeruan guziz altxatuak, eta betiko ondasunez eta kontentuz beterik arkituko dira.

**G.** Eta zer gauza dira animarentzat ogiaren izenez eskatzen ditugunak? **E.** Animaren sustentorako, edo alimenturako bear degun guzia: eta batez ere iru gauza oek. 1. Jaungoikoaren hitza: au da, berak erakutsi digun Zeruko dotriñaren ezaguera: bada ori da gure animaren argia, eta alimentua: eta ori bage ezin

bizitza espiritualean bizi gaitetzke: ara nola ogi bage, edo bere mantenu bage ezin gorputza bizi ditekean. Eta ori Jesu-Kristok berak erakutsi zigun arako dea-bruak arria ogi biurtzeko tentatu zuenean: bada dea-bruari esan zion: ezta gizona ogiaz bakarrik bizi, baizik Jaungoikoaren hitzaz: eta diot, ogia bera gorputzarenzat baño bearragoa degula Jaungoikoaren hitza animarenzat: bada bearrago degu animako bizitza espirituala, eta onen iraupena, gorputzarena baño: Ah! ori ondo ezagutuko bagendu! Gorputzaren alimentuaren baño, animako alimentuaren gose, eta egarri andiagoa izango genduke: baño gorputzekoa begiakin, eta gustoarekin probatzen dalako, eta animako alimentua fedearekin, eta konsiderazioarekin baizik probatzen, eta gustatzen eztalako: gorputzarena gogotik billatzen da, eta animaren alimentuaz geienak kasorik egiten eztue: eta ortik dator munduko itxumena, eta gaiztakeri guzia. Eta ala zuek N.K., zuen animak maite izan itzatzue; Jaungoikoaren hitz santua, edo fedeko egiak gogotik enzun itzatzue: gogora sarri ekarri itzatzue: oriekin zuen animak argitu, eta sustentatu itzatzue: bada bestela ezin animako bizitza konserbatuko dezue: eta emendik kontu atera ezazue, zenbat estimatu bear dituzuen animako ogia parti-

tzen, eta ematen dizuen sermoi, eta dotriñagilleak: eta edozein erritan gerta ditekean gaitzik andiena dala animako gosetea: au da dotriña onaren falta: eta ala erregutu egiozue Jaungoikoari eman degizuela beti dotriñako egiak ondo explikatuko dizuen Ministro zelosoak: eta zeurok dotriña santua, ondo ikasteko, eta arekin zuen bizimoduak zuzenzeko alegiñak egin itzatzue; eta Zerurako esleituak izango zeratelako señale andi bat izango dezue. Baña orrez gañera 2. Bear ere dezue graziaren alimentua: bada zer egin bear dezuen ezagutu arren, Jaungoikoaren grazia bage, au da, Jaungoikoak argitu bage, ukitu bage, mugitu bage, eta indartu bage, zuen salbaziorako gauza onik ezin egin dezakezue: zuen animako etsaiak ezin goituko dituzue: ezin pekatutik zuen buruak aterako dituzue: ezin tentazio gaiztoak benzi-tuko dituzue: eta ezin birtuteari jarraio, eta bizimodu on batean iraungo dezue: Jesu-Kristok berak ori erakutsi zigun, Apostoluai esan zienean: *Sine me nihil potestis facere*: Nik lagundu bage ezertxo ere ezin egin dezakezue. Zer erremedio bada? Pobreak, eta eriak egiten duena: humiltasunarekin, eta Jesu-Kristoren beraren izenean Jaungoiko gure Aitari bere graziaren sokorrua sarri eskatzea: eta aren laguntasunare-

kin ekin gogotik Kristau on baten bizimoduari, ez mundurako, ezpada Zerurako bizi bear duenari: eta orretarako Jesu-Kristok berak irugarren alimentua Sakramentuetan prestatu dizue: eta ala petizio onetan zeurok eskatzen dezue Sakramentuen alimentua zuen animentzat, eta batez ere Aldareko Sakramentu guziz Santuan: nun Jesu-Kristo, berbera bere gorputz, odol, eta anima, eta bere gizatasun, eta Jaungoikotasun guzia Kristau fiel guziok egiaz errezibitzen degun komulgatzen geran aldi guzietan, gure animen janari, edo alimentu izateko, eta gugan bere grazia geitzeko, azitzeko, edo aumentatzeko: eta auxe da petizio onetan eskatzen degun alimenturik prinzipalena: bada Jesu-Kristok berak esan zigun, ni naiz Zerutik jatxi naizan ogia: eta nere aragia jaten duena nigan dago, eta ni argan: eta biziko da eternidade guzian: eta argatik Kristauok millarezko eskerrak Jesu-Kristori eman bear diozkagu mesede miragarri onegatik, eta ori eragiten dion guganako amorio guziz andiagatik: eta leiatsu bear gera sarri komulgatzera gure anima gaixoak alimentu, edo janari guziz preziatu, eta guziz indarsu orrekin sustentatzeko, eta indartzeko: eta Zeruko bidean gure etsaiak goiturik, arin-arin ibiltzeko: eta zorioneko betiko bizitza iristeko.

**G.** Eta zergatik ez bakarrik gorputzeko alimentuari, baita animako alimentu espiritualari, deitzen diogu egunoroko ogia? **E.** Zergatik egunoro biak bear ditugun: gorputzaren alimentuaren bearra ikusia dago: bada esan dizuedan bezela, orobat, ondo biziko bage-ra, egunoro bear degu Jaungoikoaren hitzaz, eta graziaz indarturik, eta armaturik egotea: eta Aldareko Sakramentua ere, egunoro komulgatzeko obligaziorik ezpadago ere, deitzen da egunoroko alimentua. 1. Zergatik egunoro Meza Santuan Jaungoikoari ofrezitzen zaio: egunoro komulgatzen dira Meza-emalleak, edo Sazerdoteak: eta egunoro bear dan disposizioarekin komulgatu nai diranai, ematen zaie: eta 2. Zergatik Jesu-Kristoren asmoz, eta Elizaren deseoz izan bear luke guzior egunoroko Zeruko alimentua: eta gutxianez deseatu bear degu, eta Jaungoikoari eskatu bear diogu, digula bere grazia, alako animako garbitasunarekin bizitzeko, nun egunoro komulgatzeko gai izan gaitzkean: eta Sakramentua bera egunoro ez errebitu arren, komulgatu gaitzke espiritualmente, egunoro ezeze, egunean askotan. Nola ordea? Jesu-Kristo gure biotzean errebitzeko, eta edukitzeko deseoa sarri berritzen degula: eta aren espirituarekin animaturik bizitzeko grazia gogotik eskatzen diogula.



**G.** Eta orain zer frutu, edo probetxu batez ere atera bear degu Jesu-Kristok berak erakutsi zigun gaurko petizio, edo eskaeraren explikaziotik? **E.** Probetxu bi batez ere atera bear ditugu: 1. Jaungoikoagana konfianza andi bat: eta 2. Jaungoikoaren antzera, al deguneraño liberalak, edo emalle onak izatea, eta gurekin besteak portatzea nai degun bezela, gere lagun projimoakin gu portatzea: ala egia N.K.: Jaungoikoak beraganako gure konfianza gure biotzetan piztutzeko, edo bizi erazotzeko, nolako alegiñak beti egin ez ditu? Eskritura Santu guziak, badirudi, geiena okupatzen dirala, Jaungoikoaren ontasuna gizonari agertzen, eta aren poderio infinitoak, edo guzialtasunak: eta aren kabubageko jakinduriak gizonaren alde, edo fabore egindako mirari, edo prodijioak, ala naturalezako ordenan, nola naturalezaz gañerako, edo graziazko ordenan aitatzen, kontatzen, eta aditzera ematen: baña nork guziak banaka esan ditzake? Ala ere gogora ekartzue bakarrik, 1. Zein zorion, edo ditxa guziz andia Zeruan beti gozatzeko egin zaituen: eta nola zuenzat Zeruan, eta lurrean ikusten ditugun kreatura guziak sortu dituen: eta zuekgatik konserbatzen dituan: eta zuen mantenurako, eta janzierako

bear dituzuen gauza guziak urteoro berritzen dituan: baña ori da gutxiena: 2. Gogora ekartzue, nolako amorioarekin bere Seme propioa bakarra, berarekin Jaungoiko egiazkoa betidanik dala, eman dizuen gizon egitiñik, zuen Erredentore, zuen Maisu, eta zuen Salbadore izateko: eta: 3. Nola, zuek merezi gabe, Sakramentu Santuetan pekatutik, eta deabruaren katiberiotik libratu zaituen: bere grazia, eta Zeruko deretxoa eman dizuen: eta zuen esker gaiztoagatik Infernura bota ordean itxon dizuen, berriz beregana deitu zaituen: eta orain ere deitzen zaituen, betiko galdu, edo kondenatu etzaitzeten, baizik salbazioko bidera bihurtu zaitzeten: eta ori guzia ezta asko izango Jaungoikoaganako konfianza andi bat zuen biotzetan piztutzeko? Eta beragandik ala gorputzaren, nola animaren biziaren zat bear dezuen guzia esperatzeko? Bañaz zerk eskuarkiro konfianza ori gutxitzen dizue? zuen arrotasunak: zuen Jaungoikoaganako esker gaiztoak: eta zuen projimoaganako gogortasunak. Zenzatu zaitzete bada arren N.K.: Jaungoikoaren ontasun guziz andiari, eta zuen eskergabetasunari sarri begira egiozue: eta lotsatu, eta humillatu zaitzete, eta konfianza osoarekin eskatu egiozue zuen premia espiritual, eta denboral guzieren erremedioa. Baña nai badezue, Jaungoikoa

zuekin liberal izatea, zuek ere zuen lagun projimoakin,  
al dezuneraño liberalak izan bear dezue. *Date, et  
dabitur vobis: Dimitite, et dimitetur vobis.* Emazue,  
eta emango zatzue: barkatu ezazue, eta barkatuko  
zatzue: besteakin usatzen dezuen neurriaz, zuekin ere  
usatuko da, Jesu-Kristok bere lekuan, eta bere perso-  
naren orde pobreak presentatzen dizue: berak dio,  
pobreaki ematen diezuen, berari ematen diozuela: eta  
berak errezibitzen duela: bera zuen zordun egiten  
dala: eta berak pagatuko dizuela: ez bakarrik Zeruko  
glorian, baita mundu onetan ere. Eta zuek beragatik  
ematen dezuenaren orde, askoz geiago emango  
dizuela emen bertan; gai artan bertan beti ezpada  
ere, zuei geiago balio dizuen gaietan. Piztu ezazue  
bada zuen fedea: zuen esperanza: eta Jaungikoaren,  
eta projimoaren alderako egiazko karidadea, edo  
amorio eragillea: eta zuek iritxiko dezue bertatik zuen  
Aita onaren bendizio ugaria, eta gero eternidade  
guzian iraungo duen gloria. Amen.

# SEIGARREN DOTRIÑA ORAZIOAREN GAÑEAN

*Dimite nobis debita nostra; sicut et  
nos dimittimus debitoribus nostris.*

Jaungoikoaren guganako amorio guztiz andia, eta gu salbatzeko daukan deseoa miragarria agertu zigun bere Seme maite bakarra Jesu-Kristo gure Jauna, gizon egiazkoa egitean: eta gure Erredentore, gure Salbadore, eta gure Zeruko Maisu, edo gidari izateko ematean. Animako ondasun guziak, eta gure gaitz guzien erremedioak ortik datozkigu: eta batez ere ortik dator-kigu gure pekatuen barkazioa. Baña ori iristeko gure pekatuak ondo ezagutu bear ditugu: humillatu bear gera: barkazioa eskatu bear degu: eta guk ere ofenditu gaituenai biotzez barkatu bear diegu: eta ori guzia Jesu-Kristok erakutsi zigun orain esplikatu bear dizue-dan, Aita gurearen bostgarren petizioan: atenzioa eskatzen dizuet N.K.

**G.** Zein da Aita gurearen, edo Paternosterraren bostgarren petizioa, edo eskaera? **E.** Barka egiguzu gure zorrak: gure zordunai guk barkatzen diegun

bezela. Eta zer eskatzen degu petizio orretan? Jaungoikoak gure pekatuak barkatu degizkula: guk agrabiatu, edo gaitz egin diguenai barkatzen diegun bezela.

**G.** Zer erakusten digu Jesu-Kristok, gure pekatuen barkazioa eskatzeko aginduarekin? **E.** 1. Guk ez merezi arren; bada aren Majestadea askotan, eta andizkiro ofenditu, injuriatu, eta aserratu degu: eta gu kondentzea, eta betiko Infernura botatzea bere eskuan dauka, ala ere guri barkatzeko egiazko borondatea, eta deseoa daukala, bear dan humiltasunarekin, biotzeko damutasun egiazkoarekin, eta esperanza osoarekin barkazioa esatzen badiogu: bada borondate ori ezpaleuka, barkazioa eskatzea aginduko ez likegu: eta ori bera fedeko artikulua bezela erakutsi ziguen Apostolu Santuak, eta Kredoan sinisten, eta konfesatzen degu: esaten degunean, nik sinisten det pekatuen barkazioa: au da Jesu-Kristok bere Elizari utzi diozkala pekatuak barkatzeko erremedioak: eta orra egia guziz konsolagarri bat eren pekatuak ondo ezagutu, eta egiaz humillatu, eta penitencia egin nai duen pekatarienzat. Baña 2. Pekatuen barkazioa eskatzea aginduaz, erakusten digu argiro Jesu-Kristok berak, guziok general pekatariak: ez dala iñor, Jesu-Kristo bera, eta

Ama Birjiña Santisima atera ezkerro, pekaturik ez duenik, edo andirik, edo txikirik, mortalik, edo benialik: eta ala guziok humillatu bear gerala: eta barkazioa eskatzeko premian gaudela: eta aspertu bage barkazioa eskatu bear degula. Eta ala egunoro, eta egunean askotan, batez ere akorda-aldietan, biotzetik Jaungoikoari esan bear diogu. Barka egiguzu gure zorrak, edo pekatuak.

**G.** Eta zergatik gure pekatuak zorrak deitzen diegu? **E.** 1. Zergatik pekatu egiten duenak Jaungoikoa ofenditzen, eta agrabiatzen du, eta aren Majestadea desagrabiatzeko, eta satisfazioa emateko obligazioekin, eta zorrarekin gelditzen da. 2. Zergatik Jaungoikoaren legeak, eta Justiziak onari saria bezela, gaiztoari, edo pekatu egiten duenari agintzen, eta ematen dio dagokion pena, edo kastigua: eta ori sufritu bear du, edo orren zorra pagatu bear du: edo mundu onetan humiltasunarekin, eta damutasunarekin, Jesu-Kristoren izenean barkazioa eskatuaz, eta penitentzia egiñaz: edo ezpada zorra nolakoa dan, edo Infernuan, edo Purgatorioan. Eta 3. Zergatik Jaungoikoari, gure jabe soberanoari bezela zor diogun errespetoa, obediencia, eta amorioa ekarri ordean, eta beraren honrarako obra onak egin ordean; alde bate-

tik utsegiteak gere kulpaz, eta bestetik obra gaiztoak egin ditugu: eta ala zordun arkitzen gera, eta humillaturik, eta damaturik, Jesu-Kristo bitarteko arturik, edo aren pasio, eta eriotza santuaren kabubageko merezi-mentuakgatik gure Jaungoikoari eskatu bear diogu konfianza osoarekin gere zor guzien, edo pekatu guzien barkazioa. Eta pekaturik beregan ezagutzen ez duenak, pekatuen barkazioa eskatzea utzi dezake? Ez: 1. Zergatik ezta orobat, pekatua ez ezagutzea, nola ez edukitzea: bada ezta munduan persona larri-rik pekatuen bat, edo beste, edo andiagoa, edo txiki-kiagoa ez-tuenik: bada Eskritura Santuak dio, justua ere askotan erorten dala utsegite txiki, edo ariñetan: eta San Juan Ebanjelistak esaten digu: pekaturik ezte-gula, esaten badegu, gezurra diogula; 2. Zergatik eztegu guretzat bakarrik eskatzen gure pekatuen bar-kazioa, baita gure projimo guzienzat ere: eta argatik esaten degu: barka egizkiguzu gure zorrak. Eta 3. Eztegu eskatzen bakarrik kulparen barkazioa, baita, ori lenago barkaturik egon arren konfesio on baten bitartez, eskatzen degu pekatuari dagokion penaren barkazioa: eta ezta kigu ziuru, pekatua barkatu zakun edo ez: eta ala, seguru jokatzeko, berritu bear degu damutasuna, eta eskatu barkazioa.

**G.** Eta nundik dator Kristau batzuek ez ezagutzea eren pekatua? **E.** Ez dator txit kontuz bizi diralako, eta utsegiterik egiten eztuelako: eta bai dator lasiak diralako, eta eren buruak ondo ezagutzen eztituelako: uste due, obrazko pekatu larririk, edo lodirik egiten ez duenean, pekaturik ez daukeela: eta damutzeko, eta konfesatzeko gairik ere ez duela: zerren pekatu benialak, eta baita berez mortal diran batzuek ere ezertan ez dauzkeen: baña ori da jakineztasun, eta itxumen andi bat: eta ori erraz ezagutu dezakezue, pensatu nai badezue Jaungoikoari zenbat zor diozuen, bera danagatik, eta egin dizuen mesede guziz andiakgatik, eta nolako obligazioa dezuen bera biotz guztitik amatzeko, aren borondate santua gauza guzietan egiteko, eta aren ofensako gauzarik dan txikiena ere ez egiteko: orobat gogoratzen bazerate, nola Jaungoikoagatik zuen buruak bezela zuen projimoak amatu, eta estimatu bear dituzuen, eta iñori kalterik egin bear eztiozuen: eta ori guzia ondo kunplitzeko, nola zuen griña, edo pasio eragabeak ezi, edo menderatu bear dituzuen: eta batez ere pensa ezazue, pekatu mortala ezagueraz egiteraño ezpada ere, zenbat aldiz, batak, edo besteak igui dezuen gauzaren bat esaten, edo egiten dizuelako, bereala aserratzen zeraten: eta



gaizki erantzuten diozuen: eta bearbada gaitz iritsi, edo gorroto piska bati zuen biotzean leku ematen diozuen. Orra bada soberbiazko, eta orri darraion kole-razko pekatuak, sarri gertatzen diranak: eta askok ondo ezagutzen ez dituenak: eta orobat interesari geiegi darraizkan gutiziosoak, zenbat gezur esaten ez ditue eren tratu, eta artuemanetan? Eta ezertan ez dauzke, lapurretarik, edo kalte andirik egin ezpadue: orobat kastidade santua ezaguera osoarekin lotsagabekiro ez galdu, eta ez galdu eragin arren, zenbat pensamentu, edo gogorazio zikin, edo hizketa loi, edo jostatze, edo ukitze aragizkoak, askori igarotzen zaie? eta pekatutzat artzen eztitue, zerren, ondo ezi bage dauken luxuriako griña, edo pasioak itxutzen dituan. Beste zenbait joku andi kaltegarriak, eta familia pobre askoren ondagarriak ezertan ez dauzkenak, pasioak itxutuko ezpalitu pekatu mortaltzat ezagutu bear lituzkenak, eta konfesatzea ere gogoratzen etzatenak? Beste zenbait sarri erdi moskortzen diranak, eta eren buruai, eta eren etxekoai kalte arrigarriak egiten diztenak: eta zenzua, edo juizioa eren iritsian osoro galdu ez duelako, konfesakizunik ere eztuela uste duenak: ondorengoai begiratu ezkerro, pekatu mortalean bizi dirala erraz ezagutu balezake ere? Eta beste

zenbait juizio gaiztoak, txismeak, eta murmurazioak ezertan ez dauzkenak, batez ere besteren bati adituta, edo erak asmatu gabe erausten baditue. Eta ori nundik dator? Eren buruak bezela besteak amaten, eta estimatzen ez dituelako: karidade egiazkorik ez duelako: Naiko lukee erakgatik gaizki juzgatzea, eta gaizki esatea, eta naberbendu gabe dauzken utsegi-teak guziaz esatea, eta barreatzea? bada zeratzako nai ez dezun gauzarik ezin iñori egin deikeozu, eta ori erraz ezagutu bear dezu. Eta ala pasioaren itxumenak eragozten die, eren pekatuak ondo ezagutzea: eta barkazioa humiltasunarekin, eta damutasunarekin Jaungoikoari eskatzea: eta ori bera gertatzen zaie askori eren buruak, eta batez ere dituen obligazio, edo kargu partikularrak ondo examinatu bagez. Eta ala zenbat utsegiñezko, edo omisioko pekatu larri ezkutatzen zaie errietako agintari, edo kargudunai, gurasoai, nagusi-etxeandrai, eskandaloak eragotzi gabez? joku luze andiak permitituaz? Eren mendean dauzkenai kontu artu gabez? dotriña erakutsi gabez, exenplo ona eman gabez? Eta gaizki egiten duenean korrejitu gabez, eta erremediatu eragiteko alegiñak egin gabez? Eta ala, alde batetik ardura gabetasunak, eta bestetik, ezi, mortifikatu, edo eskuratu nai ez tiran

pasioen itxumenak ezin kontatu ala pekatu berekin dakazte: eta ala ere askok ezagutzen eztitue eren kulpaz. Zer erremedio bada orientat? 1. Jaungoikoari humiltasunarekin bere argia, eta grazia eskatzea, eren pasioen itxumena ondo ezagutzeko, eta oriek goitzeko: 2. Jaungoikoarekiko, eren buruekiko, eta eren projimoekiko dituen obligazio jeneralak, eta partikularrak, mandamentu santuetan explikatorik dau-denak, sarri gogoratzea, edo kontsideratzea: eta 3. Oriek ondo gordetzeko alegin biziak egitea.

**G.** Eta ala ere ezin ondo ezagutu dituen utsegite-ren batzuek gertatzen bazaie, zer egin bear due? **E.** Dabid Errege Santuak bezela Jaungoikoari eskatu, arren barkatu degiela, ezagutu gabe egin, edo eragin dituen pekatuak: bada utsegite, edo pekatu asko egin oi dira, jakin bear liratekean gauza asko jakiteko bear dan alegin guzia egin gabez. «*Delicta quis intelligit? Ab oculis meis munda me Domine, et ab alienis parce servo tuo*».

**G.** Eta Aita gurea esaten degunean; eta barka egi-guzu gure zorrak errezatzen degunean, pekatuen barkazioa iristen degu? **E.** 1. Pekatu benialak baizik ezpa-ditugu, eta egiaz damaturik bagaude, barkazioa iris-ten degu: baña 2. Pekatu mortalean bagaude, eztegu

eskuarkiro bereala pekatuen barkazioa iristen, akto kontriziozko perfektoa egiten ezpadegu: baña bai gogotik eskatzen badegu, Jaungoikoren argitasun, eta sokorru, edo laguntasuna iritsi oi degu, pekatuen penitentzia egiazkoa egiteko; ondo konfesatzeko; edo amoriozko dolore, edo kontrizioarekin barkazioa iriste-ko: bada penitentzia gabe pekaturik barkatzen ezta: ez andirik, eta ez txikirik.

**G.** Eta zergatik Jesu-Kristo gure Maisu soberanoak eskaera onetan ipiñi zituan hitz oek: guk gure zordunai barkatzen diegun bezela? **E.** 1. Aditzera emateko, ezin datekeala, egiazko penitentzia guk egitea, eta gere pekatuen barkazioa iristea, gu ofenditu, agrabiatu, edo injuriatu gaituenai biotzetik geurk barkatu gabe: bada gure etsaiak amatzeko, aekgatik Jaungoikari erregutzeko, eta aei on egiteko mandamentua bere Ebanjelio santuan argiro utzi zigun: eta mandamentu ori kunplitu gabe, ezin iñor salbatu liteke: eta barkatu nai ez duenak, ezin mandamentu ori kunplitu lezake, eta ez penitentzia egiazkorik egin lezake: Eta 2. Aditzera emateko, guk Jaungoikoagatik gure etsai, eta gaitzgilleai barkatzen badiegu, Jaungoikoa prest dagoala, gure zor, edo pekatu guziak, guziz andiak, eta izugarriak izan arren, guri barkatzeko: edo orien peniten-

zia egiteko doaia, edo grazia emateko: baña gure gaitzgilleai barkatzen ezpadiegu, ez dagoala guretzat barkaziorik: eta ala 3. Aditzera ematen digu, guk gure zordunai barkatzen diegun bezela esanarekin, gere kontra geurk sententzia ematen degula, barkatzen ezpadegu: eta da, esango bagendu bezela: guk ezteigu barkatu nai gure gaitzgilleai: bada eztegu nai Jaungoikoak guri barkatzea.

**G.** Orrela projimoari barkatu nai eztiobenak, edo gorrotoan bizi diranak eskaera, edo petizio au alperrik esango due: eta ezin esango ere due, eren kontra sententzia erak ematen duen ezkerok? **E.** 1. Diot, eren gorrotoaz, batere damutu bage, eta ari largatzeko asmo bage, esaten badue, alperrik errezatzen duela eskaera ori: baña miserikordia iristeko deseoarekin, eta orretarako bear duen disposizioa alkanzatzeko asmoarekin badaude, errezatu dezakeela, eta erreztu bear duela. Eta 2. Diot, biotza damuturik oraindio ez eduki arren, eztuela iñola ere utzi bear, eskaera, edo petizio ori egitea: bada orazio ori eztue bakarrik eren izenean egiten, baizik Eliza guziaren, edo Kristau guzien izenean: eta ala eztue esaten, barka egidazu nere zorrak nik nere zordunai barkatzen diedan bezela: baizik esaten due: barka egizkiguzu guri gure

zorrak, guk gure zordunai barkatzen diegun bezela. Eta Eliz barruan asko dira, besteai barkatzen dienak, eta gaitzgillenzat barkazioa Jaungoikoari eskatzen ari diranak. Eta ala Eliza guziaren asmoarekin, edo intenzioarekin erena juntaturik, eskaera, edo petizio ori errezatu bear due: eta kondenatu nai ezpadira, alegin guzia egin bear due, eren pasio gaizto orren itxumena, eta eren desarrazoia ondo ezagutzeko: Jaungoikoari orretako Zeruko argia eskatzeko: eta eren biotzetik gorroto gaiztoa ateratzeko: eta orren lekuan egiazko karidadea, edo projimoaren amorioa, eta errukia sortutzeko, eta konserbatzeko: bada karidade bage iñor ezin salbatu diteke.

**G.** Eta zein dira gure projimoari barkatu bear diozkagun zorrak? **E.** 1. Eztira bidez, eta legez argan dauzkagun artzeko justuak: bada oriek modu onean, eta karidadeari faltatu bage kobratzea, Jesu-Kristok eragozten eztigu. Baña berariaz esan det, modu onean, eta karidadeari faltatu gabe kobratzea, eztigula eragozten; zerren gure lagun projimoa premia estuan badago, eta gu ez, eta bereala pagaeragiñarekin kalte andia etorriko bazaio, ezin estutu dezakegu karidadeari faltatu gabe: eta ala, edo epea, edo luzamena eman bear diogu: edo, gero ere pagatzeko erarik izan-

go ezpadu, osoro barkatu bear diogu. Gogora ekartzue, Ebanjelio Santuan Jesu-Kristok berak dotriña ori erakutsi zuela, arako bere Errege, edo nagusiagandik zor guziz andi baten barkazioa iritsi ezkeru, bere lagun bati zor txikiago bat gogorkiro, justiziar emanik, eta kartzelan ipiñi erazorik kobratu, edo pagatu eragin nai izan ziolako: aserratu zan Erregea, ori aditu zuenean, eta bere lagunaz errukirik izan etzuen artzekodun gogorra preso ipiñi, eta bere zor guzia pena arrigarriakin pagatu eragin zion: eta esan zuen Jesu-Kristok aldi artan: ori bera zuekin egingo du nere Aita Jaungoikoa, biotzetik zuen lagunai barkatzen ezpadiezue: esan nai du, gogorkiro tratatzen badituzue, errukirik ezpadiezue: 2. Orobat diot, iñork kalte, edo dañurik egin badizue zuen honra, fama ona, edo kreditua, eta baita zuen ondasunak gaizki kenduarekin, edo galdu eragiñarekin, badaukezue deretxoa, eta eskubidea, errestituzioa modu onean eskatzeko: baña ez zeurok eskuz justizia egiteko: eta zerren orrelako aldietan iruipen, eta engaño asko gertatzen diran, agitz enkargatzen dizuet, ze, kolera, edo aserrea igaro gabe, eta ondo konsejua eskatu gabe, ez dezazuela pasorik eman: bada bestela erremediatu nai dezuen kaltea baño, agitz andiagoa zeuron buruai ekarriko diezue: eta ez

bakarrik animako ondasun espiritualetan, baita denboraletan ere. Eta 3. Azkenik diot, nai ta ez guziok gure projimoari barkatu bear dizkagun zorrak dirala, egin dizkigun injuria mota guziak: eta eman dizkigun naigabeak, eta estutasunak. Baña zergatik barkatu bear diozkagu, orrelakoak kastigua bai, baña errukirik merezi ezpadu? Orra gure amorio propio eragabeak, eta orri darraion bengatzeko pasio itxuak burura guziori ekarten diguna: eta askotan arrazoari, eta fede santuaren argiari ere kasorik egin nai eztiona. Itxumen orren kontra dotriña batzuetan zeoro hitz egiñik dago: batez ere kolera, edo aserrezko pasioaren kontrako erremedioen gañean, etsaiak amatzeko obligazio estu, edo mandamentuaren gañean: eta gorrotozko pekatuen gañean, eta arrazoi guziak orain berritzeko astirik eztago. Baña ala ere gogoan ondo artu itzatzue orain esatera noazkizuenak. Eta 1. Diot, Jaungoikoari bakarrik, edo aren eskua duen justiziar, edo gobernatzalle edo agintariari dagokala guzion onerako, eta pakerako gaiztagiñak kastigmatzea, eta justizia bengatzea: eta aen asmoa ezta ori bakarrik, baizik gaiztagiñak erak zenzatzea, erremediatzea, eta iltzen ditueñean ere aen animak salbatzea, damutu, konfesatu, eta barkazioa Jaungoikoari eskatu nai badiobe. 2. Diot,



Jaungoikoak berak gudanako amorioa, eta guziok alkarrekin pakean bizitzeko bere deseoa, batez ere agertu digula, alde batetik, berak guri aĩn erraz barkatuarekin, gurekin aĩn aserre egoteko motibo guziz andiak ditualarik ere: eta bestetik, guziok alkarri edozein injuria barkatzeko, alkar amatzeko: alkarren errukia izateko: alkarri on egiteko: eta gure etsaiakgatik ere Jaungoikoari berari erregutzeko legea ipiñiarekin. Lege ori ezpagendu, eta benganza artzea guziok libre bagendu, nun legoke pakerik, aĩn sentikorak, aĩn aserrekorrak, eta benganzarako aĩn laisterrak gerenez guziok gerala? Mundua bereala Infernu biurtuko lizate: indarsuenak, eta gaiztoenak beti garaia eramango luke: gerra bizi batean, eta beti amorraturik egon bearke genduke, edo eremuetara iges egin bearke genduke animalia, abere, eta pistia mota guzien artean pake geiago izatera, gizon bengatzallen artean baño. Orain Jesu-Kristoren amoriozko legean bizi galararik, eta alkarri barkatzeko aĩn mandamentu estua degularik, ainbeste aserre, eta bendeku dollor ikusten bada Kristauen artean, zer izango litzateke orrelako legerik, aĩn justurik, eta aĩn probetxugarririk ezpagenduke? Baña etzan gure Jesus ona kontentatu legea ipiñiaz, baizik dakizuen bezela, exenploa berak eman zigun

bere etsaiari, gurutzean josi zuenari erai, barkatuaz, eta aekgatik bere Aita Jaungoikoari erregutuaz: arren barka egiezu nere Aita, bada eztakie, zer egiten duen: orra Jesu-Kristok gurutzean zegoela esan zuen lenbiziko hitza: eta etzigu bakarrik exemploa eman, baizik gogotik eskatu nai badiogu bere grazia, eta indarra ematen digu, gere pasio gaiztoa goitzeko, eta berak bezela, gere gaitzgilleari biotzetik barkatzeko. Eta auxe da, santuen, eta Kristau on askoren exemploekin erakusten diguna. Ezta alabaña iñor Zeruan sartu, eta ez sartuko ere etsaiari barkatu gabe: Zer egiten dezue bada Kristau aserrekor bengatiboak? Zeuron buruak errukitu itzatzue: barkatzen ezpadezue, Infernua izango da zuen betiko paradero tristea: baña Jaungoikoaren amorioagatik biotzetik barkatzen badezue, zuen pekatuak ere barkatuak izango dira: et betiko pakea, eta gloria iritsiko dezue. Amen.

# ZAZPIGARREN DOTRIÑA ORAZIOAREN GAÑEAN

*Eta oraingoa seigarren petizioaren gañean:  
edo hitz oek: ez gaitzatzu utzi tentazioan erorten:  
zer eraskuten diguen aditzera emateko.*

Pekatuen barkazioa iristea asko eztegu; pekatuan berriz erorteko ditugun tentazioak nola goitu ondo ikasten ezpadegu: eta aurrera gogotik peleatzen ezpadegu, gu pekatura ekarri nai gaituen gure animaren etsai gaiztoen kontra. Argatik Jesu-Kristo gure Maisu soberanoak tentazioak benitzeko premia, eta modua erakutsi nai izan zigun Paternosterrean: eta orra gaurko dotriña gaia; seigarren petizioan sarturik dagoana.

**G.** Zein da Aita gurearen seigarren petizioa, edo eskaera? **E.** Ez gaitzatzu utzi tentazioan erorten. Eta zer eskatzen degu orazio, edo otoiz orretan? Ez degigula utzi Jaungoiko gure Jaunak erorten, eta konsentitzen pensamentu gaiztoetan, eta tentazioetan.

**G.** Tentazioaren izenaz, zer aditzen degu? **E.** Era askotara aditu diteke. Eta 1. Esan oi degu, urlia, edo

berendia tentatu degula, ez dakigun, eta jakin nai degun gauzaren bat, edo asmoren bat atera eragiteko, edo agertzeko: eta era onetan Jaungoikoak iñor tentatzen eztu, eta tentakizunik eztu: bada etorkizun guzia daki. 2. Tentazioaren izenaz aditu oi da, Jaungoikoak bere adiskideen birtuteaz egin oi duen prueba, edo esperienziagatik: dagokien saria erai emateko: edo aen birtutea obeto ezaguerazotzeko, edo besteai exenploa emateko. Eta orrela, Eskritura Santuak dio, Jaungoikoak tentatu, edo probatu zuela Abran bere adiskide andia, bere seme maite Isak sakrifikatzeko agindu zionean: eta bereala Aita, eta semea jarri ziran Jaungoikoari obedizitzera: eta sakrifizioa osatzera zijoatzela, Jaungoikoak bere semea iltzea eragotzi zion: eta aen borondate ona agertu eragiñaz kontentatu zan. Eta onela tentatu, edo probatu oi ditu gure Jaungoikoak bere adiskideak, naigabe askorekin, eritasunarekin, pobrezarekin, eta munduaren esamesakin: aen pazientzia probatzeko, edo birtutearen ekiera, edo exerzizioan aurreratzeke: eren pekatuen zorrak mundu onetan erraz pagaeragiteko: eta geiago, eta geiago Zerurako irabaziak orain eragiteko: eta gero koroa, eta gloria andiagoa Zeruan gozaeragiteko. Eta ala urrea surtan garbiago, eta ederrago egiten dan

bezela, justuak ere naigabeakin eta tentazioakin geiago, eta geiago garbitzen, eta edertzen dira: eta Zerurako aberatsago egiten dira. Eta ala, emengo naigabeak, nekeak, atsekabeak, tormentu, oñaze, edo doloreak justuenzat eztira izan oi Jaungoikoaren kastiguak, ezpada amoriozko probak birtute andiak exerzitatzeko okasioak, eta irebaz bide premiazkoak, eta probetxugarriak. Zergatik uste dezue, Jesu-Kristo gure guzian Kapitan, Maisu, eta gidariak, izanik inozentea pekatuak ezin egin zezakeana, beste inork baño geiago padezitu, eta sufritu zuela? Bada izan zan alde batetik gure pekatuen zorrak pagatuaz gañera, pazienziaren exenploa guri emateagatik, eta bestetik Zeruko glorian bide orretatik, eta ez beste bide atsegingarritik bera sartu, eta guziok sartu eragiteagatik. Zergatik orobat bere Ama Birjiña Santisimari, onen esoso Aita San Joseri, Apostoluai, Martiri Santuai, eta beste Santu, eta adiskide maiteai ainbeste pena, neke, eta dolore munduan sufritu eragin zien? Benturaz gaizki nai dielako? Ez, N.K. baizik asko nai zielako: eta denbora labur bateko penakgatik, beti iraungo duen gloriatzko atsegin kontentuen irabazi, eta goza eragin nai zielako. Piztu dezagun bada egia inportante onen fedea: eta jarri gaitzen, ez bakarrik aserratu

gabe, eta gaitzik esan gabe, naigabetan pazienza edukitzera: ori da primiazko gradoa: baizik nekeak, eta trabajuak gogotik deseatzera, eta pozik sufritzera: ori da Santuak izatea, eta perfektoen gradoa: bada neke puska baten orde Eternidade guziko deskansua, poza, eta gloria Jaungoikoak eman nai digu: eta zenbat geiago, eta geiago sufritzen degun, anbat koroa andiagoa izango degu. Eta orra zergatik egia onen fede argia, eta bizia zuen santuak eren bizitzak tormentuen artean ematea deseatzten zuen, eta mesede anditzat Jaungoikoari penak, eta naigabeak eskatzen zioten. Santa Teresaren padezitzeko deseoa guziz andia zan: eta aren esana zan, Jauna, edo padezitu, edo ill: eta beste Santu askoren bizitzaetan ori sarri irakorten degu. Eta ala lotsatu bear gera Kristauok, Jesu-Kristori jarritzeko obligazioa degunok, eta aiñ sari andia Zeruan esperatzen degunok trabajuak, eta naigabeak aiñ igui izateaz, eta aiñ pazienza gutxi edukitzeaz.

**G.** Eta pekatuan bizi diranai Jaungoikoak bidaltzen dien nekeak, naigabeak, eritasunak, eta beste atseka-beak merezi due tentazioaren izenik? **E.** Jaungoikoaren aldetik ez: bada aen onagatik bidaltzen dizte, humillatu ditezen, zenzatu ditezen: kontuan erori dite-

zen, munduko ezereza, eta banidatea ezagutu dezen, eta Jaungoikoagana biurtu ditezen, pekatuen damu egiazkoa artuaz: penitentzia egiñaz: eta bizitza on bat egitera jarriaz: eta eren nekeak pazienziarekin eramana, eren pekatuen zorrak emen pagatu, eta Zerurako ondasun andiak irabazi ditzaten: baña eren kulpaz arroak diralako, nekeekin geiago erak aserratu, eta besteak aserra erazotzen baditue, nekea geitzen zate: Jaungoikoa ofenditzen due: eta emengo pakea, eta betiko Zeruko pakea, eta deskansua galtzen due: eta betiko naigabeak, eta oñaze arrigarriak sufritzera dijaz Infernuko su, eta garretara. Eta orra zer dakarren humiltasuna, eta pazientzia naigabetan ez edukitzeak: eta soberbia, eta arrotasuna goitzeko, edo eskuratze-ko arduragabetasunak, edo nagitasunak. Humillatu gaitzen bada N.K. eta pazienziaren doia Jaungoikoari gogotik, eta sarri eskatu degiogun. Eta 3. Ikusi dezagun orain zer aditzen degun batez ere tentazioaren izenaz, Jaungoikoari erregutzen diogunean: ez gaitzatu utzi tentazioan erorten. Eskatzen diogu bada, gu pekatua mugitzeko, eta pekatuan erori eragiteko deabruak ekarten dizkigun pensamentu gaiztoetan, eta tentazioetan ezteigula utzi erorten, edo konsentitzen. Tentazio gaiztoak burura etortea, eta sentitzea

gure eskuan eztago: eta argatik eztira berez pekatu, guziz goikarriak, eta penagarriak izan arren, guk igui baditugu, eta atzeratzen baditugu: eta gure borondatea irmo dagoan artean aei kontra egiten, irabazi andiak egiten ditugu. Baña ezagutu ezkerro, atzeratu nai ezpaditugu, eta aetan atsegin artzen badegu, edo konsentitzen baditugu, orduan dira pekatu: eta orretarra gu ekarteko alegin biziak egiten ditu gure animako etsaiak. Deabrua da gure etsai andia, ark du Satanasen izena, edo tentatzallearena: indar andia, eta malizia andiagoa dauka, ezin ikusi gaitu: berak soberbiagatik, eta bere eskergabetasunagatik betiko galdu zuen gloria gozatzeko egiñak geralako, enbidiaz begiratzen digu: gure inguruan dabil beti zelata bezela, gu engañatzeko, eta pekaturatzeko, eta bere zorigaitzoko lagunak egiteko, eta Infernura berekin eramateko: guztik da jakinsua, iñoiz aspertzen ezta, eta bide guztietatik baliatzen da gu galtzeko, eta beretzeko: badaiki gure argaltasuna, eta gure pasio, edo griña gaitzen indarra: eta txit esna ezpagaude, eta humiltasunaz, eta Jesu-Kristoganako konfianza osoarekin Zeruko argia, eta graziaren indarra eskatzen ezpadegu, erraz goitzen, edo benzitzen gaitu: dala soberbia, edo andinai erabagearekin: dala gutizia, edo abariziarekin:



dala gorputzaren gurari zikiñakin: dala erabageko jan-  
edan gura, edo gularekin: dala kolera, edo aserre  
gaiztoakin: enbidiarekin, eta nagitasunarekin: eta  
baita egiten ditugun obra onak gaizki, edo fin gaiztoz  
eragiñarekin; (edo birtutearen exerzizioan neurri ona,  
edo modu ona, gorde bagez, extremoetan, edo geie-  
gizko lanetan sartu eragiñaz, guzia galdu eragiñare-  
kin). Eta argatik Jesu-Kristo gure Salbadore, eta Zeru-  
ko Maisuak, ori guzia ondo zekienak bezela, eta gure  
salbazioa deseatzten duenak bezela, agintzen digu,  
beti esan egotea, eta orazio egitea. «*Vigilate, et orate,  
ut non intretis in tentationem*». Eta ori iñoiz ere aztu  
eztakigun; egunoroko orazioan, edo Aita gurean ipiñi  
zigun petizio, edo eskaera humill au: ez gaitzatzu utzi  
tentazioan erorten.

**G.** Eta Jaungoikoak berak iñoiz gaitzerako, edo  
pekaturako tentatzen, edo mugitzen ote gaitu? **E.** Ez:  
eta bestela esatea fedean faltatzea, edo utsegitea da:  
baña Jaungoikoak berak permititzen ditu tentazioak:  
dakielarik batzuenzat izango dirala pekaturako okasio  
gaiak; baña ez Jaungoikoaren faltaz, ezpada pekata-  
riaren arduragabetasunaz, eta nagitasunaz; zergatik  
beste aldera dakus, tentazioak dirala askorenzat, eta

leialak, eta azkarrak izan nai duen guzientzat guztiz probetxugarriak.

**G.** Zer probetxu dakarde bada tentazioak? **E.** 1. Guziok humillatzea, gere buruak ezagu eragiñarekin; ikusirik zein ezerezak, zein argalak, gaitzera zein makurtuak gauden: eta etsaiez inguraturik gaudela kontuan erori gaitezen, Jaungoikoaren grazia, edo laguntasun gabe nai ta ez pekatuan erori, eta galduko generala. 2. Ori ikusirik, geregana fiatu, eta arrotu bear ez generala, baizik alde batetik kontuz bizi, eta peligroai alde egin: eta bestetik sarri Jaungoikoari tentazioak goitzeko indarra eskatu bear diogula. Eta 3. Serbitzen due tentazioak, guri peleatu eragiteko: gure griña, gurari, edo inklinazio txarrak ezagu eragiteko: oriek goitzeko, eta eskuratzeko alegiñak eragiteko: eta orien kontrako birtuteak sarri exerzitate eragiteko, nola fedea, esperanza, karidadea, pazienza, eta beste birtuteak: bada tentazioak goitzeko premiak, edo bearrak guzirako bidea ematen due: eta tentatua ezta Kristauak eztaki ondo birtuterik duen, edo eztuen: eta tentazioak agertzen du, nolakoa dan, edo zenbaterañokoa dan bakoitzaren birtutea. Despreziorik egiten ezpadizue, igui dezun gauzarik esaten ezpadizue, nola jakingo dezu, humiltasunik, eta pazienziarik dauka-

zun, edo ez? Uste dezu humiltasunari, eta pazienziari eder deritzotzulako, ya humilla, eta sufritua zerala, eta bearbada desarrazoi bat, edo injuria labur bat ezin sufrituko dezu: eta bereala aserratu, eta gaizki esaka abiatuko zera: eta orra, nolako birtutea zenduan, eta batere etzenduala ezagutzeko bidea. Eta ori bera beste tentazio mota guzietan ikusten da. Zenbat Kristau dira, errezo luzeak egiten dituelako; eta birtutearen, eta pekatuaren gañean ederki hitz egiten duela, Fariseoak bezela eren buruak santutzat dauzkenak? Eta ala ere dira estimazio, eta honrazale guztizkoak, guziaz agindu nai dienak: interesara, edo gutiziara guziaz emanak: gorputzaren gurariak mortifikatu nai eztituenak: enbidiosoak: (kanpotik Kristau onaren figura duenak baña barrutik sepultura zurituak, eta edertuak bezela, likitsa, usai gaiztoa, eta zikintasuna baizik ezituenak) ukatu bekie orrelakoai asko deseatzten duen gauzaren bat: edo egin bekie bidegaberen bat: orra orienzat tentazioa: bada bereala agertuko da nolakoak diran: eta birtutearen azala bai, baña mamiarik ezuela. Eta kontrara, Kristau fiñak, eta Jesu-Kristoren egiazko jarraitzalleak badira, tentazioetan agertuko da orien fede bizi argitua: orien Jaungoikoaganako konfianza, edo esperanza humilla: Jaungoikoaren, eta

projimooaren amorio egiazkoa: eta orri darraion mansotasuna, sufrimentua, pazientzia; pekatu mota guzientzuztasuna, edo aborrezimentua: tentazioai atzera esateko leia: eta humiltasunari, eta orazioari jarroia: bear dituen indar guziak Jaungoikoagandik iristeko; eta gure animako etsaiakin daukagun betiko gerra onetan garaia, edo bitoria irabazteko: eta orra tentazioak dakazten probetxu andiak: eta orregatik Jesu-Kristo gure Maisu, eta erakusle soberanoak tentatua nai izan zuen: ez bakarrik, Jaungoikoa bazan ere, egiazko gizona ere zala aditzera emateko, eta gure naturalezaren argaltasunak (pekatuaz kanporakoak) beregan artu zituala erakusteko; baita ere etsaiaren tentazioak berak lenago goituaz guri erakusteko, nola tentazioai atzera esan bear diegun, eta etsaiaren kontra gogoratu bear geran: eta orretako modua ere erakutsi nai izan zigun; bada tentazioak asi baño lenago, prestatu zan berrogei eguneko eremuko erretiroarekin, barauarekin, eta orazioarekin: eta deabruak tentatu zuenean gularekin, arrotasunarekin, eta abarizia, edo gutziarekin: Eskritura Santuko iru hitz, edo egia-kin benzitu zuen, aienatu zuen, eta lotsaturik etsaiari iges eragin zion: ara ze, tentazioak guk ere erraz goitzeko, baliatu bear gerala, erretiroaz, edo munduko

peligroai alde egiñaz: gure gorputzaren gurari, eta griña gaiztoak mortifikatuaz: Zeruko laguntasuna orazioaren bitartez iritsiaz: eta Jaungoikoaren hitz santua, edo aren lege, edo dotriña santua gogoan daukagula, etsaiari atzera esateko beti prest egonaz. Eta orra N.K., santu guziak segitu duen ejenploa, eta guk ere egin bear deguna.

**G.** Eta deabruz gañera badegu beste etsairik, edo tentatzallerik? **E.** Bai: eta dira mundua, eta gure aragia: eta oekin baliatzen da eskuarkiro deabrua, gu errazago benzitzeko, edo pekatura ekarteko.

**G.** Zer aditzen degu, gu tentatzen gaituan munduagatik? **E.** Eztegu aditzen, begiz ikusten ditugun Zeruko, eta lurreko kreaturak agiri dan mundu au konpontzen duenak: bada oriek onak dira, eta Jaungoikoa alabatzeko, eta berari eskerrak emateko gairik asko ematen digue. Gure animaren etsaiak, eta tentatzaileak dira mundutarrak: munduko honra, ondasun, eta atsegiñetan eren biotzak, eta amorioa ipiñirik, eta joserik dauzkatena: Zeruko zorionaz azturik bizi diranak: munduan zorionekoak izan nai lukeenak: baña iñoiz ere izango eztiranak, eren itxumena ezagutu, eta erremediatzen ezpadira: oek konpontzen due, Ebanjelio Santuak aiñ sarri, eta aiñ biziro kondenatzen duen,

mundu gezurtia, falsoa, engañaria; Jesu-Kristo bear bezela ezagutu eztuena, eta orain ere ezagutu nai eztuena: lurreko ponpa, banidade, ondasun, eta iduripeneko atsegiñak, Jaungoikoa bera baño geiago estimatzen dituena: jende itxua: eta ala ere guziaz legea ipiñi nai diena: Zenbatentzat munduaren esanak, eta exemploak lege orde eztira? Asko da esatea: munduak ala dio: ala usatzen da: (moda erakerizko, eta kaltegarria izan arren) bereala itxutu eragiteko: (eta arrazoia-  
ren, eta Ebanjelio Santuaren kontra izan arren) munduak, edo mundutarrak nai duena egiteko, edo bereala aei jarraitzeko. Zenbat orrelako ikusten ezta eragabeko gastuetan, etxe askoren ondagarrietan; dala eztaietan; dala banidadezko janrietan: dala danza zikin lotsagarrietan: jan-edan geiegizkoetan: joku luze kaltegarrietan? Eta ala ere munduak ala nai duelako, itxu-itxuan erakeriak franko egiten dira; arrazoiari, prudenziari, eta Jaungoikoaren legeari batere begiratu bage. Eta itxumen ori nundik dator? Alde batetik munduaren esamesaen bildur diralako: eta bestetik besteak baño gutxiago izan nai eztuelako: eta orren sus-trai gaiztoa zein da? Fedeko egia andiak azturik edukitzea: bear bezela gogora ez ekartea: eta batez ere, ez konsideratzea: 1. Nai ta ez ill bearra: eta bearbada

supitoan, edo uste duen baño lasterrago: eta gauza guziak emen utzi bearra: 2. Jaungoikoaren Tribunal guziz zuzenean agertuak, eta juzgatuak izan bearra; ez munduaren esanaz, usadioaz, eta legez konforme; ezpada, Jesu-Kristok erakutsi zigun legeaz, eta bizimoduaz batera. 3. Orri darraion, edo zorioneko, edo zorigaitzoko eternidadea, edo betiko gloriatzkoa Zeruan, edo betiko penatzkoa Infernuan: eta 4. Jaungoikoaren gubanako amorioa, ondo agertua, egin dizkigun mesede guziz andi, eta miragarrietan: beretzako kriatu gaitualako, konserbatu gaitualako, bere Seme bakar maite Jesu-Kristo eman digulako, gure Salbadore, Erredentore, eta Maisu izateko: bere grazia Sakramentu Santuetan eman digulako: gure esker gaitzogatik kondenatu ez gaitualako: eta orain ere Aita ona, eta errukitsua bezela beregana biurtzeko deiez dago-kigulako. Onelako egiak, eta Jaungoikoaren mesedeak gogora sarri ekarriko bazinduzte, laster zinzotuko zizñateke: beste begi batzuekin munduari, eta munduko banidade, interes, eta gustoai begiratuko zizñieke: munduaz, eta aren esanaz kasorik egingo etzenduke: eta zuen arreta, eta kuidado guzia izango litzate zuen anima gaixoak salbatzea: eta beti iraun bear duen penatik libratu, eta betiko zoriona, edo gloria aseguara-

tzea: piztu ezazue bada arren zuen fedea: eztezazue-  
la illik eduki: bada Jaungoikoak eman dizue fedearen  
argia, ez estalirik, eta alperrik edukitzeko: ezpada are-  
kin zuen bizimodua moldatzeko, eta zuzentzeko; eta  
arekin indarturik zuen etsai gaiztoaren tentazioai  
atzera esateko: ala esaten dizue Aita San Pedro Apos-  
toluak: nere anaiak tenpladuak izan zaitezte: eta erna,  
edo esna bizi zaitezte: bada zuen inguruan dabil dea-  
brua, orroaka dagoan leoi baten gisa, nundik arrapa-  
tuko, eta galduko zaituen zai, edo begira: gogortu  
zakizkote: eta atzera esaiozue fedearekin: au da fede-  
ko egia andien konsiderazioarekin. Eta eztegu N.K.,  
gutxiago bear fedearen argia, eta Zeruko indarra dea-  
brua, eta mundua ezeze, gure animaren irugarren  
etsaia goitzeko; au da, gure aragia, eta bere pasio,  
edo griña loi zikiñak, beti gerra bizia egiten diguenak,  
menderatzeko, edo arrazoiaren, eta espirituaren men-  
dean edukitzeko. Alabaña gure etsairik andiena, eta  
gogaitgarriena, beti gerekin dakarguna, gure gorputz,  
edo aragi gaizki ezia, eta gaitzera makurtua, edo inkli-  
natua degu: eta onen tentazioak goitzeko erremedio-  
ak ugari emanik dauzkagu dotriña askotan: eta batez  
ere luxuriaren, eta kastidadearen gañean: gularen,  
eta tenplanzaren gañean, seigarren mandamentu



santuaren gañean: eta gorputzeko sentiduak, begiak, belarriak, sudurrak, mingaña, gustoa, eta ukitze, edo taktoa, mortifikatzeko premiaren gañean, gauza asko erakutsirik, edo zeoro esanik dauzkagu: eta ala orain, gaurko petizioaren explikazioa bukatzeko, eta guziok probetxu andi bat ateratzeko, gogoan eduki dezagun, mundu triste onetan gauden artean, beti gerra bizian egon bear degula gure animako etsaiakin: eta oek gu beti tentatzen ari diran ezkerro, beti armaturik egon bear degula: beti erna, edo esna, eta beti sokorru eske gure Jaungoikoari Jesu-Kristoren izenean, eta onek erakutsi zigun orazioarekin: eta batez ere garuko petizioa, ez gaitzatzu utzi tentazioan erorten, sarri eta gogotik esaten degula: baña humiltasun, eta konfianza andi batekin: bada orrela erraz gure etsaiak, eta aen tentazioak benzituko ditugu, eta Zeuko koroa, eta gloria iritsiko degu. Amen.

# ZORTZIGARREN DOTRIÑA ORAZIOAREN GAÑEAN

*Baizik libra gaitzatzu gaitzetik. Amen.*

Gaur Aita gure edo Pater-nosterraren azkeneko hitz oek: baizikan libra gaitzatzu gaitzetik. Amen. Aditza eman bear dizkitzuet: eta bertatik diot petizio, edo eskaera au dala aurreko beste sei petizioen konpendio, bildumen, edo berritze labur bat bezela. Bada ondo aditu, edo barrendu ezker, Jaungoikoari eskatzea, libra gaitzala gaitzetik; da eskatzea, gorde gaitzala tentazioetatik, barka degizkula gure pekatuak: gure gorputzeko, eta animako bear, edo premia guziak sokorri ditzala: gure borondate gaiztoa ukatzeko, eta aren Majestadearena egiteko grazia digula: bere graziazko, eta gloriuzko Erreinua billatzeko gogo bizia digula: eta alako bizimodua egiteko grazia digula, nun bere izen santua gure akzio, edo obra onakin santifikatua, edo honratua izan dedin. Argatik azkeneko petizio onetan zer eskatzen degun ondo aditzeko, eta konprenditzeko alegin guzia egin bear degu, eta ez gutxiago ori atenzio andi batekin beti errezatzeko.

**G.** Zein da bada zazpigarren, eta azkeneko petizio edo eskaera? **E.** Baizik libratu gaitzatzu gaitzetik.

**G.** Zer eskatzen degu petizio orretan? **E.** Libra gaitzala Jaungoiko gure Jaunak animako, eta gorputzeko gaitz, eta peligro guzietatik. Eta ala eskatzen diogu 1. Pekatu mortalean bagaude libra gaitzala demonioaren mendetik, eta eztezala permititu, deabruak berriz bere mendera gaitzan; bada deabrua da bakarrik gaitztoaren izena merezi duena, eta gaitz guzien sortzalea. Eta ala 2. Eskatzen diogu, libra gaitzala pekatu mota guzietatik, eta batez ere pekatu mortaletik: bada au da bakarrik gaitz guzien gañeko gaitza: gaitz guziak berekin dakarzena: eta betiko ondasun guziak galdu eragiten dizkiguna. 3. Eskatzen diogu, libra gaitzala pekatuai zor zaien pena, edo kastiguetatik, dirala Purgatoriokoetatik, dirala Infernukoetatik. Eta 4. Eskatzen diogu, libra gaitzala gaitz denboralekoetatik ere, ala eritasunetik, nola pobreza, edo miseriatik; gerretatik; gosetatik; izurrietatik; eta munduko beste naigabe, eta nekeetatik.

Baña gaitz denboraletatik libratzea eztegu eskatzen, gure salbaziorako ala dagokigula Jaungoikoak ikusten duenean baizik: bada orazio onetan eztiogu eskatzen beste gauzarik, ezpada libra gaitzala gaitz

guztitik: eta ondo esateko, ezta gaitzik guretzako, gure salbazioa eragozten diguna baizik; eta ala eritasunak, eta neke, eta naigabe denboralak gure salbaziorako konbeni bazaizkigu, orduan eztira guretzat egiazko gaitzak, ezpada onak, eta gure ongarriak: eta kontrara, honrak, ondasunak, eta atsegin denboralak, gure salbaziorako enbarazo edo eragozgarri badira zerren aezaz gure eragabeko gurariak, apetitoak edo deseoaak kunplitzeko baliatzen geran, dira guretzat egiazko gaitzak, eta gure galgarriak.

**G.** Orrela beren osasunaz, eta ondasunaz gaizki usatzen duen pekatariak, eta mundu onetako era edo gusto guziak dituelako gaizki bizi diranak orazio au esaten duenean Jaungoikoari eritasuna, pobrezia, eta nekeak eskatzen diobe? **E.** Bai ori klaru dago: zergatik Jaungoikoari eskatzen diobe, libra ditzala gaitzetik, eta aenzat osasun sendoak, aberastasunak, honrak, eta munduko konbenienziak dira egiazko gaitzak; bada oriek dira erak galtzeko okasioa.

**G.** Ori orrela bada alako pekatariak eskuarkiro gezurra diobe, petizio au errezatzen duenean? **E.** Bada eztue nai Jaungoikoak kendu degien iñola ere ondasunik, honrarik, eta konbenienziarik. Egia esateko; eztakie geienean, ez zer eskatzen duen, eta ez zer

hitz egiten duen: zerren eskuarkiro batere atenzio gabe errezatzen due. Egiatzko Kristauak bezela orazio egingo balue, Elizak eskatzen duena deseatu luke, eta eskatuko luke, au da animarako konbeni bazie: emen denboraz nekatuak, eta mortifikatuak izatea, gero beti Infernuan atormentatuak izan eztitezen. Eta ori gogotik deseaten ezpadue galdua daukate eren biotza: gaiztoa da orien deseoa, eta gezurtia da orien orazioa. Bada San Agustiñek dion bezela, orazioa ezta biotzeko deseoa baizik, eta gauza bat eskatzen due, eta beste bat deseaten due.

**G.** Zertako bidaldu oi dizkigu Jaungoikoak naigabe edo neke denboralak? **E.** 1. Gu zenzatzeko, eta onduztzeko: gure pekatuen kastigurako, eta oriek emen purgatzeko edo pagatzeko medioak izan ditzakun. 2. Munduko gauzen ezereztasuna, eta banidadea obeto ezagutu, edo senti erazotzeko; eta gure biotzak munduaren amoriotik alderatzeko edo aparta erazotzeko. 3. Jaungoikoaganako gure amorioa azitzeko edo geitzeko, eta birtutearen ekiera edo exerzizioan aurreratzeko: eta beragan bakarrik gure poz, konsuelo, eta atsegin guzia billatu erazotzeko. Eta 4. Zeruko ondusunak gogotiago deseatu, eta billatu eragiteko, ikusirik emen ezerk ezin gure biotza bete lezakeala.

**G.** Eta Jaungoikoak bidaltzen dizkigun naigabeak, eta nekeak nola artu bear ditugu? **E.** 1. Pazienziarekin, eta Jaungoikoaren borondatearen konformidadearekin Job Santuak bezela. 2. Artu edo sufritu bear ditugu penitenziazko espirituarekin: au da gure pekatuai zor zaien penaren alde, eta Jaungoikoari satisfazioa emateko intenzio, eta deseoarekin: eta orretako unitu, eta juntatu bear ditugu Jesu-Kristoren neke, eta merezimenduakin. Eta 3. Artu ere bear ditugu esker onarekin edo Jaungoikoak gure animaren onerako bidaltzen dizkigulako ezaguerarekin: bada Aita on batek semearen probetxurako guzia zuzentzen du, eta gure Aitarik onena da gure Jaungoikoa, orazio miragarri onen asieran deitzen diogun bezela. Eta orixe da N.K., probetxu andia ateratzeko, petizio onetan ezeze, beste petizio guzietan ere beti gogoan eduki bear degun konsiderazioa: au da bere semetzat artu gaituan Jaungoiko gure Aita onarekin hitz egiten degula, eta seme on batek bere guraso maiteari eskatu bear diozkan gauza guziak, orazio onetan eskatzen diozkagula. Ara, ezpada kontura zaitezte: Jaungoikoari berari bertatik Aita deitzen diogu: ezin dateke guretzat honra, titulu, edo dignidade andiagorik, eta estimagarriagorik: bada ara zein ondo dagozkion biotz onaren jabe dan seme bati,

bere Aitari egiten diozkan erreguak: Zergatik zer gauza egokiagorik seme on batentzat, bere Aita maitea ezagutua, honratua, eta serbitua izatea, biotz osotik deseatzea baño? Eta orretako alegiñak egitea baño? Orra lenengo petizioa. Zer gauza justuagorik gure Aita poderosoak gugan erreinatzea, eta agintzea baño? Eta gauza guzietan ari obedezitzea baño? Orra bigarren petizioa. Eta orri dagokala, gure borondatea ukatu, eta aren borondatea osoro kunplitzea baño? Orra irugarren petizioa. Zer gauza propioagorik berriz seme batek bere Aitari, bear duen alimentu espirituala, eta denborala eskatzea baño? Orra laugarren petizioa. Zer gauza naturalagorik, Aitaren ofensak biotz guztitik hume onak sentitzea baño? Eta egin diozkan injuria, eta atsekaben barkazioa humillaturik eskatzea baño? Eta aren amorioz bere senideai berak biotzetik barkatzea baño? Orra bostgarren petizioa. Eta azkenik, Zer gauza egokiagorik, Aitagandik bear duen laguntasun, eta sokorru guzia esperatzea baño, bere tentazio, estualdi, eta naigabe guzietan? Eta animako, eta gorputzeko gaitz guztietatik libra dezala eskatzea baño, Aitaren eskuetan dagoala arren sokorru, eta erremedioa jakin ezker? Eta orra azkeneko petizio biak: ori guzia da bada berez seme on baten biotzari

dagokana: eta ori guzia da Jesu-Kristo gure Jaunak orazio miragarri onetan eskatzen erakutsi ziguna. Eta argatik, ara, nola gizon bati kargu bat ematen diobenean, orri dagozkan beargaiak edo lanak egiten abiatzen dan, alaxe orazio onetan asieratik Jaungoikoaren semeen dignidadea, eta honra andia artuta bereala abiatzen gera seme on baten dese naturalak agertzen; semeak bezela portatzen; eta semeai dagokien konfianzarekin eskatzen. Eta ala orazio au errezatzen degun aldi guzietan, Jaungoikoaren semeen gradua, eta dignidadea artzen degu: eta orretan egunoro, eta geiago konfirmatzen gera: eta espiritu orrekin alegiñez beti Aita gurea, edo Pater-nosterra errezatu bear degu, eta probetxu guztiz andia aterako degu.

**G.** Eta azkenean esaten degun hitz Amen ark zer esan nai du? **E.** Au da Hebreoarren hizkuntzako edo lengua-jeko hitz bat, esan nai duena, gaiak konforme edo ala da edo ala izan dedilla edo ala gerta dedilla edo nik konsentitzen edo onzat artzen det esan dan edo eskatu dan guzia. Eta Kredoaren ondoren esaten degunean Amen, da aditzera emateko ala da edo ala sinisten det guzia. Eta Aita gurearen ondoren, Amen esaten degunean, da lenago eskatu degun guzia, ala izan dedilla, hitz batean berriz eskatzeko. Eta baita



hitz orrekin Jaungoikoak berak aseguratzen dizkigu bere promesak, eta batez ere bere Semearen izenean berak erakutsitako orazioan eskatzen diogun guzia emango digula. Eta argatik Mezatako denboran Aita gurea edo Paternosterra esaten danean, lenengo sei petizioak Sazerdoteak esan ezkeru, Ministroak guzien izenean esaten due zazpigarrena: *sed libera nos à malo*: baizik libra gaitzatzu gaitzetik; zeña dan petizio guzien konpendioa edo guziak beregan sartzen ditua-na; eta gero, beste orazioetan ez bezela, Sazerdoteak bakarrik Jesu-Kristoren izenean, eta aren lekua okupa-tzen duenak bezela esaten du Amen, Jesu-Kristoren izenean aseguratzeko, eskatu dan guzia Jaungoikoak otorgatzen duela, orduan ofrendatu zaion bere Seme maitearen sakrifizioaren merezimentu infinitoakgatik. Eta au da Erromako Katezismoaren explikazioa, hitz onen gañean. Eta orra bukaturik Jesu-Kristok berak erakutsi zigun orazio miragarriaren edo Aita gurearen explikazioa. Aren Majestadearen honrarako, eta gure animen onerako arren izan dedilla. Baña gaurko peti-zioaren dotriña aiñ bearra izanik, obeto gogoan artu dezazuen: esango dizuet Eskritura Santuak dakarren exenplo bat guztiz egokia, eta probetxugarria, zerga-tik batetan erakutsiko dizue: 1. Zenbateraño Jaungoi-

koak estimatzen dituan bere adiskide leialak: 2. Zenbat alegin egiten dituan Infernuko deabru gure etsaiak, justuak pekaturatzeko: eta 3. Nola baliatu bear geran izaten ditugun tentazioetan; eta, Jaungoikoak permititurik datozkigun naigabe, eritasun, eta trabaju guzietan. Ori guzia Job Santuak txit ederki erakutsi zigun.

Job 1. Gizon Santu onek, (bere pazientzia humillagatik aiñ fama andia irabazi zuenak) gauza bi nekez batu oi diranak, izan zituan: birtute andi bat, eta ondasun, edo aberastasun andiak. Eskritura Santak dio, zala gizon justua, sinplea, edo maliziarik etzuen, Jaungoikoaren bildur andikoa: eta etzala kontentatzen berak bakarrik gaitzik ez egiteaz, baizik Aita, edo guraso zala akordaturik bere seme-alabak Jaungoikoaren bildur santuan azitzen zituala: eta aek utsegiteren bat Jaungoikoaren kontra egin zezatelako bildurrez, aekgatik Jaungoikoari sakrifizioak ofrezitzen ziozkala. Infernuko deaburak aiñ birtute andi bat ezin ikusirik, galdu nai izan zuan, Jaungoikoari berari kejavu ziztaion aren kontra, eta gaitzik edo utsegiterik batera topatzen ezpazion ere, atrebitu zan etsaia Jaungoikoaren aurrean, Job Santuaren intenzioak akusatzer, esaten zuela: etzuela alperrik Jaungoikoa serbitzen,

eta bakarrik egiten zuela, Jaungoikoak ematen ziozkan ondasun, konbenientzia, edo interes denboralagatik, Jaungoikoak Infernuko deabru gezurtia lotsatzeko geiago, eskualdia eman zion edo permititu zion, Job bere serbitzari leialari, ken zegiozkala bere ondasun guziak. Pozik deabrua bere eskualdi onezaz, eta bere malizia guziaz baliatu zan, Job Santua, albazuen, galdutzeko edo ondatzeko, trabaju edo naigabe mota edo jenero askorekin. Batetan galdu eragin ziozkan txit ugari zituan bere ondasun guziak, batzuek ostu, beste batzuek erre, eta beste batzuek etsai batzuei arrapatu ta eraman eragin zien: eta geiago Job Santua naigabetzeko, bere zazpi seme, eta iru alabak illerazo zituan Infernuko etsai gaiztoak. Seme nagusienaren etxea, nun guziak alkarrekin bazkaiten zeuden, aize izugarri batekin bota erazo, eta guziak azpian artzen zituala. Eta berri triste oek guziak batetan Job Santuari etorri zitzaizkon: baña etzuen orregatik bere birtutea eta pazientzia galdu: auzpez lurrean etzin zan: Jaungoikoa bedeinkatu edo alabatu zuen: eta esan zituan, gero ainbeste zelebratu diran hitz miragarri oek: Jaungoikoak eman zidan: Jaungoikoak kendu dit: Jaungoikoak nai izan duena egin da: bedeinkatua izan dedilla bada bere izen Santua. Aldi onetan Job San-

tuak agertu zuan inozenziak, eta pazientzia miragarriak, bere birtutea geiago garbitzeko edo purifikatzeko, geiago irmatzeko edo fortalezitzeko, eta argituago egiteko serbitu zuen: eta desesperatu zuen bere etsay gaiztoa: bada lotsaturik utzi zuen, berak galdu nai izan zuen gizon justu ark: eta argatik berriro etsaiak Jaungoikoari eskatu zion, eskualdia edo lizenzia eman zegiola, bere gorputz, edo aragian ere Job Santuari ukitzeko: bada ezin etsaiak ezer egin dezake Santuen kontra, Jaungoikoak permititzen dioneraño baizik. Jaungoikoak, eskatu zion bezela, lizenzia eman zion, geiago konfunditzeo edo lotsatzeko aren malizia; eta Job Santuaren birtute egiazkoa geiago agertzeko. Deabruak orduan zauri izugarritz bete zuen aren gorputz guzia. Erritik kanpora bota erazo zuen: eta sistoki baten gañean ezarririk, bere gorputzetik zerion usteldasuna, eta egiten zitzaizkon arrak tella kasko batekin kentzen zituan: orra zer estadura etorri zan gizon bat aiñ aberatsa, eta justua: mundu onetan zituan gauza guzietatik, etzitzaion gelditu bere emaztea baizik, eta au etsaiak utzi zion, ez konsolatu zezan, baizik biziroago tentatu, eta bere esanakin aserri erazo zezan. Emakume onek, desditxa, eta lazeria aek guziak ikusirik, uste izan zuen, bere senarraren

birtutea iruipenekoa zala, eta blasfema erazo edo Jaungoikoaren kontra gaizki hitz eragin, eta desesperatu eragin nai izan zion. Baña Job Santuak etzion besterik esan, ezpada, zenzurik eztuen emakume batek bezela hitz egin dezu: Jaungoikoaren eskutik ondasun guziak artu baginduzen: Zergatik artu ere bear eztitugu bere eskutik datozkigun gaitzak, edo naigabeak? Eta ikusirik zein bildur izateko diran, ondo alkar artzen eztuen onelako personak, dio San Agustiñek, Job Santuak aldi onetan erakutsi zuen fortaleza edo pazienza andiaz miretsirik edo admiraturik, Eba onen edo bere emaztearen tentazioan konsentitu etzuelako agitz gloriosoago izan zala Job bere sistokian, Adan Paradisuko atsegin guzien erdian izan zan baño.

Baña etziran izan oraindaño esan ditugun tentazio edo naigabeak bakarrik Job Santuak sufritu zituanak. Are geiago oraindio tentatu izan zuen bere iru adiskide andi, konsolatzeko ustean etorri zitzaizkanak, bada aren trabaju, eta neke arrigarriak ikusirik seguru sinistu zuen, Jaungoikoaren kastigua zuela; eta kulpadunzat edo gaiztotzat eduki zuen. Eta aek desengañatze-ko alegin andiak egin bazituan ere, alperrik izan zan; bada eren tema, eta bein egin zuen iritsi oker artatik irten nai izan etzuen. Baña garesti kosta zitzaien Jaun-

goikoaren sierbo, eta adiskide Jobi egin zioen injuria; eta arzaz egin zuen juizio temerarioa: bada Jaungoikoak berak aditzera eman zien agitz aserratu zuela, Job Santuaren kontra esan zituen erakerizko diskursoakin, eta deklaratu zuen, etziela barkatuko eren utsegitea, erak aín gaizki tratatu zuen Job bere adiskideak aekgatik erregutzen ezpazion.

Gero, munduarekiko ere argiro agertu zuen Jaungoikoak Job bere sierboaren inozentzia: biurtu ziozkan, doblaturik, etsaiak kendu ziozkan ondasunak, eta eman zion beste ainbeste seme, eta alaba: eta aín bizitza luze zorionekoa, nun laugarren jenerazio, edo belaunerañoko ondorengoak ikusirik Jaunaren pakean ill zan.

Eta orra nola Jaungoikoak bere adiskide leialak estimatzen dituan: nola deabruaren maliziatik libratzen dituan: eta guziori erakusten digun tentazioetan, eta naigabetan izan bear degun pazienza, eta konformidadea. Eta orra dotriñarik asko exenplo miragarri onetan gure bizimoduak zuzentzeko, eta Jaungoikoaren probidenzia zuzena, baña miragarria alabatzeko. Eta bakarrik orain oartu edo adbertitu eragin nai dizuet, oraingo denboretan Jaungoikoak sarri edo eskuarki permititzen duela bere serbitzari edo adiski-

derik maiteenak munduan, eriotzako orduraño perse-  
gituak, eta deshonoratuak izatea; zergatik Jesu-Kristo-  
ren, eta bere Santuen exenploak ikusi ezkeru, bere  
diszipulu eta jarraitzalle egiazkoak izan nai dezuena,  
munduko neke, naigabe edo trabajuen bildur andirik  
eduki bear eztezue: bakarrik animak eritzen, eta gal-  
tzen dituen gaitzak edo pekatuak igui izan edo aborre-  
zitu bear dituzue: eta beti-beti iraungo duen Zeruko  
ondasunak, eta konsueloak gogotik billatzeko, eta iris-  
teko alegin guziak egin bear dituzue. Jaungoikoak  
guzioi digula bada arren orretako bere grazia, eta  
gero betiko gloria. Amen.

# BEDERATZIGARREN DOTRIÑA ORAZIOAREN GAÑEAN

*Abe Mariaren eta Santa Mariaren explikazioa.*

Aita gure edo Paternosterraren ondoren Abe Maria errezatu oi degu Kristauok: 1. Aita gurean eskatzen ditugun fabore andiak Ama Birjiña Santisimaren bitartez obeto iristeko: 2. Ama Birjiñari berari, eta aren bitartez guri egindako mesede andien eskerrak Jaungoikoari emateko. Eta 3. Ama Birjiñaren bitartekotasun guziz andiarekin, gure premia guzien erremedioa bizitzako, eta eriotzako denboran seguru iristeko. Uste det bada dotriña au guziok gogotik adituko dezuela.

**G.** Ama Birjiñari zer orazio esaten diozkagu? **E.** Batez ere Abe Maria, eta Salbea. Nork esan zuen Abe Maria? Aingeru San Gabrielek Ama Birjiñari agur egitera edo salutatzera etorri zanean.

**G.** Zergatik esan degu Abe Maria, eta Salbea batez ere Ama Birjiñari esaten diozkagula? **E.** Zergatik beste orazio asko, alabanza andiakin Eliza Ama Santak Ama Birjiñari egiten badiozka ere, guzien artean Abe Maria, eta Salbea dirade prinzipalenak: eta Kristau mota



guziai erakustea geiena enkargatzen, eta agintzen dituenak: bada oriek dira egokienak, Ama Birjiña nor dan, eta nolakoa dan aditzera esateko: eta Kristauen debozioa, edo Ama Birjiña Santisimaganako jardura, jaiera, eta konfianza, eta amorioa piztutzeko, bizi erazotzeko, eta alaitzeko. Eta batez ere Abe Maria da, izanik orazio txit labur bat, Ama Birjiñaren anditasunak, eta alabanzarik gorenak txit argiro erakusten dizkiguna. Eta ori zuei obeto aditzera emateko gakizkongure kartillako galdeai, eta eranzuerai.

**G.** Nork esan zuen bada Abe Maria, eta orren ondorengo hitzak? **E.** Lenengo hitzak San Gabriel Aingeruak: gero hitz batzuek Santa Isabelek, eta azkeneakoak Santa Mariatik aurrera Eliza Ama Santak.

**G.** Aingeru San Gabriel nor zan? **E.** Nork bidaldu zuen Ama Birjiña Santisimagan? Eta oni zer agur edo salutazio egin zion, eta zer esan zion? San Gabriel da, bere izanaz gure Jaungoikoaren indarra edo fortaleza adiztera ematen duen Zeruko Prinzipe andietatik bat: munduan izan da, eta egin dan lanik edo egitekorik andiena tratatzeko gure Jaungoikoak berariaz autua edo esleitua Zeruko Aingeru guzien artean: munduko-en salbaziorako, au da gizona pekatuaren, eta deabruaren katiberiotik ateratzeko, eta gizonai Zeruko

bide zuzena erakusteko, eta bear zituen Zeruko grazia, eta laguntasunak alkanzatu edo iritsi erazotzeko, Jaungoikoaren beraren Seme bakarra Jesu-Kristo gure Jaunaren gizon egitea Ama Birjiña Santisimaren errai garbietan, izan zan San Gabriel Arkanjel andiak erabili zuen egiteko guziz andia. Berak Daniel Profetari bosteun urtez lenago aditzera eman zion, noiz misterio miragarri ori gertatuko edo obratuko zan: berak San Juan Bautistaren Aita Zakarias Santuari Misterio orren berriak eman ziozkan, Jaungoikoaren partetik errebelatu zionean, bere zarzaroan bere emazte Santa Isabelegan izango zuela seme bat, Juan deituko zuena: eta Jesu-Kristoren bide aurrekoa izango zana, edo jendeak Jesu-Kristoren legea errezibitzeko prestatuko zituana: eta azkenik San Gabriel Arkanjel andia izan zan Aita Eternoak, bere Seme betikoak, eta Espiritu Santuak, au da Trinite Santisimak bidaldu zuena, Misterio miragarri onen atsegiñezko berri onak Ama Birjiña Santisimari ekartzera edo aditzera ematera eternidade guzitik edo betidanik Aita Eternoak, bere Seme dibinoak, eta Espiritu Santuak zeukela esleiturik andre, edo emakume guzien artean Jaungoikoaren Seme propio, eta naturalaren egiazko Ama izateko. Orduan bada Maria Santisima bere bakarrean

orazioan zegoela agertu zitzaion San Gabriel Aingerua, gizon galai baten anzean, eta errespeto andi batekin esan zion: Agur edo Abe eta esan nai du; Jaungoikoak salba zaitzala graziaz betea, Jauna da zurekin: bedeinkatua zu zera andre guzien artean. Turbatu zan Maria Birjiña Santisima Aingeruaren hitzak aditu zituan: eta pensatzen jarri zan, zeri ote zegokan onelako salutazioa. Eta Aingeruak esan zion: eztezu zer bilturdu Maria: zuk Jaunaren aurrean grazia arkitu dezu: zure sabelean sortuko dezu, eta argira emango dezu Seme bat: eta Jesus izena deituko diozu. Eta Birjiña Santisimak esan zion: Nola ori izango da? bada gizonik ezagutzen eztet? esan nai zuen, gizonarekin traturik eztet: (eta orretan beti Birjiña izateko asmoa, eta promesa zeukala aditzera eman zuen): eta Aingeruak esan zion, Espiritu Santua zure gain etorriko da, eta Altisimoaren birtuteak hitzal egingo dizu. Eta zugandik jaioko dan Santua, edo berez Santua dana, Jaungoikoaren Semea deituko da edo izango da. Esan nai du; batetan Jaungoiko, eta gizon izango da: Aita Jaungoikoaren Semea betidanik; eta zure Semea gizatasuna zure sabelean artzen duen instantetik. Eta orren ondoren aditzera eman ziozkan, bere lengusu Santa Isabelgan Jaungoikoak egin zituan mirari andiak: eta Jaun-

goikoaren poderio neurrigabearenzat inposiblerik edo ezin egiñik eztala. Eta orduan Maria Birjiña Santisimak, parerik eztuen humiltasunarekin, eta obediendzarekin Aingeruari eranzun zion: ona Jaunaren esklababa edo sierba, egin bedi nigan zure hitzaz konforme. Eta orduantxe Jaungoikoaren Semea gizon egin zan Ama Birjiña Santisimaren errai garbietan Espiritu Santuaren obraz, eta graziaz: eta Maria Santisima aiñ humilla zalarik, ikusi zan altxaturik Jaungoikoaren beraren, Zeruaaren, eta lurraren jabe Soberanoaren egiazko Amaren gradu, honra, eta berdiñik eztuen dignidadera, eta Zeruko, eta lurreko guzien Erregiña Soberana izatera. Eta andi laster Ama Birjiña Santisima Espiritu Santuak argiturik, eta mugiturik joan zan bere lengusu Santa Isabel bisitatzera, lau eguneko bide luze nekosoan bazegoan ere aren errira. Eta ozta bere lengusua salutatu zuen, aren sabelean zegoan sei illabeteko aurtxoan San Juan Bautista santifikaturik edo pekatu orijinaletik garbiturik, eta Zeruko doai, eta graziaz beterik arkitu zan: arrazoiaren argia, eta eza guera osoa ere bertatik izan zuen: eta bere Ama Santa Isabelen sabelean pozaren pozaz, eta esker onez Jesu Kristok, eta Ama Santisimak egin zioben mesedeagatik saltoka abiatu zan. Eta orduantxe, Zeruko argiz ori

guzia ezaguturik Ama Birjiñari esan ziozkan Santa Isabelek Ebanjelio Santuak dakazkian hitz oek: bedeinkatua zu andre guzien artean: eta bedeinkatua zure sabeleko frutua: Eta nundik niri onenbeste zorion edo ditxa, nun nere Jaunaren Ama ni bisitatzera datorkidala? Eta etzuen orduan Jesusen izena aitatu, zerren artean jaio etzan, eta izenik ipiñi etzioben Zirkunzisioko eguneraño: zeñean, Aingeruak Zerutik ekarri zuen Jesusen izen gozoa, Ama Santisimak, eta San Josepek lenengo ipiñi zioben. Eta orain, Aingeruak, eta Santa Isabelek esan zituen hitz misterioz beteak Jesusen izenaz juntaturik esaten diozkagu ama Birjiña Santisimari, bera alabatzeko, eta Jaungoikoari eskerrak emateko, berari, eta guri egin dizkigun mesede guziz andiakgatik: eta orien ondoren Eliza Ama Santaren hitzakin Santa Maria errezatzen degu; akordatzen diogula Jaungoikoaren Amatasunaren honra, eta dignidade paregabea, eta bere anparoa eskatzen diogula gure premia guzietarako: eta batez ere eriotzako ordurako. Eta orra Abe Maria, eta Santa Maria esaten degun orazio miragarriaren zimendua, eta sustraia nolakoa dan: guzia Espiritu Santuak erakutsia, Aingeru San Gabrielen, Santa Isabelen, eta Eliza Ama Santaren bitartez: eta argatik beti errezatu bear degu

atenzio, eta errespeto andi batekin: eta ondo kontsideratu bear ditugu hitz guzietan arkitzen diran Maria Santisimaren alabanza guziz andiak: eta berari egiten diozkagun erreguak.

**G.** Zer da lenengo hitzak Abe edo Agur esan naituena? **E.** Bi gauza batez ere esan naitu: 1. Jaungoikoak salba zaitzala edo gorde zaitzala Maria: eta 2. Poztu zaitez, konsola zaitez, alegra zaitez Maria, bada zuretzat izan ditekean zorionik andienaren atsegiñezko beri onak dakazkitzut: alabaña sortua izan ziñan instantetik, pekatuaren kutsurik iñoiz ere izan gabe, graziaz beterik arkitu ziñan: beti Jaungoikoari atsegin egin edo eman diozu; eta izan ditekean honrarik andienerako, au da bere Ama egiazkoa, eta Zeruko, eta lurreko guzien Erregiña izateko esleitu zaitu: ori guzia Aingeruak esan naitu izan zion, Abe edo Agur esan zionean.

**G.** Eta urrengo hitz, Mariak, zer esan naitu? **E.** Etzuen Aingeruak Mariaren izena esan lenengo salutatu zuenean: orduan bakarrik esan zuen, *Abe edo Agur graziaz betea*: aditzera emateko: graziaren betetasun ori zala, Maria Santisima distingitzen zuena, Jaungoikoak sortu dituan Aingeru, eta Santu, eta Santa guziakgandik: guziak baño grazia ugariagoak Maria

Santisimak Zerutik errezibitu ditualako: baña turbaturik ikusi zuenean, bere izenaz esan zion: eztezu zer bildurtu Maria: eta Eliza Ama Santak aurretik erasaten digu Maria, norekin hitz egiten degun gogoratzeko. Eta Mariak esan nai du Señora, edo Andre nagusia, beste guzien gorena edo altuena; eta egiaz ala da, zerren dan Zeruko, eta lurreko edo mundu guziko jabe, eta Jaun soberanoaren Ama egiazkoa: eta Jesu-Kristok bere izatez duen jabetasuna bere Amari graziaz komunikatu izan dio: eta argatik da Aingeru guzien, Santu, eta Santa guzien, eta Errege, eta Jaun guzien Erregiña soberana: eta orra Mariaren izenak zer esan nai duen: eta nolako anditasuna edo grandezza beregan zartzen duen: baña orrez gañera esan nai du, argi-gillea, eta Norteko izarra, zerren nola aurora edo egun sentia datorren eguzkiaren aurretik: eta illuntasunak aienaturik, argi ederra, eta konsolagarria berekin dakarren; ala etorri zan Maria Santisima justiziaren eguzkia deitzen diogun Jesu-Kristoren aurretik, munduko illuntasunak, eta pekatarien itxumenak aienatzera: eta Zeruko argia, arako bide zuzena erakustera zetorrena, ekarri zigun. Eta baita Mariak esan nai du itxasoko izarra, eta ala deitzen dio Eliza Ama Santak: *Ave maris stella*: alde batetik izarrak bere kalte

edo dañu gabe argiaren arraioa ematen duen bezela; Ama Santisimak bere sabeleko frutua, mundua argitu bear zuena, bere argitasunaren kalte gabe, eman zuelako; eta bestetik da itxasoko izarra: zerren, nola itxasoan dabiltzanak, batez ere gabaz, izarraz giatzen diran, eta ari begira dabiltzan galdu, eta ondatu ezitzezen itxasoko peligro edo arrisku andietan; ala munduko itxaso irabiatu edo nastu onetan ditugun peligro andietan, illuntasunetan, tentazioetan, eta estutasunetan, Maria Santisima degu, argitzen, gidatzen, eta anparatzen gaituan izar argi ederra: San Bernardok zeoro explikatzen digun bezela: eta galduak izan nai ezpadegu, begiratu bear diogu Maria Santisimari: eta eskatu bear diogu gure tentazio guzietan argitu gaitzala, gorde gaitzala, anpara gaitzala, eta gure animako etsai gaiztoak goiturik, salbazioko portura ekarri gaitzala: eta ala iritsiko degu seguru, aren exenploari, edo birtuteai jarritzeko alegiñak egin nai baditugu.

**G.** Eta zein da Aingeruak Maria Santisimari lenengo eman zion alabanza? **E.** Esan zion graziaz betea. Eta hitz oriek zer esan nai due? Jaungoikoak bere Ama egiazkoa izateko auturik zeukanari bezela, eman ziozkala, beste kriatura guziai baño, Aingeru guziai, eta Santu, eta Santa guziai baño grazia askoz geiago: ala-



baña guzien Erregiña izan bear zuen ezkerro, guziak baño andiagoa izan bear zuen bere birtute, eta doai guzietan: bada Jaungoikoak zertarako bat eskojitzen, aututzen edo esleitzen duen, artarako egokiak diran grazia, eta doai guziak ematen diozka; eta ala, esaten bada ere, San Juan Baupista, eta Apostoluak graziaz beterik izan zirala, Maria Santisimaren graziaren betetasuna, izan zan, orien, eta beste guziena baño agitz andiagoa: zergatik, gaitasun edo kapazidade guztiz andiagoa eman zion bere Ama Santisimari, beste guziaz baño: bada onzi txikia, eta andia bete ezkerro, beterik daudela egiaz esaten, eta ikusten bada ere; badakizue, onzi andiak geiago kabitzen duela, txikiak baño: eta ezta izan kreatura guzien artean Maria Santisimaren onziaren zabaltasunari edo anditasunari allegatu zaionik batere: eta ezta ark ainbat grazia errezibitu duenik ere; eta nola ezta izan kreaturarik batere Jaungoikoaren graziari obeto eranzun dionik, eta irabazi andiagoak egin dituanik: bada sortua izan zan instantetik il zaneraño, grazia geituaz, eta aren irabaziak aumentatuaz joan zan; ezin ponderatu edo aditzera eman diteke, esan al guzia esanda ere, nola-koa dan Maria Santisimaren graziaren, eta ari dago-kan gloriaren anditasuna: eta hitz batean esan zuan

Aingeruak esan ala, graziaz betea esan zionean: au da Jaungoikoaren Amari, eta Zeruko Erregiñari zegokan graziaz betea.

**G.** Eta zer esan nai du urrengo eman zion alabanzak, edo Aingeruak esan zion hitz onek: Jauna da zurekin? **E.** Kreatura guzietan badago ere gure Jaungoikoaren Majestadea, au da Aita Eternoa, bere Semea, eta Espiritu Santua, iru persona, eta Jaungoiko egiazko bakar bat dana, askotan aditzera eman dizuedan moduan; Maria Santisimagan, eta aren zorioneko animagan zegoala era edo modu espezial, eta miragarri batekin: Aita Eternoa bere Alaba guziz maiteagan bezela: Seme dibinoa bere Ama guziz maitea izateko auturik edo esleiturik zeukanagan bezela; eta Espiritu Santua bere Esposarik maiteanagan, eta maitagarrienagan bezela: Trinitade Santisima guzia zegoan Maria Birjiñaren biotzean edo espirituan bere jarlekurik edo bizilekurik ederrenagan, eta atsegingarrienagan bezela. Eta ortik atera ezazue kontu, nolako argitasunak, eta nolako amoriozko suak, eta garrak izango zituan beti Maria Santisimak, bere burua Jaungoikoaz aiñ maitatua, eta faborezitua ikusten zuenean; aiñ humilla, eta aiñ esker onekoa zalarik: eta beste kreatura guziak baño Jaungoikoaren ontasun infinitoaren eza-

guera agitz andiagoa zuelarik. Eta ezaguera orri, eta Jaungoikoak aiñ ugari eman zion graziari zegokan bezela, Jaungoikoaren Majestadea beste iñork ez bezela, edo guziak baño perfekzio geiagorekin beti amatzen zuelarik. Ori guzia ondo aditzera eman dezakeanik ezta; eta konsideratzeko ohea da, explikatzen baño. Eta ala aurrera goazela Abe Mariaren explikazioan:.

**G.** Zer esan nai due Aingeruak Maria Santisimari esan ziozkan hitz oek: bedeinkatua zu zera andre guzien artean? **E.** Esan nai due: 1. Maria Santisimak berak bakarrik Zerutik errezibitu dituala, beste emakume, edo andrerik zorionekoenak baño, bendizio, eta zorion askoz andiagoak, eta ugariagoak: bere paregabeko diñatasunari zegozkion bezela: bada bera bakarrik izan da guzien artean esleitua Jaungoikoaren Ama egiazkoa, eta Aingeruen, eta Santu, eta Santa guzien Erregiña izateko. 2. Bera bakarrik izan da pekatu orijinal gabe sortua edo konzebitua: eta bere sortze edo konzeptziko guziz garbiaren instantetik graziaz, eta Zeruko doaiez betea. Eta guzion lenbiziko Ama Ebaren utsegiteak erremediatzeko autua: eta deabruari burua ausitzeko eta aren mendetik gu libratzeko, bere Seme Jesu-Kristoz ostean, geien serbitu zuena: bada bere

sabel Birjiñalean gure Erredentorea, edo libratzallea Espiritu Santuaren obraz, eta birtutez sortu zuen. Eta azkenik Maria Santisima bakarrik da batetan egiazko Ama, eta egiazko Birjiña izateko paregabeko zoriona izan duena. Eta ala arrazoi guziz andiak in Aingeruak esan zion, eta guk ere esaten diogu, bedeinkatua zu zera andre guzien artean: baña beti esan bear diogu, aren zorionaz atsegin artzen degula: eta bera Zeruan, bere Semearekin batera, beti bedeinkatzeko, eta alabatzen zorian arren iritsi degigula, eskatzen diogula. Eta orain ikusi dezagun, zer esan nai duen Santa Isabelek Ama Birjiña Santisimari esan ezker, Aingeruak bezela bedeinkatua zu zera andre guzien artean, azkenik esan ziozkan hitz oek: *eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua*: 1. Esan nai due Ama Santisimari zorion guzia datorkiola, bere Seme maite, edo bere sabeleko frutu bedeinkatu Jesu-Kristo Jaungoiko, eta gizon egiazkoaren Ama egiazkoa izatetik: 2. Aditzera ematen due, frutua arbolatik sortzen dan, eta aren kalte gabe datorren bezela, Jesu-Kristo sortu zala, eta jaio zala Ama Birjiñagandik, onen kalterik gabe: eta bai bere honra, eta gloria geiagorekin: 3. Esan nai due hitz oriek, Jesu-Kristo zala Ama Birjiñaren egiazko Semea, aren odolaz sortua edo konzebitua zalako

gizona dan aldetik: eta Jaungoikoaren Semea betidanik bada ere, nola eztan Jesu-Kristogan persona bat baizik arkitzen, eta ori ez gizona, ezpada Jaungoikozkoa, edo egiazko Jaungoikoa dana: orregatik esaten degu, eta ala da egiaz, Maria Santisima dala Jaungoikoaren Ama. Eta ori bera autortzen degu Eliza Ama Santarekin, aren sabeleko frutu bedeinkatuari Jesus deitzen diogunean. Eta orra Abe Mariaren hitz laburrak nolako misterioak sarturik daukaten: eta oriekin zein alabanza andiak Ama Birjiñari ematen diozkagun. Esan ditzakun bada beti espazioz edo betaz, atenzioz, eta poztutzen edo alegatzen gerala aren paregabeko zorionaz. Eta orien ondoren orobat Santa Maria errezatu bear degu, orazio orren sentidua ondo ezaguturik, eta gogoraturik degula. Eliza Ama Santak erakutsi digu bada orazio eder au: Santa Maria Jaungoikoaren Ama erregutu ezazu gu pekatariokgatik, orain, eta gure eriotzako orduan Amen. Deitzen diogu bada 1. Santa: eta hitz ori explikatorik dago Aingeruak eman zion alabanzarekin, graziaz betea esan zionean. 2. Mariaren izen gozoak zer esan nai duen aditu dezue: bada bera da guzion Señora edo Andre nagusia, eta Zeruko, eta lurreko guzien Erregiña, gure argi-gille ederra, eta konsolagarria: eta itxasoko izar poztgarria,

ari begira, eta ark erakusten digun bideari jarraioaz dabiltzanenzat. Eta 3. Bera da Jaungoiko guztiz poderosoaren Ama egiazkoa: beste kreatura guziak baño Jaungoikoak maitatuagoa: eta Jaungoikoaren beraren maitatzalleagoa: eta ala Jaungoikoaren aurrean poderiorik edo eskualderik andienak dauzkana: eta orobat Maria da gure guzion Ama maitetsua: kargu ori bere Semeak Jesu-Kristok berak eman zion gurutzean bertan San Juan, eta argan beste guziok bere semetzat seinalaturik utzi ginduzanean: eta gurekiko du Ama guziz biguñ errukitsu, eta maitatzallearen biotza: bere Semeaz kanpora, iñork ere ez gaitu aiñ maite, nola Maria Santisimak: iñork ere eztu gure salbazioa geiago deseitzen: eta ala ezaguera orri dagokan konfianza osoarekin eskatzen diogu, Jaungoikoaren aurrean, gure bitarteko izan dedilla: eta esaten diogu: erregutu ezazu gu pekatariokgatik, orain, eta gure eriotzako orduan. Eta zergatik esaten degu orain? Zergatik gure bizitzako denbora guzian kondenatuak izateko peligro andian gaude: bada alde batetik gure eragabeko pasio edo griña gaiztoak itxutzen gaitue: eta bestetik deabruak, munduak, eta gure aragiak tentatzen gaitue: eta beti Zeruko graziaren edo laguntasunaren bear andia degu: eta ori txit ugari, Maria Santisimak

iristen digu: eta nola eriotzako orduan tentazioak, eta  
peligroak andiagoak diran orduko batez ere eskatzen  
diogu bere anparo edo laguntasun espeziala: eta gure  
deseo, eta konfianza obeto agertzeko azkenik, Amen  
esaten degu, au da ala izan dedilla. Eta orra Santa  
Mariaren explikaio labur bat: eta bakarrik orain gogo-  
ra ekarten dizuet, Ama Birjiñaren anparoa bizitzan,  
eta eriotzan seguru iristeko, beraren egiazko deboto-  
ak, eta ez iruripenekoak izan bear dezuela, beste aldi  
batean esango dizuedan bezela: eta orrela Ama San-  
tissimaren bitartez iritsiko dezue Jaungoikoaren grazia,  
eta betiko gloria. Amen.

# AMARGARREN DOTRIÑA ORAZIOAREN GAÑEAN

*Salbearen explikazioa: eta Ama Birjiñarekiko debo-  
zioa.*

Abe Mariaren, eta Santa Mariaren aurreko dotriñan, Ama Birjiña Santisimaren alabanzarik andienak aditu dituzue N.K.: eta geiago Ama Birjiñaganako gure debozioa piztutzeko, eta beraren bitartez gure premia guzien erremedioa iristeko, Eliza Ama Santak erakusten digu beste orazio eder bat, Salbea deitzen dioguna: eta orazio onetan Ama Santisimari ematen diozkagun alabanzak: egiten diozkagun erreguak: eta eduki bear diogun debozioa aditzera eman nai dizkitzuet, eta atenzioa eskatzen dizuet.

**G.** Salbea nork esan zuen? **E.** Eliza Ama Santak dauka arturik orazio ori. Zertako? Fabore edo mese-deak eskatzeko gure Señora Maria Birjiñari. Orretan zer aditzen degu? Gizon deboto, piadoso, eta jakin-suak Salbea konpondu edo ordenatu zuela: eta nola dan aiñ orazio ederra, samurra, eta guziz egokia, Ama Birjiña Santisimari zor zaizkon alabanzak emateko:



eta bere anparo andia guk iristeko, orregatik Eliza Ama Santak orazio ori auturik, eta aprobaturik dauka: eta bere ofizio edo errezo publikoan ipiñirik dauka, eta usatzen du, eta nai du Kristau guziak ikastea, eta errezatzea Ama Birjiña alabatzeko, eta aren bitartez bere Seme maiteagandik premia edo nezesidade guzien erremedioa, eta betiko bizitza iristeko.

**G.** Baña Salbea explikatu baño lenago, gure karti-llako dotriñari narraiola, galdetzen det: Salbea esaten dezunean norekin hitz egiten dezu? **E.** Gure Señora edo Ama andre Maria Birjiñarekin. Eta nor da gure Señora Maria Birjiña? Da Señora bat, birtutez betea, Jaungoikoaren Ama, eta Zeruan dagoana. Eta Aldarean dagoana zein da? Zeruan dagoanaren imajiña edo aren anza duena. Zertako dago aldarean? Ura ikusi ta Zeruan dagoanaz oroitu edo akordatu gaitetzen: eta aren imajiña dalako erreberenziatu dezagun: eta ori bera egin bear degu santuen imajiñakin.

**G.** Ama Birjiña bat baño geiago bada Zeruan? **E.** Ez: eta argatik esaten digu gure dotriña laburrak dala Señora bat, eta ez geiago. Nola bada munduan Ama Birjiñaren aiñ izen, eta imajiña asko, eta diferenteak arkitzen dira? Errosariokoa, Karmengoa: Merzedetako: Guadalupekoa: Almudenakoa: Atotxakoa: Aran-

zazukoa: Monserratekoa: Konzepziokoa: Doloretakoa: Soledadekoa, eta beste ezin kontatu ala? Oriek guziak Ama Birjiña bat baizik eztira? Ala da egia: eztira bat baizik, eta guziak titulu, eta izen diferenteak eduki arren, Zeruan Ama Birjiña bakar bat baizik eztago: eta aren imajiña guziak ura gogora ekarten digue: bada eztago Ama Birjiña egiazkoa bera aldarean: baizik aren imajiña, edo imajiñak titulu diferenteakin.

**G.** Eta zergatik ainbeste izen, eta titulu diferenteekin deitzen diogu Ama Birjiñari? **E.** Alde batetik aren bizitzako misterioak distingitzeko: eta bestetik munduko toki askotan egin dituan, eta egiten dituan mesede edo fabore andiak gogoratzeko: eta Kristauen esker ona, eta debozioa piztutzeko, toki orietan, eta titulu diferente orien azpian erakutsi edo agertu duen bere miseriak gogora ekarriaz.

**G.** Eta Ama Birjiñaren imajiñai orazio egiten diegu? edo zer eskatzen diegu? **E.** Imajiñai erai ez: bada ezti-ra gauza biziak, eta ezer aditzen eztue: eta ala imajiñak bakarrik serbitzen due, Zeruan dagoan Ama Birjiña bizia guri gogora ekarteko: eta ari bakarrik gure erreguak egiten diozkagu: baña ala ere aren errespetoz, aren imajiñak erreberenziatzen ditugu: eta ori bera santuen imajiñakin egiten degu: eta Ama Birjiña-

ri bezela, ez Santuen imajiñari, baizik Zeruan dauden santu biziai orazio egiten diegu, aen imajiñaren aurrean: eta orobat imajiñarik aurretik eztegunean. Eta Aingeruai, eta Santuai orazio egin bear diegu? Bai: Jaungoikoaren aurrean gure bitartekoai bezela. Eta zer gauza dira Aingeruak? Zeruan Jaungoikoaz gozaten dauden espiritu zorioneko doatsu, eta bienabenturadu batzuek. Zertako Jaungoikoak kreatu, edo ezezetik egin zituan? Aren Majestadea beti edo eternidade guzian bedeinkatzeko, eta alabatzeko. Eta zertako geiago? bere ministroak edo serbitzariak bezela Eliza gobernatzeko, eta gizonak zaitzeko edo gordetzeko: beraz badezu, zu gordetzen zaituan, Aingeru bat? Bai: eta gizon bakoitzak du berea. Eduki egiozu bada debozio andi bat, eta enkomendatu zakitzaio egunoro. Ora gure dotriña laburrak hitz gutxitan erakusten dizkigun egia andiak, eta konsolagarriak: eta zenbat zor diogun Kristauok gure Jaungoikoaren ontasunari ondo agertzen diguenak: bada eman nai izan dizkigu bere Ama Santisima bera, Zeruko Aingeruak, eta Santuak, gure bitarteko andiak berarekin izateko: eta baita eren exemplo edo bizimoduarekin gure ispi-lluak izateko, orain aei jarraituaz, gero Zeruan aen zorioneko lagunak izateko. Eta orretako ondo zetorren

emen aditzera ematea, nolako erreberenzia eta debozioa zor diegun Ama Birjiñari, Aingeruai, eta Santuai. Baña ori zeoro esanik, eta explikatorik dago Jaungoikoaren legeko lenbiziko mandamentu Santuan, adorazioaren gañean emanik dagoan dotriña berezian: eta orobat Aingeruak zer diran, eta nola batzuek eren soberbiagatik kondenatu ziran, eta deabruak egiñik gelditu ziran: eta kontrara Aingeru humillak betiko salbatu ziran, eta betiko zoriona iritsi zuen: beste gauza andi askorekin aditzera emanik dago Aingeruen gañeko berariazko dotriña batean. Eta argatik, nola Ama Birjiña Santisimaren debozioari orain garraizkon, eta Aingeruai, eta Santuai baño erreberenzia andiagoa zor diogun, eta Salbea dan bera alabatzeko, eta honratzeko, eta beraren bitartez gure premia guzien erremedioa, eta betiko bizitza Jesu-Kristogandik iristeko orazio guziz egokia: eta artako Eliza Ama Santak arturik, eta aprobaturik daukana: Salbearen explikazio labur bat bakarrik egin bear dizuet: eta gogoan ondo artzen badezue, probetxu geiagorekin Salbea erreztuko dezue: eta Ama Santisimaganako debozioa zuen biotzetan obeto artuko dezue: 1. Bada Ama Birjiñaren alabazan, hitz oek esaten ditugu: Salbe Erregiña, miseriardiaren Ama, bizitza, gozo edo dulzura, eta

esperanza gurea, Salbe: eta esan nai degu: Jaungoiko-  
ak salba zaitzala Erregiña Maria, Zeruko, eta lurreko  
guzien Erregiña zerana: Aingeru guzien, eta gizon  
guzien Errege Soberanoaren Ama egiazkoa zeralako:  
*Miserikordiaren Ama*: miseriakordia, eta fabore guzien  
jatorri, eta emalle Jesu-Kristoren Ama zeralako: eta  
miseriakordia egiten, eta errukiz pekatariak begiratzen  
Jesu-Kristoren anzik andiena dezulako; *bizitza*: au da  
graziazko bizitzan iñoiz ere pekatuan erori gabe bizi  
izan zeralako: graziazko bizitzaren emallea Zerutik  
ekarri diguzulako: eta oraiñ ere beste iñork ez bezela,  
zuzaz ondo baliatu nai duenai pekatuaren eriotzatik  
libratzeko, eta graziazko bizitza iristeko lagundu nai  
diezulako: eta grazian daudenai, ori konserbatzeko,  
berariazko Zeruko sokorruak, eta indarrak iristen die-  
zulako: orra zergatik bizitza, eta gurea esaten diogun.  
Eta orren ondoren deitzen diogu: *gure gozo edo dulzu-  
ra*: zergatik beragan iñoiz ere arkitu eztan asarre  
anzik, eta mintasunik: eta zergatik Zeruko gozo, eta  
atsegintasunak, ez bakarrik gero gozatzeko, baita ere  
bertatik probatzeko iristen dizkigu; gere naigabetan,  
eta tristura aldietan beraz baliatzen bagera, Jesu-Kris-  
togandik iristeko aiñ bearra degun pazienziaren doaia;  
bada orduan mintasun guziak gozo biurtzen dira. Eta

orri darraio beste hitz gozo au: *gure esperanza*: baña nola dan Maria Birjiña Santisima gure esperanza ondo jakiteko, eztegu nastu bear Jesu-Kristogan daukagun esperanzarekin: modu batera da Jesu-Kristo gure Jauna gure esperanza guzia, eta beste modu batera da aren Ama Santisima gure esperanza. Jesu-Kristok bakarrik bere kabugabeko edo neurrigabeko merezi-mentuakin Jaungoikoaren justiziarri gure pekatuen zorra pagatu zion: pekatuen barkazioa iritsi zigun: eta galdurik gendukan grazia, eta Zeruko deretxoa alkanzatu zigun: eta bear ditugun grazia guziak Jesu-Kristogatik Aita Eternoak ematen dizkigu: eta San Pedro Apostoluak deklaratu zuen bezela, eztago Zeruaren azpian Jesusen izena baizik gu salbatu ginzakeanik. Eta ala Jesu-Kristo bakarrik da guzion Salbadorea: eta bere Aita Eternoaren aurrean guzion bitarteko Soberanoa: eta argatik Eliza Ama Santak orazio guziak, baita Ama Birjiña Santisimari egiten diozkanak ere, bukatzen ditu Jesu-Kristoren izenean. *Per Dominum nostrum Jesum Cristum*. Nola da bada Ama Birjiña gure esperanza? Zergatik dan Jesu-Kristorekiko gure bitartekorik andiena: bada bere Ama guziz maitea du: Zeruko Aingeru, eta Santu guziak baño maiteago du: eta guziak baño geiago honratzen, eta estimatzen du:

berak gure Amatzat, Patronatzat, eta Abogadatzat eman digu: aren eskutik bere grazia guziaz komunika-tu nai dizkigu: konbeni zakun guzia bere Amak eskatu ezkeron ematen digu: eta nola Ama Birjiñak bere humetzat arturik gauzken, eta gure salbazioa ezin geiagorano deseatzen duen: orra zergatik, eta nola dan gure esperanza. Eta ala, beraz ondo baliatu nai bagera, seguru iritsiko digu bere Seme maiteagandik gure salbaziorako konbeni zakun guzia; eta konfianza orrekin berriz *Salbe edo Jaungoikoak salba zaitzala* esaten diogu: eta gure premiak, eta miseriak ezagutu-rik erremedioa gogotik Ama Birjiñari eskatzen abia-tzen gera, eta esaten diogu: zure deiez gaude Ebaren hume desterratuok: zugana gaude suspirioz, eta negarrez negarrezko balle edo ibar onetan: eta ez bakarrik deiez gaude, baizik deadarrez, (*Ad te clama-mus*) aditzera emateko gure premiaren estutasuna, ara ze, berak laguntzen, eta sokorritzen ezpagaitu, txit erraz galduko, eta kondenatuko gerala: bada Eba-ren humeak gera: deabruak Eba lenengo pekatura ekarri zuen: eta Ebak gure guzian Aita Adani frutu debekatua jan eragiteko, eta pekatu eragiteko bidea edo okasioa eman zion: eta guziori biak emengo para-disua, eta grazia, eta Zeruko paradisuaren deretxoa

galdu eragin ziguen: pekatuan sortu eragin, eta Jaungoikoren aserrean ipiñi ginduzten; eta ortik munduan ikusi diran, orain ikusten diran, eta aurrera ikusiko diran gaitz, eta pekatu guziak sortu dira: eta guziok betiko galduak izan bear genduan, gure Jaungoikoak errukiz begiratu ezpaginduz, eta bere Seme propioa bera, Ama Birjiñaren errai garbietan gizon egiñik, eman ezpaligu guzion erremediorako: eta erremedio au logratzeko edo iristeko, Ebaren utsegiteak erremedia-tzera etorri zan Ama Birjiña Santisimari eskatzen diogu, eta ez nolana, ezpada destierroan triste daudenak bezela, miseria andien azpian daudenak bezela suspirioz, eta negarrez gure Señora, eta bitarteko edo abogada andia dan bezela, bere miseriakordiazko begiak gugana itzuli edo biurtu ditzala: eta destierro onen ondoren bere sabeleko frutu bedeinkatu Jesus erakutsi degigula edo ura beti Zeruan ikustera, eta beraz beti gozatzera eraman gaitzala. Orixe eskatzen diogu, esaten diogunean: ea bada Señora gure abogada itzuli itzatzu zure begi miseriakordioso oriek guregana: eta destierro au igaro ta erakusguzu Jesus zure sabeleko frutu bedeinkatua.

**G.** Eta zergatik orazio onetan, bakarrik eskatzen diogu erakutsi degigula Jesus, aitatu gabe Jaungoikoa?



**E. 1.** Zergatik Jesus da Jaungoiko, eta gizon egiazkoa: eta nola Jaungoikotasuna bat baizik eztan: eta guzia berbera dagoan Aita Eternoagan: bere Seme Jesu-Kristogan: eta Espiritu Santuagan: Jesus argiro Zeruan ikusi ezker, Jaungoikotasun guzia, eta iru persona dibinoak orobat ikusten dira. Eta baita Jesu-Kristoren gizatasun, edo humanidade guziz santua, au da bere anima, eta gorputz guztiz ederrak, bere perfekzio, eta doai guztiz miragarriakin. Eta ala gure Jesus ona Zeruan ikusi ezker, ikusi al guzia, ezagutu al guzia, deseatu al guzia, batetan, eta beti ikusten da, eta gozaten da. Baña nolako poz, kontentu, eta atsegiñarekin? Ori ezta posible destierro onetan, illunpe onetan, ondo ezagutzea, eta are gutxiago aditzera ematea. Asko da jakitea: arrezker, gaitzik batere ikusiko, eta sentituko ezteguna: eta ondasun, eta atsegintasun guziak beti gozaten egongo gerala, iñoiz ere galtzeko bildur gabe: eta orra guziok gogotiana billatu bear degun zoriona.

**G.** Eta zergatik geiago Ama Birjiñari erregutzen diogu, erakutsi degigula Jesus, esanaz: bere sabeleko frutua? **E. 1.** Berritzeko, Ama Birjiñari bere zorion guzia Jaungoikoaren Ama egiazkoa izatetik etorri zaiola: eta **2.** Aditzera emateko, Amak bezela bere Semea-

rekin esku, eta poderio guztiz andia daukala (Semeak berak emana badu ere): eta ala orain bere Semearen graziara gu ekarteko, eta gero Zeruan bere Semea bera guri erakusteko, esku guzia eman nai izan diola: beraren bitartekotasunaz ondo baliatzen bagera. Eta ezaguera orrekin, eta deseo andi batekin, azkenik Ama Birjiñari esaten diogu: O, guziz beraa, eta bigu-ña! edo O, Klementisima! O, Piadosoa! O, dulce edo gozo Birjiña Maria! erregutu ezazu gugatik Jaungoikoaren Ama Santa, Jesu-Kristoren promesak iristeko diña izan gaitean Amen. Eta orra N.K., Salbearen explikazio labur onetan aditzera emanik, zein motibo andiak ditugun, Maria Birjiña Santisimaren debotoak izateko: baña jakin naiko dezue, zertan dagoan Ama Birjiñaren egiazko debozioa: eta ori da orain hitz gutxitan esan bear dizuedana: eta gogotik aditu bear dezuena: 1. Bada poztu, eta alegratu bear gera Ama Santisimaren anditasun paregabeaz: Jaungoikoaren Ama egiazkoa, eta Zerutar guzien Erregiña dalako: eta Jaungoikoari millarezko eskerrak eman bear diozkagu, zergatik altxatu nai izan duen aiñ honra, eta dignidade paregabea. 2. Orobat alegratu bear gera, zerren bere Konzepzio edo sortze guziz garbiaren instantetik Jaungoikoaren Majestadeak bere Ama egokia izateko, eta Ain-

geru, eta Santu guzien Erregiña izateko esleiturik zeukanari bezela komunikatu ziozkan beste kreatura guziaz baño grazia, eta doai ugariagoak: eta Ama Santisimak bere aldetik, beste iñork ez bezela edo beste guziaz baño perfekzio geiagorekin Jaungoikoaren ontasunari eranzun, eta korresponditu zion: etzitian iñoiz ere alperrik eduki Jaungoikoak aiñ ugari eman ziozkan grazia, eta doai miragarriak: iñoiz ere utsegitarik edo pekaturik, dan txikiena etzuen egin: bere Ama, Santa Anaren sabelean konzebitua izan zan instantetik, ez bakarrik arkitu zan pekatu orijinalik gabe, eta graziaz beterik, baizik izan zituan bertatik Jaungoikoaren ezaguera guziz argiak: eta bertatik abiatu zan, birtute guziaz perfekzio guziz andi batekin exerzitatez: iñork ere eztu izan Ama Santisimak orduan izan zituan baño fede biziagorik, esperanza irmoagorik, eta karidade edo amorio irazekiagorik: eta birtute andi oriek, eta oriei darraizkan humiltasuna, pazientzia, esker ona: animako, eta gorputzeko garbitasuna; eta beste birtute guziaz bere azkeneko arnasea eman arteraño beti exerzitate zituan ezin esan al bezelako perfekzioarekin. Eta ortik atera ezazue kontu, nolako santidadera eldu zan Maria Santisima; eta nolako koroa, eta gloria miragarria Zeruan gozaten dagoan:

eta nolako amorioarekin begiratzeko dioben Zeruan, Aita Eternoak bere Alaba guziz maiteari bezela: Seme dibinoak bere Ama guziz estimatuari bezela: Espiritu Santuak bere Esposa, Tenplo, eta jarleku prinzipalari bezela: eta Zerutar guziak beren Erregiña, eta Ama biguñ, eta maitatsuari bezela. Eta guk nola begiratu bear diogu destierro triste, eta miseriazko, eta negarrezko balle edo ibar onetatik? Gure Ama maiteari bezela: gure ongille, eta anparatzalle andiari bezela: eta gure bizimoduaren ispillu argi, eta ederrari bezela. Eta orretan batez ere erakutsiko degu Ama Santisimaren egiazko debotoak gerala: eta ez asko bezela, irui-penekoak: debozioaren azala bai, baña mamirik eztuenak. Gauza bi egin bear ditugu bada, debozio egiazkoa Ama Santisimari edukitzeko: 1. Da hume onak bere Amagana bezela konfianza oso batekin beragana akuditzea gure premia espiritual, eta denboral guzien erremedioaren billa, bada txit maite gaitu: zerren bere humeai, eta Jesu-Kristoren senideai bezela begiratzeko digun: eta konbeni zakun guzia guri iristeko eskua dauka. Eta 2. Da Ama Santisimaren bizimodua, ark eman zigun exemploa, eta bere Seme Jesu-Kristori birtute guzietan, eta batez ere humiltasunean, pazientzian, eta karidadean jarraitzeko izan zuen

leia miragarri al deguneraño imitatzea: iñork eztu Jesu-Kristoren anz geiago izan bere Amak baño: eta onen deseo guzia da, Kristau guziok Jesu-Kristoren anzekoak izatea, eta orretako fedea, esperanza, eta karidadea sarri exerzitatzea: pekatuak, Jaungoikoaren ofensak, eta gure galgarriak diralako, biotz guztitik aborrezitzea: pekatura mugitzen gaituen gure etsai gaiztoak, deabrua, mundua, eta aragia menderatzeko edo goitzeko alegin guziak egitea: gure pasio edo eragabeko apetitu, eta griña gaiztoai beti gerra egitea: eta batez ere soberbiari andinai, eta arrotasunari: gutziari: lujuriari: gula edo jan-edan gure eragabeari: ira, kolera edo aserretasunari: enbidiari, eta nagitasunari: bada bizio orien kontra peleatu gabe, eta oriek menderatu gabe, ezin salbatu gindezke: baña Jesu-Kristoren graziarekin, eta Ama Santisimaren bitartekotasunarekin, eta bien ejemploari jarraituarekin, goitu edo benzitu ditzakegu: alegiñak egiten ditugula, Ama Santisimaren bitartez, bear degun Zeruko argia, grazia, eta indarra sarri eskatzeko: eta egiazko humiltasuna, espirituko pobreza, animako, eta gorputzeko garbitasuna edo kastidadea: tenplanza: pazienza, eta alkarrekiko karidadea iristeko: eta azkartasunarekin obra onak egiteko, eta batez ere gere obligaziozko

lanak, ala jeneralak, nola partikularrak ondo osatzeko egiazko alegiñak egiten ditugula: orra zertan Ama Birjiña Santisimak gogotiana beti lagunduko digun, eta sarriena zer eskatu bear diogun: bada orrela beraren, eta bere Seme maitearen anzekoak izango gera, eta seguru betiko zoriona iritsiko degu. Baña orrez gañae-ra, gure premia edo nezesidade denboralen erremedioak ere eskatu deizkeogu. Baña nola eztakigun gure salbaziorako zer konbeni zakun: batez ere eskatu bear diogu, Jaungoikoaren borondate santuarekin gurea osoro konformatzeko grazia, eta indarra iritsi degigula: eta orra zer dan Ama Birjiñaren deboto egiazkoak, eta piñak izatea.

**G.** Eta nor dira debozioraen azala, eta iruripena baizik eztuenak? **E.** 1. Errezoak egiñaz kontentatzen diranak, bizimodu gaiztoa aldatzeko, eta birtuteak iristeko alegiñik egin gabe: eta 2. Dira errezoak ezeze beste obra onen batzuek ere egiten dituenak; baña ez bertatik pekatuari largatzeko, eta bizimodu on bat egiteko asmo, eta deseo egiazkoarekin; baizik orain nasai, eta gustora bizi, eta gero azkeneko gaitza, edo iltzeko ordua datorkienezan Ama Santisimak eriotza on bat, eta salbazioa iritsiko dielako uste edo esperanza eragabekoarekin, eta presunzioarekin. Orrelakoak

eskuarkiro, nola bizi, ala ill oi dira, eta Infernura doaz: Jesu-Kristoren, eta bere Amaren Etsaiak izan dira bizitzako denporan, eta burlaturik bere esperanza alper orrekin arkitu oi dira eriotzako orduan. Jaungoikoak arren guziok argitu gaitzala: orain bere Amaren anparoan ondo bizitzeko grazia digula: eta gero betiko gloria. Amen.